EUSKO LEGEBILTZARRARI TXOSTENA 1996

ARARTEKOAREN TXOSTENA
EUSKO LEGEBILTZARRARI
1996. URTEA

© ARARTEKO

Itzulpena: Lurdes Auzmendi eta Koldo Biguri
Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Paper erreziklatua.
ISBN: 84-89776-02-4. Liburu osoa.
L.G.: VI-105/97.

ARARTEKO

EUSKO LEGEBILTZARRARI TXOSTENA 1996

AURKIBIDEA

I. ATALA. AURKEZPENA 15

II. ATALA. ARARTEKOAREN IHARDUERA NAGUSIAK 21

2.1. OFIZIOZKO IHARDUERAK 24

2.1.1. Aurreko urteetako txosten ezohikoetan emandako gomendioen betetze maila kontrolatzeko ekintzak 24

2.1.2. Gure erkidegoko hiru kartzelen egoerari buruzko txosten monografikoa 33

2.1.3. Euskal Autonomia Erkidegoko arrisku eta babesik gabeko egoeran dauden adin txikikoentzako laguntza-zerbitzuei buruzko txostena 55

2.1.4. Euskal Autonomia Erkidegoko adin txikiko lege-hausleentzako laguntza-zerbitzuak 57

2.1.5. Araban sasoikako lana egiten dutenen arazoei buruzko lan monografikoa eta hobekuntza proposamenak 58

2.2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATUKO DITUEN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN LOTURA IZANGO DUEN KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO EKIMENAK 67

2.2.1. Talde, elkarte eta agente sozialekiko lankidetza harremanak 67

2.2.2. Ikerketarako bi beken deialdia 1996-97rako 72

2.2.3. Giza Eskubideei buruzko "Padre Francisco de Vitoria" Bilduma 73

2.3. GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO ERAKUNDE KIDEEKIN IZANDAKO HARREMANAK 74

2.3.1. Herri Defendatzaileen arteko Koordinaziorako XI. Ihardunaldiak 74

2.3.1.1. Parlamentuetako ordezkariek toki administrazioaz egiten duten kontrola 74

2.3.1.2. Bakerako heziketa 75
2.3.1.3. Emakumea erreklamatzaile gisa Ombudsman-en aurrean 80
2.3.1.4. Pobrezia eta elkartasuna 100
2.3.2. Herri Defendatzaileen Europako Biltzarra 111
2.3.3. Federazio Iberoamerikarreko herri defendatzaile, ordezkari eta giza eskubiderako batzordeen presidenteen Lehenengo Biltzarra 112
2.3.4. Harreman mailako beste iharduera batzuk. Munduko X. psikiatria biltzarra 112

III. ATALA. KEXEN LABURPENA SAILEZ SAIL 117

3.1. ARARTEKOAREN IHARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR 119
3.1.1. Aralaren antolakera 119
3.1.2. Zehar-gaiak: emakumeen, pertsona ezgaituen, adin txikikoen eta abarren arazo bereziak 119

3.2. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA 120
3.2.1. Sarrera 120
3.2.2. Aukeratutako kexa batzuk 122

3.3. KULTURA ETA ELEBITASUNA 127
3.3.1. Sarrera 127
3.3.2. Aukeratutako kexa batzuk 128
3.3.3. Ofiziozko iharduerak 141

3.4. HEZKUNTZA 147
3.4.1. Sarrera 147
3.4.2. Aukeratutako kexa batzuk 148

3.5. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA 158
3.5.1. Sarrera 158
3.5.2. Aukeratutako kexa batzuk 161
3.5.3. Ofiziozko iharduerak 184

3.6. OGASUNA 186
3.6.1. Sarrera 186
3.6.2. Aukeratutako kexa batzuk 188
3.6.3. Ofiziozko iharduerak 209
3.7. HERRIZAINGOA 210
3.7.1. Sarrera 210
3.7.2. Aukeratutako kexa batzuk 212
3.8. JUSTIZIA 220
3.8.1. Sarrera 220
3.8.2. Aukeratutako kexa batzuk 224
3.9. INGURUGIROA 227
3.9.1. Sarrera 227
3.9.2. Aukeratutako kexa batzuk 229
3.10. HERRI-LANAK ETA ZERBITZUAK 236
3.10.1. Sarrera 236
3.10.2. Aukeratutako kexa batzuk 237
3.11. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA 241
3.11.1. Sarrera 241
3.11.2. Aukeratutako kexa batzuk 242
3.11.3. Ofiziozko iharduerak 248
3.12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA 250
3.12.1. Sarrera 250
3.12.2. Aukeratutako kexa batzuk 250
3.13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA 252
3.13.1. Sarrera 252
3.13.2. Aukeratutako kexa batzuk 253
3.14. BESTE GESTIO BATZUK 260
3.14.1. Sarrera 260
3.14.2. Aukeratutako kexa batzuk 260

IV. ATALA. ESTATISTIKA 265

4.1. OHARPEN OROKORRAK 267

4.2. ESTATISTIKAK ALORREZ ALOR 270

4.3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTATISTIKAK 273

4.4. LURRALDEEN ARABERAKO ESTATISTIKA 281

4.5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA 284

4.6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA 292

4.7. HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA 294

4.7.1. Gasteizko hiritarrentzako informazio zerbitzua 295

4.7.2. Donostiako hiritarrentzako informazio zerbitzua 297

4.7.3. Bilboko hiritarrentzako informazio zerbitzua 298

4.8. OFIZIOZKO KEXAK 299

4.9. ARARTEKOAREN IHARDUERAREN BALORAZIOA 300

DIAGRAMAK 305

V. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA 353

5.1. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK 357

A) Eusko Jaurlaritza 357

B) Foru Aldundiak 359

C) Udalak 361

D) Beste erakunde publiko batzuk 370

5.2. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BI BIDER BAINO GEHIAGOTAN BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK 370

A) Eusko Jaurlaritza 370

B) Foru Aldundiak 371

C) Udalak 373

D) Beste erakunde publiko batzuk 377

5.3. ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKITEARREN, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK 377

A) Eusko Jaurlaritza 377

B) Foru Aldundiak 379

C) Udalak 380

D) Beste erakunde publiko batzuk 383

VI. ATALA. ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOAK BETETZE MAILA 385

6.1. ERANTZUN ETA/EDO BEHIN BETIKO EBAZPEN ZAIN DAUDEN GOMENDIOAK 389

6.2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK 403

6.3. ONARTUTAKO GOMENDIOAK 412

6.4. OFIZIOZ HASITAKO ESPEDIENTEETAN ARARTEKOAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE MAILA 420

VII. ATALA. GOMENDIO ETA IRADOKIZUN OROKORRAK 425

7.1. AURREKARI PENALEN ERAGIN DISKRIMINAGARRIA EKIDIN BEHARRA 427

7.2. HIRITARREK INFORMAZIO PUBLIKORAKO TRAMITEETAN AURKEZTEN DITUZTEN ARRAZOIBIDEEI ERANTZUTEKO ADMINISTRAZIOAK DAUKAN OBLIGAZIOARI BURUZ 435

7.3. FAMILIA UGARIEI BURUZKO EUSKAL LEGE BAT ONARTZEKO BEHARRA 439

7.4. HAUR-HEZKUNTZA ETA FAMILI ETA LANBIDE ARDUREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA 448

7.5. OSTALARITZA ESTABLEZIMENDU PUBLIKOETAN IPINITAKO MUSIKA APARAILUEK SORTUTAKO KUTSADURA AKUSTIKOAREN KONTROLA 457

7.6. ZABORRA ORDUTEGITIK KANPO ATERATZEAGATIK, KALEGARBIKETA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZEN AGINDUA

HAUTSI DUTENEI EZARRITAKO ZIGOR ESPEDIENTEAK, EGILETASUNA ETA ERRUGABETASUN USTEA 461

VIII. ATALA. AZKEN ONDORIOAK 465

GAIEN AURKIBIDEA 469

I. ATALA
AURKEZPENA

Joan den 1996. urteari buruzko arauzko txostena Eusko Legebiltzarrari aurkeztean, hiritarren kexen nondik norakoa azaldu nahi dut batez ere. Kexak aurkezten dituztenek eskubidedun pertsonatzat hartzen dute beren burua eta trataera horixe bera hartu nahi dute administrazio publikoetatik. Ondoko orrietan ordu askotako lana biltzen da laburturik, ordu asko igaro baititugu, izan ere, hiritarren kexak entzuten, haien gutunak irakurtzen, haietan azaldutako egoerak eta kexagileek emandako argudioak patxadaz irakurtzen. Orobat, beste ahalegin handi bat ere islatzen da orriotan: batetik, ikuskatu ditugun administrazioetako arduradunek emandako azalpen eta arrazoiei eskainitako arreta, eta, bestetik, hiritarrei atentzio hobea ematea eta haien eskubideekiko egiazko errespetua lortzeko asmoz Arartekoak eginiko gestioak eta proposamenak.

Ararteko erakundeak 1996an zehar egindako lanaren erretratu xehe honek helburu bikoitza dauka. Hasteko, erakundearen beraren ardura betetzea. Hau da, Goi Ordezkari honek Eusko Legebiltzarraren aurrean erantzun behar du; alegia, Legeak ipini dizkion zereginak betetzeko egin duenaren berri eman behar du. Eta gero, Legebiltzarraren beraren ardura betetzeko deia egitea, bere Ordezkariak urtean zehar egindako lan horren ondorioz irizpide askatasun osoz egiten dituen iradokizun eta gomendioak aintzat har ditzan.

Erakunde honen zeregina neurtzeko orduan, datu kuantitatiboak zein kualitatiboak izan daitezke kontuan. Lehenak era estatistikoan emango ditugu; bigarrenak, aldiz, azaldutako gaien azterketan isuritako arrazoi, irizpide eta argudioetan agertzen dira batik bat.

Datu kuantitatiboei dagokienez, aurten ere esan behar igo egin dela jaso diren kexen kopurua: aurreko urtearen aldean, %44'9. Gainera, erakundeko langileen lanaren irudi argia ematen duen zerbait ere aipatu behar da: hots, joan den 1996an zehar 1.041 kexa espedienteren biderapena bukatu dela. Horrek igoera oso handia esan nahi du, %81ekoa joan den urtearen aldean. Ofiziozko iharduerak, hau da Arartekoaren beraren ekimenez hasitakoak, 86 izan dira, hau da, iazkoa halako bi eta 1994koa halako lau.

Aipamen berezia merezi dute burututako azterlan monografikoak. *Euskadiko kartzelen egoera* aztertzeko egin genuena, aurreko urtean hasitakoa, joan den 1996an bukatu zen. Legebiltzarrari aurkezpena egin genionean, kontutan izanik zein testuingurutan gertatu zen, eztabaida handia piztu zen. Nire ustez, eztabaida hori lagungarria izan zen gai hau gizartera zabaltzeko, eta hori guztiz beharrezkoa da nahi badugu gizarteak ontzat hartzea proposaturiko neurriak. Urtean zehar begi onez ikusi dugu nola gure diagnostikoa eta gomendioak errespetuz aztertuak

izan diren, bai eta hobekuntzak egiteko ekimenak bultzatzeko erabiliak ere. Nabarmendu eta eskertu nahi dut Herri Defendatzaileak eskaini zion arreta, martxoaren 13an txostena helarazi eta gero. Ezohiko txosten horren jarraipen gisa, hainbat ekintza burutu ditugu euskal administrazio desberdinen aurrean, elkarlanerako bideak ireki eta, horrela, espetxeetako presoen eta haiekin lan egiten dutenen egoeran eragin onuragarria edukitzeko asmoz.

Aurtengo txosten honetan sartu dugun beste azterlan monografiko bat *Araban sasoikako lana egiten dutenen arazoei buruzko lan monografikoa eta hobekuntza proposamenak* izenekoa da. Izan ere, urtero mahatsa edo patata biltzea bezalako sasoikako lana egitera gure erkidegora etortzen den pertsona multzo handi honen egoeraz kezkatu egin gara. Azterlan horretan hainbat puntu jorratu dira: haien bizi eta lan baldintzak, umeen eskolatzea, bizilekua, osasun laguntza, etab. Alor honetan eskumena duten administrazioekin harremanetan jarri gara eta datorren urtean aplikatzeko moduko prebentziozko neurri batzuk proposatu ere egin dizkiegu.

Bestalde, oraindik ari gara aztertzen *EAEn babesik gabeko egoeran dauden adin txikikoentzako laguntza sistema* eta azterlanaren emaitzak laster eskaini ahal izateko moduan egotea espero dugu.

Bi berritasun gertatu dira 1996. urtean erakundearen ibilbidean. Bi nabarmendu nahi ditut: lurralde-bulegoak eta galde-sorta.

Erakunde honen goreneko postura iritsi nintzenetik izan ditudan kezketako bat erakundea hiritarrengana hurbiltzea izan da, hain zuzen. Horregatik, oso harreman estuak dauzkagu hainbat elkarte, gobernuz kanpoko erakunde eta abarrekin, ekintza sozialerako bide bat izateaz aparte, behar eta hutsuneen berri izateko tresna ere badirelako. Gainera, hiritarrek Arartekoa eskumenerago izan dezaten, joan den urtean zuzeneko harremanetarako bulegoak zabaldu ziren Bilbo eta Donostian. Hiritarrengandik hurbilago egoteko helburua daukan ekintza honen bidez, lurralde historiko guztietako biztanleek dute erreferentzia-puntu iraunkor bat beraien zerbitzuan. Bulego hauek oso harrera ona izan dute, izandako bisiten ugalpenak erakusten duen bezala: izan ere, nahiz eta bulego horiek urteko bigarren erdian ireki, aurreko urtearen aldean %165 bisita gehiago jaso ditugu guztira.

Iazko urteko txostenean datu kuantitatibo berri bat sartu genuen. Datu hori Arartekoari kexa aurkezten dioten hiritar guztien artetik arrazoia ematen zaienaren proportzioa da. Haren bidez, halako kopuru bat ateratzen da, urtez urte neur daitekeena, eta kexen tramitazioaren eraginkortasunari buruzko irudia ematen duena. Joan den urtean, tramitazioaren bukaerara iritsi diren kexa aztertu guztien artetik %43'42tan arrazoia eman zaie hiritarrei. Bestalde, esan behar da Arartekoak euskal administrazio publikoei zuzendu dizkien gomendio eta iradokizun guztien arteko hirutik bi ontzat hartuak izan direla.

Kopuru horiek oso altuak dira eta aurten ere berresten dituzte behartzearen bidea barik bitartekaritzaren eta arrazoiketaren bidea erabiltzen duen magistratura baten iharduerarren emaitzak. Emaitzok argi uzten dute prozedura horiek eraginkorrak eta egokiak direla auziak konpontzeko.

Baina, gainera, Arartekoaren zeregin bereziaren emaitzei buruzko datu objetiboez gain, garrantzitsua iruditzen zitzaidan, orobat, zerbitzu horren

erabiltzaileek zeukaten iritzia ere ezagutzea. Hau da, zertxobait gehiago hurbiltzea hiritarrengana, Arartekoaren lanari buruz zer pentsatzen duten jakiteko.

Honela, erakundeari laguntza eskatu dioten pertsonen ikuspegitik zein diren bere iharduerako puntu ahulak jakin daiteke, horiek hobetzen saiatzeko.

Helburu horrekin, 1996ko urtarrilaren 1etik aurrera, kexa baten biderapena bukatu eta kexagileari gure gestioaren emaitzaren berri jakinarazten zaionean, galde-sorta bat ere bidaltzen diogu. Bertan, nahi badu eta bere izena aitortu beharrik gabe, erakundeak zerbitzu publiko bezala egindako laneko hainbat puntutaz zer pentsatzen duen erantzun dezake: adibidez, jaso duen informazioaz, igarotako denboraz, arazoa konpontzean izandako eraginkortasunaz, etab. Ekimen horrek oso harrera ona eduki du, jaso ditugun erantzunen kopuruaren argitan (%50 inguru). Ondorio oso fidagarriak atera dira, haietan oinarrituta; horixe ziurtatzen dute, alde batetik, laginaren tamainak berak eta, bestetik, aztertutako populazio multzo osoarekiko alde nabarmenik ez egoteak.

Erantzunek oso irudi ona ematen dute Ararteko erakundeak eskaintzen duen zerbitzuaz, eta bertan lan egiten dugunoi kemen berria ematen digute ahalegin horri eusteko. Era berean, haietan jasotzen diren kritika eta iradokizunak ere akuilu dira guretzat, erabiltzen diren prozedurak hobetzen jarraitzeko.

Bestalde, Arartekoak antzeko erakundeekiko harremanetan jarraitu du; horrela, joan den urtean zehazki, hainbat bileratan parte hartu zuen: Leonen irailaren 25 eta 26an egindako Defendatzaileen XI. Ihardunaldietan; Europako Ombudsman Institutuak Ljubljanan (Eslovenian) irailaren 21ean egindako asanbladan; eta Mexikoko Querétaro hirian, apirilaren 15-19an, Ombudsman Federazio Iberoamerikarren Kongresuan.

Txostenean ikus daitekeen bezala, topagune horietan izan ditugun partaidetzetan bi gai aztertu ditugu: batetik, *Pobrezia eta Elkartasuna*, NBEko Asanbladak erabakitako Pobrezia Desagertarazteko Nazioarteko Urtearen barruan; eta bestetik, *Emakumeak erreklamatzaile gisa Parlamentuetako Ordezkarien aurrean*.

Herri Defendatzaileak antolatu eta koordinatutako ekitaldi batzuetan ere hartu dugu parte. Adibidez, El Escorialeko Udako Unibertsitatean uztailaren 18an egin zen Intsumisioa eta Kontzientzi Eragozpenari buruzko Ihardunaldian; eta Madrilen abuztuaren 24an, Munduko X. Psikiatria Kongresuan, *Gaixo mentalen eskubideen babesa* izeneko hitzaldi batez.

Lan hauek guztiak giza eskubideen sustapenean eta horien aldeko lana egiten duten erakundeentzako laguntzaren barruan sartzen dira.

Helburu berarekin, bi beka eman dira bi gai jorratzeko: bata, *Justicia, Paz y Protección Internacional de los Derechos Humanos: la experiencia del Tribunal Penal Internacional para la antigua Yugoslavia*; eta bestea, *Mecanismos de inclusión y exclusión social para las personas seropositivas en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Gainera, Fray Francisco de Vitoria bilduman beste bi azterlan argitaratu dira: *El control interinstitucional en la Unión Europea*, Mª José Fernández de Landa Montoyarena, eta *Hezkuntza eta hizkuntza eskubideak indarreko lege-araubidean*, Ander Bergararena.

Legearen arabera Arartekoak dauzkan prebentziozko betekizunei dagokienez, erakunde honek eskumena dauka administrazioaren jokabidean, bai eta

lege-arauetan ere, aldaketak sar daitezela iradoki eta gomendatzeko; betekizun horren barruan, ondoko gomendio orokor hauek agertu nahi dizkiot Legebiltzarrari:

. Aurrekari penalen eragin diskriminagarria ekidin beharra.
. Herritarrek informazio publikorako tramiteetan aurkezten dituzten arrazoibideei erantzuteko Administrazioak daukan obligazioari buruz.
. Familia ugariei buruzko euskal lege bat onartzeko beharra.
. Haur hezkuntza eta famili eta lanbide arduren arteko bateragarritasuna.
. Ostalaritzako establezimendu publikoetan ipinitako musika aparailuek sortutako kutsadura akustikoaren kontrola.
. Zaborra ordutegitik kanpo ateratzeagatik, kale-garbiketa arautzeko udal ordenantzen agindua hautsi dutenei ezarritako zigor espedienteak, egiletasuna eta errugabetasun ustea.

Gonbidatu nahi dut irakurlea orri hauetara hurbil dadin, gure herriko gizonemakumeek dauzkaten beharrizan larrien taupada sentitzera, haien zerbitzuan egon behar duten administrazioekin arrazoi bategatik edo bestegatik pozik ez dauden pertsonen ahotsa ezagutzera.

Zalantzarik gabe, irakurleak hainbat puntu ilun aurkituko ditu. Hain zuzen ere, ombudsman baten zeregin nagusia hiritarren kexak, ezintasunagatikako oinazea eta neke asko eskuratzea da. Gizartearen ifrentzuari egindako begirada hori baliagarria izan bekigu hura hobeto ulertzeko.

Ulerpen horretatik abiatuta, Arartekoak pertsonen arteko elkarrizketa, bitartekaritza eta elkartasun sakonerako erreferente garbia izan nahi du. Herri honetan laguntza beharrean dagoen biztanlearen aldamenean ibiltzea, haren eskaria gure eginez, erakunde honetan egunez egun lan egiten dugunon errealitatea da. Lan gogorra da, bai, baina baita ederra ere.

ARARTEKOA
Xabier Markiegi Candina

II. ATALA
ARARTEKOAREN IHARDUERA NAGUSIAK

Atal honetan zenbait iharduera azaldu nahi ditugu, hiritarrek aurkezturiko kexa-espedienteen biderapen hutsa ez izanagatik ere, erakunde honen helburua -hots, eskubideak babestea- lortzeko oso garrantzitsuak direnak.

Atala hiru zatitan egituratuta dago:

Lehen zatiak 1996. urtealdian burututako ofiziozko iharduerak isladatuko ditu.

Ofiziozko iharduera zehatzak III. atalean adieraziko dira; hartara, Arartekoaren ekimenak alorren arabera bilduko dira, ekimen horiek ofiziozkoak izan nahiz norbaiten eskarik burututakoak izan.

Hala ere, urtean zehar egindako azterlan monografikoen berri jasoko dugu atal honetan, bai eta aurreko urteetako aparteko txostenen segimendurako egindako ekintzak ere.

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoera aztertzen duen txostena bukatzeko 1996an burutu diren ekintzak azalduko ditugu. Txosten hori urte horretxetan bertan ezagutarazi zitzaion Eusko Legebiltzarrari.

Bestalde, Euskadiko Autonomia Erkidegoan arrisku eta babesik gabeko egoeran dauden umeentzako zerbitzuen egoerari buruz urte honetan bukatu den azterlanaren lehen zatia ere aipagai izango dugu.

Gainera, 1996ko azken hiru hiletan hasi eta 1997an bukatuko den adin txikiko lege-hausleei buruzko azterlanaren berri ere emango dugu.

Bigarren zatian, giza eskubideak errepetatzeko kultura sortzen lagunduko duten ekimenak jaso ditugu, hori oso beharrezkoa baita gure erkidegoan. Zati honetan, aurreko urteetan erabilitako bideari jarraitzen dioten ekimenak bildu dira, esate baterako, giza eskubideen alorrean bi ikerketa-beka emateko deialdia edo gai horri buruzko monografien argitalpena.

Ataltxo batean, bestalde, erakunde honek euskal gizarteko sektorerik eragileenekin, beraien elkarte eta gobernuz kanpoko erakundeen bitartez izan dituen harremanak ere aipatu nahi ditugu, gizarte zibilera hurbildu eta haren arazo eta kezkak jaso eta bideratzeko egiten ari garen ahaleginaren erakusgarri.

Zati horren helburua garrantzi bereziko gai batzuei buruz herri defendatzaile guztiek onartu dituzten akordioak nabarmentzea da, bai eta topagune horietan Arartekoak egindako bi hitzaldi oso-osorik ekartzea ere, hitzaldiok txosten honen bidez hedadura handiagoa izan behar dutela uste dugulako.

Azkenik, erakundearen harremanen azalpena bukatzeko, Arartekoak Madrilen egin zen Munduko Psikiatria Kongresuan izandako partaidetza ere emango dugu.

2.1. **OFIZIOZKO IHARDUERAK**

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen 3/85 Legearen 17. artikuluak dioenez, "*bere berenezko bideaz arauz-kontrako egoeraren bat ezagutu dezanean, bere arioz ekin ahal izango dio argitarapenari*".

Ofiziozko iharduerak gero eta garrantzitsuagoak bilakatuz joan dira, eta erakundeak administrazioren baten jokaerak agian eskubideren bat urratzen duela edo, besterik gabe, jokaera hori ez dela zuzena eta lehenbailehen esku hartu beharra dagoela jakiten duenean ematen duen erantzuna dira.

Arartekoaren lanaren zati nagusietako bat hiritarrek aurkeztutako kexak ebaztea den arren, ofiziozko iharduerak funtsezko garrantzia dute, aukera ematen baitute administrazio publikoko sektore jakin batzuetan esku hartzeko era antolatu batez eta ikuspegi orokorrarekin, alde batek aurkeztutako kexen ebazpenekin gertatzen ez den bezala.

Horregatik, erakunde honek gure gizartean babesik gutxieneko egoeran dauden gizataldeei buruzko azterlan sakon bat behintzat egin nahi du, txosten monografikoan bildu eta Eusko Legebiltzarrari aurkezteko.

Aurreko urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletxeen eta Ertzaintzaren atxiloketa zentroen egoera, zentro psikiatrikoena, eta hirugarren adinekoentzako egoitzena aztertu dira.

Joan den 1996an aurreko urtean osatutako azterlan monografikoak aurkeztu zitzaizkion Eusko Legebiltzarrari: hirugarren adinekoentzako egoitzaz kanpoko asistentziari buruzkoa bata, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko kartzelen egoerari buruzkoa; bestalde, oraindik aurkeztu gabe dago adin txikikoen egoerari buruzko txosten bat, bere konplexutasunagatik bi lan desberdinetan banatuta egiten ari dena: bata adin txikiko legehausleei buruzkoa da, eta bestea babesik gabeko egoeran dauden adin txikikoei buruzkoa; biak 1997an zehar aurkeztuko zaizkio Legebiltzarrari.

Joan den 1995. urteko Txostenean, ofiziozko iharduera kopuruaren igoera nabarmendu genuen. Bada, 1996an zehar, 86 izan dira burutu direnak, hau da %126 gehiago aurreko urtean baino. Halaber, txosten horretan finkatutako metodologiari jarraituz, ofiziozko iharduerak ez ditugu atal honetan lantzen, hirugarrenean baizik, eta dagozkien alorretan sartu ditugu kexen biderapeneko iharduerekin batera.

Atal honetan, hala ere, aurreko urteetako txosten monografikoetan sartutako gomendioen ildotik 1996an burututako ekintzak sartu dira.

2.1.1. **AURREKO URTEETAKO TXOSTEN EZOHIKOETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE MAILA KONTROLATZEKO EKINTZAK**

Udal kalabozo eta gordetegiak

Gai honi buruz, txosten berezi bat osatu zen 1991. urtean; bertan, gure inguruko beste herrialdeetako kalabozo eta atxilotegien funtzionamenduari buruzko

arau-aurrekariak eta zuzenbide konparatuzko azterketak seinalatu, eta gure iharduera-esparruan ikuskatu genituen zentroetan aurkitutako akatsak zehaztu genituen; gainera, ondorio gisa, zenbait gomendio egin ere egin genituen, atxilotegiek eduki beharreko baldintzei eta atxilotuentzako trataerari buruz.

Txosten horretan esaten genuen herri berean atxiloketa zentro bat baino gehiago egotea gerta daitekeela, eskumen-esparru desberdinak egoteagatik.

Gure azterlanean, udalen eta Ertzaintzaren kalabozoen egoera ikertu genuen, biak erakunde honen kontrol esparruan sartzen diren administrazio zerbitzuak direlako.

Txostenok lan tresna izatea eta beraietan sartutako gomendioek zerbitzu publiko hori hobetzeko balio izatea da gure asmoa. Ildo horretatik, zenbait ofiziozko iharduera burutu ditugu txosten hartako gomendioak nola betetzen ari diren kontrolatzeko.

Udal kalabozoak

Zigor Kode berriko 37. artikuluaren arabera, askatasuna kentzeko zigorrak betetzeari dagokionez, asteburuetako atxiloketa udal kalabozoetan bete daiteke zigorpetua bizi den barruti judizialean espetxerik ez badago.

Xedapen hori beste arrazoi bat da gure gomendioak nola betetzen ari diren aztertzeko egin beharreko kontrola burutzeko.

Ertzaitza euskal herrietan hedatuz joan den neurrian, berak hartu du bere gain atxilotuen zainketa, eta udal kalabozo batzuk itxi egin dira, **Gernika-Lumo**n adibidez.

Hori baino lehen, eta gure txostenaren eraginez, **Ordizia**ko udaltzaingoaren kalabozoa itxi zen, eta bertan atxilotuta zeudenak **Beasain**go Ertzainetxera eraman ziren.

Beste kasu batzuetan, **Errenteria**n adibidez, udal kalabozoaren instalakuntzak erabiltzen jarraitzen dute, baina denbora gutxirako neurri bezala, oraindik bukatu gabe daudelako kokaleku berria edukitzeko egiten ari diren obrak.

Instalazio horietara egin genuen bisitan ikusi ahal izan genuen ez zeudela erabiltzen jarraitzeko moduan, eta, oso gutxi erabiltzen direla egia izan arren, komenigarria litzateke berria bukatzen ez den bitartean atxilotuak beste leku batera eramatea.

Donostiako udal kalabozora egin genuen ikustaldiak ere irudi txarra utzi zigun, ez instalazioak eta ez haien kontserbazio egoera ere ez direlako duinak edo onargarriak. Urtean zehar 800 eta 1.000 pertsona bitartean jasotzen dituzten lekuak izanik, baldintza egokiagoak behar dira.

Hasteko, nahiz eta ibilgailuek sarrera berezia izan kanpoaldetik, eraikinaren barruko sarbidea eskailera zati batzuetatik egin beharra dago, eta haietan ez da bete arauetan aurreikusita dauden eraikuntzazko eta hirigintzazko oztopoak kentzeko neurrietako bakar bat ere.

Kalabozoen barruari dagokionez, agian instalazioen ezaugarrien eraginez, zikin itxura eta kiratsa dutela esan behar da. Kalabozoa sotoan dago, 1'30x3

metroko banakako bi zelda dira eta beste bi zelda bikoitz, 3x2'30 metrokoak gutxi gora-behera.

Atxilotuei eskuratzen zaizkien tapaki eta koltxoiek sarritan erabiliak izateko itxura dute; horregatik, estera eta tapaki botagarriak erabiltzea komeni da.

Gainera, errekonozimendua eta aitorpenak egiteko gela txikia da eta gaizki hornituta dagoenez, nekez esan daiteke egokiak direla bertan egiten diren betekizunak burutzeko, hots, errekonozimendu gurpilak, aitorpenak hartu, abokatuarekin hitz egin, etab. Beraz, handiagotu egin beharko litzateke.

Gomendagarria da beste zainketa sistema batzuk erabiltzea, izan ere zelda barruan telebista kamera bat jartzea atxilotutako pertsonen intimitatearen kontrako erasotzat har baitaiteke.

Durangoko Udaltzaingoaren instalazioetara bisita egin genuen, ikusteko ea udal agintariek neurririk hartu al zuten atxilotegiaren baldintzak hobetzeko, gure txostenean gomendatu genuen bezala.

Ikusi genuenez, instalazioetan aldaketak egiten hasiak ziren eta obrak bukatzeko zorian zeuden. Instalazio horietan lau zelda zabal daude, garbiketa erraz egiten uzten duen pintura berezi batez margotuta. Haietako batek dutxa dauka eta bertan burdinbarrak ipini dira, klaustrofobia duten pertsonek nahiago dituztelako era honetako instalazioak. Kalabozoaren kokaerak ordea ez du aukerarik utzi zeldetan leihorik egoteko, baina haien aurreko horman, erdi parean, kristal lausoko leiho bat dago, tokiari zabaltasun handiagoa ematen diona.

Atxilotuak gutxi direnez gero, zelda bakoitzak kalefazio eta aire hotzerako sistema dauka.

Kalabozoa komisaldegiaren ondoko eraikin batean dago, lehenago epaitegi izandakoaren beheko solairuan; ez dauka ibilgailuentzako sarbide berezirik, baina alboko patio batetik sarrera zuzena edukitzeko obrak egin litezke, eta, beraz, gomendagarria da obra horiek egitea.

Durango, 24.000 biztanle dituen herria izanik, eskualdean atxilotegia daukan udalerri bakarra da. Udaltzaingoak gaueko lan-ordutegia daukan bakarra ere bada. Polizia judizialaren zereginetan aritzen den unitate berezi bat ere badauka, hiru agenterekin eta arduradun batekin. egun, etxeko atxiloketez arduratzen ari da, baina ez dakite lan horretan zer nolako eragina edukiko duten zigor kode berriko aginduek.

Ertzaintzaren kalabozoak

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila kalabozoak bermoldatzeko obra handiak egiten ari da, 1994ko apirilean Torturaren prebentziorako Batzordearen ordezkaritza baten ondoren Europako Kontseiluak egindako gomendioen ondorioz; ondorio horiek, gainera, funtsean bat zetozen Arartekoaren aparteko txostenean egindako gomendioekin. Ertzaintzaren atxiloketa zentroak egokitzeko plan horregatik, leku horietako asko obratan daude gaur egun, eta egoera hori kontutan eduki genuen gure bisiten egutegia osatzeko orduan.

Horrela, Ertzaintzaren **Errenteria**ko kalabozoa bisitatu genuenean, ikus genuen obratan zegoela eta, bitartean, atxilotuak Ertzaintzaren **Amara**ko azpi-komisaldegian (Donostian) hartzen ari zirela.

Ondoren, azpi-komisaldegi hori bisitatzean ikusi ahal izan genuen atxilotuen lekualdatze hori ez zela jasotzen erregistro liburuan. Atxilotuen zainketa jatorrizko komisaldegiko agenteek egin behar badute ere, gomendagarria da era horretako edo bestelako zertzelada bat atxilotu liburuan ere jasota geratzea.

Hernaniko komisaldegira egindako bisitan ikusi genuen banakako zelden tamaina ez zela gure gomendioetan esaten genuena ez eta Europako arautegian finkatuta dagoena ere; izan ere, hango zortzi banakako zeldek 1'80x2'55 m dauzkate gutxi gora-behera.

Komunak 1x2 mko azalera dauka eta atxilotuen intimitaterako inolako sistemarik ez du. Egokitzeko obrak egin beharko lirateke.

Ertzaintzak **Tolosa**n daukan kalabozoa bisitatu nahi izan genuenean, obratan zeudela eta atxilotuak Beasaingo komisaldegira eramaten zirela esan ziguten.

Bertara egin genuen bisitan ikusi ahal izan genuen komunetak ez zegoela inolako sistemarik atxilotuen intimitatea ziurtatzeko. Egokitzeko obrak egin beharko lirateke, tamaina erdiko hormak jarriz-edo arazo hori konpondu ahal izateko.

Donostian, **Amara** eta **Ondarreta**ko kalabozoak bisitatu genituen.

Lehendabizi, Amarako azpi-komisaldegia ikusi genuen; esan bezala, bertara eramaten ziren Errenteria eta Ondarretan atxilotutakoa, bi komisaldegiak obratan zeuden bitartean.

Azpi-komisaldegi horretan normalean atxiloturik egoten ez den arren, une hartan egoera guztiz bestelakoa zela ikusi genuen. Izan ere,hango banakako 12 zeldetatik 8 hustu berriak zeuden. Haietatik 5 fumigatuta zeuden eta horregatik 24 ordutan ezin ziren erabili.

Goialde hartan Errenterian atxilotutako 18 urteko mutil batekin hitz egin genuen; ez zeukan esterarik eta tapaki bakarra eskuratu zioten lotarako.

Amaran ez daukate atxilotuentzako erregistro libururik, eta jatorrizko komisaldegian (Errenteriakoan) ere inon ez zegoen jasota lekualdatzea gertatu zela.

Ondarretako komisaldegian obrak egiten ari zirela eta beraz epe baterako erabili ezinik zegoela jakin arren, hara joan ginen Amaran atxilotutako pertsonen erregistro libururik ba ote zuten ikusteko. Bertan esan ziguten ez zela beharrezkoa lekualdaketak erregistratzea, kalabozo guztiak Ertzaintzaren eraikinak direlako. guk, ordea, atxiloketaren nondik-norako guztiak eta lekualdaketak ere jasotzea komeni dela erantzun genuen.

Bilbon, Ertzaintzaren kalabozoak bisitatu genituen, bai **Txurdinaga**ko komisaldegikoak, bai **Deustu**ko ertzainetxekoak ere.

Txurdinagakoak trafiko unitate lanak egiten ditu, eta beraz atxilotu gutxi edukitzen dituzte bertan, baina noizean behin Deustuko komisaldegitik bidalitako atxilotuak hartzen dituzte. Bertan, 12 zelda daude, gutxi gora-behera 3x2 m dituztenak. Haietako bik burdinbarrak dituzte, eta bat handiagoa da eta atxilotu multzoentzat erabiltzen da. Bi komun eta dutxa bat ditu, baina batek ere ez dauka

sistemarik atxilotuen intimitatea ziurtatzeko. Beste komisaldegi batzuetan egin duten bezala, komenigarria da tamaina erdiko paretak ipintzea.

Kalabozoetako kalefazioa eraikin osoak daukan sistema bera da eta, esan zigutenez, azkenaldian arazo ugari edukitzen ari dira. Bisita egin genuen unean hotz handia zegoen eta atxiloturik ez zegoen arren, komenigarria litzateke sistema osagarriren bat ipintzea, komisaldegiko beste leku batzuetan bezala.

Atxilotuen erregistro liburua aztertu genuenean ikusi genuen orriek ez zutela inolako zenbaketarik. Horrek datu-faltsuketak sortu ditzakeela eta konpondu egin behar zela esan genien.

Ertzaintzaren Deustuko komisaldegiak itxura egokia du, baina hango zeldetako batzuk txikiegiak dira. Instalazioak berriak dira, egoera onean daude, eta pintura plastikoa erabili da garbiketa errazteko. Dutxan eta komunean neurriren bat hartu beharko litzateke atxilotutako pertsonen intimitatea ziurtatzeko.

Komisaldegiko 1996 urteari buruzko liburuak miatu genituenean, orriak zigilatuta eta zenbakituta zeudela ikusi genuen. Hala ere, hango liburuek errakuntzak sortaraz ditzakete, 50 atxiloketa bakarrik erregistra daitezkeelako, liburu bakoitza 1 zenbakiarekin hasten baita. Horregatik, urtean zehar egindako atxiloketa guztiak zalantzarik gabe jakin ahal izateko eta haietako bakoitzaren zenbakia ezagutzeko moduko sistemaren bat ipin dezatela gomendatu genuen.

Ertzaintzak **Sestao**n daukan komisaldegian ikusi genuenez, obrak egiten ari ziren kalabozoak Arartekoaren gomendioetara eta Europako arautegira moldatzeko. Bai zelden neurriak eta argiketa, bai haietan erabilitako materialak egokiak iruditu zitzaizkigun. Obrak bukatzen direnean, beste ikustaldi bat egin nahi dugu, instalazio horien eta atxilotutako pertsonengan eragina eduki dezaketen beste elementu batzuen egoera zein den jakiteko.

Ertzaintzaren **Zornotza**ko azpi-komisaldegia bisitatzera joan ginen jakin genuelako Durangoko komisaldegian bermoldatzeko obrak egiten zituzten bitartean bertara edo Durangoko udaltzaingoaren instalazioetara eramaten zirela atxilotuak.

Hala ere, azpi-komisaldegi horretako ertzainek aditzera eman ziguten zentroa inauguratu zenetik, orduan bost urte gutxi gora-behera, atxilotutakorik ez zela egon. Dena berria zen eta garbia zegoen, baina ez da erabiltzen.

Kalabozoan 4x2'20 mko zelda bakar bat dago. Pintura berezi bat erabili da garbiketa errazteko. Zelda barruan kristal lausoko leiho bat dago. Zentroan ez dago atxilotuentzako armairurik, tapakirik eta esterarik. Komunak ez dauka intimitatea ziurtatzeko sistemarik.

Erregistro liburua eskatu genuenean, horrelakorik ez dutela esan ziguten, bai eta durangoko komisaldegitik atxiloturik bidaliko balute, bertan egingo luketela erregistroa.

Kalabozoa noizbait erabili behar bada, beharrezkoa da atxilotuentzako armairua egotea, eta komunetan sistemaren bat ipintzea atxilotuen intimitatea ziurtatzeko.

Zornotzako azpi-komisaldegia bisitatu eta bertan Durangoko komisaldegitik bidalitako atxiloturik hartu ez zutela ikusi ondoren, instalazioak miatzea eta kalabozoen egoera eta ezaugarriak bertan aztertzea erabaki genuen.

Obratan dauden tokiak bisitatu eta ikusi ahal izan genuen bertan badagoela ibilgailuentzako sarbide berezi bat, eta aurreikusita dagoela leku bat atontzea argazkiak egiteko, atxilotuaren aitorpenak hartzeko, errekonozimendu gurpilak egiteko bai eta bisitak hartzeko ere. Komunetan tamaina erdiko paretak ipini dituzte intimitatea ziurtatzeko. Dena dela, obrak bukatzeko denbora beharko da oraindik.

Harrituta geratu ginen Zornotzako komisaldegira atxiloturik bidaltzen ez zutelako, eta erantzun moduan esan ziguten Durangoko Epaitegiak goizez bakarrik funtzionatzen duenez gero, askotan, larriak ez diren delituen kasuan, atxilotuak etxera bidaltzen dituztela, epailearen aurreko agerraldia egiteko hitzordua ipiniz. Gaua atxilotuta igaro behar izanez gero, udaltzaingoaren kalabozoetara bidaltzen omen dituzte, eta erretentzioa ordu gutxitarako denean bakarrik erabiltzen omen dira lehengo instalazioak.

Kalabozo zaharra eraikin nagusiaren ondoan dago, eta gutxi gora-behera 1'5x3 mko lau zelda ditu, horietako bi aldi baterako erabiltzeko prestatu direlarik. Beste biak biltoki moduan erabiltzen dira. Eraikinak berak eta zeldek zikin eta abandonatu itxura dute, bertan egoteko gutxienezko baldintzak ez dituzte betetzen, eta horregatik ez erabiltzeko gomendioa eman genuen.

Atxilotuen liburua begiratu genuenean, bertan atxilotuak beste leku batzuetara aldatzen zirenean inolako aipamenik ez zela jasotzen ikusi genuen. Gure proposamenak harrera ona izan zuen arren, arazo hori bera beste leku batzuetan ere aurkitu genuenez gero,eta erabilitako sistema komisaldegi guztientzat berdina izanik, proposamen hori Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari zuzentzea erabaki genuen, kontuan hartu eta Ertzaintzaren instalazio guztietan har dezaten.

Beste gomendio orokor bat ere egin nahi dugu, komisaldegi askotan bermoldatze obrak egiten ari direlako; hau da, obrak aprobetxatuz, hirigintzazko eta eraikuntzazko oztopoak ken daitezela, ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbidea errazteko.

Orobat, komenigarria litzateke obrak egitea kalabozo guztietako dutxa eta komunetan pertsonen intimitatea ziurtatzeko. Gainera, kontuan izan behar da atxilotutako emakumeen kopurua asko handitu dela azken urteotan eta kalabozoetatik adin eta sexu guztietako pertsonak pasatzen direla, eta, beraz, atxilotuta dauden bitartean derrigor zaindu behar dela haien intimitatea, baita denbora gutxi egon behar badute ere.

Hirugarren adinekoen egoitzak

Gure erkidegoko hirugarren adinekoentzako egoitzei buruz egin genuen aparteko txostenean, gizatalde horrentzako zerbitzu publikoetan aurkitzen diren behar eta gabezien artetik babes berezia behar dutenak azpimarratu genituen.

Azterlanean genioenez, EAEko egoitzen eskaintza euskal aiton-amonen artetik %3'34ra bakarrik iristen zen. Bestalde, ezgaitasunak jasaten dituzten aiton-amonek behar duten asistentzia kontuan izanik, lehentasuna eman behar zaie gizatalde horren beharrizanei.

Azterlanean garbi adierazi genuen eraikitzen ziren egoitza berriek eredu mistoa erabili beharko luketela eta lehentasuna eman behar zitzaiola beti ezgaitasunak dituzten pertsonen sarrerari. Era berean, asistentzia eskaintza alternatiboak egotea komeni zirela ere esan genuen, hain zuzen ere pertsona zaharrek beren betiko inguruan bizitzen jarraitu ahal izateko.

Asistentzia eskaintzaren igoerak, egoiliarren ezaugarriek eta zerbitzu sozialei buruzko arautegi berriak nabarmenki ulertarazten dute beharrezkoa dela gure gomendioen segimendu zabala egitea, bai eta gune soziosanitario deitu denari definizio berria ematea ere.

Joan den 1996. urtean bi egoitza bisitatu ditugu: burujabe ez direnentzako Leioako Egoitza, jabetza publikokoa, eta Álava Klinika pribatua, hain zuzen ere biak puntu batzuetan zuzen ez egoteagatik agertu zirelako txostenean.

Instalazioen egoera behatu eta hirugarren adinekoentzako egoitzei buruzko txosteneko gomendioen segimendua egin nahi genuen bisita horretan.

Álava Klinika

Vitoria-Gasteizko kanpoaldeko auzo batean kokatuta dago, espazio zabalak ditu, ondo argituak, bai eta lorategiak ere, egoiliarrek udan batez ere erabiltzen dituztenak.

Gure txosteneko gomendioetako bakar bat ere ez dute bete, eta denborarekin gertatzen den hondamenagatik begibistakoa da instalazioak zaharberritu beharra.

Gurpil-aulkiak ez dira sartzen geletako komunetan, ez dago irrist ez egiteko gainazalik ez eta txirrinik ere bainugeletan. Bainugela geriatrikoak erabiliz konpondu da arazo hori.

Aisialdiko ekintzak oso gutxi dira. Ez dago errehabilitazio zerbitzurik, ez iharduera bidezko terapiarik ez eta psikoterapiarik ere, nahiz eta egoiliarren ezaugarriengatik -gehienek beren burua gobernatzeko mendekotasun maila handia daukate, eta haietako batzuk gainbehera fisiko eta psikiko handia jasaten dute- ezinezkoa izan beste zentroetan balio duten estandarrak erabiltzea. Zentroko zuzendaritzak esan zigun aztertzen ari zirela era honetako ekintzak egiteko lantalde baten kontratazioa.

Álava klinika zentro misto bezala antolatuta egonda -alde batetik, laguntza premiadunentzako egoitza da eta bestetik eritetxe berezia-, eta disfuntzio larriak dauzkaten pertsonak gero eta gehiago tratatu beharra dutenez gero, gune soziosanitarioen definizio berria egin behar da era horretako egoiliarrek dauzkaten arazoak konpondu ahal izateko.

Leioako egoitza

Txostena osatu genuenean antzeman genituen arazoak konpondu ordez larritu egin dira, denboraren igarotzeak eta gauza materialetan inbertsiorik egin

ez izanak sortutako hondamenagatik. Beste alde batetik, egoiliarrek gero eta ezgaitasun handiagoak jasaten dituzte.

Erabilgarritasunari dagokienez, bainugela geriatrikoetan bakarrik dago irrist ez egiteko zorua. Hala ere, arazorik gehienak eraikinaren ezaugarriengatik gertatzen dira. Izan ere, egoiliarren egoera oso penagarria da, egoitzako 60 geletan launa ohe daudelako, gurpil-aulkia, garabia edo bestelako laguntzarik erabiltzeko espazio nahikorik gabe. Bestalde, ondoko galeriak jantoki bezala gero eta gehiago erabiltzen direnez gero, arazo higieniko-sanitarioak sortu ez ezik, pertsonen intimitatea kaltetzen duten egoerak gertatu ere gertatzen dira.

(Gaur egun, egoitzan dauden 300 egoiliarren artetik 87k bakarrik erabiltzen dute jantokia, eta gainontzeko 213ek galerietan egiten dituzte otorduak. Gosariak logela ondoan zerbitzatzen dira, gaueko zikinkeria garbitu aurretik, eta askotan gertatzen da pertsona batzuk afaltzen ari diren bitartean beste batzuk biluzten egotea pasiluetan.)

Zentroko ekitaldietan oso partaidetza gutxi dago. Gaur egun, eskaintza murriztu egin da, animazio eta aisialdiko pertsonala kendu egin delako. Azterketa egin genuenean, bi pertsona zeuden kontrataturik lan horiek egiteko, eta egun borondatezko pertsonalarekin bakarrik ari da funtzionatzen.

Borondatezkoen lana oso garrantzitsua den arren, komenigarria da adituen esku egotea ekintzen antolaketa eta programazioa, nahiz eta horietan borondatezkoek ere parte har dezaketen.

Zentroko gizarte laguntzaileak kezkatuta agertu ziren, egunero hainbat arazo juridikori aurre egin behar izaten dietelako legezko babes egokirik eduki gabe. Arazo nagusia ezgaitasunena da. Askotan, berez zaintza edukiko balute bezala jokatu behar dute, euskarri juridikorik eduki ez arren. Gomendagarria da IFASek bere gain hartzea egoiliarren tutela, beste aukerarik ez dagoenean senitartekorik edo hurkorik ez dagoelako beren gain hartzeko.

Beste arazo bat Bizkaiko Lurralde Historikoko azaroaren 2ko 180/93 Foru Dekretuak planteatzen duen segurtasun juridikorik eza da. Izan ere, dekretu horren 9. artikuluan zor aitorpenaz hitz egiten da, nahiz eta agindu horrek arau-garapenik eduki ez, betekizun hori zein kasutan esiji daitekeen zehazteko.

Gaur egun, hainbat fenomeno ari dira gertatzen gizartean sakon aztertu behar direnak behar bezalako erantzuna emango bazaie.

Alde batetik, biztanleria ugariko udalerriek, langabeziak eragin handiagoa izanda, ezin dituzte egin legearen arabera dagozkien ekarpenak, eta, hain zuzen ere, haietan bizi diren pertsonak izaten dira zerbitzu horien premiarik gorriena dutenak. Arduradun publikoek arazo horiek konpontzeko neurriak ipini beharko lituzkete, babes beharrik handiena duten gizataldeei behar dituzten laguntzak emateko.

Bestalde, aiton-amonentzako egoitzetan ezgaitasunak eta hondamen mental handia jasaten dituzten gero eta pertsona gehiago daude.

Horren ondorioz, zentro berean elkarrekin bizi dira iharduera bidezko ekintza gero eta gutxiago dauzkaten egoiliarrak eta, beraien hondamen mentalagatik, zentroan bertan laguntza psikiatrikoa jaso beharko luketenak, kasu larrietarako bakarrik utziz zentro psikiatriko batera aldatzeko aukera.

Hau guztia dela medio, beharrezkoa da gune soziosanitarioak definitu eta koordinatzea, adituak prestatzea eta baldintza egokiak sortzea beraien ezaugarriengatik gaixotzat hartu ezin diren baina egoitza zerbitzu hutsa baino zerbait gehiago behar duten aiton-amonei atentzioa emateko.

Psiquiatrikoak

Aurreko urteetan bezala 1996an ere Autonomia Erkidegoko ospitale psikiatriko publiko edo ohe hitzartuak dauzkaten pribatuetara bisitak egiteko lanarekin jarraitu da. Arian-arian egiten diren bisita horiek 1991. urtean egin zen txosten monografikoaren ondoren hasi ziren.

Joan den urtean bi ospital edo zentro psikiatriko pribatu bisitatu ziren: Usurbilgo psikiatrikoa eta Arrasateko Santa Agedako San Juan de Dios Sanatorio-psikiatrikoa, eta baita ospitale publiko bat ere: Basurtoko Ospitale Nagusiko unitate psikiatrikoa.

San Juan de Dios Sanatorio-psikiatrikoari dagokionez San Juan de Dios ospitalekoek sustatu duten eraldaketa izugarria azpimarratu behar da, 1.000 milioi pezetatik gorako inbertsioa egin baitute.

San Rafael pabilioia bota eta bere lekuan hiru pabilioi berri baina txikiagoak egin dira ondoko betekizunetarako; administrazioa eta sendagileen bulegoak, egonaldi laburrak eta psikogeriatria.

Kultura ondasun izendatuta dagoen Jesusen Bihotza izeneko pabilioi nagusiaren zati bat ere konpondu da, baina oraindik gelen zona konpontzeke dago.

Era berean, lorategi zona ere hobetu eta handitu da, eta ingurua orain armoniotsuago eta orekatuago dago.

Ohe kopuruari dagokionez, lehenago 372 zeuzkan eta orain 400 dauzka. Laburtuaz, beraz, laudagarria da Hermanos de San Juan de Dios kongregazioak ospitale psikiatrikoa modernizatzeko eta bertako instalazioak hobetzeko egin duen lana.

Basurtoko Ospitale Nagusiko Eskuza Pabilioia izeneko unitate psikiatrikora egindako bisitaren ondoren puntu hauek azpimarratu beharra dago:

Eskuza Pabilioia laguntza psikiatrikoa emateko bakarrik erabiltzea komeniko litzateke eta, beraz, bertan dauden onkologiako oheak beste pabilioi batera eramatea. Antza denez neurri hori 1997an hartzeko asmoa dago.

Inguruetan dagoen lorategia Eskuza pabilioiari lotzea ere komeniko litzateke, itxi eta pazienteek nahi dutenean erabiltzeko moduan jarriaz, izan ere gaur egun familiartekoek bisita egiten dietenean bakarrik irten ahal izaten baitira. Gai hau garrantzitsua da, gaixoek pabilioi horretan pasatzen dituzten 20 egunetan ezin izaten baitira pabilioitik irten paseatzera edo airea hartzera.

Bisita honetan zehar Jado Pabilioiko kartzela-unitatea ere ikuskatu zen: bertan erreforma osoa burutu da, ohe kopurua murriztu da -gela bikoitz bat eta beste banakako bat bakarrik daude-, eta bisita egin zen egunean ez zegoen kartzela-unitatean gaixo mentalik.

2.1.2. GURE ERKIDEGOKO HIRU KARTZELEN EGOERARI BURUZKO TXOSTEN MONOGRAFIKOA (Txostenaren aurkezpena eta ondorengo iharduerak)

A/ Txosten monografikoa osatu aurreko pausoak

Iazko urteari zegokion urteko txostenean nahiko zehatz adierazi ziren Ararteko erakundeak **1995ean** gure Erkidegoko hiru kartzelen egoera sakonki aztertzeko eman zituen pausoak. Txosten horretan (ikus 29-38 or.) lan monografikoa berez egin aurretik hiru gai jasotzen ziren:

1) Arartekoaren eskuhartzearen **iharduera markoa**. (Gai penitentziarioei buruz Eusko Jaurlaritzaren eta Justizia Ministerioaren artean egindako hitzarmen nagusia, eta gure eskuhartzearen arrazoiketa).
2) Azterketarako jarraituko zen **lan metodologia**. (Metodologia kualitatiboa, lehen iturri bezala pertsona erabiltzaileak eta zentroetako lan taldeak erabiliko zituena).
3) 1995ean emandako **pausoak**. (Bisitak egin aurretik eman ziren pausoak; hiru zentroetara egindako bisitetarako emandako pausoak; eta presoei laguntzeko dauden kolektiboekin egindako bilerak).

Noski, 1995eko urteko txostena urte horretan aztertutako gaiak jasotzera mugatzen zen, baina kartzelen egoerari buruzko azterketan ez zen sartzen, artean amaitu gabe zegoelako; handik hilabete gutxitara txosten berezi bat egin zen.

B/ Txostenaren aurkezpena eta eragindako erreakzioak

1996ko martxoaren 12an, Arartekoak **Eusko Legebiltzarrari** eskuratu zion "*Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoera*" txosten berezia.

Egun berean **hiru kartzeletako zuzendariei** eskuratu zitzaien txostena eta ondorengo bi egunetan **Herri Defendatzaileari** (martxoaren 13an) eta **Barne Ministerioko** politika penitentziarioko arduradunei (martxoaren 14an). Hurrengo astean **presoen laguntzarako kolektiboei** aurkeztu zitzaien, lehendik beraiekin harremanetan baikeunden (martxoaren 18, 20 eta 21eko bilerak).

Geroztik zenbait hilabete pasatu diren arren, egun haietan **txostenak sorrarazi zuen eztabaidari** berriro heltzea komeni da. Eztabaida positiboa izan zitekeen -gizartean presoen egoerari buruzko kontzientzia zabaltzeko balio zezakeen-, baina, tamalez, justifikazio profesional edo instituzionalaren alorrera eraman zen, eta eztabaida gainera komunikabideen bitartez bideratu zenez gero, Arartekoaren txostenarekin lortu nahi zen helburu nagusirako, aztertutako egoera hobetzeko alegia, energia gastu alferrekoa gertatu zen.

Seguruenik, berehala egon ziren erreakzio batzuk momentuaren eta aztertutako gaiekiko sentiberatasunaren fruitua izan ziren. Igaro den denborak aukera ematen du gertatuak lasaiago berriz irakurtzeko eta neurri zuzenean baloratzeko.

Egun haietan komunikabide ezberdinetan azaldu ziren albiste batzuek eraman gaitzakete pentsatzera erakunde honek egindako txostenak eztabaidagai garrantzitsua izan zela, sarritan gertatu ohi den bezala desadostasunak azpimarratu baitziren adostasunak baino areago. Bereziki esanguratsuak izan ziren sindikatu baten hasierako jarrerak, eta batez ere Instituzio Penitentziarioen Estatu Idazkariak osatu eta ezagutzera eman zuen gure informeari buruzko erantzuna, zeinari buruz geroago hitz egingo baitugu.

Alabaina, txostenaren kontrako kritikak nahiko orokorrak izan zirela pentsatzeak ez dauka errealitatearekin zerikusirik; ezta egun haietan jaurti ziren jarreren errealitatearekin ere. Eta horren lekuko, besteak beste ondorengo elementu nahiko aldekoak aipa daitezke:

- kartzeletako sindikaturen batek hasieran edukitako erreakzioa zuzendu izana, eta gure Erkidegoko kartzeletan dauden sindikatu ordezkari gehienek azaldu zuten jarrera, beti argitaratu ez bazen ere;
- gaiari buruzko editorialak egin zituzten komunikabideen aldeko jarrera;
- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Ongizate Sailak aditzera eman zuen jarrera, guk adierazitakoarekin bat zetorrena, eta sail horri dagozkion funtzioen arabera bera da kartzelen alorrean zuzenkien inplikatuta dagoena;
- Herri Defendatzailearen erakundeak hasiera hasieratik erakutsi zituen harrera ona eta lankidetza;
- kartzeletan lana egiten duten pertsona askok eta presoei laguntzen dieten elkarte askok hitzez nahiz idatziz iristarazi zizkiguten oniritziak...

Kasu askotxotan (batez ere sindikatu eta talde laguntzaile batzuen aldetik) hasierako jarrera haiek jarraipena eduki dute ondorengo hilabeteetan, txostenean aztertzen ziren gaiak sakonduaz eta guk esandakoarekin bat etorriaz. Hain zuzen, erakunde honek lan horietako batzuk ezagutu eta aprobetxatu ahal izan ditu.

Baina gure txostenaren eta bere funtsezko edukien balioa eta egokitasuna sendotu duena, elementu horiek baino areago, beste zerbait izan da: urte honetako zenbait gertakariz ari gara, hain zuzen. Eta horren lekuko hiru gai bereziki esanguratsu azpimarratuko ditugu:

1) Hilabete hauetan Eusko Legebiltzarrak gai penitentziarioei buruz onartutako aldarrikapenak eta akordioak.
   Presoak beraien herrietara hurbiltzeari edo gai horretan transferentziak berehala eskuratzeari buruzko akordioak, zentroen egoera sanitarioari buruzko galderak... Hau da, Legebiltzarrak gure txostenean jasotzen ziren gai nagusi eta proposamen batzuei buruzko iharduerak burutu ditu. Legebiltzarraren ordezkaria naizen aldetik pozik nago erakunde horri bere lan garrantzitsurako informazio baliagarria eskuratu ahal izan diodalako.

2) Administrazio penitentziarioak azken hilabete hauetan aurrera eraman dituen zenbait iharduera.

Honi dagokionez, agian daturik adierazgarriena Langraizko kartzelan egon den preso kopurua gutxitzea da, gutxitze horrek, gure txostenean adierazten genuen preso pilaketaren arazoa arintzea ekarriko duelako dudarik gabe.

3) Herri Defendatzailea Erakundeak espetxeen egoera orokorrari buruzko txosten monografiko bat egingo du.
Joan zen abenduaren 12an Herri Defendatzaileak Kongresuko osoko bilkuran egin zuen agerraldian guk geure txostenarekin agerian jarri genituen kartzeletako arazo eta gabezia asko salatu zituen eta Estatuko kartzelen egoerari buruzko txosten monografiko bat egingo zuela adierazi zuen. Seguru gaude iragarritako txosten hori presoen egoera hobetzen jarraitzeko beste bultzagarri bat izango dela.

Edonola ere, -berriro gure txosten monografikoa argitara eman ondorengo uneetara itzuliaz-, orduan piztu zen eztabaidak erabateko eragina izan zuen txostena zuzenean aurkezteko eta ondoko eztabaidarako maiatzaren 8an Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean egin zen **eztabaida parlamentarioan**. Garbi dago talde parlamentario batzuek eztabaida hartan erakutsi zituzten jarrerek politika penitentziarioaz beraien alderdiek zeuzkaten kudeaketa ardurei -iraganeko edo etorkizunekoei- erantzuten ziela neurri handi batean, eta Instituzio Penitentziarioetarako Estatu Idazkaritzatik gure txostenari idatziz eman zitzaion erantzunak oso baldintzatu zuen aipatu eztabaida.

Ararteko erakundetik une oro ahalegin handia egin zen eztabaida funtsezko puntuetan zentratzeko, aipu edo inplikazio pertsonalak eta instituzionalak gainditzeko, hiru kartzelekiko komunikazio iturriei eusteko, eta, ahal zen neurrian, arrazionalizatzen zaila zen eztabaida publiko baten ondorio negatiboei aurre egiteko. Hain zuzen, erakunde honen iharduerak, eztabaidagarriak izan zitezkeen gaiak arrazoitzera eta giza sektore horrekiko kezka gizarte osoari helarazteak daukan balio positiboa aprobetxatzera bideratu ziren.

Arrazionalizatzeko ahalegin horren barruan kokatu behar da erakunde honek Gai Penitentziarioetarako Estatu Idazkaritzak publikoki egindako balorazioei erantzuteko prestatu zuen erantzuna. Hainbat hilabete igaro dira eta Estatu Idazkaritzak berak ezagutzera eman zituen balorazio publiko haien publikotasuna kontuan izanik, txosten honetan balorazio haiei emandako erantzuna osorik jasotzea iruditu zaigu komenigarriena, izan ere ondoren eskaintzen dugun dokumentu honek dagokigun gaiari buruz erakunde honek urte osoan zehar azaldu zituen jarrerak zabal eta arrazoituta biltzen baititu.

* * * *

ARARTEKOAK GAI PENITENTZIARIOETARAKO ESTATU IDAZKARITZAREN BALORAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

Gure "*Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoera*" txostenari erantzunez Gai Penitentziarioetarako Estatu Idazkaritzak 1996ko martxoaren 25eko idatzian egiten dituen balorazioak

ikusi ondoren, gure ustez erantzun honetan beharrezkoa da egiaztapen nagusiak isladatzea, gure desadostasunak arrazoitzea eta atera ditugun ondorioak zehaztea.

A) **EGIAZTAPENAK**

1. Lehenik, Estatu Idazkaritzaren idatzia gure txosteneko ia bi ataletara mugatzen da: egoeraren diagnosia (3.0.2. atala), Estatu Idazkaritzaren idatzian gasi nagusi bezala hartzen dena, eta gomendio orokorrak (3.1. atala), horietako batzuei buruzko komentarioak egiten direlarik. Aipatutako idatziak ez du txosteneko funtsezko atalei buruzko inolako oharrik egiten; besteak beste ondorengoak dira atal horiek:

   . hitzarmen nagusiaren azterketa;

   . jarraitu den lan metodologia;
   . gure Erkidegoko hiru kartzeletan jasotako arazoen deskribapen zehatza;
   . presoei laguntzen lan egiten duten kolektiboek egindako aportazioak;
   . hitzarmen nagusiko iharduera eremuei buruzko gomendio zehatzak...

2. Bigarrenik, Estatu Idazkaritzaren erantzunean gure txosteneko oinarrizko aspektuei dagozkien funtsezko **adostasun** zehatzak adierazten dira. Adostasun horiek puntu hauei dagozkie:

   . sistema penitentziarioan eragiten duten akatsen eta gabezien pertzepzioa;
   . lortu beharreko helburu orokorrak eta bereziak;
   . presoen egoera hobetzeko behar diren tresnak...

   Adibidez, Estatu Idazkaritzaren erantzunean zehazki zera esaten da:

   . "Ezbairik gabe, Euskal herriko azpiegitura penitentziarioak izango dira Estatu osoko txarrenak".
   . *"Kartzelen hobekuntza eraginkorra eta bizkorra lortu nahi bada erakunde guztiek elkar hartuta eta modu jarraituan lan egin behar dute, definizioz eta izaeraz inori atsegina gertatzen ez zaion errealitatea hobetzeko"*.
   . Estatuko beste leku batzuetan eraikitako zentro berriak direla eta, hau dio: *"era guztietako osasun, hezkuntza eta prestakuntzarako instalazioz hornituta daude, preso bakoitzak banakako zelda duela eta tratamendurako eta interbentziorako banakako programak definitzeko aukera gehiagorekin"*...

3. Estatu Idazkaritzaren erantzunak gure txostenean aztertutako aspektu garrantzitsuak argitzen eta osatzen dituen **datu kuantitatiboak** eskaintzen ditu ondoko aspektuei buruz:

   . borondatezkoen partaidetza presoekin lan egiteko programetan;
   . azken urteetan emandako baimenen edo horien hausketa portzentaien bilakaera;
   . egindako komunikazio kopurua;
   . preso prebentiboek preso guztiekiko daukaten pisu erlatiboa;
   . hirugarren graduan sailkatuta dauden kartzela zigorrera kondenatuen proportzioa;
   . presoei laguntza sanitarioa eskaintzeko erabiltzen diren baliabideak...

4. Gai Penitentziarioetarako Estatu Idazkaritzaren erantzunak, erakunde honek egindako diagnosiaren atal esanguratsu bati buruzko **desadostasuna** adierazten du:
   . **aurreiritzi** ideologiko multzo batek baldintzatutako azterketa egin izana (jarrera etikoak, egintza penitentziarioa ulertzeko modua, eredu penitentziario "autonomikoa"...);
   . datu kuantitatiboei balio eskasa ematen dion metodoa erabili izana.

* * * *

Lau egiaztapen garrantzitsuei dagokienez, Ararteko erakundeak hau adierazi nahi du:

1. Estatu Idazkaritzaren erantzunean adierazitako **adostasunak oso positiboki baloratzen dira**, bai adostasun esplizituok eta baita inplizitoak ere.
   Izan ere, funtsezko gaietan dagoen adostasun maila handiari esker (aztertutako zentroen gabeziak, lortu beharreko helburuak, garatu beharreko tresnak...) erakunde honek kartzeletako egoera hobetzen jarraitzeko lana aurrera eraman dezakelako, zuzenean eragin dezakeen esparruan hain zuzen ere: euskal administrazioaren aurrean, hitzarmen nagusiaren garapenean, erakundeen arteko lankidetza esparruak sustatzen eta gai penitentziarioetan egon daitekeen eskuduntza aldaketari aurre hartzen.

2 Estatu Idazkaritzaren erantzunak ematen dituen **datuak eskertzen ditugu**.
   Datu horien bidez, azken urteotan politika penitentziarioko zenbait aspektu garrantzitsutan egon diren aurrerapausoak ezagutu ditugu, baina, aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru zentroetan dauden presoen egoera hobetzeko egiteke dauden gauza ugariak behin eta berriz eskatzera behartzen gaituzte.

3. Estatu Idazkaritzaren erantzunak leporatzen dizkigunak **errespetatzen ditugu baina ez gaude haiekin ados eta ezin ditugu onartu**, leporatzen zaizkigunak honako hauek direlarik:
   . ustez jarrera aprioristikoek baldintzatuta egotea;
   . aurreiritzi ideologiko posibleak;
   . eskuduntza esparruak ustez ez ezagutzea;
   . datu kuantitatiboei emandako balioa;
   . egindako diagnosia.

Luze izango ez bada ere, idatzi honetan leporatzen zaizkigun bost puntu horietako bakoitzari erantzungo diogu, bakarren bati arreta berezia eskainiaz.

* * * *

B) DESADOSTASUNAK

1. Kartzeletako egoerara jarrera aprioristikoekin hurbildu izanaz

Erakunde honek egindako txostenean isladatu nahi izan den errealitatea pertsona multzo batek bizi izandakoa da: hots, gure Erkidegoko hiru zentroetan dauden presoek, zentro horietan lana egiten duten profesionalek, zentroetan bizi direnei borondatez eta elkartasunez laguntzen dieten pertsonek, etabarrek adierazitakoa, hain zuzen. Errealitatea hemen pertsonak dira, galdetu, eskatu, itaundu eta bultza egiten duten pertsonak. Eta gure txostenean, guzti hori jaso besterik ez da egin.

Estatu Idazkaritzaren erantzunak Heisenberg aipatuaz dioena egia da: "*ez dugu errealitatea ezagutzen, ezagutzen duguna gure itauntzeko moduaren menpe jartzen dugun errealitatea da*". Baina hori guztioi dagokigu: baita politika penitentziarioaren arduradunei ere, hots, gizalegez uler daitekeen soslai batean beraien kudeaketa goresten dutenei ere. Eta ezagutza eskuratzeko muga hori gainditzeko modurik onena errealitatera izpiritu irekiarekin, interes pertsonalik gabe eta bertan murgildurik bizi direnei entzuteko prest hurbiltzea baino ezer hobeagorik ez dago. Eta noski, jarrera horrekin eta ez besterekin hurbildu da erakunde hau gure kartzeletako errealitatea ezagutzera.

Hemengo hau Ezagutzaren Teoriaren historian eta berrikiago Epistemologiarenean eztabaidaren gune izan dena behin betikoz argitzeko aukerarik egokiena ez den arren, hainbat aukeraren artean -ñabardurekin osagarriak direnen artean- utz iezaguzue Zubiriren erako errealismoaren aukera egiten, zeinak "agintzen baitu" errealitateak ukitzen uztea, beretaz jabetu eta berari erantzutea.

Uste dugu hemen zalantzarik gabe baieztatzeaz gain, txostenak berak argi erakusten duela errealitatearekiko hurbiltze ireki hori. Agian horren frogarik adierazgarriena erralitate hori ezagutzeko erabilitako metodologia, hiru zentroetako pertsonen eta kolektiboen pertzepzioak biltzeari eskainitako denbora, eta pertzepzio horiek zabal, argi eta objetiboki isladatzeko ahalegina lirateke.

Aldiz, txostenaren aurkezpenetik (21. or.) eta gomendioen aurkezpenetik (140-141 orr.) ateratako bi esaldi, testuingurutik atereak gainera, ez dira nahikoa errealitatearen azterketa distortsionatzen duten aurreiritziak daudela bezain gauza serioa esateko.

2. **"Aurreiritzi ideologikoei" buruz**

Estatu Idazkaritzak txostena kritikatzen du "*aurreiritzi ideologikoz*" eta *"jarrera etikoz"* tindatuta aurkitzen omen duelako (2. or.), halako batean "*aukera politiko zehatz*" baten aldeko jarrera ere aipatzen duelarik (14. or.).

Hasiera batean, orokorki formulatutako baieztapen horiekin ados egon gaitezke, begibistakoak eta jakinekoak ere badirelako: inguruko mundua ezagutzerakoan eta aztertzerakoan bere historia pertsonala eta ondare intelektuala edo ideologikoa ahantz dezakeen pertsonarik ez dago. Edonola esan behar dugu, gure txostenean testuko lehen lerroetatik garbi geratzen direla abiapuntuko planteamenduak.

Baina inolaz ere ezin da onartu abiapuntuko ezinbesteko planteamenduek analisia perbertitzen edo baliogabetzen dutenik, esaten den bezala okerrak daudelako, datuak falta direlako eta *"errealitatearen diagnosi oker batetik abiatzeaz gain, horiei bizkar emanda eginda dago"* (22. or.).

Leporaketa horien larritasuna kontuan izanik, zenbait gauza adierazi beharrean gaude.

a) Estatu Idazkaritzak "***aurreiritzi ideologikoak***" deitzen dituenak gure azterketaren euskarri diren oinarrizko printzipioak dira hain zuzen, eta bi ideiatan labur daitezke:

- Kartzela penaren nekaldi edo zigor edukia mugatu behar da askatasuna eta horri nahitaez lotutako eskubideak kentzera, eta ezarritako zigorra bete beharrak ezin du beste kalte gehigarri batzuk jasan beharra ekarri.
- Askatasuna kentzea da Estatuak zigortzeko daukan mekanismorik zorrotzena, eta bere izaeragatik giza eta sozial mailako koste handia dakar. Horregatik, horren ezarpena guztiz ezinbestekoa den kasuetarako bakarrik erabili behar da.

Estatu Idazkaritzak itxuraz uste duenaren kontra, ideia horiek ez dira gogoeta pertsonal "*partikular soil batetik*" sortzen, aldiz, joera politiko-kriminal sendoenen funtsezko edukia dira, dotrina zientifikoak abalatuak eta mendebaldeko herrialdeetako legedi penaletan eta nazioarteko erakundeen akordio eta ebazpenen testuetan gauzatuak daudelarik.

Dudarik gabe errepikagarriak gertatuko liratekeen aipu dotrinalak une honetan alboratu eta Lames E. Doyle epaile iparramerikarraren (Wisconsineko Auzitegi Federala) hitzak bakarrik aipatuko ditugu, praktikarako eskubidea ezartzen duen epai batean jasotzen direnez gero (*Morales Schmidt*en kontrako kasua), ez baitirudi gurari utopiko edo teorikoengatik susmagarriak direnik: "*Seguru nago kartzela instituzioak seguraski desagertu egin beharko duela. Estatu Batuetan zentzu askotan esklabutza bezain onartezina gertatzen da, hura bezala aberegarria bertan parte hartzen duten guztientzat, hura bezain kaltegarria gizarte sistemarentzat, hura bezain subertsiboa gizakien anaitasunerako, zentzu batzuetan hura baino kostu handiagokoa eta seguruenik ez hura bezain arrazionala*". Gogoeta nahiko adierazgarria den arren, legedi positiboan eta nazioarteko aitorpenetan zentratuko gara orain.

Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluaz eta horrek askatasunik gabeko zigorrak bersozializaziorantz eta bergizarteratzerantz eramateko daukan aginduaz irakurketa ezberdinak egin daitezkeen arren, garbi dago Konstituzioak -gizarte antolamenduko baloreen araudi laburpenak- bere baitan hartzen duen ideia zera dela: kartzela zigorra, askatasunaren funtsezko eskubidea ukatzen duenez gero, era murritzean erabili beharreko gaitza dela. Oinarrizko eskubideen artean are zorrozkiago ezartzen du askatasunaren kenketak kalte gehigarriak berekin eramateko debekua, eta zentzu horretan, hau dio 25.2 artikuluak:

> *"Presondegira kondenatuak, hura betetzen ari baldin bada, kapitulu hontako oinarrizko eskubideez goza dezake, baina ez espreski huts kondenatorio arazoagatik, zigor zentzu eta presondegi legeagatik mugaturik daudenak. Edonola ere, lan ordaindu batetara eskubidea izango du, eta baita giza asegurantza dagozkion etekinetara ere, kultura sarbidera eta bere nortasun osoko hazkundera".*

Aipatu diren Konstituzioaren printzipioak legedi penitentziarioan jasotzen eta garatzen dira. Zentzu horretan adierazgarria da Lege Penitentziario Nagusiari buruzko Proiektuaren Motibo Azalpena (Gorteen 78-9-15eko Aldizkari Ofiziala), hau aitortzen baitzuen: "*Kartzelak beharrezko kaltea dira, eta askatasuna kentzen duten zigorrak ezbairik gabe krisian dauden arren, seguraski denbora luzez jarraitu beharko dute*".

"*Kartzelaratzeari berez dagozkion kalte eta akatsei*" buruzko (ibidem) printzipio eta jarrera berberak daude sistema penalean. Horrela, ez da kasualitatea Kode Penal berriaren Motibo Azalpenean, "*gutxienezko interbentzioaren printzipioaz*" hitz egiten denean balore konstituzionalen gauzatze gisa, zera aitortzea: "*zigorrei buruzko egungo sistema guztiz aldatzea proposatzen da, ahal den neurrian Konstituzioak izendatzen dion bersozializazio helburua lortu ahal izateko*", gaurko sistemarekin hori ezinezkoa dela ulertzera emanaz.

Legedi positibotik kanpo, ez baita oinarritzen den printzipioak zehaztu zalea, nazioarteko erakundeen testuek eta gomendioek are garbiago isladatzen dituzte kartzela zigorra murrizteko egungo joera politiko-kriminalak.

Europako esparruan, Europar Kontseiluaren Deskriminalizazioari buruzko Txostena (1980) oinarrizkoa da, bertan sistema penala orohar eta kartzela zigorrena bereziki murrizteko Europako herrialdeen erabakia baiesten baita.

Ideia berdinak azaltzen dira berriro Europar Kontseiluaren R(83) 7 Gomendioan, kartzela ez den zigorrak ezartzea indartzeko neurri zehatzak finkatzen baitira bertan. Ministroen Batzordeak zehazki "*gomendatzen die Estatu kideen Gobernuei hiritarren partaidetza bultzatzea gaizkiletzari aurre egingo dion politika kriminal bat osatzeko eta ezartzeko,* ***askatasuna kentzen duten zigorrak ordezkatzeko neurrietara jotzea****, eta biktimei laguntzak bermatzea*".

Zentzu berean, Europako Arau Penitentziarioetan (Europako Kontseilua, R(87) 3. Gomendioa), oinarrizko printzipio gisa "*askatasun kenketa giza duintasuna bermatuko duten baldintza material eta moraletan eman behar da*" (1. gomen.) ezarri ondoren, hau baiesten du: "*askatasun kenketa berez zigorra da. Beraz, atxiloketa baldintzek eta erregimen penitentziarioek ez dute sufrimentu hori areagotu behar" (64. gomen.), eta, beraz, zentroen erregimenek "espetxeratzearen ondorio kaltegarriak eta kartzelako eta askatasunean egiten den bizitzaren* arteko aldeak ahal den gehien murriztera" (65.b gomen.) jo behar dute.

Nazioarte mailan, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 1990ean onartu zituen Tokioko Arauak ere aipatu behar dira, non "*herrialde askotan espetxeratuen kopuru gehiketak eta kartzeletako jende pilaketak Presoen Tratamendurako gutxieneko Arauak behar bezala ezartzea galerazten dute*" adierazi ondoren, hau agintzen baita:

> "*1.5. Estatu Kideek askatasuna ez kentzeko neurriak sartuko dituzte beraien legedietan beste aukera batzuk emateko, eta horrela* ***kartzela zigorren ezarpena murrizteko*** *eta justizia penaleko politikak arrazionalizatzeko, giza eskubideen errespetoa, justizia sozialaren esijentziak eta gaizkilea errehabilitatzeko premiak kontuan izanik*".

Azken batean, gure ustez garbi dago askatasuna kentzen duten zigorrak apurka murrizten joateko joera ez dela "*aurreiritzi ideologikoa*", gure inguru juridiko eta kulturaleko herrialde guztietan etengabeko bilakaeran dagoen bide bat baizik.

b) Txostenari errealismo falta ere egozten zaio "***gogoeta etikoak***" direlako eta horiek -esaten da- "*errealitatetik abiatu partez kontzientziatik datozelako*".

Kritika honetan norbanakoaren morala, kontzientzian oinarritutako aukeraketa pertsonala alegia, etika sozialarekin nahasten da, aginte publikoen iharduera eta erabaki guztiak bideratu behar dituen kolektibo sozial jakin baten onartutako eskema axiologiko gisa. Zentzu honetan, aho batez onartzen da Zuzenbide Penalari dagokiola gizartearen gutxienezko etika babestea, Estatu demokratiko eta pluralista batean hori giza eskubideen edukiarekin bat datorrelarik eta nazioarteko aldarrikapenetan eta Konstituzioaren I. atalean ere jasota dagoelarik. Azken batean, kartzelari buruzko azterketa orok oinarri etiko batetik abiatu behar duela baieztatzean, baloraziorako irizpide gisa pertsonaren oinarrizko eskubideekiko errespetoaren ikuspegia hartu behar dela esan nahi da.

Bestalde, esan behar da txostenean aipatzen den gogoeta etikoa, edozein modutan, eta kartzelaratzeak hori jasaten duenarengan eragiten dituen ondorio kaltegarriak ahaztuaz edo baita ezkutatuaz ere gaizkiletzaren kontrako burruka justifikatu nahi dutenen zenbait argudio utilitaristari kontrajarriaz egiten dela. Horrela, kartzela zigorrari buruzko eztabaidak daraman bidea heriotz zigorra kentzeko jarraitu zen prozesuaren antzekoa da: arrazoiketa pragmatikoen lekua duintasunarekiko

errespetoan eta ondoriozko giza bizitzaren bortxaezintasunean oinarritutako argudioek hartu dute.

Laburbilduz, ez da onargarria txostena bere kutsadura ideologikoan oinarrituaz deskalifikatu nahi izatea. Txostenaren oinarriak, Konstituzioak eta nazioarteko aitorpenek aldarrikatutako balioekin koherenteak diren legedi penala eta penitentziarioak dauzkaten -edo eduki beharko lituzketen- berberak dira.

Are gehiago, hiritarren eskubideen berme eta defentsa ikuspegia da Ararteko a bezalako erakunde batek onar dezakeen bakarra, Legearen aginduz, bere kontrolaren pean dagoen Administrazioaren hutsuneak eta gabeziak salatu behar baititu eta giza eskubideen garapena eta sakonketa dakarten aldaketak -funtzionamendu mailakoak nahiz arau mailakoak- sustatu behar baititu. Ikuspegi honetatik, eta Ararteko ak pertsonalki Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletan dauden pertsonen egoera ikusi ondoren, kartzela horiek eragiten duten sufrimentua piskanaka murrizten joatea eskatu baino ezin du egin, aginte publikoen artean espetxeratzearen ondorio negatiboak kentzeko jarrera zabalduaz eta zigorrak betetzeko beste forma batzuk bultzatuaz.

Bestalde, Estatu Idazkaritzaren erantzunean "*jarrera etiko*" bezala salatzen dena ere Ararteko ari berez dagokion beste zeregin bat da: giza eskubideen kultura garatzea, eskubide horiek dagozkien gaiei buruzko eztabaida publikoa eta gogoeta bultzatuaz. Eta hain zuzen txostenarekin espreski lortu nahi zen helburuetako bat (ikus aurkezpenaren azken esaldia, 23. or.), bestalde aipatu den Europar Kontseiluaren R(83) 7. Gomendioak dioenarekin guztiz bat datorrena. Horren arabera, aginte publikoek "*hiritarrak sentsibilizatu behar dituzte, (...) askatasuna kentzen duten zigorrak ordezkatzeko neurriekin bereziki lotuaz*" (6. atala), eta baita "*bergizarteratzearen ikuspegitik gaizkileak askatasunean tratatzeak dakartzan abantailei buruz sentzibilizatu*" (18. atala).

3. **Erkidegoaren eskuduntza esparruaz**

Estatu Idazkaritzaren erantzunean gaineratzen zaigun beste printzipio bat "*eskuduntzen edukia ez ezagutzeari*" dagokiona da, bere iritziz "*zigorrak betearazteko eredu propio baten*" egokitasunari buruz txostenean egiten den aipamenak hori esan nahi baitu.

Lehenik esan behar da nahiko etsigarria dela (Konstituzioa onartu zenetik ia hogei urte igaro direnean) errealitate autonomikoa oraindik ere zentrotik susmoekin eta desberdintasunarekiko erresistentziarekin ikusia izatea, eta ez sormenerako edo berrikuntzarako aukera bezala, edo, gutxienez, autoantolaketarako gune propio bezala.

Edonola, txostenaren irakurketa osotik, eta, beraz, Estatu Idazkaritzak aipatzen duen esaldiaren kontestualizaziotik eratortzen da Autonomia Erkidegoaren eskuduntza-esparru propioa une oro garbi errespetatu dela. Alabaina, horri buruz zenbait gauza esatea komeni da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomi Estatutuak dioenez, berari dagokio "*Erakunde eta egoitza (...) penitentziarioen eta bergizarteratzearen antolaketa, erregimena eta funtzionamentua, esparru zibil, penal eta penitentziarioko legedi nagusiaren arabera*" (10.14. art.) Era berean, Autonomia Erkidegoari dagokio "*Estatuaren ondorengo gaiei buruzko legedia exekutatzea: 1. Legedi penitentziarioa*" (12.1. art.) Garbi dago, txostenean Erkidegorako sistema penitentziario bat artikulatzeko premiaz hitz egiten denean, ez dela inondik ere erregulazio legalean pentsatzen - begibistakoa baita hori Estatuari soilik dagokiola-, baizik araudi hori euskal gizarteko errealitatean ezartzeaz ari da, dauzkan edo etorkizunean eduki ditzakeen bitarteko pertsonal eta materialekin.

Garbi dago askatasun kenketaren eduki materiala asko aldatzen dela hori garatzen den baldintzen arabera. Zentzu horretan, marko legal berak errealitate oso ezberdinak ekar ditzake; adibide bat jartzearren, ez da zigor "intentsitate" bera hirugarren graduko bi presok jasango luketena, bata asteburuetan baimenarekin irteten den kartzela batean balego, eta bestea hirigune bateko erregimen irekiko kartzela batean bizitzen eta lan iharduera normalizatua burutzen. Esparru honetan, pertsonen eskubideei eragiten dieten beste batzuetan bezala, baldintza materialek eta baita kuantitatiboek ere asko baldintzatzen dute legearen ezarpena.

Ikuspegi honetatik, uste dugu begibistakoa dela etorkizunean gai penitentziarioetako betebeharrak Erkidegora pasatuko badira planteamendu global bat ahal bezain azkar egin beharra, inbertsioak egiteko eta azpiegiturak sortzeko gida izan daitekeen "eredua" edukitzea. Etorkizunerako ikuspegi hori da txosteneko gomendio asko argitzen dituena eta horiei zentzua ematen diena. Azken finean gizartearen eztabaida eta arduradun publikoen gogoeta piztu nahi dira sarritan eguneroko kezketatik oso urrun dagoen zigorren betearazpenari buruz.

Bestetik, txostenean izaera orokorreko zenbait gogoeta egiten dira, normala den bezala une honetan Gobernu zentraletik administratzen diren gaietan eragina dutenak. Alabaina, gogoeta horiek ahaztezinak ziren: kartzelak erabateko erakunde gisa presoen bizitzako aspektu guztietan eragiten du, eta horregatik ezin dira azterketa zatikatuak egin errealitatea desitxuratzeko arriskurik gabe. Zentzu honetan, adibidez, garbi dago presoak kartzela ezberdinen artean banatzea Estatuari bakarrik dagokiola, baina gure ustez garbi dago halaber ezin dela kartzelen egoera aztertu egungo preso pilaketak aipatu gabe.

Atal honekin amaitzeko, esan behar dugu ikuspegi autonomikoak autonomia erkidego ezberdinen arteko elkartasun printzipioa baztertu ordez sendotu egiten duela. Hori erakusten du, esate baterako, orohar pertsona bakoitzak kondena bere etxebizitzatik gertuen betetzea komeni dela esaten den arren, Espainian egoiliar-tokirik ez daukaten atzerriko pertsona asko zentro ezberdinetan banatzeak, eta Euskal Herria iparraldeko muga ondoan dagoenez gero, pertsona horietako batzuentzat destino egokia izan daitekeela pentsatzeak.

4. **Datu kualitatiboen balioaz**

Erakunde honek egindako txostenak azterketa metodo batez ere kualitatiboaren alde egindako apostuari erantzuten dio. Apostu honek, beste edozein definizio metodologikok bezala, abantaila batzuk eskaintzen ditu eta mugak ere baditu. Txostenak ez ditu mugak izkutatzen, alderantziz, espreski aitortzen ditu.

Errealitateak aztertzeko modu ezberdinak daude. Erakunde sozial konplexuetara -eta horietako bat errealitate penitentziarioa da- hainbat modutan hurbil daiteke: adierazle kuantitatiboak erabil daitezke, nola ez; baina era berean erabil daitezke gure txostenean bezalako teknika kuantitatiboak ere, edo erabili ez diren beste batzuk, kasuen azterketa izan zitekeena, esate baterako. Egoera hauetan, lortu nahi diren helburuetarako metodo egokia aukeratzea da garrantzitsua.

Arartekoaren txostenak azken urteetako egoera penitentziarioaren bilakaera aztertu, edo modu estandarizatuan hiru zentroetako egoera konparatu, edo egoera hori Estatuko edo beste herrialde batzuetako beste kartzela batzuekin konparatu, edo agintari penitentziarioek denbora tarte jakin batean egindako kudeaketa baloratu nahi izan balu, garbi dago kasu horietan adierazle estatistikoetara jo beharko zela, nagusiki aro edo leku ezberdinetako egoerak konparatzeko balio dutelako.

Garbi dago erakunde honek egindako txostenak ez zeuzkala, eta ezin zituela eduki ere horrelako helburuak. Ezin zen ezta azterketa diakroniko multzo batean sartu ere, Arartekoak kartzelei buruz egin duen lehen lana delako. Egindako azterketa errealitatearen dimentsiorik gizatiarrenean zentratzen da, une jakin batean egina dago eta neurri handi batean egungo hitzarmen nagusian iragarritako aspektu batzuk hobetzeko edo gure Erkidegoko Autonomi Estatutuan iragarritakoaren bidetik gai penitentziarioak etorkizunean hona eskualdatzen badira planteatu beharko diren aspektuetara bideratzen da.

Onartzen dugu (bestela ezin izan zitekeelako) ez dela azterketarako egon daitekeen modu bakarra; onartzen dugu orobat erakunde hau urte batzuk barru bere azterketetan zentroen egoeran egondako bilakera hobeto ezagutzeko aukera eman dezaketen adierazle kuantitatiboak, sail estatistikoak edo estandarrak erabiltzeaz interesaturik egon daitekeela; halere erakunde erakunde honek pentsatzen du erabili duen metodoa zuzenda dela eta lortu nahi ziren helburuetarako modu eraginkorrean erantzuten duela. Are gehiago, Estatu Idazkaritzaren erantzunak eta bertan isladatzen diren datuetako askok sendotu baino ez dute egiten erabilitako metodologiaren balioa eta egokitasuna eta beste ikuspegi alternatibo batzuekin datu estatistikoak osatzeko premia, aztertzen diren gaiak pertsonen oinarrizko eskubideei dagozkienean.

Izan ere, Legez erakunde honi hiritarren giza eskubideak defendatzea eta bermatzea baitagokio Administrazioaren gabezien aurrean. Eta giza eskubideei dagokienez, datu kuantitatiboek daukaten balioa erlatiboa da aztertzen den pertsona bakoitzari dagokion egoera zehatzaren aurrean.

Adibidez, nahikoa litzateke pertsona bakar bat bere jatorriagatik diskriminatua izatea Ararteko honek salatu behar izateko. Langraizko presoen erdiek 1995ean baimenen bat jaso dutela dioen datua -Estatu Idazkaritzak ematen duena- dudarik gabe datu adierazgarria da. Baina seguraski erakunde bermatzaile batentzat are adierazgarriagoa da ondoren aitortzen dena: "*ezin da ukatu irteera baimenak jasotzen dituzten preso atzerritarrak gutxiago direla*". Baieztapen hori, kasu honetan ez doa datu kuantitatiboz lagundurik, baina isladatzen duen errealitatea Arartekoak zuzenean ezagutu

ahal izan du, egoera horretan bizi eta elkarrizketatu ditugun pertsona askok aurkeztu dituzten kexen bidez.

Estatu Idazkaritzaren idatzian ematen diren zifra ugariek -horietako asko Estatuko esparru penitentziarioari dagozkio; hau da, gure txostenean aztertu ez dugun esparru bati, gurea geure Erkidegoko hiru kartzeletara mugatzen delako-, erakunde penitentziarioetatik edo beraien arduradunen aldetik defizitariotzat jotzen duten egoera hobetzeko egin diren saioak erakusten dituzte. Erakunde honek ahalegin hori aitortu eta bide horretatik jarraitzera animatzen ditu.

Badago Estatu Idazkaritzaren erantzunean zehaztu beharreko baieztapen bat. Esaten da, daturik eza "*txostena idatzi duen taldeari bakarrik egotzi dakiokeela, ez kartzeletara eta ezta Estatu Idazkaritzara jo ez dutelako informazio eske*". Arartekoak, noski, Gai Penitentziarioetarako Estatu Idazkaritzari ez dio inolako informaziorik "erreklamatu", baina zentroetako zuzendaritzekin harreman estuan egon da txostenerako interesgarritzat jotzen ziren datuak haiengandik jasotzeko. Egia da datu eskaera hori behar-beharrezko gauzetara mugatu zela, zentroetako zuzendariei edo jada lan zama handiegia daukaten lan kolektiboei lan gehiagorik ez ematearren, eta egia da baita ere guztiengandik jasotako laguntza eskertu baino ezin dugula egin, txostenean adierazten den bezala (22. or.)

Azken batean, amaitzeko esan behar da Estatu Idazkaritzak gure datuei buruz adierazitako "*erabateko zehaztasun eza*", doanekoa izateaz gain erabat gezurra dela.

Adibidez, txosteneko 44, 60 eta 81. orrietan azaltzen diren datuak aipatzen den egunean kartzela bakoitzean zegoen egoerari dagozkie, eta hiru kartzeletako zuzendaritzek emandako datuak zintzoki isladatzen dituzte.

Txostenean prebentiboen portzentaiari (%20) buruz egiten den aipamena 1995ean Estatistikako Euskal Institutoak (EUSTAT) argitaratzen duen urtekari estatistikotik hartuta dago. Estatu Idazkaritzak eskaintzen duen datua %23,14 da. Bi iturriak iruditzen zaizkigu fidagarri: neurketa aldakorra izanik, alegia egunero aldatzen denez gero, ez daude kontrajarrita, egun ezberdinetan egindako neurketei dagozkie. Horrek inolaz ere ez du esan nahi Arartekoaren txostenean akatsa dagoenik.

Estatu Idazkaritzak emandako beste datuek ez dute txosteneko beste zifra ez eta baieztapen bat bera ere indargabetzen. Azken urteotako zenbait aspektu penitentziarioren bilakaera kuantitatiboa isladatzen dute, baina zenbakien bidez erakusten dute baita oraindik falta dena. Esate baterako, beste zentro batzuetan inbertitutakoaren eta Euskal Erkidego Autonomokoetan inbertitu gabekoaren arteko konparaketa gure azterketaren bidez ikusitakotik askoz urrutirago doa, egoera horretara iritsi izanaren ardura edonorena delarik ere.

5. **Egindako diagnosiaz**

Itxuraz, Estatu Idazkaritzaren idatzitik atera daiteke maila handi batean baztertzen direla gure txostenean "*arazoen sustraiak*" bezala aipatzen genituen bost aspektuetako lau. Eta "itxuraz" diogu bi arrazoirengatik:

. sarritan, idatzia bere desadostasunak eraikitzeko testuingurutik ateratako baieztapen edo esaldietan oinarritzen delako, txostenari esan ez dituen gauzak esanaraziz;
. sarritan, baita, zenbait gogoetaren "forma" gaitzetsi ondoren, Estatu Idazkaritzaren testuak horien "edukiarekin" bat datorrela aitortzen duelako.

Itxurazko gaitzespena gure azterketan azpimarratutako hiru puntutan zentratzen da:

- zentroen gardentasun falta;
- zentroen antolamendu eta bitarteko gabeziak;
- legalitatearen eta errealitatearen arteko aldea.

Labur bada ere, banan-banan aztertuko ditugu.

A/ **Zentroen gardentasun faltaz**

Gure txostenean "*isolamenduari eta sistema penitentziarioaren gardentasun faltari*" eskainitako atala (142. eta 143. or.) osorik irakurri ondoren, kartzelaren errealitatea ustez ezkutatzeko boron-

dateagatik egotzia izateko aurretik gertu dagoena bakarrik irits daiteke ondorio horretara. Pasiorik gabe irakurtzen duen edonork ikusiko du, egoera horren jatorria norbaiti egozten bazaio, egozpena gizarteari berari ("*Gure gizarteko pertsona gehienak kartzelen errealitateari bizkar emanda bizi dira, haietan gertatzen dena jakin gabe*" esanez hasten da gure txostena) edo erabateko erakunde baten berezko ezaugarriei zuzentzen zaiela; txostenean ondoren esaten den bezala erakunde horrek "*ez du laguntzen, alderantziz, gizartearen beste zatiarekiko beharrezko lotura hori asko oztopatzen du*".

Erakunde honen txostenak ez du behin ere aipatzen agintari penitentziarioek egoera ezkutatzeko borondatea eduki dutenik, ezta zentroetan sartzeko inolako arazoak eduki dituenik ere. Aldiz, erakunde honekiko eduki den jarrera irekia espreski aitortzen eta eskertzen da txostenean bertan, jarrera hori gabe txostena ezin egingo baitzen.

Horrela bada, ezin zaio txostenari esaten ez duenik esanarazi, egiaz ez diren gauzak egotziaz.

Hori bai, txostenean esaten da -eta hori berriro diogun gauza da- badaudela zenbait faktore (horietako batzuk 147. orrian aipatzen dira) sistema penitentziarioaren eta gizartearen arteko isolamenduari eta lotura ezari laguntzen diotenak.

Estatu Idazkaritzaren erantzuna hain zuzen horietako batzuetan zentratzen da, baina ez besteetan. Zehazki borondatezkoen lankidetzan, irteera baimenetan eta familiekiko komunikazioetan, Estatu Idazkaritzak horiei buruzko zenbait datu adierazgarri eman eta balorazio batzuk ere egiten dituelarik.

Datu horietako batzuek -gure Erkidegoan borondatezkoek eskaintzen duten elkartasunezko partaidetzari dagokiona, adibidez- gure txostenean espreski jasota dagoen gaiari buruzko balorazio positiboa baiesten dute. Baina ez da ahaztu behar borondatezkoen kolektiboak izan direla zentroetan lan egiteko aurkitzen dituzten arazoen berri eman dutenak, beraien iritziz arazo horiek hiru zentroen artean oso ezberdinak direlarik.

Idazkaritza horren beste datu batzuek mugak egonda ere (adibidez, mintzatokien mugak) azken urteotan egindako ahaleginak erakusten dituzte, baina aldi berean bide beretik aurrera jarraitzeko eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko guk egindako eskaria indartzen dute.

Orain ez dugu datuei buruzko xehetasunetan sartu nahi, ezta Estatu Idazkaritzaren erantzunak dauzkan interpretazio akats nabariei erantzuten ere (esate baterako Gasteizko emakumeentzako etxebizitzari dagokiona, preso atzerritarrentzat zela esaten baitu; edo baimenei dagokien gaia, gure txostenean gardentasun ezarekin erlazionatzen ez dena, eta atzerritarrentzako politika berezi bezala ere planteatzen ez dena). Estatu Idazkaritzaren idatziak ematen duen elementu bat aipatzera mugatuko gara, adibide adierazgarria delako.

Idatziak, gai honi eskainitako azken atalean hau dio: "*Araudi Penitentziario berrian komunikazio aukerak gehitzeaz gain, familia bizitza bultzatzeko beste komunikazio mota berri bat sortu da, 'iraupen luzeko familia-komunikazioak' deituak, aita-ama presoen eta horien seme-alaben arteko elkarbizitza- egunak burutzeko aukera bilatzen dutenak*". Egia da, eta erakunde honek oso positiboki baloratzen du. Gainera, helburuetan eta tresnetan sintonia eta adostasuna dagoena erakusten duen adibide oso ona da. Baina norbaitek argitu beharko du iragarpen legal hori Basauri, Martutene edo Langraizko zentroetan, dauzkaten bitarteko eta azpiegiturekin praktikara nola eramatea pentsatzen den. Bestela -gure txostenean esaten den bezala, Estatu Idazkaritzak onartzen ez duen arren-, arau iragarpenen eta gure kartzeletan ikus daitekeen eguneroko errealitatearen arteko tartea areagotzeko arriskua baieztatuko da.

Izan ere borondate politikoa lege eta arauen bidez aditzera ematen da, baina horien neurketa praktikara eramateko bitartekoekin egiten da. Eta aspektu hau ondorengo atalean aztertzen dugu.

B/ **Antolamendu eta bitartekoen gabeziaz**

Gure txostenean esaten zen gure Erkidegoko kartzeletan ikusitako akats asko bitarteko eta antolamendu ezagatik gertatzen direla, eta Estatu Idazkaritzak horrekin ados ez dagoela dio. Baina Estatu Idazkaritzaren testuak berak behin baino gehiagotan aitortzen ditu gabezia horiek, adibidez:

- "*gure kartzeletako preso pilaketaren arazo oso larriari*" aurre egiteko "*era guztietako zailtasunei buruz*" hitzegiten du;
- aitortzen du antolamendu mailako gabeziak direla hain zuzen "*Erakunde Penitentziarioek aurre egin beharreko arazoetako bat eta Araudi Penitentziario berrian kartzelak kudeatzeko moduan estruktura mailako erreforma osoa eragin duela horrek*" (araudi

hori, gogora dezagun, zentroen funtzionamentua aztertzerakoan artean indarrean sartu gabe zegoen);

- laguntza sanitarioa "*erabat eratzeko*" premia ikusten du, hori "*administrazio penitentziarioen eta osasuna administrazioen korrespontsabilitate printzipioen pean*" egin beharko litzatekeelarik, eta hori gure txostenean aipatzen genuen bidearekin ados dator;
- "*gaur egun 11 kartzela berri egiten ari dira, Basauri edo Martuteneko kartzelak bezalakoak ixteko aukera emango dutenak*" dio, eta hori "*presoei bizitza kalitate handiagoa eman eta bergizarteratzeko programa bereziak martxan jartzeko aukera emango duten azpiegitura penitentziarioen mapa bat gure herrialdeak eduki dezan*" lortzeko;
- gogoratzen digu: "*azken bost urteotan 8 zentro berri eraiki dira osasun, hezkuntza eta prestakuntzarako instalazio mota guztiekin, banakako zelda edukitzeko eta tratamendu eta interbentziorako banakako programak definitzeko aukera handiagoa erraztuaz*"...

Hau da, gure txostenean aipatutako gabeziak onartzen ditu, nahiz eta apur bat lehenago horren balioa ukatu, eta onarketa gurea baino garbiagoa da, sarritan konparazioak ere egiten dituelarik. Estatuko beste zentro batzuen datuak ere badauzkalako, zeinetatik eratortzen baita antza -Erakunde Penitentziarioen Zuzendari Nagusiak zioen bezala (*Crónica. Vasco Press*, 96-3-11, 14-15 orr.)- "*EAE dela Espainia guztiko kartzela azpiegiturarik txarrenak dauzkana. Basauriko eta Martuteneko eta baita Langraizko kartzela-azpiegiturak ere penagarriak eta oso zaharrak dira, eta zaharkituta dauden kontzepzio arkitektonikoei erantzuten diete eta gaurko kartzela batek eskatzen dituen esijentziekin ez dauka zerikusirik*". Eta ondoren gehitzen du Basauriko kartzela "*zaharra, zaharkitua, iraungia dagoela, eta besterik gabe bota eta berri bat egin beharko litzatekeela, hezkuntzarako espazioekin, lantegiekin (...)*". Gure txostenean ez da behin ere hain baieztapen tinkorik egiten.

Bestalde, erantzunean esaten direnei puntuz puntu erantzutea egokia ez den arren, berriro ikusten da Estatu Idazkaritzaren erantzunak txosteneko zenbait baieztapen testuingurutik atera eta bertan oinarririk ez daukaten erlazioak ezartzen dituela.

Lehenago esan den bezala, gai penitentziarioko eskuduntza-funtzioak eskuz aldatzeko premia ez dator bitartekoen gabeziagatik bakarrik -erantzunean iradokitzen den bezala-, erantzun globalago bati, etorkizuneko planteamenduari erantzuten diolako baizik. Hain zuzen transferentzia kartzelen kudeaketan "esku aldaketa" soil bat bezala ez ulertzea litzateke.

Kartzeletako preso pilaketei dagokionez, Estatu Idazkaritzaren erantzunean esaten denez, "*txostenaren gabezia teknikoak garbien erakusten dituen puntua da*". Bitxia, kritika hain zorrotz hori ez da oinarritzen arazoaren gabezian -Idazkaritzaren erantzunean oso garbi aitortzen baita masifikazio larriaren arazoa-; aldiz, hamar lerrotako pasarte batean esaten denari heltzen dio, eta gainera kartzelaratze prebentiboari buruz txosten osoan egiten den aipamen bakarra da.

Gai honi buruzko datuen inguruko desadostasunez gain, esan den bezala une kronologiko ezberdinak hartzeagatik gertatuak, esan behar da azken urteetako datuek bilakaera positiboa isladatzen dutela -eta espero dugu horrela izaten jarraitzea-, baina ez du esan nahi arazoa desagertzen denik. Aginte judizialeko kideek berritan egin dituzten adierazpen ugariek gogoratu dute kartzela prebentiboak beti salbuespenezko neurria izan behar duela. Eta aipatu den portzentaiak -%23,14- ez du adierazten askatasun kenketaren erabilera murritza eta salbuespenezkoa, baizik erabilera nahiko ohizkoa dela.

Edonola, oinarrizko eskubide baten murriztapena denez gero, kartzelaratze prebentiboaren arazoa ez da kuantitatiboa, kualitatiboa baizik. Pertsona batzuek hilabeteak edo urteak pasa behar badituzte epaituak izateko -kasu batzuetan pertsona horietako batzuk libre geratzen dira edo kartzelan pasatu duten denbora baino gutxiagoko zigorrera kondenatzen dituzte-, garbi dago kartzelaratze prebentiboak arazo kezkagarria izaten jarraitzen duela. (Ikus Bizkaiko Abokatuen Bazkundeko kideek egindako azterketa enpirikoa, *Investigación sociocultural sobre la aplicación de la prisión preventiva y de las penas cortas privativas de libertad en Bizkaia*, Bilbao, 1993).

Gai hau ez dugu itxi nahi kartzelaratze prebentiboaren gaiak -gure txostenean aipatu baino ez da egiten- esparru ezberdinen artean kezka eragin duela aipatu gabe. Judizialetaz gain, horri buruz Herri Defendatzaileak behin baino gehiagotan hitz egin du (ikus, besteak beste Kataluniako egoera penitentziarioari buruzko Txostena, 1990, 58. or.), eta beste nazioarteko erakunde batzuek ere hitz egin dute. Adibide gisa Zuzenbide Penalari buruzko XV. Nazioarteko Biltzarrak emandako gomendioa daukagu (Rio de Janeiro, 1994), non esaten baita komeniko litzatekeela "*legegileak behin-behineko kartzela zigorrarentzat neurri alternatiboak ezartzea, neurri horrek salbuespenezkoa izan beharko lukeelarik*" (III.3 saila).

Estatu Idazkaritzaren erantzunak gure beste baieztapen bat ere kritikatzen du -txostenak "*hautapen politiko zehatza erakusten duelako*" eta "*egia ez delako*"-, hots, Kode Penal berriak zigor alternatiboak modu eraginkorrean ez dituela bultzatzen eta zigor nagusi bezala askatasuna kentzen duen zigorrari eusten diola. Zaila da labur argitzea alde batetik testuingurutik ateratako baieztapenen bidez era murriztuan planteatzen den eztabaida delako, eta bestetik, erreforma penal osoari buruzko balorazioa egitea eskatzen duelako. Halere arrazoibide batzuk eman behar dira.

Ez da esaten Kode Penal berrian askatasuna kentzen ez duten zigorrak sartzen ez direnik; are gehiago, erakunde honen ustez horiek praktikara eraman egin behar dira. Alabaina, auzitegiek sarrien ezartzen jarraituko duten zigorra kartzela izateko arriskua zalantzarik gabea da. Eta hori horrela da, alde batetik, isunarekin batera -eta isuna da erantzunaren arabera Kodean gehien erabiltzen den zigorra- kasu asko eta askotan askatasuna kentzen duten zigorrak joaten direlako, are gehiago, kondenatuak dirurik ez daukan kasuan bigarrenaren hautapena egingo da. Eta bestetik, ahaztu ezin delako kartzelara jende gehien eramaten duten delituak jabetzaren eta osasun publikoaren kontrakoak izaten direla, eta horietako bakar batean ere ez da askatasun kenketa ezartzen duen zigorrean egiazko beherapenik egon.

Balorazio horrekin bat dator dotrina penal ia guztia, baina bat datoz baita judikaturako kide asko ere. Artean proiektua zeinari buruz Joaquín Jiménez Bilboko Entzutegi Probintzialeko Presidente jaunak esandakoak aipa daitezke adierazgarriak direlako. Honela zioen: "*Lege hausleari dagokionez, sistema guztia kartzela zigorraren inguruan eratzen da, asteburuetako atxiloketen berritasuna zigor motzak ordezkatzeko sartzen bada ere. Praktikan nola eramango diren iragarri gabe dagoenez gero, eta hori oso garrantzitsua da, "berritasun" hori nolabaiteko erreserbekin hartu behar da, izan ere atxiloketa horiek kartzeletan bete behar izanez gero, eduki nahi duten ontasuna kenduko lieketelako. Proiektuak ez ditu bitartekaritza sistemak ezagutzen eta kartzelaren alternatiba izango diren neurriak ezartzea oso mugatua gertatzen da*".

Zentzu berean, komunitatearen onerako lan zigorrak eta asteburuko atxiloketak arautu behar dituen Erret Dekretuaren aurreproiektuari buruz Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak osatutako txostenak adierazten du zigor horiek betetzeko behar diren azpiegiturak ez daudela. Komunitatearen onerako lanei dagokienez hau dio: "*Zigor honek ondo funtzionatuko badu, azpiegitura egokia behar da dudarik gabe, lanpostu kopuru nahikoa eskain dezan (...) Orain informazio unean dagoen araudiak ez die bete-betean behar horiei erantzuten*". Gure ustez, aurreko gogoetak ia hitzez hitz bat datoz gure txostenean egiten zen gomendioarekin.

Azkenik, Estatu Idazkaritzaren agiriak, txostenean erregimen irekiaren eta baldintzapeko askatasunaren ezarpena sustatzeari buruz esaten dena baliabideen gabeziarekin lotzen du.

Kasu honetan ere garbi dago datu kuantitatiboek errealitatea desitxura dezaketela. Hirugarren graduan sailkatutako kartzela zigortuei buruz Estatu Idazkaritzak ematen duen portzentaiak (%31,96), dudarik gabe egia izanik, ez ditu errealitatearen zenbait datu adierazgarri isladatzen. Lehenik, hiru zentroen batez bestekoa izanik, horien arteko aldeak ahaztu egiten ditu. Logikoki, prebentiboen zentroetan, Basaurin eta Martutenen, alegia, askoz gehiago dira kartzela zigorra azken fasean betetzen daudenak, eta, horregatik, sarritan hirugarren graduan mailakatuak -are gehiago intsumiso preso asko daudela kontuan izanik-; proportzio hori izugarri jaisten da Langraizko kasuan, kartzela zigorra betetzeko Euskal Herrian dagoen zentro bakarra delako.

Bestetik, gure txostenean erregimen ireki "eraginkorra" bultzatzeko eskatzen da, eta hori ez da hirugarren gradua. Beraz, aipatutako portzentaiak gure baieztapenak desitxuratzeaz gain gomendioaren egokitasuna berresten du, azken finean hirugarren gradua presoak bere gizarte harremanak berregiteko erdi askatasuneko errealitatea izan nahiko lukeelako.

Zentzu berean, gaixotasun larria edo sendaezina daukaten presoei baldintzapeko askatasunaren ezarpena errazteari eta hedatzeari buruzko gomendioa Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 25eko 48/96 epaiak abalatu du. Bertan, eta Auzitegiaren ustez kartzelatik ateratzeko aipatu arrazoiak ez dio errukizko grazia bat emateari erantzuten, nahitaez pertsonaren duintasunari lotuta dagoen bizitza eta integritate fisikorako oinarrizko eskubidearekiko errespetoari baizik.

C/ **Legalitatearen eta errealitatearen arteko tarteaz**

Txostenean arazoen sustraietako bat bezala jasotzen den aspektu hau izan da komunikabideen artean arreta handiena piztu duena, azterketan daukan pisuarekin konparatuaz proportziorik gabe

nabarmendu delarik. Alabaina, Estatu Idazkaritzaren erantzunean asko esajeratzen da esaten denean "*txostenean ez dago pasarte bat distantzia hori non, nola edo zein intentsitaterekin gertatzen den adierazten duenik*".

Egindako azterketaren ondoren ateratzen den ondorioetako batek dio kartzelen egoera parametro legaletatik urrun dagoela. **Txosten osoan** aztertzen da Euskal Herrian kokatutako kartzelen eguneroko funtzionamenduan araudi penitentziarioa errespetatzen ote den eta zenbateraino. Zentzu honetan, esan den bezala, Estatu Idazkaritzaren txostenak ez du auzitan jartzen zentro horiei buruz egiten den deskripzioa, eta beraz ezin da ukatu deskripzio horretan xedapen legalek eskatzen duten maila arrazoi ezberdinengatik zertan eta zein gaitan ez den lortzen adierazten ez duenik.

Halere, erakunde honen pertzepzioa abalatzen duten zenbait gai zehatz aipa daitezke:

a) Aipatu den Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluak dio askatasuna kentzen duten zigorrak **bersozializaziorantz** eta bergizarteratzerantz bideratuko direla. Agindu horrek zigortuarentzat eskubide subjetibo bat sortzen duela ulertu ezin den arren, begibistakoa da konstituzio arauak betekizun bat sortzen duela, eta hori legegileari eta zigorrak betearazteaz arduratzen denari dagokiola. **Bersozializazio** kontzeptua zabala eta lausoa ere bada, eta horregatik beti da eztabaidagarria horren lorpena, baina Europako Arau Penitentziarioen proposamena hertsiki interpretatuaz -kartzelatik irten ondoren bergizarteratzeko, legalitatean bizitzeko eta premiak asetzeko gaitasuna (R.3)-, argi dago aztertutako zentroetan ikusten diren erreinzidentzia indizeek garbi uzten dutela kartzelak ez duela betetzen bere helburu nagusia.

b) Presoen beste funtsezko eskubide bat osasunerako eskubidea da, edo nahi bada **integritate fisiko eta moralerako** eskubidea. Gai honetan garbi dago, Administrazio Publikoak ahaleginak eta inbertsioak egin dituen arren, kartzelako pertsonen osasun egoera kezkagarria dela. Eta Estatu Idazkaritzaren erantzunean deigarria gertatzen da, laguntza sanitarioari buruzko zifra sail baten bidez arazoaz guk esandakoari kontra egiten saiatu ondoren (19. or), argi eta garbi aitortzea "*'drogamenpekotasunen' eta horren ondoriozko gaixotasun edo zenbait kontsumo ohituren eragina*", eta amaitzeko esaten du preso espainiarraren batez besteko perfila "*osasun gabezia larriak*" dauzkaten pertsonena dela (21. or.) Uste dugu nahiko argi dagoela gure Erkidegoko kartzelak ez daudela diseinatuta preso gaixoei laguntzeko. Laburbilduz, eta erakunde penitentziarioak erakutsitako arreta eta egindako lana aitortu arren, onartu beharra dago kartzelak preso askori osasun psikikoa edo fisikoa galtzea dakarkiela.

c) Kartzeletako masifikazioak, baldintza higieniko-sanitarioetan negatiboki eragiteaz gain, intimitate eskubidearen hausketa dakar. Zentzu horretan nazioarteko testuek eta Lege Organiko Penitentziario Nagusiarenak berak ere diotena diotela, ezin da esan bakarkako zelda bat edukitzeko eskubidea baldintzarik gabea denik. Baina, egia da orobat, alde batetik, Arartekoa bezalako erakunde bermatzaile batek agindu legalak betetzea galerazten duen baliabiderik eza dagoen lekuan aditzera eman behar duela: bestetik, garbi dago Lege Organiko Penitentziario Nagusiak onartutako salbuespenek salbuespen izan behar dutela, eta ezin direla betikotu, neurri handi batean gure zentroetan gertatzen den bezala. Legea ez da betetzen, ez momentuko premiengatik zenbait zelda partekatu behar direlako, baizik masifikazioa azken urteotan Euskal Herriko kartzeletan hor egon den arazo estrukturala bilakatu delako. Era berean, garbi dago Lege Organiko Penitentziario Nagusiaren 19.1 artikuluaren azken pasartea ere ez dela betetzen; hori ez da Estatu Idazkaritzaren agirian transkribitzen, baina honela dio: "*Kasu hauetan [alojamendu eskasia dagoenean, sendagilearen aginduz, etab.] behar bezala aukeratuko dira*". Ezer gutxi aukera daiteke ia preso guztiak beste batzuekin gela erabiltzera behartuak daudenean.

d) Kartzelen barruan **lan ordainduaren** gaian ikusten da baita errealitatearen eta legalitatearen arteko aldea. Konstituzioak 25.2 artikuluan aitortzen duenean kartzelara zigortuak "*edonola, ordaindutako lan bat egiteko eskubidea edukiko duela*", zirkustantzia hori bersozializaziorako ezinbesteko baldintza dela adierazi baino ez du egiten. Arartekoak presoekin

izan zituen elkarrizketetan etengabeak ziren lanik ezagatik edo aurkezten zizkieten kantitate barregarrengatik azaltzen zituzten kexak, baina ondorio berdinak ateratzen dira Erakunde Penitentziarioetako Zuzendari Nagusiak esandakoak irakurriaz (*Crónica. Vasco Press*, 96-11-3), Basauri bezalako kartzeletan lantegietarako lekurik ez dagoela aitortu ondoren, gai penitentziarioen esku aldaketa oso konplexua dela esan eta gehitzen baitu: "*batzordea legera makurtzen bada, prestazioan defizit oso handia dago. Adibidez, preso bakoitzak lanpostu bat edukitzeko eskubideaz Konstituzioak dioena, hau gaur pentsaezina da*". Azalpen hori hain adierazgarria denez gero, ez dirudi beharrezkoa denik lege xedapenen eta kartzeletako lan errealitatearen artean dagoen tartea gehiago azpimarratzea. Alega daiteke, gai honi dagokionez Konstituzio Auzitegiak "pausoka ezartzeko" eskubidea dela esan duela, baina dotrinak asko kritikatu duen kalifikazio horrek bakarrik esan nahi du presoei dagokien eskubide bat errespetatu ez zaielako Administrazioa ez dagoela indemnizatzera behartua; inolaz ere ezin da esan Konstituzioaren agindua beteta dagoenik. Kontrakoak "askatasunik gabeko pertsonen eskubideen debaluaketa" prozesua baieztea lekarke, jada dotrinak salatu duen gauza.

e) Lege Penitentziarioak bersozializazioaren helburua lortzeko **indibidualizazio zientifikoaren sistema** deitua ezarri du, eta bere ardatzetako bat kasu bakoitza banaka aztertzean datza sujetu bakoitzaren berezitasun eta premientzako tratamendu pertsonalizatua ezartzeko. Noski, behaketa eta tratamendurako ekipoen papera ezinbestekoa da Legean iragarritako sistema garatzeko, eta arrazoi berdinagatik, tratamenduaren helburuak lortzeko ezinbesteko baldintza da ere zentro bakoitzeko taldeak behar adina langile tekniko edukitzea. Hiru kartzeletako langile taldeekin izandako elkarrizketaten garbi adierazi zuten tratamenduetarako legeek agintzen dutena betetzea faktikoki ezinezkoa dela bitarteko pertsonalen gabezia larriagatik.
Zentroetako hornidurak eta lanpostu erlazioak aztertu hutsarekin ondorio bera ateratzen da. Adibidez Langraizko kartzelan zortzi hezitzaile zeuden, Erakunde Penitentziarioen Oroitxostenak berak informazio sindikalaren arabera zioenez 21 lanpostu sortzea beharrezkoa zenean. Aldea are handiagoa da zeuden zortzi hezitzaileak eta Araudi Penitentziarioko 269. artikuluak xedatzen duena konparatzen baditugu (hezitzaile bat 20 edo 40 presoko talde bakoitzeko). Arauan iragarritako bitarteko pertsonalen eta egiaz daudenen arteko tarte horiek guztiz nabarmenak dira aztertutako zentroetako edozein lanpostu kopuru aztertzen bada.

f) Orain arte azaldutakoa nahiko esanguratsua den arren, aztertutako kartzelen egoera legediak proposatutako eredutik nola urruntzen den ikusteko beste aspektu batzuk ere aipa daitezke. Gaiaren alderdi guztiak aztertzeko asmorik gabe, **komunikazioen** kontua ikus daiteke, Lege Organiko Penitentziario Nagusiak 51.1 artikuluan zera baitio horiei buruz: "*intimitatea ahalik eta gehien errespetatzeko moduan egingo dira*". Lege agindu honen betekizunak -presoaren nahiz hori bisitatzen duen pertsonaren intimitaterako oinarrizko eskubidearen islada baino ez baita- mintzatokiek baldintza batzuk betetzea esan nahi du, eta horiek Euskal Herriko kartzeletan ez dira betetzen, Estatu Idazkaritzak berak igorritako idatzian aitortzen duen bezala (ikus 9. or.). **Baimenei** dagokienez, eta Administrazio Penitentziarioak horiek eman daitezen egindako ahaleginak aitortu arren, egia da, sarritan, horiek erabakitzeko irizpideak ez direla bat etortzen Legean jasotakoekin. Zentzu honetan, Langraizko kartzelako preso atzerritarrek aho batez adierazten duten kexa atzerritarrak izate hutsagatik baimenik ez ematea da, eta hori legearen kontra legokeen diskriminazio garbia litzateke. Presoen arteko **banaketari** dagokionez, eta noski zentro bakoitzean modulo ezberdinak daudela onartuaz, zorrotz betetzen den banaketa bakarra gizonak eta emakumeak aldentzen dituena dela esan behar da, sarritan preso prebentiboak kondenatuekin bizitzen direlako, lehenengoak erreinzidenteekin eta gaixo daudenek beste presoekin partekatzen dituzte egoitzak.

Aurreko atalek erakunde honen txostenean jasotako zenbait puntu biltzen dituzte eta beraietan dauden gabeziak adierazi, eta, beraz, araudi penitentziarioan ezarritako aginduak eta helburuak egia bihur daitezen lanean jarraitzeko premia erakusten dute. Noski, egindako balorazioen larritasunaz edo intentsitateaz eztabaida daitekeen arren, badirudi legeek agintzen dutena guztiz ez dela betetzen,

beraz, Estatu Idazkaritzaren erantzunean gure azterlanaren emaitzak funtsik gabeak izateari buruz egindako kritika gehiegizkoa behintzat bada.

* * * *

C) **ONDORIOAK**

Ondorioz, Gai Penitentziarioetarako Estatu Idazkaritzaren 1996ko martxoaren 25eko idatzian jasotako edukiak erakunde honek aztertu ondoren, idatzi horretako gaitzespenak ez dira onartzen arrazoi gabeak direlako, eta bereziki idatzi horren ondorioa arbuiatzen dugu, erakunde honi "*errealitatearen diagnosi okerra*", "*horri bizkar emanaz egina*", eta "*jarrera ideologiko jakin batetik egina*" dagoela egozten diona. Ondorio hori errespetatzen da, bai, baina inolaz ere ezin gara harekin bat etorri.

Erakunde honen ustez, politika penitentziarioaren arduradunek funtsean bi aukera zeuzkaten Arartekoak osatutako bezalako txosten baten aurrean:

1) Lortu beharreko helburuei edo garatu beharreko tresnei buruzko adostasunak aprobetxatu eta hortik eta zentzu horretan emandako pausoetatik abiatuaz erakunde ezberdinen arteko lankidetza bilatzea, zuzena litzatekeen bidean aurrera egiteko. Hau da, planteamendu adostuak dauden helburu eta tresnak azpimarratu eta horietaz baliatzea borondate eta baliabide berriak batzeko. Horrek ez du esan nahi komenigarritzat jo daitezkeen datu globalak edo partzialak eman ezin direnik azterketa kualitatiboa eta hiru zentrotara mugatzen dena osatzeko.
2) Txosten hori gaitzesten saiatzea, arrazoirik gabe seguru aski, beraien kudeaketari egindako kritikatzat jo dutelako.

Tamalez, bigarrena aukeratu dute: gaitzespena. Eta horren lekuko erakunde honen txostenari erantzunez osatu duten idatzia da -"kontratxosten" antzekoa- non ondorengoaz baliatu baitira:

- publikoki eta espreski ere dauden adostasunak ukatzeaz;
- adierazpenak testuingurutik ateratzeaz edukia desitxuratzeko edo testuan balio erlatiboa daukaten baieztapenak absolutizatzeko;
- adjetibazio latza erabiltzeaz, deskalifikazioa bilatuaz;
- intentzio edo balore juzkuak daudela uste izateaz, gertatzen dena baino erakusten ez denean;
- aukera metodologiko kualitatibo baten balioak ahazteaz eta kuantitatiboak baino ez duela balio insistitzeaz;
- errealitate autonomikoa debaluatzeaz;
- txostenaren beharrezko pertzepzio globalari uko egiteaz;
- Legez erakunde bermatzaile bati dagokion perspektiba ahazteaz, hau da: Administrazioaren gabezien aurrean hiritarra babestea, hobekuntzak iragartzea eta iradokitzea, erakundeak -baita autonomikoak ere- eta gizarte osoa inplikatzea, etabar.

Eta "tamalez" diogu, hutsegite larria deritzogulako, eta horrek erantzun eta kontraerantzunen dinamikan sartzera behartzen gaituelako, Ararteko erakundearen borondatearen kontra ezbairik gabe, baina eztabaidari eman nahi izan zaion izaera publikoagatik bete egin beharra daukalako.

Beraz, agiri honetan eta publikoki jasota gera bedi 1996ko martxoaren 25eko Estatu Idazkaritzaren idatzian jasotzen diren gaitzespenekiko gure arbuioa eta Ararteko erakunde honek "*Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoera*"ri buruzko txosten berezian jasotako funtsezko eduki guztia berriro baiesten dugu.

Horrekin batera, Legeak erakunde bermatzaile honi esijitzen dioenaren ildotik, presoen, laguntzen dieten langileen eta beste guztien egoera hobetzea lortzeko lana egiteko prest dauden guztiekin batera lanean jarraitzeko gure borondatearen eta konpromezuaren lekukotasuna gera bedi.

* * * *

Honaino iristen da joan den apirilaren 26an Erakunde Penitentziarioetarako Estatu Idazkaritzaren balorazioei bidali zitzaion erantzunaren edukia.

C/ **Txostenaren ondorioz hasitako ofiziozko iharduerak**

"*Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoera*"ri buruzko txosten bereziaren **helburu nagusia**, erakunde honen beste edozein txostenena bezala, aztertutako errealitatearen gabeziak azaleratzea baino gehiago errealitate hori hobetzen laguntzea da; kasu honetan, zehazki, gure Erkidegoko kartzeletan **askatasuna kenduta dauden pertsonen egoera hobetzen laguntzea**.

Horregatik, eta egungo eskuduntza esparruak mugak ezartzen dituen arren, Arartekoak txostenaren jarraipen gisa **euskal esparruko erakundeen aurrean ofiziozko iharduera** batzuk hastea erabaki zuen, alor penitentziarioko lankidetza hitzarmenen edo esparru horren kudeaketa alorraren arabera pertsona horien egoera partzialki eta kasu oso zehatzetan bada ere hobetzen lagundu zezaketelako.

Jarraian eskaintzen den erlazioan ikus daitekeenez, Arartekoak eskuduntzak dauzkaten eta txostenean tratatutako gaiekin (arazo eta proposamenekin) harreman zuzena edo zeharkakoa daukaten erakunde guztietara jo nahi izan da. Guztira **51 ofiziozko iharduera aurkeztu dira erakundeen aurrean eta ondorengo gaiei buruz**:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KARTZELEN EGOERAREN BIDETIK ARARTEKOAK SUSTATUTAKO OFIZIOZKO ESPEDIENTEEN LABURPEN-KUADROA

Erakundea	Gaia	Erreferentzia
OSASUN SAILA / JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA /HERRI DEFENDATZAILEA	Droga arazoei erantzuna eta xiringak trukatzeko proposamena	37/95/09O
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA	Pena berriak ezartzeko azpiegitura	13/96/21O
«	Zaintza penitentziariorako Epaitegiarentzat bitartekoak	14/96/21O
«	Hitzarmen nagusiaren garapena	15/96/21O
«	Kartzelen informatizazioa	16/96/21O
«	Enplegua sustatzeko programak	17/96/21O
«	Dirulaguntzak eta partaidetza plataformak ONGentzat	18/96/21O

Erakundea	Gaia	Erreferentzia
«	Erregimen irekian kartzela zigorra betetzeko alternatibak	19/96/210
«	Asistentzia Penitentziarioko Txanden hobekuntza	20/96/210
«	Drogamenpekotasun ekipoak hiru zentroetan	21/96/210
OSASUN SAILA	Kartzela barruko eta kanpoko mediku zerbitzuen koordinazioa	22/96/180
«	Zentroetako pertsonal sanitarioaren hobekuntza	23/96/180 24/96/180
«	Plaza psikiatrikoak sendabiderik gabeko gaixoentzat	
«	Kartzeletako baldintza higieniko-sanitarioen kontrola	25/96/180
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA	Presoei hezkuntza-eskaintza zabaltzea	26/96/200
«	Erakunde penitentziarioetako irakasleen etengabeko prestakuntza	27/96/200
«	Sareen koordinazioa (penitentziarioak eta arruntak)	28/96/200
KULTURA SAILA	Euskarazko eskolak zentroetan	29/96/180
ARABAKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	Pobrezia egoerentzat laguntza programak	30/96/090
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	«	31/96/090
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	«	32/96/090
ARABAKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	Iharduera-programa subentzionatuak zentroetan	33/96/090
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	«	34/96/090
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	«	35/96/090
ARABAKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	Kartzela barruko eta kanpoko laguntza sareen koordinazioa	36/96/090
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	«	37/96/090

Erakundea	Gaia	Erreferentzia
GIOUZKOAKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	«	38/96/09O
ARABAKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	Laguntza programetan sartuta dauden ONGentzako dirulaguntzak	39/96/09O
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	«	40/96/09O
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE ONGIZATEA)	«	41/96/09O
ARABAKO FORU ALDUNDIA (KULTURA)	Langraizko Kartzelako liburutegia hobetzea	42/96/18O
BIZKIKO FORU ALDUNDIA (KULTURA)	Basauriko Kartzelako liburutegia hobetzea	43/96/18O
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (KULTURA)	Martuteneko Kartzelako liburutegia hobetzea	44/96/18O
ARABAKO FORU ALDUNDIA (KULTURA)	Kartzelak zirkuito kulturaletan sartzea	45/96/18O
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (KULTURA)	«	46/96/18O
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (KULTURA)	«	47/96/18O
EMAKUNDE	Emakume presoen egoera	48/96/21O
GASTEIZKO UDALA	Babeserako etxebizitzak	49/96/09O
«	Autobus zerbitzua Langraitzera	50/96/22O
IRUÑA DE OCAKO UDALA	Kartzela zirkuito kulturaletan sartzea	51/96/18O
BASAURIKO UDALA	«	52/96/18O
DONOSTIAKO UDALA	«	53/96/18O
«	Babeserako etxebizitzak	54/96/09O
«	Martutenetik pasatzen den autobus linearen ordutegiak	55/96/22O
ARABAKO ABOKATUEN KOLEGIOA	Kolegiatuen kontrola	56/96/21O
BIZKAIKO ABOKATUEN KOLEGIOA	«	57/96/21O
GIPUZKOAKO ABOKATUEN KOLEGIOA	«	58/96/21O
ARABAKO ABOKATUEN KOLEGIOA	Laguntza penitentziariorako Txanda hobetzea-zabaltzea	59/96/21O
BIZKAIKO ABOKATUEN KOLEGIOA	«	60/96/21O
GIPUZKOAKO ABOKATUEN KOLEGIOA	«	61/96/21O
EUDEL	Kartzela barruko nahiz kanpoko laguntza sareen koordinazioa	---

Erakundea	Gaia	Erreferentzia
SAIL EZBERDINAK	Sendatu ezin diren gaixoentzako babes-sarea	---
KULTURA SAILA	Kartzeletako liburutegiak hobetzea	62/96/180
HERRIZAINGO SAILA	Ikuspegi globala	---

Aurreko kuadroan laburtutako informazioa ondorengo **arrazoibideekin** osatzea komeni da:

- Iharduera guztiak -lehenengoa salbu, lehenago hasi baitzen eta drogari eta xiringak sartzeko programari dagokio- **1996ko apirilean, maiatzean eta ekainean jarri ziren martxan**.
- Erakunde honen ofiziozko edozein ihardueratarako dagokion idatzia erakunde arduradunari bidaltzea nahikoa den arren, iharduera hauetan Arartekoaren partaidetza ez zen horretara mugatu; aldiz, **kasu guztietan agintari arduradunei eskuz eta azalpen pertsonalekin eman zitzaien**. Inplikazio zuzen horrek, sail, udal eta erakundeetako arduradunekin apirilean, maiatzean eta ekainean zehar 19 lan bilera egin beharra ekarri zuen.
- Kasu apur batzuetan (Herrizaingo Saila, EUDEL, gaixo sendaezinen babeserako sarea), egindako iharduerek ez zuten ofiziozko espediente forma hartu, antzeko lan bilerak egin eta zegozkien idatziak aurkeztu zitzaizkien arren.
- Sail eta erakunde ezberdinen aurrean jarraitutako prozesuaren gailur gisa, Arartekoak 1996ko ekainaren 20an emandako pausoen ikuspegi globala aurkeztu zion **Lehendakariari**, eta esparru penitentziarioko eskuduntzak lehenbailehen eskuratzeko premia eta garrantziaz insititu zion.

D/ Erakundeen erantzunak eta ofiziozko ihardueren emaitzak

Gorago esan den bezala, ofiziozko iharduera guztiei uda baino lehen eman zitzaien hasiera. Ondoren, joan den urrian idatziz erantzunik eman gabe zeuden sail eta erakundeei zuzendu zitzaien Arartekoa berriro. Txosten hau 1996. urteari dagokio eta, beraz, urte horretako abendurarte eskuratutako informazioa biltzen du. Horrela bada, **abendurarte** Arartekoak ondorengo erakundeengandik **erantzunen bat** jasoa zeukan:

- Herri Defendatzailea
- Erakunde Penitentziarioetarako Zuzendaritza Nagusia
- Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
- Osasun Saila
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Kultura Saila

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Saila
- Emakunde
- Arabako Foru Aldundiko Herri-Lan eta Garraio Saila
- Donostiako Udala
- Gipuzkoako Abokatuen Kolegioa

Oraindik **jasotzeke daude** erakunde batzuen eta goian aipatutako beste batzuen erantzunak, izan ere jasotako erantzuna planteatzen zitzaizkien gaietakoren bati baitagokio, ez guztiei, eta beste kasu batzuetan, oraindik egin gabeko zehaztapenen berri ematen duten erantzun formalak izan baitira.

Beste kasu batzuetan, berriz, erakunde arduradunaren erantzun ofizialik jaso ez den arren, erakunde honek badaki planteatutako arazoa konpontzeko edo arintzeko **erabaki** adierazgarriak hartu direla.

Erantzunik edo horien zehaztasunik eza, esparru penitentziarioan egun dagoen eskuduntzan oinarritzen da, izan ere euskal erakundeen ustez beraiei ez dagokien alorreko arazoak konpontzen sartzea baloratzen dutenean eskuduntzena aitzakiatzat hartzen baitute. Horregatik, Arartekoak berriro azpimarratzen du txosten monografikoan bere garaian egin zuen lehen gomendioa: Euskal Autonomia Erkidegoak esparru penitentziarioan dauzkan eskuduntzen funtzioak berehala **transferi daitezela eskatzea**. Eskuduntzak osorik eskuratzearen bidez bakarrik lortuko da euskal erakundeak presoen egoeraz arduratzea eta arazo horretan murgiltzea, dauden gabezien errua beste erakunde batzuei gaineratzeko baliabide erraz hori egon ez dadin.

Emaitzei eta eskuratutako erantzunei eskainitako atal honetan, urtean zehar gai oso zehatzetan egon diren **aurrerapen** batzuk aipatu behar dira. Esate baterako honako gai hauek: urte honetan zehar hiru kartzeletan egon den **preso kopuru murriztapen** adierazgarria, edo hiru zentroetan **metadona** programak indarrean jartzeko emandako pausoak, edo **xiringak trukatzeko** programa bat martxan jartzeko urtean zehar egin den lana...

Une batez azken adibide hori aztertuko dugu. Xiringen gaia, alegia, edo zehazkiago esanda, **kartzeletan drogaren arazoari erantzuteko** programa zehatza.

Martuteneko kartzelan intsumisoen kolektiboko ordezkariak 1995eko abenduaren 1ean eskuratu zigun eta hirurehun preso baino gehiagoren eskaria jasotzen zuen idatziaren ondoren, eta zentroetako eta kanpoko profesionaltaldeekin harreman ugari eduki ondoren, erakunde honek «*Kartzeletako droga kontsumoari eta gaixotasun kutsagarrien transmisioari buruzko proposamenak eta oharrak*» aurkeztu zituen. (Ikus «*Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoera*» txosteneko 183-188 or.).

Txosten hori bere proposamenekin batera, eta horien artean gure kartzeletako batean **xiringak trukatzeko programa sartzeko proposamen zehatza** garai hartan Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailera, Osasun Sailera, Herri Defendatzaileari eta Erakunde Penitentziarioetarako Estatu Idazkaritzara bidali zen. Eusko Legebiltzarreko taldeei ere bidali zitzaien Presidentearen bidez. Handik gutxira, 1995eko abenduaren 13an, Legebiltzarrak

berak Euskadiko kartzeletan xiringak banatzeari buruzko legez kanpoko proposamen bat onartu zuen.

Horretarako sortu zen erakunde arteko Lan Batzordea, bertan erakunde honek parte hartu duelarik, aurtengo otsailetik eta irailera arte lanean aritu da «**Basauriko kartzelan xiringak trukatzeko proiektu pilotoa**» osatu duen arte. Aldi berean, drogamenpekotasun arazoak dauzkaten pertsonei laguntzeko beste zerbitzu batzuk hedatzeko pauso erabakiorrak eman dira, adibidez metadonarekin eusteko programarekin emandakoak.

Batzordeak osatutako Programa-proposamena ofizialki bidali zitzaien Eusko Legebiltzarrari ezagutu zezan, eta Barne Ministerioari onar zezan.

Emandako pausoen eta txosten hau idazten den unean (96ko abendua) eskura daukagun informazioaren arabera, zenbait aldaketa sartzen eta esperimentalki martxan jartzeko behar diren beharrezko azken zehaztapenak egiten ari dira, eta pentsatzekoa da xiringak trukatzeko programa errealitate bat izango dela datozen hilabeteetan Basauriko kartzelan.

Urtebete baino gehiago kudeaketak egiten eta lanean aritu ondoren guztiontzat poztekoa da preso batzuentzat -horrela espero dugu- osasunerako eskubideaz hobeto baliatzeko bidea izatea, programa hori martxan jarri eta gero. Eta ez programak berak eduki dezakeen garrantziagatik, edo aurrerago beste zentro batzuetara hedatu daitekeelako... Pozik egon behar dugu baita agente sozial eta erakunde ugariren laguntzari, esparru eta alor ezberdinetako erakundeen lan isilari eta lankidetzari, jarrera malgutasun eta inplikatutako agenteen jarrera positiboari etabarri esker gai zail eta gaiztotu bati erantzuna emateko bidea egin dutelako ere.

Noski, beste edozein programa berritzailetan bezala hemen ere bideratu beharko diren arazoak eta gaiak sortuko dira. Horretarako denbora egongo da. Baina orain bere dimentsio positiboa eta eredugarria azpimarratu nahi dugu. Izan ere, erakundeen arteko eta agente ezberdinen arteko lankidetzari esker hasiera batean hain konplexua den gai batean arazoak gainditzea lortu bada, bide horrek berak antzeko fruituak eman ditzake kartzeletan dauden beste arazo batzuei dagokienean.

E/ **Lankidetzaren eta jarraipenaren garrantzia**

Kartzelei buruzko txostenaren ondorioz 1996an burututako iharduerei eskainitako atal luze honekin amaitzeko **hiru gai azpimarratu nahi ditugu**:

1) Lehenik, **lankidetza eta bere ondorio onuragarriak**.

Aurreko atalean, xiringak trukatzeko programarako lortu den erakunde arteko lankidetza azpimarratu da. Une oro hiru kartzelen aldetik erakunde honek izan duen laguntza ere azpimarratu nahi du, eta bereziki zuzendariek emandakoa, urtean zehar horiekin etengabeko harremanetan egon baikara. Era berean, presoei laguntzeko elkarte ezberdinekin izandako

lankidetza harremanak ere aipatu behar ditugu, horien azken gauzatzea abenduaren 12, 18 eta 19an elkarrekin egindako bileretan lortu baitzen. (Ikus elkarteen zerrenda txosten honetako 69-70. orrialdeetan).

2) Bigarrenik, **esparru penitentziarioan eskuduntzak eta ardurak asumitzeko larritasuna**.

Ez gara aspertuko gai hau behin eta berriz errepikatzen -txosten berezian egin genuen eta orain atal honetan bertan egin dugun bezala-, ez behintzat egun dagoen eskuduntza banaketak presoei eta kartzeletan lan egiten duten profesionalei laguntza okerragoa ematen dien bitartean.

3) Eta hirugarrenik, **jarraipenaren garrantzia eta konpromezua**.

Lerro hauen bidez garbi geratu den bezala, txostenean eta administrazio ezberdinen aurrean planteatutako hobekuntza proposamen gehienak egiteke daude. Arartekoak horiek eskatzen jarraituko du ahal duen neurrian, eta beste erakundeen aldetik antzeko konpromezua espero du.

2.1.3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARRISKU ETA BABESIK GABEKO EGOERAN DAUDEN ADIN TXIKIKOENTZAKO LAGUNTZA-ZERBITZUEI BURUZKO TXOSTENA

Arartekoa oso arduraturik dago erakunde penitentziarioen babes zuzen, tutela edo zaintzapean dauden adin txikiko askok daukaten egoerarekin.

Erakundeen pean dauden adin txikiko horien eskubideekiko zainketak 1995eko azken hiruhilabetean azterketa bat hastea ekarri zuen. Bertan, babesik gabe daudenen eta adin txikiko lege-hausleak deitzen zaienen egoera txosten bakar batean jasotzea pentsatu zen.

Laster ikusi zen, ordea, adin txikikoen bi kolektiboen egoera ezberdinak aldaketa metodologiko bat eskatzen zuela, eta gaiaren konplexutasuna kontuan izanik erakundeen pean dauden adin txikikoen errealitate ezberdinei erantzungo zieten bi txosten berezi egitea komeni zela.

Beraz, 1996. urtean, azken urteko txostenean iragarri zen bezala Euskal Autonomia Erkidegoan arrisku eta babesik gabe dauden adin txikiko eta gaztetxoen laguntza-zerbitzuen azterketari ekin zitzaion.

Gaur egun, adin txikikoen talde handi bat dago hiru lurralde historikoetako foru aldundien eta Gasteizko Udalaren babes eta kasu batzuetan baita tutela pean ere, gai honetan eskuduntzak dauzkaten erakundeak diren aldetik. Erakunde horietako haurrentzako zerbitzuek emandako datuen arabera, 1996an 1.220 haurri eman zitzaien beraien familia guneetatik kanpoko laguntza; horien artetik 900 egoitzetan aurkitzen dira, eta gainerantzekoak familietan edo erakunde penitentziarioetan jasota daude. Horiez gain, beste kasu hauetan daudenak ere kontuan hartu behar dira: zerbitzuek adin txikikoa familiatik aldentzea ez dela

komeni erabaki ondoren, adin txikiko horiei eta beraien familiei zuzendutako gizarte eta heziketa alorreko neurriak burutzen daudenak. Hain zuzen, era horretako interbentzioei lehentasuna eman beharko litzaieke, nazioarte mailan haurtzarorako dagoen dotrinaren eta legeei buruzko konparaketa-azterketetatik eratortzen diren ondorioen bidetik.

Gaur egun alor honetan iharduteko dauden moduak asko eztabaidatu dira azken urte hauetan. Besteak beste, ondorengo puntuetan kokatzen da eztabaida hori: erakunde eskudunen iharduerarako prozedurak; lurraldeen arteko aldeak; gizarte zerbitzuen eta prozesuaren funtsezko faseetan -detekzio edo jarraipenean- zuzenean inplikaturiko hezkuntza eta osasuna bezalako zerbitzuen arteko koordinazio kontuak; edo familietan burutzen diren iharduerен eraginkortasun maila.

Babesik gabe dauden adin txikikoen taldeari buruzko galdera horiek indarrean dagoen ereduaren araberako azterketa egitea esijitzen zuen.

Azterketak bi zati dauzka:

Lehenengoa gure gizartean babeserako indarrean dagoen sistemari dagokio. Eta horretarako, lehenik alor honetan planteatzen diren eskuduntza eta lege mailako gaiak aztertzen dira, ondoren iharduerarako marko teorikoa aurkezten da, horretarako haurrekiko tratu txarrak deituraren pean zein egoera mota sartzea komeni den, horiek nola baloratu eta iharduera ereduak zein izan behar duten kontuan hartuaz, eta azkenik Autonomia Erkidegoan aurkitutako errealitatea aztertzen da. Lehenik, laguntza jaso dutenen, kolektibo horri dagozkion zerbitzuen eta horien babeserako ezarritako neurriei buruzko datuak eskaintzen dira, jarraian iharduera prozeduren azterketa egiten delarik ondoko puntuetan oinarrituaz: detekzio, balorazio, erabaki eta neurrien ezarpenari dagozkien fase ezberdinetako iharduera-pautak, eta haurrentzako zerbitzuek prozedurako fase jakinetan zuzenean inplikatuta dauden oinarrizko gizarte zerbitzuekin (osasun, hezkuntza, justizia eta polizia zerbitzuekin) ezartzen dituzten koordinazio administratiborako bideak.

Guzti horretarako informazio iturri ezberdinetara jotzeko premia ikusi da:

- Elkarrizketak egin ondorengo arduradunekin: alor honetan zuzenean iharduerak burutzen dituzten hiru lurralde historikoetako foru aldundi eta Gasteizko Udaleko haurrentzako zerbitzuetako teknikari-arduradunekin; adin txikikoen eskubideen defentsarako prozeduretan parte hartzen duten fiskalekin; eta gai honetan paper garrantzitsua jokatzen duten beste profesional batzuekin (batez ere hezkuntza eta osasun alorretakoekin).
- Zerbitzu horien administrazio prozedurei dagozkien datu estatistikoen azterketa laguntza jasotzen duten haurren ezaugarriak definitzeko, detekzio bide ezberdinak ezartzeko eta iharduerен tipologia mugatzeko.
- Zerbitzuek eduki dezaketen barne dokumentazioaren azterketa, dokumentazio hori pertsonalaren iharduerarako nondik-norakoei edo langile ezberdinek burutu beharreko lanari buruzkoa izan daiteke, eta baita kasuei tratamendu banakakoa ematerakoan erabili diren erregistro eta baloraziorako bitarteko teknikoei dagokiena ere.

- Lortutako informazio estatistikotik aukeratutako 150 espedienteren azterketa: honek errealitatea azaltzeko helburua edukiko du, eta horren bidez iharduera modu ezberdinei dagokien kasuistika erakutsi nahi da.

Azterketaren bigarren fasea 1997ko hasieran amaituko da, eta bertan, egoitzetan jasota dauden haurren egoerari buruzko ebaluaketa egingo da, alde batetik zentroen egokitasun maila aztertuaz eta, bestetik, haur eta gaztetxo horien satisfazio maila ikusiko da.

Helburu horiek lortzeko, zentroak bisitatu dira, horietan burutzen diren iharduerен antolaketa ikusi eta bertako bizitza modua eta ematen diren pertsonen arteko harremanak aztertu dira. Horretarako, berriz, metodologia kualitatiboa erabili da, gure inguruko beste herrialde batzuetan era honetako azterketak egiteko indarrean dauden ereduei jarraituaz.

Egoitzetan jasotako haurren satisfazio maila neurtzeko hamar urte edo gehiagoko haurrei zuzendutako galdeketa-elkarrizketa bat erabiliko da, eta horretaz gain bilerak ere egingo dira ume horiekin beraien satisfazio mailan eragiten duten aspekturik garrantzitsuenak definitzen lagunduko diguten datuak eskuratzeko.

Txosten hau 1997ko lehen seihilabetean aurkeztuko zaio Eusko Legebiltzarrari.

2.1.4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADIN TXIKIKO LEGE-HAUSLEENTZAKO LAGUNTZA-ZERBITZUAK

Arrisku eta babesik gabeko egoeran egonda haurren babeserako zerbitzusareek laguntzen dituzten ume eta nerabeekin batera, haur eta gazteen artean badago adin txikiko lege-hausle kolektibo bat ere, hau da, adin txikikoak izanda Zigor Kodean delitutzat jotako jokaerei dagozkien ekintzak burutu dituzten pertsonak dira horiek, eta bizi duten egoera aztertu beharra dago.

Gaiak daukan garrantzia, eta gaur egun hiritarren nahiz politiko eta erakundeen artean pizten duen kezka kontuan harturik, Ararteko erakundeak horiei buruzko azterketari ekitea erabaki du eta, horrela, 1996ko azken hiruhilabetean babes sistemari buruzko txostenaren azken fasearekin batera beste honen lehenengoari ekin zaio.

Arrazoi didaktikoengatik, azalpena garbia izan dadin lortzeko, beste txostenaren eskema berbera jarraituko da honetan ere: lehenik legedi, eskuduntza eta teoriari dagokien markoa deskribatuko da; ondoren laguntza jasotzen duen biztanleria, dauden zerbitzuen sarea eta ezarritako neurriak aztertuko dira; eta azkenik, iharduera faseak eta parte hartzen duten zerbitzuen artean lankidetzarako dauden mekanismoak zein diren ikusiko da.

Horretarako, informazio iturri ezberdinak erabiliko dira:

- zerbitzu eskudunek eskuratuko diguten dokumentazioaren azterketa;
- elkarrizketak ondorengoekin: adin txikikoentzako epaitegietako epaile, fiskal eta teknikariekin, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta

Gizarte Segurantza Saileko Justizia Zuzendaritzako teknikariekin, sail horrek alor honetan gure erkidegoan zegoen eskuduntza zehaztasun eza amaitutzat eman eta adin txikikoentzako epaileek ezarritako neurriak exekutatzeko eskuduntza hartu baitu;

- epaitegiek eta Eusko Jaurlaritzak eskuratutako informazioaren arabera aukeratuko diren espedienteak aztertu, prozeduren ezarpen erreala zein izan den erakusteko.

Txostenaren bigarren fase batean, gure erkidegoan adin txikiko legehausleentzat dauden internamendu zerbitzuen azterketa kualitatiboa egingo da. Gaur egun era horretako bi zentro bakarrik daude -batak 8 plaza dauzka eta erregimen erdi-irekia dauka, eta besteak 11 plaza dauzka eta erregimen ireki eta erdi-irekia dauzka-, biak mutilentzat bakarrik; alabaina, Eusko Jaurlaritzak 1997ko maiatzean 7 plazatako (4 erregimen itxian eta 3 erregimen erdi-irekian) beste bat irekitzeko asmoa dauka, neskentzat bakarrik. Zumarragan egin asmo den zentro itxia, aldiz, ez da 1998. urtera arte hasiko lanean, eta horren azterketa, beraz, nahitaez kanpoan utzi beharra dago.

Bilakaera kualitatiboa, bestalde, gure inguruko beste herrialde batzuetan era honetako azterketak egiteko indarrean dauden ereduak jarraituko dituen metodologian oinarrituko da.

Txosten hau 1997aren amaieran aurkeztuko zaio Eusko Legebiltzarrari.

2.1.5. ARABAN SASOIKAKO LANA EGITEN DUTENEN ARAZOEI BURUZKO LAN MONOGRAFIKOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Urtez urte, iraila aldera, mahats edo patata bilketa sasoia iristen denean pertsona eta familia asko etortzen dira Arabako zona jakinetara zeregin horietan parte hartuaz lana bilatu asmoz. Pertsona horiek Araban pasatzen duten denbora eguraldiaren edo ekoizpenaren eta kanpaina bakoitzaren garapen zehatzaren araberakoa izaten da.

1995eko mahats bilketaren ondoren, Arartekoak ofiziozko espediente bat hastea erabaki zuen Arabako Errioxara mahats bilketara zetozen pertsonen bizitza eta lan baldintzak ezagutzeko, zegozkien eskubideak errespetatzen ziren ala ez ikusteko, eta behar izanez gero, beraien egoerari begira hobekuntzak proposatzeko. Hain zuzen urte horretan bertan egin ziren beharrezko kudeaketak Eltziego herriaren inguruan zeuden ijito familien neskato-mutikoak behar bezala eskolaratu zitezen ziurtatzeko. Erakunde honen 1995eko txostenean iharduera horien laburpen bat dago (ikus txosten horretako 111. or.).

Aurten, 1996an, Arabako Errioxan mahats bilketan parte hartzen duten pertsonek bizitzeko dauzkaten baldintzak kontrolatu eta horientzako hobekuntza proposamenak egiteaz gain, erakunde honek bere iharduera patata bilketan parte hartzen duten taldeetara ere zabaldu eta sektore horrek bizi dituen arazoetara hurbildu nahi izan du.

Egia da urtez urte egoera aldatu egiten dela eta zona eta talde bakoitzak bere ezaugarri bereziak dituela. Alabaina, erakunde honen ustez, badaude nahiko elementu amankomun etorkizuneko kanpainetan sor daitezkeen arazoak iragartzeko eta horiei aurre egiteko iharduera proposamenak aurkezteko. Horrela, pertsona horien bizitza eta lan baldintzak hobetu ahalko dira, asko eta asko desabantaila sozial garbian baitaude.

Horrela, bada, sasoikako langileen eta horien familien egoera labur baina ikuspegi globaletik aztertzen da hemen, ondorengo atalen arabera:

1. Egoeraren zenbait ezaugarri.
2. Azpimarratu beharreko elementuak eta ikusitako arazoak.
3. Proposamenak erakundeen iharduerari begira.

1. EGOERAREN ZENBAIT EZAUGARRI

Lehenik esan behar da gure erkidegora etortzen diren sasoikako langileen egoera ez dela apenas ezagutzen gure gizartean. Hori agian gertatzen da langile horiek talde txikia osatzen dutelako, zona geografiko jakinetan biltzen direlako, aste apur batzuk hemen pasatu eta ondoren, hurrengo urtera arte alde egiten dutelako... Badago, ordea, beste arrazoi bat ere: gehienak desabantaila sozialean dauden pertsonak dira eta beraien ahotsa entzunarazteko aukera erreal askorik ez daukate.

Pertsona horien egoera ezagutzeko orduan, zona ezberdinetako gizarte laguntzarako zerbitzuen eta erakunde eta gizatalde ezberdinen laguntza izan du erakunde honek. Kanpo-lana eta informazio bilketa hiru zona geografikotan egin da: mahats bilketarako Arabako Errioxa, eta patata bilketarako Arabako Lautada, eta Trebiño eta bere inguruak. Aurreko kanpainei buruz gizarte zerbitzuek eta programa ezberdinetan konprometituta egondako erakundeek egindako lanak aztertu dira, eta aztergai honetan zuzeneko zerikusia daukaten pertsona ugarirekin elkarrizketatu eta harremanetan jarri gara:

- hiru zonetako sasoikako langileekin;
- nekazari kontratatzaile eta UAGA sindikatuko partaideekin;
- Eltziego, Biasteri eta Albainako kanpamentuetako familiekin;
- Biasteriko aterpean jasotako pertsonekin;
- oinarrizko gizarte laguntzaileekin;
- Eltziego, Biasteri eta Trebiñoko ikastetxe publikoetako zuzendariekin eta irakasle taldeekin;
- Zonako borondatezko pertsona eta Cáritaseko arduradunekin;
- inguruetako Ertzaintzaren komisaldegietako arduradunekin...

Horrezaz gain, erakundeko aholkulariek aipatutako kanpamentuak, zona horietako ikastetxeak eta Biasteri eta Aguraingo aterpeak bisitatu dituzte zerbitzu horien baldintzak zuzenean ezagutzeko.

Noski, badaude baita orain arte erabili ez diren informazio iturriak ere, eta horien bidez datu osagarriak eta errealitatearen ezagutza hobea lor litezke.

Adibidez, hauek: nekazari eta enpresa kontratatzaileei esijitzen zaizkien matrikula-orriak eta lan agiriak sistematikoki aztertzea, edo, seguruenik Lan ikuskaritzetan eskura legokeen informazioa.

Edonola, orain arte bildutako informazioarekin egoeraren lehen ezaugarriak ezagutzeko balio duten zenbait datu azpimarra daitezke. Esate baterako ondokoak:

- **Pertsona horiek herri jakinen inguruan biltzen dira gehienbat**: Eltziego eta Biasteri, Arabako Errioxaren kasuan; Dulantzi eta Agurain, Arabako Lautadaren kasuan; Albaina, Trebiñoko zonan... Horrek ez du esan nahi sasoikako langile guztiak herri horietan biltzen direnik, baina bai arazoak horietan modu adierazgarrian pilatzen direla. Bestalde, leku horietatik inguruetako edo urrutiagoko beste herri edo zona batzuetara joaten dira lanera.
- **Ezaugarri eta behar ezberdinak dauzkaten taldeak daude**: zonara banaka edo taldeka baina familiarik gabe joaten diren pertsonak; familiekin etortzen diren pertsonak... Lehenengo taldean atzerriko gizon asko biltzen dira, bereziki Magrebetik etorriak. Bigarren multzo edo taldeko gehienak eskualde ezberdinetatik etortzen diren ijito familiak dira. Noski, kasu batean eta bestean aterpe eta eskolaratze mailan sortzen diren beharrak erabat ezberdinak dira.
- Bildutako datuen arabera, **zaila da zenbat pertsona etortzen diren jakitea**, baina **askotxo** direla ikusten da: Biasteriko aterpean 180 pertsona egon ziren 95ean eta 229, ordea, 96an; berrogeita hamar bat familia -asko eta asko oso pertsona ugarikoak- Eltziegoko kanpamentuan; Aguraingo moduloetan 120 pertsona egon ziren 95ean eta 98, ordea, 96an; 93 pertsona Albainako kanpamentuan; Arabako Errioxan mahats bilketan parte hartu zuten familien artetik eskola adineko laurogei ume baino gehiago, oinarrizko gizarte zerbitzuen arabera... Datu horiei, nekazari eta enpresa kontratatzaileen lokaletan egondako pertsona eta familiak eta akanpatzeko prestaturik ez dauden lekuetan egondako familienak gehitu beharko litzaizkieke.
- **Lan horretara urtero-urtero etortzen diren pertsona asko beti berdinak izaten dira**, eta horri esker aurreikuspenak egin daitezke; sarritan, langileak talde zabaletan integratuta egoten dira (kontratazio kontuetarako familia antolatuak...).

2. AZPIMARRATU BEHARREKO ELEMENTUAK ETA IKUSITAKO ARAZOAK

*Jaso dugun informazioaren arabera, **zenbait gai bereziki dira arazotsuak**, honako hauek hain zuzen:

- kontratazio sistemak;
- aterpe baldintzak;

- eskolaratze baldintzak;
- gizarte integrazio edo integraziorik ezaren maila.

A/ **Kontratazio sistemei dagokienez**, zenbait praktika oso zabalduta daude, esate baterako azpikontratuena eta 16 urtetik beharakoek uzta-bilketa lanetan parte hartzea.

Atzerriko pertsonentzat dituen ondorio negatiboengatik oso arriskutsua da **azpikontratazioaren** praktika, hau da: «talde buru» funtzioak bere egiten dituen pertsona batek, adibidez, mahasti bat halako diru kantitate baten truke biltzeko kontratua egiten du; dirua pertsona horrek berak jasotzen du nekazariarengandik eta ondoren taldekoen artean banatzen du askotan gehiegikeriazko irizpideekin. Aipatutako adibidearekin jarraituaz, adibidez 96ko mahats bilketan zazpi bat mila pezeta ordaindu da lanegun bakoitzeko. Langileak, ordea, ez du askotan bizpahiru mila pezeta baino gehiago irabazi, gainerantzekoarekin talde burua geratu delarik.

Erakunde honek jakin duenez, pertsona bat baino gehiago -guztiak atzerritarrak- geratu dira pezeta bat bera ere kobratu gabe egun asko lanean pasatu ondoren, eta jo ere egin izan dituzte zegokiena esijitu dutelako. Gertakari horiek agintarien aurrean salatzeko aukera azaldu zaienean, pertsona horiek nahiago izan dute ezer ez egin, beraien ustez horrek etorkizunerako ondorio txarrak ekarriko lizkiekeelakoan. Hain zuzen 95eko mahats bilketan Biasteriko Ertzaintzaren komisaldegian salaketa bat bakarrik aurkeztu zen era horretako arrazoiengatik.

B/ **Aterpe baldintzei dagokienez**, gutxienez lau egoera bereiz ditzakegu:

a) erakundeek sustatutako aterpeetan babesa jaso duten pertsonak, normalean egun baterako edo birako;
b) akanpatzeko prestatuta dauden zona edo kanpamentuetako familiak;
c) nekazariek edo enpresa kontratatzaileek prestatutako lokaletan aterpea izaten duten pertsonak edo familiak;
d) baldintza hobeagorik ezean ahal duten lekuan eta moduan gaua pasatzen duten familiak eta pertsonak.

a) Azken urteetan Biasterin eta Agurainen denboraldi baterako **aterpeak** jarri dira martxan. Horretan hainbat erakunde izan dira laguntza eman dutenak, bakoitza bere neurrian: Foru Aldundiko Gizarte Ongizatea, eskualdeetako udalak, oinarrizko gizarte zerbitzuak, nekazarien erakundeak, Cáritas, zonako borondatezko langileak, atzerritarrei laguntzeko erakundeak, etabar.

Urte hauetako esperientziaren bidetik esan daiteke ekimen hori sendotuta dagoela eta bere bidez beharrezko zerbitzua eskaintzen zaiola pertsona kopuru garrantzitsu bati: 300 pertsona 1995ean eta 327 pertsona 1996an. Sasoi edo kanpaina bakoitzean egiten diren txosten tekniko edo ebaluaketek emandako zerbitzuari buruzko datu zehatzak eskaintzen dituzte eta sasoikako langile talde bat ezagutzeko datu interesgarriak dira (azpimarratzekoa da, esate baterako, zerbitzu horiek erabiltzen dituen atzerritar kopuru handia: azken urteko datuen

arabera Biasteriko aterpean egon zirenen ehunetik 61, eta Aguraingoan egondakoen ehunetik 83).

Txosten horiek, bestalde, eskainitako zerbitzuen zenbait muga ere azaltzen dituzte: bi egun pasatzeko aukera besterik ez dute ematen, ordutegi mugatua dute, egun batzuetan aterpeak jendez gainezka egoten dira, gizarte agenteek inplikazio maila ezberdina azaltzen dute...

b) **Akanpatzeko ohizko zonak** Eltziegon eta Albainan daude, eta batez ere ijito etniako familiak egoten dira horietan, sarritan beraien artean gainera familia harremana ere edukitzen dutelarik. Kanpamentu horietan eskola adinean dauden haur asko egoten dira.

Eltziego herritik oso gertu dagoen kanpamentuak beharrezko zerbitzuak badauzka (ur korrontea, argia, dutxak eta komunak), nahiz eta haien egoera ez izan beti nahi bezain ona. Kanpamentu horretako pertsona askok beraien ibilgailuak erabiltzen dituzte etxebizitza moduan.

Albainako kanpamentua zelai batean dago eta bi komun, argia emateko generadore bat eta zaborra biltzeko ontziren bat besterik ez dauka. Kanpamentu horretako pertsona gehienak beraiek material kaskarrekin egindako txabola antzeko eraikinetan bizi dira, gutxieneko segurtasun eta osasungarritasun baldintzarik gabe. Zuzenean pertsona horiengandik eskuratutako informazioaren arabera, gehienek urteak daramatzate eskualde honetara etortzen patata biltzera eta guztiek dauzkate familia harremanak elkarren artean, jatorriz leku ezberdinetakoak izan arren (Basauri, A Coruña...).

c) **Nekazari edo enpresa kontratatzaileen lokaletan** zenbat pertsona egoten diren hobeto jakin beharko litzateke, eta batez ere lokal horiek bizitza duinerako baldintzak betetzen ote dituzten ala ez ikusi. Erakunde honek bildu duen informazioaren arabera -kasu honetan nabarmen motz geratzen den informazioa, bestalde-, badirudi baldintza oso desberdinak antzematen direla: gaitasun ekonomiko oso handiko enpresa batzuek prestatutako lokal eredugarrietatik hasi eta gutxienezko bizigarritasun baldintzarik gabeko espazioetaraino.

d) Aterpeak eta akanpatzeko zonak dauden arren, leku horietan oraindik ikus daitezke **zerupean lo egin edo prestatu gabeko zonetan akanpatuta egunak eta egunak pasatzen dituzten pertsonak**. Aurten, adibidez, era horretako akanpaleku bat Biasteri inguruan Eltziegora doan errepide ondoan zegoen, zaborrak biltzeko ontzi bat besterik ez zeukan zakartoki batean.

C/ **Eskola adineko haurren eskolaratzeari buruz**

Lehen esan den bezala, eskolaratze premiak asko aldatzen dira zona batetik bestera, eta batez ere ijito etniako familiak biltzen diren kanpamentuetan kontzentratzen dira bereziki. Azken urteetako bilakaera kontuan izanik, badirudi premia horiek ugariagoak direla mahatsa biltzen den lekuetan, patatarenean baino.

Erakunde honek Eltziego, Biasteri, Dulantzi eta Trebiñoko eskola publikoak banan-banan bisitatu ditu horien eskolaratzeko aukerak edo baldintzak ikusteko.

Alde batetik, ikastetxe horietako zuzendariak eta irakasle taldeak haur horiek zonan dauden bitartean eskolaratzeko erabat prest azaldu dira. Baina, bestetik, eskolaratze hori lortzeko edo ahalik eta baldintzarik egokienetan emateko arazo errealak ere badaude. Arazo horiek, alde batetik, familien egoerarengatik sortzen dira (denbora gutxi pasatzen dute; egoera higienikoak; umeek bilketa lanetan laguntzea; familien arteko tirabirak...), eta bestetik, eskainitako zerbitzuengatik (garraioa eta jangela lortzea; ikastetxeetako langile taldeen mugak; jarraipenerako aukerak; eskola elkarketak...).

Kasu batzuetan, adibidez Biasteriko Ikastetxe Publikoaren kasuan, 1996. urtean eskolaratzea lortzeko pausoak eman ziren arren, egiaz ez da hori horrela gertatu. Eltziegoko Ikastetxe Publikoaren kasuan aurreko urtean ikusi ziren zenbait gabezia zuzendu ahal izan dira eta eskolaratze egoera hobea lortu da; alabaina, ume horientzat eskola elkarketa berezien sistemarekin jarraitu da eta ez dute eskolako jangelara joaterik izan. Trebiñoko Ikastetxe Publikoan lau urte jarraituko esperientzia, egonkortasuna eta irakasleeen partaidetza daukate, eta horri esker talde hori ikastetxeko dinamika normalean askoz integratuagoa dago. Kasu guztietan ikusten dira, ordea, eskolaratze arazoak, eta horiek gainditzeko ikastetxeez gain beste maila batzuen lankidetza ere beharko da.

D/ **Pertsona horien gizarte integrazio edo integraziorik ezaren maila.**

Bildutako informazioaren arabera, hau ez da arazo larria, baina aztertu ditugun egoeretan zuzenean edo zeharka eragina daukatelako jasotzen dugu hemen. Badakigu talde horiek gehiago gizarteratzeko hainbat gauza hobetu behar direla (kanpamentuen kokapena; baldintza higienikoak; zerbitzu publiko, komun eta beste zerbitzu batzuk eskuratzeko bidea; eskolaratze baldintzak...), eta gainditu behar da pertsona horien eskubideak ez errespetatzeko jarrera, noizean behin antzematen dena.

* * *

* Lehen aipatu diren arazoekin batera, **iharduera positiboak eta eredu ona ematen dutenak** ere azpimarratu behar dira. Iharduera horietako batzuk lehen adierazi dira, baina berriro aipatzea komeni da. Ondorengoak dira lekuko:

- **Aterpeen iniziatiba**, idatzi honetako B/ a) atalean funtsean adierazia, izan ere erakundeek parte hartu dute, agente eta erakunde ezberdinen elkarlana egon da, azken urteetan jarraipena izan du, bereziki arazoz beteta dauden pertsonei lagundu zaie, esperientzia urtez urte ebaluatu eta hobetu da...
- **Gizartearen pentsaera onerako aldatu da**, zona horietan lan egiten duten pertsona gehienek diotenez, atzerriko edo etnia ezberdinetako pertsonekiko errespeto gehiago dago orain. Beraz,

iharduera eta konpromezuen bidez lortuz joan den pentsaera eta jarrera aldaketa dugu hau.

- **Borondatezko langileen eskuhartzea** eta elkartasun mekanismoen garapena.
- Ikastetxeetako **irakasle taldeen mobilizazioa,** antolatzeko eta sasoikako langile familien hezkuntza beharrei erantzuna emateko.

3. ERAKUNDEEN IHARDUERARAKO PROPOSAMENAK

Ikusi ditugun arazoen aurrean eta administrazio ezberdinen eskuhartzea eta erakunde honen iharduteko aukerak kontuan izanik, uste dugu pertsona horien eskubideak hobeto bermatzeko pauso erabakiorrak eman beharko liratekeela, nagusiki hiru eremu hauetan:

1- Araudiak garatzea eta legea betetzea.
2- Erakunde eta agente sozialen arteko koordinazioa.
3- Pertsona horiei dauzkaten eskubide eta zerbitzuei buruzko informazioa ematea.

1- **Araudiak garatzea eta legea betetzea**.

Esan den bezala, ikusi ditugun arazo askoren oinarrian pertsona horien kontratazio sistema eta aterpe baldintzak daude. Badago araudi orokor bat, besteren kontura lan egiten dutenen lan iharduera eta haien egoera erregulatzen duena; araudi hori erabili beharko litzateke zenbait jokabideri aurre egiteko eta hor sortzen diren arazoak konpontzeko: gutxienezko soldatari buruzko arauak, gizarte segurantzan altak, adin txikikoei lana egitea galeraztea...

Baina gerta daiteke araudi orokorra nahikoa ez izatea langile horien lan eskubideak bermatzeko eta praktikan beraientzat kaltea dakarten zenbat ohiturari aurre egiteko, hots: azpikontratazioari, ordainketa pertsonalik ezari, eta lan guztia bukatu arte langileei ezertxo ere ez ordaintzeko ohiturari, etab.

Aipatu diren egoeretako batzuk sustraitik bertatik galeraz litezke kontratazioak jatorrian egin daitezela sustatuaz; hau da, kontratazioak pertsona horiek lan egingo duten zonara joan aurretik egin daitezen. Horrela, lehendik badagoen praktika hori bultzatzea eta erraztea litzateke kontua, eta horrela, gainera, bidaiarengatik ematen diren laguntzak gehitu ahalko lirateke, gaur egun pertsona gutxiri ematen zaizkielako, hainbat arrazoirengatik.

Bestalde, sasoikako iharduera hauei berez dagozkien zenbait aspektu bereziki arautuko balira, inplikatutako alde ezberdinek dauzkaten ardurak argitzeko balioko luke. Esate baterako, zein diren nekazari edo enpresa kontratatzaileen ardurak pertsona horien aterpearekiko.

Hain zuzen, sasoikako langile kopuru handia daukaten zenbait autonomia erkidegotan badaude arazo horietako batzuk aurreikusten dituzten lan hitzarmenak. Adibide gisa, Errioxako Autonomia Erkidegoan nekazal iharduerarako dauden hitzarmen kolektiboak har ditzakegu: azkena, 1996. urteari dagokiona 1996ko

abuztuaren 20an argitaratu zen Errioxako Aldizkari Ofizialean. Hitzarmen horiek aztertzen ari garen langile taldearen aspektu bereziak jasotzen dituzte, aterpearena esate baterako. Horrela, aipatu den azken hitzarmenak honela dio:

> *«Lana ematen dutenak beharturik daude egingo duten lanagatik sasoikakoak deitzen zaien langileei aterpea (etxebizitza) ematera. Aterpea (etxebizitza) jartzen ez zaien kasuan, langileak bere egoitzatarako aukeratu duen etxebizitzaren alokera ordaindu beharko du lana ematen duenak». (Aipatu hitzarmeneko 24. artikuluaren azken zatia).*

Noski, gutxieneko aspektuak arautzen dituen araudi berezi batek ez du berez horiek betetzen direla esan nahi, baina alde bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak argitzen ditu, eta Administrazioak dagokion ikuskaritza eta kontrola ezar ditzake.

2- **Erakunde eta agente sozialen arteko koordinazioa**.

Aipatu den egoerak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde bat baino gehiagori eragiten die maila handiagoan edo txikiagoan; hauek aipa genitzake:

- Eusko Jaurlaritzako hainbat sail: Nekazaritza, Lana, Osasuna, Hezkuntza, Herrizaingoa…
- Arabako Foru Aldundiko sailak: Nekazaritza, Gizarte Ongizatea…
- Eskualde ezberdinetako udalak.

Bestalde, badago agente sozial ezberdinen partaidetza, baina beste batzuena ere bultzatu beharko litzateke:

- Sindikatuak, UAGA adibidez.
- Eskualdeko borondatezkoak eta Cáritas probintziala.
- Atzerritarrei eta ijitoei laguntzeko erakundeak.

Gainera, kasu batzuetan beste alor batzuetako erakundeekiko elkarlan harremanak ere sustatu beharko lirateke. Pentsa bedi, esate baterako, Albainako kanpamentuaren kasuan -Trebiñon kokatua dago, Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoan beraz-, edo erkidego ezberdinetatik datozen ikasleen eskolaratzean, edo Lanerako Zuzendaritza Nagusiak edo Ikuskaritzak planteatu diren hainbat gaitan eduki beharreko eskuhartze zuzenean.

Bereziki Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak bultzatuta erakunde ezberdinen eta horien eta agente sozialen arteko elkarlanerako saioak egin diren arren, ahalegin horiek aldi baterako aterpeak martxan jartzera mugatu dira.

Bestetik, bakoitzari dagozkion eskumen eta funtzioen mugak garbi ez daudenez gero, batzuek ez dituzte dagozkien betebeharrak beraien gain hartzen, beste erakunde batzuek agian ez dagozkien zamak hartzen dituzte, eta azken batean zerbitzu batzuk eman gabe geratzen dira pertsona horien kaltetan.

Erakundeen eta agente sozialen partaidetzarako mahaien bidez lortu beharko litzateke planteatu diren gaiak globalki aztertzea, garatu beharreko iharduerak aldez aurretik iragartzea, zamak modu arduratsuan banatu eta lankidetzarako eta koordinaziorako mekanismoak ezartzea.

3- **Pertsona horiei dauzkaten eskubide eta zerbitzuei buruzko informazioa ematea**.

Arartekoa erakunde bermatzailea denez gero, beti arduratzen gara pertsona guztiek beraien eskubideez ohar daitezen. Hemen aztertu dugun langile taldearen egoerak garbi isladatzen du oso gutxi ezagutzen direla hiritar gisa dagozkien eskubideak (gizarte zerbitzuak eskura edukitzeko bidea...), edo langile gisa dagozkienak (lan eskubideak).

Dagozkien eskubideei buruzko informazioa oinarrizko baldintza da jatorri, sexu, arraza, erlijio etabarrengatik gerta daitekeen edozein diskriminazio edo desberdintasuni aurre egiteko. Derrigorrezko baldintza da, orobat, edozein hiritarrentzat, bere eskubideak bermatzeaz arduratzen diren zerbitzu eta erakundeetara jo eta horien partehartzea eskatzeko.

Erakunde honen ustez, 2. atalean aipatu diren zenbait agente sozialek (sindikatuek, atzerriko pertsonei laguntzeko erakundeek, ijitoen erakundeek...) eta eskualde haietan dauden zenbait zerbitzuk (udalek, oinarrizko gizarte zerbitzuek, babeserako zentroek...) lan eraginkorra egin dezakete informazio eman eta zabaltzeko betekizun horretan.

* * * *

Lehen esan den bezala, aztertu dugun alor honekin maila batean edo bestean erakunde eta elkarte askok daukate zerikusirik edo zer esanik, eta zentzu berean asko dira arloari erantzun egokiak emateaz arduratzen direnak ere. Txosten hau idazten ari garenean (96ko abenduan), Arartekoak zuzenkien inplikatuta dauden zenbait erakunderengana jo du ofizioz, hemen biltzen diren antzeko azterketa eta proposamenak helaraztearren. Hain zuzen ondorengo erakundee bidali zaie txostena eta eskatu erantzuna:

- Arabako Foru Aldundiari
- Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari
- Osasun Sailari
- Herrizaingo Sailari
- Industria, Nekazaritza eta Arrantzu Sailari

Txostena Gaztela eta Leongo Erkidegoko Procurador del Común-i ere bidali diogu, erkidego horren esku baitaude azterketa honetan sartuta dagoen Trebiñoko lurraldearen eskuduntzak.

Ararteko erakundearen ustez, biztanle talde batek daukan arazo berezi baten aurrean gaude; biztanle horiek erakunde arduradunen arreta handiagoa eta hobea behar dute, eta lan monografiko honek eta hemendik abiatuaz ireki diren iharduerek helburu hori lortzen lagundu nahi dute.

Aztertu dugun arazoa urtero-urtero errepikatzen denez gero, eta administrazio ezberdinen aldetik jasotzen ditugun erantzunen arabera, erakunde honek datozen kanpainetan ihardueren jarraipena egingo du, eta Arartekoak agian Legebiltzarrean gai honi buruzko txosten berezi bat aurkeztuko du.

2.2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATUKO DITUEN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN LOTURA IZANGO DUEN KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO EKIMENAK

2.2.1. TALDE, ELKARTE ETA AGENTE SOZIALEKIKO LANKIDETZA HARREMANAK

Ararteko erakundeak 1996. urtean, eta kasu askotan aurretik, hasitako lankidetza harremanen jarraipen gisa, agente sozialekiko topaguneak eta harreman sistematikoa bilatzen jarraitu du. Lankidetzarako espazio bilaketa hori, pertsonarik ahulenei laguntzeko edo arazo sozial ezberdinak ebazteko lanean diharduten elkarte, kolektibo eta erakundeekin egiten ari gara: talde bakezaleekin; elbarrien elkarteekin; emakume taldeekin; atzerritarrei, presoei edo droga arazoak dauzkatenei laguntzeko taldeekin... Horretarako, batzuetan, esku hartzeko jasotzen ditugun eskaerak edo talde horiek erakundean aurkezten dituzten kexak aprobetxatzen ditugu, eta beste batzuetan erakundetik bertatik harreman horiek eta informazio trukaketak sustatzen ditugu.

Ararteko honek **gure Erkidegoko gizarte taldeekin elkarlana egiteko borondate tinkoa** adierazi nahi du berriro ere, iharduera horiek balio ugaltzailea daukatelako eta exenplua ematen dutelako. Ararteko bezalako erakunde bermatzaile batentzat, elkarte horietako asko benetako antena sozialak dira, alegia, bestela inor ohartu gabe pasatuko liratekeen arazoak eta egoerak detektatzeko eta kanporatzeko balio duten sentsoreak.

Sarritan defentsa premiarik handiena daukaten pertsonak izaten dira erakunde hauetara gutxien jotzen dutenak, eta ez dute jotzen besteak beste honako arrazoi hauengatik: haien berri jakin ere ez dakitelako, dagozkien eskubideak ezagutzen ez dituztelako, oinarrizko trebetasun sozialak falta zaizkielako, lehendik esperientzia txarrak eduki izanak frenatzen dituelako, erakundeekiko mesfidantzagatik (arazoak konpontzeko horien borondatea edo gaitasuna zalantzan jartzen dute)...; azkenik, pertsona horietako askok ez dute kexarik aurkezten ez dakitelako horrelakorik egin dezaketenik, edo ez dakitelako non edo nola egin.

Garbi dago gure erkidegoko elkarte eta talde gehienek **bitartekaritza** lan garrantzitsua egin dezaketela gure gizarteko sektore zokoratu edo bereziki behartsu horien eta Ararteko bezalako erakundeen artean: beraien eskubideak eta auziak ebazteko bideak ezagutzera emanaz, beraien erreibindikazioak adierazten lagunduaz, administrazioak hiritarrei zerbitzu arduratsua eman diezaien esijituaz, eta guzti horrek behartuta erakundeenganako konfidantza handiagotuaz eta kohesio soziala gehituaz.

Gure erkidegoan dagoen elkarte, talde eta erakunde kantitate handia gizartearen bizitasunaren adierazle dira. Baina, aldi berean, ugaritasun eta aberastasun hori erronka bat da beraiekin elkarlan harremanak eduki nahi dituenarentzat.

Gure kasuan, eta erakunde honen mugez oharturik, **lau bide erabili ditugu gure lankidetzarako borondatea errealitate bihurtzeko**:

1) beraien arazoak eta proposamenak guri helarazteko interesa azaldu duten elkarte eta talde guztiei positiboki erantzunez;
2) ahal izan den neurrian, lehendik harremanak geneuzkan taldeekin urte honetan aldian-aldian hitz egiten jarraituaz;
3) lehentasunezko arreta eskatzen duten arlo bereziki arazotsuekin lana egiten duten kolektiboekin harremanetan jartzeko iniziatiba hartuaz;
4) antzeko interes edo iharduera eremuetako elkarteen koordinaziorako dauden plataformak aprobetxatuaz edo berriak bultzatuaz.

Hain zuzen, aipatutako lau bide horien bidez **1996. urtean Arartekoerakundeak lankidetza harremanak eduki ditu ondorengo alorretan beraien iharduera soziala garatzen duten elkarteekin**:

- atzerritik etorritako pertsonen bergizarteratzea;
- IHES gaisotasuna edo droga arazoak dauzkaten pertsonentzako laguntza;
- hirugarren munduko herrialdeekiko garapenerako laguntza eta elkartasuna;
- kontzientzi eragozpena eta intsumisioa;
- presoen eskubideen defentsa eta laguntza egitarauak;
- adin txikikoen eta unibertsitateko ikasleen premia berezientzako erantzuna;
- sasoikako langileentzako laguntza;
- talde zokoratuen bergizarteratzea eta zona deprimituen errehabilitazioa;
- bakezaletasuna eta auziak elkarrizketa bidez konpontzeko ahaleginak;
- emakumeen eskubideen defentsa;
- biktimentzako laguntza;
- kontsumitzaileen eskubideen defentsa;
- elbarritasun tankera ezberdinekiko gizartearen erantzuna;
- tratu txarren prebentzioa eta tortura egoeren salaketa;
- zokoratuta eta familien laguntzarik gabe dauden pertsonentzako gizarte eta osasun laguntza...

Kasu gehienetan (elkarteen eskarietarako erantzuna, kolektibo batekin harremanak hastea eta koordinazio foroetan parte hartzea; hau da, 1., 2. eta 3. bideak deitu ditugunetan) harremana zuzena izan da eta bilera bat edo gehiago egin dira. Lehendik hasitako harremanen jarraipena gertatu den kasuan (2. bidea), harreman horiekin jarraitzeak ez du beti bilera berriak egitea esan nahi izan, batzuetan hitzez nahiz idatziz informazioa trukatzearekin nahikoa izan baita.

Era batera edo bestera, bide batzuk edo besteak jarraituaz, eta lehen esan dugun bezala denbora eta dedikazio mugak egon diren arren, urte honetan gure erakundearekin **bilerak edo informazio trukaketak eta lankidetza formulak** eduki dituzten taldeak **ondorengo talde, elkarte eta erakundeak izan dira**, gutxienez:

. Afrovasca
. Arnasa
. Asociación Bizitegi
. Asociación de estudiantes universitarios Piper

. Asociación de Lucha contra el SIDA y Autoapoyo a Afectados T-4
. Asociación de Psicólogos para la Atención de Víctimas de la Violencia
. Ume-Alaia Elkartea
. San Francisco, Zabala eta Bilbo Zaharra Auzo Elkartea
. Intsumisoen familien elkartea
. Bakea Orain
. Bihotzean Auzo Elkartea. Iniciativa Auzora
. Bilbo-Etxezabal
. CEAR (Comisión de Ayuda al Refugiado)
. Gipuzkoan atzerritarrei laguntzeko taldea (SOS-Arrazakeria, CC.OO.en CITE, Traperos de Emaus-Etorkin, Talleres Protegidos Boscozaleak...)
. Colectivo de apoyo a las personas presas
. Etorkinei laguntzeko Bizkaiko ONGen koordinadora (CEAR, Bilbo-Etxezabal, Afrovasca, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, UGT, Elkartu, SOS-Racismo... etabarrek osatua)
. Garapenerako ONGek eta 0,7 Plataformak osaturiko Koordinadora
. Denon Artean eta Oficina de Atención a la Víctima de la Violencia
. Elkarri
. Etorkintza
. FEDEAFES (Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares de Enfermos Psíquicos) eta federazio horretako elkarteak
. Federación de Asociaciones de Minusválidos Físicos eta federazio horretako elkarteak
. Jóvenes por la Paz Fundazioa
. Gaztaroan Ekin
. Gernika Gogoratuz
. Gesto por la Paz
. Movimiento de Objeción de Conciencia
. Plataforma para la excarcelación de enfermos/as incurables y mayores de 70 años (20 elkartetik gora biltzen dituen plataforma)
. Plataforma Martutene (D.E.E., SOS-Racismo, Salhaketa...)
. Lurralde ezberdinetako SOS-Arrazakeria
. TAT (Torturaren Aurkako Taldea)

Aurreko urtean bezala, elkarteekiko lankidetza kasu batzuetan Ararteko erakundeak burututako lan monografiko baten **markoan** kokatu da. Esate baterako **Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoerari buruzko lanaren** jarraipenak ondoko elkarteekin bilerak egitea ekarri du:

. ADSIS-BESTALDE (Asociación de Servicios de Iniciativa Social)
. AGIPAD (Asociación Guipuzcoana de Investigación y Prevención del Abuso de las Drogas)
. Alcohólicos Anónimos
. Asociación de Lucha contra el SIDA y Autoapoyo a Afectados T-4
. Asociación Pro Derechos Humanos del País Vasco
. Bilbo-Etxezabal

. Bizitegi
. Cáritas (PAEX-Programa de Ayuda a Extranjeros)
. IHESaren kontrako lurralde ezberdinetako hiritarren batzordeak
. Gurutze Gorria
. D.E.E. (Asociación de Afectados por la Droga)
. Etorkintza
. Foronda
. Gizabidea
. Goiztiri
. I.R.S.E. (lurralde ezberdinetako Institutos de Reintegración Social)
. Deustua-San Ignazioko Modulo Psiko-Soziala
. Nahaia
. Lurralde ezberdinetako Pastoral Penitenciaria
. Gizakia Helburu
. Salhaketa
. Lurralde ezberdinetako SOS-Arrazakeria
. TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
. TAP (Abokatuen Bazkundeetako labuntza penitentziariorako txandak)

Noski, bilera edo informazio trukaketa orok ez dakar, ez behintzat berehala, erakunde honek iharduerak hastea. Alabaina, egindako bileren ondorioz, alde guztien **elkarlanaren fruitu** gisa eta bakoitzak bere iharduera-askatasuna gordeaz, ondorengo lerroetakoren batean koka daitezkeen **iharduera ezberdinak sustatu dira**:

- elkarteek aurkeztutako kexen bideraketa (taldeek nahiz pertsona soilekaurkeztutakoak);
- Arartekoaren ofiziozko iharduerak administrazioaren alor ezberdinen aurrean berehalako arazoak ebazteko;
- elkarteen eta erakunde publikoen arteko bitartekaritza lanak;
- talde ezberdinek sustatutako elkartasun kanpainekiko erakundeen laguntza;
- Administrazioaren eta elkarteen arteko lankidetza harremanak hobetzeko proposamen zehatzak;
- legeak aldatzeko iradokizun-aurkezpenak;
- lanerako informazio eta dokumentazio baliagarri trukaketa;
- agintarien aurrean premiazko kudeaketak zerbitzu jakin bat hobetzeko edo arazo bati aurre egiteko...

Adibide gisa, Arartekoko erakundetik 1996. urtean lankidetza harreman horien barruan burutu diren zenbait iharduera adierazgarri aipa ditzakegu. Esate baterako ondorengoak:

* Bakezale talde ezberdinekin, auzien bitartekaritzan lan egiten duten elkarteekin eta auzi-egoerak bizi izan dituzten ikastetxeekin izandako harremanen ondorioz erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,

Unibertsitate eta Ikerketa Sailari **bake-hezkuntzarako proposamen global** bat aurkeztu zion. Proposamen horretan ihardunbide ezberdinak aipatzen ziren bi norabiderekin: 1) bakerako eta giza eskubideen aldeko hezkuntza behar bezala sartzea ikastetxeetako curriculumetan; eta 2) ikastetxe antolaketak elkarrekin bizitzeko eta elkarrizketaren bidez arazoak konpontzen ikasteko ematen dituen aukerak aprobetxatzea. Proposamen hori Defendatzaileen Koordinaziorako XI. Ihardunaldietan ere aurkeztu zen. (Ikus 77-80. orrialdeak).

* Garapenerako ONGek eta eta 0,7aren aldeko Plataformak **euskal erakundeek garapenerako sustatutzen dituzten politikei** buruz aurkeztu zituzten arazoen bidetik, erakunde honek proposamen batzuk egin zituen berehalako arazoak bideratzeko, eta, batez ere, datozen urteetarako elkarrekin lana egitera bultzatzeko.

* Elkarte batzuek tratu txar eta torturei buruz aurkeztutako salaketak zirela-eta, Arartekoak gai horietan eskumena daukaten erakundeen aurrean iharduera batzuk burutu ditu, beti ere **iluntasun espazioak gainditzera** bideratuak.

* Kartzeletan preso zeuden 300 pertsona baino gehiagok araudia aldatzea eta zentroetan xiringa antzutuak erabiltzeko aukera eskatu zuten. Profesional ezberdinekin bilera ugari egin ondoren «**Kartzeletako droga kontsumoari eta gaisotasun kutsagarrien transmisioari buruzko Arartekoaren proposamenak eta iritziak**» izenburupean proposamen multzo bat egin zitzaien erakunde arduradun ezberdinei (Justizia Sailari, Osasun Sailari eta Instituciones Penitenciarias erakundeari Herri Defendatzailearen bidez), prebentziorako egitarauak martxan jarri edo zabal zitezen. Horrek guztiak urte osoan jarraipen lana egitea eta Basauriko Kartzelan **xiringak trukatzeko programa esperimental** bat osatzeko sortu zen erakunde arteko batzordean aktiboki parte hartzea eskatu du. (Ikus 53-54. orrialdeak).

* Euskal Herriko kartzelen egoerari buruzko lanak -txosten honetan 2.1.2. atalean aurkezten den txosten berezia eragin zuen- eta ondorengo jarraipenak **presoen laguntzarako** hogeita hamar bat talderekin elkarlanean hasi eta informazio trukaketari ekitea ekarri dute. (Ikus 69-70. orrialdeak).

* Intsumisoen familiartekoekin izandako harremanen bidetik hainbat iharduera burutu dira, besteak beste Herri Defendatzaileari esku hartzeko eskari batzuk egin zaizkio **insumisioaren tratamendu penala** aldatzeko eta intsumiso askok gaur bizi duten egoera penitentziarioa gainditzeko.

Erakunde hau iaz ere saiatu zen -noski, elkarte bakoitzak bere lan eremu zehatzarekiko planteatzen dituen arazo zehatzetatik aparte- guztiek edo gehienek dauzkaten arazo nahiko amankomunak isladatzen eta horientzat irtenbideak bilatzen. Arazo horiek gai hauen ingurukoak izan ohi dira: dirulaguntza sistemak, programen jarraipena eta erakundeen laguntzak eta gizarte programak diseinatzerakoan eta garatzerakoan aktiboki parte hartu ahal izatea.

Horrela, 1995eko txostenak (ikus 43-45. orr.) erakunde honek Administrazioko organoei egindako **proposamena** jasotzen zuen, bertan bi bide planteatzen zirelarik:

1) **programak diruz laguntzeko aurrekontuek irauten duten urtearen mugak gainditu beharra**;
2) **agente sozialen eta Administrazioaren artean partaidetzarako mekanismo iraunkorrak sortzea**.

Urte honetan Administrazioko sail ezberdinetatik **jaso ditugun erantzunak** eta partaidetzarako martxan jarri diren zenbait foro ikusita, aipatutako bidean pauso batzuk eman direla esan dezakegu. Alabaina, lehengo arazo berdinekin edo handiagoekin topatzen gara iharduera eremu askotan eta administrazio edo sail gehienetan.

Esan dugunaren lekukotasun adierazgarriak dira zenbait laguntzatan urte anitzetarako konpromezuak lortzeko sartu den jokabide malgua, alor batzuetan hitzarmen-egitarau formula zabaltzea, atzerritarrak gizarteratzeko agente sozialen partaidetzarekin erakundearteko foro bat sortzea, lege proiektu jakinetan murgildutako agente sozialekin eginiko eztabaida eta negoziaketa saioak...

Erakunde honen ustez oso interesgarriak dira eman diren pausoak, eta berriro esan behar dugu **agente sozialen eta Administrazioaren artean ahaleginak batzeko formula guztiak sustatu eta erabili behar direla**, batez ere iniziatiba sozial garrantzitsua dagoen iharduera eremuetan eta lankidetzaren bidez ezbairik gabe hiritarrentzako laguntza eta zerbitzu hobea ekar dezaketenetan.

2.2.2. IKERKETARAKO BI BEKEN DEIALDIA 1996-97RAKO

Aurreko urteetan bezala 1996an ere Ararteko erakundeak bi ikerketa beka berri eman ditu. Deialdia 1995eko irailaren 27ko Ebazpenaren bidez egin zen (1995eko urriaren 6ko EHAA, 192. zkia.), eta idatzizko eta ahozko hautaketa probak egin ondoren 1995eko abenduaren 20an Carlos Barcina Fernández eta María Aragón Castiellari esleitu zitzaizkien.

Beka horien helburua, Euskal Autonomia Erkidegoko giza eskubideen babesarekin zuzenean edo zeharka zerikusia daukaten gaiei buruzko azterketa monografikoak egitea da.

Oraingoan, erakundeak aztertzeko aukeratu dituen gaiak ondorengoak dira:

- Kultura eta kultur estatua euskal Autonomi Estatutuaren ikuspegitik: euskal kultur autonomia.
- Hiritarra zerbitzu publikoen erabiltzaile gisa.

Lehenengo azterketaren bidez, Estatu liberalaren barruan Europako aginte publikoek azken bi mendeetan kultura balore juridiko-politiko bezala beste baloreen artean sartzeko jarraitu den bilakaera planteatu nahi da. Hori kasu batzuetan arau gorenetan egin da: Italiako eta Alemaniako kasua aipatzen dira, «Kultura Konstituzioa» kalifikatu izan delarik.

Aginte publikoen funtzio kultural hori antolamendu juridikoa eratzen duten hiru printzipioen arabera sartzen da: kultur askatasunaren printzipioa, kultur sustapenaren printzipioa eta kultur aniztasunaren printzipioa. Hain zuzen hiru printzipio horiek dira antolamendu juridiko bat kultur estatu bezala definitzen dutenak.

Azterketa hau nagusiki 1978ko Espainiako Konstituzioan eta 1979ko Gernikako Estatutuan printzipio horiek bilatzen saiatuko da, horietan lengoaia konstituzional-administratiboari kultur estatua eta kultur autonomia bezalako kontzeptuak txertatzeko.

Bigarren lanak hiritarra administratutzat jotzeko joera gainditu eta Administrazioarekiko harremanetan beste terminologia berri bat erabiltzeko premia aztertuko du. Hiritarra zerbitzu publikoen erabiltzaile, bezero edo kontsumitzaile bezala definitzen da.

Horretarako Administrazio publikoaren iharduera formak aztertu eta zerbitzu publiko kontzeptuaren krisia agerian jartzen da.

Zerbitzu publikoak jasotzeko hiritarren eskubidea norainokoa den aztertu eta telebista zerbitzu publiko bezala aztertzeari kapitulu bat eskaintzen zaio.

Joan den urtean, ohizkoa den bezala, 1997rako beste bi bekatarako deialdia egin zen 1996ko urriaren 11ko Ebazpen bidez (urriaren 21eko EHAA, 203. zkia.).

Hautaketa prozesua amaitu ondoren, bi bekak ondorengoei eman zitzaizkien:

- Francisco Javier Agirre Aranburu jaunari.
- Isabel Paula Sánchez García andreari.

Hauek dira aukeratu diren ikerketa lanak:

- Justizia, bakea eta giza eskubideen nazioarteko babesa: antzinako Jugoslaviarako Nazioarteko Auzitegi Penalaren esperientzia.
- Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona seropositiboentzako barneratze eta kanporatze mekanismoak.

2.2.3. GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO «PADRE FRANCISCO DE VITORIA» BILDUMA

Giza eskubideen defentsarako helburuak kexa bideratzea baino haruntzago doan tratamendu integralagoa esijitzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideekiko errespetozko kultura sortzen laguntzeko iniziatibetako bat giza eskubideei buruzko «Padre Francisco de Vitoria» argitalpen bilduma sortzea izan zen.

Bi liburu berri argitaratu dira 1996an, bi ikerketa beken azken emaitza direlarik:

Hauek dira argitaratu diren monografikoak:

- *El control institucional en la Unión Europea*. Mª José Fdez. de Landa Montoya.
- *Hezkuntza- eta Hezkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean*. Ander Bergara.

Bilduma honetan euskaraz bakarrik argitaratzen den lehen lan monografikoa da azken hau.

2.3. GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO ERAKUNDE KIDEEKIN IZANDAKO HARREMANAK

2.3.1. HERRI DEFENDATZAILEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO XI. IHARDUNALDIAK

Jakina den bezala, Herri Defendatzailearen eta ordezkari autonomikoen arteko harremanak lankidetzaren eta koordinarioaren printzipioetan oinarritzen dira.

Espedienteen ohiko biderapena dela medio urtean zehar erakundeon artean egoten diren hrreman estuez gainera, herri defendatzaileen arteko koordinaziorako ihardunaldiak ere antolatzen dira urtero, erakundeon arazoei buruz eztabaidatu eta amankomuneko jarrerak erabakitzeko.

Koordinaziorako XI. Ihardunaldiak Leonen egin ziren, irailaren 25 eta 26an, Gaztela eta Leongo Procurador del Común delakoak antolatuta, eta gai hauek jorratu ziren:

- Parlamentuetako ordezkariek toki administrazioaz egiten duten kontrola.
- Bakerako heziketa.
- Emakumea erreklamatzaile gisa ombudsman-en aurrean.
- Pobrezia eta elkartasuna.

2.3.1.1. PARLAMENTUETAKO ORDEZKARIEK TOKI ADMINISTRAZIOAZ EGITEN DUTEN KONTROLA

Bilera hau Fernando Álvarez de Miranda Torres, Herri Defendatzaile jaunak zuzendu zuen, eta Gaztela eta Leongo Procurador del Común karguan dagoen Manuel García Álvarez jaunak egin zuen ponentzia.

Orobat, zenbait komunikazio ere aurkeztu ziren, honakoen eskutik: Antón Cañellas i Balcells jauna, Kataluniako Síndic de Greuges; Juan Bautista Monserrat Mesanza jauna, Aragoiko Justicia; José Cora Rodríguez jauna, Valedor do Pobo Galego; Arturo Lizón Giner jauna, Valenciako Komunitateko Síndic de Greuges; eta Fernando Giménez Navarro jauna, Kanarietako Diputado del Común.

2.3.1.2. **BAKERAKO HEZIKETA**

Bilera hau Antón Cañellas i Balcells, Kataluniako Síndic de Greuges jaunak zuzendu zuen, eta Fernando Álvarez de Miranda Torres, Herri Defendatzaile jaunak egin zuen ponentzia.

Arartekoak bi testu aurkeztu zituen, komunikazio bezala:

- Tolerantziari buruzko X. Ihardunaldietako konklusioen segimendua.
- Bakerako heziketa.

Testu horiek interesgarriak iruditzen zaizkigu eta horregatik hemen eskaintzen ditugu.

* * * *

«TOLERANTZIARI BURUZKO X. IHARDUNALDIETAN ATERATAKO ONDORIOEN JARRAIPENA

Bartzelonan 1995ean egin genituen Koordinaziorako Ihardunaldietan arreta berezia eskaini genion «Tolerantzia giza eskubideen zerbitzurako balioa» gaiari. Ihardunaldi haietan gaiari buruzko txosten bat aurkeztu nuelako eta txosten hartan oinarrituaz ondorio eta konpromezu batzuk onartu zirelako, Ararteko erakundeak akordio eta konpromezu haiek garatzeko burutu dituen ihardueren balantze bat egin nahi du urte bete geroago.

Gogoratuko duzuen bezala, zazpi iharduera-alorretan zehazten ziren lan esparru horretarako hartu genituen konpromezuak:

- *pakerako eta tolerantziarako hezkuntza eskola curriculumetan sartzea;*
- *gazteek eskoletan parte hartzeko tresnak garatzea;*
- *inpunitate eta tratu txar eta tortura espazioak desagertaraztea;*
- *bortxakeriaren biktimei kalteordain morala eta materiala ematea, bortxakeriaren jatorria edozein delarik ere;*
- *askatasunik gabe dauden pertsonekiko errespetoa eta presoak osoki gizarteratzeko neurriak bultzatzea;*
- *gaisotasun sendaezinekin eta beste kondena egoera batzuekin dauden presoak kartzelatik ateratzea;*
- *insumisioarentzako tratamendu penala.*

* ***Hezkuntzaren alorrari dagokionez,*** *esperientzia ezberdinak aztertu eta irakaskuntzako profesional eta hezkuntzako euskal administrazioko arduradunekin harremanak eduki ondoren, Arartekoak iharduera proposamen bat egin zuen, bi gai nagusiak (curriculuma eta eskola antolaketa) globalki jaso eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari aurkeztu zitzaiona. Proposamenean eskola alorrean garatu daitezkeen lau iharduera-bide jasotzen dira, eta gure Erkidegoko hezkuntza arduradunak horiek zehaztuko dituztela espero dugu.*

* ***Askatasunik gabe dauden pertsonei dagokienez,*** *1995eko azken hilabeteetako lanak aukera eman zigun horiek Euskal Herriko hiru kartzeletan bizi duten egoera zuzenean eta zehazki ezagutzeko. Aurtengo martxoan Arartekoko honek Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoera» txosten berezia argitaratu zuen, Eusko Legebiltzarrean, kartzeletako eta erkidegoko arduradunen aurrean aurkeztu eta defenditu zena eta defendatzailearen erakundearen lankidetza eta azterketa eduki zituena. Txostenean egiten diren gomendio orokorrez gain, une honetan Arartekotik 51 ofiziozko iharduera burutzen ari gara euskal erakunde ezberdinen aurrean pertsona horien egoera hobetzeko, gai sanitarioei eta gizarteratzeko aukerei arreta berezia eskainiaz.*

* ***Insumisioaren tramamendu penalari eta insumiso presoen egoerari dagokienez,*** *beraiekin eta beraien familiakoekin aldian aldiko harremanak edukitzeaz gain, Arartekotik urte honetan zenbait proposamen egin zaizkio Herri Defendatzaileari, zeinari publikoki eskerrak eman nahi baitizkiot bere laguntza eta gestioengatik. Kode Penal berrian gai honi ematen zaion trataerarengatik eta euskal gazte asko arrazoi horregatik kartzelan daudelako, urtean zehar behin baino gehiagotan azaldu behar izan dugu gure jarrera. Azkeneko aldiz due-la gutxi El Escorialen Uda Ikastaroen barruan Defendatzaileak berak zuzenduta egin zen Insumisio eta Kontzientzi Eragozpenari buruzko Ihardunaldian parte hartu genuen.*

* ***Tratu txar, inpunitate-espazio eta bortxakeriaren biktimekiko tratamendu diskriminatorioa dela-eta,*** *gai horiei dagokienez aurrera egiteko dauzkagun ezintasunak aitortu behar ditugu. X. Ihardunaldietan hartutako konpromezuaren bidetik, Eusko Legebiltzarrean 1995eko urteko txostena aurkeztu nuenean egoera horiek gainditzeko eta aurrez igartzeko nire kezka eta ardura azaldu nituen.*

Azkenik, urte honetan bizi izan ditugun zenbait gertakarik orduan hartutako konpromezuen garrantzia eta gaurkotasuna erakusten dutela

adierazi nahi dut. Han aztertu genituen baina azkenean ondoriorik gabe geratu ziren beste zenbait gairen garrantzia ere aipatu nahi dut (hala nola GAL kasua argitzea edo presoak hurbiltzeko politika...).»

* * * *

«BAKERAKO HEZKUNTZA

Jaun Agurgarria:

Joan den ekainaren 24an Sail horretan egin genuen bileran, eskolaren arloan baloreak transmititzeari buruzko gure kezkak elkarri jakinarazteko aukera eduki genuen, zehazki tolerantzian, giza eskubideekiko errespetoan eta bakean hezitzeko premiaz, hain zuzen. Gure aldetik proposamenen bat egiteko aukera ere planteatu zen. Idatzi honek aukera horri erantzun nahi dio.

Gai honi une honetan eta zalantzarik gabe heltzeko arrazoi asko daude. Alde batetik, martxan dagoen hezkuntzaren eta bere oinarrizko zenbait planteamenduren erreformak daude (hezkuntza-sistemaren helburuak, jarrerazko edukiei ematen zaien garrantzia, curriculumean zehar-lerroetako bat bezala giza eskubideak eta bakea sartzea...), garapen egokia esijitzen duten planteamenduak direlarik. Bestetik, euskal gizartearen premia bereziak daude, urteak daramatzalako indarkeriaren erreferentziak baldintzatuta eta gaztediak balore demokratikoetan sozializatu beharra daukalako.

Bistakoa da Arartekoa bezalako giza eskubideen defentsarako erakunde baten gai hauekiko interesa. Izan ere, azken urtean kezka hau gizarteari, Legebiltzarrari, beste lurralde batzuetako Defendatzaileei eta abarri helarazteko aukera guztiez baliatu gara. Horren lekuko dira gure erkidegoko talde bakezaleekin izandako lankidetza, Legebiltzarrean egindako agerraldietan, bai osoko bilkuran eta bai batzordeetan egindako adierazpenak eta planteatutako proposamenak, edo iazko urriaren 5ean eta 6an Bartzelonan egin ziren Defendatzaileen koordinaziorako ihardunaldietan «Tolerantzia euskal gizartean» gaiari buruz aurkeztutako txostena.

Hain zuzen, txosten horretan -zeinaren testua bere garaian Sail horretara bidali baitzen- «euskal gaztedia eta tolerantzia» gaiaren azterketari atal bat eskaini zitzaion, eta «gazteriaren hezkuntza tolerantziaren baloreetan» aspektuari buruzko atal berezi bat zeraman (ikus Sailari bidalitako agirian 19-23 orr. eta Txostena 1995). Horrezaz gain, proposamen multzo bat egin zitzaien Defendatzaile guztiei bakearen kultura lantzeko eta bi zehatz hezkuntz-sistemari zegozkionak. Aho batez onartu ziren bi proposamen horiek eta hain zuzen ondokoak izan ziren:

a/ bakerako eta tolerantziarako hezkuntzari dagokionez:

1. Hezkuntz-sistemak eskola-curriculumaren barruan bakerako hezkuntza beharrezko orientabide, bitarteko, heziketa, laguntza eta kontrolarekin

landu dezan Administrazioak dagokion ardura instituzionala betetzen duela zaintzea.

2. Gazteek eskola-erakundeetan parte hartzeko behar diren tresna guztien garapena defendatzea, elkarrizketa, lankidetza eta auzien ebazpenerako ikasketa paregabea direlako.'

Eskolaren alorrean balore demokratikoak lantzeko bi proposamen zentral direlakoan gaude, eta biak batera eraman behar direla uste dugu. Hau da, balore horiek testuinguru horretan garatzeko eskola-curriculuma eta ikastetxeen antolaketa dira hain zuzen tresna paregabe eta lehentasunezko iharduera-arlo horiek.

Azken urtean erakunde honetatik aurrera eraman ditugun ihardueretan zehar ezagutu ahal izan ditugu ikastetxeetan gai horien inguruan sortzen diren zenbait zailtasun eta arazo, eta baita sistematikoki lantzeko esperientziarik adierazgarrienetako batzuk ere. Hona hemen adibide batzuk:

- *Ikastetxe batzuetan (batez ere irakaskuntza ertainetan) sortutako elkarbizitza arazoak eta eskubide eta betebeharren araudian eta Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegietan iragarritako ebazpen mekanismoak ezartzerakoan egondako zailtasunak.*
- *Gai hauek ikastetxeetan azter daitezen lortzeko elkarte bakezaleek egindako aportazioak (Denon Artean, Gesto por la Paz, Arnasa...).*
- *Bakeari buruzko Ikasketa Zentro eta Gernika Gogoratuz Fundazioko jendeak sustatuta ikastetxeetan egondako bitartekaritza esperientziak (adibidez, Mireia Uranga irakasleak Busturialdeko ikastetxeetan emandako ikastaroak).*
- *Bakerako hezkuntzan esperientzien trukaketa indartzeko edo sustatzeko iniziatibak (Hezkuntzarako Udal Institututik Gasteizko zentruekin, Giza Eskubideen Elkartetik Bizkaiko zentruetan...).*
- *Talde konprometituek eskoletan erabiltzeko egindako materialak, esate baterako Elkarrirenak («Bakerako hezkuntza» hezkuntza maila ezberdinetarako), Hegoarenak, etabar.*

Talde ezberdinekin egindako bileren eta azken hilabeteetan jaso ditugun zenbait kontsulta edo kexa informalen bidez ezagutu ditu erakunde honek aipatutako arazoak eta iniziatibak. Baina badaude zuzenean ezagutu ez ditugun arren aprobetxagarriak izan daitezkeen beste zenbait iniziatiba interesgarri eta aprobetxagarri ere (Amnistía Internacionalek argitaratutako materialak, Hegoak bultzatutako esperientziak, etabar).

Hezkuntz-sistemaren konplexutasuna, baloreen transmisioari behar bezala erantzuteko zailtasunak, ikastetxeen eta ikasleen adin, interes, gaitasun etabarren arabera horien artean dauden ezberdintasunak, eta abar kontuan izanik, egingo diren proposamenek irekiak eta malguak izan eta aukera ugari eskaini behar dituzte. Horiek zehaztea hezkuntz-administrazioari dagokio, eta gai batzuetan, ikastetxeei beraiei.

Horrela, aipatu diren bi arlo nagusiak (curriculuma eta eskola-antolaketa) aspektu anitzetan zehazten dira edo zehaz daitezke:

- *Eskola curriculuma, zuzenean alor hauei lotzen zaie: etapa bakoitzerako ezartzen diren gutxienezko edukiei, metodologiari, ebaluaketa irizpideei, alor eta denboren banaketari, ikastetxeen hezkuntz eta curriculum proiektuei...; eta zeharka beste gai batzuei: irakaslegoaren prestaketari, eskola materialei, aholkularitza edo kontrolari.*
- *Antolaketak eta partaidetzarako sistemek ere ikastetxeetako aspektu askotan dute eragina: ikaslegoaren eskubide eta betebeharrei buruzko araudia, ikastetxeen antolamendu eta funtzionamendurako arautegiak, erakunde kolegiatuen funtzionamendua, arduren banaketa edo gazteak elkarteetan antolatzea.*

Horregatik, eta erakunde honi proposamen globalak egitea dagokiolako, hezkuntz-administraziotik bultza daitezkeen lanerako bideak aipatu besterik ezin dugu egin. Ondokoak bezalako bideak, hain zuzen:

1) *Ikastetxeetatik edo bakerako hezkuntzan konprometitutako taldeetatik zentzu horretan sor daitezkeen esperientziak eta berrikuntzak laguntzea: urtero proiektuetarako egiten diren deialdietan gai hau sartu, esperientziak trukatzeko ihardunaldiak antolatu, interesgarrienak argitaratu eta banatu, proiektuak ebaluatu eta orientabide pedagogikorako zentruetatik laguntza ematea...*
2) *Zehar-lerro hau ikastetxeetako proiektuetan (hezkuntz-proiektua eta proiektu-curricularra) sartzen dela eta tratamentu egokia ematen zaiola bermatzea; eta baita horietarako eskura lan material egokiak daudela bermatzea ere.*
3) *Zehar-lerro gisa tratatzeaz gain -eta beraz ez ordezko gisa, baizik bere osagarri bezala- oinarrizko gai batzuk curriculumean sartzea, alor batzuen edukiei gehituaz eta izaera propioa daukan ikasgai bezala planteatuaz. (Adibide gisa hona hemen bat: Kanarietako Gobernuko Hezkuntza Sailaren eta bertako Diputado del Común-aren artean akordio bat lortu dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikastetxeek derrigorrez eskaini beharreko aukerako ikasgaien artean giza eskubideei buruzko ikasgai bat sartzea, dagokion curriculumarekin).*
4) *Irakaslegoari eta ikastetxeei behar dituzten materialak eta aholkularitza eskaintzea: eskolan erabiltzeko materialak euskarri ezberdinetan eta maila ezberdinetarako, orientabide pedagogikoak, baliabide-gidak, aholkularitza zerbitzuetatik emandako laguntza (PAT, IPEI)...*
5) *Hezkuntz komunitatea osatzen duten sail ezberdinei zuzendutako informazio eta sentiberatze iharduerak sustatzea (aita-amak, irakasleak, ikasleak).*

6) Irakasleen etengabeko prestakuntza planetan gai horiei buruz prestatzeko iharduera bereziak sartzea.
7) Ikastetxeetako partaidetza bideak eta elkarbizitza baketsua sustatzea eta hobetzea: elkarbizitzarako batzordeak, gazte elkarteak, eskubide eta betebeharren araudia, bitartekaritza alternatibak auziak konpontzeko bide bezala, ikasleak ikastetxeko bizitzaz arduratzea...
8) Eskola eremuan auzien konponketarako lantegiak bultzatzea (batez ere ikasketa ertainetan).
9) Euskal gaztediaren baloreei buruzko ikerketei laguntzea: ikasketa lizentziak, sail horrek edo beste batzuek sustatutako ikerketa lanak...

Berriro diogu, bide horiek irekiak eta askotan osagarriak behar dute izan. Era berean dauden iniziatibak aprobetxatzeko eta lan zail eta garrantzitsu honen inguruan indarrak batzeko premia ere azpimarratu nahi dugu. Eta erakundeen iniziatibez ari gara (esate baterako Giza Eskubideen Zuzendaritzatik edo Gaztediaren Zuzendaritzatik sor daitezkeenak, Tolerantziaren Nazioarteko Urtearen inguruan sortutako batzordea edo kale-indarkeria aztertzeko sail ezberdinen artean osatutako batzordea), eta baita talde ugariren (fundazio, elkarte, koordinadora eta abarren) iniziatibez ere, horietako batzuk idatziaren hasieran aipatu direlarik.

Erakunde honen ustez oso garrantzitsua da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak -hezkuntz sistemaren ardura daukan Administrazioa den aldetik- gai hauek bere lehentasunezko iharduerен artean sartzea eta ikastetxe guztietan tolerantzian, bakean eta elkarbizitza demokratikoaren baloreetan ikasleak hezitzeko prozesuen buru egitea; horretarako iharduerak sustatu behar dira, batzuk berehala, eta beste batzuk epe erdi edo luzera begira.

Proposamen honekin amaitzeko adierazten dizut erakundea interesaturik dagoela Sail horrek bakerako hezkuntza eta ikastetxeetan antolamendu partehartzailea sustatzeko hartzen dituen iniziatiba ezberdinak ezagutzeko. Bestalde gure lankidetzarako borondatea ere adierazten dizut, erakunde honen berezko ezaugarrien arabera.»

2.3.1.3. **EMAKUMEA ERREKLAMATZAILE GISA OMBUDSMAN-EN AURREAN**

Bilera hau José Chamizo de la Rubia, Andaluziako Herri Defendatzaile jaunak zuzendu zuen, eta Mercedes Agúndez Basterra, Arartekoaren Ondoko andreak egin zuen ponentzia.

Era berean, zenbait komunikazio ere aurkeztu zituzten Fernando Álvarez de Miranda Torres, Herri Defendatzaile jaunak eta Fernando Giménez Navarro, Kanarietako Diputado del Común jaunak.

Hona hemen Ararteko erakundeak aurkeztu zuen testua.

* * * *

«EMAKUMEAK ERREKLAMATZAILE GISA LEGEBILTZARRETAKO ORDEZKARIEN AURREAN

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena
2. Egindako bidea
3. Emakumeen egoerari buruzko ikuspegia Legebiltzarren Ordezkarien aurrean aurkezten dituzten erreklamazioen bidez.
   a) Emakumea erreklamatzaile gisa
   b) Erreklamazio alorrak
4. Generoaren ikuspuntua eskubideen defentsarako lanean
   a) Emakume izaeran oinarritutako erreklamazioak
   b) Defendatzaileengana iristen diren arazoen azpian dagoen genero ikuspuntua
5. Ondorioak

1. **Aurkezpena**

Gure gizartean azken urte hauetan egon den gertakizunik erradikalena emakumeek gizartean jokatzen zuten funtzioak izandako aldaketa omen da. Beraz, pentsa daiteke gaia giza eskubideei buruzko era honetako eztabaidagune batean aurkeztea ez dela beharrezkoa. Alabaina, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun osoa lortzeko ereduei buruzko gogoeta ez dago itxita, eta eztabaida geure erakundeen funtzionamendura bertara hedatu beharko litzateke.

Erabat garbi dago azken hamarkadetan gai honen inguruan eman diren aurrerapausoak guztiz garrantzizkoak izan direla. Espainiaren kasuan, 1978ko Konstituzioa onartzearekin egoera aldatzen hasi eta berdintasun juridikorako legedia aldatzeari ekin zitzaion, maila horretan helburuak lortu direla esan daitekeelarik.

Baina guztiz ezinbestekoa den berdintasun formala ezin da berdintasun errealarekin nahastu. Gure gizartean emakumeek diskriminatuta jarraitzen dute, alde batetik beraien hiritarkide diren gizonekin konparatuaz bizi-baldintza kaskarragoak dauzkatelako, baita familian bertan ere, eta bestetik, ondasun sozialetan, esate baterako lanean, aisian, kulturan, etabarretan parte hartzeko aukera gutxiago daukatelako.

Gure gizartean hain txertatua dagoen gizon eta emakumeen betebehar sozialen banaketa ezberdinak ahuldu egiten du emakumeek gizartean jokatu beharreko papera, eta beraien oinarrizko eskubideez osoki baliatzeko aukera gutxiago uzten die. Baieztapen hau ez da berria gure erakundeentzat. Aitzitik, emakumeen eskubidei buruzko arazoei arreta eskaini izan zaie Legebiltzarren

Ordezkarien koordinazio bileretan, eta baita Defendatzaile ezberdinen txosten eta iharduera berezietan ere.

Bidea hasita eta zati bat eginda ere badagoela aitortu arren, planteamenduan aldaketa bat sartzeko unea izan daiteke hau. Emakumeen arazoei ez zaie talde diskriminatu bati dagokion tratamendua bakarrik eman behar, alegia, adin txikiko, hirugarren adineko, atzerritar, pertsona ezindu etabarri bezala dagokiena, baizik eta gure erakundeetara iristen diren gizarte bizitzako alor ezberdinen azterketa orokorraren araberakoa ere behar du. 'Generoaren ikuspuntua' sartzea proposatzen da, hau da, pertsonen eskubideekin zerikusia daukan edozein gaitan bi ikuspegi bereiztu behar dira: bata maskulinoa eta bestea femeninoa, zeinak arazoei ñabardura propioak gehitu eta sarritan intentsitate guztiz bestelakoa ematen baitie.

Txosten honetan iradokitzen den ikuspegia honako honetan datza: emakumen arazoak ez dira berezkoak eta bereziak balira bezala tratatu behar, baizik garbi utzi behar da arazo guzti horiek gizarte osoaren arazoak eta gabeziak direla, nahiz eta pertsonen generoaren arabera sarritan modu ezberdinean eragin. Ikuspegi horrek, baztergarria izan ordez, gure iharduera eremu ezberdinetan beste aldagai batzuk ikuskatzeko aukera ematen du, esate baterako adinarena, nazionalitatearena, etabar.

Hiritarren eskubideen defentsarako ohizko ihardueran 'generoaren ikuspegia' erabiltzeko egokitasunaren gaia iazko apirilean, garai hartan gure erakunde batzuetan ardura karguetan zeuden emakumeen artean egindako bileran planteatu zen, eta bertan Defendatzaileen Ondoko ginen bost emakume bildu ginen. Bere garaian bileraren berri Legebiltzarren ordezkari guztiei eman zitzaienez gero, ez dago zertan xehetasun horietan sarturik. Agian azpimarratzekoa da geure artean biltzera eraman gintuen 'generoaren arrazoiak' ez daukala zerikusirik emakumeen alorrari dagokion tratamendua gizarteko arazoetatik kanpo bakarrik aztertzearekin. Aitzitik, gure bizitzako eta lanbideko esperientziatik sistema soziala ikusteko daukagun ikuspegia azaldu eta bultzatu nahi dugu, gure ustez gure erakundeen iharduna aberas dezakeelako, eta zentzu horretan aportazio hau egin beharra daukagu.

Bilera hura egitera bultzatu gintuen ideiaren bidetik, txosten hau ez da ekarpen teoriko bat, alderantziz, proposatzen den generoaren ikuspegia garatzeko gogoeta amankomun bat da, arazoak ikusteko moduei eta hiritarren babeserako iharduerei dagokienean. Gogoeta hori burutzeko, eta esan den bezala hutsetik abiatzen ez garenez gero, Defendatzaileek aurretik egin dituzten bileretan onartutako zenbait proposamen berriz gogoratzea komeni da.

2. **Egindako bidea**

Sexu arrazoiengatiko diskriminazioari buruz Legebiltzarren Ordezkariek eduki duten kezka eta sentiberatasuna behin baino gehiagotan adierazi dira. Garrantzi berezia daukate Herri Defendatzaileen Koordinaziorako IX. Ihardunaldietan (Alicante, 1994ko urria) adostu ziren ondorioetako batzuek.

Han '*Emakumea lan merkatuan*' gaiari buruz egin zen azterketaren ondoren ikusi zenez '*Emakumea poliki-poliki lan munduan sartuz doan arren, horrek ez du balio izan bi sexuen arteko ezberdintasunak gainditzeko; alderantziz, lan merkatuak berak ugaldu egin ditu emakumea baztertzeko bideak, gizonaren parean nabarmen ezberdina izatera behartuz; dauden datu estatistikoek frogatzen dute hori*'.

Ihardunaldi horietan, bi sexuen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duen ekintza positibozko politika sustatzeko Konstituzioak agintzen duen bidetik, besteak beste ondorengo proposamenak egin ziren:

* '*Emakumeari familiaren barruan oinarrizko zeregina ezartzen dieten eta ondorioz lan mundutik baztertuta dauzkaten balore sozialak betirakotu ez daitezen, eta Espainiako Konstituzioak 39. artikuluan xedatutakoaren bidetik, familia barruko arduren kontzeptu berri bat sartu beharra dago, gizon eta emakumeen artean ardura horien banaketa berdintasunean oinarritzeko eta halako politika egoki bat garatzeko, lan munduan sartzeko aukeretan berdintasuna bermatuko duena.*
  Babes-neurri horiek kostu sozial bati aurre egin beharko diete, eta horiek ezin izango dira emakumearen kalterako'.

* '*Neurri fiskalak ezarri beharko lirateke, besteak beste, haurtzaindegien erabileragatik zergagabetzeko dagoen mugak zabaltzeko, adin txikikoen heziketak eragindako gastuak zergagabetzeko, familia ugarien erregimenaren ezarketa hirugarren seme-alabarekin hasteko, etabarretarako*'.

* '*Administrazio publikoak lanpostuak sortzen dituenean paper erabakiorra jokatu behar du, alor pribatuan eredu bezala har daitekeen lan harremanetarako eredua ezarriz, eta aldi berean gai honetan zerikusia duten agente sozialak (sindikatuak, enpresariak, etabar...) sentsibilizatuz eta akuilatuz*'.

* '*Era berean, komenigarria litzateke organu kontsultiboetan eta bereziki Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean edo pareko erakunde autonomoetan emakumeen eskubideak defendituko dituen emakume ordezkari bat egotea, Emakumearen Institutoak edo lurralde autonomoetako antzeko erakundeek proposatua*'.

* '*Emakumeen kolektiboak ekintza positiboak behar dituela kontuan izanik, hiritarren eskubideak bermatzen dituzten gureak bezalako erakundeek arreta handiagoa eskaini behar diote. Horretarako, komenigarria litzateke erakunde bakoitzak bere barne antolaketan hiritarren talde honi trataera berezia eskaintzeko beharrezko neurriak hartzea*'.

* '*Eta azkenik, Herri-Defendatzaileok emakumeen eskubideak zabaldu eta sustatu behar ditugu lan horretan diharduten administrazioen (Hezkuntza, Kultura, Emakumearen Institutoak, etabar...) koordinazioaren bidez, eta baita hitzaldi, elkarrizketa, etabarren bidez ere, emakumeak beraien eskubideen jabe eraginkorrak izan daitezen lana egiteko*'.

* * *

Giza Eskubideen Defentsa eta Sustapenerako Erakundeen Hirukontinentearteko Lehen Konferentzian ere (Kanariak, 1995eko azaroa) aztertu zen emakumeen egoera, eta atera ziren ondorioak oso adierazgarriak izan ziren, bereziki ondoko hauek:

* '*E) Emakumeen egoerari dagokionez:*
Hirukontinentearteko Konferentzia honek beretzat hartzen du Pekinen 1995ean egindako Ekintza Plataforma, emakumeen eskubideak oinarrizko giza eskubide gisa jasotzen dituen Gutun bezala, eta eskatzen du horko aldarrikapenak kontutan hartuak izan daitezela Giza Eskubideen defendatzaileen iharduerian. Kanarietako I. Hirukontinentearteko Konferentziak bere aldekotasun osoa agertzen dio Ekintza Plataformari, emakumearen eskubideen defentsaren bilakabidearen laburpen bezala'.

* '*Erakundeek aldakuntza ekonomikoak birplanteatzea, gizonek eta emakumeek aukera berberak izan ditzaten beren lanpostuetan; lanaldiaren banaketa orekatua sustatzea; eta gizasemeak etxeko lanetan eta gurasotasunaren arduretan izan beharreko partaidetza bultzatzea.*
Negoziazio kolektiboa eta negoziazio mahaietan emakumeak parte hartzea baliagarritzat hartu behar da bazterkeria ekiditeko eta emakumearen garapen aske eta duina lortzeko neurri positiboak bultzatzeko'.

* '*Botere politikoaren guneetan erabakiak hartzen diren postuetan emakumeak parte hartzeko dauden oztopoak eta edozein bazterkeria mota desagertaraztea, eskualde, nazio zein nazioarte mailan*'.

* '*Nazioetako lege antolamenduak moldatzea, emakumearen kontrako edozein bortxakeria, etxe barrukoa zein kanpokoa, Giza Eskubideen bortxaketatzat hartua izan dadin*'.

* '*Tradizioaren edo erlijioaren izenean edo gobernuaren populazio politikaren izenean zenbait kultur komunitatetan emakumeen kontra egiten diren Giza Eskubideen bortxaketaren aurrean, Nazioarteko*

Komunitateak izan beharreko eskuhartzearen beharra aitortzea eta aukera hori arautzea'.

Honen antzeko foroetan onartutako konpromezu eta proposamen hauei ezer gutxi gehitu dakieke. Ordezkariek gaiaren aurrean daukaten jarrera argia da, eta emakumeen arazoei arreta berezia eskaintzeko borondatea zalantzan jarri ezinezkoa.

Alabaina, oraingo egoeraren aurrean konpromezuak beste planteamendu batzuk eskatzen ditu. Alde batetik, desberdintasunaren arrazoi ezkutuak detektatu eta azaleratu behar dira eta, bestetik, hiritarren defentsarako gure zereginean ekintza positiborako politikak bultzatu eta martxan jarri. Planteamendu horretatik abiatuaz, gure eguneroko iharduna aztertzeari ekingo diogu, eta geure erakundeen funtzionamenduan generoaren ikuspuntua praktikan nola gauzatu daitekeen galderari erantzuten saiatuko gara.

3. **Emakumeen egoerari buruzko ikuspegia Legebiltzarren Ordezkarien aurrean aurkezten dituzten erreklamazioen bidez**

Giza eskubideen gaietan gure erakundeek aztertzeko, ikertzeko eta sustatzeko daukaten eginkizunak gizarteko arazoak ikusteko talaia paregabea eskaintzen digu. Egoera bereziki ahulean dauden eta beraz arreta berezia behar duten hiritar taldeak zeintzuk diren jakiteko aukera eta ardura dauzkagu.

Ikusi dugun bezala talde horietako bat emakumeek osatzen dutela onartu dugunez gero, gure bulegoen barruan emakumeei dagozkien arazoak banaka atzertzeko aukera eduki beharko genuke, informazio hori iharduera eremu ezberdinetan sakanabatuta gera ez dadin (gizarte zerbitzuak, justizia, hezkuntza, etabar). Datuak normalean beti osotasunean ematen diren arren, Kanarietako Diputado del Común-ek 1995eko txostenean bereiztuta eskaini zituen, eta horrela, adin txikikoak, emakumeak eta pertsona adindunak bereiztu zituen, biztanle taldeen araberako azterketa berezi bat burutuaz. Era berean, Gaztela-Leongo Procurador del Común-en txostenean badago kuadro bat gizonek eta emakumeek aurkeztutako kexen alorrak bereizten dituena. Valedor do Pobo delakoak sexuen arteko berdintasunaren gaia aztertu du, baina ikuspegi juridikotik.

Edonola ere, eta erraklamatzaile gisa emakumeek eta gizonek dauzkaten portaerei buruzko azterketa zuzen gutxi dauden arren, informazioa datu orokorretatik atera daiteke, eta horrela emakumeei berez dagozkien zirkunstantziei buruzko ñabardurak garbiago zehaztu daitezke. Gure erakundeen iharduerak eskuratzen dizkigun ezagutzen artetik desberdintasuna isladatzen dutenak ateratzea litzateke kontua. Edo beste era batera adierazteko, iristen zaigun informazioa orokortasunean barreiatuta utzi ordez, berdintasuna sustatzeko iharduerетan erabiltzeko bideak egin behar ditugu.

Lehen hurbilketa batean, interesgarria litzateke gure erakundeetara jotzen dutenen artetik gizonak eta emakumeak zenbat diren jakitea, eta bestetik emakumeek zein eratako gaien inguruko erreklamazioak egiten dituzten ezagutzea.

a) Emakumeak erreklamatzaile gisa

Lehen datu deigarria: emakumeek gutxiago jotzen dute Defendatzaile ezberdinengana. Defensor del Pueblok Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuak ateratzen duen aldizkarian (*Newsletter*, 17. bol. 2. zkia, 13-16 orr.) argitaratu zuen '*El perfil de las mujeres españolas con respecto al Ombudsman*' artikuluan adierazten zenez, Espiniako hiritarren ia %51 emakumeak diren arren, horiek 1993an aurkeztu zuten kexa-kopurua %42'7 izan zen, gizonena berriz %57'3, eta kontuan izan behar da urte horretan lortu zela emakumeen partaidetzarik handiena. Bestalde, 1994an erabiltzaileen artetik %67 gizonak eta %33 emakumeak izan zirela ere esaten zuen. Alde hori nahiko adierazgarria da, eta emakumeek beraien eskubideak defendatzeko gaitasunean sexu arrazoiarengatik desberdintasunen bat jasaten duten ikertzeko premia planteatzen du.

Badago ikerketa hori egiteko arrazoia sendotzera datorren beste aspektu bat: 1995eko datuen arabera joera orokortzen ari da erakunde nazional guztietan. Ondorengo kuadroan isladatzen da esandakoa, nahiz eta indikatiboa bakarrik izan, kexak zenbatzeko modua beti homogeneoa ez delako.

Gure erakundeen aurrean aurkeztutako kexa indibidualen banaketa kexa aurkezleen sexuaren arabera

(1995.eko DATUAK)

	GIZONAK	EMAKUMEAK
DEFENSOR DEL PUEBLO	70 %	30 %
ARARTEKO	63,7%	36,3%
DEFENSOR DEL PUEBLO ANDALUZ	56 %	44 %
DIPUTADO DEL COMÚN (KANARIAK)	61,4%	38,5%
JUSTICIA DE ARAGÓN	60,9%	39 %
PROC. DEL COMÚN (GAZTELA-LEON)	64 %	36 %
SÍNDIC DE GREUGES (KATALUNIA)	75,8%	24,1%
SÍNDIC DE GREUGES (VALENCIA)	62,2%	37,7%
VALEDOR DO POBO (GALIZIA)	59,7%	40,2%

Kopuruen artean dagoen aldeak ez du, ordea, ondorioak ateratzeko aukerarik ematen, arrazoi ezberdinengatik gerta daitekeelako. Hasteko, eragina eduki dezaketen hainbat faktoreren artean azalpen kontrajarriak dauzkaten bi hipotesi daude: emakumeek beraien eskubideez baliatzean arazo gutxiago aurkitzen dituzte eta horregatik gutxiago jotzen dute Defendatzaileengana, edo horiengana iristea galerazten dieten traba bereziak edo gizarte ohitura sustraituak daude.

Lehen hipotesiak ez dirudi onargarria, izan ere nazio nahiz nazioarte mailako beste ikerketa iturri batzuetatik eratorritako datu soziologikoek ematen dituzten datuen erabat kontrakoa delako. Emakumearen Institutuak Espainiako emakumeen egoeraz egindako azterketek diotenez, 1993an lanerako adinean zeuden pertsona guztien artetik %34 ziren emakumeak eta jasotzen zituzten soldatak gizonenak baino baxuagoak ziren (orohar, %20 gutxiago kobratzen zuten). Era berean, eta emakumeek lan merkatuan sartzen jarraitzen duten arren, etxeko lanean sartzen diren orduetan dauden aldeak ez dira gutxitu. Bestalde, pobreziaren kontrako programetan emakumeek daramaten protagonismo triste hori daukagu, beraiek baitira onuradun nagusiak.

Laburbilduz, onartezina da gizonekin konparatuaz emakumeek eskubide urraketa gutxiago jasaten dutela dioen azalpen inozoa. Aitzitik, gerta daitekeena zera da, alegia Zuzenbidezko Estatu sozialak emakumeen defentsarako mekanismo bereziak ezarri dituenez gero, beste erakunde batzuk izatea emakumeen auziak nagusiki bideratzen dituztenak. Nire ustez hipotesi hori kontrastatu beharrekoa da, eta horretarako Administrazio ezberdinetako Emakumearen Zerbitzuekin eta Emakumearen Institutu edo antzeko erakundeekin koordinazioa eta lankidetza beharko lirateke. Azterketak egiteko ikuspegi berdintsuak erabili eta datuak trukatzen badira, erakunde bakoitzak zein gai lantzen dituen eta, beraz, laguntzarik gabeko alorrak non dauden jakin ahalko litzateke.

Zentzu berean, emakumeek beraien interesak defendatzeko erabiltzen duten beste bide bat jurisdikzionala dela ere pentsa daiteke. Emakumeen taldean auzi asko familia alorrean sortzen direnez gero, horiek kasu indibidualtzat jotzen dira eta ebazpena Auzitegietan ematen zaie. Emakumeei giza eskubideen ihardueran sortzen zaizkien arazoak mugatu nahi izateak aspektu jurisdikzionala kontuan hartu beharra dakar, eta horregatik, lehen proposaturiko informazio trukaketa Fiskaltzara eta Abokatu Bazkundeetako zerbitzu berezietara hedatzea ere egokia dirudi.

Planteamendu berarekin jarraituaz, alegia, emakumeen defentsa- mekanismo ezberdinak agian bateragarriak direla ikusteko bidetik beste puntu hau ere aztertu beharko litzateke: gure iharduera eremutik kanpo geratzen diren kexak bideratzen laguntzeko informazio zerbitzu eraginkorrik ematen al dute gure erakundeek?, eta baiezko kasuan, zenbaterainokoa da hori? Zentzu horretan, eta orain Arartekoaren datuetara mugatuaz, gauzatu diren kexak hartu ordez Hiritarrentzako Informazio Zerbitzuak hartzen dituen bisitak hartzen baditugu, ikusten da zerbitzu horretara joaten diren pertsonen sexuaren araberako portzentaiak ia berdintsuak direla, azkeneko urtean emakumeak %47 eta gizonak %53 izan baitira.

Gure erakundean oraindik ez dugu aztertu zergatik dagoen alde hori, alegia, informazio eske joan eta azkenean kexa aurkezten dutenen artean alde hori zergatik gertatzen den, baina uste dugu azterketak azalpenak eskuratzeko bidea emango digula. Datorren urtean bisiten datuak sistematikoki biltzeko protokolo bat gehitzea iragarrita dago, eta seguruenik eragina daukaten faktoreetakoren batzuk aurkitzeko baliagarria izango da.

Edonola, eta gaia sakondu ala ez, *a priori* pentsa daiteke emakumeak ez direla Herri Defendatzaileen eskumenean dauden alorretako gaiekin zerikusia

duten kexak aurkeztera beste erakunde babesemale batzuetara joaten eta, beraz, erantzunik gabe geratzen da gure erakundeak emakumeek gizonek baino gutxiago zergatik erabiltzen dituzten galdera.

Arrazoi posibleetara itzuliaz, Herri Defendatzaileak lehen aipaturiko artikuluan honela argitzen du gertatzen dena: '*norbaitek bere gain hartzen ditu administrazio publikoarekiko emakumeen ardurak, eskubideak eta betekizunak, eta norbait hori gizona da'* Hori, jarraitzen du, emakumeen onerako ez da eta '*bere gaitasunak murrizten ditu, batez ere hiritar gisa dagokion ihardueran eskuratzen den esperientzia, eta nagusiki bere betebeharren parean dagozkion eskubideei dagokiena*'.

Hipotesi hori sendotu egiten da Defendatzailearen zerbitzua erabiltzen dutenen 'egoera zibila' aldagaia aztertu ondoren, eta hau da ondorioa: '*emakumeak ezkondu gabe daudenean gizonek adina jotzen dute Ombudsmanarengana. Gutxiago idazten dute ezkonduta daudenean, eta alargundu, banatu edo dibortziatzen direnean gizonek baino gehiago idazten dute berriro. Espainiako gizartean irauten duen kulturaren ondorioekin topo egiten dugu: familia burua eta seme-alaben eta emaztearen zaindaria gizona da*'.

Beraz, emakumeen beraien eskubideak defendatzeko erreklamazio gutxiago aurkezteko arrazoia familiaren estrukturan eta rolen banaketan dagoen desberdintasuna dira. Horrela, bada, bikotearen eta familiaren barruan emakumeak jokatzen duen papera sarritan menpekotasunean oinarritua dagoelako gertatzen da aipatutako fenomenoa, eta ez emakumearen esfera juridikoan hausketarik gertatzen ez delako. Egoera hori gure herrialdean sustrai sendoak dauzkaten eredu soziokulturalen ondorioz gertatzen da, eta horiek aldatzeko, beraz, pausoka burutuko den prozesu sozial bat behar da, baina, halere, ezinbesteko lehen pausoa gure erakundeek gai horretan daukaten zerikusiaz jabetuta egotea da. Emakumeei beraien eskubideak defendatzeko iniziatibetan laguntzea litzateke lortu beharreko helburua.

Zentzu horretan, gizonak eskubideak erreklamatzerakoan familia ordezkatzen dutenean eta, beraz, emakumeei hiritar gisa iharduteko protagonismoa murrizten zaionean beste arazo bat ere sortzen da: emakume askok ez dituztela ezagutzen dagozkien eskubideak.

Garbi dago, eskubideaz jabetuta egotea ezinbestekoa dela hausketa gertatu ote den jakiteko, eta ondorioz defendatu ahal izateko. Alabaina, emakume askok ez dituzte ezagutzen ez beraien eskubideak, eta ezta horien bermerako dauden mekanismoak eta batez ere horietara iristeko modua. Adibide gisa etxean jasaten dituzten tratu txarrak edo laneko eraso sexuala dauzkagu, horiek jasaten dituztenak orain hasi baitira jakiten beraiei 'gertatzen zitzaienak izena' daukala eta askok daukaten arazoa dela.

Horregatik, emakumeen 'alfabetatze juridikoa' zeregin larria da, eta defendatzaileen giza eskubideen kulturari dagokion zereginean erraz txerta daiteke. Agian berriro gogoratu behar da Defendatzaileen Hirukontinentearteko Lehen Konferentziak onartu zuen Pekingo Ekintza Plataformak zioena. Alegia, giza eskubideei begira helburu estrategikoen artean, emakumeek '*oinarrizko ezagutza*

juridikoak' lortzea zegoen, eta horretarako zenbait iharduera proposatzen ziren, lortzeko lanean hiritarren eskubideen defentsarako erakundeak ere sartzea eskatzen zelarik.

Erakunde bermatzaileengana emakumeek zergatik ez duten jotzen jakiteko hurbilpen honekin, badirudi traba bakarra ez dela eskubideei buruzko kultura eza. Aipatu den Herri Defendatzailearen artikuluan esaten denez, soldatapeko lana daukaten emakumeek beste biztanleek bezala jotzen dute bere erakundera, eta horrek esan nahi du lana daukaten emakumeek generoarekin zerikusia daukaten traba posibleak neutralizatu egiten dituztela. Edo beste era batera esanda, '*lanik ezak hiritar gisa daukaten gaitasunean interferitu egiten du*'. Bestalde, Defendatzaileari idazten dioten emakumeek daukaten hezkuntza maila gizonena baino baxuagoa dela ere ikusten da, eta baita ere emakume erreklamatzaileen kopurua jaitsi egiten dela 65 urtetik aurrera.

Nire ustez, aurreko datu eta gogoetetatik lehen ondorio hau atera daiteke: defendatzaileengana emakume gutxiagok jotzeak desberdintasuna dagoela esan nahi du. Horren arrazoia, seguruenik, emakumeek familian, eta horregatik baita gure herrialdeko gizarte bizitzan ere gaur oraindik daukaten menpeko papera da. Beste faktore garrantzitsu bat emakumeek beraien eskubideez daukaten ezagutza mugatua izan daiteke.

Edonola, garbi dago emakumeek beraien eskubideen iharduerán guk ezagutzen ditugun baino zailtasun gehiago aurkitzen dituztela. Egoera horretaz jabetzeaz gain, gure erakundeek arrazoien azterketa sakonago bat egin beharra daukate. Horretarako baliagarria litzateke dauzkagun edo eduki ditzakegun informazioa eta datu estatistikoak sexu eta adinaren arabera biltzea, aztertzea eta aurkeztea. Horrela, emakumeek erakunde bermatzaileetara jotzeko dauzkaten arazoak hobeto ezagutuko genituzke, eta beraien eskubideen defentsan protagonismo handiagoa edukitzeko neurriak martxan jarri ahalko lirateke.

b) Erreklamazio alorrak

Emakumeek erreklamazio gutxiago aurkezten dituztela ikusi ondoren, pentsa daiteke horiek kexak aurkezteko dauzkaten arrazoiak beste hiritarrenak bezalakoak direla, hau da, genero bateko nahiz besteko pertsonek planteatzen dituzten gaien banaketa antzekoa dela alorren arabera.

Adibidez, Arartekoaren 1995eko ihardueren datuak irakurri ondoren atera daitekeen lehen ondorioa, ordea, aurreko planteamenduaren kontra doa. Kexa aurkezleen generoaren arabera alorrak banatu ondoren ikusten da banaketa ez dela homogeneoa. Emakumeek zenbait gairi buruz egindako erreklamazioen kopurua asko gehitzen da, alor bereko gizonen kexekin pareka daitekeelarik. Hori gertatzen da, esate baterako, hezkuntzarekin, emakumeek eta gizonek kexa kopuru berdina aurkezten baitute. Kopuruak nahikoa hurbiltzen dira beste alor batzuetan ere, adibidez osasunean eta gizarte ongizatean (emakumeek 37 kexa eta gizonek 41) eta ingurugiroan (emakumeek 26 eta gizonek 32). Emakumeek kexa gehien funtzio publikoa eta administrazioaren antolaketa alorretan aurkeztu dituzte, baina gizonek planteatutako 85etatik urrun daude.

Era berean, beste alor batzuetan emakumeek aurkeztutako erreklamazio kopurua batez bestekoaren oso azpitik geratzen da, hori gertatzen da, adibidez Herrizaingo (emakumeek 19/gizonek 65) edo Ogasun alorretan (29/89).

Datu horiek sakonkiago aztertu behar diren arren, ez dirudi kasualitate hutsa direnik. Pentsa daiteke emakumeak bizitzako oinarrizko baldintzez gehiago eta zuzenkiago kezkatzen direla (osasuna, etxebizitza, gizarte laguntza, seme-alaben heziketa, etabar), eta beraien erreklamazioak pertsonen arazoetatik gertuen dauden alorrei dagozkie, beraien oinarrizko eskubideei, alegia. Edonola, garbi dago gizarteko rolen banaketa desberdina dagoen bezala, kexak ere gaien arabera banatzen direla.

Azken ondorio hori beste batekin lotu daiteke, azken hau ere oso esanguratsua delarik: emakumeek sarritan aurkezten dituzten kexak beste pertsona batzuei (seme-alabei, beraien kargura dauden pertsona adintsuei, senarrari, etabarri) zuzenean eragiten dietenak izaten dira, eta askotan familia osoari eragiten dieten arazoei buruzko kexak aurkezten dituzte. Lehenago esan den bezala, hori familiaren ordezkaritza bere gain hartzen duten gizonen erreklamazioetan ere ikusten da, baina orain beste gauza bat azaleratu nahi dut, eta zera da, iniziatiba hartzen duena emakumea denean, gizonek baino gai propio gutxiago aurkezten dituzte. Adibidez, osasun eta gizarte ongizate alorretan emakumeen erreklamazio gehiago zeudela esan badut, horien artetik gehienak zentzurik hertsienean gizarte ongizateaz ulertzen den azpialorrari buruzkoak dira. Hor emakumeek aurkeztutako 19 kexetatik 5 bakarrik dira aurkezleei beraiei zuzenean dagozkienak, gainerantzekoetan beste pertsona batzuen (aita, ama, alaba, seme, osaba, amaginarrebaren...) edo familia osoaren onerakoak dira. Azpialor horretan gizonek aurkeztutako 12 erreklamazioetatik erdiak aurkezleen arazoei dagozkienak dira, eta 2 pertsona jakinei dagozkie eta 4 familiari orokorrean.

Garbi dago azterketa kuantitatibo hutsa motz geratzen dela, kexen alorren araberako sailkapena instrumentala bakarrik delako, eta beste gauza bat ere gertatzen da, alegia batzuetan kexa aurkezlea ez dela izaten gero jarraipenaz arduratzen dena.

Emakumeak besteen aldeko kexak aurkezten dituela frogatzen duen beste adibide bat ingurugiro alorrean daukagu, eta gure datuen arabera emakumeek alor horretan aurkezten dituzte kexa gehien. Horien artean zarata edo iharduera gogaikarrien kontrolerako udalek hartu beharreko neurriei dagozkie, eta horrek erakusten du familiaren ongizate eta bizitza kalitatearen aldeko defentsa burutzen ari dela emakumea.

Nire ustez, gauzak horrela direla ikusteak badakar ondorio praktiko bat, alegia aurreko atalean proposatzen zen emakumeei propio zuzendutako informazio lana bi aldetatik izan daitekeela emankorra. Beste era batera esanda, emakumeen 'alfabetatze juridikoak' ondorio biderkatzailea edukiko luke gaur egun emakumeek besteentzako babesa eskatzen duten neurrian. Hain zuzen bere talde sozialaren eskubide 'defendatzaile' edo sustatzaile lana egiten duelako zenbait alorretan.

Lehengo baieztapenarekin kontrastean ikusten da ere emakume izaerari buruz aurkeztutako kexak oso gutxi direla. Gure erakundean generoak eragindako

kexarik eta ezta kontsultarik ere apenas planteatzen den. Diskriminazio gaiak ez dira planteatzen, beraz, baina horrek ez du esan nahi kexetan diskriminazio elementu ezkutuak edo zeharkakoak ez daudenik, eta horiek azaleratzen saiatu beharko genuke. Puntu hau zehazkiago hurrengo atalean aztertuko da.

Edonola, adierazgarria da berdintasun printzipioarekin zuzenean zerikusia daukaten kexak aurkeztu ez izatea, eta honek lehendik jada azaldu dugun gai batekin zerikusia eduki dezake, alegia, emakumeei sortzen zaizkien arazo zehatzak emakumetasunarekin kontzienteki ez erlazionatzearekin, hau da, ez da hausketarik ikusten eskubideari buruzko kontzientziarik ez dagoelako.

Atal honen ondorio gisa dauzkagun datuak sistematikoki aztertzeko beharra ikusten dugu, emakumeen arazoak hobeto ezagutu eta horien artetik zeintzuk kezkatzen dituzten eta giza eskubideen alor horietatik kanpo zergatik geratzen diren zehazteko. Emakumeen egoera soziala mugatzen bada, hobeto erantzun ahalko zaie dauzkaten arazoei.

4. **Generoaren ikuspuntua eskubideen defentsarako lanean**

Iaz Pekinen egin zen Emakumeari buruzko Munduko Konferentzia pauso kualitatiboa izan zen gaia planteatzeko moduari dagokionean. Emakumeen eskubideak giza eskubideen zati bat direla kontuan izanik, emakume izaeran aurrera egitea eta emakumeen eskubideak indartzea ezinbestekoa da giza garapenerako eta gure gizarteen bilakaerarako. Konferentziak onartu zuen Ekintza Plataformak berekin dakar generoaren ikuspuntua politika, proiektu eta programa guztietan sartu beharra, eta baita alorrez alorreko politikak politika orokorrean txertatu beharra ere (zentzu horretan, ikus aipaturiko Plataformako *H.2 Helburu estrategikoa* eta hori lortzeko proposatzen diren neurriak).

Azken finean emakumeen arazoak gizarte osoaren arazotzat hartzea da kontua. Hau da, emakumeek bizitza publikoan edo erabakietan parte hartzea politika orokorretan txertatu behar da, sektoreko erreibindikazio bezala planteatu ordez.

Generoaren ikuspuntuak beste aurpegi bat ere badu: emakumeen ikusgarritasuna. Esan berri dudan bezala, emakumeen arazoak gizartearenak badira, egia da era berean gizarteko arazo guztiek daukatela alderdi femeninoa. Irakurketa femeninoa egin behar da gizarteko arazoek emakumeentzat dauzkaten ezaugarri zehatzak eta ondorio bereziak ikusteko.

Nolabaiteko aldaketa kualitatiboa eskatzen duen ikuspegi hau zalantzarik gabe bultzatu behar da giza eskubideen defentsarako eta sustapenerako gure erakundeetatik. Kasu batzuetan hori ez da zaila, erreklamazioa bera tratu diskriminatzaile batean oinarrituaz planteatzen delako. Beste kasu batzuetan, pertsonaren beste edozein eskubide kaltetu delako aurkezten da kexa, baina kasua generoa kontuan izanda irakurtzen bada, arazoak emakumeei sortzen dizkien ondorioak ikusi ahalko dira, eta bestela konturatu gabe pasatuko lirateke.

Laburbilduz, generoaren ikuspegiak gure iharduera bermatzailea eraginkorragoa egin dezake zenbait sailtan, sarritan ezkutuan geratzen diren

aspektuak eta faktoreak argitzen dituelako. Ideia hori garbiago ikus dadin, azken urte eta erdi honetan Arartekora iritsi diren zenbait kasu aztertuko ditut. Hasteko, espreski generoaren eraginaz aurkeztutako gai apurrak ikusiko ditugu zehatz-mehatz, eta ondoren ikuspegi hori inplizituki agertzen duten beste gai apur batzuk aztertuko ditugu. Ez dut espedienteen tramitazioaz edo lortutako emaitzez hitz egingo, ikusi nahi dugunerako garrantzirik ez daukatelako. Nolanahi, dagokien dokumentazioa nahi duenak eskura dezake.

a) Emakume izaeran oinarritutako erreklamazioak

* '*Emakumea lan merkatuan*' gaiari buruz Defendatzaileen Koordinaziorako IX. Ihardunaldietan auzkeztutako txostenean garbi geratu zen bezala, **enplegua** da oraindik emakumeek modu kezkagarrian diskriminatuta jarraitzen duten alorretako bat. Alabaina, eta lan harreman gehienak partikularren artean finkatzen direnez gero, Defendatzaileek ez dute hor parte hartzeko aukera askorik izaten. Halere, 1995ean Arartekoak jaso zuen kexa bat Bizkaiko *Asociación de Trabajadoras del Hogar* deituak aurkeztua.
  Elkarte horrek Arartekoaren bitartekaritza eskatu zuen ia emakumez bakarrik osaturiko enplegu alor horren lan baldintzak orokorrean hobetzea lortzeko. Jakinekoa den bezala, neurri handi batean etxeko lanek historikoki jasan duten balorazio urriaren bidez uler daitezkeen tratu desberdintasunak jasaten dituzte lan munduko erregimen orokorrarekin konparatuaz.
  Emakume langileek beraien lanaren berezitasunaren araberako lan erregulazio berri bat eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzea eskatzen zuten, eta hori Arartekoaren eragin alorretik kanpo geratzen zen; horregatik Herri Defendatzaileari pasatu zitzaion kexa.

* Badago beste alor bat ezbairik gabe emakumeak gizonekiko erabateko berdintasuna lortu ez duena, eta hau zera da: **politikaren praktika eta erabaki publikoetan parte hartzea**. Emakumeak beraien hirien gobernuan aktiboki parte hartzera bultzatzeko, *Plazandreok* emakume taldeak emakumez bakarrik osatutako hautagai zerrenda aurkeztu zuen Donostiako udal hauteskundeetara.
  Aipaturiko hautes-taldeak Arartekoaren iritzipean jarri zituen hauteskunde arauei buruzko zenbait lege xedapen, interesatuen ustez beste talde politiko batzuekin konparatuz tratu diskriminatorioa suposatzen zutelako. Kasu honetan, ustezko tratamendu desberdina ez zen gertatzen hautagaiak emakumeak zirelako, talde minoritario bat osatzen zutelako baizik. Konstituzio Auzitegiaren dotrinak dioenaren arabera, Arartekoak iritzi zuen ez zegoela Konstituzioak 23.2 artikuluan jasotzen duen oinarrizko eskubidearen hausketarik. Alabaina, materialki berdintasuna bilatzen jarraitzeko borondatearekin, kexa hori Herri Defendatzaileari igorri genion, lege mailako zenbait erreforma egiteko egokitasunari buruz piztu

zitekeen eztabaidari begira, gizartean halako sentiberatasun bat zabaltzeko helburuarekin.
Dena dela, erreklamazioaren edukia edozein izanda ere, kexa aurkezten zuen taldearen izateak berak garbi erakusten du politika alorrean emakumeek badaukatela arazo berezi bat.

* Jabetza publikoa daukaten **komunikabideen** papera funtsezkoa da gizakien jarreren bilakaerarako eta bereziki emakumeen eskubideak eta horiek sortarazten dituzten arazoak ezagutzera emateko.
Joan den martxoaren 8an '*Emakumearen Nazioarteko Eguna*' ospatzen zela eta, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak EITBrekin kontratatu nahi izan zuen haiek egindako iragarki bat, zeinetan alor pribatu nahiz publikoan gizarteko rolak berdin banatzea eskatzen baitzen. EITBk ez zuen iragarkia onartu, eduki ideologikoa duen publizitatea ematea debekatzen duen Administrazio Kontseiluaren araua ezarriaz.
Arartekoaren iritziz debekua ezartzeko erabili zen agindu legala ezin zen kasu horretan ezarri, ez zelako halako aukera ideologiko baten alde egiten eta bai berdintasun printzipioaren alde; eta printzipio hori oinarrizkoa da elkarbizitzan eta, gainera, lege-antolamenduaren goi baloretzat hartuta dago konstituzioan.
Edonola, kexaren edukiak berak, eta antzeko kasuetan beste talde batzuei eman izan zaien tratuarekin konparatuaz emakumeei emandakoa desberdina eta diskriminatzailea zela adieraziaz egindako salaketak ere garbi erakusten dute komunikabide publikoek pertsonen arteko berdintasuna lortzeko egin behar duten lanari buruzko gogoetaren premia. Horrekin estuki lotuta dago eginkizun hori bete dadin gure erakundeek egin beharreko bermatzaile lana.

* Euskal herrietan udan ospatzen diren jaiak direla eta, Arartekoak bi kasutan parte hartu behar izan du gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin zerikusia zuten gaietan. Emakume talde ezberdinak biltzen dituen *Bidasoako Emakumeak* taldeak Irun eta Hondarribiko udalek burututako ihardueren kontrako kexak aurkeztu zituzten. Erreklamazioetan salatzen zenez, ohituran oinarrituaz, bi herrietako jaietako ospakizun nagusian, *Alardean*, alegia, beste hiritarrekin, hots, gizonekin desfilean parte hartzea **debekatu egiten zitzaien emakumeei**.
Arartekoak bi alkateei egindako gomendioetan gogorarazten zitzaien udalak antolatutako jai eta kultur ekintzetan emakumeen partaidetza ahalbideratuko duten baldintzak sustatu behar dituztela, eta alor horretan gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna lortzeko leudekeen trabak kentzen saitu behar zutela. Arartekoaren gomendioak kasuetako bakar batean ere balio izan ez zuen arren desfilatu nahi zuten emakumeen partaidetza onar zedin, garbi dago bere iharduera giza eskubideekiko errespetua bultzatzeko eta kultura demokratikoa garatzeko daukan eginkizunean sartzen zela.

Irunen eta Hondarribian gertatutako arazoek garbi erakusten dute gizarteak oraindik onartu gabe daukala pertsonen arteko berdintasuna bizitzako alor guztietan lortzeko beharra, eta printzipio horrek, sarritan, biztanle askoren sentimenduekin topo egiten duela. Honek berriro erakusten digu Defendatzaileek lan garrantzitsua egin dezaketela emakumeen eskubideen defentsarako sustapenaren eta heziketaren bidean.

* * *

Planteatu diren gaien bidetik atera daitezkeen ondorioez gain, badago bat guztientzat balio duena: lau kasuetan egin ziren erreklamazioek kaltetuen emakumetasuna eduki zuten oinarrian eta emakume taldeek aurkeztu zituzten, ez banakako sujetuek. Nire ustez horrek esan nahi du emakumeak dagozkien arazoei begira talde eta elkarteetan antolatzea mekanismo oso eraginkorra gertatzen dela beraien eskubideen defentsan aurkitzen dituzten arazoak gainditzeko eta baita bizitza publikoan aktiboki parte hartzeko ere, eta horretarako formuletako bat Defendatzaileen aurrean kexak aurkeztea da.

b) Defendatzaileengana iristen diren arazoen azpian dagoen genero ikuspuntua

Ikusi berri dugun bezala, kasu batzuetan erreklamatzaileak beraiek dira beraien emakume izaerari dagozkion arazoak argi eta garbi azaltzen dituztenak, baina hori ez da normalean gertatzen. Halere, Defendatzaileei aurkezten zaizkien kasu gehienetan -eta ez prezeski emakumeek aurkeztuetan-, eskatzen den eskuhartzeak emakumeentzat daukan garrantzia ikus daiteke.

Ondoren, Ararteko erakundeari planteatu zaizkion gai batzuk azalduko ditugu, proposatzen den 'irakurketa femenino' hori egiteko aukera ematen dutenak.

* Emakumeek aurkezten dituzten kexa asko Justiziaren alorrari dagozkio. Eta hori normala da, emakumeek izaten dituzten arazo nagusietako asko harreman pribatu mailan sortzen direlako eta horrek arazoak judizializatzeko aukera ematen duelako. Hori bera gertatzen zaiegizonei ere,noski, eta horiek alor honetan ere kexa gehiago aurkezten dituzte (1995ean gizonek 36 aurkeztu zituzten, eta emakumeek 26).
Baina, planteatzen diren gaien azterketa kualitatiboa egiten bada, hau ikusten da: emakumeei, batez ere **banaketa eta dibortzio prozesuak** interesatzen zaizkiela, eta kasu bakan batzuetan, salatzaile gisa parte hartzen duten prozesu penaletan, zeinetan behar bezainbateko babesik gabe sentitzen baitira. Era berean, gure eskumen alorretik kanpo geratzen direlako atzera botatzen diren kexa askok (epaiei buruzko desadostasuna, Bazkundearen ustez zuzen jokatu duen duen abokatu baten portaerarekiko desadostasuna, etabar) erakusten digutenez, aipaturiko gaien inguruan Justizia Administrazioak erabakitzen duenak arazoak sortzen ditu.

Alor horretan badago emakumeei zuzenean eragiten dien arazo berezi bat. Banaketa, dibortzio eta elikagaietan, eta bereziki 'Behin-behineko neurriak' edo 'Oso behin-behinekoak' deituak hartzeko orduan gertatzen diren arrazoirik gabeko atzerapenei buruz ari naiz. Prozesu bat neurriz kanpo luzatzeak sortzen dituen ohizko kalteak are larriagoak izaten dira eragindako pertsonak bizimodua ateratzeko bere bitartekorik ez daukanean, edo horiek nahikoa ez direnean. Hori gertatzen zaie gure herrialdeko emakume askori, familia bat osatzerakoan etxeko lanetara dedikatu eta ekonomikoki senarraren edo bizilagunaren irabazien baitan geratzen direlako. Garbi dago, beraz, Justizia aparailuaren moteltasunaren arazoak ondorio bereziki kezkagarriak dauzkala emakumeentzat.

Aurrekoarekin estuki lotuta dago banaketa edo dibortzio prozesuetan emakumearen edo/eta seme-alaben alde ezarritako pentsioak ez ordaintzea. Sail ezberdinetatik ematen diren datuek erakusten dutenez, asko hedatutako arazo soziala da hori.

Pentsioak ez ordaintzea delitua izan daitekeen arren, justiziaren babesa ez da nahikoa gertatzen ari pentsio hartzaileentzat. Gure erakundeetara jotzen duten banakako kasu gehienetan ere Defendatzaileek ezin izaten dute iharduera bermatzailerik aurrera eraman. Horregatik, alor horretan zenbait lege erreforma egiteko beharra planteatu, edo gutxienez azter daiteke.

Hiritarren eskubideen garapenerako Administrazioak dauzkan sailetan aldaketak sustatzeko Defendatzaileek daukaten betekizuna dela medio, epaiak betearazteko egungo sisteman erreformak egitea komenigarria litzateke, horien eragina gehitzeko. Familia gaietan justiziaren ebazpenak indarrean sartzeko zerbitzu bereziak sortzea, ikuskari fiskalen zerbitzuekin lankidetzan aritzea, etab. dira aztertu beharreko neurriak.

Zentzu berean, banaketa, dibortzio edo elikagai kasuetan Pentsioen Bermerako Fondo bat sortzea proposatu dute sektore ezberdinek. Emakundek 1991an aurrera atera ez den lege aurregitasmo bat egin zuen; ondoren beste Erkidego Autonomo batzuetan antzeko iniziatibak sortu dira. Agian gure erakundeetan aztertu eta hala erabakiko balitz horien sorrera bultzatzeko unean geundeke.

* Familia hausten den kasuan pentsioak ez ordaintzea kaltetuen egoera sozio-ekonomikoan beherakada handia eragiten ari da, bereziki kaltetuak emakumeak edo horren zaintzapeko adin txikiko seme-alabak direnean. Baliabide ekonomikoen galtze edo pobretze hori 'pobreziaren feminizazioa' deitu den fenomenoaren azalpenetako bat da.

Txosten honen helburua baino haruntzago doan gai horretan sartuko ez garen arren, kontuan izan behar da pobrezia ez dela bikotearen hausketarekin sortzen, baizik eta bere ikusgarritasunaren arrazoia dela. Benetako arazoa zera da, ekonomikoki senarraren menpe egotea, irabazi propiorik ez edukitzea. Horregatik, dibortzioagatik edo senarraren heriotzagatik ezkontideen arteko lotura hausten denean, arazo ekonomikoa gordintasun osoz azaleratzen da.

Alarguntasun pentsioarekin eta horien kantitate eskasarekin gai honek daukan lotura estua alde batera utzi arren, beste arazo bat aipatu nahi dut: emakumeen menpekotasun ekonomikoa ez da ezkontzaren barruan bakarrik gertatzen, baina baita **berezko bikoteetan** ere, eta horrek beste alderdi txar bat ere badu, kasu horietan alarguntasun pentsioa jasotzeko eskubidea aitortzen ez delako. Legediak eta epaitegiek gai horri buruz ulertzen dutena argia den arren, zentzu horretako kexak behin eta berriz jasotzen direnez gero, azterketa sakona egin beharra dago.

* Emakumeen erreklamazioak gure iharduerako zein alorretan kontzentratzen diren aztertu dugunean garbi ikusi da Ogasun eta fiskalitatearen alorra gizonen 'esparrua' dela. Halere, zalantzarik ez dago **zenbait egoeraren tratamendu fiskalek** ez dutela eragin berdina izaten gizonen eta emakumeengan. Gure erakundean aztertzen ari garen bi gai bakarrik azalduko ditut:

1. PFEZerako familia unitatearen kontzeptua aldatzea. PFEZ siglez ezagutzen den zerga ustez gizabanakoei zuzendutakoa dagoen arren, familia unitatea osatzen duten pertsonei aitorpen bateratua egiten uzten zaie oraindik, horrela tarifa arinagoa jasotzen dutelarik.

PFEZari buruzko legeak berak definitzen du ondorio horretarako familia unitateaz uler daitekeena, eta bi figura jasotzen ditu: gurasoen kontura bizi diren 18 urte baino gutxiagoko seme-alabak dauzkaten ezkontideak, eta adin txikiko seme-alabekin bizi den gurasoa.

Bigarren multzoko kasuan dauden familietan ikusi da arazoa, PFEZaren ondorioetarako seme-alaba gazteenek 18 urte bete dituzten unean familia unitate izateari uzten dioten guraso bakarreko familietan, alegia. Hau da, diru sarrera bakarra familiaburuarena izanik, eta seme-alabek 18 urte bete ondoren horien gastuak eta heziketa gutxitu ordez gehitzen diren arren, banakako eskalaren ondorioz kantitate dexente handiagoa ordaindu beharko zaio Ogasun Sailari.

Gure ustez, Konstituzioak aldarrikatzen dituen berdintasun eta zergagaitasun printzipioen kontra jo dezake egun familia unitatea ulertzeko modu horrek, ezkontideen banaketaren ondoren seme-alaben kargu gehienetan egiten diren emakumeak direlarik kaltetu bereziak. Datu adierazgarri bat: 1991ean Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden guraso bakarreko familien artetik %84,25 amak eta seme-alaba batek edo gehiagok osatzen zuten (Euskal Estatistika Urtekaria. EUSTAT 1995).

Disfuntzio hori konpontzearren familia unitatea osatzen duten seme-alaben adinaren muga zabal daiteke, seme-alabengatiko kenketei buruzko atalean egiten den bezala, lanbidearteko gutxienezko soldata baino errenta altuagoak irabazten ez dituzten 30 urte baino gutxiagoko seme-alabak sartuaz. Alabaina, bitarteko beste soluzio batzuk ere egon daitezke, noski.

2. Seme-alaben kustodiagatiko kenketa PFEZ zergan. Ezaguna da eztabaidatu egiten dela bi ezkontideek lana egiten duten kasuan seme-alabak zaintzearen gastuak errenta lortzeko eta beraz kenketarako

beharrezkoak ote diren. Espainiako zergei buruzko antolamenduak dioenez, kontzeptu horregatik ordaindutako kantitateen %15eko kuota kentzeko aukera ematen da, gehienez 25.000 pezetara iritsi daitekeelarik. Baina horretarako, seme-alabek hiru urte baino gutxiago eduki behar dituzte eta sujetu pasiboaren errendimendu garbia ezin da bi milioi pezeta baino handiagoa izan.

Legegileak une bakoitzean erabaki ditzakeenez gero egokiak iruditzen zaizkion kenketak, ez dirudi egun PFEZaren araudiaren testutik eratorritako irizpideek inolako funtsezko printzipiorik hausten dutenik eta, beraz, ohiko bideetatik ezingo lirateke horien kontrako gorajotzerik aurkeztu.

Egokitasunaren ikuspegitik eta arauak arautu nahi den gizarte errealitatera hurbiltzeko ahaleginaren barruan plantea daiteke, beraz, gaur egun PFEZaren araudian jasotzen den adin txikikoengatiko kenketaren puntua hobetzeko beharra.

Zentzu horretan, garbi dago aipatu dugun kenketaren urritasunak edo gabeziak eragin negatiboa duela emakumeak etxetik kanpo lana bilatzeko, izan ere seme-alaben zaintza beste pertsona baten eskuetan uzteak sortzen dituen gastuak emakumeak irabaz dezakeena baino handiagoak izaten baitira, sarritan emakumeak senarrak baino gutxiago irabazten duelako. Beraz, aipatutako kenketa teoria hutsean geratzea nahi ez badugu, hori eskuratzeko baldintzak malgutzeko aukera serioski planteatu beharra dago, eta horretarako adin muga eta sujetu pasiboaren errendimendu garbia igo egin behar dira. Hori egiten da, esate baterako, Arabako Lurralde Historikoan, adin muga 13 urtetan dagoelako eta errendimendu garbiaren kantitateak garrantzirik ez daukalako.

* 'Generoaren ikuspuntua' erabiliz sakonkiago eta emaitza aberatsagoz azter daitezkeen gaiei buruzko lanketa amaitzeko, Ararteko erakundeak osatutako azken bi **txosten berezien** aipamena egingo dut: batetik, *Egoitzaz kanpoko laguntza hirugarren adinekoentzat*, eta bestetik *Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoera*.

Etxez etxeko laguntzari buruzko txosteneko aspekturik interesgarriena hau da: zerbitzu hartzaileen lautik hiru emakumeak dira. Horren arrazoiak bi dira: alde batetik, eragindako biztanleen artetik gehienak emakumeak direla (65 urtetik gorakoen artetik %58,4 eta 80 urtetik gorakoen artetik %70); eta, bestetik, ezintasuna handiagoa dela adin handiko emakumeen artean.

Generoaren arabera etxez etxeko laguntza jasotzen dutenengan ikusten den aldea ez dute, ordea, bi faktore horiek bakarrik justifikatzen. Seguruenik gizartean dagoen kulturak ere zerikusia badu etxez etxeko laguntza zerbitzuek batez ere emakumeei erantzutean; hau da, emakumeen ezintasunak laguntza gehiago eskatzen die gizarte zerbitzuei, edo horiek kasu hauetan parte hartzeko joera handiagoa daukate; ezintasuna jasaten duena gizona denean, berriz, bere inguruko emakumeak arduratzen dira

laguntzeaz. Beste era batera esanda, ezintasunean dagoena gizona bada, normalean gauzak ez dira aldatzen. Aldiz, egoerari aurre egin ezin diona emakumea denean, alor publikoari eskatzen dio laguntza eta horrek eman egiten dio.

Era horretako zerbitzuak baloratzerakoan eta planifikatzerakoan kontuan izan behar da emakumeek sarriagotan jasotzen dutela etxez etxeko laguntza, besteak beste gizonak ez direlako beraietaz haiek bezainbat arduratzen.

Bestalde, gure Erkidegoko kartzelen egoerari buruzko txostenari dagokionez, badaude eskudumena daukaten erakundeen aldetik eskuhartze berezia eskatzen duten datu adierazgarriak.

Orohar, emakume presoek uste dute zentro bereko gizonek baino egoera txarragoa daukatela, eta izan ere hala da, emakumeen moduloetako zerbitzuak eta zuzkidurak objetiboki aztertu ondoren, aspektu batzuetan gizonenak baino okerragoak direla ikusi baita. Arrazoi historikoa nahiko argia da: duela urte gutxi arte emakume gutxi egoten ziren kartzelan, eta horregatik gizonen ezaugarrien neurrirako kartzelak egiten ziren.

Langraizko kartzelako emakumeek, aipaturiko txostena osatzeko elkarrizketatu genituenean, ondorengo gabeziak salatu zituzten: laguntza medikua (ginekologia zerbitzua eskasa izatea; erizaintzarik eza, etabar), kartzelan ematen zaien tratua (sail irekian sartu ezina sail berezirik ez daukatelako, tratamendu alternatiboak lortzeko edo toxikomenpekotasun kasuetan gizonek baino aukera gutxiago edukitzea tratamenduekin jarraitzeko), lana eta heziketarako iharduerak (sukaldeko lanetan sartu ezina, arratsaldeetan lantegirik ez egotea, soldatapeko lana lortzeko aukera gutxiago edukitzea eta lan baldintza txarragoak, etabar), bizi baldintzak (jangelaren egoera txarrak, seme-alaba txikiekin komunikatzeko zailtasunak...).

Laburtuaz, zentro horretan lortutako datuak besteetara zabal badaitezke, esan behar da sistema penitentziarioak ez duela emakume preso kopuruaren gehikuntzari aurre egiteko gaitasunik eduki, eta horregatik, talde honek -gazte, atzerritar eta beste talde minoritarioek bezala- erakunde arduradunen aldetik arreta berezia behar duela.

* * *

Sarritan gure erakundeetara iristen diren gai eta arazoen errepasoarekin jarrai genezakeen, baina orain artekoak, adibide gisa, emakumeen arazo bereziak beren baitan gordetzen dituzten zenbait gai jaso besterik ez du egin nahi izan.

5. **Ondorioak**

Orain arte egin den azalpenarekin gogoeta eta eztabaida piztea lortu nahi da, ez ondorio batzuk ateratzea. Orain arte esandakoa ideia nagusi batean

laburbildu daiteke: giza eskubideen defentsarako gure lanean 'generoaren ikuspuntua' erabiltzea komeni da. Horretarako, bestalde, Defendatzaileen Hirukontinentearteko Konferentziak bere egin zuen Pekingo Ekintza Plataformaren aspektuetako bat zehaztea edo garatzea besterik ez du esan nahi.

Halere, esan direnak proposamen zehatz modura plantea daitezke:

1. Emakumeek gaurko gizartean bizi duten egoeraren berri zehatzagoa izateko, arazo sozialek emakumeengan daukaten eraginaren ñabardura bereziak eta adierazpen zehatzak ezagutu behar dira. Beste era batera esanda, ezberdintasunen aurrean diagnosia eta parte hartzea errazteko, emakumeen arazoak 'agerian jarri' behar dira.
   Gure erakundeen zeregin bermatzailea kontuan izanik, arazo horiek azaleratzeko modurik egokienei buruzko gogoeta egin behar dugu. Erakunde bakoitzak daukan antolamendu autonomia errespetatuaz, erreklamatzaileen edo kaltetuen genero eta adinaren araberako datuak biltzea, aztertzea eta aurkeztea litzateke jokamolde egokia.
   Era berean, prozesu horretan beste aldagai batzuk sartzea eta desberdintasunak gainditzeko beste edozein tresna artikulatzea ere baloratu behar da.

2. Gure erakundeetara emakumeek gizonek baino gutxiago jotzen dutela eta emakumeen erreklamazioak alor eta eragindako gaietan gizonen neurri berean ez direla banatzen ikusi denez gero, fenomeno hori sakonki aztertu behar da zergatiak ezagutzeko eta hiritarren arazoetara hurbiltzeko horrek dakarzkigun ondorioak jakiteko.

3. Emakumeen egoera sozialari arreta berezia eskaintzeko dauden gabeziak betetzen joatearren, iristen zaizkigun gaiek besteak beste daukaten ikuspegi 'femeninoa' ezagutzeko sentiberatasun berezia sustatu behar da gure erakundeetako eguneroko ihardunean. Zentzu horretan, ondorengo ihardunbide zehatzak proposatzen dira:

   a) Herri Defendatzaileen Koordinaziorako IX. Ihardunaldietan onartutako ondorio eta proposamenen garapenarekin aurrera jarraitzea, bereziki emakumeek lan merkatuan dauzkaten arazoei eta beste batzuei dagokienez (heziketa, etxeko lanen banaketa, etabar).
   b) Emakumeei aitortzen zaizkien eskubideei dagokienez, egiazko berdintasunean eta eskubide horien garapenean sakontzen lagunduko duten lege-aldaketak sustatzeko beharra aztertzea. Aldaketak ondorengo gaiei buruzkoak izan daitezke:
      - familia hausketatik eratorritako pentsioetarako Fondo bermatzaile bat sortzea edo antzeko bideak martxan jartzea, horrelako kasuetan sortzen diren premiei erantzun eraginkorra emateko,
      - guraso bakarreko familien trataera fiskala hobetzeko eta emakumeei lan munduan sarrera errazteko neurri fiskalak,

- berezko bikoteentzako tratamendu legala, bereziki alarguntasun pentsioak bezalako gaiei arreta eskainiaz.

c) Aukera berdintasunerako ekintza positibozko politikak eta programa komunitarioak praktikara eramaten direla behatzea, gure erakundeei baitagokie administrazio publikoen funtzionamendua ikuskatzea.
d) Emakumeei laguntzeko erakunde eta zerbitzuen koordinazioa eta informazio trukaketa sustatzea alor eta sailik behartsuenak zein diren ezagutzeko, horrela desberdintasunaren aurrean egiten dugun lanaren eraginkortasuna gehitzeko.
e) Jabetza publikoa daukaten komunikabideek pertsonen berdintasun materiala sustatzeko daukaten eginbeharra, eta bereziki emakumeen eskubideen inguruan eta horiekiko errespetuan egin beharreko heziketa lana betetzen dutela ziurtatzea.»

2.3.1.4. **POBREZIA ETA ELKARTASUNA**

Bilera hau Juan Bautista Monserrat Mesanza, Aragoiko Justicia jaunak zuzendu zuen, eta Xabier Markiegi Candina, Ararteko jaunak egin zuen ponentzia.

Hona hemen Ararteko aurkeztu zuen testua.

* * * *

¨POBREZIA ETA ELKARTASUNA

0- **SARRERA**

Nazio Batuen Biltzarrak 1993ko abenduaren 21ean onartutako 48/183 Ebazpenean 1996. urtea 'Pobrezia Desagertarazteko Nazioarteko Urtea' aldarrikatu zuen ondorengo arrazoiengatik:

. 'Pakea sendotzeko eta garapen eusgarria lortzeko pobrezia desagertarazteak daukan funtsezko garrantziaz Estatuen, politikak ezartzeko arduradunen eta nazioarteko hiritarren artean kontzientzia handiagoa lortzeko.'
. 'Aitortzen da pobrezia arazo konplexua eta alderdi askotarikoa dela, bere sustraiak nazionalak nahiz nazioartekoak direlarik, eta pobrezia herrialde guztietan, baina batez ere garapen bideetan daudenetan desagertaraztea 1990eko hamarkadarako garapenerako lehentasunezko helburua izatera pasatu da, garapen eusgarria sustatzearren.'
. 'Ikusten da nazio eta nazioarte mailako ahaleginak bikoiztu egin behar direla pobrezia desagertarazteko, batez ere Afrikan Sahararen hegoaldean dauden gutxien garatutako herrialdeetan eta pobreziak

eragindako biztanleria sektore handiak dauzkaten bezte herrialde batzuetan'.

Herrialde guztietan pobrezia desagertarazteko helburua lortzearren, **Nazio Batuen Erakundeak urtean zehar burutu beharreko iharduerетarako zenbait printzipio ere ezarri zituen**, esate baterako ondorengoak:

- *Pobrezia desagertarazteko konpromezua eta ahalegin kolektibo eta eusgarria behar dira, konpromezu hori hartzea ondorengoei dagokielarik: gobernuak, herri agintariak eta gizarte zibileko elementu guztiak, gobernuz kanpoko erakundeak eta negozio eta enpresa zirkuluak barne direlarik, eta horiek nazioarteko komunitatearen laguntza behar dute, hots Nazio Batuena eta erregio eta horien azpitiko erakundeena eta nazioarteko beste erakunde egoki batzuena. Bestalde, pobreziaren kontrako estrategiak eta programak burutu, ezarri eta behatu ere egin behar dira, horiek pobrezian bizi diren pertsonen partaidetza osoa eta eraginkorra bermatu behar dutelarik.*
- *Pobrezia baldintzetan bizi diren pertsonek pobrezia hori atzera uzteko behar dituzten baliabide eta aukerak eskuratzeko neurriak ere hartu behar dira, eta gizarteko kide guztiei langabezia, gaisotasun, amatasun, semeen heziketa, alarguntasun, ezintasun eta zahartzaroaren aurrean babes ekonomiko eta sozial egokia bermatzeko neurriak ere hartu behar dira.*
- *Pobrezian bizi diren pertsona guztiek oinarrizko gizarte zerbitzuak eduki ditzaten eta gizarteko bizitza ekonomiko, sozial, kultural eta politikoan parte har dezaten saiatu beharra dago.*
- *Emakumeari garapenean parte hartzeko aukerak emango dizkion bitarteko ekonomikoak eta sozialak eman behar zaizkio, eta pobreziaren kontrako estrategiak eta programak generoak sortzen dituen arazoak oso kontuan izanaz burutu behar dira.*
- *Talde sozial eta demografiko jakinen premiak asetzeko programa bereziak osatu behar dira, hala nola, gazteentzat, beharrean dauden adin handiko pertsonentzat, pertsona ezgaituentzat eta beharrean edo egoera larrian dauden beste talde edo pertsonentzat.*
- *Garapen bidean dauden herrialdeei, eta batez ere Afrikako herrialdeei eta gutxien garatutako beste herrialdeei laguntza handiagoa eta eraginkorragoa eman behar die nazioarteko komunitateak.*

Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Nagusiak 1995eko urriaren 13an aurkeztu zuen txostenean esaten zuen bezala, pobreziak '*munduko desgrazia nagusia*' izaten jarraitzen du, eta Nazio Batuek 1996a Pobrezia Desagertarazteko Nazioarteko Urtea aldarrikatzean daukaten helburua '*funtsean gai kritikoei buruzko kontzientzia sortzea eta ulermena sustatzea, baliabideak mobilizatzea eta maila guztietan iharduerak egitea da*'.

Defendatzaileen Koordinaziorako Ihardunaldi hauetan orain aztertua izateko aurkezten den komunikazio apal honekin aipatutako helburua lortzen lagundu nahi da.

1- BIDEGABEKERIAZKO EGOERA SOZIALAREN AZALPEN LABURRA

Edozein mailatan kokatzen garela ere (mundu osoa, Hegoaldeko herrialdeak, Europa, Espainia, geure erkidegoa...), **pobreziarekin topo egiten dugu, pobrezia horrek forma eta maila ezberdinak dituen arren**. Orohar onartzen diren irizpideei erantzuten dieten datu arrunt batzuk gogora ditzagun:

* Munduko Bankuak 1990. urtean pertsona eta urterako ezarri zuen 370 dolarreko mugaren arabera, gaur egun erabateko pobrezian 1.500 milioi pertsona bizi direla kalkulatzen da. Hau da, **munduko biztanleriaren** %20 egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi da, eta pobrezia gorrian bizi direnak gero eta gehiago dira, urtean batez beste 25 milioi pertsona gehiago, alegia. Kopuru horri 'nolabaiteko pobrezian' bizi direnak edo bizitza kalitatean eragiten duten beste irizpide batzuk kontuan hartzen baditugu (haurren heriotza tasa, bizi esperantza, edateko uraren eskuragarritasuna, nutrizioa eta osasuna, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna...), hasieran emandako kopurua gehitu egiten da.
* ***Europako Batasuneko*** herrialdeei buruzko datuak: pobrezia mugaren azpitik 55 bat milioi pertsona bizi dira, 17 milioi pertsona lanik gabe daude eta 3 milioik ez daukate etxerik.
* ***Espainian*** ezartzen diren mugen arabera, 8 milioi pertsona daude pobrezia egoeran, eta horien artetik milioi t'erdi pobreziarik gorrienean.
* Estatistiken arabera, ***Euskal Herriko Autonomia Erkidego****an* biztanleriaren %14 bizi omen da pobrezian, 1.500 bat pertsonek ez daukate etxerik eta langabeziaren portzentaiak %20tik gorakoak dira (%23-24 1995eko datuen arabera).

Egia da datu hotz baina adierazgarri horien azpian errealitate oso ezberdinak daudela. Egia esan, *pertsona zehatzak daude*, gabezia eta frustrazio, sarritan baita umiliazio, zokoraketa, desesperazio eta suminaz dakiten historia pertsonal eta familiarrak. Egia da ere irabazien maila pertsonen bizitza kalitatea erabakitzen duten faktoreen artean bat gehiago besterik ez dela, eta pobrezia mugek -ezarri eta datu base estatistikoetan daudenek- balore erlatiboa daukatela, baina egia da ere gizarte politikak eta horien bilakaera neurtzeko tresnak ere badirela.

Hemen ez dugu pobreziaren definizioari eta horien mugei buruzko gogoetarik egin nahi. Ohartzen gara pobreziari buruzko definizio guztiz ekonomikoa gainditu beharra dagoela eta kontzeptu orokor horrek arazo konplexu eta dimentsioanitzekoak izendatzeko balio duela (forma ezberdinak, arrazoi desberdinak...). Hain zuzen alor semantikoak errealitate horiek bereiztu egiten ditu: pobrezia gorria, pobrezia berriak, nolabaiteko pobrezia, pobrezia handia, pobreziaren muga,

erabateko pobrezia, zokoraketa, beharrean bizitzea, gizartetik kanporatuta egotea, hirugarren mundua, laugarren mundua...

Baina, ibilbide pertsonal eta transferitu ezinezko egoeren mosaiko bat osatzen duen pobrezia *zehatz-mehatz definitzea zaila* baina *antzematen erraza da*. Esate baterako, nahikoa da egoera jakin baten aurrean Abel Smith-en galdera hau egitea: '*Nire familia horrela bizitzea nahi ote dut?* Eta pobreziak forma asko dauzkan arren, horri erantzun dezaiokeguna nahikoa da pobreziaz orohar hitz egiteko. Honela zioen E. Mossé-k: *'pobreziak esistititzen du, forma asko dituen arren beti berdintsua da, beti era obsesiboan errepikatzen diren forma beretsuak dauzka: gabezia, urritasuna, bazterkeria'*.

XX. mendearen amaierako gure gizarteak pobreziarekin jarraitzen du, eta hori amaitzen ez den eskandaloa da. Baina horrezaz gain *zantzu negatibo indartsuak dituen giza bilakaera* eskaintzen digu, berehalako etorkizunaren gainera bera itzala hedatzen duena:

* garapen ekonomikoaren eta aurrerabide sozialaren arteko desfasea;
* munduko ekonomia hazten doa (azken berrogeita hamar urteetan zazpi aldiz biderkatua), baina banaketa ekitatiborik ez dago;
* pobreak kuantitatiboki gero eta gehiago dira eta ezberdintasunak gero eta handiagoak (munduko 358 pertsona aberatsenek 2.400 milioi pertsonarik pobreenek adina aberastasun daukate beraien eskuetan);
* pobrezia modu berriak azaltzen ari dira;
* baztertze eta giza dualizazio joera;
* zona eta alor sozial jakinetan pobrezia egoerak betirakotzen ari dira (dinamika autoerreproduzitzaileak eta inguru jakinei lotuak)...

Geure buruei dagldetu behar diegu gure gizartean egoera horiek zergatik eta nola jarraitzen duten, eta elkartasun sare bat eraiki behar da.

Zenbait historialarik, adibidez Georges Duby-k, ertaroko gizarteak XX. mendearen amaierako gure giza errealitatearekin konparatzerakoan hain zuzen ***elkartasun sare**en* desagerketa aipatzen dute gure aroa besteengandik aldentzen duen funtsezko ezaugarri gisa:

> *'...horrela bizi da milagarren urteko gizakia, gaizki elikatua, lurretik erreminta barregarriekin ogia ateratzeko sufritzen. Premiaz betetako mundu honetan ahaidetasunak eta elkartasunak bermatzen dute bizirik jarraitu ahal izatea eta dagoen aberastasun urriaren banaketa. Pobrezia, partekatzen denean, guztien zortea da. Ez gaur bezala, etxerik ez eta metro geltoki batean kuzkurtuta edo kaleska batean ahaztuta dagoena bakardadera kondenatzen den bezala.'*
> (*Año 1000, año 2000. La huella de nuestros miedos.* Georges Duby)

2- GIZARTE POLITIKEN AZTERKETA

Europak bizi dituen garai hauetan gero eta indar handiagoa hartzen ari dira maila politikoan eta sozialeanpobreziaren aurrean konpromezu galera dakarten

zenbait planteamendu eta eskubidedun hiritarraren aurrean kontsumitzailearen figura indartzen ari dira. Planteamendu horien arriskua nabaria da: 'Ongizate Estatuaren krisia' deitu denaren eta estrukturen egokitzapenen ondorioak jasango dituztenak, berriro ere, gizarte alor ezgaituenak eta ahulenak izan daitezke. Behin eta berriz planteatzen den galderak: ('Nola murriztu ditzakegu kostuak?') ezin dizkigu ahantzarazi beste galdera batzuk, adibidez: ('Nola lagun diezaiekegu behartsuenei?').

Joera horien aurrean behin eta berriz esan behar da gizarteen kohesioan, pobreziaren kontrako burrukan eta alorrik ahulenen gizarte integraziorako ahaleginetan babeserako sistemek jokatzen duten papera garrantzi handikoa dela. Desberdintasunen gestioan '**birbanaketak**' jokatzen duen paper garrantzitsua gogoratu behar dugu, zeina sarritan politika publikoen bidez gauzatu baitaiteke: osasuna, pentsio politikak, langabetuei laguntza, gizarteratzeko gutxieneko errentak, etxebizitza politika... Gure gizarteetan, zenbait politika fiskalek eragin positiboa daukate giza elkartasuna gehitzeko, sektorerik ahulenetarantz baliabideak transferitzeko aukera ematen dutelako.

Azter dezagun adibide gisa geure Erkidegoko azken hamar urteetako kasua, eta zehazki pobreziaren kontrako burrukan burutu den iharduera multzoa. Abiapuntua, Eusko Jaurlaritzak laurogeiko hamarkadan pobreziaren eraginaz bultzatu zituen azterketetan koka daiteke; horien ondorioz *Euskadiko pobreziari buruzko txostena* egin zen eta lehen datuak 1987an argitaratu ziren. Txosten horren bidez ikusi zen 'garatutzat' jotzen den Erkidego honetan nahiko pisu handia zeukan pobrezia zegoela eta ondorengo aspektuak ere aztertu ziren: pobreziaren forma ezberdinak; pobrezia egoerak zona edo gizarte alor jakinetan konzentratzen zirela, adibidez birmoldaketa prozesuek eragindakoetan; edo biztanleriaren sektore jakinen premiak betetzeko zeuden babes sistemen gabeziak (alarguntasun pentsioen baitan zeuden pertsonak, banatutako edo dibortziatutako emakumeak, guraso bakarreko familiak, pertsona langabetuak...).

Mila bederatziehun eta laurogeita bederatzian **Pobreziaren kontrako burrukarako Plan Integrala** jarri zen martxan, eta urte berean Eusko Legebiltzarrak aho batez Gizarteratzeko Gutxienezko Soldatari buruzko Legea onartu zuen, Estatuan aurrenekoa. Planak beraien artean osagarriak ziren hiru iharduera maila iragartzen zituen: gizarteratzeko gutxienezko soldata aipatutako legearen bidez, giza larrialdietako laguntzak eta gizarteratzeko sektoreen araberako programak. Horiek izan dira azken urteetan Euskadin pobrezia gorriaren kontrako burrukan erabili diren politika garrantzitsuenak.

Planaren laguntzak 33.000 familia euskaldunek jaso dituzte 1989-1995 urteen arteko aldian. Hau da, familien %5ak ezagutu du pobrezia gorria, eta horri aurre egiteko elkartasunaren fruitua ziren laguntzak jaso ahal izan ditu. Laguntza horiek, bestalde, erakunde guztien partaidetzarekin bideratu dira: Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak.

Oso interesgarria da **programa horiek zein giza taldek jasotzen dituzten** ikustea. Urte hauetako esperientziak erakusten duenez, batez ere bi

taldetara iristen da nagusiki: familia ardurak dauzkaten emakume ezkongabe, banatu edo dibortziatuak, eta pertsona langabetuak edo langabetuentzako subsidioa jasotzen ez dutenak, edo oinarrizko premiak asetzeko behar adinako irabaziak ez dauzkatenak.

Planak, beraz, babeserako dauden politika orokorren gabeziak betetzen ditu, bereziki guraso bakarreko familien eta langabezia-soldaten kasuan eta, ondorioz, hortik datozen laguntzak jasotzen dituztenak egoera horiek jasaten dituzten giza alorrik ahulenak dira: emakumeak, gazteak, emakume ezkongabe edo banatuak, alarguntsak...

Babeserako sistema guztiak hartuta, planak **pobrezia gorriari aurre egiteko azken segurtasun maila** bezala funtzionatzen du, eta konparazioz aurrekontuetan ahalegin berezia suposatzen ez badu ere (lana duen pertsona bakoitzeko urtean 10.000 pezeta inguru), **prebentziorako eta gizarteratzeko mekanismoa** da. Adibidez, familien pobretze prozesuei aurre egiten die (ekonomikoki ez hondatzeko prebentzioa), adin txikikoen, alkoholismoa edo drogamenpekotasunaren arazoak gutxitzen ditu (prebentzioa pertsonalki eta sozialki hondatzeko arriskuaren aurrean), eta kasu askotan beste programa edo gizarte zerbitzu batzuetan sartzeko aukera eta bazterkeriari aurre egiteko bidea ematen du.

Bestalde, aitortu behar da egitasmoko helburu guztiak ez direla lortzen. Adibidez, pertsona horien gizarteratzea, batez ere lan munduan gizarteratzea ez da beti lortzen: laguntza horiek jasotzen dituzten familia askok (%20 inguru) ez dute pobrezia egoera gainditzea lortzen, eta urteak pasatzen dituzte laguntza horiek jasotzen; sektorekako programa batzuk ez dira behar hainbat garatu...

Mila bederatziehun eta laurogeita bederatziko Pobreziaren kontrako Burrukarako Plan Integrala esperimentala zen. Gaur, praktikan ia zazpi urte daramatzanean, badago **Euskadin gizartetik baztertuta geratzeari aurre egiteko lege** zirriborro bat, eta horren helburuak dira: programa nagusiak sendotzea (gutxienezko soldata eskubidea eta giza larrialdietarako laguntzak), beste programa batzuei bultzada berria ematea (gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko programak) eta neurri berriak garatzea (etxebizitza edukitzeko laguntzak). Ekonomiak atzera egiten duen uneetan ere laguntzak eta baliabideak bermatzeko aukera ona izan daiteke, eta baita programen indibidualizazioan edo bereizketan, zerbitzuen koordinazioan, laguntzak jasotzeko irizpideen malgutasunean, lehentasunak ezartzeko, etabarretarako ere.

Aztertu dugun kasuak erakusten du politika sozial jakin batek balio dezakeela pobrezia gorria arintzeko eta nabarmen premian dauden gizarteko sektoreen gutxienezko premiei erantzuteko; bestetik, egungo programek, esate baterako lan munduan gizarteratzeko bezalako funtsezko helburuak betetzeko dauzkaten mugak ere erakusten dute. Helburu horiek lortu ezin izana ezin da erabili babeserako programak bertan behera uzteko arrazoi bezala; alderantziz, horiek berriz aztertu eta hobetzeko baizik. Espero dut Eusko Legebiltzarrean aztertu eta onartuko den desgizarteratzeari kontra egiteko legeak horretarako balio izatea.

3- ABERASTASUNAK PARTEKATUKO DITUEN GIZARTERANTZ

FOESSAk Espainiako egoera sozialari buruz egin duen azken txosten soziologikoaren arabera, biztanleriaren %40ak uste du pobrezia nahitaezkoa dela, eta antzeko kopuruak adierazten du gizartea ez dela justua.

Hai zuzen Nazio Batuen Erakundeak urte hau Probezia Desagertarazteko Nazioarteko Urtea aldarrikatzean markatu duen helburuetako bat zera da, **miseria soziala baztergarria dela** baieztatzea eta sinesmen hori zabaltzea, pobrezia desagertarazteko helburua arrazoizko epe batean lor daitekeela. Horregatik, urteari jarri zaion lema: '*Pobrezia desagerrarazi daiteke eta behar da mundu osoan*'. Baina horretarako baliabideak kontrolatu behar dira eta pertsonengan zentratutako garapen eredu berria behar da.

Lehenago maila ekonomiko hutsera mugatuko ez den pobreziaren kontzepzioaren alde agertu gara. Beraz, 'desagertarazteaz' hitz egiterakoan ere muga horiek gainditu beharra daukagu. Kontua ez da bakarrik barne produktu gordinak hazitzea. Pobrezia desagertaraztea prozesu konplexua da, bertan faktore ekonomikoez gain, esate baterako lanpostuak sortzeaz gain beste faktore ez ekonomiko batzuk ere sartzen dira, adibidez oinarrizko premietarako laguntza, giza eskubideen errespetoa edo garapen prozesuetan agente sozialek beraiek parte hartzea.

Hain zuzen, Copenhaguen 117 nazioren partaidetzarekin egin zen Garapen Sozialari buruzko Munduko Gailurrak pobrezia desagertarazteko markoa zabaldu egin zuen, beste batzuen artean faktore berri hauek sartzeko: oinarrizko zerbitzu eta aisiarako iharduerетan sarrera, enplegu produktiboa eta mantenu eusgarria, giza segurtasun zentzua, desberdintasunen murrizketa, eta diskriminazioa desagertzea eta komunitateko bizitzan parte hartzea.

Munduan pobrezia desagertarazteko neurri zehatzak hartu behar dira. Nazio Batuen Erakundeak, besteak beste ondorengoak aipatzen ditu:

- **Gosea desagertaraztea:**
  Nekazaritzaren garapen jasangarriarekin, elikagaien banaketa eta bilketa hobetzearekin eta soldata txikiak dauzkatenek elikagaiak eskurago edukitzearekin.

- **Oinarrizko bizitza maila ematea:**
  Pobreziaren funtsezko arrazoien kontrako nazio mailako neurriak hartzea, hots: oinarrizko heziketan, osasunerako oinarrizko laguntzan eta osasun ugalketaren zaintzan, eta oinarrizko gizarte zerbitzuetan, helburu zehatzak jarriaz.

- **Emakumeari zuzendutako pobreziaren kontrako programak osatzea**, kontuan hartu behar dituztelarik enplegua sortzeko, etxebizitzak arrazoizko prezioan erosteko eta lurra eskuratzeko sistema sorrerak.

- **Enplegu ekoizlerako aukerak sustatzea**, lanpostuak sortzea eta guztientzako lana bultzatzea.
  Enpresen izpiritua bultzatzera bideratutako sektore pribatuaren iniziatiben bidez ahal den lanpostu eta lanpostu asko beharko dituzten industria kopuru handiena sortzea eta langabeziaren eta soldatarik gabeko lanaren arazoari aurre egitea.

- **Emakumearen eta kaltetuak izan daitezkeen beste talde batzuen partaidetza osoa sustatzea**:
  Sektore estrukturatuan eta ez estrukturatuan enplegurako aukera berdintasuna bermatzeko neurrien bidez; aurriritzi eta diskriminazioa desagertaraziz; erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartuaz.

- **Inguru egonkor eta ekonomikoki onuragarria sustatzea:**
  Nazioarte mailako egonkortasun finantziari handiagoaren eta hazkuntza ez inflazionistaren bidez; baliabideak modu eraginkorrean aprobetxatuaz eta sozialki arduratsua izango den sektore pribatu bat bultzatuaz.

- **Garapena finantziatzea eta kanpo zorraren zama arintzea:**
  Baliabide multilateralak gehituaz eta kanpo zorrari begira soluzio eraginkor eta iraunkor bat formulatuaz; garapenerako lankidetzari izendatutako barne produktu gordinaren %0,7aren helburua lortuaz, 20/20 iniziatiba; garapen bidean dauden herrialdeetan atzerri inbertsio handiagoak eginaz eta gastu militarrak murriztearekin aurrezten diren baliabideak aprobetxatuaz.

- Uruguayko Errondak markatutako bidetik **nazioarteko merkataritza sustatzea**.
  Herrialde guztiak nazioarteko merkataritza sistema ireki, berdin, ez diskriminatzaile eta iragangarrian sartuaz; Hegoa-Hegoa lankidetza indartuaz; oinarrizko produktuen ugalketa eta esportazioen sarean sartzeko bideen hobekuntza lortuaz eta protekzionismoarekin amaituaz.

Garbi dago neurri horiek eta beste batzuk lekuan lekuko egoerara egokitu behar direla, horrekin arazoaren ikuspegi globala galdu gabe. Horrela, adibidez, geure **testuinguru** berezian **arreta berezia** beharko lukete ondorengoak bezalako gaiek:

* **enplegu sorrera eta langabeziaren eta lan urritasunaren kontrako burruka**, gure gizartean dauden pobrezia egoera askoren iturria baitira, gaur oraindik soldatapeko lana delako gizarteratzeko faktore nagusia;
* **Ongizate Estatua deitzen denaren moldapena** eta horren eraginez gizatalderik ahulenek jasaten dituzten ondorioena (aiton-amonak, haurrak eta gazteak, emakumeak, elbarriak, atzerritarrak, nekazari eremuak eta hiri eremu deprimituak...);

* **agente sozialek** garapen eta elkartasun politiketan jokatu beharreko papera (enpresarioak, sindikatuak, gobernuz kanpoko erakundeak...);
* **inmigrazio politikak eta garapenerako laguntza programak**...

Pobreziaren eta gizartetik kanpo uztearen kontrako burrukan ikuspegi bikoitz osagarria eduki behar da:

- babes ezaren ondorioz gertatzen diren **kalteak arindu behar ditu** (arazo larriei erantzun);
- desberdintasunaren arrazoiak gainditzera eta pobrezia talde berrien agerpenari aurre egitera bideratutako **estruktura eraldaketak sustatu** behar ditu.

Pobreziaren kontrako eta behartsuenen laguntzarako politika sozialekin jarraitzeko egungo arazo askoren oinarria eskura dauden baliabide ekonomikoen mugaketa da. Une hauetan dagoen galdera nagusietakoa hau da: **Nola finantziatu elkartasuna?** Erantzuna gizatalde bakoitzari dagokio, baina ezin dira ahaztu gaia asko baldintzatzen duten beste aspektu hauek ere: ekonomiaren mundializazioa, gure arteko ongizate politikak guztientzako lana egongo zela pentsatuaz egin izana, lan merkatuaren kapitalen merkatua nagusitzea, mundu finantzieroak gero eta autonomia handiagoa dauka kontrol sozial eta politikorako mekanismoei dagokionean...

Lehenago genion bezala, pobrezia desagertarazteko baliabideak kontrolatu behar dira eta pertsonengan zentratutako garapena hartu behar da kontuan. Ekonomiak eta kapitalek pertsonen zerbitzura egon behar dute, eta ez alderantziz. Horregatik gizarteak kontrolerako dauzkan mekanismoak indartu behar dira, **elkartasun mekanismoak indartu behar dira**.

4- POBREZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK

'Gizon-emakumeak pobrezian bizitzera kondenaturik dauden leku guztietan bortxatzen dira giza eskubideak'.
(J. Wresinski, Laugarren Mundua Mugimenduaren eragilea)

Wresinskik Frantziako Ekonomi eta Gizarte Kontseiluari aurkeztu zion txostenean adierazten zuenez, pertsonei beraien betebeharrik oinarrizkoenak asumitzeko eta oinarrizko eskubideez gozatzeko aukera ematen dien segurtasun bat edo gehiagoren gabezia da pobrezia. Sarritan, gainera, eskubide horiek berreskuratzeko aukerak ere larriki konprometitzen ditu langabeziak.

Izan ere, **eskubide sozialez baliatzeko ezintasuna** da, hain zuzen, **pobreziaren dimentsio politikoa**, ondasunak eta zerbitzuak eskuratu ezina bere dimentsio ekonomikoa den bezala. Giza eskubideak daude jokuan eta, beraz, gure defendatzaile funtzioan zuzenean eragiten gaituen gaia da pobrezia. Ez da karitate kontua, justizia, ekonomia eta politika kontua baizik. Pobrezia arintzeko

eta desberdintasunak murrizteko lana egitea gizartearen zutabe nagusia den justizia garatzeko lana egitea da.

Mila bederatziehun eta laurogeita hamabosteko martxoan Copenhaguen egin zen **Garapen sozialari buruzko azken Munduko Gailurrean**, bertan parte hartu zuten 117 nazioetako agintariek **konpromezu** solemneak hartu zituzten:

* *'Gizateriaren betebehar etiko, sozial, politiko eta ekonomikoa den legez, nazio mailako iharduera indartsu eta nazioarteko lankidetzaren bidez mundutik pobrezia desagertarazteko konpromezua hartzen dugu'.*
* *'Gure politika ekonomiko eta sozialen oinarrizko lehentasun gisa guztientzako lana sustatzeko, eta gizon eta emakume guztiak libreki aukeratutako lan eta enplegu ekoizlearen bidez bizitza seguru eta eusgarrirako prestatzeko konpromezua hartzen dugu'...*

Gailur horretan onartutako **Iharduera Programan**, pobreziaren funtsezko arrazoiak gainditzeko eta guztien oinarrizko premiak betetzeko saioak eta politikak bideratzeko beharra azpimarratu zen. Horrela, ahalegin horien artean ondorengo alorrak sartu behar dira: gosea eta nutrizio txarra desagertaraztea; lana eta bizitzeko bitartekoak, osasunerako lehen mailako zerbitzuak, osasun ugaltzailea barne, edateko ura eta saneamendua eta etxebizitza egokia; eta bizitza sozial eta kulturalean parte hartzeko aukerak. Lehentasun berezia eskaini behar zaie emakumeen eta haurren behar eta eskubideei, horiek direlako pobreziaren zamarik handiena jasaten dutenak, eta pertsona eta talde ahul eta ezgaituen beharrei. Iharduera Programan azpimarratzen den beste gauza bat zera da, pobrezian bizi diren pertsonek eskura eduki behar dituztela ekoizpen baliabideak, hala nola, maileguak, lurra, hezkuntza eta heziketa, teknologia, ezagutzak eta informazioa; zerbitzu publikoak eta gero eta handiagoak diren aukera ekonomiko eta lanerakoak aprobetxatzeko aukera emango dieten inguru arautu eta erregulatzailean erabakiak hartzeko ahalmena ere eskura eduki behar dituzte. Bestalde, lanik gabe, gaiso, umea izanda, umeak hazitzen, alargun, ezinduta edo zahartuta dauden bitartean babes ekonomiko eta sozial egokia eman behar zaie guztiei. Aspektu horiek guztiak jasotzen dira onartu zen Iharduera Programan.

Joan den martxoan Bruselan egin zen eta Europako Batasunaren kezka froga dezakeen politika sozialari buruzko Europako Forumean Europan giza bazterkeriari aurre egiteko iniziatiba asko aztertu ziren, eta bi adibide jartzearren, Europako hiritar guztiei lanik edo etxebizitza eskubiderik eduki ezean gutxieneko soldata bat edukitzeko eskubidea aitortuko zien **eskubide sozialen gutun baten** proposamena aztertu zen.

Baina, politika sozial mailan hartzen diren erabakien betekizuna, nork bermatzen du?, **nork bermatzen du eskubide sozialen betekizuna?**

* * * * *

Eskubideak bermatzeko betekizuna daukagun erakundeak garen aldetik, etengabe aldarrikatu behar dugu pertsona guztiak, baita

pobreak eta bereziki talderik ahul eta ezgaitunetakoak ere, eskubidedun sujetuak direla eta, beraz, beraien hiritartasun osoa, gizartean osoki parte hartzeko daukaten eskubidea defenditu behar dugu. Pertsona horiek **oinarrizko gizarte zerbitzuak eduki ditzaten** zaindu behar dugu, eta **politika sozialean ardura daukaten administrazio eta giza agenteen arteko koordinazioa bilatu.** Gizarteratzeko arazoak dauzkaten talde ezgaitu jakinen alde **beharrezko diskriminazio positiboa defenditu** behar dugu. Eta beti gogoan izan behar ditugu **pobreziaren kontrako burrukarako neurriak eta desgizarteratzeari aurre egiteko horiek daukaten eragina,** desgizarteratzeari aurre egiteko lehentasunezko eremutzat jotzen diren artetik bat bera ere ahaztu gabe: lan merkatua, kapitalen merkatua, etxebizitza politikak, hezkuntza (lehen mailakoa eta lanbide heziketa), eskubide sozialen praktika eta zerbitzuen eskuragarritasuna.

Elkartasunak eta desgizartearatzearen kontrako burrukak aginte publikoei eragiten die -eta horien iharduerak kontrolatu behar ditugu-, **baina pobrezia egoeran dauden pertsonengan ere badute eragina** -eta horien ahaltasunak eta baloreak sarritan ahazten dira- **eta gizarte zibileko agente guztien laguntza aktiboaren beharra daukate.**

Eta Europako Kontseiluak antolatu eta 1991ko abenduan Estrasburgon 'Hacia una mayor justicia social en Europa: el reto de la marginación y la pobreza' izenburupean egin zen kolokioaren txosten eta ondorio orokorretatik ateratako testu honekin amaitzen dut:

> *'Sarritan esaten da justizia sozialean oinarritutako gizartea utopia bat dela, baina utopia da ere justizia sozialaren eta berdintasunaren oinarrizko elementuak ez dauzkan mundu eraketak egonkortasun handia eskaintzen duela sinestea. Munduko gehiengo pobrea ez da seguruenik konformatuko gutxiengo aberatsa beren aberastasunez nola aprobetxatzen den lasai begiratzearekin. Bi utopien arteko aukera baino ez badaukagu, orduan justizia sozialarena eta giza duintasunarekiko errespetoarena aukeratzen dugu'.*

* * * *

«DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XI. IHARDUNALDIETAN POBREZIARI ESKAINITAKO SAILEAN ATERATAKO ONDORIOAK

Nazio Batuen Erakundeak 48/183 Ebazpenaren bidez erabakitako Pobrezia Desagertarazteko Nazioarteko Urtean Herri Defendatzaileek instituzionalki Konstituzioak I. Tituluan jasotako oinarrizko eskubideak zaintzeko dauzkaten betekizunen bidetik, garapen ekonomiko handia egon arren gure gizarteetan irauten duten pobrezia egoeren eta haien ondorio lazgarrien aurrean aldarrikapen bat egin nahi dute, gaur oraindik munduan dagoen injustizia sozial garrantzitsuenetako bat delako.

Horretaz oharturik, pertsona eta talde behartsu eta ahulenen eskubideei arreta berezia eskainiko dietela aitortzen dute, eta horretarako beraiei eguneroko bizitzan berdintasun baldintzetan parte hartzeko aukera -eskubide osoak dagozkien sujetuak direlako-, eta lorpen sozialez baliatzeko bideak sustatu eta desberdintasunaren arrazoiak gainditzera eta pobrezia-poltsa berrien agerpena galeraztera bideratutako elkartasun sareak eta estrukturen eraldaketa bultzatuko dira.

Horretarako, konpromezu hauek hartzen dituzte:

1. *Pobrezia egoeran dauden pertsonei oinarrizko gizarte zerbitzuak (osasuna, hezkuntza, etxebizitza...) eskura eduki ditzaten zaintzea.*
2. *Gizarte politikan ardurak dauzkaten administrazio eta agenteen arteko koordinazioa bultzatzea.*
3. *Gizarteratzeko zailtasunak eta gizarte-kanporaketa jasateko arriskuan dauden talde behartsu jakinen aldeko beharrezko diskriminazio positibozko politikak defendatzea.*
4. *Familia barruan eta kanpoan emakumeak pobrezia gainditu dezan lortzeko programen eta iharduerен eraketa bultzatu eta emakumeak gizartean partaidetza osoa izan dezan sustatzea.*
5. *Pobreziaren kontra burrukatzeko eta gizarte-kanporaketari aurre egiteko neurri zehatzei garrantzia ematea.*
6. *Gure gizartean eta gutxien garatutako herrialdeetan elkartasunaren balioa eta elkartasunezko politikena eragitea.*
7. *Pobreziaren prebentzioan eta desagertarazpenean gizarteko agente guztiek partaidetza aktiboa izan dezaten lan egitea, guztion elkarlana eta bereziki aginte publikoen eta gobernuz kanpoko elkartasun erakundeen artekoa bilatuaz.*
8. *Pertsonen (pertsona guztien) paper zentrala, eta pertsona horiekiko ekonomiak eta merkatuek bigarren mailako garrantzia eduki behar dutela azpimarratzea.*
9. *Geure erakunde eskubide-bermatzaileen eta gure lan eta txostenen bidez gizarteko errealitateaz egiten ditugun azterketen funtzionamenduan talderik ahulenen egoerari arreta berezia eskaintzea, gure gizartean drogamenpekotasunak dakarren zokoraketa ahaztu gabe.»*

2.3.2. **HERRI DEFENDATZAILEEN EUROPAKO BILTZARRA**

Ombudsmanaren Europako Institutuak antolatuta, 1996ko irailaren 21ean Ljubljana hirian (Esloveniako Errepublikan) «Kontroletik ihes. Babes legalerako bermeak ustezko desarauketa eta pribatizazio neurrien aurrean» izenburupean egin zen biltzarrean estatu administrazioei dagozkien zereginen pribatizazioari eta Ombudsmanaren kontrolari buruzko gogoeta egin zen.

Aldi berean Europako Ombudsman Institutuak bere Biltzar Nagusia egin zuen.

2.3.3. FEDERAZIO IBEROAMERIKARREKO HERRI DEFENDATZAILE, ORDEZKARI ETA GIZA ESKUBIDERAKO BATZORDEEN PRESIDENTEEN LEHENENGO BILTZARRA

Mila bederatziehun eta laurogeita hamaseiko apirilaren 15etik 19ra bitartean Mexicoko Querétaro hirian egin zen «Federazio Iberoamerikarreko herri defendatzaile, ordezkari eta giza eskubideen batzorde publikoetako presidenteen Lehen Biltzarra», besteak beste ondorengo hauek parte hartu zutelarik: Europako Parlamentuko Ombudsmanak, Herri Defendatzaileak, Arartekoak eta Espainiako gainerantzeko parlamentu-ordezkariek.

Ihardunaldi horiek oso interesgarriak izan ziren Iberoamerikako herrialdeetan Ombudsmanaren figura indarrean sartzeko beharrari dagokionez.

2.3.4. HARREMAN MAILAKO BESTE IHARDUERA BATZUK. MUNDUKO X. PSIKIATRIA BILTZARRA

Iazko abuztuaren 24an Madrilen egin zen Munduko X. Psikiatria Biltzarra; bertan, beste gai batzuen artean «Gaixo mentalen eskubide konstituzionalen babesa» aztertu zen, Ombudsman batzuen eta Arartekoaren partaidetzaz.

Ihardunaldi horretan Arartekoak aurkeztu zuen txostena eskaintzen dugu jarraian.

* * * *

«*ARARTEKO ERAKUNDEA ETA GAIXO MENTALEN ESKUBIDEEN BABESA*

Arartekoerakundeak (Euskal Herriko Ombudsmanak) sortu zenetik dauzkan helburuen artean, bereziki arrazoi ezberdinengatik beharrik handienean dauden hiritar kolektiboen eskubideak errespeta daitezen zaintzea dago. Kolektibo horien artean, gaixotasun mentalen bat daukatelako zentro psikiatrikoren batean dauden pertsonak aurkitzen dira ezbairik gabe.

Pertsonak horiek, epaitegiek kontrakoa esan duten kasuan salbu, dagozkien eskubide guztien jabe dira. Alabaina, garbi dago maila batean edo bestean beraien borondate gaitasuna aldatuta dagoela, eta, horregatik, sistema asistentzial eta sanitarioak egunero hartu behar dituzte hainbat erabaki eta neurri pertsona horien oinarrizko eskubideak (intimitatea, askatasuna, konfidentzialtasuna...) asko murrizten dituztenak.

Jakina den bezala, ombudsmanei eta, beraz, Arartekoko honi dagokie hiritarren oinarrizko eskubideak errespeta daitezen bermatzea, eta horretarako daukagun tresna nagusia administrazio publikoen iharduera kontrolatzea da (Espainiako Konstituzioaren 54. art., Euskal Autonomi Estatutuko 15. art. eta Arartekoerakundea sortzen eta arautzen duen 3/85 Legea).

Horretaz gain, Espainiako Konstituzioak 10-2. artikuluan dio Arartekoak eta beste erakunde batzuek babestu behar dituzten oinarrizko eskubideak eta askatasunak Espainiak sinatutako hitzarmen eta akordioen arabera interpretatu behar direla.

Bide horrek 1979an Espainiako Gorte Nagusiek berretsi zuten Giza Eskubideen babeserako Europako Hitzarmenera garamatza, zeinak 5. artikuluaren bidez onartzen baitu gaixo mentalei askatasuna kendu ahalko zaiela legeak agintzen duenaren bidetik, baina erakunde judizialaren aurrean errekurtsoa aurkezteko eskubidea ere bermatu behar dela dio, horrek epe laburrean internamenduaren egokitasunari buruzko iritzia eman dezan. Edonola, hori gutxienezko babes maila da, eta nazio mailako legediak gutxienezko maila horren gainetik beste goragoko maila bat ezar dezake.

Bosgarren artikulu horrek eskaintzen dituen bermeak Giza Eskubideen Europako Auzitegiak interpretatu eta zehaztu ditu, artikulu horretan xedatzen diren askatasun mugaketak era murrizgarrian interpretatu behar direla adieraziaz.

Hitzarmenaren letrak dioenetik haruntzago joanda ikusten da auzitegi horrek gaixo mental bat internatzeko kasu guztietan gutxienezko lau baldintza ezarri dituela:

1- *Sendagileek aldez aurretik perito lanak egitea, kasu larrietan salbu.*
2- *Trastorno mentalaren ezaugarriek internamendua justifikatzeko modukoak izan behar dute.*
3- *Internamendua trastorno mentalak irauten duen denboran bakarrik ezar daiteke.*
4- *Internamendua ospital edo zentro egoki batean burutu behar da.*

Are gehiago esan daiteke: Europako Auzitegi Gorenak eman dituen epaietan erabilitako interpretazio, arrazoibide eta argudioen ondoren Europako Ministroen Kontseiluko Batzordeak 1983ko otsailaren 22an 2/83 Gomendioa onartu zuen, gaixotasun mentalak eduki eta gogoz kontra internatutako pazienteen babes juridikoari dagokiona.

Gomendio horrek 13 atal dauzka eta besteak beste gai garrantzitsu hauek aipatzen ditu: gogoz kontrako internamendua zein kasutan justifikatzen den; erakunde judizialek internamendu horiek bermatzeko egin behar dutena; kasu larrietan jarraitu beharreko prozedura; pazienteei ezar lekizkieken mugapenak; internamenduaren iraupena; pazientearen duintasunarekiko errespetoa; gaixoaren osasunarekiko babesa, etabar.

Europako Batasuneko estatu kide guztiak Giza Eskubideen Babeserako Europako Hitzarmenaren eta Strasburgeko auzitegiaren menpe daudela kontuan izanez gero, ikusten da auzitegi horren jurisprudentziak dotrina esplizitu bat sortu duela, eta ez zuzenbide nazionalak eta ezta komunitate mailakoak ere ezin dute ez horren kontra jo eta ezta ahaztu ere egin. Horrela, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak gaixo mentalen askatasuna egiaz babesteari buruz emandako ebazpen zehatzen bidetik Europako zuzenbide

amankomun bat finkatu da, komunitate mailako lengoaia juridiko amankomun bat alegia.

Hain zuzen gure Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan erabili izan du Europako Auzitegiaren jurisprudentzia bere ebazpenen funtsa ezartzeko edo horien lagungarri gisa. Zentzu horretan aipatzekoa da Konstituzio Auzitegiak ekainaren 8an eman zuen 112/1988 epaia, 3. oinarri juridikoan Strasburgeko Auzitegiaren dotrina aipatzen baitu gaixo mental bati babesa eman behar zaiola justifikatzerakoan.

* * *

Bestalde, nire ustez Ombudsmanen betekizunen artean, gaixoen eskubideak internamendu unean errespeta daitezen zaintzeaz gain, beste hau ere badago: eguneroko praktikan internamenduak irauten duen bitartean eta ematen zaizkion laguntzetan gaixotasun mentalak jotako hiritar horri bere oinarrizko eskubideak egiaz bermatzen zaion ikertu ere egin behar da.

Jakinekoa denez gero, zentro psikiatrikoetan dauden gaixoen eskubideak errespetatzeko ospitalek eta laguntzarako estrukturek prestazio material eta sanitario egokiak eduki behar dituzte, eta pertsonalarekiko tratuak eta harremanak gizabidezkoa eta ulerkorra izan behar dute.

Horregatik, 1991n Ararteko erakundeak aditu talde baten lankidetzarekin Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) zentro psikiatrioei buruzko ikerketa egin zuen[1]*. Horretarako gure erkidegoko hamaika zentro psikiatrikoak bisitatu ziren. Zentro horiek publikoak nahiz pribatuak dira, eta azken horietan EAEko osasun administrazioak (OSAKIDETZA) ohe hitzartuak dauzka.*

Euskal Autonomia Erkidegoak 1983. urteaz geroztik Laguntza Psikiatriko eta Osasun Mentalerako Plan bat dauka, duela urte batzuk hil zen Ajuriagerra doktore jaun ospetsuaren gidaritzapean sendagile talde batek burutua. Osasun administrazioak etengabe aztertzen duen erreferentzia plan horrek asko erraztu zuen Ararteko erakundeak ospitale psikiatrikoetako gaixoei buruzko lana burutzea.

Aurkitu ziren arazoak konpondu asmoz Arartekoak osasun administrazioari eta Eusko Jaurlaritzari berari gomendio eta proposamen batzuk egin zizkien, aspektu hauek jasoaz: medikuak, ezaugarri arkitektonikoak, antolakuntzazkoak, eta baita erakunde judizialekin eta poliziarekin koordinazio hobeagoa lortzeari zegozkionak ere.

Mediku-antolakuntza mailako gomendioen artetik, ondokoak azpimarratu nahi ditut orain:

---

[1].- PSIKIATRIKOAK. *Ospitale Psikiatrikoetako gaixo mentalen egoera*. Gasteiz: Ararteko; Bilbao: OMIE, 1992. 188, 184 or. (Argitalpen elebiduna).

- Arazo psikiatriko espezifikorik gabeko gaixo zahar eta oligofrenikoak desikiatrizatu eta arreta espezifikoa eman diezaioketen tokietan lojamendua ematea.
- Errehabilitazio psikiatrikoaren teknika berezietan psikiatrak, psikologoak eta begiraleak trebatzea.
- Egonaldi luzerako zentro psikiatrikoetan dauden gaixoak talde homogeneoetan banatzea bakoitzaren errehabilitazio premien arabera, horrela programa espezifikoak eskaini ahal izateko.
- Dispositibo komunitarioak sortzea, etxebizitza babestuak edo 'erdi bideko' etxeak kasu, gaixo zenbaitek, bide alternatibo gisa, irteteko aukera izan dezaten, beste gaixo asko egonaldi luze eta ertainerako ospitale psikiatrikoetan barneratu beharra saihestuko delarik horrela.
- Zerbitzu psikiatrikoetan lanean dihardutenen artean lanarekiko insatisfazioa hain nabarmena izatea eragiten duten faktoreak lehenbailehen arintzea.
- Ospitale orokorretako larrialdi unitateen aldamenetan krisialdirako interbentzio zentroak sortzea.
- Segurtasunezko unitate psikiatriko bat sortzea, gaixo arriskutsuei, presondegikoei barne, behar bezalako arreta eskaintzeko, erakunde ireki edo erdi-irekietan tratu egokirik eman ez zaienean.
- Egonaldi ertain eta luzeko zentroetan psikogeriatriako unitate espezifikoak sortzea, halaber, asiloetan eta hirugarren adinekoentzako egoitzetan bizi direnei arreta psikiatriko egokia eskaintzeko.
- Buru traumatismoen ondoriozko buru-nahastea duten gaixoen osabiderako unitate espezifiko bat sortzea.
- Diagnostiko bikoitzeko gaixo toxikomanoen osabiderako unitate espezifikoak sortzea.

Gomendio juridiko eta antolakuntzazkoen artetik ondokoak azpimarratzen ditut:

- Gogoz kontrako barneratuen trasladoetan parte hartzen duen ekipoak behar hainbat langile izan eta behar bezalako prestakuntza eduki ditzala, horrela indarraz baliatzeko beharrik egon ez dadin.
- Zentro psikiatrikoetan saihestu egin behar da polizia uniformaturik egotea presoak zaintzen.
- Gogoz kontrako barneratze kasuetan, epaileak aurrez-aurreko elkarrizketa izan dezala pazientearekin.
- Gaixoei zentroan barneraturik egoten diren denboraldi osoan, dituzten oinarrizko eskubideak erabat errespetatu eta bermatu behar zaizkie, batez ere gaixoen askatasuna, intimitatea edo konfidentzialtasunari dagokionez, honen bermatzaile epaileak eta fiskalak ihardun beharko dutelarik.
- Une honetan epaitegi desberdinetan geldialdi egoeran dauden gaitasungabetze prozesuak ere arindu beharra dago.
- Irudimena landu beharra dago tutorerik eza konpontzeko. Zoro ezgaituen tutelaz arduratuko den erakunde publiko bat sortzea iradokitzen da.

- Buru-gaixo oldarkor edo arriskutsu batzuek arreta berezia eskatzen dute. Gaixo oldarkor eta arriskutsuentzat, preso prebentibo nahiz aurrekari penalik gabeko hiritarrentzat unitate psikiatriko bat sortzea proposatzen da.

Aurrerago, txostenean proposatzen ziren gomendioen betetze mailari buruzko jarraipena egin da. Ikusi dugunez, horietako batzuk praktikan jarri dira, esate baterako egokitzapen arkitektonikoak egin eta 1991. urtean artean konpontzeke zeuden unitate psikiatriko gehienak egunera jarri dira. Sistema sanitarioaren eta judizialaren arteko koordinazioa ere hobetu da, Ministerio Fiskalarekikoa barne, horren ondorioz gaur egun gogoz kontrako internamenduetan kontrol judizial handiagoa baitago, Kode Zibilak 211. artikuluan agintzen duen bezala epaileak sarritan zentro psikiatrikoetara joaten direlarik.

Aldiz, beste gomendio batzuek ez dute zorte bera eduki eta ez dira praktikara eraman, zegozkien alorretan aurkitutako arazoek berdin jarraitzen dutelarik. Hori da, adibidez, gaixo oldarkor eta arriskutsuei behar bezala atenditzeko unitate psikiatriko espezialduaren kasua.

Elbarritasun aitorpenen arazoa ere ez da konpondu. Sarritan gertatzen da familiek 'abandonatutako' gaixoen kasuan epaileek zentro psikiatrikoetako kudeatzaileak izendatzea horien tutore, nahiz eta interesatuak nahi ez izan. Gizartearen parte hartze handiagoa desiragarria litzateke ezbairik gabe, edo bestela administrazioak neurriren bat hartzea erakunde edo fundazioren batek gaixo mental horien tutela funtzioak bere gain har ditzan.

Azkenik azpimarratu nahi dut nire zuzendaritzapean dagoen erakundea beti prest egon dela gaixo mentalen laguntzarako dauden erakunde ezberdinekin elkarlanean aritzeko, are gehiago, urtero burutzen diren ofiziozko iharduerен artean normala izaten da Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale psikiatrikoren batera ikuskaritza bisita egitea.»

III. ATALA

KEXEN LABURPENA SAILEZ SAIL

3.1. ARARTEKOAREN IHARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR

3.1.1. ATALAREN ANTOLAKERA

Beste txostenetan, 1995. urtera arte, III. atal honetan kexarik garrantzitsuenen laburpen batzuk sartzen genituen, erakundearen lanean bereizten diren alor desberdinen arabera sailkaturik.

Esandako urte horretan, ordea, ofiziozko iharduera ez monografikoak asko ugaldu zirela-eta, aurreko urteetan baino leku handiagoa betetzen hasi ziren, eta horregatik egokia iruditu zitzaigun atala aldatzea, alor bakoitzean ofiziozko iharduera horien laburpen bana sartuz.

Horretarako, sistematikoagoa iruditu zitzaigun alor bakoitzeko ekintzarik aipagarrienen laburpena biltzea, alde batera utzita ekintza horiek ofizioz ala alde baten eskariz hasitakoak diren.

Hala eta guztiz ere, alor bakoitzean argi bereizten dira zein diren ofizioz hasitakoak eta zein kexa espediente baten biderapenari erantzuten diotenak.

Nolanahi, atal honetan Arartekoaren bulegoak jorratu behar izaten dituen gaien ugaritasun handia islatu nahi dugu, gehien gertatzen diren kasuen errepikapena saihestuz.

3.1.2. ZEHAR-GAIAK: EMAKUMEEN, PERTSONA EZGAITUEN, ADIN TXIKIKOEN ETA ABARREN ARAZO BEREZIAK

Erakundean aztertu behar izan ditugun kexei buruz ahalik eta azalpenik garbiena egin asmoz, erreklamazioaren mamia den gaiaren araberako antolakera aukeratu behar izan dugu. Dena den, antolakera horretan planteatu zaigun arazoaren alderdi bat bakarrik aintzat hartzen denez gero, Arartekoan ondo dakigu arazo horrekin zerikusi zuzena duten beste hainbat aldagai landu gabe eta bazterturik geratzeko arriskua dagoela.

Ildo horretatik, beharrezkoa da gogoan izatea gizarteko zenbait pertsona taldek oztopo bereziak izaten dituztela beren eskubideez baliatzeko eta eskubide horiek defenditzeko orduan. Legearen aginduz Arartekoa pertsonen funtsezko eskubideak babestu behar duen erakundea izanik, arreta berezia eman behar diegu egoera juridiko ahulagoa duten gizatalde horiei. Horregatik, gure

erakundearen eguneroko lan arruntean ahalegina egiten dugu talde horien arazoak antzeman eta ikusgarri bihurtzeko, kasu bakoitzean salatutako egoera testuinguru horretan sartuz.

Ikusmolde horren bidez, erreklamazioa eragin duen gai berezia erakusteaz gain, arazo jakin horrek gizarteko talde berezi baten arazo orokorrekin daukan lotura ere landu nahi dugu, halako zehar-ikuspegi bat dei genezakeena eskainiz. Kexa batzuek, edozein dela haien edukia, halako pertsona talde batengan eragin handia duten arazoak nabarmentzen dituzte. Bada, kexa horiek aztertzeko -eta ezagutzera emateko- orduan, babes-beharrik handiena duten gizatalde horien arazo bereziak ere ezagutu nahi ditugu.

Erakunde honetan arreta berezia ematen zaie, adibidez, emakumeek, adin txikikoek eta zaharrek osatzen dituzten gizataldeei, atzerritarrei eta ezgaitasunak jasaten dituzten pertsonei. Atal honen ondoren datorren kexa laburpenean, gizatalde horien egoera islatzen duten arazoei buruzko erreferentziak aurkitzeko, txostenaren bukaerako gai aurkibidera jo daiteke.

Bukatzeko, komeni da esatea lanean bertan kontutan hartzen eta hemen bereziki aipatu nahi izan ditugun zehar-ikuspegi horien artean “generoaren ikuspegia” nabarmentzen dela. Hau da, abiapuntu bezala hartzen dugu pertsonen eskubideen inguruko gai batzuen garrantzi edo eragina ez dela berdina, pertsona afektatuak emakumeak izan ala gizonak izan.

Dena dela, zehar-lerro gisa seinalatu ditugun horiei dagokienez, halako arazo batean askotan bat baino gehiago batera biltzen diren arren, fenomeno hori bereziki argia da generoaren ikuspegiarekin. Hori beste zehar-ikuspegien gainetik agertzen da beti, zeren eta gure erakundera jotzen duen hiritarrak halako leku bat betetzen baitu gizartean bere generoaren arabera, aparte utzita halako gizatalde batekin lotzen duten beste zertzeladak (adina, nazionalitatea, etab.). Zertzelada horri buruzko azalpen egokia egitearren, azterketa estatistikoari eskainitako atalean datu batzuk sartu ditugu, Arartekoaren iharduera alorretako bakoitzean ondo bereizteko zein diren gizonek aurkeztutako kexak eta zein emakumeek aurkeztutakoak, bai eta haien arteko proportzioak ere.

3.2. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

3.2.1. SARRERA

Alor honetan ekoizpeneko lehen, bigarren eta hirugarren sektoreei berez dagozkien iharduerekin zerikusia daukaten erreklamazioak sartzen dira.

Guztira 12 kexa jaso dira, erakundearen aurrean aurkeztutako guztien artetik %0,91.

Eragindako administrazioen arabera honela banatzen dira:

- Eusko Jaurlaritza 5
- Foru Aldundiak 6
- Udalak 3

Edukiaren arabera, honela bana ditzakegu erreklamazioak:

- Nekazaritza 7
- Merkataritza 2
- Industria 2
- Kontsumo 1

Nekazaritzako azpialorrari dagokionez, sustapen gai batean erabilitako irizpideei buruz nekazari erakunde profesional batek planteatutako kexa azpimarratu behar dugu berriro ere, hain zuzen Administrazioak laguntzak ematerakoan izandako jokaeragatik planteatua.

Era berean, baso-jabe ezberdinen artean Urkiolako Parke Naturalaren erabilera eta kudeaketarako Plan Nagusiaren ezarpenean ustez egondako tratu diskriminatzaile bategatik beste erreklamazio bat egon da.

Bestetik, fundazio bateko ordezkari batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren iharduera bat, zeinaren bidez gune zoologiko bat edukitzeko baimena bertan behera uzten baitzen. Hauek ziren kexaren arrazoiak: alde batetik, aipatutako administrazioak oker interpretatzen zuela xedapen iragankor bat, lehendik zegoen arau baten babesean gune zoologiko bat jartzeko baimendunak erregimen juridiko berri batera egokitzea arautzen duena; bestetik, baimena bertan behera uzten zitzaion espedientean ez zitzaiola instrukzio-egilearen nortasuna jakinarazi; eta azkenik, baimena ezeztatzea erabaki zuen agintaritzak ez zeukala horretarako gaitasunik. Aipatu den Aldundiko sailak eskuratu zigun informazioaren arabera, lege-antolamendua errespetatu egin zen eta, beraz, espedientea besterik gabe itxi egin zen.

Azkenik, nekazaritzako azpialor honi dagokionez, hiritar batek erakunde honen aurrean auzitan jarri zituen Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Espazio Naturalen Sailak hegaztiak ustiatzeko instalazio-proiektu bati buruzko ezezko txostena emateko erabili zituen balorazio elementuak: elementu horiek aldatu egin ziren ezezko txostena eman zuenari informazioa eskatu ondoren. Guk informazioa eskatu eta ikusi genuen administrazio horrek beti irizpide berdinekin jokatu zuela, eta, beraz, ezeztatzeak ez zekarrela berdintasun printzipioaren hausketarik. Ikusi zenez, interesatuak zeukan informazioa zerbitzu teknikoek erakunde eskudunei egindako proposamenak baino ez ziren. Espedientea itxi egin zen, baina aldez aurretik erreklamatzaileari jakinarazi zitzaizkion lege antolamenduaren arabera zein bide zituen bere esku kalteordaina eskatzeko, Aldundiko Saileko teknikariek emandako datuek errakuntzara, eta beraz baimen-eskaria egitera eramateagatik, baldin eta jokaera horiek kalterik sortarazi bazioten.

Industriari dagokionez, eraikinetako fatxadetan gas galdarak jartzeko debekuaren ondorioz egondako salaketak aipatu behar dira; debeku horiek udal

ordenantzetan baldintzapean ezartzen dira. Aldez aurretik gainditutako azterketen edo proben emaitzak iraungitzat jo izanagatik iturgin instalatzaile-karneta formalizatzeko ezintasuna salatzen zuen erreklamazio bat ere jaso zen.

Azkenik, merkataritzaren azpialorrari dagokionez, erreklamazio hauek aipa ditzakegu: etxez etxeko ogi salmentari dagokiona, indarrean dagoen araudiak eskari, ogi enbasatu eta faktura eskuratzeaz ezarritako betekizunak (martxoaren 28ko 1.137/84 Erret Dekretuaren bidez onartutako Ogia eta Ogi Bereziak Egiteko, Garraiatzeko eta Saltzeko Arautegi Tekniko-Sanitarioa eta Ogiaren Banaketa eta Salmentaren Erregimenari buruzko uztailaren 11ko 184/83 Dekretua) ez errespetatzeagatik; eta ikastetxe baten inguruan azokatxo bat jartzeagatik jasotako salaketa.

3.2.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

3.2.2.1. **NEKAZARITZA**

Nekazaritzako erakunde profesionalei ematen zaizkien diru laguntzak (144/96)

EHNE-Gipuzkoa, EHNE-Bizkaia eta UAGA Nekazaritzako Erakunde Profesionalek bidalitako kexa idatzi berri bat jaso zen Erakunde honetan, Nekazaritza, Arrantzu eta Elikagaien Sailak 1993ko azaroaren 16ko Aginduan iragarritako dirulaguntzak ematea zela-eta; Agindu horren onarpena Arartekoak aurretik bideratutako espediente baten bidetik bultzatu zen hain zuzen.

Kexa hau 1995eko abenduaren 18an Nekazaritza eta Nekazari Garapenarako Zuzendaritzak emandako Ebazpenari dagokio, zeinaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoan dauden izaera sindikaleko nekazaritzako erakunde profesionalei laguntzak ematen baitzaizkie.

Diru kantitate ezberdinak erabakitzerakoan, Sailaren aipatu Aginduan jasotako irizpideak ezarri dira, hau da: Nekazaritzarako Aholku Mahai nazionalean ordezkatuta dauden erakundeen artean lurralde historiko bakoitzari dagokionaren %30 banatu ondoren, gainerantzeko %70 afiliatu kopuruaren eta eskarian eskainitako iharduerен Oroi-Txostenaren arabera banatu zen.

Horrela, afiliatuen araberako banaketa ezagutzen diren datuen arabera egiazta badaiteke ere, erakunde profesional bakoitzak burututako iharduerен balorazioa egiteko, aldiz, fiskalizatzen zailak diren faktoreak hartu behar dira kontuan.

Dirulaguntza horiei dagokienez, Sailak egokitzat jo zuen Patataren Mahaian, Parke Naturalen Antolamendurako Planei alegazioak aurkezten, Esnekien Sektoreko Mahaian lanean eta antzekoetan erakundeek zeukaten partaidetzari lehentasun berezia ematea.

Ildo horretatik, eta 1995ean emandako dirulaguntzei loturik, aldez aurretik beharrezko kalkuluak eginaz, Gipuzkoan iharduera horien balorazioak 3.500.000

pezeta suposatu zuen: 2.345.000 ENBArentzat eta 1.155.000 EHNErentzat; Bizkaian 2.132.500 pezeta ENBArentzat eta 1.367.000 EHNErentzat.

Horrela, begibistakoa denez afiliatu kopuruaren eta erakunde profesional bakoitzak aurrera eraman ditzakeen ihardueren artean erlazio zuzenik finkatu ezin bada ere, deigarria gertatzen da emandako laguntzen arteko aldea, bi sindikatuen helburua zuzenean dagozkien gaiak eztabaidatzen diren lekuetan dauzkaten afiliatuak babestea izanik.

Horregatik, eta erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak 23tik 26. artikulura bitartean ezarritakoaren bidetik, 1995. urteari zegozkion aipatutako bi erakundeen iharduera txostenak bidaltzeko eskatu zitzaion Sailari.

Horiek aztertu ondoren, aipatu beharreko zenbait gai ikusi ziren.

Lehenik gogoratu behar da 1995. urteari zegokion dirulaguntza deialdia urte bereko urriaren 16ko Nekazaritza eta Nekazari Garapenerako Zuzendaritzaren Ebazpenaren bidez (EHAA, 10/31) egin zela, onartutako eskariak eta zegozkien agiriak aurkezteko epea urte bereko azaroaren 20a zelarik.

Dirulaguntzak erabakitzen zituen ebazpena, esan den bezala, 1995eko abenduaren 18an onartu zen.

Harrigarria den eran, ENBA-Bizkaiak bidalitako iharduera txosteneko agirien artean, muga bezala ezarritako eguna baino beranduago bidalitako batzuk zeuden: zehazkiago esanda, bi idazki *1995eko azaroaren 23an* egindako bilerei zegozkien, eta ENBAko ordezkari batek sinatu eta Urdaibaiko Patronatoaren Presidenteari zuzendutako hirugarren idazki batek *1996ko otsailaren 12ko* data zeraman.

Bestetik, ENBA-Gipuzkoari zegokion txostenean 1993ko uztailaren 5eko data zeramaten Lurralde Antolakuntzarako Zuzentarauei egindako alegazioak sartuta zeuden, txostenak ustez behintzat 1994an burututako iharduerak jaso behar zituen arren.

Aipagarriak gertatu ziren beste gai formal batzuk ere: Urdaibaiko erreserbaren “Alegaciones al Plan Rector de Uso y Gestión” deituak ez zeukan ez egilearen izenik ez datarik ere; lan hori 115etik 158ra bitarteko zenbakiak zeuzkaten orrietan zegoen, eta horrek pentsarazten du adierazi gabeko beste lan zabalago baten zatia zela.

Azkenik, ENBAk igorritako agirien aspektu formalari dagokionez, erakunde horrek Bizkaitik aurkeztutako ziurtagiri bat ere deigarria gertatzen zen, bere idazkariak eginda baieztatzen zelako erakundea zerga ordainketan eta Gizarte Segurantzarekiko betekizunetan egunera zegoela.

Garbi dago era horretako ziurtagiri batek ez zeukala baliorik, eginkizun hori dagokien erakundeek, Ogasunak eta Gizarte Segurantzak alegia, eginda ez zegoelako.

ENBAk aurkeztutako txostenaren mamia dei dezakegunari dagokionez, gogoratu behar izan zen Sailak, partidatik lurralde historiko bakoitzari zegokion %30a izendatzerakoan erakunde bakoitzak aurkeztutako iharduera txostena hartu zela aintzat, lehen esan den bezala, eta, bereziki, Patataren Mahaian, Parke Naturalen Antolamendurako Planei alegazioak aurkezten, Esnekien Sektoreko Mahaian lanean aritu izanari lehentasuna ematea egokitzat jo zuela.

Sailak erakunde honi bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, ordea, iharduera horiei buruzko erreferentziak oso urriak direla eta kasu batzuetan bat bera ere ez dagoela esan behar da.

Gai horietako batzuk Sailburuak berak erakunde honetara bidalitako txosten baten bidez argitu ondoren, Ararteko honen iritziz ondorio hauek atera ziren:

- Nekazaritzako erakunde profesionalentzako laguntzak arautzen dituen Sailaren Aginduan jasotako irizpideek baliagarriak izaten jarraitzen dute.

- Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargura ematen diren laguntzetan nagusitu behar den publizitate, lehia eta objetibitate printzipioekiko errespetoa, indarrean dagoen legedian ezarritako prozedurak txukun eta errespetoarekin betetzearen baitan dago.

- Nekazaritza eta Nekazari Garapenerako Zuzendariaren 1995eko urriaren 16ko ebazpenaren bidez egindako deialdiko laguntzak emateko moduan zenbait irregulartasun formal antzeman dira, eta aztertu den ebazpena ezereztu behar dela esan ezin bada ere, aipatu diren lehia eta objetibitate printzipioekiko errespetoan eragin negatibo nabaria dute.

Edonola ere, Sailak luzatutako gonbiteari erantzunez, eta ahal den neurrian dirulaguntza horiek emateko prozedura hobetzen laguntzeko asmoz, Arartekoak egokia ikusi zuen ondoko gomendio hau egitea.

G O M E N D I O A

- Ararteko honek ezinbestekoa deritzo laguntzak emateko eskariak bideratzerakoan, fase ezberdinetan, indarrean dauden aginduek prozedurei buruz diotena zintzoki betetzeari, bereziki agiriak aurkezteko formari eta epeei, etabarri dagokienean, neurri handi batean aipatu diren publizitate, lehia eta objetibitate printzipioekiko errespetoa bermatzea prozedura horien baitan dagoen neurrian.
- Erakunde profesionalek burututako iharduerен balorazioari dagokionez, bereziki baloratuko direnak aldez aurretik modu itxian zehaztea komenigarria ez dirudien arren, bai esijitu beharko litzateke izendatutako laguntzaren portzentaia finkatzeko kontuan hartutako elementuak gutxieneko maila batean motibatuta eta arrazoituta egotea, ondoren kontrola ezarri ahal izateko eta eragindako erakundeen egiazko babeserako eskubidea bermatzeko.

Horrekin Administrazio honen iharduerei eraginkortasun eta objetibotasun maila handiagoa edukitzen laguntzen diegulakoan, espedientea itxi egin zen.

Urkiolako Parke Naturalaren erabilera eta kudeaketarako Plan Nagusiaren bidez baso-jabeen artean ustez egondako tratu diskriminatzailea (272/96)

Urkiolako Parke Naturalean kokatutako baso baten jabea Arartekoarekin harremanetan jarri zen, bere ustez Urkiolako Parke Naturalaren erabilera eta

kudeaketarako Plan Nagusiko 11. artikuluaren bidez baso-jabe ezberdinen artean egondako tratu diskriminatzailea salatzeko. Artikulu horretan ustiatzeko basoetan beste zuhaitz batzuk jartzearen truke konpentsazio sistemak iragartzen ziren, eta kexa sustatzaileak ez zuen sistema horrengatik konpentsaziorik jaso, betidanik bertako zuhaitzak ustiatzeko erabili zuelako basoa.

Horrela, kexan agertzen zen arazoa arretaz aztertu ondoren Arartekoak hau iritzi zuen: Urkiolako Parke Naturalaren Izendapenerako abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuak eta Urkiolako Parke Naturalaren erabilera eta kudeaketarako Plan Nagusiaren alderdi arauemailea onartzen duen abenduaren 5eko 505/1995 Dekretuak ikusirik, bazirudien inguru babestu horren bidez bertako landaretza babestu eta berreskuratu nahi zela, eta horretarako basoetan landatuta zeuden kanpoko zuhaitzen ordez bertakoak alda zitezen sustatu nahi zela.

Era berean, Ararteko honek ulertzen zuen horrela kultura, paisaia eta natur maila handiko zona batean berez euskal basoari zegokion ekosistema berreskuratzen lagundu nahi zela. Horretarako, bere garaian kanpoko zuhaitzak landatzea erabaki zuten basoetako jabeentzako laguntza sorta bat ezarri zen, zonako basoetan ustiapenak egiteko mugak ezartzen zituen araurik ez zegoenez gero, bertako zuhaitzak landatzea aukera zezaten. Beraz, parke naturalaren izendapenaren ondorioz orain arteko espezieak kendu eta bertakoak landatzera behartuta zeuden baso-jabeek bakarrik lor zitzaketen laguntza horiek.

Horrela, Arartekoak iritzi zuen 1978an Konstituzioa indarrean sartu ondoren Kode Zibilak 348. artikuluan jasotzen zuen jabetza eskubidearen edukia asko aldatu zela, izan ere, Konstituzioko 33.1 eta 2 artikulua eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia kontuan harturik, jabetzak betetzen duen funtzio sozialaren edukia lege bidez arautua baitago.

Puntu honi dagokionez lehen aipatutako artikuluak zera dio:

1. Jabego pribatu eta oinorde eskubidea aitortzen da.

2. Eskubide hauen funtzio sozialak hauen edukia mugatuko du legeen arauera.

Arartekoaren iritziz funtzio sozial horren betekizunak jabetza eskubidearen edukia une oro mugatzen zuen, jabeek beren ondasunekiko dauzkaten erabilera ahalmenak murriztuaz.

Ondasunak erabiltzeko, gozatzeko eta disfrutatzeko ahalmenen ondoan, legeek edo arauek ezarritako betebeharrak eta zamak leudeke, interes sozialaren onerako. Kasu honetan, Urkiolako Parke Naturalaren izendapenak jasotzen duen interes soziala edo orokorra Konstituzioko 45. artikuluan isladatua dagoela esan liteke, hau da, guztiok ingurugiro egokiaz gozatzeko daukagun eskubidean eta baliabide natural guztiak arrazionalki erabil daitezen zaintzeko, bizitza kalitatea babestu eta hobetzeko eta ingurugiroa defenditu eta zaintzeko ente publikoek daukaten betebeharrean.

Lursail baten jabeek Lurraren Legean jasotako agindu legal baten debekuagatik nahi dutenean eta nahi bezala eraiki ezin duten bezala, arau batek orube bateko zuhaitz motak muga ditzake, eta horrek ez du esan nahi jabetza eskubidea

mozten denik, baizik eta legeak ezarritako muga bat besterik ez da. Zentzu horretako epaiak eman ditu behin baino gehiagotan Konstituzio Auzitegiak.

Ararteko honek bestalde iritzi zuen jabetza eskubidearen printzipioak ezin duela interes soziala kaltetu, eta ondorioz jabeen ahalmenak murriztuak gerta daitezke interes kolektiboak kalteturik gerta ez daitezen.

Dotrina gehienak eta Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak diotenez, jabetza eskubidearen funtsezko edukian eragiten den kasuan bakarrik eman daiteke kalteordaina, hau da, ondasuna eskuz aldatzea eta errentabilitateak lortzea galerazten denean eta jabeak berak bere jabetza erabili edo gozatu ezin duenean bakarrik. Arartekoaren iritziz, aurkeztu zitzaion kasuan ez zen puntu horietako bat bera ere gertatzen, parke naturalaren izendapenak itxuraz sartzen zuen murrizpena ustiatzeko zuhaitz mota libreki aukeratzeko ahalmena moztera mugatzen zelako.

Ararteko hau jabetuta zegoen planteatu zitzaion gaia oso eztabaidatua zela, eta jabetza eskubidearen ikuspegitik parke natural baten eraketak hasiera batean ez ziela parkea kokatzen zen lurren jabeei onura ekonomikorik ekarriko; alabaina, Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza, eta Arrantzu Sailaren ihardueran ez zuen erakunde honen ekintza justifika zezakeen irregulartasun edo hausketarik ikusi.

3.2.2.2. **MERKATARITZA**

Kalez kaleko ogi-salmenta Bakio herrian (856/96)

Erakunde honetan Bakioko okin batek aurkeztutako kexa idatzia jaso zen, non herri horretako kalez kaleko ogi-salmenta eta herri agintariek horren aurrean erakutsitako pasibitatea salatzen baitzituen.

Horri buruz erreklamatzaileak zioenez, ondoko herri bateko okindegi batek furgoneta batekin saltzen zuen ogia Bakioko zenbait etxaldetan uda garaian.

Egoera horren aurrean, Ararteko honek udalari igorri zion jasotako kexa, salatutako jarrerak, besteak beste, ogia eta ogi berezia egitea, garraiatzea eta saltzea arautzen duen martxoaren 28ko 1137/84 EDko 21. artikuluan xedatuaren hausketa ekar zezakeelako.

Bakioko Udalak bidalitako erantzunean esaten zitzaigun udal alguazilek ogi banaketaren jarraipena egin eta ez zutela kalez kaleko salmenta zegoenik ikusi, ogia etxez etxe banatzen zuen iharduera baizik.

Gai horri zegokionez, eta Udalak kasu honetan kudeaketa ona burutzeko jarraitu behar zituen irizpideak errazteko, Arartekoak zenbait oharpen egitea egokia iritzi zuen, horien bidez enpresa askatasunaren printzipioa eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa elkargarri egiten saiatu zelarik.

Era berean Bakioko Udalari gogorarazi zion ogia egiten zutenen merkataritza iharduerako enpresek martxoaren 28ko 1.137/84 Erret Dekretuaren bidez onartutako Ogia eta Ogi Bereziak Egiteko, Garraiatzeko eta Saltzeko Arautegi Tekniko-Sanitarioak eta Ogiaren Banaketa eta Salmentaren Erregimenari buruzko

uztailaren 11ko 184/83 Dekretuak esandakora egokitu behar dutela beren iharduera, eta horiek guztiz debekatzen dutela ogiaren eta ogi berezien kalez kaleko eta etxez etxeko salmenta.

Horrela, Ararteko honek berriro zioen, ikuspegi fiskaletik merkatari iharduerei ezar lekiekeen lurralde esparru mugaketa posibleen kalterik gabe, ogia saltzeko baimena daukan establezimendu orok egin dezakeela etxez etxeko salmenta, horretarako Ogia eta Ogi Bereziak Egiteko, Garraiatzeko eta Saltzeko Arautegi Tekniko-Sanitarioak 21.2 artikuluan dioenera egokitzen den kasuan, hots: eskari bat egotea, ogia enbasatua edukitzea eta faktura pasatzea.

Aurreko guztiarekin batera, gure antolamenduak herri agintaritzei elikagaien kontrol eta zaintzarako ematen dizkien eskuduntzak gogoratu zizkion Arartekoak Bakioko Udalari eta erabil zitzala eskatu zion.

Azkenik, Udal horrek onartu egin du egindako gomendioa.

3.3. **KULTURA ETA ELEBITASUNA**

3.3.1. **SARRERA**

Alor honetan guztira 28 kexa jaso dira, hau da, kexa guztien %2,13. Alor hau osatzen duten azpialorren banaketa ondorengoa izan da:

- Elebitasuna 18
- Kultura 10

Eragindako administrazioen arabera hau da kexen banaketa:

- Eusko Jaurlaritza 14
- Aldundiak 2
- Udalak 12

Txosten hau osatzen duten alorretan sistematikoki sailkatzeko, kultura alorrean sartu dira kultura ekitaldiekin erlazionatutako egoerei buruzko kexa batzuk, nahiz eta horien zergati nagusia sexu arrazoiengatiko diskriminazioa izan ezbairik gabe, emakumeei ekitaldi horietan parte hartzea ukatu zaielako.

Alor honetan sartu dugu baita Bizkaiko Emakumeen Asanbladak komunikabide publikoetan sartzeko eskubidearekin zerikusia daukan kexa, eskubide horren gauzapenean tratu desberdintasuna gertatzen zelako.

Sustapenerako funtzioen barruan, zehazki euskaltegi pribatuei dagozkien laguntzen eta aurreko txostenetan ere salatutako laguntza horien atzerapenen haritik euskaltegi homologatuentzako laguntzen banaketa sistemari buruzko auzi berriak sortu dira.

Egoera txarrean dauden kultura ondasunen konponketaren arazoa, gaur arte iritsi den ondare historikoari eusteko behar diren konpontze iharduerak

burutzeko dauden bitarteko mugatuen arazoa alegia, ez da erkidego honena bakarrik.

Elebitasunaren azpialorrean, jasotzen diren kexak ikusirik, askok Ertzaintzarekiko harremanetan euskara erabiltzeko dauden arazoak planteatzen dituzte, eta horrekin batera osasun alorrari dagokiona dago, horietan oraindik ez direlako euskalduntze planak martxan jarri.

Udal baten bizitzan euskara erabiltzeari ustez eragiten zion kasu bat aztertzeko aukera ere eduki dugu.

Materialki elebitasunaren azpialorrean kokatu beharreko beste kasu batzuk Estatuaren Administrazioari dagozkiolako kudeaketa ezberdinetan sartu ditugu, eta horiek izen eta abizenak euskal grafiara egokitzea edo notarietan zerbitzu elebidunak eskatzea bezalako gaien aurrean hiritarrek daukaten sentiberatasuna erakusten dute.

3.3.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

3.3.2.1. **KULTURA**

ETBn adin txikikoei zuzendutako programazioaren edukiarekiko desadostasuna (135/95)

ETBko ikusle batek Arartekora jo zuen telebista-kate horrek adin txikikoei zuzendutako saioetan bortxakeria edo sexu eduki handiegia ematen zuelako.

Gai honi dagokionez interesatuak zioenaren arabera, 15:30etan ematen diren filmeetan sarritan eszena erotikoak eta bortxakeria hutsezkoak etengabeak dira, gaztetxo askoren eskola-orduak ordu horretan amaitzen direla ahaztuaz. Era berean, kexagileak zioen baita ere ETB-1ean “Dragoi Bola” saioa 21:05etan ematen jarraitzen dela, une horretan oraindik adin txikiko asko telebista ikusten egoten direlarik.

Horregatik, Arartekoak ETBri aurreratu zion planteatutako kasuari guztiz ezar lekiokeela uztailaren 12ko 25/1994 Legeak 17. artikulua dioena, zeina EEEko 89/552 Direktiba Espainiako antolamenduan sartzeko onartu baitzen eta irrati-telebista ihardueretarako Ekonomi Elkarteko estatu kideen legediak, araudiak eta administrazio mailako neurriak arautzen baititu.

Hain zuzen 25/1994 Legearen 17. artikuluko 2. atalak hau dio. “Adin txikikoen garapen fisikoa, mentala edo morala kalte dezaketen programak, eta edozein kasutan pornografia edo alferreko bortxakeria eszenak dauzkatenak gaueko hamarretatik goizaldeko seirak bitartean bakarrik eman ahalko dira eta ikus eta entzunezko bitartekoen bidez adierazi beharko da horien edukia”.

EITBk eskuratu zigun informazioa ikusita, aipatu erakunde publikoari gomendio bat egitea egokia ikusi genuen, horretarako 25/1994 Legeak 17.2 artikuluan eta Adin Txikikoaren Babes Juridikoari, eta Kode Zibilaren eta Judiziamendu Kriminalaren Legearen Eraldaketari buruzko 1/1996 Lege Organi-

koan oinarritu ginelarik. Azken arau honek, adin txikikoek beraien garapenerako egokia den informazioa bilatu, hartu eta erabiltzeko eskubidea daukatela aitortu ondoren, administrazio publikoak ikuskapen zereginak betetzera behartzen ditu adin txikikoei zuzendutako telesaioek moral edo fisikoki kalterik egin ez diezaien. Bide horretatik, aipatutako arauak 5.3 artikuluan zera dio: "Bereziki zainduko dute komunikabideek adin txikikoei zuzendutako telesaioetan berdintasun, elkartasun eta besteekiko errespetu baloreak susta ditzaten, eta bortxakeriazko, pertsonen arteko harremanetako esplotazio irudiak edo tratu degradatzaile edo sexista isladatzen dutenak ekidin ditzaten".

Era berean, Ararteko honen iritziz telebista publikoak beraien ikusleak entretenitzen saiatu behar dira, baina helburu hori bakarrik ezin da kontuan hartu programen edukia aukeratzerakoan, bereziki horren kontsumitzaileak adin txikikoak direnean. Kasu hauetan, telebistak dibertitzeaz gain funtzio hezitzailea ere bete beharko luke.

Zentzu honetan, telebista publikoaren programazioko edukiek iradoki behar dutena bakerako hezkuntza, tolerantzia eta elkarbizitza dira, batez ere adin txikikoei zuzenduta dagoenean.

Aurrekoarekin batera Arartekoak zioen ikusle guztiak kontuan hartuta ordu tarte batzuetan adin txikikoak gutxi izaten badira ere arrazoi hori nahikoa litzatekela programatutako saioen edukiak aldatzeko eta ikus-entzule guztientzako saioak emateko. Beste era batera jokatuz gero, adin txikikoek osatzen duten talde horrek informaziorako daukan eskubidea urratu egingo litzateke.

Guzti horregatik, Arartekoak EITBri gomendatu zion "Dragoi-Bola" marrazki bizidunen saioa eta pornografia edo alferreko bortxakeriazko irudiak dauzkaten eszenak beste ordutegi batean eman ditzala, adin txikikoen garapen fisikoa, mentala edo morala kaltetu eta gaueko hamarrak eta goizaldeko seirak artean bakarrik eman daitezkeelako, daukaten edukia ikus-entzuneko bitartekoekin adieraziaz.

Luzatutako gomendioari erantzunez EITBk adierazi zigun Euskal Telebista ahaleginak egiten ari zela indarrean dagoen legedia betetzeko, baina pertsona baten salaketa edo desadostasuna eta arau baten aipamena ere nahikoak ez zitzaizkiela iruditzen.

Arartekoak igorritako gomendioa ez zela onartzen iritzi ondoren espedientea itxi eta artxibatu egin zuen, Eusko Legebiltzarrari Arartekoak aurkezten dion urteko txostenean jasoko zela jakinaraziz EITBri.

Monumentu historiko aitorpenerako espediente bati hasiera eman izanaren garrantzia (593/95)

Muxikako Oka Jauregiaren kontserbazioari buruzko kexa planteatu zuen hiritar batek.

Lehen informazioa Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eskatu zitzaion, izan ere interesatuak kexarekin batera bidalitako idatzi batean Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikorako zerbitzuak eraikina Eusko Jaurlaritzarena zela esaten baitzuen. Aurrerago Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak ziurtatu zuen bezala, ondasun hori ez zen berea.

Horregatik, Foru Aldundiko Kultura Sailera jo genuen, kultura ondasunen kontserbaziorako eskuduntzak administrazio horri zegozkiolako, eta horrelako kasu baten aurrean geundela zirudien.

Foru Aldundiak emandako erantzun laburrean esaten zen ondasuna ez zela berea, ez zela kultura ondasun bat eta, beraz, ez zeukala inolako ardura juridikorik higiezin horrekiko.

Erantzun horrek ez zuen Arartekoa ase, izan ere 1997ko irailaren 29ko Ondare Artistiko, Artxibo eta Museoen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren arabera Oka Jauregia kultura ondasun aitortzeko espediente bat hasita baitzegoen.

Beste esparru batzuetan gertatzen den bezala, aurrekontuen mugek hemen ere kultura ondasunen inguruko eskuhartzeetan lehentasunak ezartzera bultza dezakete. Horregatik, ez zen egokia ikusi Jauregia birgaitzeko iradokizun edo gomendio zuzenik egitea.

Kasu honetan, ondasunaren osoko konponketa eta konponketa hori egitea erraztuko zuten elementu kaltetuenen konponketarako aurre iharduera bereiztu beharra zegoen. Eusko Jaurlaritzako Ondare Artistikorako Zuzendaritza Nagusiaren txosten batek aurre iharduera horri ekitea gomendatzen zuen.

Ikuspegi horretatik aztertu ziren Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeak eskaintzen zituen aukerak, hain zuzen jabearen kontura burutu zitekeen exekuzio subsidiarioarenak.

Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeak 22.1 artikuluarekin lotuta 35.1 artikuluan aukera hori jasotzen zuen, eta horrela planteatu zen Foru Aldundiaren aurrean.

Foru Aldundiko Kultura Sailak txosten bat bidali zuen kultura ondasunentzako zeuden aurrekontu iragarpenen berri emanaz, eta aurreragoko urtealdietan konponketa premiazkoagoak sartzeko borondatea ere adierazten zen, horien barruan Oka Jauregia sartuaz.

Subsidiarioki lana egiteko aukeraz Arartekoak zeukan iritziarekin, ordea, ez zetorren bat. Gai zehatz honi buruzko bere jarrera ezagutu ondoren, Oka Jauregiaren egoerari buruzko iharduerekin jarraitzeko gure aukerak agortu eta espedientea artxibatu egin zen.

Emakumeek Irun eta Hondarribiko alardeetan parte hartzeari buruz (438/96 eta 949/96)

Bidasoaldeko Emakumeak kolektiboak erakunde honetara jo zuen Irungo San Martzialetako Alardean emakumeen partaidetza aktiboa galarazten zuten trabak salatzeko. Bestalde, Alardea arautzen duen Ordenantza aldatzea ere eskatzen zuten, idatzita dagoen bezala berdintasun printzipioa hausten duela uste zutelako.

Espreski Ararteko honek berehala esku har zezala eskatzen zenez gero, aipatu Ordenantza aztertu eta Irungo Udalari zenbait gomendio luzatu zitzaizkion, horiek ondoren laburtzen direlarik:

"... Lehenik aipatu behar da San Martzialetako Alardea dela Irungo jaietako ekitaldi nagusia, zeinarekin iraganeko zenbait gertaeraren ospakizuna eta historikoki hirian egondako miliziaren aitorpenarekin lotzen baitira. Gaur egun dagoen alardearen eraketak emakumeei desfilean parte hartzea debekatu egiten die -"kantineren" paperean salbu, eta horrek, ezer baino lehen sexu arrazoiengatik pertsonei tratu ezberdina ematea esan nahi du, eta hori gizarte demokratikoetan oinarrizkoa den tratu berdintasunarekin konparatu behar da. Irungo emakumeek gizonek bezainbateko eskubidea daukate -baldintza berdinetan- beraien hiriko kultura ekitaldi eta ospakizunetan parte hartzeko, aldi berean jaien garapen onean parte hartzeko betebeharra eta ardura beteaz.

Abiapuntu gisa berdintasunaren planteamendua onartuaz, objetiboki tratu desberdina dakarrena justifika dezaketen arrazoi historikoak, kulturalak edo beste era batekoak dauden baloratu behar da.

Lehenengoei dagokienez, onartu behar da ospatzen den ekintza historikoaren jatorria eta zirkunstantzia zehatzak ez direla zalantzatan jartzekoak, eta orain arte ezagutzen zen batailarik garrantzitsuenean agian emakumeek ere parte hartu zuten. Edonola, garbi dago Alardea batez ere jai bat dela eta ez gertakizun historiko baten erreproduzio leiala, eta, beraz, ezin da esan emakumeek desfilean parte hartzeak daukan esanahia aldatzen duenik inolaz ere.

Antza denez, emakumeei parte hartzea ukatzeko erabiltzen den beste arrazoi bat ohitura da: Alardea beti horrela izan da -esaten da- eta emakumeen partaidetzak desitxuratu egingo luke, orain arte eduki duen zentzua galaraziz. Argudio horren aurrean zera esan behar da, alde batetik, ohitura guztiak aldatzen direla eta ekintza historiko-kulturalak sentiberatasun ezberdinetara eta gizarte bizitzaren forma berrietara egokituz doazela. Ospakizunaren arrazoiak irauten duen arren, modu nabarmen edo ez hain nabarmenean aldatzen doaz errepresentazioaren zeinuak eta kanpoko formak: janzkera, musika tresnak, etabar.

Bestetik, emakumeek Alardean partea hartzeak ez dakar edukiaren aldaketarik: milizianoen (gizonen) desfilea izaten jarraituko luke. Nahi dena zera da, paper hori edonork errepresentatu ahal izatea, bere generoa edozein delarik ere, ezaugarri hori parte hartzen duten beste guztien janzkera berdinarekin estalita geratuko litzatekelako. Horrela, desfilearen itxura eta esanahia ez lirateke aldatuko.

Laburtuaz, ez dago emakumeek Alardean parte hartzea galarazten duen arrazoi historikorik ez ohiturazkorik. Baina egongo balira ere, guztiz onartezina litzateke horiek sexu arrazoiengatik diskriminatzea galarazten duen funtsezko arauaren gainetik beste horiek jartzea. Gizarte demokratiko batean ezin dira ezaugarri pertsonaletan oinarritu gizarte talde jakin bat kanpoan uztea dakarten ohiturak. Azken finean, horiei "tradizionalak" direlako eusteak berdin negargarria den bidegabekeria erreproduzitzea eta sakontzea esan nahi du.

Zentzu honetan, eta legeen ikuspegitik, alde batetik Euskal Autonomia Erkidegoko Jendaurreko ikuskizunak eta jolas iharduerak arautzeko 4/1995 Legeak 18. artikuluan debekatu egiten ditu "pertsonen funtsezko eskubideak hausten dituzten" ikuskizunak. Garbi dago aipatutako funtsezko eskubideen artean berdintasun eta sexu arrazoiengatik diskriminatua ez izateko eskubidea daudela (Konstituzioaren 14. art.). Bestalde, Irungo Udalak, aginte publikoa den aldetik, ezin du egoera diskriminatzaile batekin jarraitzea onartu, hain zuzen ere Konstituzioaren 9.2 artikuluan esaten denagatik, hots: "botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta taldea osatzen dutenena benetazko eta eragileak izan daitezen; baita galarazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere". Beraz, iharduera erabakior bat behar da ohitura eta pertsonen arteko berdintasuna uztartuaz egungo egoera gainditzeko eta festa berritzeko.

Amaitzeko, esan behar da Alardearen kasuan ez dagoela bakarrik berezko diskriminazio bat -emakumeek ezin baitute desfilatu-, baizik eta gainera Alardearen Ordenantzaren testuan bertan gaur egun inolaz ere onar ezin diren gizon eta emakumeen arteko tratu desberdintasunak jasotzen direla. Horrela, desfilean parte hartzen duten gizonei inolako baldintza berezirik eskatzen ez zaien bitartean, emakumeei -"kantinera" paperean baino ezin dira atera-, "aukeratuak" izan beharraz gain "edertasun, sotiltasun eta sinpatia aitortua" edukitzea eta "ezkongabeak" izatea eta gutxienez 20 urte beteta edukitzea esijitzen zaie, gizonek 18 urtetik aurrera parte har dezaketelarik. Emakumeari buruz pertsona heldugabe eta kanpoko ezaugarriengatik bakarrik baloratu bezala ematen den irudiak ez du beste aipamenik merezi...".

Arartekoak Irungo Alkateari bidali zizkion aurreko gogoetak, eta esan den bezala diskriminatzailea izan zitekeen Alardean emakumeei parte hartzen uztearen kontrako jarrera justifika zezaketen arrazoien berri eman ziezaiola eskatu zion.

Alkate horrek San Martzialetako Alardeari buruzko agiri ugari eta apirilaren 24ko osoko bilkuran onartutako Alardearen Ordenantzaren testua igorri zituen erakunde honetara.

Arartekoa agiri horiek aztertu ondoren ondorio honetara iritsi zen: San Martzialetako Alardeko Ordenantza berriak, 25. artikuluan adinari buruz jasotzen duen aldean salbu (gutxienez 18 urte gizonentzat eta 20 emakumeentzat), pertsona guztiei zor zaien tratu berdintasunerako agindu konstituzionala betetzen du, aipatutako arauan ez baita azaltzen desfilean nahi duten emakumeei parte hartzea debekatzen dien inolako agindurik.

Esandako hori, ordea, Ordenantzaren edukiari bakarrik dagokio, ez bere interpretazio eta ezarpen praktikoari. Bigarren aspektu honi dagokionez, erakunde honek "*San Martzialetako Alardeko Batzarrak 1996ko maiatzaren 11ko bileran onartutako Agiria*"ren berri izan zuen. Bertan espreski aztertzen da emakumeek Alardean parte hartzearen gaia, eta hau dio:

"4.- Alardearen Batzar honek dio, ohiturari jarraituaz Alardea Unitate eta Konpainia ezberdinetako ***gizonez osatua egongo dela****, beraien Kantinerekin, 1881. urtea geroztik egiten den bezala".*

Ordenantzako 41. artikuluaren arabera, araudi hori ezartzerakoan sor daitezkeen interpretazio eta ezarpen mailako "*zalantzak ebaztea*" Alardearen Batzarrari dagokionez gero, ulertu behar da batzarraren iritziz -eta hori jakinarazi die Alardeko agintariei- emakumeek ezin dutela desfilean parte hartu eta beraz, hori galarazteko neurriak hartu behar direla.

Arartekoak aurrekoaren bidetik berriro gogorarazi zion Alkateari, Batzarreko Presidentea zenez gero, eta batez ere zeukan kargu publikoarengatik egiazko berdintasuna sustatu eta hori galarazten duten trabak kendu beharra zeuzkala.

Berriro esan zitzaion "*ohitura eta gure arbasoen ekarpena bizirik gordetzeko*" Batzarrak zeukan helburua ez zihoala emakumeek soldadu jantzita desfilean parte hartzearen kontra. Ohiturak, hain zuzen bizirik jarraitzeko, aldatu eta gizartearen zirkustantzien bizitasunera egokitzen dira. Eta hain zuzen Alardea aldatuz joan da, ez baita Milizia Foralen Arma Erakustaldi eta Jendearen Errebistaren erreproduzio zehatza, aldiz, festa ekitaldi bihurtu den gertakari haren ospakizuna da.

Era berean, ohitura berdintasunaren funtsezko eskubidearen hausketa babesteko ezin dela erabili ere gogoratzen zen, eta baieztapen horren lagungarri gisa -begibistakoa den arren- oinarrizko printzipio horren kontrako edozein xedapenek inolako indarrik ez daukatela dioten zenbait lege ebazpen igorri zitzaizkion.

Amaitzeko, Irunen sortutako arazoa beste leku batzuetan ere azaldu zela esaten zen, izan ere emakumeak oro har iraganean ia jai eta ospakizun publiko guztietan baztertuak egon baitira. Emakumeak horietan sartu izanak, ordea, -eta hori gizartea eta kultura ulertzeko modu berriek ezarri dute- inondik ere ez du desitxuratu ospakizun horien zentzua.

Guzti horregatik, Arartekoak bi gomendio egin zizkion Irungo Alkateari:

1) *Udalbatzarra eta Alkatea bere Presidente bezala Konstituzioaren 9.2 artikuluari lotuta daude, zeinetan esaten baita aginte publikoak beharturik daudela pertsonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko baldintzak sustatzera. Arau horri ezarririk, Alkateak berak presiditzen duen Alardearen Batzarrari jakinarazi behar dio iragan maiatzaren 11ko Agiriaren 4. puntua ilegala dela, eta beraz, bertan xedatua ezin dela ezarri. Era berean, udalbatzar horrek, sexu arrazoiengatik inolako bereizketarik gabe Alardean parte hartu nahi duten hiritarrak babestu behar ditu.*
2) *Alkateak, udalaren agintari gorena den aldetik, San Martzialetako Alardea hiritar guztientzat batasun eta adiskidetasun giroan ospatzeko bidea eman behar die, eta horregatik jarrera eta sentiberatasun ezberdinen artean bitartekaritza lanak egitea komeniko litzateke, jaia adiskidetasunean ospatzea erraztuko luketen elkarrizketa eta konponbide baketsua sustatuaz.*

Auzian zeuden bi alderdiek jarrera ona zeukatela erakusteko Alardeko agintariek eta Bidasoako Emakumeak kolektiboko ordezkariek bilera bat egin zuten, Alkateak bitartekari lanak egin zituelarik. Alabaina, tamalez ikuspegi ezberdinak adostu eta Irungo jaietan hiritar guztiek berdin parte hartzeko formula zehatzik ez zen aurkitu.

San Martzialetako Alardea joan den ekainaren 30ean ospatu zen, eta komunikabideek jakitera eman zuten bezala, parte hartu nahi izan zuten emakumeei galarazi egin zitzaien, tentsio eta enfrentamendu uneak ere bizi izan zirelarik, baina badirudi datozen urteetarako soluzioak bilatzeko elkarrizketa hasteko borondatea badagoela.

Irungo arazoaren antzekoa bizi izan zen Hondarribian herri horretan irailaren 8an ospatzen den Alardean. Arartekoak kasu horretan ere parte hartu zuen Bidasoaldeko Emakumeak kolektiboak eskatuta. Bigarren kasu horretan, ordea, Alkateak ez die erantzun erakunde honetatik bidalitako idatziei eta Udalak ez du arazoa modu baketsuan konpontzeko jarrera aktiborik hartu ere egin. Izan ere, Hondarribian oso egoera larria bizi izan zen, desfilean parte hartu nahi izan zuten emakume batzuk zaurituak eta guzti gertatu zirelarik.

3.3.2.2. **ELEBITASUNA**

Osasun alorrean euskara erabiltzeari buruzko kasu bat (958/96)

Haur batzuen gurasoek Osakidetzarekin izandako harremanetan euskararekin izandako arazoengatik aurkeztutako kexa bat jasotzen dugu hemen.

Guraso horiek, Osakidetzan euskara normal erabiltzeko dauden arazoei buruz ohar orokor batzuk aurkeztu ondoren -Eusko Legebiltzarrean txosten bat baino gehiagotan aztertu den gaia-, honetan zentratzen zuten kexa: eskola-osasunerako programetan erabiltzen diren inprimakiak bi hizkuntzetan idatzita egon arren, gurasoentzako agiriak gauzatzeko orduan gazteleraz bakarrik betetzen dira.

Eskola-osasunerako programei zegokion beste kasu bat lehendik ere planteatua zitzaigun, eta Osakidetzari informazioa eskatzerakoan hari buruz ari ginen.

Osakidetzako Zuzendari Nagusiak emandako erantzunak zioenez, egia zen inprimaki elebidunak erabiltzen zirela, eta ikastetxera joan behar zuten osasun alorreko langileak aukeratzerakoan bisitatu beharreko ikasleen hezkuntz eredua hartzen zela kontuan.

Funtzionamendurako arau orokorra hori den arren, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak beste kexa hau ikusirik eskola-osasunerako programen arduradunei idatzi bat bidali zien euskara nagusi den ikastetxeetan hizkuntza horren erabilerara egokitu zitezela gogoratuz, seme-alabentzat euskarazko irakaskuntzaren aukera egiten duten gurasoek Administrazioarekiko txostenak edo harreman idatziak nahiz ahozkoak ere hizkuntza horretan garatzea nahi dutela pentsatu behar delako.

Interesatuari iharduera horien berri eman ondoren, artxibatu egin zen kexa espedientea.

Udal bizitzan euskararen erabilerari buruzko kasua (1015/96)

Zinegotzi batek Arartekora jo zuen Areatzako Udaleko euskara erabilerarekin ados ez zegoelako, berak ez baitzekien hizkuntza hori.

Kexa aurkeztu ondoren, Arartekoak Alkate jaunarengana jo zuen planteatzen ziren gaiei buruzko informazio eske. Informazioa eskatzeko tramite horrekin batera, erakunde honek kasu horien aurrean dauzkan irizpide nagusiak azaldu zizkion. Hau izan zen txosten eskaria:

"Zuregana zuzentzen naiz Ararteko honetan Udal horretako zinegotzi batek aurkeztu duen kexa baten bidetik, non diskriminatua dagoela adierazten baitu Udalaren osoko bilkurak euskara hutsean egiten direlako. Bere kexan, zenbait udal agiri (aurrekontuak, etabar) euskaraz bakarrik eman zaizkiolako ere kexu azaltzen da.

Erakunde honetan beste inoiz ere planteatu izan da antzeko kasuren bat, non beste udal bateko zinegotziek udal bizitzan euskara bakarrik erabiltzen zelako burutzen zen iharduera diskriminatzailea zela salatzen baitzuten.

Orduan egin ziren gogoetak oraingoan ere baliagarriak direlakoan nago. Horregatik, ezer baino lehen, egokia deritzot 1990eko Eusko Legebiltzarrari Txostenean esandakoari heltzea, bertako gomendioen atalean udal administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko oharrak jasotzen baitira.

Erkidego honetako hizkuntza ofizialen erabileraren bidetik planteatzen diren arazoak aztertzerakoan, bi ikuspegitatik egin beharrean nago: gaztelerarekin batera koofiziala den euskara erabiltzeko eskubidearen aldetik, eta euskara ez jakitearen aldetik, arrazoi hori defentsarik gabeko egoera baten sortzailea izan daitekeelako.

Ikuspegi horretatik, hizkuntza bat ez jakiteagatik defentsarik gabe aurki daitekeen pertsonaz arduratu beharra daukagu.

1) Kexaren lehen puntuak osoko bilkurak euskara hutsean egiten direla dio, orain arte bilkura horietan aldibereko itzulpen lanak idazkariak berak egiten zituen arren. Kexa aurkezleak dioenez, azken hilabete hauetan laguntza hori nahikoa ez dela ikusi da.

*Zinegotziek beraien ahozko adierazpenetan euskara erabiltzeari dagokionez, Udalbatzen Antolamendu, Funtzionamendu eta Lege Erregimenerako Araudiak 86.2 artikuluan garbi argitzen du arazo horri buruzko edozein zalantza: '**2. Eztabaidetan, gaztelera nahiz dagokion Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofiziala erabili ahalko da**'.*

Aipatu den 1990eko Legebiltzarrari Txostenean aztertu zen kasuan, zinegotziei euskaraz hitz egiten zenaren gaztelerazko laburpenak egiteko jarritako bitartekoak aztertu ziren.

Arazo hori maiatzaren 10eko 1.111/1970 Erret Dekretuan ezarritakoaren arabera aztertu zen, bertan hizkuntza ofizialetako edozein

erabiltzeko aukerarekin batera hizkuntza autonomikoetan egindako adierazpenak gaztelerara laburtzeko eskaria iragartzen baitzen.
Iragarpen hori gauzatzeko aukerak ezberdinak izan daitezke: adierazpen guztiak aldibereko interpretaritza bidez itzultzetik hasi eta zinegotzi interesatuaren eskariz itzulpena egitera bitartekoa, bietako edozein baliagarria izan daitekeelarik.
Kexa aurkeztu duen zinegotziak aitortzen du emandako azalpenetan idazkariak egiten duela adierazpenen itzulpena, eta beraz ezin da esan lege hausketa dagoenik.
*Alabaina, orobat kexan adierazten du "**azken hilabeteetan laguntza hori nahikoa ez dela ikusi**" dela, eta horregatik Ararteko honek jakin nahi du laguntza hori nola ematen den.*

2) Kexaren bigarren arrazoia aurrekontuak euskaraz bakarrik eskuratu izanari dagokio zehazki.
*Aipatu den Udalbatzen Antolamendu, Funtzionamendu eta Lege Erregimenerako Araudiko 86.1 artikuluaren arabera, euskaraz bakarrik idatzita egoteak ez dio inolako baliorik kentzen. Artikuluak honela dio: "**Bileretarako deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, botu partikularrak, akordio proposamenak eta informazio batzordeen erizpenak gazteleraz edo erakundearen Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialean idatziko dira, ezarri daitezkeen legeen eta horri dagokionez dagokion Udalak hartutako erabakien arabera**"*
Iragarpen hori euskararen izaera ofizialarekin bat dator.
Azken iragarpen hori, ordea, Euskararen Normalizaziorako Oinarrizko Legearen 8.3 artikulua izango zenari buruz Konstituzio Auzitegiak egiten zuen interpretazioarekin osatu behar dugu (82/86 AKE), aipatu artikuluak baimena ematen baitzien aginte publikoei zenbait kasutan euskara bakarrik erabiltzeko.
Epai horrek aipatutako iragarpenaren aurrean ezarri zuen konstituzioaren aurkakotasunak, euskara ez zekiten pertsonen eskubideak kaltetu zitzakeelako, kexa hau eragin duen kasuan agiri ofizialak idatzita dauden hizkuntza ezagutzen ez dutela frogatu dezaketen zinegotziei udal bizitzan modu eraginkorrean parte hartzeko eskubidea bermatu behar izatera garamatza.
Aurrekoa kontuan izanik, eta kexa honen funtsa aztertu ahal izateko, Ararteko honek beharrezkoa ikusi du kexa eragin duten bi gaiei buruzko informazioa eskatzea: itzulpenari dagokionez aurreikusita dagoena, zinegotzi interesatuak osoko bilkuretan nahikoa ez dela adierazi duelako, 2) hala eskatzen denean agiri ofizialak gaztelerara itzultzeko dauden bitartekoak".

Alkate jaunaren erantzuna jaso ondoren egindako azken osoko bilkuren grabazio-zintak ere eskatu ziren. Bi elementuak, alegia Alkate jaunak bidali zigun

txostena eta osoko bilkuren grabazio-zintak aztertu ondoren, interesatuari eta Udalari ondoko oharrak bidali genizkien:

Legebiltzarrari aurkezten zaion Urteko Txostenean Arartekoak elebitasun gaiei buruz aurkeztu zaizkion kexei buruzko ikuspegia eman du. Txosten horietan, Erkidego honetako hizkuntz erabilerari buruzko edozein azterketa hizkuntz koofizialtasuna dagoela kontuan izanik egin behar dela esaten da. Bi hizkuntza ofizialak berdin araututa daude, eta, beraz, biek daukate babes juridikoa.

Osakera juridiko horrek errealitatean islada berdina ez daukanez gero, baieztapen horrek batzuetan arazoak sortzen ditu. Hori gertatzen da pertsona batek bi hizkuntza ofizialetako batean zerbitzu bat eskatu nahi eta dauden zirkunstantziengatik biei tratamendu berdina eman ezin zaienean.

Kasu hori normalean hiritar batek halako zerbitzu bat euskaraz eskatu duenean gertatu izan da, baina oraingoan euskararen erabileragatik eta erabilera horrek hizkuntza ofizial hori ez dakielako daukan eraginagatik gertatu da. Kasu hauetan, planteatutako arazoa gainditzeko bitartekoak jarri arren, eskainitako irtenbidea ez da beti beste hizkuntzari ematen zaiona bezain berdina.

Testuinguru horretatik abiatuaz, kasu bakoitzean aztertu beharko da bi hizkuntza ofizialetako bat erabili duen pertsonari eragindako kalteak bietako bat erabiltzeko eskubidea edukirik gabe geratzerainokoak ote diren. Hau da, hizkuntza bat edo bestea erabiltzeak kasuren batzuetan desberdintasunak ekar ditzakeela onartuz gero, aukera egiten duen pertsonaren eskubidea edukirik gabe uzteari, edo bi hizkuntza ofizialetako bat bakarra erabiltzera behartutakoa diskriminatzeari egin behar zaio aurre.

Aztertzen ari garen kasura etorriz, bi gai planteatzen dira: osoko bilkuretan euskararen erabilera ohizkoa izatea, eta agiri ofizialak euskaraz bakarrik idaztea.

1- *Euskararen erabilera Udaleko osoko bilkuretan*

Osoko bilkuretan euskara bakarrik erabiltzeko eskubideari dagokionez, Alkateari zuzendutako gure eskari idazkian jasota dagoen bezala Arartekoak uste du ezin dela inolako arazo juridikorik planteatu.

Bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko aukera horrekin batera, hizkuntza autonomikoan egindako adierazpenen gaztelerazko laburpena eskatzeko aukera aipatzen genuen. Puntu honi dagokionez, Udalak bidalitako txostenean esaten zen Idazkariak edo zinegotzi batek egin izan dituela euskarazko adierazpenen itzulpenak.

Hori horrela zen ikusteko osoko bilkura batzuen grabazioak entzun eta ondorio hauek atera genituen:

a) Egia da zinegotzi ia guztiek euskaraz hitz egiten dutela.
b) Batzuetan adierazitakoaren gaztelerazko laburpena egiten da, eta beste batzuetan euskaraz ez dakien zinegotziak eskatzen du edo azalpenen bat nahi duen galdetzen zaio.
c) Euskaraz adierazitakoa gaztelerazko laburtzeko inolako arazorik ez zaio jarri izan.

d) Gai-zerrenda bi hizkuntzetan idazten da, eta hori agiri bidez frogatu da.
e) Gazteleraz hitz egiten duen beste zinegotzi bati eta interesatuari ere gazteleraz erantzuten zaie edo elkarrizketek hizkuntza horretan jarraitzen dute.

Xehetasun horiek kasu honi buruz egin beharreko balorazioa neurtzera eraman behar gaituzten faktoreak dira. Faktore horiek, euskara erabiltzeko eskubide baliokidea kontuan izanik, euskara ez jakiteko eta gaztelera erabiltzeko maila bereko eskubidea aitortzeko ahalegina edo borondatea isladatzen dute.

Bestalde, egoera honek materialki daukan eraginari dagokionez, Arartekoak ez zuen ikusi zinegotzi lana garatzea galarazten zion defentsa eza sorrarazten zuen inolako diskriminaziorik. Horrek ez du esan nahi kasu hauetarako hizkuntza bat edo bestea erabiltzea berdina denik, baizik aztertu den kasuan, euskara ez jakitea gainditzeko neurri zuzentzaileak hartzen direnez gero, ez dago defentsa ezintasunik.

Beraz ondorioa hau da: kasu honetan, ahozko erabileraren ikuspegitik, euskara erabiltzeko eskubideak, euskara ez jakiteak bere ordezkapen eskubidean eragiten dituen ondorioei kontrajarriaz, ez du lege hausketarik eragin. Horregatik, azaldutakoa azaldurik, ez geunden Arartekoak zuzenketa bat eskatu beharreko kasu baten aurrean.

2- *Agiriak euskaraz idaztea*

Agiriak idazteko erabiltzen den hizkuntzari dagokion atal hau lege mailan daukan garrantzia kontuan izanik aztertu zen, eta hori Konstituzio Auzitegiaren dotrinak eta Areatzako Udalak daukaten irizpidea kontuan harturik egin zen. Azkenik, bere ezarpena ere aztertu zen.

a) *Irizpide legala eta Konstituzioaren interpretazioa*

Alkate jaunari zuzendutako gure idatziko lehen puntuan esaten zen bezala, Udalbatzen Antolamendu, Funtzionamendu eta Lege Erregimenari buruzko Erret Dekretuak, zehazkiago 86.1 artikuluan aitortzen du berdin balio dutela gazteleraz edo Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialean idatzitako agiriek.

Iragarpen hori dotrina konstituzionalaren (82/86 KAE) argitan interpretatzeko premia ere adierazi zen, euskara ez dakiten pertsonen eskubideak babesten baititu.

b) *Udalaren irizpide orokorra*

Alkate jaunaren txostenak dio agiriak bi hizkuntzetan idaztea dela irizpide orokorra, beraz ez dirudi dotrina konstituzional hori auzitan jartzen denik.

c) *Kasu zehatz honen ezarpena*

Irizpide hori betetzen den ala ez eztabaidatzeak ez liguke denbora gehiegi eraman behar, hori frogatzea erraza delako. Agian horregatik Udalak onartzen du 1996ko aurrekontuak euskaraz bakarrik igorri zirela.

Grabazio-zintak entzutean ikusi zen interesatuak eta Alkate jaunak arazo horretaz hitz egin zutela. Grabazioa entzun ondoren esan daiteke ez dagoela desadostasunik, nahiz eta Alkate jaunak onartu batzuetan euskaraz bakarrik idazten direla.

Beraz, bi hizkuntza ofizialei ezarri beharreko irizpideen inguruan hasiera batean behintzat desadostasunik ez dagoela ikusirik, derrigor itzuli nahi ez den agiriaren kasura mugatu beharko litzateke. Horri dagokionez Udalaren txostenak dio eskatutako azalpenei erantzun zitzaiela eta interesatuak horiek onartu zituela, baina baita ere aitortzen du aurrekontuen txostena euskaraz bakarrik idatzita zegoela.

Horregatik, udalak agiriak bi hizkuntzetan idazteko daukan irizpide orokorra ez zen bete kasu horretan. Halere, erakunde honen ustez aspektu hori bakarrik kontuan edukiko zuen azterketa batek era berean neurtu beharreko beste faktore batzuk (bitarteko tekniko edo langile mugak, diru mugak, alegia) alde batera uzten zituen.

Beste arrazoi bat ere kontuan izan behar zen, gai-zerrenda elebiduna izatea alegia, gero osoko bilkuran aztertuko diren gaiei buruzko informazioa ematen duelako.

Faktore horiek, bestalde, ezin dira irizpide orokor gisa bakarrik aipatu, baizik horien garrantzia kasu bakoitzean aztertu beharko da. Adibidez, kexa eragin zuen kasuan, euskaraz bakarrik idatzita egotea ez zen gainditu ezinezko arazoa, edozein unetan erabil daitezkeen itzulpen eskubideez baliatuz gero. Baina ez zen gauza bera izango hiritar guztiei zuzendutako agindu baten kasuan, hizkuntza ez jakiteagatik aurkez ditzaketen alegazioak egiteko biderik gabe utziko lituzkeelako.

Huts batek alegaziorik eza edo hiritar bat prozesu batean interesaturik egon eta materialki parte hartu ezin duenean, edo kasu honetan bezala, ordezkapen eskubidea erabili ezin duenean gertatzen da egiazkoa eta eraginkorra den defentsarik eza.

Gogoeta horien ondoren Arartekoa ondorio hauetara iritsi zen:

a) Legeen eta Konstituzioaren ikuspegitik ez zen lege hausketa egon zenik ikusi.
b) Udalak agiri elebidunak idazteko irizpidea daukala ikusirik, hori zuzena da. Zilegi da halaber interesatuak Areatzako Udalari hori gogoratzea, alegia hartutako erabakia beteaz agiriak bi hizkuntzetan argitaratzen saiatu behar dela beti.
c) Irizpide horien ezarpena aztertu ondoren, Udalak agiriak elebidunak izan behar direla dieon arren, agiriren bat euskara hutsean argitaratu izanak ez du lege hausketarik suposatu, ez baita frogatu horrekin materialki defentsarik gabe inor utzi zenik.

Azken ondorioa, beraz hau izan zen: Arartekoaren kontrolpean jarritako ekintzek, hau da, osoko bilkuretan euskara erabiltzeak eta agiriak euskaraz bakarrik idazteak ez zuten euskaraz ez jakiteagatik ordezkapen eskubidean lege hausketarik eragin.

Ertzaintzaren esparruko euskararen erabilera kasu bat (1137/96)

Zirkulazio arau bat ustez hausteagatik salatua izan zen pertsona batek ondoko kexa aurkeztu zuen euskararen erabileragatik.

Kexan adierazten zuenez, ertzainak salaketa-orria eman zionean gazteleraz bakarrik beteta zegoen, eta bere izen abizenak gaztelarazko grafiarekin zeudela ikusi zuen. Horregatik, poliziari esan zion euskaraz harremanak izan nahi zituenez gero, salaketa ere euskaraz idatzita nahi zuela.

Polizia, orduan, berriro autora itzuli omen zen salaketa berri bat idaztera. Salaketa berri horretan, ordea, abizenen grafia bakarrik aldatu omen zen, gainerantzekoak gazteleraz jarraitzen baitzuen poliziak euskaraz idazten ez zekielako. Horregatik ez zuen salaketa-orria sinatu.

Gertakari horiek Beasainen gertatu ziren, salaketa-orrian adierazten denez. Informazio eskarian zirkustantzia hori espreski aipatzen genuen, Arartekoaren ustez arazo hori ezin baita Beasaingo Komisaldegian dauden polizien hizkuntza ezagutzaren ikuspegitik bakarrik aztertu, aldiz, ertzainek beraien zerbitzua ematen duten esparruan daukaten euskararen ezagutza eta erabilera mailaren arabera ikusi behar zen.

Aurretik, antzeko beste salaketa baten bidetik eta Beasaingo Ertzaintzaren komisaldegiko atestatu-taldeen (bost) euskara ezagutzari buruz eman zitzaizkigun datuen arabera, bi taldetan salbu nekez erabil zezaketen euskara. Datu horien argitan, patruiletan atestatu-talde horietan halako euskara maila baldin badago, salaketa euskaraz idaztea kasu gehienetan ezinezkoa izango da.

Aurkeztutako kexa ez zen bakarrik idatzizko erabilerarengatik aurkezten, baizik ertzainarekiko ahozko erabilerara ere hedatzen zen. Esaten zenaren arabera, ahozko harremana jario handikoa izan ez bazen ere, garbi zegoen ertzainak euskaraz hitzegiteko jarrera behintzat erakutsi zuela. Esaten zenagatik jarrera argia izan zen, zeukan ezagutza maila oso oinarrizkoa izan arren.

Kexa horrek itxuraz egoera nahiko orokor bat isladatzen du.

Bestalde, pertsona horiek ondoren alegazio batzuk aurkeztu zituztenez gero, prozeduran Legeak euskararen erabileraz dioena bete ote zen jakin nahi izan genuen. Horri esker ikusi zen alde handia dagoela euskararen erabilerari buruzko Legeak agintzen duena administrazioaren zigor prozeduren esparruan betetzerakoan eta Ertzaintzari dagokionaren artean, azken honetan euskalduntze plana oraindik martxan jarri gabe dagoelako.

Honelako egoerak bitartekorik jarri ez delako gertatzen dira, eta zaila da, beraz, administrazio bakoitzak euskara behar adina ezagutzen duen jenderik ez edukitzeagatik gertatzen diren hutsegiteak zuzentzeko egindako ahaleginak neurtzea.

Edonola, eskubide hori ematea libreki erabaki ezin denez gero, Arartekoa euskararen erabilera ez betetzeagatik aurkezten diren kexa hauek jaso beharrean aurkitzen da.

Kexa hauek kontutan hartu beharrekoak dira, bestela hiritarren eskubideak defenditzeko iragartzen diren bideak mamirik gabe utziko genituzkeelako.

3.3.3. **OFIZIOZKO IHARDUERAK**

EITBk martxoaren 8ari buruzko iragarki bat emateari uko egitea (10/96/OI)

Martxoaren lehen egunetan erakunde honek EITBk hartutako erabaki baten berri izan zuen, zeinaren arabera Bizkaiko Emakumeen Asanbladak martxoaren lehen aste horretan, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzen zela eta aurkeztu zuen iragarkia ematea ukatzen baitzen.

Erakunde publiko hori iragarkia atzera botatzeko Administrazio Kontseiluren arau batean oinarritu zen, arauak galarazi egiten baitu "*ideia filosofiko, erlijioso edo politikoak dauzkan publizitatea*" ematea. EITBk zioenez, pluraltasuna eta berdintasuna babestea zen arau horren helburua, eta arau hori hautsi egingo litzateke ahalmen ekonomiko gehiago eduki eta beraien aukera ideologikoak "ordain" ditzaketen taldeei lehentasuna emango balitzaie.

Arartekoak bere aldetik uste zuen eskatutako iragarkia ez ematea behar adinako arrazoirik gabe adierazpen askatasuna eta ideien hedapena moztea zela.

Erakunde honen ustez, EITBk bere erabakia babesteko aipatzen zuen araua ez zen kasu honi ezartzeko modukoa. Iragarkia egoera sozial zuzenagoa eta berdintasun baldintzetan sakontasuna aldarrikatzera mugatzen zen. Eta pertsonen eta gizarte taldeen arteko berdintasuna ez da ideia filosofiko ez politiko bat, baizik elkarbizitza demokratikoaren oinarri eta Konstituzioak 1.1 artikuluan jasotzen duen eraketa juridikoaren balore gorenetako bat.

Debekua ezartzen duen arauak adierazpen askatasuna eta komunikabideetan sartzeko muga ezartzen duenez gero, modu murriztailean interpretatu behar da. Horregatik, ideia politikoak edo erlijiosoak hedatzea hori egiten duten taldeen arabera aztertu behar da: talde batzuek ideia batzuk aukeratuko dituzte, eta besteek berdin baliagarriak diren beste aukera ezberdin batzuk. Kasu horietan, ideia bat sustatzea besteen kalterako izango litzateke, baina aztertzen ari garen kasuan ez zen hori gertatzen. Pertsonen arteko berdintasunaren defentsa ez da gizarte talde jakin baten ideia, baizik eta, esan den bezala, gizarte bizitzaren antolamendu demokratikoaren oinarrizko zutabeetako bat. Berdintasun printzipioari ez zaio beste inolako legezko printzipiorik kontrajartzen. Esparru honetan onartezinak dira jarrera kontrajarriak; are gehiago, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren defentsa bete-betean legez kontrako publizitatearen alorrean sartuko litzateke, "pertsonen duintasunaren kontra" doalako eta "Konstituzioan aitortutako baloreak eta eskubideak" hausten dituelako (Publizitatearen Lege Orokorraren 3.a art.).

Laburbilduaz, berdintasuna sustatzea ideia politiko, filosofiko edo erlijiosoak zabaltzearekin konparatu ezin denez gero, EITBk aipatutako araua ez zen ezargarria.

Argudio horretaz gain, Arartekoa beste arrazoibide batzuetan ere oinarritzen zen, horien artean ondokoak azpimarra daitezkeelarik:

Alde batetik esaten zen iragarkiaren edukia guztiz bat zetorrela Euskal Administrazio Publikoak, eta batez ere Emakundek onartutako helburuekin eta

iharduera programekin. Horrela, Institutu horrek osatutako II. Ekintza Plan Positiboak, "Kultura eta komunikabideak" alorrerako daukan lehen helburuak honela dio: "*Emakumeek eta gizonek esparru publikoan eta pribatuan berdintasunez parte hartzeko premiaz euskal gizartea sentsibilizatzea, eskubide eta betebeharretan bi sexuen arteko erantzunkidetasuna sustatuaz*".

Ez da ahaztu behar Euskal Irrati-Telebista Erakunde Publikoa sortzen duen 5/1982 Legeak bere funtzionamendurako printzipioetan berdintasun printzipioa errespetatzea eta Konstituzioan eta Autonomi Estatutuan (3.c eta 3.d art.) aitortutako elkarbizitzaren balore zibikoak sustatzea jasotzen dituela.

Garbi zegoen Bizkaiko Emakumeen Asanbladak egindako iragarpena betebetean sartzen zela euskal administrazioak lortu nahi dituen helburuen artean, eta, beraz, horiei trabak jarri ordez sustatu eta bultzatu beharrekoak ziren.

Bestalde, erakunde publikoaren arrazoiketari dagokionez, kolektibo pribatu batek manifestazio baterako egiten duen deialdia ezin dela publizitatean sartu alegia, Arartekoak hau uste zuen: lehenik, deialdia bigarren mailako gauza zela iragarkiaren osotasunean; eta bigarrenik, hori guztiz zilegia izateaz gain, martxoaren 8ko manifestazioa guztiz ohizkoa eta ia instituzionala dela, emakumeen kolektibo ugarik eta sindikatuek elkarrekin antolatzen dutelako. Hirugarrenik, eta arrazoibide hau ere besteak bezain garrantzitsua da, erakunde honen ustez iragarkia ez emateko erabakiak ez zion erantzuten kasu guztietarako erabiltzen zen irizpide homogeneoari. Horregatik gogorarazten zen EITBk beste kasu batzuetan iniziatiba pribatuak antolatutako manifestazio publiko edo bilera jendetsuen publizitatea eman izan duela.

Beraz, Arartekoaren iritziz iragarkia ematera ukatzeak adierazpen askatasunerako eta jabetza publikoa daukaten komunikabideetan sartzeko eskubide konstituzionala behar bezala justifikatu gabe mugatzea zekarren, eta gainera diskriminatzailea izan zitekeen, EITBren aldetik beti jokaera bera eramaten ez zelako.

Azaldu diren arrazoiengatik Arartekoak gomendio bat egin zion EITBri, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak martxoaren 8a ospatzen zela-eta egindako iragarkia sartzeko baimena eman zezan. Iharduera berehala gauzatu behar zen, ez baitzeukan zentzurik mezua aipatu eguna pasatu ondoren emateak, eta horregatik gomendioa berehala egin zen erakunde honetan ohizkoa den bezala EITBri informazio gehiago eman zezan eskatu eta zain egon gabe. Horrek ez zuen esan nahi EITBren ustez garrantzitsuak izan zitezkeen beste azalpen edo aportazio osagarriak entzungo ez genituenik.

Gomendioa hilaren 6an bidali zen eta bizkortasun izugarriarekin, martxoaren 8an bertan EITBko Zuzendari Nagusiaren gutun bat jaso zen erakunde honetan: bertan esaten zen Administrazio Batzordearen Presidenteak berretsi egiten zuela iragarkia ez emateko hartuta zegoen erabakia. Horretarako, Kontseiluko legelari-aholkulariak egindako txostenean oinarritzen ziren, zeina gizabide handiz ezagutu eta azter genezan bidali zigutelarik.

Txosteneko argudio nagusia ematea eskatzen zen mezuaren izaera filosofikoa azpimarratzean zetzan. Guk genioen pertsonen arteko berdintasuna sustatzea ezin dela zentzu hertsian ideologiatzat jo, gizarte antolamenduaren oinarrizko

printzipioa delako eta ukatzeak elkarbizitzaren lege eta kultura oinarriak hautsiko lituzkeelako; txostenean berriz esaten zen iragarkiak eduki filosofikoa zeukala, gizakia zer den aztertzen zuelako. Era berean zioen "*berdintasuna elkarbizitzaren oinarrizko printzipio gisa harturik ez dela unibokoa ezta kontzeptualki ere*", eta horregatik esparru honetan planteamendu kontrajarriak egon daitezkeela. Azken batean hau da txostenaren ondorioa: "*Elkarte jakin eta gizaki eta sexuen harremanaz gauzak ulertzeko ere modu jakin bat daukan publizitatearen aurrean gaude, eta horregatik garbi dago ideia filosofikoen publizitate ordainduaren debekuan bete-betean sartzen dela, agindua ulertzeko modua nahi bezain estua izan arren*".

Bestalde, txostenak baiesten du era horretako publizitate ordaindua onartzeak arrazoi ekonomikoengatik kolektibo batzuk besteen parean diskriminatzea ekarriko lukeela. Amaitzeko, planteatutako arazoak adierazpen askatasunarekin zerikusirik ez daukala dio, hori albistegi saioen eta eztabaida programen bitartez bideratzen delako, eta inondik ere ez publizitatearen bidez.

Txostena bidali eta handik denbora batera EITBko Zuzendari Nagusiak erakunde horren kontrol parlamentariorako Batzordean agerraldia egin zuen erakunde publiko horrek iragarkia ematera ukatzeko eduki zituen arrazoiak azaltzeko, eta aipatu diren argudioak berretsi zituen.

EITBri erakunde honek egin zion gomendioa onartu ez zen arren, Arartekoak iritzi zuen gaiak gogoeta pausatuagoa merezi zuela, ez bakarrik arazoa etorkizunean berriro plantea daitekeelako, baina baita kasu zehatz hau ideiak libreki hedatzeko eskubidearekin eta komunikabideetan sartzeko aukerarekin lotzen delako ere. Horregatik, erakunde honek bere iharduera amaitutzat eman aurretik berriro EITBra jo zuen gogoeta hauek jakinarazteko:

1- Bizkaiko Emakumeen Asanbladak proposatutako mezua "*filosofia hutsa*" zela zioen baieztapen garbiaren aurrean, EITBk filosofikoa denari buruzko ulerkera zabalegia erabiltzen zuela planteatzen zuen Arartekoak. Filosofia modu horretan ulertuz gero, edozein ideia edo planteamendu intelektual sar daiteke bertan, izan ere esplizituki edo inplizituki horiek gizadiaren galdera handietakoren bati erantzun nahi diotelako. Zentzu horretan garbi dago iragarkiak halako pentsamendu filosofiko bat zeukala, baina ezin da ahaztu ideia hori (pertsona guztien berdintasuna) sistema demokratikoaren oinarria dela, Ilustrazioaren argitan sortutako lege antolamendu guztien funtsa jasotzen duela, eta Europako gizarteen ideologia eta kulturaren ondasunaren parte dela.

   Kasu zehatz honetan zegoen eztabaida, ordea, ez zen axiologikoa, baizik askatasuna murrizten zuen arau baten ezarpenari zegokion, eta horregatik modu murriztailean planteatu behar zen. Horregatik, oro har onartzen diren balore batzuei buruzko aipamena ezin da idologiatzat jo debekua ezartzerakoan.

   Bestalde, ideia filosofikoak hain modu zabalean hartzen badira, muturrera joanez gero ia edozein publizitate debekatzera eramango gintuzke. Hori horrela hartuko balitz, automobilak, garbikariak edo aurrezte sistema bat saltzeari buruzko iragarki guztiak debekatu beharko lirateke jarrera

kontsumistak, konpetitiboak edo erasokorrak indartzen dituztelako, eta zorionez, ekologiaren orekaz, errealizazio pertsonalaz edo "bizitzan arrakasta lortzeaz" ulertu behar denari buruzko ideiak hedatzen dituztelako. Eta arrazoi gehiagorekin kendu beharko litzateke helburu komertzial ezberdinekin emakumeen eta gizonen paperen desberdintasuna bultzatzen edo emakumea objetu soil gisa irudikatzen duen propaganda oro. Beraz, begibistan dago EITBk eguneroko politikan ez duela aztertzen ari garen kasuan ezarri duen publizitate ideologikoari buruzko irakurketa egiten.

2- EITBko aholkulariak egindako beste baieztapen bati buruzko gogoeta ere egin zuen Ararteko ak. Alegia, sexuen arteko berdintasunari buruzko arrazoibide ezberdinak eta mugimendu feminista desberdinak daudela, eta horregatik Bizkaiko Emakumeen Asanbladari iragarkia sartzeak beste kolektibo batzuk diskriminatzea ekarriko lukeela.
Onartu behar da, bai, mugimendu feminista plurala dela, eta horregatik bere barruan joera ezberdinak daudela. Garbi dago orobat elkarte feminista ezberdinak daudela. Baina ebazpenean esaten denaren alderantziz, elkarte eta pentsamendu-orientabide ezberdin horiek elkartzen dituen "feminista" kalifikatiboaren azpian biltzen dituena hain zuzen guztiek daukaten ideia amankomun bat da: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Esan den bezala, egiazko berdintasuna lortzeko bitarteko edo estrategiei buruzko desadostasunak egon daitezke, baina helburu hori eta emakumeek egiaz jasaten dituzten diskriminazioen froga feminismoaren funtsa dira.
Onartu behar da, beraz, iragarkian Bizkaiko Emakumeen Asanblada aipatzea ez dela garrantzitsuena arazoaren muinean beste zerbait dagoelako: genero ezberdineko pertsonen arteko berdintasun printzipioa hedatzea, hain zuzen. Izan ere, Ararteko ak aditzera eman zuen lehen idatzian eta EITBren erantzunean ez zen kontrakorik adierazten, iragarkiaren edukia publizitate instituzionalean sar zitekeen eta Emakundek sustatutako zenbait sentsibilizatze kanpainekin guztiz bat zetorren, beraz, ez dirudi egokia denik aurkezten duena elkarte bat delako atzera botatzea.

3- EITBren erabakia oinarritzen den ebazpenean jasotako beste argudio batek ideia politikoen "*ordaindutako publizitatea*" aipatzen du, eta Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko 5/85 Lege Organikoak espreski debekatzen duela esaten da.
Iritzi horren kontra, Ararteko ak uste du aipatu berri den lege hori ez dela gai honi buruzko araudi orokorra, aldiz, hauteskunde sasoietan alderdi politikoek komunikabideetan daukaten sarrera arautzeko lege berezia dela. Paradoxikoki -askatasunaren funtsezko eskubideaz baliatzeko forma baten aurrean aurkitzen garelako-, komunikabideetan parte hartzeko erregimen orokorra lege arrunten bidez araututa dago: Irrati-Telebistaren Estatutuak (4/80 Legea) estatuaren esparruan, eta EITB sortzen duen 5/82 Legea erkidego mailan. Aldiz, hauteskunde kanpaina-garaian

komunikabideetan parte hartzeko erregimen bereziaren arauketa lege organikoak jasotzen du (Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoak, edo bestela erreferendum modu ezberdinei buruzko 2/1980 Lege Organikoak).
Bigarren kasu horretan -hauteskunde kanpaina- publizitatea doanekoa den bitartean, lehenengorako -hauteskunde kanpainetatik kanpo talde sozial eta politikoek komunikabideetan parte hartzeko aukera- arauek ez dute espreski ezer agintzen, eta horregatik komunikabide batean publizitatea sartzeko ordaindu beharra egon daiteke.

4- Azkenik, Arartekoak berriro zioen EITBk kasu honetan emandako ezetzak ez ziola irizpide orokor bati erantzuten, eta horregatik arbitrarioa eta diskriminatzailea zela.
EITBren ebazpenak ez zuen gaiaren alderdi hori aztertzen. Besterik gabe zioen gai honek ez zeukala adierazpen askatasunarekin zerikusirik. Dotrina juridikoaren eta gaiari buruzko iritzia azaldu duten nazioarteko erakundeen iritzia bestelakoa da, ordea. Giza Eskubideen Europako Batzordearen (4515/70 eta 7805/77 demandak) eta Europako Auzitegiaren (85-03-25eko epaia, Barthold kasua, edo 89-11-20, Markt intern Verlag GmgH kasua) iritziz, publizitatea informazioa eta ideiak jasotzeko eta ezagutzera emateko askatasunak juridikoki tutelatutako informazio modu bat da, Giza Eskubideen babeserako Europako Hitzarmenak 10. artikuluaren esparruan sartzen da alegia.
Egia da Europako Auzitegiaren eta Konstituzio Auzitegiaren iritziz giza komunikabideen bitartez adierazpen askatasunaz baliatzeko orduan zenbait muga egon daitezkeela, eta onartzen da orobat horiek zabalagoak izan behar dutela publizitateari dagokionean. Alabaina, funtsezko eskubide bati mozketak ezartzea denez gero, mugaketa horiek ahalik eta gehien murriztu behar dira, kasu bakoitzean dauden arrazoiak justifikatuaz. Gure ustez, EITBk Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren iragarkia ez emateko hartutako erabakian ez ziren behar horiek frogatu, eta edonola ez ziren azaldu kasu honetan zergatik ez zen jarraitu antzeko kasuetan jarraitutako irizpide berdina.

Azaldu diren arrazoiengatik, Arartekoak berretsi egin zuen martxoaren 8ko ospakizunari buruzko iragarkia zela eta egindako gomendioa, eta bere edukia orokortu ere egin zuen, kasu zehatz honen bidetik aurkeztutako argudioak etorkizunean irizpide orokor gisa erabil zitezela gomendatuz, pertsona guztien berdintasuna bultzatzen duten iragarkiak emateko bideak egin daitezen.

EITBk bidalitako txosten zabal eta dokumentatuan aztertutako gai batzuei buruzko gogoeta zehatza dator. Honela laburtu daitezke emandako argudioak eta ateratako ondorioak:

Telebistako emanaldi-zerbitzuak arautzen dituen arautegiak oso ondo bereizten ditu publizitatera bideratutako saioak eta iritzi eta informaziora

bideratuak. Legegileak publizitatea bitartekoen betekizun eta pluraltasunerako arrisku bezala ikusten du, eta ondorioz adierazpen eta informazio askatasunerako, eta horregatik ezartzen zaizkio muga eta arau oso zorrotzak. Publizitate saioak iharduera ekonomikoari buruzko mezuetara mugatzen dira, ideien hedapena, eta bereziki ideia politiko, filosofiko eta erlijiosoena kanpoan uzten duelarik.

Txostenaren egileak dio mezu ideologikoak doan eta informazio eta iritzi saioetan bakarrik eman behar direla, antena eskubidearen arabera. Doantasuna berdintasun printzipioan oinarritzen da "*izan ere, horiek ordainduta emateko baimena emango balitz, ekonomikoki ahulenak diren taldeak arbitrarioki diskriminatu egingo liratekeelako, berez edo beraien kideen bidez aukera ekonomiko handiagoak dauzkatenen parean*".

Beraz, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak proposatutako iragarkiak iharduera ekonomikotik kanpo dagoen mezua daukanez, eta aldi berean ideia filosofiko bat denez gero, hori ematea debekatu egiten du indarrean dagoen araudiak. Hain zuzen, esaten da, EITBko Administrazio Kontseiluak debekatu egin du izaera bereko edo beretsuko mezuak ematea, eta noizbait Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren antzeko mezua zeukaten iragarpenak eman badira, horrek ETBren hutsegite eta lege hausketa bat adieraziko luke, eta beraz, tratamendu berdina eskatzeko orduan hori ezin da inolaz ere aurrekari gisa erabili.

Txostenak azkenik argitzen du aurreko guztia ez zela oztopo izango Bizkaiko Emakumeen Asanbladak proposatutako mezua "*informazio eta iritzi saioetan, propaganda gisa eta antena eskubidea arautu behar duten arau objetiboen arabera emateko*".

Ararteko a ez dator bat EITBko legelari-aholkulariak osatutako txostenean jasotzen diren arrazoiketekin eta ezta ondorioekin ere. Ebazpena behar zuen arretarekin aztertu ondoren, ondorio honetara iritsi zen: txostenean jasotako argudioek ez zituzten bere ihardueraren oinarriak indarrik gabe uzten, horregatik emandako gomendioei eusten jarraitu zuen.

Erakunde honen zeregin nagusia administrazio publikoak burutzen dituen iharduera irregularren aurrean hiritarren eskubideak defenditzea izaki, Ararteko ak ez zeukan gaiari buruzko inolako eztabaida teorikotan sartzeko asmorik. Bere ustez, zeregin hori gogoeta egitera dedikatzen diren beste erakunde batzuei dagokie. Horregatik, EITBren Administrazio Kontseiluari joan den urriaren 31n igorri zitzaion idatzian zenbait aspektu formal edo prozedurazkori buruzko arrazoiketa batzuk bakarrik zeuden.

Eztabaidatutako gaiari buruz erakunde publikoak zeukan iritzia erakunde honi espreski ez zaiola jakinarazi gogoratzeaz gain, Ararteko a puntu batean zentratzen zen: legelariaren txostenaren arabera Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren esku jar zitezkeen informazio edo iritzi saioak beraien mezua eman zezaten, kolektibo horri modu horretara telebista publikoan sarrera edukitzeko aukera emanaz.

EITBko Administrazio Kontseilua arrazoibide horrekin bat bazetorren, deigarria eta kontraesankorra ere bada bere garaian aipatu Asanbladari beste bide batetik beraien iragarkia emateko aukerarik eskaini ez izana, hau da, kolektibo horri komunikabide publiko batean parte hartzeko eskubidea ez aitortzea beraien mezua doan emanaz. Eta beraien mezuaz ari gara, beraiek aukeratutako moduan emateaz, martxoaren 8ko manifestazioari edo arrazoi berdinagatik burututako beste edozein ekitaldiri emandako informazio trataera edonolakoa izan zelarik ere.

Ondorioz, Arartekoak ideiak libreki ezagutzera emateko eskubidea nolabait kaltetua zegoela ikusteaz gain, EITBk bai erakunde honi, bai Bizkaiko Emakumeen Asanbladari komunikabide publiko horretan gizarte taldeek daukaten antena eskubidea artikulatzeko modu zehatzari buruz emandako informazioa nahikoa ez zela ere iritzi zuen. Horregatik, gai horri buruzko informazio zehatza eskuratzeko ofiziozko iharduera bat hastea erabaki zuen. Horretarako, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak proposatutako iragarkiaren inguruan emandako pausoetatik aldendu eta Konstituzioak 20.3 artikuluan jasotako jabetza publikoa daukaten komunikabideetan parte hartzeko eskubideari buruzko azterketa planteamendu orokorragoarekin egingo da.

Joan den urriaren 31n informazio eskari bat egin zitzaion EITBri, eta horrekin eman zitzaion hasiera aipatu den ofiziozko iharduerari.

3.4. **HEZKUNTZA**

3.4.1. **SARRERA**

Hezkuntzaren alorrean guztira 102 kexa jaso dira, erakunde honek bideratutako guztien artetik %7,76, beraz.

Horien edukiari dagokionez, honela bildu daitezke:

- Bekak eta ikasketa-laguntzak 38
- Beste batzuk 26
- Irakaskuntzaren programazio orokorra 19
- UPV/EHU 13
- Eskola instalazioak 5
- Ikastetxea aukeratzeko eskubidea 1

Urtealdi honetan, eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzari dagokionez aipagarria da Erkidegoaren esparruan derrigorrezko bigarren heziketaren lehen zikloa indarrean sartzea nahiko normaltasunarekin burutu dela.

Izan ere, LOGSE legeak agindutako hezkuntza-antolamendu berria ezartzerakoan Administrazioak osatutako eskola-mapa berria auzitan jartzen zuten kexa multzo bat besterik ez zaio zuzendu erakunde honi esparru horretan. Kexa horiek, kasu batzuetan tamaina txikikoak izateagatik heziketa-eskaintza lehen

hezkuntzara murrizturik ikusi duten udalerri batzuei zegozkien; beste batzuetan, berriz, kontrakoa gertatzen zen, Bilboko zonan adibidez, eragin bereziko hezkuntza zona baita.

Bestetik, derrigorrezko bigarren heziketa indarrean sartzearen ondorioz egin beharreko irakaslegoaren berrantolaketa prozesuari buruzko kexak ere egon dira; kexa horiek, ordea, gure txostenen ohiko bideari jarraituaz Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolaketari dagokion alorrean tratatu dira.

Alabaina, azpimarratu behar dugu, orohar hezkuntzako aldaketa handi horrek ez duela arazo iturri berezia eragin unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren alorrean.

Sarrera honetan, eta daukan berritasunagatik, hezkuntza- premia bereziak dauzkaten ikasle gaindotatuei buruz jaso dugun kexa bat ere azpimarratu behar da. Hori bideratzerakoan erakunde honek jakin du une honetan hezkuntza-administrazioak badaukala proiektu aurreratu bat ikasle mota horrentzat, eta espero dugu orain arte arreta berezirik eskaini ez zaien hezkuntza premia horiei erantzun egokia emateko balio izatea.

Azkenik, hezkuntza-maila honetan ohiko kexak aurkeztu dira: ikasleen onarpen prozesuari, ikastetxeen kontserbazio eta mantenimentuari, etabarri buruzkoak. Ikasleen onarpenari dagokionez, ordea, badirudi kexa iturri berri bat sortzera doala, irakaskuntzako sare publikoko zentroetan haur-heziketa apurka hedatzen ari delako.

Unibertsitate mailako irakaskuntzari dagokionez, eta iazko txostenean azpimarratu zen ideiari berriro helduaz, irakaskuntza maila horietako programazio orokorrari buruzko arazoen gaia kontuan hartu beharrekoa da.

Hain zuzen irakaslego premien programazio txarraz ari gara, unibertsitateko zenbait adarretan dauden baliabide eta hornidurak nahikoak ez izatean kexa kopuru garrantzitsua gertatu delako.

Bestalde, bekei eta ikasketa-laguntzei buruzko kexak asko gehitu dira.

Gehienetan, laguntzak eskatu dituztenek auzitan jartzen dituzte epaimahaikide hautatzaileek eta Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzak berak jarraitutako irizpideak, kasu askotan laguntza emateko orduan kontuan hartu beharreko egiazko errentagarritasun parametroen ondoan ez delako egoten erabaki horietan arbitrarietaterik ez dagoela ziurtatzen duen behar adinako motibaziorik.

Azkenik, aipatzekoa da unibertsitateko irakaskuntzatik jasotako kexa asko arazo amankomun bat daukatela: ikasleen eguneroko joan-etorria. Horrela, unibertsitarientzako garraioa, fakultate batzuetako eskola ordutegia, ikasleek ia egun osoa bizi diren tokitik kanpo pasatu behar izaten dutelarik eta maila guztiz informatiboan dagoen deszentralizazio eza dira atal honetako adibideak.

3.4.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

Laudioko Udalaren eta La Salletarren artean Lanbide Heziketako Udal Zentroari buruz sortutako auzia konpontzeko Arartekoak egindako bitartekaritza(1/95/BI)

Arartekoak, Patronatoaren Alde izeneko elkarteak aurkeztutako beste kexa espediente batzuk (89/90 eta 620/94) aurrekari bezala hartuaz, non kolektibo horrek Laudioko Lanbide Heziketako Udal Zentroaren eraikin nagusiaren udal jabetza posiblea planteatzen baitzuen, Laudioko Udalaren eta La Salletarren artean bitartekaritza egitea erabaki zuen.

Iradokizun edo gomendio bat eman baino urrutirago joan asmoz, Arartekoak jarrera aktiboagoa eta konprometituagoa hartu zuen. Bi aldeen baimenarekin bitartekaritza eta auzi horri konponbide adostua bilatzeko ahalegin handia egin behar zen.

Helburuak bi ziren: batetik, disfuntzioei aurre egitea, eta, bestetik, ikastetxe publikoaren heziketa maialko jabetza eta higiezinaren erroldaren araberako jabetza batzea zen. Izan ere, lehena Laudioko Udalarena zen, eta bigarrena La Salletarrena. Gainera, hori guztia erlijiosoek irakaskuntzan beraien lankidetza ematen jarraitzeko moduan egin behar zen, urte asko baitaramatzate lan hori egiten. Erlijiosoak, denbora horretan, gainera, eraikin horretan bizi izan dira beti.

Hiru aldeen artean bilera ugari egin behar izan ziren agiri adostu bat lortzeko, eta bertako punturik garrantzitsuenak ondorengoak dira:

1. La Salletarren kongregazioak, erroldaren arabera Karmengo Amabirjina kaleko 17. zenbakian dagoen orubearen eta eskola eraikinaren jabe iznaik, doan uzten dio Laudioko Udalari 3.430 m2ko orube hori eta lau solairu gehi ganbara dauzkan eskola-eraikina.
2. Kongregazio erlijiosoak beretzat gordetzen ditu eraikinaren gorputz zentraleko azken bi solairuak eta ganbara, komunitatearen bizitokia izateko.

Udalari ematen zitzaion eraikina etorkizunean erabiltzeko aukera ere izango dute, baldin eta Lanbide Heziketako iharduerетan trabarik egiten ez badute.

Era berean, lankidetzako hezkuntza-hitzarmen bat sinatzea ere planteatu zen, zeinaren arabera eta 10 urteko epean La Salletarrek aholkularitza pedagogikoa dohainik emango baitute Lanbide Heziketako Udal Zentroarekin zerikusia daukaten hezkuntza gaietan. Aholkularitza hori lanerako prestakuntza ez arautura ere hedatzen da.

Akordioaren puntuak zehaztu eta adostu ondoren, Arartekoak bi aldeei bidali zien emaitzarako eta eskola lankidetzarako hitzarmen-protokoloa, eta biek onartuz gero, Lanbide Heziketako Udal Zentroaren jabetza dozente edo akademikoaren eta erroldaren araberako jabetzaren arteko banaketa arazoa behin betirako konpontzea lortuko zen, hori baitzen Udalak aspaldiko urteetatik lortu nahi zuen helburua.

Ondoren La Salletarrek beraien kongregazioko erakunde eskudunen bidez hitzarmen-protokoloa sinatu zuten. Laudioko Udalaren aldetik akordio bera hartu zen maiatzaren 28ko osoko bilkuraren ebazpenaren bidez.

Azkenik, ekainaren 25ean mamitu ziren akordioak lankidetza pedagogikorako hitzarmena bi aldeek sinatu eta uztailaren 1ean notario aurrean eskritura publikoa izenpetu zelarik, zeinaren arabera kongregazio erlijiosoak Laudioko Udalari eman baitzion lanbide Heziketako Udal Zentroaren eraikin nagusia.

Horrekin konponduta geratu zen herrian pil-pilean urteak zeramatzan auzia, eta esan behar da horretarako erabakiorra izan zela La Salletarrek hasieratik erakutsi zuten jarrera irekia eta haien eskuzabaltasuna.

Ikastetxe publiko batean bi urteko haurrentzat matrikula irekitzea (621/95)

Ikastetxe publiko batean matrikula-irekitzeari buruzko ondorengo kexa aurkeztu zuten guraso batzuek: matrikula epea irekitzerakoan, beraien zonako ikastetxeak eskolatzea bi urtera aurreratzea erabaki zela jakinarazi zien, postu eskari handia zegoelako eta Eskola Kontseiluak hala erabaki zuelako (ordurarte hiru urteko haurrekin hasten zen). Horrela, baldintza hori ezinbestekoa izango zen hurrengo 96-97 ikasturtean postua ziurtatuta edukitzeko. Kasu honetan, gurasoek beraien semea hiru urterekin eskolan sartzea pentsatzen zuten, eta adin hori hurrengo urtean betetzen zuenez gero, posturik gabe geratzeko arriskuan zeuden.

Haur-hezkuntzako lehen zikloan sartzen diren ikasleei zentro berean jarraipena ematea zuzena da, horien onarpena bigarren zikloan sartzean ezarritako irizpideetara egokitzen bada. Bi urteko haurrek irizpide horiek jarraitu ez diren kasuan bakarrik eskatu beharko lukete berriro hurrengo ikasturtean onartuak izatea.

Gure informazio eskariari Hezkuntza Saileko Ikastetxeen Zuzendariak bidalitako idatzian esaten zenez, kexak aipatzen zuen ikasturteko ikasle onarketarako prozedura martxoaren 17ko 1992/61 Dekretura egokitu zen, zeinak arautzen baitu fondo publikoak jasotzen dituzten ikastetxeen onarketa prozedura.

Hori horrela zela ikusita, Ararteko honek erabaki zuen ezin genuela kasu horretan esku hartu, salatutako iharduera ikasleen onarketarako iragarpenetara egokitzen zelako.

Bi urteko haurren onarketak ondoren beste iharduera bat ere burutu arazi dio erakunde honi, Gipuzkoako haur-hezkuntzako zentroek aurkeztutako kexa baten bidetik.

Kexa horietan planteatzen den gaia haur-hezkuntzako zentroen planifikazioa da, hain zuzen Hezkuntza Saileko ikastetxeetan lehen zikloa arian-arian hedatzen ari dela kontuan hartuta. Txosten hau idazten ari garen unean tramitazio bidean daude espediente horiek.

Unibertsitaterako bekak. Pentsio berdinketaren eta elikagaiengatiko urtealdien tratamendua (895/95)

Unibertsitaterako beka baten eskatzaileak, zeinaren laguntza eskariari ezetza eman baitzitzaion 95/95 ikasturterako publikoki egindako deialdian, dibortziatutako edo legez banatutako ezkontideek ordaindutako pentsioei eta elikagaiengatiko urtealdiei errenta familiarra kalkulatzerakoan emandako tratua salatu zuen gure erakundearen aurrean.

Kexa honetan planteatzen zen gaia aztertu ondoren, Ararteko honek ofiziozko iharduera bati hasiera emateko premia ikusi zuen, jarraian adierazten diren ondorioen arabera beka deialdiko oinarrien idazketa aldatzea iradokitzeko:

"Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1995eko ekainaren 27ko Aginduaren bidez (uztailaren 11ko EHAA) iragarritako unibertsitate laguntzetarako azken deialdia erreferentzia gisa harturik, eta pentsio berdinketari dagokionez, ikus daiteke horiek ez daukatela tratamendu berezirik deialdi horretako oinarrietan.

Izan ere, deialdian bakarrik iragartzen da -15.4 oinarria- 'dibortzio edo legezko banaketaren kasuan beka eskaria egiten duenarekin bizi ez diren ezkontidea eta seme-alabak ez dira kontatuko, familiaren irabazietan haren laguntza ekonomikoa sartzearen kalterik gabe'.

Baina, deialdiko oinarriak hitzez hitz hartzen badira behintzat, beka eskaria egiten duena pentsioei dagozkien kantitateak ordaintzera behartutako ezkontidearekin bizi denean ez da iragartzen kantitate horiek kentzeari legokiokeen tratamendurik.

Erakunde honek jakin duenez, egia da laguntza horien kudeaketan bai onartzen direla era honetako kenketak, familiaren errenta garbia oinarri kitagarri erregularrarekin parekatzen delako PFEZ zergarako. Alabaina, komeniko litzateke maila honetako kitapen bat zehazki adieraztea laguntza hauetarako deialdietan.

Elikagaiengatiko urtealdiei dagokienez, berriro ere desoreka dago familia unitateen artean -era horretako laguntzak ordaintzen edo jasotzen duten-, deialdiko aipatu den 15.4 oinarrian iragartzen denaren alderantzizko tratamendua falta delako.

Izan ere, oinarrian esaten denaren arabera, elikagaiengatiko urtealdien truke jasotako kantitateak kontuan hartzen dira beka eskatzailearen familia unitateak daukan familia errenta garbia kalkulatzerakoan.

Konponbide hori asko urruntzen da PFEZ zergaren kasuan jasotzen duten tratamendutik; izan ere, jakina den bezala, nahiz eta ordaintzera behartutako sujetuaren oinarri ezargarriaren zatia ez gutxitu, ordainketa jasotzen dutenentzat salbuetsitako errentatzat hartzen dira, ezkonduta jarraitzen duten gurasoen familia unitatean elikagaiengatiko gastuei ematen zaien tratamenduaren bide beretik.

Aurrekoaz gain, PFEZ zergarako, urtealdi horiek ordaintzera behartutako sujetuak seme-alabengatik kenketa egiteko aukera badauka, eta dauzkan seme-alaben erdia kontatzen zaio, beraiekin bizi edo ez.

Aldiz, beka edota ikasketa-laguntzen kasuan, seme-alabengatiko kenketa horiek umea zein etxetan bizi den kontuan hartuaz egiten dira -16.1.b) 3) oinarria-.

Ikusirik kasu horretan errenta bi aldiz kontatzen dela, eta familia zama batzuei eusteko egiaz ordaindu denagatik kenketarik ezin egin dela, aurkitu den desoreka konpentsatzeko bide bat ipini behar da, laguntza

horien eskuraketa egokitzeko laguntzak ematerakoan nagusitu behar diren egiazko errentagarritasun irizpideetara.
Zentzu honetan, komeniko litzateke PFEZ zergarako edo egokiagotzat jo daitezkeen eta antzeko emaitza eduki dezaketen beste edozeinetarako jarraitzen diren irizpideak beka edota ikasketa laguntzetarako deialdi hauetan ere ezartzea".

Alabaina, planteatutako kexaren kasuan eta horrek egiten zuen berrazterketa eskariaren aurrean, Ararteko honek ez zuen antzeman hezkuntza-administrazioaren aldetik bere parte hartzea justifika zezakeen inolako irregulartasunik, kexan aipatzen zen deialdiko oinarrien idatziak ez zuelako gure ofiziozko ihardueran defenditutako interpretazioa bezalako bati eusteko biderik ematen, eta, beraz, kexa artxibatzea erabaki zen.

Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolan irakaslerik ez (269/96)

Ikasle batzuek kexa aurkeztu zuten Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolan irakasleak falta zitzaizkielako.

Irregulartasun horren arrazoiak ezagutzeko txosten bat eskatu zitzaien UPV/EHEko arduradunei, hezkuntza-eskaintzaren eta hori banatzeko bitartekoen arteko desegokitasun arazo hori lehen aldiz ez zela planteatzen adieraziaz.

Unibertsitateak bere erantzunean zioen Gobernu Batzarrak irakasle horien plazak sortzea erabakita zeukala, baina Eusko Jaurlaritzak horrek sortzen zuen kostua aldez aurretik baimendu arte deialdia atzeratuta zegoela.

Plazak sortzeko Gobernu Batzarraren akordioa 1995eko urriaren 26koa zen, eta plaza horiek ez ziren 1996ko apirilaren hasiera arte bete.

Irakaslego hornikuntzan egondako atzerapenaz emandako azalpenak azalpen, non erakunde ezberdinak ageri baitira inplikaturik (EHU eta Eusko Jaurlaritza), ez dirudi arrazoi horiek nahiko justifikazioa direnik. Ildo honetatik, EHUko Gobernu Batzarraren akordioa hartu zuen egunetik Eusko Jaurlaritzak ondoren onartu arte igarotako denborak gehiegizkoa dirudi, baina deigarria da gainera Gobernu Batzarrak aipatutako akordioa onartu zuen data, ikasturtea hasi baino egun batzuk lehenagokoa baitzen.

Hezkuntza-eskaintzaren eta hori banatzeko bitartekoen arteko desegokitasun horiek zuzenduko badira neurri egokiak hartu beharra dago, dudarik gabe.

Tamalez, txosten hau idazten ari garela, 1996-97 ikasturterako Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolan irakaslego falta salatzen duen beste kexa bat planteatu da.

Ikastetxe batean hasierako eskola-eskaintza aldatzeko prozedura berezia onartu eta ondoren bete ez izana (304/96)

Ikastetxe publiko baten (Félix Serrano) eskola-eskaintzan ez zen A eredua sartzen. Guraso talde batek planteatzen zuen eskaerari erantzuteko prozedura berezia ireki zuen Administrazioak, ordurako aurrematrikula irekita zegoelarik.

Kexa tramitera onartu bazen prozedura berezi horregatik izan zen, ikastetxe horretan A eredua ez eskaintzeak berez ez baitzuen inolako irregulartasunik adierazten. Prozedura horrek, gurasoek A eredurako planteatzen zuten eskaria gauzatzeko irizpideak jasotzen zituen, eta zera zioen, aurrez izena emateko epea amaitu ondoren, eskaria 13 ikaslek edo gehiagok egiten bazuten lerro hori ireki egingo zela.

Erantzuna atzeratu ondoren, azkenean hori ezezkoa izan zen, haien aurrematrikulak ez zirelako onartzen. Lurralde Ordezkaritzatik martxan jarri zen prozedura berezian erabakitako arauen ezarpenaren ikuspegitik kexa aztertu ondoren, Arartekoak ebatzi zuen irregularki jokatu zela, eta, beraz, Ordezkaritzatik bertatik piztutako esperokizunetan huts egin zela. Administrazioaren jokaerari zegokionez, ondorio hauek atera zitezkeen:

1- Beste ikastetxe bat eskatuta zeukaten ikasleak kanpoan utzi zituen.
2- F. Serrano ikastetxea bakarrik eskatu zuten guraso kopurua ez zen ezarritako mugara iristen.

Hasiera batean zuzena zirudien jokamolde hori zuzendu beharra zegoen ondoko datu funtzional honegatik: F. Serrano zentroan aurrez izena emateko epe orokorra irekita zegoela (14 egun geroago) eskaini zen aukera, eta, beraz, ez zen harritzekoa gurasoek eskariak beste zentro batzuetan eginda egotea.

Puntu horretan oinarrituaz, Arartekoak iritzi zuen gurasoei egindako bi aurrematrikulen artetik gogokoen zein zuten galdetu behar zitzaiela, eta horren ondoren bakarrik har zitekeela libretzat gurasoen hautaketa. Horrela egiten ez zen kasuan haien borondatea ordezkatu egiten zen.

Hezkuntza-premia bereziak dauzkan ikasle gaindotatua. Derrigorrezko eskolatze-aldia malgutzeko eskaria (447/96)

Ikasle gaindotatu baten aitak erakunde honetara jo zuen, hezkuntza-administrazioak bere semeari derrigorrezko eskolatze-aldia malgutzeko eskaria onartu nahi ez, eta gure bitartekaritza eskatzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunekin izandako lehen harremanean erakunde honek argitu zuen zein zen derrigorrezko eskolatze-aldian malgutasunez jokatzeko kasuetan jarraitu behar zen prozedura (1996ko apirilaren 24ko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Agindua. BOE, maiatzak 3). Horrela, lehen harreman horri esker, erakunde honek ondoko datuak ezagutu ahal izan zituen:

"*Hezkuntza Sailaren Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzaren kezkarik nagusienetako bat nolabaiteko gaindotazioren bat duten ikasleei behar bezala erantzutea da. Horretarako, behar diren neurriak hartu behar dira, ikasle bakoitzaren egoera kontuan izanda, eskola-markoa haien ahalmenei egokitzeko asmoz.*
1995eko hasieratik, eta lan-talde berezi bat eratu ondoren, zenbait neurri hartu dira, eta horietako garrantzitsuenak ondoko hauek dira:

- *Horrelako ikasleak tratatzeari buruzko prestakuntza berezia, ikastetxeetako langile laguntzaileei zuzendua.*
- *Zabalkunderako eskuliburu bat prestatzea. Hortxe bilduko dira printzipio teorikoak, horietan oinarrituko baitira aurrerantzean hartuko diren legezko neurriak.*
- *Ikasle horien ezaugarriak honako lege-xedapen honetan sartzea: "Eskola muinbakar eta integratzailearen barruan, hezkuntza-beharrizan bereziei emandako hezkuntzaren erantzuna arautzen duen dekretua" (Laster emango da argitara EHAAn).*
- *Gaur egun ezagunak diren kasuei eta aurrerago ezagunak izango direnei arreta berezia eskaintzea dekretu hori garatzen duten aginduetan.*
- *Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin eta hezkuntzaren arloan eskumen guztiak dituzten autonomi elkarteekin batera 1996ko apirilaren 24ko Aginduaren prestakuntza eta idazketa itunduan (BOE, maiatzak 3) parte hartzea.*
- *Aipatutako agindua argitara eman aurretik, arlo formalak, dokumentalak eta ebaluatzaileak aurrikustea; izan ere, horien arabera betearaziko da eskolatze-aldia malgutzeko modua ematen duen salbuespenezko neurria, ikasle jakin batzuek gaindotazioa dutela erakusten duten ezaugarriak biltzen ote dituzten aztertu ondoren. Agindu hori BOEn argitaratu baino lehen, haren edukia hitzez hitz ezagutzen zen, gorago esan denez, agindu hori prestatzen aritu baitzen Hezkuntza Sailaren Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza, eta agindu hori oinarrizko araua denez, hezkuntzaren arloan eskumenak dituzten administrazioek garatu behar dute gero betearazteko*".

Hala eta guztiz ere, kexaren kasuan ikasleak derrigorrezko bigarren hezkuntzara (aurrerantzean, DBH) pasatzean motibazioa galtzeko arriskua zegoela argudiatzen zenez gero, Arartekoak planteatu zuen zuzena izan zitekeela, ikasleari bere ikastetxean DBHn eskolaratu ondoren, eta beharrezko ebaluaketa psikopedagogikoarekin, eskolatze-aldia malgutzea, ikasketak ohiko ikaskideekin jarrai zitzan DBHko bigarren mailan.

Bigarren eskari honi erantzunez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak txosten bat bidali zuen erakunde honetara, eta hortik ondorengo aspektuak eskaintzeari interesgarria deritzogu:

"*Ikasle batzuen bixitasuna kontuan hartuz eskolatze-aldia malgutzea ez da ikaslearen ebaluazio psikopedagogikoa egin eta gero automatikoki hartzen den neurria.*
Aitzitik, salbuespena da inondik inora, soilik aparteko kasuetan ezargarria, eta ikaslea eskolatzen duen ikastetxearen eskaria dela medio. Arrazoituriko proposamenarekin batera, ikasle horrentzako aurrikusi

diren lan egiteko moduak zehaztu beharko dira, eta horrek zer nolako aldaketak ekarriko dituen antolakuntzan.
Hezkuntzako adieran, azelerazio terminoak aipamen egiten die 'ikasle batek curriculumean zehar mugitzean daraman erritmoa azkartzeko jarraitzen diren estrategiak'. (Mackay, 1994).
Estrategia horren bitartez 'ikasleei beren gaitasunekin bat datorren maila eta abiaduran ematen zaie hezkuntza'. (Feldhussen, 1989).
Ikasle hauekiko funtsezkoena beren ikasteko modu berezia ezagutzea da, beren ahalmenak ahalik eta gehien lantzen lagunduko dieten lan egiteko moduak proposatzeko.
Kontua ez da, besterik gabe, helduagoak diren ikaskideen curriculum bera ematea ikasle horri ere, haiekin batera eta desberdintasunik gabe.
Azelarazio kontzeptua ikasketen maila aurreratze soilera mugatzea baina horrek lanean jarduteko moduei eta curriculumeko edukien egokitzapenari eragin gabe, kontzeptua pobretzea da, ikaslearen sozializazio-beharrak guztiz alde batera utzirik.
Ikasle horien gaitasun intelektualen garapen-mailak, askotan, disinkronia nabarmena izaten du haren eboluzio psikosozialarekin eta heldutasun afektiboarekin. Horrek gerora nortasun-gatazkak sor litzake, adinez nagusiagoak diren ikasleekin batera bizi behar izateak arinduko ez lituzkeenak noski.
Malgutasunak, ministro-xedapenetan eta Sail honek prestatu dituen xedapenetan aurrikusita dagoenak, azelerazioa aipatzen duenean esan nahi duena da eskolaldi jakin bat betetzeko guztira behar den denbora moztea, ez, ordea, banako bat goragoko talde batean sartzea, ikasle zaharragoekin, eurek egiten duten gauza bera eta era berean egiteko.
Printzipioz, ikasleari lan gehigarria eskatzea suposatzen du, zeren eta urte akademiko bakar batean maila bat baino gehiago egin dezala proposatzen baitzaio.
Oso kasu berezietan baino ez da egoki izango honelako erabaki bat hartzea, jakina, Sailaren zerbitzu teknikoek aldeko txostena ematen dutela jota ere, orain artean, jorratzen ari garen kasuan ez da horrelakorik izan.
Zuzendaritza honetako zerbitzu espezializatuek ebaluazio psikopedagogiko zorrotza egin ondoren (alderdi akademikoak ebaluazio horren zati bat bakarrik ez dira) ematen duten txostena malgutasun horren aldekoa bada (suposatuz ikastetxeak berak eskatu duela, eskarian espreski agertuz ikasle horren aldeko konpromisu funtzionala, eta gurasoak, jakitun egon ezezik, delako neurria martxan jartzekotan eurak ados leudekeela agerian bada), kasu horretan, Zuzendaritza honek ondorioz erabakiko du".

Txosten hori ikusi ondoren erakunde honek uste du ezin zela ulertu hezkuntza-administrazioa eskolatze-aldia malgutzearen kontra zegoela. Zentro eskolatzaileak dagozkion zerbitzu espezializatuen aldeko eta arrazoitutako txosten

batekin oniritzia eman ondoren, aldez aurretik eskari bat egitea besterik ez zuen eskatzen.

Horregatik guztiagatik, Arartekoko honek interesatuari jakinarazi zion bere kexaren tramitazioa bertan behera uzten zela beharrezko zerbitzu pedagogikoek bere semearen eskolatze-aldia malgutzeko beharra frogatu eta, hala gertatuz gero, hezkuntza-administrazioak arrazoirik gabe bere ezetza eman arte.

96/97ko eskola-mapa. Hezkuntza-ereduen eskaintza Derion (638/96)

Derioko Ikastetxe Publikoan A ereduan ikasketak egiten aritutako ikasle batzuen gurasoek erakunde honen iritzipean jarri zuten beraien seme-alabentzako indartze pedagogikoa sartzeko aukera. Hezkuntza-planifikazio berriaren arabera B eta D ereduak eskainiko ziren ikastetxe horretan, eta A eredua zeukan alboko Mungia herrira seme-alabak eraman beharrik gabe indartze horren bidez orain arteko ikastetxean jarraitu ahalko zuten.

Beraien eskarian ziotenez, Gipuzkoako beste herri batzuetan gertatutakoaren parean tratu desberdinaren aurrean egon zitezkeen, haietan indartze pedagogikorako neurriak ezarri zirelako.

Kexa idatziaren edukia ikusirik, erakunde honek Derioko Ikastetxe Publikoan A ereduan ikasketak egindako ikasleek zentro berean hezkuntz-eredua aldatu eta jarrai ote zezaketen aztertu zuen, horrela Mungia herrira joan beharrik gabe.

Kexaren helburua horrela planteaturik, Arartekoak hezkuntzako ikuskaritza teknikorako zerbitzuko arduradunekin harremanak izan zituen; planteatuta bezala hezkuntza-eredua aldatzeko egin zezaketen balorazio pedagogikoaz gaindi, horiek onartu zuten ereduz aldatzeko aukera, izan ere, gurasoek edo tutoreek hezkuntza-eredua aukeratzeko daukaten eskubidea hezkuntzako oinarrizko eskubideen artean sartua baitago, erkidego honetan egin den hezkuntza-antolaketaren arabera.

Aurrekoa onarturik, A ereduan ikasketak egin eta orain B ereduan jarraitzeko prest egongo ziren ikasleen eskolatze normala bermatzeko behar zen indartze pedagogikoan zentratu zen desadostasun maila, B ereduan matrikulatuz gero bizi ziren herriko ikastetxean jarraitu ahalko zutelako.

Honi dagokionez, kexa sustatzaileek Gipuzkoako zenbait herritan A ereduko ikasleei emandako tratamenduarekiko konparaketa egiten zuten. Alabaina, erakunde honek ezagutu zituen datuen arabera, Gipuzkoako kasuetan ez zen berez eredu aldaketarik egon.

Izan ere, ikasle horiek beraien herrietan B ereduko taldeetan sartu ziren, ikastetxe bakoitzean laguntza bereziak emanaz, baina ikasketak zegozkien erreferentzia ereduan egiten zituzten, A ereduan alegia, eta hori horrela zen ikastetxe horien eragin zonan A ereduko eskaintza globalik ez zegoelako; aldiz, Mungian bazegoen.

Datu horiek ikusirik, Arartekoaren ustez ezin zen esan kaltetuen artean tratu desberdintasuna zegoenik, izan ere Derioko ikasleen egoera eta kexan aipatzen zen Gipuzkoakoena guztiz desberdina baitzen.

Bestalde, egon zitekeen desberdintasunaren lehen aspektu hau salbu utzita, indartze pedagogikoari buruz egiten zuten eskaria ere ezin zen legalitate

terminoetan planteatu, Hezkuntza Sailak nahiko hezkuntza-eskaintza egina zeukalako A ereduan ondoko Mungia herrian eta B ereduan Derion. Gurasoen indartze pedagogikorako eskaria, beraz, sar zitezkeen hobekuntzen esparrura mugatu behar zen, eta horiek erabakitzea hezkuntzako Administrazioari dagokio, orokorrean trata daitezkeen neurrian ezar daitezkeelarik.

Azkenik, erakunde honek jakin zuen Derioko zonarako ereduen behin-betiko planfikazioa 96-97 ikasturterako matrikula epeak ireki zirenetik ezaguna zela, eta alde horretatik ere ez zegoen erakunde honek esku hartzeko arrazoirik.

Ondorioz, aurreko guztiaren berri eman zitzaien kexa sustatzaileei, espedientea artxibatu egin zela jakinaraziz.

Ikastetxe publikoetako matrikula epeak (705/96)

Getxoko Julio Caro Baroja Batxilergo-Institutuan matrikulatutako ikasle baten aitak erakunde honen iritzipean jarri zuen ikastetxe horrek 96/97 ikasturterako matrikula arauei buruz ezagutzera emandako informazio-zirkularra.

Ikastetxe horrek erabakitako egutegi osagarriaren egokitasuna eta azken ohar batek zioena aztertzea zen kontua. Honela zioen azken ohar horrek:

> "*Ikastetxeko iragarki-taulan argitara emandako matrikula epeak nahitaez errespetatu behar dira. Horrela egiten ez den kasuan plazari uko egiten zaiola ulertuko da*".

Aipatutako lehen puntuari dagokionez, hau da, matrikula egutegi osagarri bat egokia zen edo ez, jakina da Erkidegoko ikastetxe publikoek matrikula asko egin behar izaten dituztela, eta horregatik bakoitzak ikasleen onarketa arautzen duen urteko aginduan adierazitako epeari matrikula epe bat gehitzen dio.

Neurri horren bidez, eskatutako matrikulak zuzen kudeatzea lortu nahi izaten da batez ere, eta azken batean ikasleei arreta egokia eskaintzea, frogatutako arrazoiengatik epe horiek errespetatzen ez badira ere, ondorio larriegirik gabe.

Julio Caro Baroja Batxilergo-Institutuak ikastetxeko familiei bidalitako agiriko azken oharrak zioenari dagokionez, Ararteko honek hezkuntzako ikuskaritza teknikorako zerbitzuekin izandako harremanen bidez jakin zuen zentzu horretan ez zegoela inolako iharduerarik, alegia, esandako egunetan matrikulatu ezean uko egiten zitzaiola adierazten zuenik.

Era berean, erakunde honek jakin zuen hezkuntza-administrazioak ikastetxeko zuzendaritzari ohar bat bidali ziola, kexa eragindako oharra aurrerantzean ken zedila gomendatuz.

Horregatik guztiagatik, erakunde honen aldetik beste iharduera batzuk justifika zitzakeen arrazoi berririk ez zen ikusi, eta ondorioz, irekita zegoen espedientea ixtea eta artxibatzea erabaki zen.

Batxilergo tekniko-industrialeko (IEE II) ikasketetarako sarrera (868/96)

Batxilergo tekniko-industrialeko ikasketak egin nahi zituen ikasle baten aitaren kexa idatzi bat jaso zen erakunde honetan.

Ikasle horrek 95-96 ikasturtean BBBko hirugarren mailari zegozkion ikasketak egin eta hasiera batean batxilergo tekniko-industrialeko ikasketetarako onartua izan zen 96-97 ikasturteko aurrez izena emateko epe ofizialean.

Arabako Lurralde Ordezkariak, ordea, onarketarako leken epe horren ondoren ebazpen bat eman zuen, zeinaren arabera matrikula eskari hori ukatu egiten baitzen, batxilergo tekniko-industrialeko ikasketa horiek egiteko aukera IEE I.tik zetozenei bakarrik zegokiela irizten zelako.

Kexa tramitera onartu ondoren, Ararteko honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari informazioa eskatu zion, auzitan zegoen matrikula hori onartu ez izanak lege aldetik inolako oinarririk eduki ote zezakeen jakin asmoz.

Aipatu Sailak erakunde honi emandako erantzunean esaten zenez, abuztuaren 4ko 1970/14 Hezkuntza Lege Nagusiak eta urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Nagusirako Legeak ezarritako mailen arabera Euskal Herriko bigarren hezkuntzako irakaskuntza esperimentaletan ikasleak sartzeko bidea Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko 1996ko otsailaren 26ko Aginduak arautzen du, zeinaren arabera:

> "*1. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bigarren hezkuntzako irakaskuntza esperimentaletan sartzeko aukera eman ahalko die, etxebizitzaz edo ikastetxez aldatzeagatik abuztuaren 4ko 1970/14 Hezkuntza Lege Nagusiak edo urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Nagusirako Legeak araututako ikasketetan jarraitzeko aukerarik ez daukatenei*".

Arau horren arabera, BBBko ikasketetatik bigarren hezkuntzako ikasketa esperimentaletarako (IEE II) sarrera ematekotan, eskaria egiten duen ikasleak etxebizitzaz edo ikastetxez aldatzeagatik BBBko ikasketak egiten jarraitu ezina frogatu behar du, eta planteatutako kexaren kasua ez zen hori, interesatuak aldaketa egiteko eskaria IEEko bigarren mailan sartzeko nahiagatik bakarrik egin zuelako, eta ez aipatutako araudiak jasotzen dituen arrazoiengatik.

Bestalde, erakunde honek ikusi zuen aurreko ikasturteetan ez zela onartu BBBtik IEE II.ra ikaslerik pasatzea.

Ondorioz, hezkuntza-administrazioaren jokatzeko moduan erakunde honen iharduera justifika zezakeen inolako irregulartasunik ez zela egon ikusita, Arartekoak kexa itxi eta artxibatu egin zuen.

3.5. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

3.5.1. SARRERA

1996. urteko ekitaldian, Ararteko Erakundeak 396 kexa tramitatu ditu funtzio publikoaren azpialorrean, horrek tramitatu diren kexen %30,11 esan nahi du.

Administrazio antolakuntzaren azpialorrean, bestalde, 171 kexa jaso dira, hau da jasotako kexen %13.

Eragindako administrazioen araberako kexen banaketa hau litzateke:

- Eusko Jaurlaritza 309
- Aldundiak 32
- Udalak 72

Azpisail bakoitzean ezarritako atalen arabera, kexak honela zehatz daitezke:

- Funtzio Publikoa 225

- Funtzio Publikoa-Osasuna 93
- Funtzio Publikoa-Orokorra 91
- Funtzio Publikoa-Hezkunza 34
- Funtzio Publikoa-Barne saila 7

- Administrazioaren Antolakuntza 171

- Administrazioaren Antolakuntza 102
- Administrazio Ihardunbidea 42
- Administrazioaren ardura 19
- Kontratazioa eta Ondarea 8

FUNTZIO PUBLIKOA

Adierazitako estatitistika datuetatik ondorioztatzen den moduan, esanguratsua da funtzio publikoaren osasun atalean izandako kexen gehikuntza SVS/Osakidetzak eginiko administrazioaren enplegu eskaintza (AEE aurrerantzean) dela eta.

Kexa horiek direla bitarte, Erakunde honek aukera izan du bestelako hautaketa ihardunbideetan bakanka edo lantzean behin izaten diren gora-beherak aztertzeko. Horrela, tramitaturiko kexen gaia hauta ihardunbide bateko alderdi anitzak izan dira, hala nola lehiatzailek onartzeko tramitea, parte hartzeko baldintzak, epaimahaiek zuzentzeko edo ebaluatzeko ezarritako irizpideak, eta abar.

Ezinbestekoa da esatea, hala ere, horrela gertatu dela ez AEE horrek gestio huts berezi edo nabarmenak izan dituelako, baizik eta lehiatzaile askok izena eman dutelako eta, ageri-agerian dago, horrek erreklamazio kopurua beste horrenbeste gehitu du.

Kexak aukeratzeko orduan, ohi bezala, honako txosten honetara jaso dira aipagarrientzat jotakoak, dela berriak izateagatik, dela planteatzen dituzten kexen garrantziagatik.

Ikuspegi horretatik, Arartekoaren iritziz, bereziki aipagarriak dira, bere originaltasunagatik, erlijio zergatiak zirela bitarte azterketak egiteko eguna egokitzeko eskabidea, baita hezkuntzen ezagupena neurtzeko frogak egiteko tokia

eta ordua aldatu izana, ondorioz lehiatzaile askok esku hartzerik izan ez zutelarik. Nabarmentzekoa da, gainera, biotan ondo hartu duela Osakidetzak erakunde honen arartekotasuna.

Jasotzen dituzten salaketen larriagatik bereziki garrantzitsuak diren kexei dagokienez, nabarmen-nabarmenak dira administrazio-laguntzaileentzako azterketak zuzentzeko epaimahaiak erabilitako hauta irizpideari buruzkoa eta euskarazko azterketetan lehiatzaile askok kopiatu izanaren gainekoa. Horiexek aztertuko ditugu bereziki honako sarrera honen osteko sortan.

AEE horren kariaz hartutako kexak handika-mandika deskribatu ondoren, Erakunde honek aukera baliatu nahi du gogoeta sorta bat egiteko aurrerantzean Autonomia Erkidegoko funtzio publikoaren sektore desberdinek egingo dituzten hauta ihardunbideen gainean.

Ildo horretatik nabarmendu nahi dugu ezen, gure iritziz, tramitaturiko kexek baieztu dutela herritarrak halako sentiberatasun berezia duela mota horretako hauta ihardunbideek nagusi izan behar duten objektibotasun eta inpartzialtasunarekiko, batez ere enpleguan egungoa besteko ezegonkortasuna dagoenean.

Izan ere, jasotako kexa askotan, partedun herritarrek aurkeztu dizkiote Arartekoari epaimahaien hainbat jokabide, dagozkien objektibotasun eta inpartzialtasuna bermatzeko zereginaz bat ez zetozelakoan.

Salaketa horiek bihurtu ez diren arren zantzu nahiko eta oinarrituak, ez behintzat Erakunde honen arartekotasuna funtsatzeko bestean, guztiarekin ere, gure aburuz, mota horretako salaketek, administrazioak eskainiko dituen enpleguak eskuratzeko hauta ihardunbideetan hainbeste irrikatzen diren objektibotasun eta inpartzailatasun horiek segurtatzeko baliabideak sendotzera behartu behar dute.

Horrela, interesgarria litzateke epaimahaien eta hauta organo teknikoen osaera, berezitasun oinarritik datozen gutxienekoak segurtatu ondoren, ausazko edo zorizko ihardunbideek erabakitzea, horrela itzuri egin ahal izateko gora-behera ugari horiei, beti ezin baitira atzera ere bideratu abstentzio edo gaitzespen ohiko ihardunbideetara.

Bestalde, Erakunde honek nahi ez duen arren inondik inora ahaztu edo zalantzan jarri hauta organoei aitortzen zaien teknika zuhurtziarakotasuna, desiragarritzat jotzen dugu, batez ere eskuhartze handia duten horrelako hauta ihardunbideetan, hauta azterketak ahalik eta objektiboen egiten saiatzea, azterketak zuzentzerakoan osagai edo irizpide subjektiboen eragina ahalik eta txikiena izan dadin.

Halaber, hezkuntzako talde desberdinen elkarbizitza -funtzionarioak edo kontratupekoak, eta aurrenekoen artean publiko bihurturiko ikastoletatik datozenak edo betidanik izan direnak sistemaren funtzionarioak- arazotsua da ihardunbide jakinetan, esate baterako, lanpostuen zerrenden aldaketek zein maisu edo maistrari eragingo dioten zehaztean, talde horietako batzuekiko diskriminazioa izan daitekeela planteatzen da-eta.

Azkenik, ez dugu funtzio publikoaren azpialor hau itxi gura praktiketan iharduten funtzionarioen hizkuntz prestakuntzaren gaineko kexa aipatu gabe, horrelakoak karrerako funtzionario bihurtu ahal izatea halako hizkuntz eskakizun jakin bat lortzeak baldintzatzen baitu, batez ere seguruenik, eta gai horretaz dagoen

arau hutsunearen aurrean, etorkizunean gero eta kexa sorburu handiagoa izango delako.

ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

Betiko legez, Administrazioaren Antolakuntza deritzon azpialorrean sarbidea dute ezein administrazio iharduni dagozkion ihardunbide osagaiak ukitzen dituzten kexa guztiek.

1996ko urtealdi honetan Erakundeak aukera izan du hainbat fundazioren jokabide ustez okerraren gaineko kexak aztertzeko.

Zenbakien aldetik duten muntagatik -60 kexa-, beharrezkoa da aipatzea Gasteizen egoitza duen Estadio S.D. Fundazioaren aurkakoak, Arartekoak horien funtsa aztertu ondoren, arazoa Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren menpeko den Fundazioen Babesletzara bidali zuen, legeek horri ematen baitiote irabazteko xederik gabeko erakunde horien jokabidea kontrolatu eta jagoteko eskuduntzak.

Azpimarratzekoak dira merezimenduak egiaztatzearekin erlazionaturiko arazoen kariaz aurkezturiko kexak. Horrela, merezimendu egiaztagiriak luzatzean izandako atzerapenak eta egiaztagiriak beste administrazioren batek gauzatu behar dituenean erabili beharreko eredua dira, besteak beste, etorkizunean egingo diren administrazio ihardunbideetan kontuan izan beharreko alderdi batzuk.

3.5.2. AUKERATUTAKO KEXA BATZUK

3.5.2.1. FUNTZIO PUBLIKOA

Hezkuntzako langileak lekuz aldatzeko lehiaketa. Nahitaez esleitzea bigarren hizkuntz eskakizuna (2HE) izendaturik duen plaza bat (506/95)

Irakaskuntza ertainetako irakasleen kidegoko funtzionario andre batek Arartekoa honen aurrean zalantzan jarri zuen nahitaez esleitu beharra bigarren hizkuntz eskakizuna (2HE aurrerantzean) izendaturiko lanpostu betegabe bat Hezkuntzako Administrazioak 1995-1996 ikasturterako iragarritako lekualdatze lehiaketan.

Erreklamatzailearen ustez, gaztelerazko lehiatzaile izateak zein EGA hizkuntz egiaztagiriak bere funtzionario ibilbidearekiko loturarik ez izateak galerazten zuten zalantzan jarritakoa bezalako esleipen bat, bidezkoa zelarik, besterik ezean, destinoaren zain dagoen funtzionario izaerari eustea.

Beste txosten batzuetan adierazi dugun legez, Arartekoa honen iritziz euskarazko gaitasunak ez duenean jatorritzat ez lehiaketako berezitasuna ez Hezkuntzako Administrazioak zuzenean edo zeharka bultzaturiko ihardueraren bat, Administrazioak ez du ahalmenik nahitaezko esleipenak ezartzeko, partedunak borondatez onartuz gero, erraztu baino ez duelarik egin beharko.

Hari horretatik, eta kexa jakin honetaz den bezanbatean, Arartekoh honek ondorio hauek aurkeztu zituen:

"Kexaren gune nagusia behar bezala kokatzeko, bidezkoa da zehaztea esku artean darabilgun espedientean eztabaidatzen den sakoneko gaia sartu berri diren funtzionarioen mugikortasunarena dela, hezkuntzako postuen hizkuntz eskakizunen ikuspegitik aztertuta, destinoa ia nahitaez esleitu behar zaien giza baliabideak baitira, aurreneko behin betiko destinoaren zain dauden funtzionarioak diren aldetik.
Horren gainean, beraz, gaiari nola heldu erabakitzen lagun dezakeen lehenengo erreferentzi gunea langile horien sarbidea arautu duten deialdiko oinarrietan xedaturiko edukina da.
Ikuspegi horretatik, sarbide deialdiak xedatzea zeukan 2HEko postuetarako nahitaez hautatzea lanpostuak betetzeko baldintzak betetzen dituzten lehiatzaileak eta, ondorioz, gerokoan nahiatez lekuz aldatu ahal izatea antzeko izaeradun postuetara lekualdatze lehiaketaren bitartez.
Deialdian berariaz jaso ez izana ez litzateke traba sail horren nahietarako gai horren gaineko arau orokorrek behar besteko babesa eskainiz gero.
Aldiz, horrelako lege gaitasunik bitarte ez dela eta 1993. urtean deituriko hauta frogen oinarriek ere planteatzen ez zutenez gero mota horretako nahitaezko hautaketa bat, (...) andreak aurkezturiko kexa jakin hori ebazteko tenorean geure burua kokatu beharreko esparrua ezinbestean oso bestelakoa izango da.
Izan ere, gure eskura jarriz joan den argibideetan oinarrituta, 1993ko deialdian lehiatzaileek aukera izan zuten zein hizkuntz eskakizuna nahi zuten eskatzeko.
Horiek horrela, (...) andrea 1HEren zerrendetan aukeratu zuten, berak horixe aukeratu zuelako, EGA egiaztagiria aurkeztu izanak muntarik ez duela.
Honaino helduta, komenigarria da ñabartzea partedun andreak hizkuntz egiaztagiri hori aurkeztu izana jo behar dela lehenengo hizkuntz eskakizunetik salbuetsita geratzeko baliabide huts gisa, bai deialdia egin zenean, bai deialdiaren ondoko hurrengo 3 urteotan, orokorrean epe hori izan zuten-eta behin-behineko funtzionario ziren lehiatzaileek. Puntu honetaraino helduta, geure burua behartuta ikusten dugu azpimarratzera zein izan den aurkezleak argi eta garbi adierazitako asmoa.
Arau berezirik ez izatetik ondorioztatu nahi izatea Administrazio horrek ahalmena duela nahitaez 2HEko lanpostuetara esleitzeko, Arartekoh honen ustez, gehigeikeria garrantzitsua da, zeren eta, adierazi den legez, ezarritako eginbeharrak ez baitu hezkuntzako lanpostuetarako esleipenak agintzeko ahalmena ematen dion berariazko izenbururik hezkuntz eskakizuna lehiatzaileek berek sartzerakoan eskaturikoaren desberdina izanez gero.

Bestalde, Arartekoak badaki oso desberdinak direna funtzio publikora sartzeko hauta ihardunbideak zein sarbideak eta lanpostuak hornitzeko ihardunbideak.

Benetan, ez dago oztoporik funtzionarioen karrerak batera ala bestera jo dezan, nahierara, eskaturiko lanpostuak betetzeko baldintzak egiaztatuz gero, horrela hasierako lehiaketako datuak gainditzen direla.

Halaber, onartu beharrean gaude administrazio orok baduela oso ahalmen garrantzitsua bere burua antolatzeko, horren bitartez baliabideak unean uneko beharrizanetara egoki ditzakeelarik.

Guztiarekin ere, azpimarratzekoa da azken ahalmen hori, beste ezein legez, legezkotasunaren printzipioetiko mugen menpean dagoela, horrek administrazio publikoen jokabidea zuzendu behar baitu.

Ildo horretatik, eta ezaguna den arren buruantolaketa ahalmenaren ezaugarri den zuhurtziarakotasun handia, ezin alde batera utzi beharrezkoa dela berariaz inork aitortzea edo nork bere buruari aitortzea zein ahalmen jakin erabili nahi den, argudiatzerik ez dagoela aitorpen horren eza ordezka dezakeen ahalduntze inpliziturik dagoenik.

Gai horretaz, Erakunde honek lekualdatzeko lehiaketa deien oinarriak aztertu ditu, Sail horren iritziz, kexa izapidatzean eztabaidagai diren 2HEko lanpostuetara nahitaez esleitzeko oinarri direlako .

Egia esan, oinarri horiek benetan xedatzen dute Administrazioak bere kabuz destinoak nahitaez esleitu ahal dizkiela, esku hartzeko beharra izanda, borondatez inolako destinorik eskatzen ez duten izengaiei.

Halaber, xedatzen dutenaren arabera, nahiatezko esleipenak egingo dira nahiatezko lehiatzaileen berezitasunen arabera.

Alabaina, azterturiko inongo oinarrik ez du jasotzen hezkuntzako Administrazio horrek adierazitakoaren pareko xedapenik, nahiatezko esleipenak egiteko ahalmena ematen dionik Hezkuntzako funtzio publikora sartzeko hauta frogetan egiaztaturiko hizkuntz eskakizuna kontuan izan gabe.

Hori dela bitarte, gure gardiz, Hezkuntzako Administrazioak defendaturiko jarrerak interpretazio oker bati erantzuten dio, lehiaketan eskurik hartzen ez denean nahiatezko esleipenak egin ahal izatearen gainekoa, eta ez da lekualdatzeko lehiaketa deian xede hori erdiesteko berariaz jaso zitekeen klausula berezia.

Areago, ohartarazi beharra dago ezen nahitaezko lehiatzeei Administrazioak bere kabuz nahitaez esleitzearen gaineko aurreikuspenek erreferentziatzat hartzen dituztela, ezin bailiteke bestela egin, lehiatzaileen berezitasunak eta alderdi hori, behin eta berriro Erakunde honek azpimarratu bezala, lehiaketako datuetatik edo ukituriko irakasleen funtzionario ibilbideko bestelako ihardunbide esanguratsuetatik (Hezkuntzako Administrazioak finantzaturiko prestakuntza ihardunbideak...) baino ezin dira lortu".

Aurreko gogoetek bultzatu zuten Arartekoa hau gomendatzera Administrazioari bere kabuz berrikus zezala partedunari eginiko destino esleipena. Hala ere, hezkuntzako Administrazioak gomendioa betetzeko orduan erakutsitako jarrera uzkurrak Erakunde hau bere negoziazio ahalbideak amaitutakotzat jotzera behartu zuen, gaia 1996eko honako txosten honetara onartugabeko gomendio gisa bilduko zuela ohartarazi ziolarik.

Publiko bihurturiko ikastoletako irakasle ez diren langileak udaletako plantilan onartzea (1121/95)

Ikastetxe sare publikora bildutako ikastoletako irakasle ez diren langileak bereganatzea oraindik ere gainditu gabeko oztopoa da. Horren lekukotasuna damaigute zenbait langilek aurkezturiko kexek, tokian tokiko udaletako plantiletan onartu nahi ez zituztelako.

Irakasle ez diren langileak bereganatzeko ihardunbidea epaitegietara eroan izanak agerian utzi du bere garaian halako garrantzitsutzat jo ez zen arazo bat.

Kexa gehienak justizi auzitegien eskumenean zeuden arren, Arartekoak behin eta berriro dei egin dio eragindako udalen sentikortasunari.

Irizi horrek, legezkotasunaren printzipioa derrigorrez bete behar izatetik eutsita, hori erdiestea baita Aratekoaren jokabidearen gidaria, ez zuen udalaren ustearen legezkotasuna auzitan jarri nahi, baizik eta uste hori defenda zezaten langilearen eskubideak kaltetzeke.

Askotariko erantzunak eman dituzte udalek eta batzuek gurago izan dute ihardunbide judiziala irmo bihurtu arte zain egon. Guztiarekin ere, azpimarratu beharra dago hainbat udalbatzarrek, Getxokoak, kasu, kexa aurkeztutako langileak kautelaz bereganatzea erabaki zuten, epailearen behin betiko epaia jakin arte.

Erizaintzako languntzaileen ordezkotzak Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean egiteko lehiatzaileen zerrenda. Ustezko bete-beteko baztertzea (329/96)

Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean erizaintzako laguntzaileen ordezkotzak egin nahi zituen lehiatzaile emakumezko batek Erakunde honi eskatu zion aztertzeko foru erakunde horretako zuzendaritzak hartutako erabakia, bestelako izapidetzarik gabe baztertzen zuen-eta aldian aldiko beharrizanei erantzuteko zerrendetatik, zerbitzuak emandako bestelako gizarte erakundeek luzaturiko txosten negatiboak emana oinarri hartuta.

Egia da erabiltzaileei ahalik eta zerbitzurik bikaiena eskaini behar goren horrek batzuetan bultza dezakeela neurri jakin batzuk hartzera langileen jokabide jakinek behar hori egoki lortzeko oztopo garrantzitsua izatekotan.

Halere, mota horretako ezein neurri hartzerakoan, eta nahierakotasun edo defentsagabetasun egoerei itzuri egin nahi izatekotan, arauzko ihardunbideari eutsi behar zaio, nahiz eta batzuetan hartu beharreko neurria zerbitzu egoera eraginkorrik ez dagoen unean gertatu.

Bestela esanda, nahiz eta jokabide okerra egotzitako lehiatzailea baztertu zerbitzuak emandako erakundearekin loturarik ez dagoela, eta egoera horrek zigor araubidetik bertatik urrunduko gintuzkeen, guztiagaz ere, baztertze neurri horrek kalteturikoaren interesak benetan zaintzen direla bermatzearren, kontraesan espediente bati ekin behar litzaioke, horrela egiazta dadin administrazioak zerbitzuaren abia ona segurtatzeko asmoz bururatu nahi duen ekintza behar bezala oinarri dadin.

Hori dena dela bitarte, Ararteko honek orokorrean gomendatu zuen aurrerantzean ordezko zerrendetarako lehiatzaileak baztertu nahi izatekotan, kontraesan espedienteari ekitea, nahiz eta zerbitzu harreman eraginkorrik tartean izan ez, eta partedun andrearen kasuan, ezaugarri horietako ihardunbide bati ekitea iradoki zen, bideragarria izanez gero beste zerbitzu batzuk ematea gauzatzen ari zen merezimendu bidezko lehiaketaren ondorioz ordezkotzetarako zerrenda berria egin baino lehen.

Gomendioei erantzuteko, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko diputatu jaun txit gorenak idazki bat bidali zuen, iradokizunak jaso zituela esan arren, ezer zehaztu gabe horiek onartu ala gaitzestearen gainean, horrek behartu gintuela berriro ere proposamenak bidaltzera.

Azkenik, eta foru erakundeak gomendioak onartzeari uko egin zionez gero, bere menpeko erabiltzaileei behar bezalako arreta duina bermatzen zaiela zaindu behar zuela argudiatuta, Ararteko honek arartekatzeko ahalbideak amaitutzat jo zituen eta iradokizunak bereganatzen ez zituztela ebatzi zuen, foru erakundeak behin eta berriz erabilitako argudioek ez baitzuten ezertan ere aldatzen Erakundearean eskuhartzea eragin zuten gogoeta juridikoak.

Osakidetzaren AEE. Administrari-laguntzaileak hautatzeko frogak. Hauta irizpideak (641/96)

Osakidetzak bere administrazio enpleguaren eskaintzan iragarritako administrari-laguntzaileen postuak lehiatzen zituzten lehiatzaile batzuek eskatu zioten Erakunde honi aztertzeko epamahaiak azterketa bidezko aldiko lehenengo azterketa baztergarrian erabilitako irizpidea.

Kexaren zergatia laburbil daiteke esanda lehiatzaile horien ustez epaimahaiak hartutako ebaluazio irizpidea (azterketak zituen 75 galderetatik gutxienez 50 ondo erantzutea) deiaren oinarrietatik urruntzen zela, horiek gehienez eskatzen baitzuten 60 puntu lortzea orotara egin beharreko 120 galderetatik azterketa bidezko lehiaketako azterketa guztiak gainditutzat jotzeko, ekainaren 4ko 633/1996 Ebazpen bidez oinarriei eginiko aldaketen arabera.

Kexak nola planteatu ziren ikusita, Erakunde hau erabakitako ebaluazio irizpidearen egokitasuna aztertzera mugatu zen, deiaren oinarrietan xedaturikoaren aurka baitzihoan azterketa bidezko lehiaketa ebaluatzeari zegokionez, oinarri horiek, auzitegien epaiek behin eta berriro adierazi legez, hauta ihardunbidearen benetako lege bakarra diren aldetik.

Halaber, Ararteko honek balioztatu zuen nolako eragina izan zezakeen oinarrietan xedaturikoan epaimahiei eta hauta erakunde teknikoei aitortzen zaien teknika zuhurtziarakotasunak.

Azkenaz den bezanbatean, epaitegiek aspaldi honetan emandako epaien ildotik (1993ko azaroaren 29an Konstituzio Auzitegiak emandako epaia) pentsatu genuen teknika zuhurtziarakotasunak esparru bat izan arren, merezimendu eta azterketa bidezko lehiaketetako azterketak eta frogak zuzentzerakoan gertatu legez, horrek ez dakarrrela, halaber, kontrolik gabeko esparrurik izatea noiz eta egiaztatzen denean jokabide zentzuzkoa hautsi dela edo ez dela ezagutzen, nahiz botere desbideraketagatik, nahiz nahierakotasunagatik, nahiz hartutako irizpidea inondik inora funtsatu ezin izateagatik.

Bide horretatik, Ararteko honek bere egiten du epaimahi guztiek ahalmena dutela ebaluazio lanak gauzatzeko osagai kuantitatibo eta kualitatibo batzuk definitzeko. Horrela, epaimahaiak zehaztea dauka galde sorta jakin bat, horren bidez xedatzeko zenbat galdera erantzun behar dituzten lehiakideek edo zuzentzerakoan denok kontuan izan beharreko irizpideak zehazteko.

Aldiz, Ararteko honen ustez, zuhurtziarakotasun hori ezin da inoiz erabili deialdiko osagaiak aldatzeko baldin eta oinarriek berek hitzez hitz mugatu badituzte erabat interpretazio edo eztabaida guztiak, bestela jokatzekotan, teknika zuhurtziarakotasun horrek deialdiaren oinarriak betetzen ez dituzten jokabideak babestea ahalbidetuko luke, oinarri horiek, esan dugun moduan, hauta ihardunbidearen lege eratzen dira eta.

Kontrakoa onartzearen ondorioz, gainera, eraginkortasuna kenduko litzaioke deialdian bertan xedaturiko hauta mugari, guztiz edukinik gabe geratuko litzatekeeta, ikuspegi hori edonondik begiratuta ere guztiz defendaezina da, hautaketa estuagoa egin nahi izatekotan hauta muga berezitua ezar bailiteke deialdiaren testuan bertan.

Horregatik guztiagatik, Ararteko honen aburuz, epaimahaiak hartutako irizpideak; 75 galderetatik 50 behintzat ondo egitea, “zigorrak kendu ondoren”; urtarrilaren 17ko 29/1996 Ebazpeneko 6.3.2.2 oinarrian ebatzitakoa ez betetzea zekarren eta, ondorioz, Osakidetzako arduradunei honako gomendio hau luzatu zien, alegia, ***egokitzat jotako neurriak hartzea epaimahaiaren balioztatze irizpideak deialdiko 6.3.2.2 oinarrian xedaturikoetara egokitzeko eta, halaber, kontuan hartzea eginiko azterketarako aurreikusitako gehienezko puntuaziotik %50 lortutako lehiatzaileak, zoriaren ondoriozko faktoreak orekatzeko zuzenketa irizpideak ezarri ostean, hauta ihardunbidean aurrera egiteko moduan baitzeuden.***

Gomendio honen erantzun gisa, Osakidetzako zuzendari nagusi jaunak erakunde honi txosten luze bat bidali zion eta horretan epaimahaiak aukeraturiko balioztatze irizpideak defendatzen zituen. Segituan jaso dira txosten horren edukina laburbiltzen dituzten ondorioak:

1. *“Osakidetza Erakunde Autonomoak 1995. urtean deituriko lehiaketa deiaren klausulak **interpretatu eta ezarri** behar dira Kode Zibilean ezarritako arau nagusien arabera eta, bereziki, horien **asmoaz eta xedeaz** bat, alegia **lanpostu jakinerako merezimendurik eta gaitasunik handienak dituzten** lehiatzaileak aukeratzea.”*

2. *"Azterketa bidezko ariketen puntuazioa finkatzen duen deialdiaren* ***oinarrietako klausulak*** *ariketa gainditzeko gutxienezko puntuazioa eta lor daitekeen gehienezkoa baino ez ditu zehazten, idazketa hori, beraz,* ***epaimahaiak gero zehaztu beharrean*** *dagoela, horrek duen teknika zuhurtziarakotasuna baliatuta, galdetegiko erantzunen emaitzak puntu bitartez emateko."*
3. *"Epaimahaiak, galderen emaitzak puntu bidez emateko* ***formula erabakitzerakoan****,* ***oinarrien asmoari eta xedeari*** *jaramon egin die, eta administrazio arau eta ekintzen* ***legezkotasun printzipioa*** *ez ezik, irizpideak zehazteko duen ahalmenaren* ***nahierakotasunaren berezko muga guztiak*** *ere errespetatu ditu, formula ezarri baitu* ***galdetegi jakinaren zailtasun mailaren*** *arabera eta* ***hornitu gura ziren postuen eskakizun teknikoei*** *begira."*
4. *"****Konstituzioaren eta legeen printzipioak****, bai lehiatzaileen eskubideei dagokienez (publizitatea eta berdintasuna), bai administrazioaren jokabideari dagokionez (objektibotasuna eta eragin-kortasuna), bete-betean errespetatu ditu epaimahaiak iharduterakoan, horren irizpide nagusiak izan dira-eta ihardunbide osoan".*
5. *"Arestian azaldutako ondorioen ildotik,* ***egokitzat jotzen dugu epaimahaiaren jokabidea*** *honako kasu honetan, indarreko zuzenbideari loturik egon baita".*
6. *"Ondorioz, Arartekoak eginiko iradokizuna ezin da ontzat hartu."*

Erakunde hau konforme bazegoen ere erantzunean lehiaketako epaimahaiak izan beharreko ihardun esparruaren gainean adieraztiko dotrina funtsekin, ez zetorren bat, aldiz, esku artean generabilen kasuan, epaimahaiaren jokabidea esparru horren araberakoa izan zen ala ez iriztean. Horrek bigarren txosten bat eragin zigun, eta horretan berresten zen egindako gomendioari jaramon egin beharra, segituan azalduko diren argudioak oinarri hartuta:

"1- ***Oinarri berri bat erantsi da***

Epaimahaiak emandako txosteneko 1. aurrekariak adierazten du 4. puntuan formula erabili dela 'galdera kopurua (0tik 75era) Zuzendari jaunaren 29/96 Ebazpenera eta 633/96 Ebazpenera egokitzeko asmoz (0-120 puntuazio sistema)...'
Eginkizun horretan, epaimahaiak ez du balioztatze irizpide teknikorik hartu.
Ez da 633/96 Ebazpenak aldatutako 29/96 Ebazpeneko 6.3.2.2 oinarria interpetatzen ari.
Epaimahaiak deialdiko 6.3.2.2 oinarria aldatu du, hori delarik lege bai epaimahaiarentzat bai lehiatzaileentzat.
Honela dio 6.3.2.2 oinarriak:
"... ariketa guztiek, baztergarriak izanik, 0 eta 100 puntu artean jaso ditzakete, gutxienez 50 puntu lortu behar direlarik horietariko bakoitzean gainditutakotzat jo ahal izateko".

Honela dio epaimahaiak gai horretaz emandako txostenean:
"Azken puntuazioa deialdiko oinarrietan azterketa gainditzeko eskaturiko gutxienezko puntuazioaren berdina da (60 puntu), asmaturiko erantzunen (hutsengatiko zigorra ezarrita) eta gutxienez eskaturiko erantzunen arteko tartea gehituz, koefiziente zuzentzaile batez biderkatuta, koefiziente horrek baliokidetza ezartzen baitu 120 galderatik 60 erantzutearen eta 75 galderatik 50 erantzutearen artean. Koefiziente hori (2,4), 60 puntu (120-60) 25 galderez (75-50) zatikaturik lortzen da."
Oinarria aldatzen da epaimahaiak elementu berri bat sartzean, alegia, 75 galderetatik gutxienez 50 eskatzea, lege oinarrian ezarritakoaren desberdina (50 100etik edo 60 120etik).
Faktore zuzentzaileak (2,4), azken puntuazioaren gehienezko puntuazioa eta gutxienezkoaren arteko tartea galderen gutxienezko zein gehienezkoez (50 eta 70) zatituta lortzen delarik, halaber, oinarria aldatu du. Horrek oinarri berri eta desberdina eskatuko luke, baina akastuna litzateke forma aldetik gutxienezko eskakizuna (67tik 50) legezko oinarrikoaz bestelakoa bailitzateke (100etik 50 edo 120etik 60).

2- ***Epaimahaiak ezin du oinarrien aurka ihardun***

Onartuko bagenu ere epaimahaiak erabilitako irizpideaz 6.3.2.2 oinarrian xedaturikoaren gainean egin denaren besteko egokitzapena bidezkoa dela, gure gardiz, onartu besterik ez genuke edozein dela oinarriaren edukina, horrek ez lukeela inolako garrantziarik epaimahaiarentzat.
Ondorioz onartu beharko genuke berdin lukeela oinarriak esatea 1 eta 120 artetik gainditzeko 40, 60 edo 70 behar direla, epaimahaiak berak erabakiko bailuke gutxienezko puntuazioa.
Ageri-agerian dagoenez, ezin etor gaitezke bat berdin delako ustearekin eta horrexegatik azpimarratu nahi dugu 50 edo 60 esaten duenean horixe esan nahi duela eta ez besterik. Hori dela eta, gainditzeko ariketako gehienezko puntuazioaren erdia lortu behar da, alegia 37,5 puntu 75eko gehinezkotik. Eta ez hauta irizpide bakarra delako, oinarriek horixe aukeratu zutelako baizik.
Ohikoena, izan ere, aprobatua puntuazioaren erdiaz lortzea da. Hala ere, deialdi askok oinarrietan bestelako irizpideak ere xedatzen dituzte aurretiaz (adibidez, 1995eko apirilaren 5eko ebazpena, Poliziaren Ikastegiko Zuzendariarena, 6. oinarriko 2. atalean 90 ezartzen baititu 170etik (EHAA, 1995-05-05) eta gerokoan horretaz eginiko deialdi berria (EHAA, 1995-12-28).
Beraz, ba al du epaimahaiak oinarrietan aurretiaz xedaturikoa bazter utzita, edozein moldapen lortzerik matematika formulak bitarte? Badirudi epaimahaia iritzi horretakoa dela.
Arateko honen ustez, aldiz, baietz erantzuteak eroango gintuzke oinarriek gainditzeko ezarritako edozein irizpide erabakiortzat ez jotzeko zentzugabekeriara.

Epaimahaiak berak ekainaren 11an eginiko aktan jasotakoa aztertuz gero ikusiko dugu gainditzeko epaimahaiak 1. eskalan jarritako gutxienezkoa (50 puntu 75etik) ez dela puntuazioaren erdia, %66,66 baino, aldiz, 2. eskalan (0tik 120 puntura artekoa) bihurtzen delarik erdia (%50) matematika formula erabilirik.
Gainera ikusiko dugu aktan 50 puntu esaten dela eta ez zenbat asmatu diren edo zenbat galdera diren, epaimahaiak behin eta berriro dioen legez.

3- ***Oinarria aldatzea ezin da justifikatu helburu zuzena lortu nahi izanarekin***

Epaimahaiaren txosteneko 3. atalera bildutako balioztatze irizpide teknikoa, erantzun okerrak balioztatzeko modua, jakintza teknikoetan eskuharki onartzen da, aukera anitzeko test sistema erabiltzen da-eta zoriaren ondorioak gutxitzearren. Halaxe onartzen genuen gure aurreko gomendioan.
Guztiagaz ere, 4. zenbakidun balioztatze irizpide teknikoak, 0-75 eskalan bereganaturiko puntuak 0-120 eskalara bihurtzekoa, ahalik eta merezimendu zein gaitasunik handiena lortu gura ei duela, atzenduta uzten du oinarriek berek ezartzen dituztela, hain suertez, xede hori eskuratzeko irizpideak.
Ez gara hasiko aztertzen epaimahaiaren asmoa, horren jokabidea oinarrietan xedaturikoaz bat datorrenentz baizik. Horrexegatik baderitzogu ez zaiola lotzen asmo horri lehiakide batzuk baztertzea halako irizpide bat erabilita, irizpide hori, interpretazioa delakoan, benetan oinarri berri eta desberdina denean, lehiatzaile horiek, gainera, hurrengo azterketetan gaitasun handiagoak erakustea zutela, aurreneko saioan neurturiko merezimendu eta gaitasun neurketa gainditzeko bestekoak.
Merezimendu eta gaitasun handiagoak hauta ihardunbide osoan neurtu behar dira eta ez dago oinarritakoez bestelako irazkirik ezartzerik.

4- ***Oinarria aldatzea ezin da justifikatu publiko egite hutsarekin***

Txostenean, kontuan hartzekoen b.4 atalean, zein epaimahaiaren txostenean ere, epaimahaiak xedaturiko irizpidearen berri eman dela esaten da.
Ez genioke garrantziarik kendu gura jokabide horri, baina gure ustez irizpidearen garrantzia aztertu behar da horren berri emanak lortutako hedapenaren aldetik. Ikuspegi horretatik, irizpideak jendaurrean zabaltzeak ez du legezko bihurtzen epaimahaiaren jokabidea, oinarriak aldatzeko ahalmenik gabea litzateke, mugatuta bailegoke interpretatzerakoan izandako duda-mudak ebaztera. Gure iritziz, 6.3.2.2 oinarriaren argitasunak ez du inolako ezbairik ebatzi beharrik.

5- ***Ezin du inongo irizpide hermeneutikok oinarriak aldatzea baimendu***

Azkenengo gogoeta honek aukera damaigu txosteneko A.1 kontuan hartzekoan eginiko baliozpenean geratzeko, horretan Kode Zibileko 3. artikuluan xedaturiko interpretazio arauak nola ezarri aztertzen baita. Gogoan har bedi Kodeko arauak berak xedatzen duela lehenik eta behin arauak beren hitzen esanguraren arabera interpretatu behar direla.

Ildo horretatik kontuan izan behar dugu legearen testuko lehentasun printzipioa legejakintzan eskuharki onartua dela hermeneutikaren zeregina bideratzeko eta, beste ezer baino lehen, erabiltzen dela interpretazio auziak alde batera uzteko printzipio hori osatzen duen adagiora jota, honen arabera "in claris non fit interpretatio".

Horiek horrela, 6.3.2.2 oinarriak, gure aburuz, horrelako argi idatzirik dagoenez gero, ez du bestelako irizpide hermeneutikorik behar."

Osakidetzako arduradunek luze jotzen zutenez gero berariazko erantzunik emateke 1996ko ekainaren 25ean bidali genion jakinarazpenari eta hauta ihardunbidea bururatu izanak Erakunde honek planteaturiko gomendioa ez zela onartu egiaztatzea ahalbidetu zuenez gero, Ararteko honek erabaki zuen amaitutzat jotzea gai honetako eskuhartzea, arartekatzeko ahalbideak agorturik zeudelakoan.

Osakidetzaren AEE. Zazpigarren Egunaren Eliza Adbentisten Batasuneko lehiatzailea. Azterketen egutegia egokitzeko eskakizuna (720/96)

Erakundean emakume lehiatzaile baten kexa jaso zen, Osakidetzako administrazioaren enplegu eskaintzako administrari-laguntzaileen plazak lehiatu nahi baitzituen, baina zazpigarren egunaren adbentista zenez gero, behin eta berriro eskatuta zuen egutegia molda zezaten erlijio zioak zirela bitarte.

Horrelako egokitzapen eskabideak benetan eginda zeudela egiaztatu ostean, horiei erantzunik ezak eragin baitzuen hain zuzen ere erakunde honen eskuhartzea, Osakidetzako arduradunek bidali zioten Ararteko honi epaimahaiaren txosten bat, horretatik honako hau nabarmen daitekeela:

"... Epaimahaiak erabaki du *(...) partedunari azterketak egitea. Administrazioaren itxurazko funtzionamendu txarrak (eskabidea garai egokian aurkeztu duela egiaztatzen da, kopia) ez diolakoan eskatzaileari kalterik sortu behar.*

Azterketa (...) egunean izango da, zentzuzko epea delakoan (...) andreari abantailarik ez emateko ohiko azterketa egindako aztertzaileekiko eta azterketa prestatzeko aldi bat uzteko.

Idazkariak (...) andrearen deia jaso zuen, eskabideari jaramon egitean luzeegi jo zutela adierazteko. Azterketa eguna zehazteko eskatzen zaio, baita Epaimahaiari egoki iritzitako nahi beste azalpen ere, gomendioa egiten zaiola azterketa prestatzen joatekoa. Inoiz ez du eguna aldatzeko edo antzekorik ezkatzen. Azterketak berme guztiak izango dituela esan zitzaion eta horrela, azterketa hori zein gainontzeko frogak gainditu gero, bere kalifikazioak behin betiko zerrenda osatuko zuela.

Epaimahaia (...) bilduta, erreklamatzailea ez da azterketa deira agertzen eta ez da bere berririk jasotzen. Epaimahaiaren ustez, (...) andreari aukera eman dio azterketa larunbataz ez beste egun batean egiteko, eskatzen zuen legez. Berandu izan bazen ere, Erakundearen funtzionamendu akats bat zela eta, aukera eman zitzaion halako une batean noiz eta beste azterkertak gaindituz gero, partedunak orduan ere osa baitzezakeen lanpostua eskuratuko zuten izengaien behin betiko zerrenda. Zalantza bagerik, Epaimahaia saiatu da, bere ahalmenen esparruan, interesatuak nahi dituen erlijio eta sinesmenak izateko eskubidea asetzen, honako egokiera honetan azterketa larunbataz ez datorren egun batean egiteaz gauzatzen baitzen (Espainiako Konstituzioa eta Espainiako Erlijio Erakunde Adbentisten Federazioarekiko Itun Espainiarra, 25/92 Legea, azaroaren 10ekoa).”

Arartekoaren arabera, epaimahai kalifikatzaile horrek harturiko erabakiak aztertuta, horien bidez egokitu nahi zutelarik hauta ihardunbidearen gestioa eta 25/92 Legeko xedapenak, lege horrek onartu baitzuen Estatuaren eta Espainiako Erlijio Erakunde Ebangelikoen Federazioaren Ituna, pentsatu beharra zegoen kexaren zergatia gaindituta zegoela, hauta ihardunbidea halako aurreratuta egotetik ezin zela ondorioztatu partedunak gerokoan partehartze berdintasunik ez zuela izango gainontzeko lehiatzaileekiko.

Hori dela bitarte, Osakidetzako arduradunek nahikorik bitartekoak jarri zituztelakoan hasiera batean kalteturiko eskubidea bere lehengora itzul zedin saiatzeko, Ararteko honek bere arartekotza amaitutzat jotzea erabaki zuen, horrela jakinarazi ziola kexa-egileari.

Osakidetzaren Lan Eskaintza Publikoa. Euskara mailari buruzko proba. Kopiaketari buruzko salaketak (737/96 eta beste 26 gehiago)

Euskara mailari buruzko azterketa batean kopiaketa masiboa ustez gertatu zela salatzen zuten 26 kexa jaso genituen.

Arartekoak egin zituen ikerketen bidez ez zen lortu horrelako kopiaketa orokorrik gertatu zela baieztatzeko oinarri nahikorik, ez baitzen antzeman hori salatzen zuten kexek ziotena berresteko datu objetiborik, hau da, ezin izan zen frogatu azterketa kontrolatzeko bide nahikorik ez zegoela, eta banaka aurkeztutako salaketa kopuru esanguratsu baten arteko kontrastea egiterik ere ez zen egon.

Hori dela-eta, ezinezkoa zen planteatzea azterketaren gardentasun eta arrazionaltasunari buruzko gutxienezko bermerik ez zela egon, eta, ondorioz, behar adinako justifikaziorik ez zegoenez gero, ezinezkoa zen euskara azterketa hori baliorik gabe utzi eta proba hori errepikatzea.

Nolanahi ere, gure ikerketetan bai izan zen posible banakako salaketa batzuk datu objetibo osagarri batzuekin kontrastatzea, hots, organismo beraren lekualdatze lehiaketa baten barruan hamabost egun lehenago egindako beste euskara azterketa batean izandako emaitzekin, bai eta, salaketen arabera, kexetan aipatutako lehiakideei kopiatu zieten beste lehiatzaile batzuek izandako kalifikazioekin ere.

Erakunde honen aburuz, kontraste honen bitartez hautaproba kolokan jartzeko moduko arrazoizko indizio nahikoak antzeman zitezkeen; izan ere, nahiz eta aztertutako kasuek zuzeneko eraginik ez eduki zegokion epaimahaiak egindako hautatu proposamenean, bazuten eragina ordea proposamen horretan agertzen zirenen hurrenkeran, bai eta proiektaturiko ordezkapenetarako zerrenda posiblekoan ere, posturik gabe aprobaturiko hautagaiei zegokienez.

Horregatik, salaturiko hautagaien egiazko euskara maila neurtzeko behin betiko egiaztapena egitea gomendatu zuen Arartekoak, erakunde honen iritziz lehenago aipaturiko arrazoizko indizioak zirela bide Osakidetzak erantzun egokia eman behar baitzuen hautaprobaren objetibotasuna bermatzeko.

Dena dela, organismo horrek gomendioa onartu nahi izan ez zuenez gero, Arartekoak bukatutzat eman behar izan zituen bere esku zeuden parte hartzeko aukera guztiak.

Apirilaren 16ko 81/1996 Dekretua, lanpostuen zerrendetan izandako aldaketek zein maisu-maistrengan izango zuten eragina zehazteko irizpideak ezartzekoa (792/96)

Maisu-maistren kidegoko bi maistra funtzionariok, EHAEko herri ikastetxe batean behin betiko destinoaren jabe, erakunde honi eskatu zioten aztertzeko apirilaren 16ko 81/1996 Dekretuaren hainbat xedapen, Dekretuak irizpideak ezartzen ditu-eta erabakitzeko zein maisu-maistrek jasoko dituzten lanpostuen zerrendetan izandako aldaketen ondorioak.

Zehazki, maistra horiek zalantzan jartzen zuten antolamendu irizpide batzuk, azkenenan sare publikora bildu diren langileen gainekoak, direla iraungi beharreko kontratupeko langile gisa, direla maisu-maistren kidegoko funtzionario gisa.

Egia da gure Erkidegoko hezkuntza sistemak oso berezitasun nabariak dituela eta hezkuntza gestioaren eremu edo alor desberdinetan islatzen direla, besteak beste, Euskal Herriko hezkuntza Administrazioaren zerbitzupeko irakasleen gestioari dagokionean.

Horiek horrela, ikastolak hezkuntzako sare publikora biltzearen ondorioz, irakasle talde berriak gehitu edo bereganatu behar izan dira, horiek, ahal den neurrian, sistemako langile finkoekin bateratu nahi direla, nahiz karrerako funtzionario finko bihurtuta, nahiz, aurrekoa egiterik ez balego, iraungi beharreko kontratupeko langile gisa iraun ahal izatea bermatuta.

Edukin horixe du EHAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasle kidegoak arautzeko otsailaren 19ko 2/1993 Legeko 2. xedapen osagarriak, berariaz ohartarazten baitu honako hau: “EHAEko hezkuntzako funtzio publikoa osatzen duten funtzionarioen berdintasuna bermatzen da, zein administraziotatik datozen eta funtziora nola bildu edo sartu diren axolarik ez dutela”.

Zehazkiago, berdintzeko asmo horrek guztiontzako antolamendu bideak eranstera darama, nahiz eta ukitutako irakasleek egoera desberdinetan izatea (karrerako funtzionarioak/iraungi beharreko kontratupeko langileak), langileak

gestionatzeko ihardunbideei, horrelakoetan nori bere egoeraren araberako aldakiak sartzea bideraezina bailitzateke sistemaren egituraketagatik beragatik.

Horrela, berbanaketa ihardunbideetan, adibidez apirilaren 16ko 81/1996 Dekretuak arauturikoetan, nori bere ezaugarrien araberako tratamendua aurreikustea, karrerako funtzionarioak ala iraungi beharreko kontratupekoak izatearen arabera, erabat aplikaezina da argi eta garbi, irakasleen destinoak ikastetxe/berezitasun/hizkuntz eskakizuna irizpideei baino begiratzen ez zaiela banatzen dira eta.

Horregatik, eta destinoak esleitzean destino bereziturik izendatzen ez denez gero, derrigorrezkoa da karrerako funtzionarioentzako eta iraungitzeko kontratupeko langileentzako antolamendu bera aurreikusteko formula, bestela jokatzekotan, azkenengoak lekuz aldatzeak ez luke euskarri objektibo egokirik, horrek desberdintasun ustezko egoerak planteatzea ekar dezakeelarik.

Horiek horrela, beste egoera batzuetan, irakasle talde desberdinak elkarren berdin egiteko asmo hori ezin da bermatu lege eta arau uniforme bidez, ondorioz jo behar izaten delarik benetan izaten diren egoeran egoerako antolamendu irizpideeak zehaztera, elkarren artean erkatzerik ez dagoenetik, apirilaren 16ko 81/1996 Dekretuak bereziki xedaturiko egoera jakin batzuekin.

Ezin ukatuzkoa da arau horretan ezarritako irizpide orokorra dela karrerako funtzionario gisa aztergai den ikastetxean duen aintzinatasuna.

Halaz ere, 39. artikuluan jasotakoaren pareko suposamenduetan (ikastola-publiko bihurturiko ikastetxea) irizpide hori erabiltzeak balekarke ikastetxearen bateratzea gertatu aurretik zerbitzuak eman dituen langileen egonaldia kontuan ez hartzea eta hori erabat aurkakoa da ezarritako arauaren asmo nagusiarekiko, horrek, berariaz kontrako borondatea azaldu ezean, ikastetxean luzeen egondako langileen iraunkortasuna segurtatu nahi du eta.

Bestaldetik, 40. artikuluak arauturiko suposamenduetan (ikastola-publiko bihurturiko ikastetxea eta ezaugarri horiek ez dituen ikastetxea bateratzea, baita hasierako bategitearen ondoriozko ikastetxean izango diren ihardunbideak ere), herri ikastetxeetako edo publiko bihurturikoetako irakas postuetan izandako zerbitzualdia kontuan izateak iraunkortasun irizpide horri eutsi nahi dio, sare publikoko langile funtzionarioen egoera -orokorrena- sendoturik, lekualdatze edo destino aldaketa gehiago pairatzen baitituzte publiko bihurturiko ikastoletatik datozenek baino.

Azkenik, 40. artikulu horretako bigarren ataleko xedapenak, azaroaren 2ko 416/1994 Dekretutiko bateratzeei dagokienez, aurreko pasartean adierazitako helburu bera lortu nahi dute, bategite ihardunbideak “herri-eskolak” izenaz deituriko ikastetxeen baterabiltzeetara ere hedatuta.

Ondorioz, eta adierazi diren kontuan hartzekoen aurrean, Ararteko honek ez zuen bere eskuhartzea funtsatzeko moduko zergatirik aurkitu, apirilaren 16ko 416/1994 Dekretuan xedaturiko salbuespenek oinarria aurkitzen zuten-eta ikastetxeen izatezko egoera desberdinetan, finean, aurkitzerik ez zegoela, erakunde honen aburuz, berdintasun printzipioaren hausterik kexak adierazitakoaren ildotik.

Praktiketako funtzionarioen hizkuntz prestakuntza (810/96)

Erakunde honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko praktiketako funtzionario baten kexa jaso zen, karrerako funtzionario gisa iraun ahal izatea hirugarren hizkuntz eskakizuna (3HE) 18 hilabeteko praktikaldia amaitu baino arinago lortzearen menpean zegoen eta.

Tarte horretan partedunak 2HE agiaztatzea erdietsi zuen. Halaber, esku hartuta zegoen HAEEk 3HE egiaztatzeko deituriko azterketetan. Azken HE hori ez gainditzearen ondorioz, konparaziozko azterketa batzuk egitearen menpean utzi zuten, praktikaldietarako aurreikusitako 18 hilabeteko gehienezko epea amaitu baino lehenago egitekoak.

Hori dela eta erakunde honi parte hartzeko eskatu zion, nolanahi ere den, konparaziozko ariketa horren bitartez 3HE egiaztatzeko aukera eman behar zitzaiolakoan, batez ere Foru Aldundiak eman ez zionean inolako baliabiderik hizkuntz prestakuntza errazteko praktikaldi bitartean.

Ararteko honen ustez, kexaren argudiaketa zuzenaren ondorioz, aztertu beharrekoa zen, ezer baino arinago, administrazio publikoek duten eginbeharra, alegia, praktiketako funtzionarioen prestakuntza behar bezala bermatzea, prestakuntza horrek hizkuntz gaitasuna ere barne hartu behar duela sarbidea arautzen duten deialdiaren oinarriek derrigorrez izendaturiko hizkuntz eskakizuna betetzea atzeratzea onartzen dutenean praktikaldia edo/eta prestakuntza ikastaroak amaitzen diren arte, batez ere gogoan izanez gero azken ahalbide hori, berariaz jasoa Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legeko 98.3 artikuluan, soilik bihurtzen dela esanguratsu praktikaldia gauzatu bitartean lanpostua betetzeko eskaturiko hizkuntz eskakizuna gainditzeko behar den kizkuntz prestakuntza eskuratzerik izatekotan.

Alde horretatik, komenigarria da adieraztea Euskal Funtzio Publikoaren Legeak jotzen dituela hautespeneko prestakuntza ikastaroak eta praktikaldia elkarri estuki loturiko errealitatzetzat. Hala eta guztiz ere, eta bi errealitate desberdin izan litezkeela jota, praktikaldiak eduki behar du lanpostua betetzeko beharrizanei egokituriko edukina, 6/89 Legeak berak 25.2 artikuluan hauta ihardunbideak aztertzean, egin beharreko frogek eta beteko diren eginkizunek ezinbestean bat etorri behar dutela esijitzen du.

Ondorioz, praktikaldian ebaluatu beharreko edukinetariko bat euskara maila izatekotan, ezinbestean osatu beharko du kontzeptu horrek praktikaldia, dela eremu horretan pratikak egiten direlako, prestakuntza ikastaroak eta praktikaldiak bana daitezkeela iriztiz gero, dela hizkuntz prestakuntza egokia jasotzen delako, prestakuntza ikastaroak eta praktikaldiak elkarri loturiko kontzeptutzat joz gero.

Zehazkiago, eta esku artean generabilen gaian kexa aurkezten zuen funtzionarioaren sarbidea arautu zuten deialdi oinarriek 3HE praktikaldi bitartean egiaztatu behar zela xedatzen zutenez gero, 1HE azterketa bidezko lehiaketan egiaztatu ostean, beharrezkoa zen zehatz-mehatz aztertzea horretarako behar zen hizkuntz trebakuntza.

Ikuspegi horretatik, interesgarritzat jo dugu Ararteko honek eskaturik HAEEk emandako iritzi itzaltsua eskaintzea.

“1990eko uztailaren 5ean emandako ebazpen bidez, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak erreferentzia bat ezarri zuen argibide gisa hizkuntz eskakizun bakoitzaren hizkuntz gaitasuna alderatu ahal izateko nagusiak alfabetatu eta euskalduntzeko programetan zeuden ikastaro eta mailekiko.

Aipatu ebazpeneko 2. artikuluaren ildotik, lehenengo hizkuntz eskakizuna HABEren euskalduntze programako 6. urratsaren parekide kuantitatiboa da, hirugarren hizkuntz eskakizuna euskalduntze programa bereko 12. urratsarekin baliokide den bitartean

Aztertzen ari garen suposamenduan, 18 hilabetean HABEren euskalduntze programako 6 urrats menperatzeko eskatzen da.

Jakiteko HABEren euskalduntze urrats bakoitza gainditzeko zenbat ordu eman behar diren hizkuntz prestakuntzan, balia bedi parametro gisa Herri Arduralaritzako Euskal Erakundeko Zuzendariak 1992ko urriaren 5ean emandako ebazpenean xedaturiko ordu kreditua, ebazpenak zabalkundea ematen zion-eta Erakunde horrek eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko erakundeek, bigarren xedapen gehiagarrian zerrendatuek, beren zerbitzuko langileen hizkuntz prestakuntzaz izenpetu beharreko hitzarmen ereduaren aldaketari.

Kontuan izanda Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta HABEk 1989ko abenduaren 21ean hitzarmen bat izenpetu zutela eta horrek horien lankidetzaren oinarri eta ihardun lerro nagusiak arautzen zituela Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen hizkuntz normalizazioa bultzatzeko, HAEEren zuzendariak 1992ko urriaren 5ean emandako ebazpenak islatzen zituen ordu kreditoak ezinbestean abiatzen dira HABEren euskalduntzeko urrats bakoitza gainditzeko behar diren ordu kopurutik, urrats horiek bete beharko baitituzte herri enplegatuek beren euskalduntzean.

Aztertzen ari garen HAEEko Zuzendariaren 1992ko urriaren 5eko ebazpenak seigarren oinarriko bigarren lerroaldian hau dio: ‘HAEEk ordainduko duen ikasketa-ordu kopurua I. eranskinean adierazten den ordu krediturari dagokiona izango da’; eta eranskin horretan esaten denez, 6. mailatik abiatzen denak 864 ordu beharko ditu 3. hizkuntz eskakizunera iristeko, hizkuntz eskakizun bakoitza gainditzeko 144 ordu behar direla irizten delako.

Txosten honen xede den suposamenduan praktikaldiko langile funtzionarioak ihardun etena zuen eta lanaldian ez zuen hezkuntz trebakuntzarako inolako tartetik.

Txostenean aipaturiko funtzionarioaren lan ordutegitik kanpo euskaltegi publiko zein pribatuen eskaintza 2 ordu eguneko eskaintzara mugatzen da.

Horiek horrela, 18 hilabetez -jaiegun eta oporrak barne- bi orduko ikastaroen bitartez 864 orduko euskararazko hizkuntz prestakuntza lor zitekeen eta hori ezinezkoa da.”

Komenigarria da azpimarratzea 1HEtik 3HEra igaro izana funtzionario honen kasuan ez zetorrela hauta oinarrietako xedapenetatik, horiek goragoko mailako arauek ahalbideturikoa jaso baino ez baitzuten egiten.

Hala da, izan ere, Euskal Funtzio Publikoaren Legea zein urriaren 17ko 224/89 Dekretua, derrigorrezko hizkuntz eskakizuna lortzea atzeratu ahal izatea xedatzen baitute, beste xedapen batzuen ondoan aztertu behar dira, azken horiek ohartarazten baitute beharrezkoa dela hizkuntz gaitasun egokia bermatzea, baita euskal administrazio publikoen zerbitzuko langileei prestakuntza etengabea eskaini behar zaiela ere (uztailaren 6ko 6/89 Legeko 69.2 eta 97.8 art.), guztiz bideragarri den arau juridiko bat ezartzeak bere edukina ezinezko bihur ez dezan, horrek indargabe jotzera eramango bailuke.

Lehenengo alderdi hori argituta, Ararteko honen iritziz hori zen-eta erabakiorra kexa behar bezala aztertzeko, ezin dugu alde batera utzi partedunak aurkeztutako aldezpena bigarren azterketa edo konparaziozko froga bat egin ahal izateko.

Abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuak, euskararen erabilera normalizatzeko ihardunbidean hainbat neurri artikulatzen dituenez gero, honako era hauek xedatzen ditu hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko:

a) sarbideko hauta ihardunbideetan edo lanpostuak hornitzeko barne ihardunbideetan berariaz egindako azterketak.

b) aldian-aldian xede jakin horrekin egindako deialdiak, bai Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearenak, bai beste edozein administrazio publikorenak.

Pratiketako funtzionarioak karrerako funtzionario izendatzea halako hizkuntz eskakizun jakin bat lortzearen menpean dagoenean, egiaztatze modu bat ala beste bat izatea, dirudienez, karrerako funtzionario izendatu behar dituen administrazioaren erabakimena da.

Ikuspegi horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak bazuen azterketa berezi bat ezartzea hizkuntz eskakizunak egiazta zezaten praktiketako funtzionarioek, kexa aurkezlearen kasuan bezala, karrerako funtzionario izendatzea halako hizkuntz eskakizun jakin bat gainditzearen menpean egotekotan. Areago, formula horren bitartez partedunak bere arraziobideetan aurkezturiko auzia saihets zitekeen, alegia bigarren azterketa bat edo konparaziozko azterketa egiten uztea ala ez.

Guztiarekin ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak aukeratu zuen atxikitzea HAEEk eginiko deialdi arruntari, 1996ko apirilaren 16ko Ebazpenean argitaratu baitzen (25eko EHAA), horren lehenengo oinarriak aukera ematen baitzuen EHAEko edozein administraziotako praktiketako funtzionarioek esku har zezaten.

Aurrekoaren ondorioz, Ararteko honen aburuz, jaramon egin behar zitzaion abuztuaren 2ko 238/1993 Dekretuko 3. artikuluko zazpigarren atalean xedatukoari, bigarren azterketa edo konparaziozko azterketen gainekoari, 1996ko apirilean eginiko deialdi horretan praktiketako funtzionarioak onartu eta parte hartzea ez zegoen inolako mugakizun edo kautelaren menpean praktikaldiaren gehienezko iraupenaren amaierarekiko.

Aurkakoak ekarriko luke ondoriotzat Gipuzkoako Aldundiak bere ekintzak atzera itzul zitzakeela edo jakin gabe izan, edozein ihardunbidez at, partedunari uko egiten ziolarik lehendik aitortutako eskubide bat, hizkuntz eskaizunak egiaztatzeko hautatu baitzuen HAEEren ohiko deialdia.

Hori dena dela bitarte, aurreko kontuan hartzekoak oinarri, Ararteko honek erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Lehendakaritzako diputatuari bidaltzea segituan jasotako gomendioa:

"1. Foru Aldundi horrek neurriak har ditzala (...) praktiketako funtzionarioaren hizkuntz gaitasun egokia ahalbidetzeko, HAEEk euskal administrazio publikoen zerbitzuko langileen hizkuntz normalizazioa bultzatzeko xedaturiko ordu kredituetan oinarriturik.

2. Zelangura ere den, partedunari utz dakiola bigarren azterketa edo konparaziozko azterketa bat egiten Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak 1996ko apirilean iragarritako ohiko deialdian.

3. Azkenik, egun dagoen araubide hutsunea betetzeari ekin dakiola, Foru Aldundi horren zerbitzuko praktiketako funtzionarioen hizkuntz prestakuntza gauzatu beharreko termino eta baldintzei dagokienez, Euskal Herriko Arduralaritzaren Euskal Erakundeak normalizaturiko irizpideen ildotik."

Honako txosten hau ixterakoan jakin dugu onartu dutela partedunari konparaziozko azterketan parte hartzen uzteko gomendioa.

Halaber, badakigu ezen aldatzen ari direla Gipuzkoako Foru Aldundiko langileek euskarazko ikastaroetan parte hartzeko arauak, arauotan berariaz onartuko dituztela pratiketako funtzionarioak eta hainbat ordu konpentsazio baimenduko, arauok Legebiltzarrak administrazio publikoetako hizkuntz eskakizunak arautzeko aldi berria onartzearen ondorioz ezarri beharreko arau berrien testuinguruan kokatuko direla.

Osakidetzaren AEE. Hizkuntzen ezagupena neurtzeko azterketen deialdia aldatzea (830/96)

Erakundean kexa idazki bat jaso zen lehen mailako atentzioko taldeetako medikuntza orokorreko medikuen lanpostuen lehiatzaile batek bidalia, auzia zelarik erakunde horren enplegu eskaintzako hizkuntz azterketen deia egiteko modua.

Horrela, hasieran deia luzatu zen arren uztailaren 6ko 15:00 etan Leioako EHUko kanpuseko Medikuntza Fakultatean egiteko, azterketa gauzatu baino 48 ordu lehenago, legeek ebatzitako gutxienezko epeak betetzen zirela, deialdiaren edukina aldatu zen lekuari eta orduari zegokienez, deia 12:30etarako eta Bilboko Erakustazokarako eginda.

Antza denez, deia aldatzeko zergatia izan zen egoitza esku hartzeko eskaturiko lehiatzaile kopuru handira egokitzea eta horrek, Ararteko honen aburuz, egoitza aldaketa hori egitea baimentzen zuen.

Aldiz, azterketak egiteko ordua aldatzeko emandako zergatiari dagokionez, eta kexa idazkian adierazi bezala, azterketek beranduegi ez amaitzen saiatzea baino ez zen izan, Ararteko honen aburuz, azken erabakia ez omen zen oso egokia sarbideko hauta ihardunbideak gidatu behar dituen publizitate printzipioarekiko, kontuan izanez gero aldaketa horrek nolako eragozpenak sortu zizkien hizkuntz azterketak egin nahi zituzten lehiatzaileei, batzuetan, eta agindutako ordutegia aldatzearen ondorioz, ez zuten ezta deialdi berri horretara agertzerik ere.

Hori dela bitarte, Ararteko honek egokitzat jo zuen Osakidetzako arduradunei informazio eskari bat igortzea, ordutegia aldatzeko erabaki istilutsuaren zergatiak jakin eta berresteko.

Erakunde honi argibide eskaeraren erantzun gisa bidali zioten idazkia aztertu ostean, Ararteko honek beharrezko iritzi zion honako gomendio hau bidaltzeari, bertan jasotako ondorioetan oinarri:

> *"Egia esan, eta gure aurreko (...) idazkian aurreratu bezala, hizkuntz azterketarako bigarren deialdi horrek, esku artean darabilgun kexaren zergatia izanik, ez du aurpegiratzekorik indarreko legeek gutxienezko epeen eta publiztatearen gainean xedaturikoa betetzeari dagokionez.*
> *Hala ere, eta erabakitako deialdi aldaketak deialdi horretako hauta ihardunbideetan parte hartu behar duten lehiatzaile ugarirengan izan ditzakeen ondorio garrantzitsuen aurrean, Ararteko honek beharrezkotzat jotzen du ohartaraztea ezen horrelako erabaki batek derrigorrez izan behar duela oso zergati astuna, bestela, administrazio ahalmen baten abusuzko erabilera gerta liteke, ahalmen hori, zuhurtziarakotasunaren araberakoa izan arren, nahikoa oinarriturik utzi behar denetik.*
> *Hori dela eta, gure aurreko (...) idazkian onartzen genuen ezen, Erakunde honen iritziz, egoitzaren baldintzak lehiatzaile kopuru handira egokitu nahi izatearen pareko antolamendu gaiak euskarri nahikoa zirela azterketak egiteko egoitza aldatzeko.*
> *Halere, beste ordu bat zehazteaz den bezanbatean, erakunde horrek ez du oraindik ezelako argudiorik eman, antolamendu zergati orokorrez landa, lehiatzaileei sortu zaizkien kalteak orekatzeko, honako kexa hau aurkeztu duenari egin legez, baita EHAEtik kanpo bizi diren lehiatzaileei ere sortutakoak funtsatzeko ere, azken horiek, deialdi berria halako presaz eta zabalkunde murriztuz eginaren kariaz, bigarren deialdiak lehenago etorrarazten baitzituen, ez zuten aukera materialik izan azterketak egiteko egoitza berrira biltzeko, ez zelako izan inongo denbora bitarterik.*
> *Horregatik guztiagatik, oraindik ere konpon daitezkeelakoan lehiatzaile batzuengan bigarren deialdia egiteko erak sortutako kalteak, Erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeko 11 b) artikuluak ebatzitakoaz bat, Ararteko honek, on deritzo ondoko gomendioa zuzentzea:*

Ekin diezaiozuela hizkuntz azterketak egiteari bigarren deialdia presaz eta zabalkunde mugatuz deitu izanagatik eta ordutegi aldaketaren ondorioz lehenago etorri beharragatik azterketak egiterik izan ez zuten lehiatzaile guztiei.”

Horrako horretan Osakidetzako arduradunek erabaki zuten Erakunde honen gomendioa betetzea eta jokabide horrek, kexaren zergatia indargabetuta, espedientea amaitzera eta artxibatzera behartu zuen.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloari esleituriko irakasle funtzionarioak. Ezintasuna zerbitzu eginkizunetan betetzeko irakaskuntzarako laguntza zerbitzuetako edo ikerketa postuak (1090/96)

Erakunde honek kexa idazki bat jaso zuen Langileri Kudeaketako zuzendariak 1996ko irailaren 18ko Ebazpen bidez iragarritako deialdiaren aurka, deia luzatzen zuen-eta irakaskuntzako ikerketa eta laguntza zerbitzuetako hainbat postu huts zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Kexaren zergatia laburbiltzeko esan daiteke kexa bidali zuen parteduna deialdi horretako xedapen baten aurka zegoela, galerazten baitzuen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH aurrerantzean) lehenengo zikloan behin betiko postua otsailaren 13ko 35/1996 Dekretua bitarte eskuratutako langileak izandatu ahal izatea postu horiek zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Kexa funtsatzeko argudiatzen zuen ezen, bere iriztiz, otsailaren 13ko 35/1996 Dekretuko 9. artikuluak ebatzitakoak behartzen zuela bi urtez, behintzat, irautera behin betiko destino berrian, baina ez zuela ukitutako funtzionarioaren bestelako eskubideak murrizten, beste batzuren artean, betegabeko postuak zerbitzu eginkizunetan hornitu ahal izatea.

Halaber, ohartarazten zuenez, neurri hori batera zein bestera erabiltzen zen laguntza zerbitzuen arabera, zioenez, hezkuntza Administrazioak ez omen zuen inolako oztoporik jarri DBHko lehen ziklora esleitu berri funtzionarioek laguntza zerbitzu jakinetan postu betegabeetan irauteko zerbitzu eginkizunetan; hala nola IRALE, itsuentzako baliabide etxeak (IBE), barnetegiak, sindikatuen liberatuak eta abar.

Gauzak horrela, eta kexa behar bezala izapidatzeko, Ararteko hau laguntza eske joan zitzaien Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunei eta txosten bat egiteko eskatu zien, partedunak aurkezturiko arrazoibideak baliozta zitzaten.

Argibide eskeari erantzun gisa, aipaturiko Saileko Langileri Kudeaketako Zuzendariak Erakunde honi txosten bat bidali zion eta interesgarri iritzi diogunez, osorik jaso dugu:

“35/1996 Dekretuko 9. artikuluak xedatzen duenez, ihardunbide horren ondorioz DBHn postua eskuratzen dutenek gutxienez bi urte eman beharko dituzte bertan. Egia da, erraklamaziogileak dioenez, xedapenaren helmena lekualdatze lehiaketen arauetan emandako bera dela, berez, ez dituelarik eragozten beste postu batzuk zerbitzu eginkizunetan.

Eragozpena ez da ezarri (...) jaunak esandako zioengatik, baizik eta Hezkuntza Sailak lehentasunezkotzat jo duelako 1996-1997 ikasturtean destinoa DBHko lehen zikloan behin betiko destinoa lortu duten langileek destino hori benetan betetzea. Hezkuntza kalitatea lortzearren, hezkuntza maila berri batek eskatzen du hori eskuratu duen irakaslegoak ikastetxean geratzeko behintzat lehenengo ikasturtean, abiarazten den unean, horixe baita unerik delikatuena erreforma ezartzerakoan, abialdia.

Administrazioak dituen giza baliabideak ahalik eta modurik eraginkorrenean gestionatu behar ditu, bere burua antolatzeko duen ahalmena erabilita, nolanahi ere den begira egon behar baitu izendatu zaizkion xedeak ahalik eta eraginkortasunik handienaz lortzeari, jakina, langileen banako eskubideak kaltetu gabe.

Gainera, gaiari behar bezala heltzeko, kontuan izan behar da deialdi eztabaidatuaren helburua hezkuntzako ikerketa eta laguntza zerbitzuetako postuak 1996-1997 ikasturtean zerbitzu eginkizunetan hornitzea dela, hau da, aldi baterako betetzea, bai erabiltzen den irudi juridikoari, bai iraupenari dagokienez.

Bestalde, Sailetik behin eta berriro adierazi da azken otsailetik aurrera behintzat, DBHra sartzen direnek atxiki behar dietela, hurrengo puntuan azalduko diren salbuespen bakan batzuek izan ezik. Ikuspegi horren alde agertu gara behin baino gehiagotan sindikatuekin izandako bileretan eta egin zaizkigun galdera guztiei erantzutean. DBHri izendaturiko postuak eskatzeko unean, ez baita ahaztu behar borondatezko ihardunbidea dela, inor ez zutelako behartu behin betiko lotzera, partedunen galderak ikusita, behin eta berriro azpimarratu zen hurrengo ikasturtean PATan zerbitzu eginkizunetan iraun nahi izatekotan, ez zutela DBHri atxikitzerik, eta irakasle batzuek horrela jokatzen zuten. Planteamendua, beraz, beti izan zen ageri-agerikoa.

Partedunak aurkezturiko bigarren gaiari dagokionez, esan beharrean nago DBHn destinoa izanda, beste leku batzuetan zerbitzu eginkizunetan irautea utzi zaien funtzionario bakarrak izan direla IRALEn, Itsuentzako Baliabide Etxeetan (IBE) edo barnetegietan irakasle zihardutenetan. Aurreko pasarteko argudioen ildotik, Sailak uste izan du zerbitzu horien berezitasunek beharrezko egiten dutela postuak behar bezala bete ahal izateko, esperientzia eta egokitzapen gehigarri bat izatea besteek behar dutenarekiko.

Sindikatuen liberatuez esan besterik ezin dugu ezen irudi hori erregulatzen duen arauak ez duela ezelako mugapenik ametitzen, sindikaturen batek lagunen bat liberatzekotan, ezinbestean onartu beharko dugularik egoera horretan.

Beraz, ez da inor zokoratu, antzeko suposamenduetan berdin-berdin jokatu baizik, eta bereizketarik egin bada, talde desberdinen artean egin da, txosten honetan azalduriko zergatiengatik.”

Arartekoaren gardiz, txosten horretan emandako zergatiek, bai DBHko postuetarako izendatu berri dituzten irakasleen iraupena funtsatzekoek, bai laguntza zerbitzuaren araberako tratamendu desberdinak azaltzekoek, nahierakotasun usain guztiak deusezten zituzten Administrazioak hartutako erabakian, ukitutakoen arteko ustezko tratamendu desberdina galerazten zuten bitartean.

Hori dela kausa, azken finean ez baitzen nahikorik zergatirik topatzen Erakunde honen partehartzea oinarritzeko, kexaren izapidetza etetea erabaki genuen.

3.5.2.2. **ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA**

Uholde batek eragindako kalteak gurasoen elkarte baten eskola materialetan. Partzuergoak balioztaturikoaren besteko kantitateaz ordaintzea (296/95)

1992ko uholdeek kalteak sortu zituzten Donostiako herri ikastetxe batean. Horien artean eskola material moduan gurasoen elkarteak erosiriko materiala zegoen, halako balio bat jotzen zutela.

Aseguruen Partzuergoak balioztatu zituen elkartearen jabetzako ondasunetako kalteak, eta horrek Udalari uholdeak Donostian sortutako kalteak ordaindu ostean, elkarteak zegokion partea eskatu zion.

Udalak uko egin zion eskola materiala batez ere Hezkuntza Sailak ordaindu behar zuela eta, gainera, Udalaren ekarpenak gainontzeko beharrizanak estaltzen zituela.

Ordaindu beharreko kaltea Aseguruen Partzuergoak Udalari emandako guztizko kalteordainean finkatu eta balioztatu zuen eta ez zen eztabaidatzen elkartea ondasunen jabea zela. Horiek horrela, Arartekoak uste izan zuen ukoak ez zuela oinarririk eta horrela jakinarazi zion Udalari.

Geroago, gure idazkiari ihardetsi aurretik, Udalak “itun” bat egin zuen gurasoen elkartearekin, kantitate jakin bat ordaintzeko.

Kantitatea kalteak balioztatzearen ondoriozkoa baino txikiagoa izan zen arren, Arartekoaren ustez nahikorik datuak baziren bi aldeon “itunak” izaera horixe zuela.

Erabakia bi aldeei jakinarazi eta gero, Udalari nabarmendu zitzaion gure argudioak ez zirela zalantzan jarri, eta bertan behera utzi genuen geure arartekotza.

Zigor ihardunbide batek sortutako defentsarik eza eta hori izapidatzean errugabetasun presuntzioaren eskubidea kaltetzea zaborra uzteko ordutegia ez betetzeagatik irekitako espedientean (729/95)

Basauriko Udalak espediente bati ekiteko agindu zuen zabor bilketa arautzeko Udal Ordenantza hausteagatik eta salatutakoa zigortu zuen leporatzeko zio bakartzat bazuelarik udaltzaingoko funtzionarioek zaborra uzteko ordutegitik kanpo zabor poltsa batean dokumentu batzuk aurkitu izana, horien edukinak kexa aurkezlearekin zerikusia zutela.

Aipatutako Udalak bidalitako espedienteko dokumentuetatik ondokoa ondorioztatu ahal izan genuen:

1- Defentsarako eskubidea hautsi zen, espedienteari ekiteko probidentziak arauzko entzunaldia ematen baitzuen, jasotzaileari berari behin baino ez zitzaizkiola saiatu jakinarazten, arrakastarik gabe, eta Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Amankomunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.4 artikuluan xedaturiko baldintzak ez zeudela, ediktuz jakinarazi zitzaion. Aipatu aginduan eta administrazio ekintzen ediktuzko jakinarazpenaren gaineko legejakintzan (Auzitegi Konstituzionalaren Epaiak: 9/1981, 63/1982, 1/1983, 117/1983, 22/1987, 72/1988, 242/1911, Auzitegi Gorenaren Epaia, 1993ko azaroaren 10ekoa) jasotako xedapenen itzalean, Arartekoak ondorioztatu zuen ezen espedienteari ekiteko probidentzia ediktuz jakinarazteak ezin zuela inolako ondoriorik izan.
   Bestalde, espedientea artxibatzeari ekin behar izango zioten, zigortzeko ahalmena erabiltzearen gaineko 6.2 artikuluko xedapenen ildotik, abuztaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretuak onartu baitzuen, zeren eta egiaztatu ahal izan zenez gero, ediktu bidezko jakinarazpenak antolamendu juridikoaren eskakizunak bete izan balitu ere, aldizkari ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan espedienteari ekiteko agindu zen egunetik baino bi hilabete beranduago plazara zen.
2- Zigor ihardunbidearen jakitun ez egotean, partedunak ez zuen izapidetzan bere burua defendatzerik izan, eta defentsarik eza sortu zen. Auzitegi Gorenak epaiturik duenez (1992ko otsailaren 12ko epaia), entzunaldia izeneko izapideak "... Konstituzioan berariaz jaso baita (105. artikulua) eta oinarrizko arauei estuki loturik dagoela, hala nola defentsarako eskubideari eta aditu gabe inor zigortu ezin den printzipioari (24. artikulua), tradizio luzearen jabe da gure antolamendu juridikoan, legejakintzak izapide ezinbesteko eta oinarrizkotzat jotzen duelarik (...), hori ez baliatzeak aldezturiko ekintza baliogabetzen du errekurtsogileari benetan defentsarik eza sortu edo bermea murriztu zaiola egiaztatuz gero".
   Hizpide darabilgun ihardunbidea zigortzekoa zenez gero, eta horrelakoetan entzunaldia berariaz eskatzen baita -30/1992 Legeko 135. artikulua eta Ihardunbidearen Erregelamenduko 16. eta 19. artikuluak-, eta partedunak izandako lehenengo albistea zigor ebazpenaren jakinarazpena izatean, Arartekoak ondorioztatu zuen ez zegoela eragindako defentsarik eza konpontzerik.
3- Azkenik, lehen esan legez, Udalak erruduntzat jotzeko kontuan izandako elementu bakarra ordutegitik kanpora utzitako zabor poltsan edukinarekin erlazionatzen zuten agiriak aurkitzea izateak zuzenbidean hausten du errugabetasun printzipioa, bestelako egiaztatze iharduerarik egin ez zelako eta aurkikunde horrek ez du ezbairik gabe ondorioztatzen partedunak utzi zuenik poltsa ordu araubidea hautsita.

Aurreko guztiagatik Basauriko Udalari gomendatu zitzaion bere kabuz baliogabetzeko ezarritako isuna. Gomendioa onartu egin zuen.

Errugabetasun presuntzioaren printzipioa kaltetzea zaborra utzi eta biltzeko orduak arautzen dituen Udal Ordenantza haustegatik irekitako zigor espediente baten ebazpenean (834/95 eta 925/95)

Basauriko Udalak zigor espediente banari ekin zien herri horretako bi biztanleren aurka, zaborrak uzteko ordutegia bete uste ez zutelako. Zigor ebazpenek erruztatzeko zio bakartzat izan zuten herriko udaltzaingoko agente batzuek, ordutegitik at utzitako zabor poltsa bat arakatzean horren barruan aurkitzea edukina gero kexa aurkezle izango ziren zigortuekin erlazionatzen zuten dokumentuak.

Arartekoaren gardiz, frogarri bakar horrek ez du ezbairik gabe argitzen partedunen erantzukizuna administrazio ez-zilegia egiaztatzeko orduan, errugabetasun presuntzioaren printzipioa deusezteko, gertaeren frogak subjektoak ekintza horiek egiten izandako erantzukizunaren froga eraman behar du-eta lagun (Auzitegi Gorenaren Epaia, 1990eko uztailaren 2koa). Partedunekin erlazionaturiko dokumentuak zabor poltsan aurkitu izanak ez du esan gura, ezinbestean, horiexek utzi zituztela bide publikoan xedatutako ordutegitik kanpo. Administrazio espedientea izapidatzean partedunen errua demostratzeko ezelako froga ekintzarik ezean, ezin zaie inongo erantzukizunik eskatu gertatutako ez-zilegiarekiko, aipatu gertaera baino hartzen ez bada oinarritzat. Ondorioz, Arartekoaren aburuz, zigor ebazpenek errugabetasunezko konstituzio printzipioa hautsi zuten, Espainiako Konstituzioko 24.2 artikuluak jasotzen baitu eta Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Amankomunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.4 artikuluak positibatu. Hortaz, Basauriko Udalari ezarritako isuna baliogabetzeko eskatu zion. Gomendia onartu egin zuen.

Urteroko kuota gehitzea "Estadio SD" Fundazioaren onuradunei (1118/95)

Ararteko Erakundeak 60 kexa jaso zituen Estadio Fundazioko bazkideei urteko kuota gehitu baitzieten. Gasteizko erakunde horrek kirola sustatu nahi du instalazio batzuk direla bitarte: igerilekuak, tenis zelaiak, eta abar.

1995eko abenduaren erdialdera bazkideek, ordura arte nagusiek 15.000 pta. ordaintzen baitzituzten urteko kuota gisa, ohar bat jaso zuten, non jakinarazten zitzaien beharrezkoa zela halako finantza harremanak izatea Vital Kutxarekin kuota horri eutsi nahi bazioten, bestela urteko kuotak 30.000 pezetara igoko zela.

Hasiera batean, Arartekoaren zerbitzu juridikoek aztertu zuten ea Erakundeak partehartzerik ba ote zuen fundazio pribatu horren ihardun eremuan.

Fundazioen gaineko lege indarrekoetatik, eta bereziki 1994ko ekainaren 17ko Euskal Herriko Fundazioen Legetik, argiro egiazta daitekeenez, fundazioen kontrola eta funtzionamenduan legeak betetzen dituztela aztertzea Babesletzaren eginkizuna da. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan Babesletza Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren esku dago, lagun duelarik Jaurlaritzako hainbat sailetako ordezkariek osaturiko Batzorde Aholkulari bat.

Horiek horrela, Babesletzak eratze xedeen eta fundazioak gauzaturiko ihardueraren artean desbideraketa larririk atzemanez gero, fundazioko zuzendaritza organoari desbideratze horiek zuzentzeko neurriak hartzeko eska liezaioke.

Errekerimenduari jaramonik egin ezean, Babesletzaren ahalmenen artean fundazioaren ibilbidearen behin-behingo gestioa bereganatzea dago epaileak baimendutakoan.

Horren gainean Ararteko Erakundeak beharrezkotzat jo zuen gogoraraztea aipaturiko Euskal Herriko Fundazioen Legearen arabera, erakunde horien xedeak "interes orokor baten menpean egon behar duela" eta "onuradunak hautatzerakoan, objektibotasun irizpideak erabili beharko dituzte".

Bestalde, Lege beraren arabera, fundazio batek eman ditzakeen zerbitzuak ordain litezke horrek "ez badakar onuradunen kopurua zergatirik gabe murriztea".

Arartekoaren ustez, Estadioaren Batzordeak bazkideei ezarritako eskakizun berriak, alegia nomina helbideratzea, hipoteka mailegua kontratatzea etabar, itxura batean Legean jasotako printzipioen aurkakoa zen bete-betean.

Ikuspegi horretatik, Arartekoak idazki bat bidali zion Babesletza barne hartzen duen Saileko arduradunari, kexen jakitun jartzen zuela horiek aztertu eta neurri egokiak har zitzan.

1996ko apirilaren 3an, "Estadio SD" Fundazioaren lehendakariari igorritako eta Arartekoari jakinarazitako gutun bidez, Fundazioen Babesletzak, besteak beste, iritzi zuen kuotak gehitzeko erabakia ez zela ez objektiboa ez zentzuzkoa ere eta, beraz, legearen aurkako bereizkeria funsgabea sortuko zuela.

Azkenik, Fundazioaren Patronatuko Batzordeak erabaki zuen bazkide guztiei kuota bera ezartzea, Vital Kutxa erakundearekiko harremana gora-behera, horrela men egiten ziola Fundazioen Babesletzatik eginiko komunikazioaren edukinari.

Ildo horretatik, Estadioaren Batzordeak onartutako gehikuntza legez kanpokotzat jo eta kobrantza geldiarazita, kexen zergatia konpondutakotzat jo eta espedienteak artxibatzeari ekin zitzaion.

3.5.3. **OFIZIOZKO IHARDUERAK**

Oiongo Udalaren deialdia Udal igerilekuetako lanpostuak aldi baterako hornitzeko (63/96OI)

Erakunde honek komunikabideen bitartez jakin zuen ezen Oiongo Udal arabarrak langile hautaketa egiten ziharduela Udal igerilekuetako lanpostu batzuetarako.

Prentsako albisteetan jasotako iruzkin batzuek pentsarazi ziguten zoritxarrez agian hartarako ezarritako hauta ihardunbidea ez zela berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioaz bat etorriko, jakina denez, enplegu publikoetarako sarbideen gidari izan behar baitute. Hain zuzen ere, sexuagatiko berezikeria izan zitekeela eztabaidatzen zen, emakumezko langileak egokiagotzat jotzen baitzituzten txartel lehiatilan eta garbiketan iharduteko, eta gizonezkoak zaintze eta laguntza lanetarako.

Hori dela eta, Erakunde hau eratu eta arautzen duen otsaialren 27ko 3/85 Legeko 11 b) artikuluan izendaturiko ahalmenaz baliatuta, Ararateko honek Udal

horretako Alkatetzari txostena emateko eskatu zion, zalantzan jarritako hauta ihardunbidearen hainbat ezaugarri argi zitzaten.

Bidalitako argibideak aztertuta, Erakunde honek ondoko akatsak antzeman zituen:

1. Hauta sistema

   Udal horretako idazkariak emandako egiaztagiriaren edukina aztertuta, Udalbatzarrak 1996ko apirilaren 26ko ohiko osoko bilkuran hartutako erabakiak jasstzen zituen-eta, antza denez udalkideen hasierako asmoa bazetzan lehiatzaileen hautaketa lehiaketa bidez egitean, onarpen irizpideez at, ageri-agerian dagoenez, merezimendu bidezko lehiaketan balioztatu beharreko merezimendu batzuk jasotzen zirelako.
   Halere, Barne Araubideko eta Langileriako Batzordearen aktak garbiro jasotzen zuen beste sistema bat erabiliko zela -zozketa hutsa-, Udalbatzarrak aurretik hartutako erabakian xedaturiko merezimenduei jaramonik egiten ez zitzaiela.
   Puntu horretan Erakunde honek gogorarazi baino ez zuen izan administrazio publikoen langileak hautatzeko sistemen izaera finkatua (merezimendu lehiaketa, azterketa bidezko lehiaketa edo merezimendu zein azterketa bidezko lehiaketa) eta ohartarazi zuen Udalbatzarrak erabilitako sistema ez zetorrela bat arauekin, enplegu publikoetako sarbidea zuzendu behar duten merezimendu eta gaitasun printzipioen erabat aurka zegoelarik.

2. Onartze irizpideak

   Atzera ere Udalbatzarrak 1996ko apirilaren 26an hartutako erabakiek honako onartze irizpide hauek besterik ez zituzten aipatzen: 1) adinez nagusia izatea, 2) enplegu eskabidea eta 3) denok erabiltzeko igerilekuen gaineko arauetan eskaturiko titulazioa.
   Horietatik guztiotatik, enplegu eskatzaile izatearen gainekoa gaitzesten zuen Erakunde honek, argiro hausten baititu berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, ez baitago inongo korrespondentziarik deituriko lanpostua betetzeko baldintza bereziekin.
   Hala ere, Barne Araubide eta Langileriako Batzordearen aktak beste irizpide berri batzuk jasotzen zituen: 1) Oionen erroldaturik egotea, 2) langabezi saria jasotzea, 3) enplegu eskatzaile gisa antzinatasun jakin bat izatea eta 4) deitu lanpostuen nolakotasunen arabera, emakumea ala gizona izatea.
   Erantsitako baldintza berri horiek atzera ere puskatzen zituzten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, enplegu eskatzaile izatekoaren gainean esandakoaren haritik.

3. Balioztatu beharreko merezimenduak

   Lehiatzaileek aldez zitzaketen merezimenduek hauta sisteman inongo eraginik izan ez zuten arren, zozketara jo zutenetik, ezin izan genuen

alde batera utzi azken iruzkin bat Udalbatzarrak 1996ko apirilaren 26an onartutakoez, hain zuzen ere 1) Oionen erroldaturik egotea, 2) enplegu eskatzaile gisa antzinatasun jakin bat izatea, 3) laguntza sariren bat jasotzea eta 4) familia erantzukizunak izatea.

Erakunde honen aburuz, kontratupeko aldi baterako langile horien aukeraketa laguntza beharrean zeuden lagunentzat Udaleko gizarte ongizateko zerbitzuek sustaturiko bergizarteratze programa batean jaso ezean, horrelako merezimenduak balioztatzea berriz ere ez zetorren bat enplegu publikoa eskuratzeko moduak zuzendu behar dituzten merezimendu eta gaitasun printzipioekin.

Hori guztia zela bitarte, aurreko ondorioak oinarritzat hartuta, Ararteko honek erabaki zuen Oiongo Udaleko alkate jaunari honako gomendio hau bidaltzea, ezinbestean etorkizunari begira egina, Udalak Erakunde honekiko laguntza berandutu zuelako:

"Udal horrek langileak hautatzeko gauzatuko dituen ihardunbideetan kontuan izan beharrekoak:

1. *legeek herri administrazioen zerbitzuko langileak sartzeko xedaturiko hauta sistemak (merezimendu lehiaketa, azterketa bidezko lehiaketa edo merezimendu zein azterketa bidezko lehiaketa) erabiltzea,*
2. *lanpostua betetzeko baldintzek xedaturiko sar baldintzak baino ez eskatzea, guztizko begirunea izango zaiela berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei, enplegu publikoetarako sarrera zuzendu behar baitute,*
3. *eta, azkenik, merezimendu eta gaitasun printzipio horiei derrigorrez loturiko merezimenduak balioztatzea, laguntza beharreko herritarrak bergizarteratzeko programek horrelakoen lan eta ekonomia baldintzak kontuan hartzea funtsatu ezik."*

Oiongo Udalak gomendioa onartzen zuela jakinarazi zionez Erakunde honi, Ararteko honek bere arartekotza amaitzea erabaki zuen.

3.6. **OGASUNA**

3.6.1. **SARRERA**

1996. urtean Ogasun sailak 160 kexa jaso ditu, eta horrek esan nahi du 1995. urtean hasitako joera sendotu egin dela, kexen kopurua bikoiztu egin baitzen.

Azpialorretan honela banatu dira:

- Foru-tributoak 70
- Udal zergak 37
- Prezio publikoak 15

- Udal arielak 27
- Bestelakoak 11

Foru zergetan, Pertsona Fisiko Errentaren gaieneko Zergan kuota kenkariak ezartzeko modua oraindik ere bada kexa sortzaile handia.

Tramitaturiko espediente kopuruari dagokionez, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatiko kenkariarekin erlazionaturiko arazoek kexak eragiten jarraitzen dute. Arazoetariko bat da kontzeptu horren helmena zedarritzea eta garajeak eta trastelekuak bezalako eraskinen erosketara ere heda daitekeen jakitea, 1995eko ekitalditik aurrera eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan konpondu dutelarik Ogasuneko zuzendariaren interpretazio ohar bat bidalita. Beste kezka bat zen etxebizitzarako aurrezki kontuetan gordailaturiko kantitateen inbertsioa egiaztatzea, horrela egin ezean foru ogasunek eskatzen dute-eta itzultzeko bai kendutako zenbatekoak zein horien interesak.

Ikergai erabili genituen Ogasunak jarritako baldintzak minusbaliotasun kenkaria onartzeko, zeren eta zergadun pasiboak, nahiz eta Gizarte Segurantzaren sistemak minusbaliotasun iraunkorra onartuta izan, ez zuen eskuraturik foru ogasunen arauzko egiaztagiria.

Zergadun batek aurkeztutako kexa oinarri zela bidali genion gomendio bat Gipuzkoako Foru Ogasunari, sei urtez beherako seme-alabak zaintzeaz arduratzen diren lagunengatiko kenkaria egiteko egun ezarritako mugak heda zitzan.

Zerga horren ildotik, 1996. urtean kexak izan dira ezinezkoa da-eta urte beraren gainean hautatuko zerga ordaintzeko era aldatzea.

Bete-betean uste dugunez PFEZren gaineko foru arauetako 88. artikuluaren indarreko idazketak ahalbidetzen dituela egoera zuzengabeak, Konstituzioak foru gaitasunaz xedaturiko printzipioarekiko kontrakarrean, Herriaren Defendatzaileari eskabide bat bidali genion xedapen hori alda dezaten, Ekomomi Itunaren testuaren haritik, Gorte Nagusiek egin behar dutenez gero.

Beste gai batek ere eskatu du aztertu eta Herriaren Defendatzaileari bidaltzeko, alegia, PFEZren ondorioetarako zein den egungo familiaren kontzeptuaren osaera jakiteak. Semerik gazteena adinez nagusi bihurtzeak ondorio negatiboak izan ohi ditu familia unitateetan familia burua banandurik, dibortziaturik edo alargun egonez gero eta horrek funtsatzen du Erakunde honen aburuz PFEZren Legeko 87. artikulua aldatu eta dagozkion foru arauetan ere jasotzea.

Atal horren baitan nabarmendu beharrekoak dira, azkenik, beregaineko langileek aurkezturiko kexak lehentasunez ezartzen zaien baliospen araubideaz, horren ondorioz, batzuetan, kalkulaturiko etekin garbiak benetan lortutakoa gainditzen baitu.

Ihardunbidearen alorrean, aipatzekoa da Arabako Foru Ogasunaren aurka tramitatutiko kexa, indarreko legeen arabera, bete ez zituelako behartze bideko ihardunbidea erabilita emandako probidentziek bete beharreko baldintzak, ondorioz administrazio horrek hitz eman zuelarik antzemandako hutsak konponduko zituela.

Udal zergen esparruan bereziki nabarmentzen dira Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren gestioak sortutako kexak, bai zergadunari berari ez oharta-razteagatik, aldian aldiko zerga den aldetik, bai zorpetutako ondasunen baliozpenari

dagokionez, jabeek gehiegizko jotzen baitute egitura ezugarriei eta kokapenari begira. Halaber, zerga oinarria gehitzeko udalek hartutako erabakiak eta horrek zergagatik ordaindu beharreko kuotan izandako ondorioak ere biztanleri talde handien ezinegona sortu du.

Bi kexa izan ziren Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzeko eskatzen zitzaien-eta ibilgailua saldu eta Trafiko buruzagitzetara salmentaren berri eman arren, erosleak transferentzi izapidetza benetan betetzen zuen ala ez egiaztatu ez zuten jabeei. Auzitegiek berek ere iritzia eman dute horretaz, zerga horren zergadun pasiboa izango delarik Trafiko erroldan jabe gisa agertzen dena.

Baina, hala ere, berriro aipatu behar ditugu bereziki udalen eskumeneko zerbitzuak emateagatiko tasa eta prezio publikoak kobratu diren moduaren gaineko kexak.

Edateko uraren hornidura, bidalitako ordainagirietako zenbateko txikia izan arren, atal horretan tramitaturiko espediente gehienen iturburua da. Baita sorta zabal bat ere, hala nola saneamendu kuota eskatzea zerbitzu hori jasotzen ez dutenei edo neurriz gaineko kontsumoak ordaindu behar izatearekin konforme ez egotea, kontagailuak txarto uste zebiltzala eta, Toki Ogasunen Foru Arauan xedaturikoez beste lagunei ordaintzeko eskatzetik igarota, denek behartu dutelarik esku hartzera udal eta enpresa hornitzaileetan.

Zabor tasa inongo merkartaritza iharduerarik egiten ez duen lonjari kobratu nahi izateak ere sortu zituen jabeen kexak, ez baitzekiten derrigorrez jaso beharreko zerbitzua zenik eta zertan ordaindurik ez zutelakoan zeuden.

Udaldian barneratu ahala, kostaldeko hainbat udalek hondartzen ondoko bideetan aparkatzeagatiko prezio publikoa eskatzezen zelako kexak sortu dira, finantza baliabide horrek legezko indarra duela Toki Ogasunen zein Trafiko eta Bide Segurtasunaren legeetan.

Autonomia Erkidegoko tasa eta prezio publikoez den bezanbatean, aurten azpimarratu beharrekoak dira jolas untziak Getariako portuan estekatzeagatiko tasa ordainaraztetiko arazoak, zerbitzua, esleitzeko lehiaketa egin ondoren, enpresa emakidadun batek eman baitu, itsasuntzi txikien jabeek zenbatekoari gehiegizko iritzi diotela.

Azkenik, aipatzeko modukoak dira, alde batetik, HEAE osoan txartel bidezko jokoaren emakidadun enpresak zergen aldetik sortutako arazoak, kapitulu honen amaieran laburbildu bezala, eta bestetik, matrikulak baliogabetu ondoren, Hezkuntzako Administrazioak ordainduriko prezio publikoak itzuli nahi ez izatearren tramitaturiko espedienteak.

3.6.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

3.6.2.1. **FORU ZERGAK**

PFEZn ohiko etxebizitzaren eraskinengatiko kenkariak (325/95)

Gipuzkoar zergadun batzuek Erakunde honetan kexa idazkiak aurkeztu zituzten Foru Ogasunak onartu ez zuelako PFEZn ohiko etxebizitzaren inbertsioagatiko kenkarian sartzea etxeari erantsitako garajearen zatia.

Erreklamatzaileak etxebizitza baten jabe ziren eta horren jabetza eskritura publikoan ukatu ezin izateko moduan jasotzen zen garajea eta trastelekua etxearen eranskin banaezinak zirela.

Horretaz, PFEZri buruzko Erregelamenduko 35. artikuluak kenkaria izateko ohiko etxebizitzan egindako inbertsiotzat zer jo behar den zehazterakoan, honako hau ebazten du 2. atalean:

"Bi. Aldiz, honako hauek ez dira etxebizitza erosketatzat joko:

(...) c) Garaje, lorategi, parke edo kirol instalazioak eta, oro har, etxebizitza bera ez den beste edozein osagairen eraskinak erostea, ***beti ere horretatik independiente erosiz gero****".*

Berriz, osagai horiek, etxebizitzaz bat erosiz gero, Arartekoaren ustez, kenkari eskubidea sortuko lukete.

Erakunde honen eskariz Zeharreko Zergen Zerbitzuak emandako txostenean ondokoa esaten zuen:

"Zeharreko Zergen Zerbitzu honen gardiz, "independentzia" kontzeptuaren esangura ulertzeko eta, horrela izatekotan, kenkariaz gozatzeko eskubidea izateko, Erregistroan idazketa bakarra egin behar da, agiri publiko bidezko adierazpen bakarra lagun. Honako honetan, irizpide horietako bat betetzen ez denez gero, ezin dugu garajea etxebizitzatzat jo, etxebizitzaren eraskintzat baino, ondorioz, 13/1991 Foru Araueko 78.2 artikuluan xedaturikoaz bat, garajeak ez du kenkaria izateko eskubiderik sortzen."

Hala ere, tramitaturiko kasuetan, etxebizitzen eta eranskin banaezinen erosketa eskritura publiko bakarrean gauzatu zela egiaztatu arren, bestela ezin baitzitekeen egin, eta Jabetzaren Erregistroan idazketa bakarra egin zela ere, hori ere beharrezkoa zen-eta zuzenbide aldetik, Gipuzkoako Foru Ogasunak berak ondorioztatu bezala, *"garajeak ez du kenkaria izateko eskubiderik sortzen"*.

Oso idazketa argia du 35.c) artikuluak dionean ez dutela kenkaririk izateko eskubiderik sortzen bertan aipaturiko osagaiak etxebizitzatik independete moduan erostekotan, eta ez dela beharrezkoa interpretazio irizpiderik erabiltzea, irizpide hori esku artean darabilgun gaian ezartzekotan, independente gisa erosterik ez zegoenetik, ezta erosleak berak nahita eskatuta ere, kenkari eskubide osoa zela ondorioztatuko litzateke.

Azaldutakoagatik, Ararteko honen iritziz, garajea eranskin banaezina zela egiaztatzen zenetan, bidezkoa zen kenkaria onartzea partedunak ordainduriko prezio osoaren gainean, etxebizitza inbertsio gisan.

Gomendioa jasota, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak azkenik barne ohar bat onartu zuen, artikuluaren egungo idazketari eusten dion arren, horren helmena eta esangura azaltzen dituela.

Ebazpen horren bitartez, guztiz asebetetzekoa ez den arren, ez baitu behar besteko formazko mailarik, 1995eko ekitaldiko PFEZ aitorpen batetik abiatuta,

1996an aurkeztekoa, erregistro finka bakarra izatean, ohiko etxebizitzaren eranskin banaezin diren garaje eta trastelekuengatiko kenkaria onartu zen.

PFEZren ondorioetarako aurretiazko jubilazio plan bati atxikiriko langileei enpresak emandako osagarrien salbuespena (458/95)

Erakundean hiru kexa espediente onartu ziren Bizkaiko Foru Ogasunak onartu ez zuelako salbuestea kimika alorreko enpresa batek langileei ordainduriko osagarriak, aurretiaz erretiratzeko plan bati atxiki baitzitzaizkion.

Erreklamatzaileek aldezten zutenez, enpresarekin tramitaturiko enplegua araupetzeko espedientearen berezko baldintzen artean bazen bizialdi osorako osagarri bat jasotzearena kalteordain gisa eta hori, PFEZ ezartzeko arauek diotenez, ez da zergagarri Langileen Estatutuak ezarritako mugaraino.

1986tik 1991ra arteko ekitaldietan behar ez bezala jasotako sariak itzultzeko eskatuta, AHV, Babcock Wilcox eta antzeko enpresetako langileei legez, ez zitzaien eskubide hori onartu, Foru Ogasunak zioenez, enplegua araupetzeko espedientea erantsi ez zutelako.

Argibide eskaria zerga Administrazioari bidali ondoren, zuzeneko zergen administratzailearen txosten bidez erantzun ziguten, horretatik honako kontuan hartzekoak hitzez hitz jasoko ditugula:

> *"Idatziz jaso dugun xedapenaz bat, partedunek eskuratu nahi duten zerga salbuespena egingo da baldin eta enplegua araupetzeko espedientea, Langileen Estatutuko 51. artikuluan xedatu bezala tramitatua, eskudun agintariak 1992ko urtarrilaren 1 baino arinago baimendurik izanez gero.*
> *Erantsi ditugun dokumentuetatik ondorioztatzen den moduan (1. dok.), "XXX" SA erakundeak enplegua araupetzeko espedientea aurkeztu zuen Lan Ordezkaritzan 1983ko abenduaren 21ean, onarpena eskatzen zuelarik azido sulfurikoa egiteko instalazio batzuk behin betiko geratzeagatik kalteturiko langileen harremanak iraungi eta, gero, baltzuko zuzendaritza eta langileen ordezkariak aurretiazko erretiroen bidezko itun batera helduta (3. dok.), 1984ko urtarrilaren 11an hori kentzeko eskatzeko (2. dok.).*
> *Aldeek lortutako ituna Lan Ikuskaritza Teknikoak ikuskatu zuen arren, ez da eskudun agintariak onarturiko enplegua araupetzeko espedienterik, 8. xedapen osagarriak eskatu legez, eta gertaera horrek galerazten du ukitutako langilei ezartzea. Horren egiaztapena adibide gisa erantsi den egiaztagiria da (4. dok.), "XXX" SAko Giza Baliabideen buruak izenpetuta dago, eta bertan 'Borondatezko Aurretiazko Erreterioen Plana' aipatzen da, nahiz eta egiaztagiri horiek berridatzi ziren beranduago eta azaldu ditugun jazoerei indarrik ez dieten kentzen."*

Azken finean, Ararteko honen aburuz, zerga Administrazioak zalantzan jartzen zuen langileek erretiro sariaren osagarri gisan jasotako kantitateak kalteordainak ote ziren, baina PFEZren 18/1991 Legeak sartutako formazko

alderdi bati loturik, alegia, enplegua araupetzeko espediente bat izatea Lege hori indarrean sartu eta arinago tramitatua eta lan egintaritzak onartua, honako gai honetan galerazten zuelarik kantitate hori salbuetsitakotzat jotzea hamaikagarren xedapen osagarriaren arabera.

Horrela, nahiz eta pentsa daitekeen ezen izapide hori gauzatuko zela langileen eta enpresaren ordezkariek ituna izenpetu ezean, zorigaitzez 1984ko urtarrilaren 11 baliogabetzeko eskatu zuten.

Ikuspegi horretatik, ageri-agerikoa da bazirautela "XXX" SA baltzuari espedientea izapidatzeko eskarazi zioten arazoek, alegia, azido sulfurikoa egiteko instalazio jakin batzuk behin betiko geratzeak, ukitutako langile taldearekin ituna egin zen unean, denborazko aldaberriketa jazo zen, dokumentuan jaso legez.

Hori gora-behera, Legeak eskaturiko formazko baldintzetariko baten ezaren ondorioz, eta partedunek justizi auzitegietara jo dezaketela beren eskubideen babes eraginkor eske, espedientea ixteari ekin behar izan zitzaion, Administrazioaren ihardunbidean indarrezko legeen hausterik antzeman gabe.

Elbarria dela egiaztatu behar izatea PFEZn kenkaria izan ahal izateko (586/95)

Kexa espediente bat tramitatu zen Oreretan bizi den penstiodun elbarri batek eskatuta, Gipuzkoako Foru Ogasunak onartu ez baitzion elbarritasunagatiko kenkaria 1994ko ekitaldiko PFEZren aitorpenean.

Alegaziogileari 1995ean elbarritasun oso iraunkorragatiko elbarritasun pentsioa aitortu zion INSS erakundeak, lan epaitegietan errekurriturik zegoela. 1995erako Aurrekontu Legean arauak aldatu zirenetik, parteduna behartuta zegoen PFEZren aitorpena aurkeztera.

Aitorpena aurkezterakoan, elbarritasunagatiko kenkaria baliatu nahi izan zuen, baino ez zioten onartu Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak luzaturiko egiaztagirik ez izatearren.

Aitor ziezaioten eskatu ostean, elbarritasuna %33koen artean sailkatu zen 1995eko maiatzaren 15ean, PFEZn kenkaria egiteko gutxienezkoa baita, baina beranduago lan epaitegi eskudunak epaia eman zuen osoko elbarritasun iraunkorra aitortzeko, homologazioz Aldundiak elbarri ehunekoa %65ean ezarri duela.

Horretaz esan beharra dago Gipuzkoako Lurralde Historikoan PFEZren Erregelamendua onartzen duen otsailaren 25eko Foru Aginduko 31. artikuluaren arabera:

> "*Artikulu honen lehehengo atalak aipaturiko elbarritasun egoera egiazta daiteke zerga Administrazioaren aurrean* ***zuzenbidean onarturiko ezein frogabidez***".

Eta aurrerago,

> "*Hala ere, elbarridun lagunaren legezko egoera egiaztatutakotzat joko da:*

b) Gizarte Segurantzak onartutako saria jasotzen denean elbarritasun iraunkorraren ondorioz, hori aitortzeko eskaturiko elbarritasun maila %33 edo gehiago izanez gero, artikulu honetako lehehengo atalak aipatu bezala."

Horrela, Ogasun Sailari ikustarazi genion foru aldundietako zerbitzu eskudunek, Gizarte Segurantzak elbarritasun iraunkorra aitortu dien onuradunek eginiko eskabideetan, aitorpen hori homologatu baino ez dutela egiten %33ko gutxienezko elbarritasun maila batez, %65ekoaz osokoa izatekotan eta %75ekoa elbarritasun handia bada, baina inoiz ez diotela eskatzaileari mediku azterketarik egiten.

Horrela, erreklamatzaileak osoko elbarritasun iraunkorra aitorturik bazuen PFEZren aitorpena aurkeztean, eta elbarritasun hori besterik gabe homologatzen badu Aldundiak %33ko elbarritasunaz, pensatu beharrean gaude zerga ordaindu zuenean bazela elbarritasunaren jabea eta, beraz, kenkaria egiteko eskubidearena.

PFEZren erregelamenduko 31.3 rtikuluko bigarren pasarteak berezko ondorioak aitortzen dizkie aldundiek luzaturiko egiaztagiriei, baina horrek ez du esan gura, lehenengo pasartearen ildotik, ez dela bestelako frogabide baligarririk elbarria dela egiaztazeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailari gomendioa eginda, 1996ko apirilaren 26an Foru diputatuak idazki bidez esan zigun likidazioa zuzentzeari ekingo ziotela eta, halakorik egin behar izatekotan, itzulketa egiteari.

PFEZn zergak ordaintzeko modua aldatzea ekitaldi berean (607/95)

Gipuzkoar zergadun baten kexa idazkia jaso genuen, ezkontidearen eta bien izenean, 1994ko PFEZ aitorpenaren aurkezpenagatik.

Alegaziogileak zioenez, 1995eko ekainaren 16an PFEZ aitorpena aurkeztu zuen, ezkontide bientzakoa, ez zituela sartu emazteak jasotako langabezi sariak, ez zekien-eta 1994tik aurrera horiek ere jaso beharra zegoenik.

Aitorpena aurkezteko unean, funtzionario eskuhartzaileak aitorpena aldatu zuen sari horiek ere jasota, zergadunari ezer esan gabe, eta datuak ordenadorera sartu zituen, handik ordu betera, likidazio orria emateko, 289.000 pta. ordaindu behar zituela zioelarik.

Zergadunak banaka aitortzeko eskabidea egin zuenean, datu berriak sartuta onura handiagoa lortzen zuelakoan (135.000 pezetako sarrera), funtzionarioak esan zion ezinezkoa zela hautabidez aldatzea, PFEZren Foru Araueko 88. artikuluan xedaturikoaz bat.

Horren gainean esan beharrean gaude xedapenaren idazketa argi baino argiagoa den arren ekitaldi berean erabilitako aukera aldatzeaz, egia dela zergadunak ez zuela biderik izan aukera egiteko, ez baitzituen borondate adierazpena egiteko jakingarri guztiak.

Ildo horretatik, legejakintza ugarik dio botere publikoek erraztasunak eta argibideak eskaini behar dizkiotela herritarrari zerga eginbeharrak behar bezala betetzeko. Auzitegi Gorenak 1994ko uztailaren 26an emandako epaiak dioenez:

"... Auzitegi Gorenak behin baino gehiagotan emandako dotrinak zuzentzen duen defentsagabezia, ***Administrazioa behartzen***

***duelarik**, herritarrari, bereak barik, teknikariarenak diren zereginetan erabiltzen baititu, **zein bide erabili behar duen adieraztera**, ekintzak aipatzean edo zuzenbidearen barnera sartzean hutsak eragiten dituenean...”*

Azaldutakoagatik guztiagatik, gomendioa bidali genion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailari, horrek, zuzendari orokorraren idazki bidez erantzun zigularik erabaki zuela banako bi aitorpen berri onartu eta egoera arautzea, gai horretaz planteaturiko erreklamazio ekonomiko eta administratiboa bertan behera utziz gero.

BEZaz salbuestea itzulpen lan batean (489/96)

Arabar zergadun batek egindako kexa idazki bat jaso zen, gaia 1994ko laugarren hiruhilabetean eginiko itzulpen bat BEZri atxikia egotea zelarik.

Alegaziogileak argudiatzen zuenez, aldi hartan itzulpen bakarra egin zuen Gasteizko Udalerako, 365.217 pta. jo zituela. Salbuetsitakotzat jo zuen gauzak emendatu zizkiolako, kontzeptuak azaltzeko aditu oharren eta azalpenen bidez, itzulgaiak hasiera batean horrelakorik ez zeukalarik.

Oker iritzi zuen iharduera hori salbuetsita egotean, ez zuela zertan aitorpenik ere aurkeztu aldi hartan.

1996. urtean, Foru Aldundiak errekeritu zion kexa aurkezleari aitorpena egin zezan, ez aurkezteko eskatzen zaie-eta eragiketa salbuetsiak besterik egiten ez dituzten profesionalei, halako aldi jakin batean erreklamatzaileak eragiketa salbuetsiak baino egin ez balitu, “iharduerarik gabe” autolikidazioa aurkeztu behar zukeela.

Alderdi hori argituta, partedunak Ogasuneko bulegoetara jo zuen “iharduerarik gabe” autolikidazioa aurkeztera, eta orduan, funtzionario eskuhartzaileak esan zion eragiketa zergapeturik zegoela, beraz zegokion kuota ordaindu behar izan zuen, 62.482 pta., printzipala eta beraduntze interesak barne.

Horiek horrela, argibideak eskatu genituen jakiteko zein irizpide izan zituen kontuan zerga Administrazioak eragiketa zergapekotzat jotzeko partedunaren iritziaren aurka.

Sailak, Zeharreko Zergen Zerbitzuaren bidez, honako hau erantzun zuen:

“Interesatuak ez du dokumentuz behar bezala hornituriko itaunik egin jakiteko zein zerga araubide edo sailkapen dagokion; aurrekoa gorabehera, eta partedunaren itzulpenek zerga salbuespena ezartzeko eskakizunak betetzen zituzten ala ez aurretiaz epaitu gabe, 1996ko apirilaren 16ko idazki bidez, argibideak eskaini zitzaizkion horien gainean eta esan ere genion 1994ko laugarren hiruhilabetean eragiketa salbuetsiak baino egin ez balitu, “iharduerarik gabe” aitorpena aurkeztu behar zuela.

Nola nahi ere den, Foru Aldundi honek ez du inongo administrazio ekintzarik burutu Araueko 20.1.26 artikuluan xedaturiko salbuespena kexagilerearen itzulpenei ezar dakiekeen ala ez erabakitzeko, artikulu

hori zuzenean ezarri behar baita eta Administrazioak ez du aurretik ezagutu behar;...”

Horrela, Ogasuneko funtzionarioak emandako argibideak okerrak ziren ala ez frogatu ahal izatea gora-behera, interesatuari iradoki zitzaion Arabako Ogasunari eskatu ahal ziola behar ez bezala ordainduriko zerga, espedientearekin erlazionaturiko dokumentuak eskabideari erantsita.

Adierazitakoagatik, gure eskumeneko ekintza guztiak burututa, espedientea artxibatu egin zen.

Kantitateak ez onartzea ohiko etxebizitzan eginiko inbertsioengatiko kenkariak eskuratzeko PFEZn (494/96)

Erakunde honetan Irungo biztanle batek bidalitako kexa idazkia jaso genuen, ez baitzizkioten onartu ohiko etxebizitzan eginiko inbertsioengatiko kenkariak 1991, 1992, 1993 eta 1994ko ekitaldietako PFEZ aitorpenetan.

Erreklamatzaileak adieratzen zuenez, 1991ko maiatzaren 27an aurrezki kutxa batean etxebizitzarako aurrezki kontuan ireki zuen bere bikotekidearekin.

1994ko otsailaren 1ean etxebizitza kooperatiba bat eratu zen eta bertan bazkide sortzaile gisa bikotekidea baino ez zen agertzen, Euskadiko Kooperatiben Legearen arabera, ezkonduta ez zeudenez, haietariko bat baino ezin zen agertu.

1994ko otsailaren 12an eta urriaren 15ean, lehenengo ekarpenak egin zituzten kooperatiban, bion izenean luzaturiko fakturak eman zizkietela.

1991tik 1993rako ekitaldietan PFEZren kuotan kenkariak egin zituzten ohiko etxebizitzarako inbertsio gisara, baina 1994ko ekitaldikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz, erreklamatzailea kooperatiba bazkide gisa ez agertzean, berak kooperatibari ordainduriko kantitateak ezin zitzaizkion hartu ohiko etxebizitza erosten inberturikotzat, eta behin-behingo likidazioa egin zion aurreko ekitaldietan eginiko kenkariengatik, berandutze interesak gehituta.

Erakunde honen izenean, parteduna bazkide sortzaile gisa agertu zein ez, nahikorik egiaztaturik geratu zen etxebizitza kontuan gordetako kantitateak erabili zirela kooperatibari ordainketak egiteko, izateko bikotekide bion ohiko etxebizitza erosteko asmoz, jabetza eskritura bion izenean luzatu zelarik.

Ogasuneko foru diputatuari horren gaineko gomendioa bidali ondoren, horrek, 1996ko irailaren 12ko idazki bidez eskabidea onartu zuen, beste likidazio bat egiteari ekin ziola, barne hartzen zelarik etxebizitza kooperatibak sustaturiko etxebizitza bat erosteagatik egindako inbertsioari dagokion kenketa, aurreko likidazion ezarritako zigorra kenduz.

Halaber, gai hori zela-eta aurkezturiko erreklamazio ekonomiko eta administratiboa baliogabetu zen.

PFEZren itzulketa gauzatzeko epea (567/96)

Gipuzkoar zergadun batek bidalitako kexa idazki bat jaso genuen 1994ko ekitaldiko PFEZ kuota beranduegi itzuli ziotelako.

Alegaziogileak zioenez, 1995eko maiatzean, 1994ko ekitadiko PFEZ aitorpen-likidazioa aurkeztu zuen.

1996ko otsailean, PFEZren Foru Araueko 100. artikuluak autolikidaturiko kuotan sarturiko gehiegizkoa itzultzeko xedaturiko epea amaituta, interesatuak Zerga Administraziora jo zuen atzerapenaren zergatia jakin nahian.

Erantzunik jaso ez zuenez gero, 1996ko apirilaren 15ean, partedunak berandutze interesak eskatzeko erreklamazioa aurkeztu zuen.

Erakunde honetatik argibideak eskatu genituen atzerapenaren zergatien berri izateko, aipaturiko 100.3 artikulu horren ildotik, itzulketa egin behar baita geroago bidezkotzat jo daitezkeen behin-behingo likidazioak gora-behera.

Urte hartako ekainaren 14ko idazki bidez, Gipuzkoako Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak esan zigun erreklamazioa bidezkoa zela eta baietsi zigun ordura arte ordaindu gabeko printzipala gehi eskaturiko berandutze interesak ordaintzeko izapidetza eginda zegoela.

Besteren menpeko lan etekinen kenkaria beka batengatik (938/96)

Erakunde honetan kexa idazki bat tramitatu genuen gipuzkoar zergadun batek eskaturik, Foru Ogasunak ez baitzion onartu PFEZ aitorpenean inoren menpeko lanaren etekinen kenkaria.

Partedunak 1995ean ikerketa lan bat egin zuen Euskal Herriko Unibertsitateak Gipuzkoan duen fakultate batean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lizentiatuentzako beka bati esker.

Sariaren gainean fakultateak %15eko atxikipena egiten zuen, Gizarte Segurantzan kotizatu gabe.

Arauzko epearen barruan, eskatzaileak 1995eko ekitaldiko PFEZ aitorpen-likidazioa aurkeztu zuen, beka moduan jasotako saria lan etekintzat sartu zuenez gero, ondorioz, besteren menpeko lan etekinagatiko kenkaria egiten zuelarik.

Hori gora-behera, funtzionario eskuhartzaileak inprimaki datuak aldatu eta bekaren zenbatekoa lanbidezko iharduerarren etekintzat jo zuen, kenkari hori egiteko eskubidea ukatu zuela.

Erakunde honen iritziz, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren PFEZren Foru Arauaren 25 h) artikuluaren idazketak ez du interpretazio zalantzarik uzten honako hau xedatzen duenean:

> *"Honako hauek barneratu dira, bereziki, **lan etekinen** artean:*
> *h) familia laguntza edo sariak eta **bekak**, Foru Araueko 9. artikuluan xedaturikoa gora-behera."*

Hau da, Foru Araueko 9. artikuluan ez-salbuetsitakotzat jotzen ez diren bekak (lizentziatura mailarainoko beka publikoak) lan etekin zergapekoak dira.

Etekin horiek inoren menpeko lan harreman huts batetik ez etortzeak ez dakar berez lanbide edo enpresa iharduerarik etorritakotzat jotzerik, izaera hori ere ezin zaienez izendatu bestelako mozkin eta ordainei, 25. artikuluak lan etekintzat jotzen baititu, adibidez, sariak edo elikagietarako urtealdiak.

Adierazitakoagatik eta Erakunde honen aburuz argi dagoelarik eraklamaziogileak lorturiko beka lan etekina zela, gomendio egin zuen eta Foru Ogasunak onartu, beste behin-behingo likidazio bat egin zelarik inoren menpeko lan etekinari dagokion 26.000 pezetako kenkaria barne.

3.6.2.2. **UDAL ZERGA ETA PREZIO PUBLIKOAK**

Zerga jakinarazpenetarako helbidea (165/95)

Erakunde honetan Hernaniko biztanle batek bidalitako kexa idazkia jaso zen, gaia Lasarteko Udalak plusbaliagatik bidalitako behartze bideko probidentzia zelarik.

Erraklamaziogileak zioenez, 1995eko urtarrilean lankide batek eman zion lanpostuan jakinarazpen zedula bat, zerga horrengatiko zorra %20ko gainkargua zuela berandutzeagatik, ordura arte izan ez zuela borondazteko epean eginiko likidazioaren berri.

Urte hartako otsailaren 2an partedunak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu zuen eta 13an alkate dekretu batez gaitzetsi zioten, jakinarazpena salmenta eskrituran jasotako helbidean uzten saiatu arren, emaitzarik ez zela izan oinarri hartuta.

Ikuspegi horretatik esan beharra dago Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Amakomunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.2 artikuluak xedatu legez, zerga gaietan osagarri gisa ezartzen baita, partedunari jakinarazpena emango zaio berak eskabidean hartarako esandako helbidean eta, horrelakorik ezin denean, horretarako egokia den beste edozein lekutan.

Horrela, esku artean darabilgun gaian, Lasarteko Udalari galdetu genion ea bazekien zein zen zergadunaren lantokia, ikusita behartze bideko probidentzia lantokian utzi zela, eta bestalde, Udalak bazekiela udal erroldan baja emanda zegoela, ezinbesteko baldintza baitzen Hernaniko udalerrian alta izateko.

Udalak bidalitako idazkian egiaztatu zen likidazioa egin aurretik partedunak Udalari baja eskatua ziola biztanleen erroldan, berariaz esanda Hernaniko udalera joango zela.

Hortaz, aurreko helbidean eginiko jakinarazpenek, begi bistan dago, aukera asko zeuzkaten, guztiak ez esatearren, ondorio onik ez lortzeko.

Horrez gero ulertu beharko zen zerga autolikidazioan adierazitako helbidean egin behar den arau orokorrak bere lekua utzi ziola, Zergen Lege Orokorreko 45. artikuluaz bat, Administrazioari jakinarazitako helbide berriari.

Honaino ailegatuta galdetu beharra dago ea Administrazioak, zergadunak emandako datuak aski ez izatean, ikertzerik ba ote zuen likidazioa egiteko helbidea zehaztu arte.

Horiek horrela, Hernaniko udal erroldako datuak gordean izan beharrekoak direla iritzi arren, banaka hartuta eta eskatu ziren xedeak lortzeko baino ezin direla erabili, Datu Tratamenduaren Lege Organikoaren (LORTAD) ildotik, administrazioen arteko elkarlanaren eta koordinazioaren printzipio orokorra

erabilita, Lasarteko Udalak laguntza eska ziezaiokeen Hernanikoari, honek baimena eska ziezaion zergadunari helbidea emateko edo, behintzat, udal harekin harremanetan jartzeko.

Bestalde, **agiriaren aurkezleari** -honako honetan notarioari- eginiko jakinarazpenaren ondorio juridikorik eza erakoa da, jakinarazpen horretatik kalteak baitatozkio administratuari, baina ez du inondik inora esan gura Administrazioa, ediktura jo aurretik, jakinarazpen mota hori saiatzetik salbuetitsa dagoenik, horretatik subjektu pasiboarentzat ondorio onuragarriak etorriz gero, eta halaxe gertatzen zen (Justizi Auzitegi Nagusia, Madril, ekainaren 15eko 653/95 Epaia).

Adierazitako guztiagatik, Ararteko honek iritzi zuen ezen ediktu bidezko jakinarazpenera jo aurretik, Lasarteko Udalak beste bide horiek erabil zitzakeela zergadunaren helbidea jakiteko, horrentzako ondorio onuragarria lortuko zelakoan, alegia behartze bideari ez ekitea eta, beraz, zorraren printzipalaren gaineko %20ko gainkargua ezartzea.

Horren aldeko gomendioa bidali genuen, behartze bideko gainkargua kentzekoeskaturik, baina, hala ere, Lasarteko Udalak hartutako erabaki guztiak berresteko erabakia adierazi zuen.

Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga gisa kobraturiko bidegabeko sarrerak itzultzea (652/95)

Erakunde honek Gasteizko biztanle baten kexa idazkia jaso zuen Kanpezuko Udalak Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren (EIZ) kuota batzuk bidegabe kobratu izanaren aurka.

Alegaziogilea, Osakidetzako funtzionario andrea, mediku titular gisa ari izan zen Kanpezuko udalerrian, alta izan zelarik “medikuntza orokorreko medikuak” epigrafean Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean ez zeuden gaixoak atenditzeko baino ez, derrigorrezkoa baitzen udal zerbitzuetako Langileen Erregelamenduaren argitan, 1953ko azaroaren 27an Dekretu bidez onartu zelarik.

1991ean parteduna baja izan zen Kanpezuko titular gisa eta Gasteizko anbulatorio batean zerbitzuak ematen hasi zen, jakinaren gainean ez egotearren EIZn baja eskatzeko eskabiderik aurkeztu gabe.

1994ko ekitadiko PFEZren autolikidazioa aurkezterakoan jakin zuen oraindik ere altan zegoela zerga horren matrikulan.

Kanpezuko udal bulegoetara joanda, partedunak, 1991an iharduerari utzi ziola egiaztatu ondoren, lortu zuen urte hartako abenduaren 31an baja onar zekiola, baina hala ere 1992, 1993, 1994 eta 1995eko lehen seihilabeteko ordainagiriak ordaindu behar izan zituen.

Horretaz adierazi beharra dago iharduerari utzi ziola egiaztatzen zuten egitatezko suposamenduak aztertuta, eta ez zirudien aipatu udalak inoiz ere eztabaidatu zuenik hori, bidegabekoa zela baja eman ondorengo ekitaldietako kuotak kobratzea, subjektu pasiboak baja behar bezala gauzatzeko eginbeharra bete ez zuen arren.

Adierazitako egitateetan oinarriturik, gomendioa egin zen bidalitako ordainagiriak baliogabetu eta sartutako kopuruak itzultzeari ekiteko.

Kanpetzuko Udalak, 1996ko urtarrilaren 12an eginiko ohiz kanpoko bilkuran onartu zuen erraklamaziogileak eskubidea zuela Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren kuota gisa 1992, 1993, 1994 eta 1995eko lehenengo seihilabetean kobratu zizkioten kantitateak atzera jasotzeko, 164.011 pezeta baitziren.

Itzultzea edateko uraren horniduraren prezio publikoagatik oker ordainduriko zenbatekoa (878/95)

Gasteizko andre batek kexa idazki bat aurkeztu zuen edateko uraren horniduraz arduratzen den AMVISA udal enpresak bidalitako ordainagiri baten aurka.

Erreklamatzaileak zioenez, 1994ko lehen seihilabeteko ur ordainagiriaren zenbateko handia zela-eta, erreklamazioa aurkeztu zuen enpresa hornitzailean eta egiaztatu ahal izan zuten bere etxebizitzako eta auzokoaren etxebizitzako plakak lekuz aldatuta zeudela.

AMVISAk okerra onartu zuen, baita horrek bidegabe partedunari 20.482 pta. ordainarazi ziola era, baina ez zuen itzuli gura uste baitzuen erantzukizuna enpresa etxegilearena zela eta, beraz, horri edo auzokoari eskatu behar ziola dirua itzultzeko.

Erakunde honetatik gogorarazi genion udal enpresari, Toki Ogasunen Foru Arauaz eta edateko uraren horniduragatiko prezio publikoa arautzeko udal horren Ordenantzaz bat, prezio publikoak horien jatorri diren zerbitzu edo ihardueren lagunak baino ez dituztela ordaindu behar.

Hitz batean, AMVISAk uko egiten zion prezio publiko bat itzultzeari, nahiz eta sarrera eragin zuen zerbitzua ez zion eman itzulketa eskatzaileari. Enpresak emandako zergatiak, informatika programak horrelako egoerak normalizatzea galerazten zuela eta, beraz, erreklamatzaileak berreskuratu behar zuela bidegabe kobratu zioten kantitatea, aipaturiko xedapenen aurka zihoazen, inondik inora horietara egokitu behar zituelako bere iharduera.

Zerbitzu eskudunei eskatuta gehiegian kobraturikoa itzultzeko, benetan behartutako lagunari tarteak ordaintzeko eskatu ahal izateaz gain, Udalak gomendioa onartu zuen.

Etxeko ur hornidura etetea ordainagiriak ez ordaintzeagatik (16/96)

Oionen, Araban, kokaturiko higiezin baten jabeak aurkeztutako kexa idazkia jaso zen, zioa Udalak edateko urez berriro hornitzeari uko egin izana zelarik.

Erreklamatzaileak adierazi zuenaren arabera, 1995eko abenduaren 22an egiaztatu zuen ezen aipatu etxebizitzak ez zuela edateko urik.

Instalazioa arakatu ondoren, ikusi ahal izan zuen hodia apurtuta zegoela ixteko giltzaren ondoan eta horren gainean zementua bota zutela.

Jakin zuelarik Ekintza hori Udalak berak aginduta egina zela, halako ordainagiri batzuk ez ordaintzearren, partedunak eskatu zuen horien ordaina onar ziezaiotela, eskatu ziotelarik gainera hornidura kontratu berria ordaintzeko.

Horretaz erreklamatzaileak adierazi du ezen ordaingiri horien ordainketa Logroñoko aurrezki erakunde batean helbideratu zuela, espedienteari erantsitako fotokopiaren bidez egiazta zitekeenez.

Bestalde, arrazoitzen zuen inoiz ez ziotela jakinarazi halako neurri bat hartuko zutenik, ezta zor zituen ordainagiriak ordaintzeko esan ere.

Argibideak eskatu genizkion aipatu Udalari eta hango alkatearen idazki batek zioenez:

"- *Edateko urez hornitzeko sarerako hartunea ixteko Udal aginduaren zergatia zen hartune horri buruzko baimen edo harpidetza polizarik ez izatea.*

- *Alkateak 1990eko uztailaren 15ean emandako aginduak etxebizitzako ur hornidura eteteko agindu zuen.*

  Aginduaren zergatia uraren ordainagiriak behin eta berriro ez ordaintzea izan zen.

  Alkate agindu hori jakinarazi zitzaion XXX jaunari 1990eko uztailaren 15ean (Irteera Erregistroaren oharpena: 544, 15.uzt.1990), eta horrela dago jasota honako hau baino arinago bidali zen beste batean (Jakinarazpenaren fotokopia erantsi da). Ukitutako herritarrek ez dute alkate ebazpen hori errekurritu.

  Informazio hori 1996ko urtarrilaren 25eko 07/01 ebazpeneko aurrekarietan jasota dago.

- *Ordainagiriak aurrezki erakunderen batean helbideraturik izateak ez dakar berez ordainduta daudenik. Antza denez, ur ordainagiriak ez ziren ordaintzen zabor bilketagatiko ordainagiriez bat bidaltzen zirelako.*

  Erreklamatzaileak ez zuen zabor bilketagatiko tasak ordaintzen (horren egiaztapen gisa, erantsitako ordain helbideratzearen fotokopia) eta argudiatzen zuen ez zuela zerbitzu hori erabiltzen. Bi ordainagiriak elkarrekin bidaltzen ziren hondakinen bilketa zerbitzuaren jasotzailetzat jotzen zelako edateko uraren horniduraz onuratutako laguna. (Udal ogasunak arautzeko abenduaren 28ko 39/1988 Legeko 20.1.a) eta 20.2 artikuluetan xedaturikoaz bat, zabor bilketa derrigorrez jaso beharreko zerbitzua da)

- *Hornidura eteteko agindu zen unetik beretik, zerbitzu hartzaileen erroldan baja eman zitzaion eta hori bitarte, ez zen zerbitzu hartzailearen izenean bestelako ordainagiririk bidali.*

- *Alkatetza honen aburuz, Zuzenbidearen arabera jokatu du."*

Ararteko honen iritzi, Oiongo udalerriko edateko uraren horniduragatiko tasa arautzeko Ordenantzan xedaturikoek, zerbitzu poliza baliogabetu eta hornidura eteteak, uraren zenbatekoa ordaintzeari "zergatirik gabe" uko egina eskatzen dute (41.11 art.), eta darabilgun jazoera honetan zergatirik eza udalaren jokabidetik zetorren hain zuzen.

Adierazitako guztiagatik, Ararteko honek uste izan zuen erreklamatzaileak ordaindu behar zituela zor zituen ordainagiriak helbideratzeari utzi zioten arte,

baina inondik inora ezin zela zerbitzuan alta berriro eskatzea baldintzatu harpidetza poliza izenpetzeaz eta horrengatiko kantitateak ordaintzeaz.

Gomendioa bidalita Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeko 11. artikuluaren itzalean, Oiongo Udalak alkatearen idazki bidez men ez egiteko erabakiaren berri eman zigun.

Derrigorrez ordaindu behar izatea ibilgailuak bide publikotik kentzeagatiko tasa (276/96)

Bilboko emakume batek kexa idazkia aurkeztu zuen Udalak ibilgailuak bide publikotik kentzeagatiko tasa kobratu ziolako.

Alegaziogileak zioenez, ibilgailua hiri horretako Ertzila kaleko 35aren alboan aparkaturik zegoela, garabiak eroan zion udalaren ibilgailu biltegira.

Ibilgailua eroanarazo zuen arau haustea izan zen *"gelditu ezinezkoan geratzea, traba eginik"*.

Partedunak arrazoibide orria aurkeztu zuen eta 1996ko otsailaren 7an onartu zioten eta salaketa kendu, baina ez zuten inongo aipamenik egin ibilgailua garabiak eroan izanagatik ordainduriko tasa itzultzeaz.

Horretaz beharrezkoa da aipatzea ibilgailuak bide publikotik kentzeagatiko tasa arautzeko zerga Ordenantzak 2. artikuluan xedatzen duela subjektu pasiboak direla pertsona fisiko eta juridikoak baldin eta Ordenantzak arauturiko zerbitzu edo iharduerak **eskatzen** edo horien onurak edo kalteak jasotzen badituzte.

Eta honelaxe darrai:

> *"Administrazioaren iharduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboa ukitu edo eragiten dutela esango da berak zuzenean edo zeharrez horrelakoak* ***sortu dituenean****, bere ekintzek edo ekintzarik ezak Udalari eragiten dizkiotelako bere kabuzko iharduerak edo zerbitzugintzak."*

Ageri-agerian dago salaketa baliogabetu bazen partedunaren arrazoibideak egokitzat jo zituztelako, horien xedea trafiko arauen hausterik ez zela izan frogatzea izanik, ez zegoela berari erantzukizunik leporatzerik Administrazioaren iharduera eragitearren, horrek sortzen zuelako tasa ordaindu beharra.

Ildo horretatik, Erakunde honen aburuz, zerbitzu eskudunek itzuli behar zioten partedunari ibilgailua bide publikotik kentzeagatiko tasa gisa ordainduriko 8.440 pezetak.

Horren gaineko gomendioa egin ostean, Bilboko Udalak onartu zuen eskabidea Herri Segurtasuneko ordezkariaren idazki bitartez.

Bermeoko Udalak ur honiduragatiko prezio publikoa kobratzea (346/96)

Bermeoko udalerriko biztanleen hainbat kexa idatzi jaso genituen, etxeak urez hornitzeagatiko prezio publiko gisa Udalak bidalitako likidazioen aurka.

Partedunek adierazten zutenez, kobratu gura zieten zerbitzu batean altarik eskatubako etxebizitzen jabe ziren, beraz ez zuten balizko kontsumoa neur zezakeen kontagailurik.

Likidazioen jatorria argitzeko asmoz, horien gaineko argibideak eskatu genizkion ukitutako udalari.

Udalaren erantzunak adierazten zuenez, besteak beste, Bermeoko Udalak legez etxebitza guztiei eman behar die edateko ur honiketa eta, hortaz, azpiegitura batzuk bermatu behar ditu zerbitzua eskatzen duenak jaso dezan.

Gastu hori, segitzen zuen Udalaren txostenak, sortzaileei kobratu behar zaie, hau da, udalerriko etxebizitza eta lokalen jabeei.

Horrela, zerbitzua arautzeko Ordenantzak zerbitzu-**hartzaileak** eta -**erabiltzaileak** bereizten zituen, lehenengoak ondasun higiezinen jabeak izanik, ur hornidura eskatu izana gora-behera, eta bigarrenak benetan hartaz gozatzen zirenak.

Arretaz aztertu ondoren txostena eta ur horniduraren zerbitzuaren gestioa arautzeko Ordenantza, honako gogoeta hauek egin behar izan genituen:

Lehenik eta behin, ez da munta gutxiko kontua zerbitzua tasa edo prezio publiko gisa egituratu izana, eta udal horri gomutarazi behar zaio zelako ondorioak dituen batera ala bestera sailkatzeak.

Alde horretatik, tasa eskaturiko edo nahitaez hartu beharreko zerbitzuen kontraprestazioa den bitartean, zenbatekoak ezin du zerbitzuaren kostua gainditu, prezio publikoari dagokionez zenbatekoak, gutxien-gutxienez, kostu hori ordaindu behar duelako, hartzaileek eskaturiko edo nahitaez hartu beharreko zerbitzuen truke eskatuta.

Zergati horiengatik, ur zerbitzua Bermeoko udalerrian prezio publiko gisa egituratu bada, ageri-agerikoa da borondatez eskatu behar dutela administratuek eta, beraz, ezin zaiola ordaintzeko eskatu horrelako borondaterik agertu ez duenari.

Hori ibilgailu jabe guztiei aparkatzeagatiko prezio publikoa kobratzearen parekoa litzateke, arrazoitzat emanik Udalak ipintzen duela zerbitzu hori euren esku, edo adin jakin bateko seme-alabak dituzten auzokoei udal kontserbatorioko musika eskolak kobratzearen parekoa.

Beraz, ondare prestazio derrigorrez ezarriaren aurrean geundeke eta hori, Konstituzioaren 31. artikuluaren arabera, lege erreserbaren printzipioa erabiltzea litzateke.

Ondorioz, udal Ordenantzan hartzailearen figura sartzea, zerbitzu erabiltzaileak ez diren lagunei prezio publikoak ordaintzeko erantzukizuna hedatzen baitie, Toki Ogasunen Foru Arauan xedatu ez denez gero, baliogabetzat jo behar da.

Arartekoak gomendio bat luzatu zuen, ur horniduraren zerbitzuaren gestioa arautzeko Bermeoko Udalaren Ordenantza Legearen aurkakoa zelako baliorik ez zeukala iritziz, zerbitzu hartzailearen figura sortu eta eskatuta ez zuen zerbitzu baten truke ordaintzera behartzen baitzuen, horren babesean egin eta zerbitzuaren erabiltzaile ez ziren jabeei bidaliriko likidazioak ere baliogabetu behar ere zirela.

1996ko urriaren 29an eginiko osoko bilkuran Udalbatzarrak erabaki zuen zerbitzu hartzailearen figura kentzea udal Ordenantzatik, handik aurrera zerbitzu erabiltzaile ez ziren lagunei ez zitzaiela ordainaraziko.

Aldian-aldian kobratzeko zergengatiko ordainak helbideratzea (507/96)

1996ko urtarrilean erreklamatzaileak Gasteizko Udalak zergadunei bidalitako gutun bat jaso zuen, zeinak zergaren subjektu pasibo ziren esan eta horiek helbidertazeko aukera eskaintzen zuelarik.

1996ko otsailaren 14an, ahalbide hori erabilita, fax bat bidali zuen udal horretako Zerga Gestiorako atalera, ume hartatik aurrera ordainagiri guztiak horretarako ematen zien kontu zenbakian helbideratzeko.

Hori gora-behera, maiatzean behartze bideko probidentzia bat jakinarazi zioten Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga zela-eta (TMIZ), %20ko gainkargua gehituta, nahiz eta zerga hori ordaintzeko borondatezko epea otsailaren 26an amaitzen zen, alegia, ordainagiri guztiak helbideratu nahi zituela jakinarazi ostean.

Geroxeago kexa gehiago jaso ziren Erakunde honetan gasteiztar zergadunek bidaliak, udal horri agindutako helbideratzeak ondorioak 1996ko ekitalditik izango zituelakoan, aipatu gutun horrek ez zuela adierazten ez zenik horrela gertatuko, inprimakiak eskura jaso zituzten funtzionarioek ere horretaz argibiderik emateke.

Hori zela eta, zalantzan jarri gabe Korporazioak abiarazitako ekimena ona dela, Erakunde honen iritziz, zergadun batzuk tronparazi zituen, bete-betean uste zuten bitartean ordainagiriak urte horretan bertan kobratuko zizkietela ordainketarako adierazi zuten aurrezki erakundean, baina gero zergak behartze bideko administrazio ihardueraren menpean ikusi zituzten.

Ondorioz, Gasteizko Udalari eskatu genion behartze bideko probidentziak baliogabetzeko, zergadunei bidali zizkielako zergak borondatezko epean ordaintzeko aldiak amaitu baino arinago helbideratze eskabidea eginda zutela, eta Udalak eskabidea onartu zuen Zerga Gestiorako Zerbitzuko bururaren idazki bidez.

3.6.2.3. **BESTE ZERGA BATZUK**

Zigor bat iraungitzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoen errepide araubidea hausteagatik ezarri zelako, atzera indarrez ezarri zizkiotelarik Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Amakomunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko xedapenak (286/95)

Herritar batek eskatu zion Arartekoari behartze bideko espediente baten izpidetza aztertzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoen errepide araubidea hausteagatik jarririko isun bat ordainarazteko erabili zutelako. Argibideak eskatu genizkien Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza zein Garraio eta Errepideetako Sailei eta honako ondorio hauek lortu genituen:

1- Arauzko administrazio espedientea tramitatu ostean, garai hartan Herrilan eta Garraioetako Foru Sailean zegoen Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak 225.000 pezetako isuna ezarri zion 1991ko otsailaren 20ko

ebazpen bidez. Gorabidezko errekurtsoa ezarrita, 1991ko ekainaren 4ko Foru Aginduak gaitzetsi zuen, hilabete horren 19an jakinarazi ziolarik. Azken erabaki horren aurka administrazio errekurtsorik edo auzi errekurtsorik aurkeztu ez zenez gero, zigorra indarreko bihurtu zen. 1994ko apirilaren 15ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak argitaratu zuen espediente hartan emandako zigor ebazpena, ediktu bidea funtsatzen zelarik partedunari zuzenenan jakinarazteko egiaztagiria espedientetik desagertua zela, nahiz eta gero berriro aurkitu zuten. Zigor ebazpenaren iragarkia ez zen erakutsi parteduna bizi den herriko Udal iragarkitegian, horrela ez zirelarik bete Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Amakomunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.4 artikuluko xedapenak.

2- 1994ko urrian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Behartze Bideko Zergabilketako Zerbitzuek erreklamatzailearengana jo zuten behartze bideko probidentzia emateko, eta 270.000 pezeta ordaintzeko eskatzen zioten, ezarri zitzaion isuna gehi gainkarguaren zenbatekoa. Zor horren zati bat konpentsatu zen 1994ko ekitaldiko pertsona fisikoen gaineko zergaren aitorpenean.

3- Kontuan izanik ezarritako isuna ediktu bidez jakinanaztea beharrezkoa ez zela, partedunari zuzenean esan baitzitzaion eta espedientean horen aurka jarritako administrazio errekurtsoa eta horren gaineko ebazpena ere jasotzen ziren eta, egiaztatu zelarik, gainera, jakinarazteko ohiz kanpoko bide horrek ez zituela betetzen 30/1992 Legeko 59.4 eta 60.2 artikuluetako xedapenak, iritzi genuen baliogabetzat jo behar zela, isuna preskribitzeko epean eteteko ekintza era zedin. Aurreko baliozpenaren kariaz, ondorioztatu genuen isuna preskripzioaren institutuak eraginda zegoela, aipatu araueko 132. artikuluan jasotako xedapenak ezarrita. Ondorio hori lortu da nahiz eta Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko 17/1990 Foru Araueko 21. artikuluak bost urteko preskripzio aldia ezartzen dien administrazio isunei, ez badago bestelako xedapenik, zuzenean edo zeharrez, Ogasunaren eskubideen preskripzioa arautzen duenik, horien artean Foru Aldundiak berak ezarritako isunak daudela. Gure aburuz, xedapen horiek badira izan eta 30/1992 Legeko 132. artikuluan islaturik daude, artikulu hori, inondik inora, esku artean darabilgun gaian atzera indarrez ezarri delarik, araua zigor araubide juridikoaren barne baitago, horrela betetzen direlarik Konstituzioaren xedapenak eta horien positibazio gisa aipatutako 30/1992 Legeko 128.2 artikuluan jasotakoa.

Aurreko gogoetak oinarri hartuta gomendatu genien Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza zein Garraio eta Errepideetako Sailei behartze bideko espedientearen ildotik gauzaturiko ekintzak atzera botatzeko izapideei ekiteko. Hartutako ebazpena betetzeko, Ogasun eta Finantzetako Foru Sailak organo eskudunek, Arartekaoren argudioak bere eginda, isuna prekribitutakotzat jo zuen eta partedunari itzuli zizkion konpentsaturiko kantitateak.

Baliogabetzea behartze bideko gainkargua, joko tasa gisa bidalitako likidazio batzuen gainekoa (524/95)

Gipuzkoar enpresari batek kexa idazkia aurkeztu zuen Erakunde honetan behartze bideko probidentzia batzuen aurka, bidali baitizkiote bere jabetzako B motako joko makinen joko tasa gisa.

Erreklamatzaileak arrazoitzen zuenez, oker batengatik Gipuzkoako Foru Ogasunean ordaindu zituen Bizkaian kokaturiko makina batzuen tasak, eta okerra tasak itzulita eta bizkaitar foru kutxan ordaindu ostean konponduta, halere zerga administrazio horrek eusten zion zorraren printzipalaren gaieneko %20ko gainkargua, nahiz eta administrazio horretan partedunak aurkezturiko idazkian adierazi legez, itzulketa eta ordainketa berriaren artean egun bakar batzuk igarotzea jazo zen, bete-betean uste zuelako behar ez bezala ordaindurikoa zuzeneko transferentzia bidez bidaliko ziola gipuzkoar ogasunak Bizkaikoari, beste itzulketa batzuetan iharduera hori erabili baita.

Gainera, eginiko likidazioak borondatez ordaindu ziren arren, Gipuzkoako Ogasunak behar ez bezala kobraturikoa itzuli bitartean, hutsegin egiaztagiri berriak igorri ziren.

Zergati horiek oinarri, eta Foru Ogasunak ihardunbidearen fase guztietan erakutsitako jarrera ona zalantzan jarri bagerik, Sailari eskatu genion aztertzeko ia baliogabe zitekeen gipuzkoar Ogasunak itzuli eta Bizkaioko Foru Ogasunean ordainduriko tasen gainkargua.

Ogasuneko Foru diputatuak 1996ko irailaren 30ean bidalitako idazki bidez esan zigun Sailak erabakita zuela borondatez berrezartzea erreklamatzaileari tasa joko gisa bidalitako likidazioak, halaber baliogabetzen zirela behartze bideko gainkarguak ere.

Estekatze tarifak ezartzea jolas untziei Getariako Portuan (146/96)

Erakunde honetan Pintxo Harri Estekatzaileen Elkarteak aurkezturiko kexa idazkia jaso zen, administrazio emakidadun enpresa pribatu batek emandako portuko zerbitzuak erabiltzeagatiko tasen aurka.

Elkarteari atxikitako estekatzaileek zerbitzurik gabeko pantalan bat ezartzeko eskatzen zuten, beren untzien ezaugarri bereziak asetzeko, denak jolas untziak ziren-eta, horrela murriztuko litzatekeelarik ordaindu beharreko tarifa.

Hautabide gisa planteatzen zuten tarifa murriztua ezartzea Getariako biztanle ziren estekatzaileentzat.

Bien bitartean, presiobide gisa, elkarteak aholkatu zien bazkideei 1996ko lehen seihilabeteko tarifa ez ordaintzea eta horrek finantza arazo larriak sortzen zizkion zerbitzuaren enpresa emakidadunari.

Kexan azaldutako problematika aztertu bezain laster, argibide eskea bidali zitzaion Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Arazoetarako Zuzendaritzari, ukitutako alde guztiak asetzeko moduko ebazpena lortu ahal izateko aukerak ezagutu nahian.

Aipatu erakundearen zuzendariaren idazki bidez, etxe honetara apirilaren 17an heldu baitzen, eskabideari erantzuna eman zitzaion, eta gogoeta hauek egin daitezke horren inguruan:

"1. G-5 deritzon tarifa, barne hartzen baititu jolas untziek erabili ahal izatea moila eta pantalanetako estekatze instalazioak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoak arautzeko maiatzaren 31ko 3/1990 Legean xedatzen da.

2. Lege mailako arau horrek salbuespen bakarra du 123. artikuluan jasotakoa, Instituto Social de la Marina deritzon erakundearen pentsiodun diren untzi jabeen alde egiaztagiri bidez behar bezala frogatuz gero.

3. Pintxo Harri Elkarteak planteaturiko hautabidez, Getariako biztanle diren estekatzaileei tarifa murrizteari buruzkoa ez da legean xedatu eta ez da aurreikusten inongo aldaketarik egitea auzotasuna, nazionalitatea eta antzeko zergatiak direla bitarte.

4. Hala eta guztiz ere, hainbat untzi txikiren ezaugarriei begira, pantalanean zertan estekatu ez dutenez gero, moilan lotzeko aukera xedatu da, tarifa murritzago batez, alegia 13 pta./m2/eguna.

5. Horretarako, Portuen Zuzendaritzak aurreikusita dauka, hautabide gisa, hurrengo udan moila flotagarri bat ezartze, neurri, potentzia eta beste ezaugarri berezi batzuk dituzten berrogei bat untzitarako edukieraz, lehen aipaturiko arauez bat, halakoei moila estekatzeagatiko tarifa eskatu litzaieke, hau da, 13 pta/m2/eguna.

6. Bien bitartean, eta Pintxo Harriko bazkideek orohar tarifak ordaintzeari eginiko ukoaren aurrean, Portuen Zuzendaritzak eskura dituen neurri guztiak hartuko ditu indarreko legeak bermatzeko."

Ararteko erakunde honek Administrazioaren ihardespena azterturik, eztabaidaren gaia zen arazoari buruzko txostena emateari ekin zion.

Tasen kasu jakinean, estekatze zerbitzua emateagatik eskaturikoen zenbatekoak aurretiko funts gisa inbertsio batzuk ditu, euskal Administrazioak - elikatzen baita zergadun guztiengandik, jolas untzien jabe izan zein ez- eta emakidadun enpresak eginikoak.

Tasa kobratuta Administrazioak berreskuratu nahi du, aldez baino ez bada ere, zerbitzugintza gauzatzeagatiko edo subjektu pasiboak hartzaile, ukitutako edo onuradun dituzten iharduerak egiteagatiko gastua.

Konstituzioaren 31. artikuluak dioenez, denek esku hartuko dute gastu publikoei eusten, nork bere ekonomi ahalmenaren arabera, zerga sistema bidezko batez, berdintasun eta aurrerakortasun printzipioetan oinarrituko delarik. Esku hartu behar horren zergatia elkartasuna da, gastu publikoei aurre egiteko garaian izan beharrekoa.

Ikuspegi horretatik, zerga salbuespenak elkartasun printzipio horretan salbuespen dira eta hori erabakiorra da nahierara ezar ez daitezen.

Hori dela bitarte, indarreko araubide juridikoak zerga salbuespenak uzten ditu lege erreserbaren printzipioaren menpean.

HEAEren tasei dagokienez, 30/90 Legeak 16.2 artikuluan honako hau dio:

*"**Lege batek hala xedatzen duenean, zerga salbuespena** edo hobaria izango dute gainontzeko subjektu pasiboek, ekintza zergagarriaren nolakotasunen edo subjektuen egoeraren arabera".*

Beraz, Eusko Legebiltzarrak izango luke eskumena horrelako edo halako salbuespena onartzeko.

Zerga salbuespenen mamian beti izaten da babestu beharreko ondasun juridiko bat: zergadunaren ekonomi ahalmena, salbuetsitakotzat jotako ihardueraren interes orokorra, eta abar.

Ikuspegi horretatik aztertu behar da han zuzen Pintxo Harri Elkartearen gurariaren funtsa, Getariako biztanlea izatea oinarri hartuta tarifa murrizketa lortzea, alegia.

Alde horretatik, auzotasunak ez dakar loturik subjektu pasiboek halako ekomomi ahalmen jakinik izaterik eta, bestalde, ez du ezelako eraginik eskainitako zerbitzuaren kostuan, ez dagoela esaterik txikiagoa denik untziak Getarian bizi diren jabeenak izanez gero. Untzien xede den jolas iharduerak ere du uzten gizarte onurakotzat edo herri onurakotzat jotzerik, baina horrela balitz, jabeak udalerri batean ala bestean bizitzea gora-behera litzateke.

Zerga salbuespen osokoa zein zatizkoa onartzeak, aldiz bai, Getariako udalerrian edo berezitzat jotako beste ezein tokitan bizi diren untzi jabeei, ustez hartutako eskubide bat oinarri, beste konparaziozko bidegabe batzuk sortuko lizkieke eta.

Horrela, neurri horren ondorioz, Getarian bizi ez diren untzi txikien jabeek, are kostaldeko udalerrietakoak ez direnek ere, askoz ere tarifa handiagoa ordain lezakete Getarian bizi eta eslora handiko untzien jabe direnek baino.

Portuen Zuzendaritzak planteatu duen moduan, untzi txikiak estekatzeko moila flotagarri bat ezartzeak, egun enpresa emakidadunak eskainitako zerbitzuen beharrizanik izango ez lukeenez gero, ez luke eskatuko arauak aldatzerik eta errespetatuko luke orkortasun eta objektibotasun eskakizuna, estekatze moduak eta untziaren neurriek zerbiztuaren kostuan eragina duten aldetik, horrela ezarri beharreko tarifa ia erdira jaitsiko litzateke eta onuradun aterako horretarako zehazturiko baldintzak betetzen dituzten untzi guztien jabeak.

Esan den moduan, indarreko legeek ahalbidetzen duten ebazpide horrek aseko lituzke Pintxo Harri elkarteko bazkide asko, ez denak, bazkideen untzi batzuek ez lituzketelako aipatu irizpideak beteko.

Baina, halaber, Getariako biztanlea izateagatiko salbuespena, irizpide objektiborik izan ez ezik, Pintxo Harri elkarteko estekatzaile asko kanpoan utziko ere lituzke, udalerri horretako biztanle ez direlako.

Adierazitakoagatik guztiagatik, Arartekoak honako ondorio hauek eman zituen:

- EHAEko Tasa eta Prezio Publikoak arautzeko 30/90 Legearen argitan Getariako Portuko estekatzaileei eskatzeak G-5 izeneko tarifa emakida bidez ez du indarreko legerik hausten.

- Eusko Legelbiltzarrak lege bidez xedatu behar luke Pintxo Harri elkarteko Zuzendaritza Batzordeak proposaturiko zerga salbuespena.
- Nolanahi ere den, salbuespenaren irizpide gisa Getariako biztanlea izatea aukeratzea, objektiboa eta zentzuzkoa izan ez ezik, udalerrian bizi ez diren elkarteko bazkide asko utziko lituzke kanpoan eta beste estekatzaileekiko bidegabetasun egoera berriak sortuko lituzke.
- Portuen Zuzendaritzak proposaturiko hautabideak, moila flotagaria ezarri eta pantalanean estekatzearena baino tarifa nabarmenki murriztuagoa ezarririk, nahiz eta Pintxo Harri elkarteko kide guztiengana heldu ez, indarreko arauak bete ez ezik, bazkide gehiago onuratuko lituzke, baita talde horretakoak izan gabe ezarriko diren baldintzak beteko dituzten beste estekatzaile batzuk ere.

Hitz eman dugularik Portuen eta Itsas Arazoetarako Zuzendaritzari eskatuko diogula ahalik eta arinen gauzatzeko instalazio horiek, gure eskumenak heltzen dituen iharduera guztiak agortuta, espedientea artxibatzeari ekin diogu.

Zerga tasa aurretik ordaindu behar izatea txartel bidezko jokoa abiarazteko (510/96)

Kexa idazkia jaso genuen, 1995eko abuztuaren 11n Barne Sailburuak deituriko lehiaketa publikoan txartel bidezko jokoa EHAEan ustiatzeko baimena esleituriko enpresako kontseilari ordezkariak bidalia.

Txartel bitartezko jokoa emakidadunak txartelak enpresa pribatu bati erosi ondoren gauzatzen da.

Txartelak kaleratu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunetako Zuzendaritzak baimena luzatu behar du, txarteloi prezintoa kendu ostean.

Baimena ustiatzeko zerga tasa ordaindu behar da eta hiru lurralde historikoetako foru ogasunek ahalmena dute hori ordainarazteko.

Kexa aurkeztu zuen arte, enpresa emakidadunak ordainarazpena bidegabekotzat jotzen zuenez gero, tasa horrengatiko likidazioa aurkezten zuen eta, bere burua salbuetsitzat jota, sartu beharreko kuota hutsa zen.

Lurralde historikoetako foru ogasunek txartelei prezintoa kentzea atxikitzen zioten aurretiaz tasa ordaintzeari, ordainarazpen horretan ezargarri jotzen zituzten mota eta garrantzia desberdinetako xedapenen arabera, eta horren kariaz Joko eta Ikuskizunetako Zuzendaritzak prezintoa kentzea eten egin zuen enpresa emakidadunak arauzko tasa ordaindurik zeukala egiaztatu arte.

Erakunde honen buruz, txartelak saltzeko eskakizuntzat soilik eska zitezkeen Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan txartel bidezko jokoa arautzeko uztailaren 19ko 314/1994 Dekretuan jasotakoak.

Horrela, 2. artikuluak honela dio:

"Dekretu honek arauturiko txartel jokoa ezingo da gauzatu Joko eta Ikuskizunetako Zuzendaritzak homologatu eta baimendutako txartel bidez baizik, eta ***banaketa eta salmenta bururatuko da Dekretu honetan eta hori garatzeko araudietan xedaturiko arauez bat****."*

Alde horretatik, pentsatzea daukagu 15.3 artikuluak barne hartzen dituela Dekretu honen bitartez arauturiko jokoa ustiatu eta gestionatzeko baimenduriko erakundeak bete beharreko eskakizunak, horien artean aipamenik egiten ez zaiola tasa aurretiaz ordaintzeko beharrari txartelei prezintoa kentzeko baldintza gisa.

13. artikuluan esaten da joko honi ezarri beharreko tasa indarreko zerga arautetatik eratorria izango dela.

Ikuspegi horretatik, Arartekoak iritzi zuen ezen 314/1994 Dekretuko eskakizunei beste batzuk emendatzeak ekarriko lukeela joko gaietan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak duen ahalmen esparruan sartzea, bereziki Autonomia Estatutuko 10.35 artikuluan eta hori garatzeko xedapenetan.

Beste ulerkuntza batek eskuduntza hori murriztuko luke ondorioz, azken finean baimendu gura den iharduera gerarazteraino ere helduta.

Bestalde, txartelei prezintoa kentzea loturik ez egoteak aurretik tasa ordaintzeari ez dakar berez erabili ezin izatea zerga administrazioek zerga arauetan xedaturiko ordainarazpen ihardunbidea.

Hala da, egun tasa ordainketa gauzatzen denez gero, aitorpen-likidazio edo autolikidazio formularen bidez, subjektu pasiboak bere burua salbuetsitzat jotzeak aukera ematen die ogasunei iritzi horrekin bat ez etortzekotan zerga likidazioa egiteko, hori dena zerga foru arau orokorretako irizpideak erabilita.

Zehazki, Zergen Lege Nagusiko 121. artikuluak xedatzen duenez:

> *"Administrazioak ez du zertan likidazioak egokitu subjektu pasiboek aitorpenetan emandako datuetara".*

Arabako Lurralde Historikoan txartel bidezko jokoaren zerga tasa arautzeko martxoaren 13ko 7/1996 Foru Arauak honelaxe dio:

> *"Subjektu pasiboak beharturik daude aitorpen-likidazioa aurkeztu eta* ondoriozko *zerga zorra sartzera Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuak xedaturiko tokian, moduan eta epeetan."*

Eta 2. atalean honela darrai:

> *"Txartel emanaldirik izatekotan, subjektu pasiboak egingo du* ***aitorpen-likidazioa*** *txartelak erosi edo jaso baino lehenago, oinarritzat harturik txartel kopurua eta zenbatekoa."*

Finean, Erakunde honen gardiz, Joko eta Ikuskizunetako Zuzendaritzak 314/1994 Dekretuko eskakizunak bete baino ez zuen egin behar, baimena eman behar zuelarik txartelei prezintoa kentzeko baimenduriko enpresak aitorpen-likidazioa aurkeztu hutsarekin, likidazioan ordaindu beharreko kuota gora-behera.

Horretaz gain, adierazi legez, foru ogasunek arauzko zerga likidazioa egin zezaketen.

Azaldutako guztiagatik, Joko eta Ikuskizunetako zuzendariari eskatu genion azter zezan ia baimen zekiokeen enpresa emakidadunari erosiriko txartelei prezintoa kendu eta gero banatu zein saltzeko, une hartan geldiarazita zeuden eta, Sailak inongo oztoporik bagerik onartu zuela.

Behartze bideko probidentzia baten edukina, herritar bati jakinarazi ziotelarik Arabako Foru Aldundiko zerga bilketa beterarazlearen zerbitzuek (741/96)

Behartze bideko ihardunbide bat izapidatzearen ondorioz, Arabako Foru Aldundiko Agentzia Betearazleak Okondoko Udalak eskaturik gauzatzen baitzuen, herritar emakumezko batek Arartekoari aztertzeko eskatu zion partedunari jakinarazitako probidentziak zergatik ez zuen aski daturik, eskatzen zioten ordainaren zergatia eta jatorria jakiterik ez zegoen eta.

Kexa aurkeztutakoak emandako argibideak zein Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Sailak eta Okondoko Udalak Erakunde honi bidalitakoak aztertuta ondorioztatzen da ezen ihardunbideetan erabili ohi den behartze bidezko probidentziak honako hutsuneak dituela: a) Ez da aipatzen zorraren zergati jakina; b) Ez da esaten ia ekintza behin betikoa den ala ez administrazio bidean; c) Ez da esaten zein den ordaintzeko epea; d) Ez da berariazko oharrik egiten berandutzeko interesen gainean. Hutsune horiek urratzen dituzte Arabako Lurralde Historikoaren Zerga Bilketako Erregelamendu Nagusiko 133. artikuluko xedapenak, maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuak onartzen baitzuen eta aldatzen 520/1995 Diputatuen Kontseiluaren Erabakiko xedapenek zein otsailaren 6ko 12/1996, otsailaren 27ko 26/1996 eta maiatzaren 11ko 70/1996 Foru Dekretuek. Aitaturiko ezez gain, eginiko azterketak islatzen du beharrezkoa dela hobekuntzak egitea testuan ordainak geroratzeaz eginiko aipamenetan, baita azalpen arin bat gehitzea ere behartze bidea eteteko baldintzen gainean. Aurreko guztiaren aurrean, foru departamentu horri gomendatu genion behartze bideko probidentziaren testua aldatzea, araubide juridikoaren xedapenak estu-estu betetzeko.

Probidentziaren egungo testua zuritu nahian, espazio horretan datu guztiak euskaraz eta gazteleraz ematerik ez dagoela esanda, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Sailak gomendioa onartu zuen, handik gutxira jaramon egingo ziolakoan.

3.6.3. **OFIZIOZKO IHARDUERAK**

Familia unitatearen kontzeptua aldatzea PFEZren ondorioetarako (65/96/OI)

Auzitegi Gorenak 1989ko otsailaren 20an emandako Epaiaren ondorioz izandako erreformaren ondoriorik nagusienetako bat izan zen PFEZ “talde zerga” zelako kontzeptua gainditzea, 1978ko Legeaz indarrean zegoen-eta, ikusmoldea gizabanakoan, pertsona fisikoan jartzeko.

Hori gora-behera, familia unitatea osatzen duten lagunei oraindik ere uzten zaie denon zergak aitortzen, horrela ezartzen zaiela eskala arinago bat.

PFEZ arautzeko 18/1991 Legeak berak definitzen du zer jo behar den familia unitatzetzat zergaren ondorioetarako, honako hauek dauzkagularik:

1. **Senar-emazteak** eta familia loturak hautsi bako 18 urtetik beherako seme-alabak.
2. **Ama** edo **aita** eta familia loturak hautsi bako 18 urtetik beherako seme-alabak.

Kexa espediente batzuetan aurkezturiko arazoa bigarren saileko familiena da, alegia, guraso bakarrekoena, PFEZrako familia unitate izateari uzten diotelako semerik txikienak 18 urte betetzean.

Hau da, irabazi iturri bakarra familia buruaren lana den arren, eta nahiz eta hamazortzi urteak bete ostean seme-alabengatiko gastuak murriztu barik, handiagotzera jotzen duten, automatismo horrengatik familia unitateak Ogasunari ordaindu behar izaten dio kantitate nabarmenki handiagoa, banakoen eskala ezartzen zaiolako.

Horrela, Erakunde honen aburuz, bene-benetan, familia unitatearen egungo egituraketaren emaitzek topo egin lezakete Konstituzioak sustaturiko zerga berdintasunaren eta ahalmenaren printzipioekin.

Jakingarri esanguratsu gisa esan dezakegu ezen euskal Autonomia Erkidegoan 1991. urtean guraso bakarreko familien %84,25 amak (banandua, dibortziatua edo alarguntsa dela) eta sema-alabaren batek edo bestek osaturik zeudela (Euskal Estatistika Urtekaria. EUSTAT, 1995)

Disfuntzio hori konpon liteke seme-alabak familia unitatearen partaidetzat jotzeko adin muga handiagotuta, seme-alabengatiko kenkariekin egiten den moduan, non sartzen baitira lanbide arteko gutxienezko lansaria baino etekin handiagoak lortzen ez dituzten 30 urtetik beherako seme-alabak.

Tarteko neurri bat izan liteke muga 25 urteotan jartzea, normalean unibertsitate hezkuntza horrelako adinean bururatzen denetik.

Alde horretatik, gai hori Gorte Nagusiek aldatu beharko luketenez gero, ekonomi Itunaren arabera gainditzen du-eta lurralde historikoek zerga gaietan duten araugintzako ahalmena, 1996ko irailean geure kabuzko espediente bati ekin genion, arazoa Herri Defendatzailearen Bulegora bidaltzeko.

3.7. **HERRIZAINGOA**

3.7.1. **SARRERA**

1996ko urtealdian Herrizaingo alorreko administrazio publiko ezberdinen iharduerei dagozkien 96 kexa jaso dira. Kopuru horrek, 1995ean alor honetara aurkeztu ziren 89 kexekin konparatuaz %19ko igoera kuantitatiboa ekarri du.

Edukiari dagokionez, kexak aurreko urtealdietakoen antzekoak dira, izan ere bideratu diren espediente gehienen (xx) gaia trafikoa baita, eta horien artean gehienena trafikoaren araudi juridikoak agintzen duena hausteagatik ezarritako zigorrei dagokie. Trafikoaren azpialor honetan, eragindako administrazioen araberako banaketa hau da: 50 kexa Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko

Trafiko eta Ibilgailu Zuzendaritzako erakunde eskudunen kontra; 13 Bilboko Udalaren ihardueren kontra; 5 Donostiako Udalaren ihardueren kontra, 15 Gasteizko Udalaren ihardueren kontra; 3 Getxoko Udalaren ihardueren kontra, 1 Barakaldoko Udalaren ihardueren kontra, 1 Amorebietako Udalaren ihardueren kontra, 1 Lasarteko Udalaren ihardueren kontra eta 1 Errenteriako Udalaren ihardueren kontra.

Ordena Publikoa deitzen dugun alorrari dagozkion 15 kexen artetik 9 Ertzaintzako funtzionarioen kontrakoak izan dira, eta 6 udaltzaingoetako funtzionarioen kontrakoak. Azkenik, "bestelakoak" azpialorrean kexa bat aurkeztu digute, hain zuzen, zenbait atzerritar Bizkaiko herri batean erroldatzean sortu diren arazo jakin batzuei buruzkoa.

Trafikoaren azpialorrean aurkeztutako kexen balorazio orokorrari dagokionez, izan ere lehen esan den bezala horiek baitira ugarienak, erregimen zigortzailearen bidetik bideratu diren ia guztietan ez zen hausketen kontra jotzen, baizik prozeduran egondako ustezko hausketak ziren kexa eragileak. Interesatuek Arartekoaren esku hartzea eskatzeko ematen dituzten arrazoiak hauek izan ohi dira: a) zigor espedienteetan ebazten diren administrazioaren ekintzak arrazoirik gabe ediktu bidez jakinaraztea; b) hausketen eta zigorren iraungipena; c) "TAO agenteak" bezala ezagutzen direnek ezarritako salaketen egiazkotasunik eza; d) hausketa gertatu zen unean ibilgailua gerarazi ez izana.

Azkeneko hiru atal horietan aipatu diren gaietan oinarrituta aurkeztu diren kexen azterketaren ondoren atera ditzakegun ondorioen kalterik gabe, Arartekoak gai honi buruzko ondorioak ezagutzera emateko orduan daukan kexa nagusia zera da, bidali zaizkigun informazioen arabera udal batzuek zigor espedienteak jakinarazteko orduan ediktu bidezko jakinarazpenaz egiten duten erabilera arrazoirik gabea eta gehiegizkoa dela. Kezka hori adierazi zen administrazio publiko guztiei zuzendu zitzaien gomendio orokorrean, gomendio hori 1994ko urteari zegokion txostenean jaso zelarik izenburu honekin: "*Ediktuen jakinarazpenaren erabilera administrazioaren zigor-prozeduretan, Administrazio Publikoen Lege-Jaurpiderako eta Administrazioaren Ihardunbide Arrunterako azaroaren 26ko 30/92 legean finkatutakoaren babesean*"

Kezka hori berriro azpimarratu behar izan zen 1995ko urteari zegokion txostenean, eta orain berriro aipatu beharrean gaude. Horregatik administrazio publikoei gogoratu eta azpimarratu behar diegu berriro gai honetako ihardueretan legeak agintzen duena bete behar dutela. Ararteko honen iritziz, hartzailea etxean ez dagoelako pertsonalki jakinarazpena egiteko biderik eduki ez izanak ez du esan nahi ediktu bidezko jakinarazpenaren bide berezia besterik gabe erabil daitekeenik, aldez aurretik jakinarazpen pertsonala egitea erabat ezinezkoa dela ziurtatu arte. Gai honi buruzko gure irizpidea hobeto ezagutzeko, lehen aipatu dugun gomendioa ikusi besterik ez dago.

Euskal Herriko Polizia osatzen duten Ertzaintzaren eta autonomia erkidegoko udalen pean dauden udaltzaingoen ihardueren kontrako kexei dagokienez, kasu bakar batean salatu dira tratu fisiko txarrak izan daitezkeenak, eta hori hain zuzen udaltzaingo bateko funtzionarioen kontrakoa izan da. Gai honetan Arartekoak ezin izan du parte hartu, epailearen esku jarri delako. Funtzionario horien

iharduerekin lotuta Arartekoaren iritzipean jarri diren beste gaiak prozedura irregular eta hiritarrekiko ekintza okerrei buruzkoak izan dira. Gairik azpimarragarrienak ondorengo ataletan jasotzen diren kexetan laburtuta daude.

3.7.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

3.7.2.1. **TRAFIKOA**

Egoera txarrean eta trafikoari kalteak eragiteko moduan zegoen ibilgailu bat kaletik erretiratu eta udalaren gordetegian utzi izanari buruz (487/95)

Hiritar batek Arartekoaren iritzia eskatu zuen Bilboko Udaltzaingoaren zerbitzuek burututako iharduera bati buruz. Eskaria egiten zuenaren arabera, bere automobil bat kaletik erretiratu eta udalaren gordetegian sartu zuten, egoera oso txarrean zegoelako eta zirkulaziorako erabat arriskutsua izan zitekeelako.

Bilboko Udalari informazioa eskatu ondoren aditzera eman zitzaigunez, automobilari isuna jarri zioten eta ondoren kaletik erretiratu zuten beharrezko segurtasun neurririk gabe aparkatua zegoelako eta mugi zitekeelako.

Zegokion espedientea aztertu eta ondorio hau atera zen: ibilgailuaren egoera txarraz eta zirkulaziorako eduki zezakeen arriskuaz gaindi, Bilboko Udaltzaingoaren zerbitzuek hautsi egin zuten lege antolamenduan iragarrita dagoena.

Martxoaren 2ko Legegintza Erret Dekretu bidez onartutako trafiko, motoredun ibilgailuen zirkulazio eta errepide segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 70 eta 71.1 artikuluek eta Zirkulazio Kodeko 292.Ic) eta II.a) artikuluek diotenez, (eta azken bi horiek indarrean daude lehenengoek adierazten dutenari kontrajarrita ez daudelako), trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritzako agenteek ikusten dutenean ibilgailu bat zirkulaziorako arriskutsua izan daitekeela, kaleko punturik egokienean berehala geldiarazteko agindua eman behar dute. Geldiarazi eta handik berrogeita zortzi ordura jabeari errekerimendua egin ondoren, honek autoaren arazoak konpontzen ez baditu edo bere aldetik arriskurik eragingo ez duen lekuren batera eramaten ez badu, orduan erretiratu eta agintaritzak agintzen duen lekuren batean utzi ahalko da.

Aztertzen ari garen gai honetan, ordea, agenteek automobila errepidetik erretiratzeko aukera emango zien prozeduraren atal bat ahaztu egin zuten, automobila aldez aurretik geldiarazi eta jabeari horren berri eta ezer egiten ez bazuen gertatuko zitzaionaren berri eman ez ziotelako. Beraz, lege antolamenduak administrazioaren jokaera horretarako ezartzen dituen baldintzak bete gabe erretiratu zuen automobila. Horregatik, jabeak autoa geldiarazteagatik dagokion isuna ordaindu behar izan duen arren, erretiratu eta udal biltegira eraman izateagatik ez dauka zertan ezer ordaindurik.

Bilboko Udalari eskatu zitzaion kexa aurkezleari autoa erretiratu eta udal gordetegian sartzeagatik ezarritako tasak ken ziezaizkiola, eta autoa besterik gabe jabearen eskuetan jar zedila. Bilboko Udalak ez du gomendioa onartu.

TAO arautzen duen udal ordenantzako agindua hautsi izanagatik bideratutako prozedura baten bidez ezarritako zigorrari buruz, trafikoa zaintzea dagokion agintaritzako agente izaera ez zeukan pertsona batek ezarritako salaketa espedientea bideratzerakoan berretsi ez zelako (615/95)

Bilboko Udalak zigorrak jarri zizkion hiritar bati TAO arautzen duen udal ordenantzen aginduak hausteagatik. Zigor espedienteak trafikoa zaintzeaz arduratzeko agintaritzako agente izaera ez zeukaten pertsonek ireki zituzten. Kexa espedientean adierazten denez, bi espedienteetako baten bideraketa prozesuan isuna jarritakoak berretsi egin zuen salaketa hori. Bestean, ordea, ez da berrespen hori ageri.

Aurrekoaren ondorioz, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintza Erret Dekretu bidez onartutako trafiko, motoredun ibilgailuen zirkulazio eta errepide segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 76. artikuluak dioena, eta besteak beste 1991ko urriaren 1eko eta 1993ko azaroaren 23ko Auzitegi Gorenak eta Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren 1995eko uztailaren 11ko eta 1996ko martxoaren 29ko epaiek diotenaren bidetik hau gomendatu zion Arartekoak Bilboko Udalari: trafikoa zaintzeaz arduratzeko ahalmenik ez zeukan agenteak jarri baina ondoren berretsi ez zuen salaketaren espedientea atzera bota zezala. Bilboko Udalak, behar bezala arrazoitu gabe ez zuen gomendioa onartu, antolamenduaren iragarpenei errespeto orokorra azaldu zaiela adieraziaz.

Agintaritza agente izaerarik gabeko TAOzainek ezarritako salaketei buruz, dagozkien zigor prozeduretan iharduera frogagarri eta osagarririk ez dagoenean (946/95)

Hiritar batek Arartekoarengana jo zuen ondoko arazoarekin: Bilboko Udaleko zerbitzu eskudunek bere ibilgailu bat prezintatu eta udal gordetegira eraman zuten, TAO arautzen duen ordenantzaren hausketagatik ezarri zitzaizkion isun batzuen kobraketa premiamendu bidez egin nahi ziotelako.

Bilboko Udalari egin zitzaion lehen informazio eskarian, Arartekoaren eskuetan zegoen gaiaren ebazpena alferrik atzeratu ez zedin zera esaten zen, zigor guztiak TAOzainek jarritako salaketen ondorioa ziren kasuan, ofizioz bertan behera utz zitezela, eta beraz indarrik gabe gera zitezela ibilgailuaren enbargoa eta premiamendu bidez ebatzitako beste exekuzio iharduerak. Eskari hori justizia iturri ezberdinek emandako epaietan oinarriturik egin zen -besteak beste 1991ko urriaren 1eko eta 1993ko azaroaren 23ko Auzitegi Gorenaren eta Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren 1995eko uztailaren 11ko epaiak-, horien balorazioaren arabera TAOko agenteen salaketak ezin baitira nahikoa izan inolako zigorra jartzeko (ondoren iharduera osagarriak bete beharko lirateke), horiek trafikoa zaintzeko ardura daukaten agintaritzako agente izateko baldintzarik betetzen ez dutelako.

Kexa espedientea bideratzen aritu garen bitartean Bilboko Udalak igorri dizkigun informazio ezberdinen bitartez jakin dugu aipatu diren zigorren oinarrian

dauden salaketak agintaritza izaerarik ez daukaten TAOzainek ezarriak izan direla, eta ondoren ez dela berretsi salaketa horien edukia. Alabaina, Bilboko Udalaren ustez prozedurak zuzen bideratu dira -balorazio hori justifikatzeko inolako oinarririk adierazi ez zen arren-, eta, beraz, ezin dira atzera bota ez zigor ebazpenak eta ezta premiamendu prozeduraren bidez burututako ordainarazpenak ere.

Aparkaleku kontrolatua duten zonen (TAO) egiazko esparruaren eta erabiltzaileei ematen zaizkien txarteletan adierazten denaren arteko desadostasuna, eta horren ondorioz ezarritako zigorren eragina (12/96)

Emakume batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen ondorengo gaia: aparkaleku kontrolatua duten zonen egiazko esparrua ez zetorren bat erabiltzaileei ematen zaizkien txarteletan adierazten denarekin, zehazki beraien bizilekua TAO barruko esparruan egonda inolako denbora mugarik gabe aparkatu ahal izateko ematen zaien txartelean azaltzen denarekin. Esandako hiritarrari salaketa eta zigorra jarri zioten lehen aipatutako ordenantza hori hausteagatik. Kexa aurkeztu zen unean erantzuteke zegoen Gasteizko Udaleko Ordainarazpen Zerbitzuaren aurrean ordaindutako isuna itzul ziezaiotela eskatuaz aurkeztu zuen idatzia. Izan ere, desadostasun horretaz salaketa eta zigorra jaso ondoren konturatu zelako aurkeztu zuen interesatuak idatzi hori.

Kexak azaldutakoa egia zela ikusirik, Arartekoak Gasteizko Udalari gomendatu zion behar ziren neurriak har zitzala desadostasunak ikusi ziren TAO zonako txartelaren erabiltzaileei beharrezkoa adierazteko. Bestalde, erantzuteke zeukaten idatziari erantzuteko ere eskatzen zen.

Udalak, ebazpena beteaz, erabiltzaile txartel guztiak berritu zituen, erabilera eta ezarpen esparrua zuzen adieraziaz. Bestalde, interesatuari ezarri zitzaion zigorra ere bertan behera utzi zen.

Ekintza administratibo baten berri ediktu bidez jakinarazi izana eta trafiko arauak hausteagatik ezarritako zigor espedientea iraungitzeko epeen kontaketan edukitako ondorioak (83/96)

Hiritar batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen Gasteizko Udalak aparkamendu okerragatik jarri zion zigorra. Udal horrek bidali digun informazioaren arabera hau gertatu zen:

1995eko irailaren 14an Zirkulazioko Araudi Nagusiak 94.I.c) artikuluan jasotakoaren hausketa gertatu zen ibilgailu bat zirkulaziorako karrilean aparkatu zelako. Salaketa egin zuen funtzionarioak salaketa-orria automobilaren aurreko kristalean utzi zuen eta hil bereko 18an jabeak alegazio orri bat aurkeztu zuen bere defentsarako egokia zeritzaionarekin. Horren aurrean instrukzio-organoak ebazpen proposamen bat egin zuen, eta azaroaren 2, 4 eta 6an interesatuari pertsonalki jakinarazpena egiten saiatu eta aurkitu ez zutenez gero, ediktu bidez egin zen jakinarazpen hori Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren abenduaren 11ko zenbakian eta udalaren iragarki-taulan. Interesatuak alegazio-

orrian jakinarazpenetarako eman zuen helbidean bertan eman zitzaion aditzera interesatuari 1996ko urtarrilaren 19an zigor-ebazpenaren berri.

Aurrekoa ikusirik, Arartekoak hiritar horri ezarritako zigorra atzera bota zezala gomendatu zion Udalari, hausketa iraungita zegoelako. Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedura Amankomunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.4 artikuluan jakinarazpen modu berezi horretarako jasotzen dituen baldintzak ez ziren betetzen Arartekoaren ustez, eta, beraz, ediktu bidezko jakinarazpen horrek ezin zuen inolako eraginik eduki iraungipen epeak eteteari zegokionez. Hori horrela zela erakusteko Konstituzio Auzitegiak eta Auzitegi Gorenak ediktu bidezko jakinarazpenei buruz diotena aztertzen duen jurisprudentziaz baliatu ginen. Zehazki 1993ko azaroaren 10eko Auzitegi Gorenaren epaia aipatu zen, zeinak Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz emandako jurisprudentziaren arabera (9/91, 1/83, 22/87, 72/88, 424/92) hau baitio: "... ediktu bidezko jakinarazpenak, komunikaziorako azken erremedioa denez gero, hartzailearen eskuetara jakinarazpena iristea gutxi ego gehiago bermatuko duten beste bide batzuk aldez aurretik erabiltzea eta horiek betetzen saiatu izana frogatzea eskatzen du, baina hartzailea aurkitu ezin denean hori horrela dela ziurtatzea eta jakinarazpena egiteko beste bide normalak erabiltzea alferra dela ziur egotea ere (...). Bestalde, Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 17ko 9/1991 Epaiak dio, jaso denaren ziurtagiriarekin korreo zertifikatu bidez hartzailea kanpoan dagoelako aurkitu ezin denean, ezin da besterik gabe ediktu bidezko jakinarazpena egin (...), prozedura horretara jo aurretik interesatuaren helbidea ez edukitzea eta non dagoen ez jakitea beharrezkoa baita, eta orduan diligentzia bidez jaso dadila".

Ebazpen proposamenaren ediktu bidezko jakinarazpena banaketa orduetan interesatua ez zegoelako bakarrik egin zela kontuan hartzen badugu, jurisprudentzia-tesi horien arabera, justifikaziorik eta ondoriorik gabetzat jo behar dugu.

Interesatuak alegazio-orria 1995eko irailaren 18an aurkeztu eta 1996ko urtarrilaren 19an zigor ebazpena jakinarazi zitzaion bitartean Arartekoaren ustez iraungipen epeetarako trafiko, motoredun ibilgailuen zirkulazio eta errepide segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuak 81.1 artikuluan esaten duenaren bidetik beste iharduerarik burutu ez zen kasuan, arau haustea iraungita zegoen.

Gasteizko Udalak ez zuen gomendioa onartu, proposamenaren ediktu bidezko jakinarazpena zuzenbidearen barruan egina zela adieraziaz.

Araudiaren kontra gaizki aparkatuta zegoelako ibilgailu bat kalean geldiarazi eta jabeari erretiratu ahal izateko zegokion isuna ordainarazi izanari buruz (259/96)

Hiritar batek Arartekoaren iritzipean jarri zuen Amorebieta-Etxanoko Udaltzaingoaren zerbitzuek burututako iharduera bat, alegia araudiaren kontra aparkatuta zegoen ibilgailu bati geldiarazteko mekanismo bat jarri zitzaiola. Ondoren, erretiratu ahal izateko, zegokion geldiarazte-tasa ordaintzea esijitu

zitzaion. Ibilgailua oso egoera onean zegoen, eta hori martxan jarrai izanak ez zien ez zirkulazioari eta ezta pertsonei ere inolako arazorik eragingo.

Guzti horregatik, interesatuari ordaindu zuen tasa itzul ziezaiola gomendatu zitzaion Amorebieta-Etxanoko Udalari. Arartekoak Udalari ondoko arrazoibide hauek jakinarazi zizkion:

Udalak bere iharduera zuzena izan zela frogatzeko erabilitako argudioa trafikoa arautzeko udal Ordenantzaren 41.b).7.1. eta 123. artikuluetan ezarritakoan oinarritzen zen. Lehenengo agindua Zirkulazio Kodeko 292 bis artikuluan esaten denaren berdina da, zeinetan esaten baita ibilgailu bat arauen kontra aparkatuta dagoenean, baina zirkulazioa larriki kaltetu gabe eta gidaria ez dagoela edo hori erretiratzera ukatzen denean zirkulazioko agenteek geldiaraz dezaketela, zirkulatzea galaraziko dion prozedura mekaniko bat erabiliaz. 123. artikuluak jasotzen du geldiarazteagatiko tasaren kitapena eta ordaindu beharreko kantitatea.

Arartekoko honen ustez, Zirkulazio Kodearen aipatutako agindu hori bertan behera geratu da martxoaren 2ko 339/1990 Legegintza Erret Dekretuaren bidez onartutako trafiko, motoredun ibilgailuen zirkulazio eta errepide segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua indarrean sartzearekin, xedapen indargabetzaile bakarrak agintzen duenez, izan ere horrek 70. artikuluan esaten duenez, trafiko zainketaz arduratzen diren agintaritzako agenteek automobilak geldiarazi ahalko dituztela ondorengo kasuan: arau beraren aginduak ez betetzeagatik, **automobila erabiltzeak zirkulaziorako eta pertsona edo ondasunentzako arrisku larria ekar dezakeenean**.

Aipatu den Zirkulazio Kodeko 292 bis artikulua eta horren edukia jasotzen duten udal Ordenantzen agindua indarrean daudenez gero, azkeneko honek lehenengoaren jerarkia mailako lehentasun printzipioa hautsi egiten du. Kontuan izan behar da, Lege maila formalarekin arau bidez ezarritako geldiarazpena, administrazio iharduerak ezar lekizkiokeen ibilgailuak zirkulazio, pertsona edo ondasunentzako arrisku larria dakarrenean ezar dakiokeela, eta hori aurreko arautegi maila daukan agindu batean esaten denarekin ezin da lotu, zeinak arriskurik ez dagoen kasuan ere automobilak geldiarazteko aukera ematen baitu. Beraz, gauza bera esan daiteke trafikorako udal Ordenantzan jasotzen diren aginduei buruz ere.

Amorebieta-Etxanoko Udalak ez zuen onartu zuzendu zitzaion gomendioa, nahiz eta ados egon behin eta berriz aipatutako 292 bis artikuluaren iraungipenari buruz interpretazio ezberdinak egon zitezkeela.

Trafiko arauak hausteagatik ezarritako espediente batean salaketa-orria ediktu bidez jakinarazi eta epez kanpo aurkeztutako alegazioak onartu ez izanari buruz (544/96)

1994ko irailaren 7an trafiko arauak hautsi zirela eta Bilboko Udalak zegokion zigor espedientea ireki zuen. Arau hausteaz ohartu zen agenteak gidaria identifikatzeko eta salaketa jakinarazteko autoa gerarazi ez zuenez gero, handik egun batzuetara zerbitzu eskudunek automobilaren jabearen etxera eraman zuten salaketa-orria. Pertsonalki jakinarazpena egiten bi aldiz saiatu arren, hartzailea

etxean ez zegoelako eta beste biderik erabili gabe Bilboko Udalak ediktu bidezko jakinarazpenera jotzea erabaki zuen, salaketa 1994ko urriaren 4ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuelarik. Aldizkari ofizialean argitaratu zen iragarkiak prozedura zenbakia, zergapekoaren izena (sic) eta A eta B epigrafeen araberako kantitate batzuk besterik ez zeuzkan.

Interesatuak salaketaren berri izan eta udal zerbitzuen aurrean kontsulta egin ondoren, urte bereko urriaren 24ko datarekin alegazio idatzi bat aurkeztu zuen, bertan arau haustearen unean autoa gidatzen zuen pertsona identifikatzen zuelarik. Halere, alegazioak epez kanpo aurkeztu zituela-eta atzera bota zitzaizkion alegazioak, eta prozedurak bere bidea jarraitu zuen: interesatuari salaketa egin zuen agenteak ikusitako arau hausteagatik, alegia semaforo bat gorrian pasatzeagatik, isuna jarri zitzaion.

Arartekoaren ustez, zigor espedientearen bideraketan antolamendu juridikoaren ondoko arauak hautsi dira:

a) Salaketaren ediktu bidezko jakinarazpena ez da arrazoizkoa Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedura Amankomunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.4 artikuluan adierazten dituen arrazoiak kasu honetan ez zeudelako, izan ere ibilgailuaren jabea eta bere helbidea ezagunak baitziren. Justifikazio-argudio bezala ezin da esan jakinarazpen pertsonala egin ezin zenik, pertsonalki jakinarazteko bi saio egin izanak horretara ez garamatzalako. Espainiako Konstituzioak 24.1 artikuluan egiazko justiziarako babesaren funtsezko eskubidearen haustearekin eduki dezakeen zerikusiari dagokionez, Ararteko honen 1994. urteari dagokion txostenean egindako gomendio orokorrera mugatzen gara. Maila zehatzean, ordea, Konstituzio Auzitegiak 1993ko azaroaren 10ean emandako epaian jasotzen diren tesiak interesgarriak dira.
b) Ediktu bidezko jakinarazpena arrazoituta egon izan balitz ere, lehen aipatu den iragarkiaren argitalpenak 30/1992 Legearen 60.2 eta 58.2 artikuluetan esandakoa haustea dakar, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintza Erret Dekretuaren bidez onartutako trafiko, motoredun ibilgailuen zirkulazio eta errepide segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuak 75. artikuluan zehazten diren datuak eta ezta arau haustea gertatu zen unean jakinarazpena ez egiteko egon ziren arrazoiak ere ematen ez dituelako, eta kasu honetan Lege bereko 77. artikulua ere ez da betetzen, otsailaren 25eko 320/1994 Erret Dekretuaren bidez onartutako trafiko gaietarako zigor espedienteen Araudiko 10.2 artikuluak ezartzen dituen indargabetze ondorioekin.
c) 30/1992 Legearen 58.3 artikuluak agintzen duenaren bidetik salaketa okerra dela kontuan hartzen badugu, interesatuak ekintzaren berri zeukala frogatu zen unean eragina berehala eduki behar zuen. Kasu honetan, jakinarazpena egintzat jo behar zen arau hauslea identifikatuaz alegazio-orria aurkeztu zen une berean. Horregatik, alegazioak ez ziren atzera bota behar epez kanpo aurkezten zirela esanaz.

d) Arau haustea gertatu zen unean autoa gidatzen zuen pertsona interesatuak epe barruan identifikatu bazuen, administrazio zerbitzuek automobilaren jabeak identifikatutako pertsonak eduki zitzakeen erantzunkizunak garbitzeko prozedura tramiteei berehala hasiera eman behar zitzaien. Automobilaren jabeari ezarri zitzaion zigorrak ustezko errugabetasun eta erantzunkizun printzipioa hautsi egiten du hasiera batean, espedientearen bideraketan zehar ez baitago bere egiletasuna froga dezaketen behar adina elementu.

Aurreko gogoetak kontuan izanik Bilboko Udalari ezarritako zigorra bertan behera uzteko eskatu zitzaion. Udal horrek, ordea, ediktu bidezko jakinarazpena zuzena izan zela eta alegazioak epez kanpo aurkezteagatik atzera bota zirela argudiatuz, eta gomendioaren edukiak zalantzatan jar zezakeen beste argudiorik gabe gomendioa ez onartzea erabaki zuen.

3.7.2.2. **HERRI-BAKEA**

Udaltzaingoko funtzionarioek egindako atxiloketa baten ondorioz hiritar bati hartutako hatz-markak eta argazkiak suntsitzeaz; atxiloketa eragin zuten gertakizunak hasiera batean Instrukzio Epaileak falta bezala kalifikatu eta geroago artxibatuak izan ziren erantzunkizun aitorpenik gabe (178/96)

Gasteizko Udaltzaintzako funtzionarioek hiritar bat atxilotu egin zuten ustez zauri larrien egilea zelako. Atxiloketaren ondoren burututako iharduerен barruan, hatz-markak hartu eta argazkiak atera zizkioten. Egindako diligentziak Instrukzio Epaitegian jaso ondoren, magistratuak auto bat diktatu zuen, epaitu beharreko gertakizunak ustezko falta bezala kalifikatu zituelarik. Ondoren gaia artxibatu egin zen inolako erantzunkizunik ez zeukala aitortuaz.

Batez ere kalteak daudenean segurtasun indarrek jarrera bat delitu edo falta bezala kalifikatzerako orduan eduki ditzaketen zailtasunak eta salatzen diren gertakizunak direla medio hiritar bati askatasuna kendu baino lehen egon daitezkeen zirkunstantziak ahalik eta gehien neurtu ondoren, espedientearen ebazpenean Arartekoak Gasteizko Udaltzaingoari gomendatu zion atxilotuari hartu zizkioten hatz-markak eta argazkia suntsi zitzala interesatuak berak eskatzen zuen bezala. Horretarako arrazoiak hauek ziren: geroago frogatu zen bezala, atxiloketa ez zen gertatu behar, Judiziamendu Kriminalerako Legearen 495. artikuluan esaten denean babestuaz, izan ere atxiloketa eragin zuen lege haustea ekintza jurisdikzionalaren hasieratik bertatik faltatzat hartua izan baitzen.

Gasteizko Udalak kasu honetan egindako gomendioa onartu zuen, bai eta antzeko kasuetan modu berean joka zedin beharrezko aginduak eman ere.

Gasteizko Udaltzaintzako funtzionarioek alkoholemia proba batean izandako jokaeraz (548/96)

Goizaldean izandako trafiko arau hauste baten ondorioz Gasteizko Udaltzaingoko funtzionarioek araua hautsi zuen emakumeari alkoholemia proba egin zioten. Lehenengo neurketan eman zuen indizea Zirkulaziorako Araudi Nagusiak ezarritakoa baino handiagoa izan zenez gero, bigarren proba bat egitea proposatu zioten, eta horretarako zegoen tokitik zenbait kilometrotara zegoen Agirrelandako Udaltzaintzaren lokaletara joan beharra zeukan.

Etilometroarekin zenbait proba egin (interesatuak bere borondatez egin zituen horiek) eta guztietan mugaren gainetik zegoela frogatu ondoren, egoera horretan gidatzeagatik jarri zitzaion salaketari zegozkion diligentzia guztiak beteta, interesatuak autoa zeukan tokira itzul zezaten eskatu zuen, autoa zegoen lekutik urrun zegoelako eta oso berandu zelako. Funtzionarioek esan zioten, ordea, neurketen emaitzak positiboak izan zirelako ez zeukatela eskari hori zertan beterik. Beraz, emakumeak oinez itzuli behar izan zuen autoa utzi zuen lekuraino. Leku horretara iritsi zenean, ordea, berari lehen probak egin zizkioten funtzionarioen aginduz autoa erretiratu eta poliziaren lokaletara eraman zutela konturatu zen.

Jarraian Ertzaintzaren Komisaldegira joan zen hasierako arau haustearengatik salaketa jarri eta alkoholemiako lehen proba egin zioten funtzionarioen kontrako salaketa bat jartzera, interesatuaren ustez funtzionario horien jokamoldea guztiz desegokia izan zelako. Gure erakundea arautzen duen Legeak 13. artikuluan dioena kontuan izanik Arartekoak ezin izan zuen kasu honetan ezer egin.

Alabaina, Gasteizko Udaleko Hiri Segurtasunerako zerbitzuek interesatua autoa zeukan tokira eramatera funtzionarioak ukatu izana bidezkoa ez zela aitortu zutenez gero, alkatetzari iradoki zitzaion erakunde eskudunak formalki erreklamatzailearengana jo zezala, autoa zeukan lekura eraman ez izanagatik guri azaldu ziguten sentimendu bera emakumeari azal ziezaioten.

Bestalde, eta epaibidean ez zegoen poliziaren iharduera esparruari zegokionez, Gasteizko Udalari gomendatu zitzaion, baldin eta autoa erretiratu eta udal gordetegira eraman ondoren berriz autoa jasotzeagatik ordaindu beharreko dirua ordaindua bazeukan, itzul ziezaiotela. Gomendio hori ondoko arrazoien arabera egin zen:

Eskuratu zitzaigun informazioaren arabera, autoa erretiratzeko erabakia arau hausteaz ohartu ziren funtzionarioek urtarrilaren 17ko 13/1992 Erret Dekretuaren bidez onartutako Zirkulaziorako Araudi Nagusiaren 25. artikuluan jasotakoaren bidetik hartu zuten. Aurreko arauaren ezarpenetik kanpo zegoen argudio gisa, txostenean esaten zen autoa segurtasun arrazoiengatik erretiratu zutela, lapurren ekintzari aurre egiteko alegia.

Funtzionario horien ardura bereziaz Arartekoak egin zezakeen balorazioaren kalterik gabe, erakunde honen iritziz planteatutako arazoa guztiz juridikoa zen. Zirkulaziorako Araudi Nagusiak 25. artikuluan dioenez, aztertzen ari garen bezalako kasuetan autoa geldiarazi egin behar da, geldiarazteko egon den arrazoia desagertu arte zirkulatzea galaraziko dion prezinto edo beste prozedura bat erabiliaz. Geldiarazpena eta erretiratzea eta ibilgailua gordetegira eramatea bermezko bi neurri ezberdin dira, bata eta bestea hurrenez hurren martxoaren 2ko 339/1990 Legegintza Erret Dekretuaren bidez onartutako trafiko, motoredun ibilgailuen zirkulazio eta errepide segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikula-

tuak 70. eta 71. artikuluetan jasota daudelarik. Horregatik, lehen aipatu den aginduak autoa geldiarazteko aukera ematen duen arren, funtzionarioak erretiratu eta gordetegira eramatea erabaki zuen, aipatu den trafikoari buruzko Legearen Testu Artikulatuko 71. artikuluak iragarritako arrazoietako bat bera ere ez zegoen arren. Bestalde, autoa erretiratu izanak kalte gehiago eragiten dizkio erabiltzaileari geldiarazteak baino, kasu honetan deserosotasuna handiagoa delako. Horrezaz gain, ikuspegi ekonomikotik, burutu zen iharduera garestiagoa izan zen interesatuarentzat, izan ere autoa erretiratzeagatiko tasaz gain, gordetegian egon izanagatik ere ordaindu behar izan zuelako.

3.8. **JUSTIZIA**

3.8.1. **SARRERA**

Gero eta hiritar gehiago dira Justizia Administrazioaren funtzionamenduarekin ados ez daudenak. Kexak, guztira asko ez diren arren, gehitu egin dira, eta gehikuntza horrek zerbitzu publiko motel baten eta erabiltzaileei eman beharreko informazioa eskaintzeko bide txarrak dauzkanaren irudia ematen du.

Jaso diren erreklamazio ugariek satisfaziorik eza adierazten duten arren, Ararteko ez dauka alor honetan planteatzen diren arazo askotan parte hartzeko ahalmenik. Erakunde honen funtzionamendua arautzen duen Legearen arabera, Ararteko "*ez da epai finkoa jaso duten edo epaitegien ebazpenaren baitan dauden kexak banan-banan aztertzen sartuko*". Agindu horrek, independentzia judizialaren oinarrizko printzipioak esaten duena betetzeaz gain, gizarte auziak ebazteko bere bide propioak dituen justizian dauzka oinarriak, eta horrek iharduera epaitzailea beste bide batzuetatik aztertzeko bidea itxi egiten du.

Arrazoi horregatik, justizia ebazpenekin ados ez daudela planteatzen duten hainbat kexa ezin dira aztertu. Edonola, ia erreklamazio guztiak biltzen dituzten eta behin eta berriz agertzen diren bi gai mota daude: alde batetik, Gizarte Segurantzako prestazioak emateari uko egiten dioten epaiak, batez ere elbarritasun pentsioei dagokienez; eta bestetik, familia bizitzaren hausketa gertatzen denerako neurriak -behin behinekoak edo behin betirakoak- jasotzen dituzten ebazpenak. Bi kasu mota horiek protagonisten bizitzetan eragin handia daukaten auziak isladatzen dituzte, eta horrela ulertzen da justiziaren erabakiarekin ados ez egotea. Baina horregatik ez da ahaztu behar bi gai horiek, asko zabalduta daudenez gero, arazo sozial sendoak ez direnik.

Banaketa eta dibortzioei buruzpo ebazpenetan zentratuaz, kasu batzuetan aitak seme-alabak bisitatzeko ezarri zaizkien baldintzekin, eta batez ere bere emaztea izan den emakumeari pentsioa pasatzera behartzearekin konforme ez badaude ere, erreklamazio gehienak **emakumeek** aurkezten dituzte, elikagai edo pentsio osagarri gisa ezarritako laguntza ekonomikoak jasotzen ez dituztelako. Kasu batzuetan, epaian ezarritakoa betetzen ez bada Justizia Administrazioaren funtzionamendu okerragatik izaten da, baina orain aztergai ditugun kasuak, ordea,

desberdinak dira, beraietan ordainketa horiek egin behar dituenak egin ez arren Ararteko honek ezin duelako hor ezer egin. Nolanahi ere, arazoa asko hedatuta dagoelako eta horrek emakumearentzat eta seme-alabentzat ondorio larriak dituelako -izan ere sarritan erabateko diru gabezian aurkitzen baitira-, Arartekoak proposamen bat egin zuen Herri Defendatzaileen Ihardunaldietan: erakunde hauek bultza eta susta dezatela familia hausten den kasuan pentsioak ordaintzen ez direnerako konpentsazio-fondo publiko bat sortzea (II. atala).

Esan den bezala, Arartekoak ezin du parte hartu erabaki judizialak auzitan jar ditzaketen erreklamazioetan. Baina, sistema jurisdikzionalaren funtzionamendu administratiboan ikus daitezkeen akatsen aurrean bai esku har dezake, Ministerio Fiskalaren bidez, hori delako *ikertzeko gaitasuna daukan organoa,* Ararteko erakundea arautzen duen Legeak 9.2 artikuluak dioenez

Dagozkien fiskaltzetara bidaltzen diren kexa gehienak Justizia Administrazioaren atzerapenei dagozkie, eta kasu multzo horren barruan, epaiak ez betearazteari buruzkoek entitate propioa daukate. Kasu batzuetan Fiskalaren partaidetzak epaian ezarritakoa bete dadin azkartzea ekartzen duen arren, alor honetako erreklamazioek sistemaren puntu ahuletako bat agerian jartzen du, hor sustraitzen baita administrazio honen eraginkortasun faltaren arazoa. Horrela, gaiari buruzko gogoeta sakon bat egiteaz gain, erakunde arteko koordinazioa gehitzea eta Legearen ezarpenerako azken fase horretarako giza eta material mailako bitarteko gehiago jartzea ere beharrezkoa ikusten da.

Epai bat gauzatzeko orduan egondako atzerapen larri eta zehatz batek hiru pertsona eragin zituen, 1992an epaituak izan ondoren joan den ekainean sartu baitzituzten kartzelan. Epaia ez betetzeak sortzen duen zalantzari kasu honetan beste faktore bat gehitu behar zaio: pertsona horiek 1989ko otsailaz geroztik astero egon dira zegokien komisaldegian aurkezten, horrek berarekin daraman askatasun mugaketarekin. Epai bidezko zigorrek daukaten helburua lortuko badute, egintza gertatu eta handik gutxira betearazi behar dira. Kasu honetan bezala ezarritako zigorraren exekuzioa atzeratzen denean, zigorra ezartzeko behar soziala desagertu egiten da, eta zigorra bete beharrak eragindakoei kalte neurrigabe bat ekar diezaieke. Eta hori guztia, erreklamatzaile horiei zazpi urte luzez askatasuna mugatuta eduki izanak ekarri dizkien galerak kontuan izan gabe.

Fiskaltzei jakinarazitako erreklamazioen artean dagoen beste gai azpimarragarri bat hiritarrekiko komunikazioan dauden okerrena da. Salaketa-aurkezleari prozesu penalaren ibilbideari buruzko informaziorik ez ematea planteatu da kasu batzuetan, zehazki diligentziak artxibatu izanari dagokiona. Ia kasu horiek guztiak ongi konpondu diren arren, delitu bategatik kaltetua gertatu den pertsonari Justizia Administrazioak arreta eskaintzeko premia azpimarratu behar da, biktimen laguntzarako 35/95 Legeak agintzen duenaren bidetik.

Gai honi dagokionez adierazgarria gertatzen den kexa bat planteatu du hiritar batek. Pertsona hori beste batek tresna zorrotz batekin eraso eta zauri bat egin zion birikan. Salaketa Ertzaintzaren aurrean egin ondoren, epaitegian berretsi egin zituen aitorpenak, eta bertan esan zioten pertsonalki prozesuan parte hartu nahi ez zuen kasuan Ministerio Fiskalak defendituko zituela bere interesak. Interesatuak bigarren aukera hau onartu eta sendagile forentseak aztertu zuen

artean sendagileak emandako bajarekin zegoela; ondoren ez zuen prozedura penalaren berririk izan harik eta prentsaren bidez epaiketa egin eta epaia emanda zegoela jakin zuen arte. Gaiaren berri Fiskal Buruari eman ondoren, honek onartu zuen kausaren bideraketan akats formalak egon zirela eta delituagatik kaltetutako pertsona hori arrazoirik gabe ahaztua izan zela. Alabaina, Fiskalaren erantzunak egindako kaltea konpontzeko inolako proposamenik eskaintzen ez zuenez gero, Ararteko berriro beragana jo du gai honi buruzko arrazoibide batzuk azaltzeko; oraindik ez da horiei buruzko erantzunik jaso.

Komunikaziorako eta epaitzeko funtzioa hiritarrei hurbiltzeko bide nahiko ez egoteari dagokionez, beste arazo bat demanda-egile gor baten lan prozeduran planteatu zen. Honen ondoren dagoen kexen aukeraketan jaso da kasua, eta hori, bestalde, **elbarritasunak** jasaten dituzten pertsonek dauzkaten arazo berezien lekukotasuna da.

Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoerari buruzko txosten berezia dela medio, asko gehitu dira gai penitentziarioei buruzko erreklamazioak, eta horregatik Justizia alorrean pisu berezia eman zaio gai honi. Euskal Autonomia Erkidegoak gai penitentziarioei buruzko transferentziak eskuratu ez dituenez gero, Ararteko gai honetan iharduteko aukera gutxi dauzka, eta Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde penitentziarioen artean sinatutako lankidetzarako hitzarmen nagusiarekin zerikusia daukaten gaietara bakarrik mugatzen da. (Ikus II. atala).

Kasu batzuetan presoek aurkezten dituzten kexak Fiskalari bidaltzen zaizkio, hori egiten da adibidez Kode Penal berria ezartzean atzerako ondorioekin kondena kitatzeari buruz desadostasuna egon denean, edo gaixotasun oso larriagatik behin behineko askatasun eskari baten kasuan. Baina erreklamazio gehienak Herri Defendatzaileari bidaltzen zaizkio, administrazio penitentziarioaren funtzionamendua zaintzeko erakunde bermatzailea hori delako.

Herri Defendatzaileari bidalitako kexen artean, kartzela zigorrera kondenatuak bere bizitokitik gertuko kartzelaren batean kondena betetzeko aukerari buruzkoek pisu berezia daukate. Zentzu honetan Senideak taldeak edo terrorismo delituengatik kondenatutako pertsonei laguntzen dieten beste kolektibo batzuek aurkeztu dituztenez gain, delitu ezberdinengatik kondenatuta eta erkidego honetatik oso urruneko katzeletan kondena betetzen dauden euskal presoek bidalitako eskariak ere ugariak dira.

Herri Defendatzaileari bidaltzen zaizkion beste salaketa batzuk eskubide penitentziarioen hausketa (tratamendurako eskubidea, baimenak, etabar) eta gaixotasun larri edo sendaezina edukitzeagatik kartzelatik ateratzeko eskariei buruzkoak dira. Kexa horien artean ETAkoa izateagatik edo ETArekin kolaboratzeagatik kondenatuta dauden pertsonez interesatzen diren kolektibo edo udalek aurkeztuak daude; beste batzuk, berriz, presoek beraiek planteatzen dituzte, arrunt deitzen diren delituengatik kondenatuta egon eta sarritan gizartearen eta familien laguntza gutxiagorekin egoten direlako.

Gai penitentziarioetarako aipatu den hitzarmen nagusiaren alorrean, Ararteko euskal administrazio ezberdinen aurrean burutu ditu iharduerak. Kartzelen egoerari buruzko txostenaren ondorioz martxan jarritako ofiziozko iharduerez gain (ikus II. atala), laguntza sanitarioaren inguruko arazoak planteatu

dira, zehazki esateko Langraizko kartzelan metadona bidezko tratamendu-programa nahikoa ez izateagatik, eta laguntza psikiatrikoa, erregimen irekia eta baldintzapeko askatasuna lortzeko aukerak eta abar izan dira beste gai batzuk. Gai hauetan, euskal administrazioko dagozkion erakundeekin harremanetan egoteaz gain kartzeletako langileekin zenbait gestio ere egin behar izan dira, eta aitortu behar da horiek une oro prest azaldu direla horretarako.

Kartzelen egoerari buruzko txostenean aipatu zen bezala, dauzkaten arazoengatik kartzelen barruan egoera txarragoan dauden kolektiboei buruzko aipamen zehatza egin behar da. **Atzerritarrak** dira kolektibo horietako bat osatzen dutenak, eta txostenean aipatzen ziren arazo orokorrez gain, erakunde honetara jo dute beste gai batzuei buruzko arazoekin, hala nola, kartzela zigorra edo baldintzapeko askatasuna beraien herrietan betetzeko trasladoak, hirugarren graduan sartzea, epaiari buruzko komunikaziorik eza, etabar.

Emakume presoek ere arazo bereziak dauzkate. Kasu batzuetan, Administrazioarengandik jasotzen dituzten laguntza penitentziarioak gizonenak baino txikiagoak dira edo nekezago lortzen dituzte, baina emakumeek kartzeletan egin behar izaten duten egonaldia larriagotzen duten arazoak ez daude erakunde honen agindupean eta gizarte baldintzekin lotzen dira batez ere. Horrela, oso arrunta izaten da kartzelan dagoena gizona denean amek, emazteek edo arrebek horien alde jotzea erakundeetara, lagundu egiten diete eta kanpoarekiko harremanetarako zubi lana egiten dute, aldi berean familiaren barne antolamenduari eusten diotelarik; baina emakume bat kartzelan sartzen denean sarritan kanpoko laguntza osoa galtzeaz gain, daukaten sufrimendua areagotu egiten zaie familia harremanak -askotan arazotsuak- hondatu egiten direla ikustean. Kartzelan dauden emakumeei eman beharreko tratamendua aztertzerakoan zirkustantzia berezi horiek kontuan izan behar dira, aztertzen zailak diren arren.

Justizia alorrean jasotzen den beste gai ezberdin bat abokatuen bakundeekin eta horiek beren kideen iharduera profesionalak kontrolatzeko daukaten betebeharrarekin zerikusia daukana da. Abokatuen jokaerarekin, eta zehazki horiek kobratzen dizkieten diruekin deskontentu dauden bezeroen kexak askotan jasotzen diren arren, Arartekoak ezin ditu jokaera horiek aztertu, partikularren arteko auziak direlako. Bidezkoa ikusten denean erreklamatzaileari esaten zaio bere kexa dagokion bazkunde profesionalean aurkez dezakeela.

Erakunde horiek Zuzenbide publikoko taldeak direnez gero, Arartekoak azter ditzake horiek bideratzen dituzten prozeduretan hiritaren eskubideak errespetatzen ote diren. Horrela, bezeroek bazkundeari aurkeztutako salaketa edo eskuhartze eskariei erantzun ez zaielako aurkeztutako kexa batzuk jaso dira. Kasu batzuetan arazoa Arartekoak iharduera hasi eta aldiberean -edo baita aurretik ere- konpondu denez gero, kasu horietan ez da inolako iharduerarik burutu behar izan, baina halere tramitazio epeak murrizteko beharra azpimarratu behar da, hiritarrari ematen zaion erantzuna eraginkorra izan dadin.

Aurreko urteetan abokatuen bazkundeei gomendio bat bidali zitzaien, akordioak edo ebazpenak jakinarazten direnean, interesatuari horiek zertan oinarritzen diren adierazi eta horien kontra ezar daitezkeen errekurtsoak ere ezagutzera eman behar zaizkiola esanaz, eta kezkagarria da 1996. urtean erakunde

honetan aipatutako baldintzak beti ez direla betetzen erakusten duen kexaren bat jaso izana.

Justiziaren alor honetan zehar egin dugun ibilbidea amaitzeko, berritan Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak espreski bere gain hartu berria duen gai bat aipatu behar da. Adin txikikoentzako epaitegiek ekintza deliktiboren bat burutu duten gazteei ezarritako neurrien exekuzioaz ari gara.

Adin txikiko hiru pertsonari internamendu zigorrak ezarri izanagatik aurkeztu den kexa baten bidetik garbi ikusi da izugarrizko baliabide falta dagoela alor honetan. Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago erregimen itxiko internamendu zentrorik, eta neskentzako ezta erdi irekirik ere, eta horrek esan nahi du epaitegiren batek neurri horietakoren bat hartzen duenean adin txikiko hori Erkidegotik kanpoko zentro batera eraman behar dela, askotan oso urrutira. Gizartetik kanpo uzte horrek ekar ditzakeen ondorio kaltegarriak nabariak dira. Erregimen erdi irekira kondenatutako neska gaztetxoen kasuan are larriagoa da, beraien ingurutik kanpo egotean erregimen hori itxiaren oso antzekoa bilakatzen delako.

Sail arduradunak ikusi diren gabeziak konpontzeko borondatea erakutsi duen arren, Ararteko honen ustez arazoa oso kezkagarria da, eta horregatik premiazkoa da egoera hori konpontzeko ahaleginak egitea. Bestalde, soluzio horrek ez du balioko, horrekin batera internamendua ez den beste heziketa-neurri batzuk sustatuko dituen planteamendu global bat egiten ez bada. Horregatik, gure kultura inguruko herrialdeetan burutu diren esperientziek erakutsi dutenez, biktimarekiko adiskidetzea edo berari egindako kaltea ordaintzea, edo gizartearen onerako lanak egitea bezalako neurriek ondorio hobeak dauzkate prebentzioari eta gizarteratzeari dagokienez. Beraz, bistan dago neurri horiek arrakasta izan dezaten behar diren bitartekoak ipini beharra dagoela.

Gai hauek daukaten garrantzia ikusirik -dagokion atalean adierazi den bezala (ikus II. atala)- legea hautsi duten adin txikikoen eskubideei buruzko txosten monografikoa hasi da prestatzen.

3.8.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

Atzerapena prozedura judizial baten bideraketan (744/95)

Erakundean kexa idatzi bat jaso zen Donostiako Lehen Instantziako Epaitegian jarraitzen zen prozedura judizial baten substantziazioan zegoen atzerapenaren kontra; atzerapena epaitegian behar adina langile ez zegoelako gertatzen zen.

Informazioa Donostiako Entzutegi Probintzialeko Fiskal Buruari eskatu eta horretarako epaitegi horretako Magistratu-Epaileak egindako txostena bidali zitzaigun, non garbi adierazten baitzen Justizia Administrazioko ofizial, laguntzaile eta agenteentzat ateratako traslado lehiaketen ebazpenaren ondorioz une txarra pasatzen ari zirela: erakunde horretako sail zibila osatzen zuten zazpi funtzionarioetatik %70 kanpoan zeuden 1995eko ekainaren amaiera eta uztailean zehar.

Horrela, Arartekoa sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak 9.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, egoera honen berri Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiari eman zitzaion.

Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskaritza Zerbitzuen 1996ko urtarrilaren 16ko txosten baten bidez adierazi zenez azaldutako egoera benetan egiazkoa baina koiunturala zen, 1995eko uztailaren eta azaroaren artean egondako bost bajak bete zirelako eta epaitegia ohizko plantilan iragarritakoaren gainetik langile bat gehiago ere sartu zelako.

Honela, jarraitzen zuen txostenak, 1995aren amaieran egoera kontrolatutzat jo zitekeen aurreko urtean ebazpen zain zeuden gaiekin aurtengoak konparatuz gero.

Erakunde honek jakin zuen epaitegiko lanpostu guztiak behar bezala beteta zeudela, eta kexa aurkezleari horren berri eman ondoren espedientea artxibatu egin zen.

Alabaina, interesatuak berriro jo du guregana prozedurak geldituta jarraitzen zuela salatzera, eta horregatik berriro hasi behar izan ditugu iharduerak.

Prozedura judizial baten ahozko auzian keinu bidezko hizkuntza erabiltzea (1050/95 eta 7/96/OI)

Euskal Herriko Gorrak izeneko Elkarte Federazioak erakunde honetara jo zuen Gasteizko Bigarren Gizarte Epaitegian egindako epaiketa batean ustez egon ziren irregulartasunak salatzeko.

Kexan adierazten zenez, auzi-jartzailea -gorra bera- keinu bidezko hizkuntzako interpretari batekin joan zen epaiketara, baina magistratu andreak aurkezleari egiten zitzaizkion galderak bakarrik itzultzeko baimena eman zion interpretariari.

Arartekoak erreklamazioa onartu egin zuen, prozedura araudiaren hausketarik ez zegola uste izan arren, egiten zen salaketak garbi erakusten zuelako hiritarren eta funtzio judizialaren iharduera artean sarritan sortzen den urruntasuna.

Judiziamendu Zibilak -Lan Prozedura ordezkatzen duenak- eta Judiziamendu Kriminalerako Legeak diotenez, gaztelera ulertu ez edo gazteleraz hitzegin ezin dutenei galderak eta horiei erantzunak itzultzeko bakarrik egon daiteke interpretaria. Alabaina, ezin da esan lege horiek epaiketaren edukia osorik itzultzea galerazten dutenik.

Alderantziz, badirudi lan prozesuaren printzipioek -berehalakotasuna, ahozkotasuna, etabar- justiziaren iharduera interesatutako pertsonei hurbiltzea eskatzen dutela. Egia da kasu honetan auzi-jartzaileak abokatua bazeukanez gero, ez zegoela hori zentzu hertsian babesik gabe geratzeko arriskurik. Halere, gertatzen ari zena ezin ulertu izanak aurkezlearengan segurtasun eta Justizia eskura eduki ezaren sentsazioa sorraraziko zion, eta hori beharrezko bermeekin epaiketa burutzeko Konstituzioan jasotzen denaren kontra joan zitekeen.

Era berean, publizitate printzipioak kolektibitateak iharduera jurisdikzionala kontrolatzeko aukera aitortzen duen arren, garbi dago banakako dimentsioa ere badaukala, zeinaren arabera prozesuan sartutako pertsona orok baitauka hori nola burutzen den jakiteko eskubidea.

Dagokion pertsonak ezagutza hori eskura edukitzeko arazoren bat daukanean, neurriak hartu beharko dira berdintasun materiala sustatzeko Konstituzioak agintzen duena betetzen dela bermatzeko. Kasu zehatz honetan, gainera, ulertzeko arazoak beste berme batzuk ere kaltetu zitzakeen -adibidez aldeen arteko oreka-, eta lan prozeduraren arauketak hori ere ziurtatu behar du.

Bestetik, esan behar da keinuen bidezko hizkuntzarako itzulpena ia erabat aldi berean egiten denez gero, epaiketa ez zela denbora aldetik gehiago luzatuko, eta interpretariaren lanak egiten zuen onuraren parean kaltea oso txikia izango zela.

Arartekoak kexa eta aurreko arrazoibideak Gasteizko Entzutegi Probintzialeko Fiskal Buruari bidali zizkion. Honek interesatuen bidez gaiaren berri bazuenez gero, epaiketa egin zen Gizarte Epaitegiko Epaile Titularraren -aztertzen ari garen epaiketaburua bera izan ez zen arren- eta kexa sinatzen zuen elkarteko ordezkarien arteko elkarrizketa bat eratu zuen. Bilera horretan, eta beharrezko azalpenen bidez, planteatutako arazoarentzako irtenbide onargarri bat lortu zen.

Aipatu diren iharduerен bidez salaketa egiten zuten elkarteen helburu nagusia lortu zen, beraiek ziotenez hau baitzen: pertsona gorrek administrazio publikoekiko harremanetan aurkitzen dituzten arazoak ezagutzera eman eta administrazioek eta gizarteak traba horiek kentzeko premiaz kontzientziatzea.

Erakunde honen ustez, kexak aukera eman zuen orobat Justizia Administrazioak zenbait zentzumen-arazo dauzkatenei laguntzeko dauzkan gabeziak ezagutzeko ere. Horregatik, Arartekoak ofiziozko iharduera bat aurrera eramatea erabaki zuen, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari keinu bidezko hizkuntz itzultzaileak edukitzeko premiaren aurrean zer egitea pentsatua zeukaten galdetzeko.

Sail horrek erakunde honi adierazi zionez, erakunde judizialetako itzulpen eta interpretaritza zerbitzuan sartuta zegoen "*hizkuntza daktilografikoa, braille eta keinu bidezko lengoaia*", eta horregatik, Justizia Administrazioarekiko harremanetan hiritar batzuek eduki zitzaketen arazoari aurre egiteko neurriak hartuta zeudela ziurtatuta zegoela.

Halere, kasu zehatz honek erakutsi zuen Eusko Jaurlaritzaren eta kaltetutako elkarteen arteko -kasu honetan pertsona gorrak ziren- informazio iturrietan nolabaiteko jariorik ez dagoela, izan ere pertsona horiek zerbitzu horren berririk ez baitzuten eta horregatik sekula eskatu gabe zeuden, epaiketetara orain arte elkarteak jarritako interpretariarekin joan izan direlarik. Badirudi bi erakundeen artean geroztik egon diren harremanen bidez ezagutza falta hori konpondu dela.

Auzitegi Gorenak epai irmoa eman eta handik urte batzuetara hiritar batzuei kartzelan sartzeko emandako aginduari buruz (863/96, 991/96 eta 1460/96)

Euskal Autonomia Erkidegoko herri ezberdinetako hiru hiritar 1988an atxilotu zituzten delitu bat burutu izanaren akusaziopean, eta 1989ko otsaila arte kartzelan egon ziren, behin-behineko askatasunean utzi zituzten arte. Entzutegi Nazionalak 1990ean eman zuen epaia, 1992an Auzitegi Gorenak berretsi zuelarik.

1996ko ekainaren 25ean kartzelara itzuli behar izan zuten ezarrita zeukaten kartzela zigorra betetzera.

Behin-behineko askatasunean utzi zituzten eguna geroztik, 1989ko otsailetik alegia 1996ko ekainean kartzelan berriro sartu ziren arte, zazpi urte luzez, beraz, interesatuak astean behin komisaldegi batera aurkeztu behar izan dute.

Interesatuen familiek eta Autonomia Erkidegoko hiru udalek Arartekoaren iritzipean jarri zuten kaltetuek luzapenik gabeko prozesu baterako zeukaten eskubidea hautsi ote zen ebazteko. Kexa ikusi eta erakunde honek gaiari buruzko ikerketak egiteko ahalmenik ez zeukala kontuan izanik, espedientea Herri Defendatzaileari bidali zitzaion, bai eta honek beharrezko iharduerak hastea erabaki ere.

3.9. **INGURUGIROA**

3.9.1. **SARRERA**

Alor honetan 84 kexa jaso dira, erakundean aurkeztu diren guztien artetik %6,39 beraz.

Eragindako Administrazioen arabera, banaketa hau daukagu:

- Eusko Jaurlaritza 5
- Foru Aldundiak 4
- Udalak 83

Kexen edukiari dagokionez, azpialorrak honela banatzen dira:

- Hiriko iharduera sailkatuak 77
- Ingurugiroarekiko beste arazo batzuk 7

Alor honi dagozkion salaketak kolektiboek edo auzo elkarteek edo bestela partikularrek aurkezten dituzte erakunde honetan, gure inguruak, hiriek nahiz nekazari herriek gero eta sarriago jasaten dituzten erasoengatik kezkatuta.

Ingurugiroaren kontrako erasoak Konstituzioaren II. Atalean jasotako eskubideen kontrako atentatuak dira, hiritar guztiok ingurugiro egokiaz gozatzeko eta hori zaintzeko - Konstituzioaren 45. art.- daukagun eskubidea hausten delako. Konstituzioak babesten duen interes kolektibo horren defentsaren bidez Arartekoak zilegitasunaren interpretazio zabala egin eta era guztietako elkarte eta taldeek aurkeztutako kexak onar ditzake.

Jaso diren kexen artean, gogaikarritzat jotako ihardueren funtzionamenduak zarata, ke, usain etabarrengatik etxebizitzetan eragiten dituzen ondorio txarrengatik biztanleek aurkeztutakoak nagusitzen dira, iharduera horiek batez ere tabernak, pubak, diskotabernak, kafetegiak eta bokatalekuak dira. Baina urtetik urtera gimnasio, musika-akademia, garaje eta automobilen konponketarako lantegiek

bezalako iharduerek eragindako gogaipenak salatzen dituzten gero eta kexa gehiago jasotzen dira. Azkeneko horiek etxebizitza erabilerarako zonetan kokatuta egon ohi dira, eta antolamendutik kanpo, beraz.

Ostalaritzako establezimenduek eragindako gogaipenei buruzko salaketei dagokienez, berriro esan behar dugu zarata horiek soinuak isolatzeko neurri zuzentzaileak betetzen ez direlako gertatzen direla batez ere. Neurri horiek iharduera lizentzian baldintza bezala jasota daude, baina gure erkidegoko herri askotan oraindik legez kanpo, alegia beharrezko udal baimenik gabe funtzionatzen jarraitzen dute iharduera askok. Horrek esan nahi du establezimendu horietako asko udal zerbitzu teknikoek inolako ikuskapen bisitarik egin gabe martxan jartzen direla, eta beraz, lokal horiek indarrean dagoen hirigintza araudian ezarritako aginduak betetzen ote dituzten ziurtatu gabe.

Bestalde, ez da erraza zentzurik zabalenean hartuta ikuskizun eta aisiarako erabiltzen diren iharduerak dauzkaten establezimenduen kontrola, eta hemen ostalaritzako iharduera guztiak sartzen ditugu. Establezimendu horietan, musika aparailuen bolumenarekin lotutako zaratak izaten dira gogaipena eragiten dutenak. Horrela, etxebizitzetarako hiri-lurretan kokatutako iharduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuentzako arau teknikoei buruzko Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak esijitzen duenez, musika aparailu horiek insonorizatzeko aurkeztutako proiektuan kalkulatutako soinuaren indarrera mugatu behar dira. Gaur egun aparailu mota horiek kontrolatzeko bide bakarra horietan bolumena kontrolatzeko aparailuak jartzea da. Kexa espedienteak bideratzerakoan ikusi dugunez, bolumena kontrolatzeko aparailu horiek oso erraz manipula daitezke, eta horrezaz gain zenbait kasutan iharduera horien jabeek era horretako aparailuekin musika aparailua zigilatuta eduki eta besterik gabe aldatu egin dute. Eta egoera horren aurrean udal gutxik irekitzen dute dagokien zigor espedientea iharduera baimenean ezarritako neurri zuzentzaileak nabarmen betetzen ez direnean.

Horregatik guztiagatik, aurten berriro esan behar da iharduera horiek udal lizentziaren mende eta iharduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen araudiari (IGOKAA) lotuta daudela, eta horregatik Arartekoak udalei gogoratu behar die hiritarrek aurkezten dituzten salaketen aurrean ikuskaritza funtzioa bete behar dutela, egindako salaketak egia ote diren jakiteko eta udal baimenetan ezarritako neurri zuzentzaileak errespetatzen ote diren jakiteko.

Bestalde, aurten ikuiluetan sartuta egoten den ganaduak eragindako gogaipenak ere salatu dira, batez ere eragiten dituzten usainengatik eta gune osasungaitzak direlako. Gai honi dagokionez ikusi dugunez gero, iharduera horiek nekazari eremuetako hiriguneetan kokatuta daude, eta gehienak IGOKAA onartu baino lehenagotik daude funtzionamenduan eta ez dira legeztatu. Kasu askotxotan, estabulazio iharduera horiek antolamendutik kanpo geratu dira planeamendu berriak onartu ondoren. Beraz, planeamenduak indarrean jartzen direnean iharduera horiek hiriguneetatik kanpo kokatu beharko lirateke. Alabaina, IGOKAA ezartzeko arau osagarriak ezartzen dituen 1963ko martxoaren 15eko Aginduak 11.4 artikuluaren arabera, establezimendu horiek Lurraren Erregimen eta Hirigintza Antolamenduari buruzko Legeak ezartzen dituen mugetara eta baita

iharduera arriskutsu edo osasungaitzen euskarri diren araudian iragarritako neurri zuzentzaileen maila gorenera ere loturik egon beharko lukete.

Bestalde, hiriguneetan ezarritako gasolindegiei buruzko kexa batzuk ere jaso dira erakunde honetan. Arriskutsutzat jotzen diren iharduera horiek eragin ditzaketen kalteekiko beldurrarengatik hiritarrek horiek lekuz aldatzeko eta etxebizitza zonetatik urruntzeko eskatzen dute.

Horrela, erakunde hau sortzen eta arautzen duen 3/85 Legean ezarritakoaren arabera, Ararteko honek salaketa horien aurrean ikertu egin behar du iharduera horiei baimena ematerakoan ezar lekiekeen araudian iragarritako aginduak eta segurtasun baldintzak betetzen diren eta gasolindegi horiek egin beharreko aldian aldiko errebisioak egiten dituzten. Eta indarrean dagoen planeamenduaren arabera daukaten kokapena desegokia den kasuan bakarrik eskatu ahalko litzateke horiek lekuz aldatzea, kasu horretan planeamendu hori burutzeko iragarrita dauden epeak errespetatuko liratekeelarik.

Azkenik, azpialor honi dagokionez, idustria iharduerek eragindako isurketa kutsagarrien kontra erakunde honetan jaso diren salaketak azpimarratu behar dira.

Gai honi dagokionez jakin dugu udalek zalantzak azaltzen dituztela iharduera horien kontra jo eta legearen barruan ezarri beharreko neurri zuzentzaileak esijitzeko orduan, iharduera horiek batez ere hiriko edo herriko biztanleei lana ematen dietelako; horregatik ez dute kontuan hartzen isurketa kutsagarri pertsonen bizitza kalitatea ondatu eta ingurugiroa kalte dezaketela.

“Inguruarekiko beste kalte batzuk” azpialorrean sartzen diren kexei dagokienez, ondokoak azpimarra ditzakegu: tiro-zelai desberdinetan eskupeta tiroen zaratek eragindako gogaipenari buruzkoak; baso landaketen eta hiriguneen artean gorde beharreko gutxieneko tarteak ez betetzeari dagozkionak; eta azkenik, ibilgailu gehikuntza eta beraz zarata gehiago eragiten duten errepide berrietatik gertu dauden etxeetan babes akustikoak jartzea erreklamatzen dutenak.

3.9.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

3.9.2.1. **HIRIKO IHARDUERA SAILKATUAK**

Lantegi bateko sirenak eragindako gogaipenak (283/95)

Amezketako emakume batek kexa-idazki bat aurkeztu zuen erakunde honetan, non aipatutako herriko lantegi bateko sirenaren funtzionamenduak eragindako zarata gogaikarriak salatzen baitziren.

Interesatuak zioenez, industria horrek 6.00etatik 14.00ak arteko txanda baino 10 minutu lehenago, eta gainera 12.00etan eta 18.00etan ere jotzen du sirena, nahiz eta gaur egun azken txanda hori ez egon.

Bestalde, erreklamatzaileak eskuratu zizkigun agirien arabera jakin genuenez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lan Hidrauliko eta Ingurugiro Sailaren zerbitzu teknikoek egin zuten bere etxean zegokien soinu-neurketa eta ondorioa hau izan

zen: bere etxebizitzan entzuten zen soinuaren bolumena, hain zuzen 65,8 dB(A), Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuak ezarritako muga baino askoz handiagoa zen. Araudi hori kasu honetan ezargarria ez zen arren, Aldundiak bai hartzen zuen erreferentzia gisa lortutako emaitzak baloratzerakoan.

Alabaina, Amezketako Planeamendurako Arau Subsidiarioetan etxebizitzetarako zarata bolumenaren muga egunez 36 dB(A) zen 1. zonan, interesatua bizi den lekuan.

Honi dagokionez, Amezketako Udalak jakinarazi zigun aipatutako enpresaren jabeei eskatu zietela sirenaren joaldia murrizteko, eta interesatuak baieztatu zuen hori, sirenak denbora gutxiagoan jotzen zuela alegia, baina zaratak jarraitzen zuela. Horregatik, Arartekoak gomendio bat egin zion aipatutako udalari ondokoa eskatuaz:

> *"Enpresaren jabeei soinuaren maila indarrean dagoen araudian iragarritako gehienezko mugara jaits dezaten eskatzea, eta hori ezinezkoa den kasuan, daukaten sirenaren ordez industriako langileei txanda aldaketa gogorarazteko erabil daitekeen beste edozein sistema jar dezaten".*

Egindako gomendioari erantzunez Amezketako Udalak jakinarazi zigunez, herrian ahozko galdeketa bat egin zuten sirena beharrezkoa ikusten zen jakiteko, gehienak alde azaldu zirelarik; sirena azken 50 urte hauetan funtzionamenduan egon eta askorentzat erreferentzia bilakatuta zegoenez, gero, ez zuten kentzerik nahi.

Bestalde, aurkeztutako erreklamazioari erantzuteko nahikoa ikusten zuten lantegiaren jabeei sirenaren joaldia murrizteko eskatu izana, horrekin zarata gutxiago sartzen zela uste zutelako.

Arartekoaren iritziz gomendioa aintzat hartu gabe geratzen zen, sirenak ateratzen zuen zaratak herriko hirigintza araudian ezarritako zarata mugak erabat hausten zituela frogatuta zegoelako.

Industria iharduera batek eragindako kutsadura akustikoa eta hauts formako isurketak (813/95)

Elorrioko biztanle talde batek sustatutako kexa bat jaso zen erakunde honetan, non fundizio iharduera batek eragiten zituen hauts isurketak eta kutsadura akustikoa salatzen baitziren.

Honi dagokionez kaltetuek zioten iharduera martxan jarri zenean kutsadura maila onargarria zen arren, denbora igaro ahala egoera jasanezina egin dela.

Elorrioko Udalarekin harremanetan jarri ondoren jakin genuenez gero, lantegiak ez zeukan beharrezko irekitze baimenik, instalazio baimenean ezarritako neurri zuzentzaileak frogatzeko lanen azken agiria aurkeztu ez zuelako.

Horregatik, Arartekoak Elorrioko Udalari gomendatu zion udaleko zerbitzu teknikoek berehala egin zezatela lantegira bisita iharduera horretarako baimenean ezarritako neurri zuzentzaileetara egokitzen ote den ikusteko. Ikuskaritzaren ondoren ikusten bazen fundizio iharduera ez zegoela instalazio baimenak agintzen

dituen neurri zuzentzaileetara egokiturik, IGOKAAk 36. eta ondorengo artikuluetan agintzen duenaren bidetik joka zedila. Aipatutako udalari beste hau ere iradoki genion: ikuskaritza bisita hori egiteko beharrezko zerbitzu teknikorik ez bazeukaten Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuordetzari eska ziezaiotela lan hori egitea, erakunde hori delako iharduera kalifikatzeko ahalmena daukana.

Elorrioko Udalak azkenik jakinarazi zigun Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuordetzara jotzea erabaki zutela ikuskaritza bisita egin eta fundizio iharduera konproba zezan.

Ararteko honek iritzi zuen kexa eragindako arazoa epe laburrean konponduko zela, eta kasu honetan hasitako iharduera amaitu egin zuen.

Enpresa baten funtzionamenduak ke eta usainengatik eragindako gogaipenak (53/96)

Aguraingo emakume batek, herri horretan kokatutako enpresa baten isurketa kutsagarriak gehitzen ari zirelako kezkaturik, erakunde honetara jo zuen enpresa horren funtzionamenduan zeuden irregulartasunak salatzera.

Aguraingo Udalak gai honi buruz igorri zigun informazioaren arabera, Arartekoak jakin zuen iharduerak 3 urte baino gutxiago zeramatzala lanean eta ez zeukala beharrezko udal baimenik.

Udalak, gainera, 1992an enpresa horretako jabeei iharduera legeztatzeko eskatu zien, horretarako hiru hilabeteko epea eman zitzaielarik.

Bestalde, aipatutako udalak eskuratu zigun dokumentazioan esaten zenez, jakinekoa zen iharduera gogaipenak eragiten ari zela egiten zituen isurketengatik eta kokagunetik gertu zeukan errekatxo bat zikintzen ere ari zelako.

Arartekoak egoera horren aurrean Aguraingo Udalari gomendatu zion enpresaren jabeei iharduera legeztatzea esiji ziezaiola, eta aldi berean udal zerbitzu teknikoek egiaztatzeko bisita bat egin zezatela enpresak eragiten zituen kalteak ikusteko, azken egiteko hau une horretan bertan bermezko neurri gisa iharduera etetea edo ixtea beharrezkoa zen baloratzeko egin behar zutelarik.

Aguraingo Udalaren aurrean zenbait gestio egin ondoren, Arartekoak jakin zuen aipatu enpresak udal horren aurrean aurkeztu berri zuela iharduera baimena bideratzeko proiektua.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuordetzak enpresari neurri zuzentzaileak ezarri eta epe laburrean ke eta usainengatiko gogaipenak desagertuko zirelakoan, Ararteko erakunde honek gai honetan iharduerak burutzen jarraitzeko bideak agortutzat jo zituen.

Batzoki iharduera baten funtzionamenduko irregulartasunak (275/96)

Bilboko emakume batek kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, bizitetxetarako eraikin baten lehen solairuan zegoen Euzko Alderdi Jeltzalearen Batzoki bateko musika-ekipoa bolumen handian egoten zelako eragiten zituen zarata gogaikarriengatik.

Bestalde, interesatuak zioenez, aipatutako iharduera beharrezko instalazio eta irekitze baimenik gabe egon zitekeen funtzionamenduan, 1984an establezimendu horren kontra espediente bat ireki zelako.

Kaltetuari ostalaritzako zerbitzu bat etxebizitza-eraikin bateko lehen solairuan kokatuta egotea ere deigarria gertatzen zitzaion.

Bilboko Udalari laguntza eskatu ondoren honek jakinarazi zigunez batzoki iharduera horrek ez zeuzkan beharrezko instalazio eta funtzionamendu baimenak, baina batzoki horren iharduera arautzeko instalazio espediente bat martxan jarrita zegoen.

Gai honi dagokionez, Bilboko ostalaritza eta antzeko establezimenduen Ordenantza Erregulatzaile Berriak dio iharduerak nagusiki eraikinetako behe solairuetan kokatu behar direla, soto eta lehen solairuekin osa daitezkeelarik, horiek arauek esijitutako baldintzak betetzen badituzte.

Udal Egitasmo Orokorreko Testu Bateratuak bere aldetik zuzkidura bezala sailkatutako iharduerak etxebizitza-eraikinetako solairuetan kokatzeko aukera ematen zuen, sarrera propiorik behar izan gabe; zuzkiduren barruan elkarteentzako erabilerak sartzen ziren, horien artean alderdi politikoen iharduera kolektiboak sartuaz. Arau horrek, ordea, ostalaritza, jatetxe, taberna eta antzeko zerbitzuak txikikako merkatal erabilera kontzentratugabetzat jotzen du, eta horregatik ezin dira lehen solairu batean jarri beren sarrera propioa eduki gabe.

Kasuari ezar lekiokeen araudiaren bidez, Arartekoak iritzi zuen lehen solairuan elkarte erabilera zeukatenak bakarrik geratzen zirela Udal Egitasmo Orokorreko Testu Bateratuak babestuta, baina ez batzoki baten ostalaritza iharduera, gertatzen ari zen bezala.

Horregatik, Ararteko honek Bilboko Udalari gomendatu zion bermezko neurri gisa Euzko Alderdi Jeltzalearen batzokian garatzen zen ostalaritza iharduera itxi eta establezimendu horren jabeari lokala elkarte erabilera hutserako legeztatzea eska ziezaiola, horretarako zegokion espedientea irekiaz eta etxeko biztanleen baimena lortuaz.

Bilboko Udalak egin zitzaion gomendioari erantzunez Arartekoari adierazi zion batzoki iharduera publikoarentzat itxi egin zela eta lokalean ez zegoela inolako iharduerarik.

Kexa eragindako arazoa konpondutzat jo ondoren, Ararteko honek espedientea itxi eta artxibatu egin zuen.

Ehiz-kirol iharduerek zaratengatik eragindako gogaipenak eta Udalaren parte hartzea lizentzia ematerakoan (431/96)

Hernialdeko Udalak (Tolosaldea) Arartekoarengana jo zuen bertako biztanleei Tolosako Montezku auzoan zegoen tiro-zelai bateko kirol iharduerak eragiten zizkien gogaipenak salatzeko. Zehazki Tolosako Udalaren jokaera salatzen zuen, iharduera horri debekatu ordez baimena eman ziolako, eragiten zituen gogaipenek Hernialdeko biztanleak kaltetzen zituelako eta ez Tolosakoak.

Arazo hori aztertzeko Arartekoak Tolosako Udalari eskatu zion 15 egunen buruan iharduera espedientearen kopia bidal ziezaiola, eta handik hiru hilabetera bidali zuten hainbat errekerimenduren ondoren.

Jasotako dokumentazioa aztertu ondoren ikusi zen Gipuzkoako Ehiz Federazioak lizentzia eskatu zuela “txakurrak trebatzeko eta ehiz-kirol iharduerak” egiteko, eta Alkatetzaren 344/1995 Dekretu bidez “txakurrak trebatzeko zelai bat” itxi eta prestatzeko lanetarako baimenaz gain ehiz ekintzarako ere eman zitzaiola. Baina, harrigarria gertatzen zen ehiz txakurrak trebatzeko su-armak behar izan eta arriskugarritzat bezala sailkatutako iharduerari zegokion espedientea bideratu ez izana.

Esandakoaz gain, Tolosako Udalak lizentzia emateko baldintza bezala Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Abeltzaintza Sailak txakurrak trebatzeko iharduerak bete behar dituen baldintzei buruz emango zuen txostena jartzen zuen.

Gipuzkoako Ehiz Federazioak Tolosako Udalari bidalitako gomendioa ezagutu zuenean Arartekoari bilera bat egitea eskatu zion auzitan jarritako gaiari buruz beraiek zeukaten ikuspegia azaltzeko. Federazioaren ustez gomendioan nahastu egiten ziren “plater tiroketa” iharduerak eta ehiz ibilaldiak; azken hori Espainiako Ehiz Federazioak araututako ehiz-kirol iharduera da.

Hori horrela izanik, beraien ustez Montezkun zegoena ez zen tiro-zelai bat, ehiz-kirol ihardueretarako zelai bat baizik, bertan besteak beste ehiz ibilaldiak egiten zirelako. Gainera, Tolosako Alkatetzaren Dekretu bidez Federazioari “txakurrak trebatzeko eta ehiz-kirol iharduerak” burutzeko baimena eman bazitzaien, ulertu behar zen Montezkun ehiz ibilaldien kirol iharduera baimenduta zegoela.

Argitu behar da ehiz ibilaldia araudiaren arabera honetan datzala: ehiztari batek postu finko batetik tiro batekin edo gehiagorekin forma eta tamaina ezberdinak eduki ditzakeen plater bat bota behar du, eta platerak botatzeko makina batek jaurti behar du lurraren gain-gainetik.

Arartekoak berriro aztertu zuen kexa Gipuzkoako Ehiz Federazioak azaldutako arrazoibideen ildotik.

Bigarren azterketa horren ondoren ondorio hau atera zen: Federazioak “txakurrak trebatzeko zelai bat jartzeko eta ehiz-kirol iharduerak jartzeko” lizentzia eskatu zuen arren, ondoko puntuak kontuan eduki behar zirela:

1. Federazioak eskariarekin batera ez zuen kirol iharduera horien ezaugarriei buruzko inolako azalpenik eman.
2. Aurkeztu zen gainerantzeko dokumentazioan “ehiz txakurrak trebatzeko” iharduera besterik ez zen aipatzen.
3. Tolosako Udalak kontrolatu zuen iharduera bakarra ehiz txakurren trebakuntza izan zen.

Ondorioz, Alkatetzaren Dekretu bidez emandako lizentziaren ondorioak kontrolatutako esparruan bilatu behar ziren, eta ikuskatutako esparrua ehiz txakurren trebakuntza izan zenez gero, baimenduta gera zitezkeen ehiz-kirol iharduera bakarrak ehiz txakurren trebakuntzarekin zerikusia zeukatenak izan zitezkeen.

Erakundeak egin zuen azterketan Montezkuko lur ez urbanizagarriaren hirigintza erregimena ere aztertu eta ikusi zen udal espedienteak ez zeukala han

egin ziren lanak baimendu behar zituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren beharrezko txostena. Era berean, aire libreko zaraten arazoak ere aztertu ziren, gai honi buruzko legedi berezirik ez baitago.

Arartekoak, azkenik, aztertutakoaren ondorio logiko gisa gomendio bat egin zion Tolosako Udalari eta beste bat Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordetzari, nekazari eremuan kokatzen diren iharduerak kalifikatzeko administrazio eskuduna den aldetik.

Tolosako Udalari zuzendu zitzaion idatzian lehen egindako gomendioa egiten zitzaien berriro ere, alegia "berehala bertan behera utz zitzala ehiz txakurren trebakuntzarekin zerikusirik ez zeukaten ehiz-kirol iharduerak".

Lurralde Antolakuntza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari zegokionez, hau gomendatzen zitzaion: Montezkun burutzen ziren iharduerei buruzko ikuskaritza-akta altxatu eta iharduera horrek Hernialde herrian zeukan eraginari buruzko azterketa akustiko zehatza egin zezala, eragindako beste administrazioekin batera ehiz-kirol ekipamenduak antola zitzala, eta azkenik, araudian oinarrituaz zarataren arazo ugariak eta kezkagarriak globalki eta zehazki azter zitzala.

Gimnasio iharduera bateko musika-ekipoa legeztatzeko udalak egindako errekerimenduari buruzko desadostasunak (789/96)

Gimnasio baten jabeak erakunde honekin harremanetan jarri ziren Mungiako Udalak ustez burututako ekintza irregular bat salatzeko.

Ihardueraren jabeak ez zeuden ados udaltzaingoak gauez sonometriak egitearekin. Era berean, herri horretako Udalarekin ez zetozen bat, beraien ustez iharduera burutzen zuten lokalean musika-aparailu bat jar zezaketelako.

Kexa sustatzaileek lortu nahi zutena ikusirik Arartekoak zenbait arrazoibide aurkeztu zizkien, non esaten baitzitzaien udalek lizentzia emanaz beren gain hartzen dituzten ihardueren funtzionamenduek etengabe zainduta egon behar zutela.

Horrela, erakundearen ustez udalei dagokie beraiek baimendutako iharduerak une oro gogaipenik eragin ez dezaten zaintzea. Izan ere, iharduera mota horiek gertuan bizi diren pertsonen bizitza kalitatea kaltetu baitezakete gogaipenak, zaratak, dardarizoak, keak, usainak etabar eraginez, eta hiritar horiek ez daukate horiek zertan jasanik, interes orokorra sekula ezin delako iharduera horien jabeen interes indibidual edo partikularraren menpe jarri.

Zentzu horretan Arartekoak zioen sonometria neurketak zaraten gogaipenak salatzen diren momentuan egin behar direla. Zaratak gauez eragiten badira, horien neurketa ere gauez egin behar da, hori gertatzen dela salatzen den unetik gertuen dagoen momentuan.

Arartekoak erreklamatzaileei argitu zien, baita ere, foru aldundien ingurugiro sailek ezarritako neurri zuzentzaileek etxebizitzetara zarata transmisiorako jartzen dituzten mailak direla aplikatu behar direnak, nahiz eta udalek beren ordenantzetan maila murritzagoak ipin ditzaketen.

Azkenik, kirol establezimenduaren jabeei jakinarazi zitzaien gimnasioetan musika aparailuak jar daitezkeela, horretarako Foru Aldundiak kalifikazio eta neurri zuzentzaileen hartzerako txostenaren bidez aldeko iritzia azaltzen badu. Horregatik,

Ararteko honen ustez bidezkoa zen Udalaren aurrean proiektu tekniko bat aurkeztu behar izatea, musika-ekipo bat jarri nahi zela planteatuaz.

3.9.2.2. **INGURUGIROAREKIKO BESTE ARAZO BATZUK**

Pinu-beldarraren kontrako tratamendu fitosanitarioak ustez eragindako kalteak (783/95)

Aiarako Zuaza herriko emakume batek aurkezten zuen kexa-idazki bat jaso genuen erakunde honetan, eta bertan salatzen zuen bera bizi zen inguruetan bi urtez behin fumigazioak egiten zirela airetik, eta aldi berean bere etxea eta baratza ere fumigatzen zutela, ezinezkoa zelako baserria ingurune horretatik bereiztea.

Airetik egiten zen tratamendua aldez aurretik inolako abisurik gabe egiten zela ere adierazten zuen, eta kontuan eduki behar zela irailean biltzen zirela baratzeko produktu gehienak.

Bestalde, zioenez, zuela bi urte beste fumigazio bat egin zenean Arabako Foru Aldundiarekin telefonoz hitz egin omen zuen eta bertako arduradun batek ziurtatu omen zion abioitik jaurtitzen ziren produktuak ez zirela kaltegarriak. Hogei egunen barruan baratzetik ezer ez biltzeko ere gomendatu zion. Interesatuak zioenez, horrek esan nahi zuen produktu gehienak zegokien sasoian ezin zituela bildu, eta horiek, beraz, hondatu egiten zirela.

Honi dagokionez Nekazaritzako Foru Diputatuak jakinarazi zigun aireko tratamendu hori abuztuaren azkeneko eta irailaren lehenengo asteen artean egin zirela kaltetutako barrutietako udalen ezagutzarekin eta onespenarekin. Kasu honetan tratamendu eskaria Zuazako Administrazio Batzarrak egin zuen.

Tratamendurako erabili ziren produktu fitosanitarioei dagokienez, adierazi ziguten gizaki, etxeko animalia, eta lurreko eta uretako faunarentzako MAPAko Produktuen eta Material Fitosanitarioaren Erregistro Ofizialeko sailkapen toxikologiko txikienekoak zirela. Hain zuzen, ondorengo produktuak erabili ziren:

DILIMIN 45 ODC, produktu komertzialetik 125 ccko dosia (gai aktibo diflubenzuron 56,25 g) hektareako 51 gasoleoko disoluzioan.

FORAY 48B, formulatatuko 2,51ko dosia (11,8 milioi U.I./g) hektareako formulatu garbian.

Azkenik, aldundiaren txostenean esaten zen izurria kontrolatzeko ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzearren tratamendua masiboki egiten bazen ere, nekazari lurrak eta baserriak kanpoan uzten zirela, eta horregatik, fumigaziorako hegazkinaren gidariak jaulki beharreko likidoa eten egiten du alor horietatik pasatzean, nahiz eta noraezean ibiltzearen ondorioz mailaren batean kaltetuak suertatu zitezkeen.

Alabaina, esan zigutenez Aiarako tratamendu zonan ez zegoen aipatutako ezaugarriak zeuzkan baserririk, gerta zitekeena zen hegazkinak tratamendu zonatik kanpo fumigatu beharreko zonan sartzean eta irtetean egindako maniobrak ikusi izana.

Guzti horren aurrean, Arartekoak iritzi zuen administrazioak kasu honetan burututako iharduera indarrean dagoen legediaren arabera egin zela; interesatuari jakinarazi zitzaion espedientearen bideraketa bertan behera uzten zela eta Zuazako Administrazio Batzarrarekin harremanetan jar zedila tratamendua noiz hasiko zen adieraz ziezaioten, Batzar hori zelako Arabako Foru Aldundiari eskaria egiten ziona.

3.10. **HERRI-LANAK ETA ZERBITZUAK**

3.10.1. **SARRERA**

Alor honetan guztira 102 kexa jaso dira, eta edukiari dagokionez banaketa hau daukagu:

- Zerbitzuak 46
- Garraioak 2
- Herri-Lanak 20
- Desjabetzeak 4

Herri-lanekin lotuta aurkeztu diren kexa gehienak derrigorrezko desjabetze prozedurei dagozkie: ondasunen balorazioa, adostutako prezio zuzenaren ordainketen atzerapena; espedientearen bideraketan hartutako erabakiak ez betetzea, etabar.

Ohizkoa den bezala, azpiegiturako lan handi edo ertainen kontrako kexak kolektiboek edo auzo elkarteek aurkeztu dituzte. Beste kasu batzuetan, hobekuntza urbanistikoa edo kale baten konponketa dira auzo elkarteen arreta erakarri dutenak.

Metodologi prozedura soilari dagokionez, herri-lanak burutzerakoan sortzen diren administrazioaren ustezko ardurak eta kexa ezberdinak eragin dituztenak ez dira alor honetan sartzen, Administrazioaren Antolaketa eta Funtzio Publikoarenean baizik.

Zerbitzuen azpiatalean, alor berezirik ez daukaten udal zerbitzu-egiterapenek eragindako arazo multzoa biltzen da batez ere. Horrela, sail honetan jasotako kexak ur hornikuntza zerbitzuari buruzkoak dira batez ere, eta maila txikiagoan saneamendua, kanposantuak, telebista errepikagailuen instalazioa, eta beste arrazoibide batzuk dituztenak.

Azkenik, garraioak paper garrantzitsua izan du hiritarren kexen barruan. Kasu batzuetan tren edo autobus garraiobideen hobekuntza eskatzen zen; beste batzuetan garraiobideetarako bonoak izan dira kexen arrazoia, batez ere jubilatuek bono horiek lortzeko eskubideari dagozkionak. Erabilera berezirako errepide bidezko garraio erregularraren ustiaketaren arazoa jasotzen dutenak ere ez dira falta izan.

Azpialor honetan Bilboko Metroa ere aipatu behar da, garraio-azpiegitura sortu berria izaki, bono edo bileteen arazoarekin zerikusia daukaten kexak aurkeztu baitira.

3.10.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

3.10.2.1. **HERRI-LANAK ETA DESJABETZEAK**

Foru Aldundiak lur eremu batzuk desjabetu zizkion errepide bat zabaltzeko, baina botatako itxidura-hormaren balioa ez dio ordaindu (64/94)

Aiarako baserri baten jabea Arartekoarengana zuzendu zen, besteak beste hau planteatzeko: 1993an Arabako Foru Aldundiak lur eremu batzuk desjabetu zizkion C-6210 errepidean, Arespalditza eta Menagari artean egokitzapen eta hobekuntza lanak egiteko.

Bere lurrak okupatu aurretik egin zen aktan, eragindako ondasuna deskribatzerakoan, "kaltetutako jabetza guztiaren luzeran dagoen 95 bat metroko itxidura-horma" aipatzen zen.

Bestetik, adostutako prezio zuzena jasotzen zuen orrian jabeak dirutan jaso beharrekoa aipatzen zen, baina gero eraitsi zen itxidura-horma ez zen aipatzen.

Arartekoak Herri-Lan eta Garraioetarako Foru Diputatuari planteatu zion interesatuak eskuratutako agirien bidez horma hori bota zela, baina ez indemnizatu, eta beraz Foru Aldundiak jabeari hormaren balioa ordaindu beharko ziola.

Azkenik, Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugirorako Diputatuak 347/96 Foru Araua onartu zuen: bertan horma ez zela indemnizatua izan aitortu, eta eraitsitako hormaren jabeari 1.450.000 pezeta ordaintzea erabaki zen.

3.10.2.2. **ZERBITZUAK ETA GARRAIOA**

Uhinen transmisioan arazoak zeudelako, auzo batzuetan jasotzen ziren telebista irudiak txarrak ziren (533/95)

Zeanuri udalerriko Undurraga-Goikoa eta Alzuste baserri-auzoetako biztanleek Arartekoarengana jo zuten, uhinak gaizki jasotzen zirenez, beraien telebistetan ikusten ziren irudiak oso txarrak zirela salatzeko.

Auzokideen esanetan, Autonomia Erkidegoan uhinen transmisiorako sareaz arduratzen den Euskalnet enpresa publikoak duela hiru bat urte errepikagailu bat ezarri omen zuen, eta horri esker beste auzo batzuetan uhinen errezepzioa eta erreprodukzioa hobetu bazen ere, Alzusten eta Undurraga-Goikoan berdin jarraitzen zuten.

Arrazoi horregatik, Zeanuriko Udaleko eta Euskalneteko ordezkariek bilerak egin zituzten transmisio okerraren arazoa konpontzeko errepikagailu berri baten

kokapena tratatzeko; auzotarrek erakunde honen aurrean kexa aurkeztu zutenean, ordea, arazoak berdin jarraitzen zuen.

Arartekoak auzotarren eskaria Euskalneti pasatu zion, zeinak hau erantzun baitzuen: "*arazoak biztanle gutxiri eragiten dienez eta Autonomia Erkidegoan biztanle gehiagori eragiten dien beste "itzal-zona" batzuk konpontzeko premiagatik, aurten ez daukagu aurrekonturik arazo hori konpontzeko. Alabaina, hurrengo urtealdirako aurrekontuak egiterakoan kasu hori sartzen saiatuko gara*".

Erantzun hori ikusirik, Arartekoak berriro jo zuen Euskalnetekoengana kexa eragindako arazoa planteatzeko eta "*gaur egun EAEan zenbat itzal-zona dauden eta zenbat biztanleri eragiten dieten*" erantzun zezatela eskatzeko.

Euskalnetek Arartekoari bidali zion bigarren idatzian herrialdearen orografia konplexuak eragiten dituen arazoak aipatzen zituen, eta kasu zehatz honetan Zeanuriko igorgailuaren inguruetan dauden pinuek eragindakoak gehitzen zirela zioen. Arrazoi horregatik, igorketa dorreari 10 metro gehiagoko luzera emana zioten, baina ondorio handirik gabe.

Euskalnetek azkenik zioenez, jaso berria zuten Undurraga-Goikoa eta Alzuste auzoetara uhin igorketak hobetzeko aukera emango zuen proiektu-teknikoa, eta beraz 1996an behin betirako konponbide teknikoa eskaintzea espero zuten.

Arazoarentzako konponbidea martxan zegoela ikusirik, Arartekoak amaitu egin zuen bere iharduera.

Erabilera berezirako garraio erregularrarekin arazoak (95/96)

Erabilera berezirako garraio erregularraren arauketak gaur egun erabilera orokorreko erregularrarekin konparatuaz daukan egitura dela-eta, konponbide zaila daukaten zenbait arazo planteatzen ari dira.

Erabilera orokorreko garraiobide baten ustiaketak daukan babes interesaren ondoan ikasleen arazoarekin topatzen gara. Ikasle horietako gehienak unibertsitarioak dira, EHUren egungo antolaketan egunero Erkidegoko hiru hiriburuen artean batetik bestera mugitzen direlarik.

Horrela, erabilera berezirako garraioaz baliatzen ziren ikasle batzuek kexa aurkeztu zuten egunero bidaiatzeko erabiltzen zuten enpresari baimena kendu zitzaiolako. Baimena kentzeko arrazoia talde homogeneo bati zerbitzua emateko baldintza bete ez izatea izan zen.

Arrazoi hori lurreko garraio arautzen duen araudiaren arabera, ez zen ikusi Aldundiko Garraio eta Errepide Sailak arbitrarioki jokatu zuenik.

Ondorio hori, ordea, herren gera zitekeen auzia piztu zuen arazoarentzako konponbidea bilatzeko aurrerapausorik ematen ez bazen. Helburu horrekin Garraio eta Errepide Saileko ordezkariekin bildu ziren Ararteko erakundekoak.

Azkenik, Garraio Zuzendaritzak jakinarazi zuen hitzartutako erabilera berezirako garraiobidea ikasturte amaiera arte erabiltzen jarrai bazezaketen ere, hurrengo ikasturterako egoera argitzeko irizpideak jarriko zirela. Horrenbestez, Arartekoak kexari zegokion iharduera amaitu egin zuen.

(1391/96 espedientea)

Kexa espediente honen motiboa zuzenean loturik egon da unibertsitateko ikasle talde batek aukeratutako garraio enpresa bati erabilera berezia baimentzeari emandako ukoarekin. Kexa aurkeztu zen unean, interesatuek bi baimen eskatuak zituzten: bata ateralekua Eibarren zuena eta bestea Azkoitian, biak Donostiara joateko.

Kexaren gai nagusia 1211/1990 Erret Dekretuan jasotako agindu batzuen aplikazioaren inguruan dagoen desadostasuna da, bere 108. artikuluari dagokionez batik bat, hau da, eskaturiko erabilera bereziaren gainean linea erregularrak daukan lehentasun eskubidearen baldintzei dagokienez.

Unibertsitateko ikasleen garraioaren inguruko aurrekariak ezagututa, Arartekoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garraio eta Errepide Sailari arazo honi buruzko zenbait arrazoibide helarazi nahi izan zizkion.

Ararteko erakundearen aburuz, lehentasun eskubidea onartzeko baldintzak betetzeko esijentziak zorrotza eta estua izan behar du, ondoko arrazoiongatik:

a) *Jarraibide nagusia erabiltzaileek edo beren ordezkariek aukeratutako enpresaren erabilera berezia baimentzea da.* Lehentasun eskubidea salbuespena da, eta horrela azalduta dago 1211/1990 Erret Dekretuaren motibo adierazpenean bertan.

b) *Linea erregularrari lehentasuna onartzea.* Eskubide horrek zentzua izango badu, derrigorrez erabilera berezi horrek kaltea eragin behar die linea erregularra emateko baldintzei. Horregatik, horrelakorik gertatzen ez bada, zertzelada horrek erabilera bereziaren aldeko jarraibide nagusiaren salbuespenaren erabilera modulatu beharko luke.

c) *108.3 artikuluan jasotako bermea.* Izan ere, eskatutako erabilera bereziaren aldeko jarraibide nagusiaren salbuespena denez gero, hirugarren puntu honetan interes publikoari dagozkion arrazoiengatik lehentasun eskubidea ez onartzeko aukera ematen da, eskubide horretaz baliatzeko moduko baldintzak daudenean.

Kasu hau aztertu dugunean, goian emandako arrazoibideak aintzat hartuz, kontuan eduki ditugu orobat egoera honek dauzkan aurrekari batzuk. Urte hasieran aurkeztu zen kexa (Aixola esped.) desberdina izan arren, hain zuzen ere langile batzuk zirelako ikasleentzako erabilera bereziaz baliatzen zirenak, azpiko arazoa antzekoa zen.

Arazo honek EHUren egungo antolakeran dauka azalpena, baina ikuspegi orokorrago batez aztertu behar da, kexa eragin duen auzi konkretuaren irakurketa isolaturik ez egiteko.

Ikasleengan eragina daukan ikuspegi orokor horretatik begiraturik, Ararteko erakundeak uste du ikasle garraio masiboaren errealitate hori zuzendu behar dela eta, beraz, babestu beharra dagoela.

Azpimarratuta utzi nahi dugu, halaber, erabiltzaileen hautapena emakidaren baldintzen aurrean izandako erreakzioa izan zela, eta haren hobekuntza, orain nabaria dena, “Aldalur SL” enpresak erabilera berezia lortzeko eskaria aurkeztu zuenetik bakarrik gertatu zela.

Hala ere, Garraio eta Errepide Sailak ez zituen ontzat hartu gogoeta guztiok, ikasleek hautaturiko enpresari baimen berezia baimentzearen aldekoak.

Eusko Treneko tarifa murrizturako pasea bideratzeko lehiatila arabarrentzat (591/96)

Garraio eta Herri-Lanetarako Sailburuaren 1996ko martxoaren 6ko Aginduaren bidez, bere garaian Eusko Kontseilu Nagusiak ustiatzen zituen garraiobideetan zenbait kolektiborentzat doantasuna ezartzen zuen araudia bertan behera geratu zen, eta gaur egun zerbitzu horiek ustiatzen dituen elkarte publikoari (Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos S.A.) ematen zitzaion zenbait kolektiborentzat tarifa bereziak ezartzeko ahalmena.

Zentzu horretan, Eusko Trenek -elkarte horren izen komertziala hori baita- 65 urtetik gorako pertsonentzat eta %65 baino elbarritasun gradu handiagoa zeukatenentzat traiektuaren arabera 30 eta 60 pezetako tarifa murriztua ezarri zuen. Tarifa berezi hori lortzeko, txartel edo tarifa murriztuko pasea sortu zuen, eta hori emateko baldintzak 1996ko apirilaren 29ko konpainiaren Zuzendaritza Nagusiaren 6/96 Zirkularraren bidez arautu zituen.

Zirkular horren arabera, pasea Gipuzkoako eta Bizkaiko Eusko Trenen bulegoetan eskatu behar da, elkarteak bi lurralde horietan bakarrik ematen duelako zerbitzua.

Arabar batek Ararteko arengana jo zuen pase hori eskatu nahi zuela baina non egin behar zuen ez zekiela adieraziaz, izan ere Bilbokoan ez baitzitzaion onartu bizkaitarra ez zelako, eta ezta Donostiakoan ere gipuzkoarra ez zelako. Eta Araban konpainiak ez zeukan bulegorik.

Erakunde honen ustez, Eusko Tren Konpainiak bulego edo zerbitzurik ez daukan autonomia erkidego honetako lurralde batean bizitzeak ez luke oztopo izan behar erkidegoko biztanleek enpresa horrek ezarritako onurak eskuratzeko. Horregatik, enpresarekin gestioak egin ziren, eta onartu zitzaigun arabarrek Bilboko nahiz Donostiako bulegoetan aurkez zezaketela eskaria, eta hori pertsonalki edo posta bidez egin zezaketen, pasea ere bide beretik bidaliko zitzaielarik.

Informazio hori erreklamatzaileari bidali ondoren espedientea itxi egin zen, arazoa konponduta zegoelako.

Belauntzako Udalak uko egiten zion udalarekin zorrak zeuzkaten biztanleei zerbitzuak emateari (867/96)

Belauntzako (Gipuzkoa) biztanle batzuek Ararteko arengana jo zuten 1995eko irailaren 18an Belauntzako Udalak hartutako erabaki bat salatzeko. Erabaki horren arabera, aurrerantzean, Udalarekin ordaindu gabeko zor fiskalak zeuzkatenei udal Idazkaritzak ukatu egingo zizkien horrek parte hartzen zuen udal zerbitzuak ematea.

Udal akordioaren kopia eskatu ondoren, Ararteko ikusi zuen egia zela biztanleek salatutakoa. Horregatik berehala gomendio bat egin zitzaion, erabakia bertan behera utzi zedin. Ararteko zioen Herri Ogasunen Legeak eta Bilketarako

Arautegiak ahalmen bereziak ematen zizkietela udalei zergak biltzeko, eta behartze bidera ere jo zitekeela. Partikularrei zergak ordaintzeko, legean jasota ez zegoen indarrezko beste edozein bitartekok ez zeukan inongo lege babesik, kasu honetan gertatzen zen bezala, Administrazioa legezkotasun printzipiora lotuta dagoelako.

Arartekoaren gomendioari ez zitzaion erantzun, zentzu horretan ondoren ere idatzi bat baino gehiago bidali zen arren.

3.11. **OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA**

3.11.1. **SARRERA**

Alor honetan 142 kexa aurkeztu dira, guztien artetik %10,8 beraz. Alor hau osatzen duten azpialorren arabera banaketa hau daukagu:

- Gizarte Ongizatea 83
- Osasuna 59

Kexa horiek zein administraziori zuzendu zaizkion kontuan hartuta banaketa hau daukagu:

- Eusko Jaurlaritza 68
- Foru aldundiak 57
- Udalak 26

Atal hau ez da ulertu behar Administrazioak osasun edo gizarte ongizatearen alorretan daukan funtzionamenduaren errealitate global gisa, baizik urte honetan jaso diren kexen artetik azpimarragarrienak iruditu zaizkigunen islada baino ez da.

Osasunaren azpialorraren barruan kexa batzuek laguntza sanitarioen aurrean hiritarren berdintasun printzipioa bete dadin zaintzeko premia iradokitzen dute. Ikusi dugunaren arabera, laguntza sanitario jakin bat emateko orduan erabiltzen diren irizpideak ez dira berdinak zona guztietan.

Sarritan gertatzen ez den arren, sistema publikoan atenditu ezin zutelako sare pribatura bidali zuten pertsona baten kasua aipatu bahi dugu. Beti gertatzen ez bada ere, kasu honetan pertsona horrek berak ordaindu behar zion aldez aurretik tratatuko zuen klinika pribatuari. Lurralde-arduradunen eta Ararteko erakundearen arteko lankidetzari esker arazo horiek gainditu egin dira, eta horien azpian egon den arrazoi bakarra burokrazia izan da, ordainketa horiek ezarrita dauden prozeduretan sartzeko zailtasunak zeudelako.

Gizarte ongizatearen azpialorrean gizartean zokoratuta eta baztertuta dauden kolektiboei laguntzeko zerbitzu eskaria azpimarratu behar da, esate baterako gure gizartean drogamenpetokasunak sortzen duen fenomenoak eragiten duen

bazterkeriak asko kaltetu dituen IHES gaixotasuna daukatenei edo elbarri psikikoei laguntzeko zerbitzuena.

Erabiltzaileek ordaindu beharreko zenbait prezio publikorekin edo dauzkaten ondasunek etorkizunean ordaindu beharrekoarekin lotutako kexak ere aipatu behar dira. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak zein diren erabakitzerakoan irizpide okerrak erabili direla ere ikusi da, betebehar hori esiji daitekeen ahaidetasun harremanik eduki gabe adineko pertsona behartsu bati babesa ematen zion pertsona bati betebehar hori ezarri nahi izan zaiolako.

Gizarte zerbitzuen alorrean sartzen diren neurrien hartzaileen gaitasun ekonomikoari asko eragiten dion beste gai bat familia ugariei indarrean dauden legeek aitortzen dieten onurei dagokie. 1996. urtean ikastetxe batzuetan matrikulan eta beste zenbait eskubide akademikotan zegozkien murriztapenak egin nahi izan ez zaizkielako aurkeztu diren kexa askotxo bideratu dira. Hori izan da Deustuko Unibertsitatearen kasua, familia ugari izaera hiru seme-alabez osatutako familiei hedatu zaiela-eta, aginte publikoek inolako konpentsazio ekonomikorik ez diela eman esanaz 1995-1996 ikasturtean murriztapen horiek egitera ukatu zelako.

3.11.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

3.11.2.1. **OSASUNA**

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailaren laguntasunik eza (674/94)

Iazko txostenean, lankidetza zeukan beste administrazio batean eskaria aurkeztu izanagatik laguntza atzera bota izandakoaren kasua jaso zen.

Hiritarrek edozein administrazio-gai bideratzeko lehiatila bakarra ezartzen ari den aroan sartzen ari gara.

Baina kasu honetan, hiritarrak udaletxe bateko oinarrizko zerbitzuan epe barruan laguntza eskari bat aurkeztu eta ikusi zuen ez zitzaiola onartu epez kanpo Aldundira iritsi zelako.

Interesatuaren kexaren oinarrian zeuden arrazoiak idatzi bat baino gehiagotan azpimarratu ditu Arartekoak. Gizarte Ongizate Sailak, gure argudioak baloratu ere egin gabe, interpretazio hertsiei heldu zien, baina bat bera ere ez zen lotzen guk planteatzen genituen funtsezko aspektuekin eta 1995. urteko txostenean jaso zirenekin.

Kasuaren izaerak emakume baten defentsarik eza garbi erakusten zuen, eta horregatik behin eta berriz eskatu dugu gure balorazioei ez erantzuteko zeuden arrazoiak ezagutzea.

Tamalez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak oztopoak ipini dizkigu, Administrazioaren gehiegikeriak kontrolatzeko gure lana oztopatuz.

Gizarte Ongizaterako Foru Diputatu andreak ez zuen jarrera aldatu gaia pertsonalki planteatu zitzaion arren.

Irregulartasunak pediatriako kontsulta batean (672/95)

Erakunde honetan jasotako kexa batean guraso batzuek ondorengo arazoa planteatzen zuten: 9 urteko beraien alabari eskoliosi aurreratu bat aurkitu zioten, tratamendu zorrotz eta luze bat ezartzea eskatzen zuena.

Arazoa lehenago aurkitu izan balitzaio, hain aurreratua ez zegoenean alegia, tratamendua arinagoa izango zen, hori zen arazoa.

Familiak urtebete inguru zeraman osasun sistema publikoan sartuta. Azken 14 hilabeteetan beraien alabak lau aldiz joan ziren pediatraren kontsultara arazo puntualengatik, baina ez zieten errebisio orokorrik egin, Osakidetzak urtero egin ohi duen bezala. Bestalde, kontsultan alabetako bati ere ez zioten historia klinikorik ireki eta, azkenik, gurasoak kexu ziren kontsultan zegoen sendagilea medikuntza orokorrekoa zelako, ez pediatrian espezializatua.

Erakunde honek zenbait gestio egin zituen Osakidetzan, eta jakin zuenez sendagile hori behin-behingoz zegoen pediatriako kontsultan, bertako titularra ordezkatzen. Osakidetzak adierazi zuen, baita ere, sendagile horrek pediatriako titulaziorik ez edukitzea postua betetzeko unean ordezkapenak egiteko dauzkatenen artean pediatrian espezializatutako sendagilerik ez zegoelako gertatu zela. Horregatik, eta kontsultak lanean jarrai zezan medikuntza orokorreko sendagile bat kontratatu zen.

Neskatilen historia klinikoari dagokionez, frogatuta geratu zen aipatutako epean ez zitzaiela ireki, eta horregatik neskatilak denbora horretan izan zituen osasun arazoen berririk inon ez zen agertzen. Eta historia klinikorik ez zegoenez gero, ezin zen jakin gurasoek zioten bezala neskatilei azterketa orokorrik egin ez zitzaienik, eta zehazki gero eskoliosia aurkitu ziotenari egin ez zitzaionik. Historia klinikorik ez zegoenez, ezin zen beraz objetiboki baloratu neskatilaren eskoliosiak eskatzen zuen tratamenduaren ezarpenean horrek eduki zezakeen eragina. Arazo guzti horiengatik ezin zen ikerketan aurrera egin.

Historia klinikoari buruz ikusi zen irregulartasunagatik Arartekoak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari idatzi bat bidali zion arazo hori eragin zuten arazoak zuzen zitzala gomendatuaz, etorkizunean horrelakorik gerta ez dadin.

Osakidetzak erantzun-idazkian aurreko gomendioa bere egiten zuela adierazi zuen.

Ospitale baten berrantolaketagatik aurkeztutako kexa bat (982/95)

Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean berrantolaketa bat egin zelako zentroko Pertsonal Batzordeak Arartekoaren partaidetza eskatu zuen.

Antolamendu juridikoaren ikuspegitik zaila da autoantolaketa ahalmenei dagozkien administrazio iharduerak auzitan jartzea. Printzipio horrekin batera, ordea, administrazio iharduerek legezkoak izateaz gain, eraginkorrak ere izan

behar dute. Horregatik, arrazoizkoa da tarteka antolamendu aldaketaren baten bidetik jasotzen ditugun kexak Administrazioari igortzea.

Arrazoi horretaz gain, zenbait seinaleren arabera pentsa zitekeen zenbait antolamendu aspektuk erabiltzaileak kaltetu zitzaketela.

Beraz, kexa aztertu ondoren ospitaleko gerenteari igorri genion bertan planteatzen ziren arrazoiei buruz zeukan iritzia ezagutzeko.

Antolamendu aspektu materialak zirela kontuan izanik, kasu honetan ospitalea bisitatzea eta geneuzkan informazioak osatzea ere bidezkoa ikusi zen.

Iharduera horiei esker kexak zenbait aspektutan arrazoia bazeukala ikusi zen. Gure iritzia bi alderdiei jakinarazi ondoren, eta kexa aurkeztu zen unean zeuden planteamenduak aldatu egin zirela ikusirik, Arartekoak eten egin zuen bere iharduera.

Toxikomanoen errehabilitaziorako zentro bateko barne arauak bete beharra (1094/95)

Neska gazte batek bere kexa azaldu zuen Ararteko erakundean Osakidetzaren Arabako Foronda herriko Toxikomanoentzako Egonaldi Ertainerako Zentro Terapeutikotik bota egin zutelako.

Gazte horri Santiago ospitalean desintoxikazio sendaketa egin zitzaion. Ondoren aipatutako zentro terapeutikoan sartu zen desohitzeko tratamenduarekin jarraitzearren. Programa horrek, bere esanean, zortzi bat hilabete iraungo zituen. Zentroko arauak eta horiek ez betetzeagatik zegozkion zigorrak azaldu zizkioten.

Bi hilabete igaro ondoren zentrotik bota egin zuten. Neskak zioenez, kanporaketarekin zigortzen zen arau hausketa bat ere ez zuen egin. Neurri horrek programa utzi beharraz gain, aldiro osasun zentro batean egiten zizkioten kontrolik gabe geratzea ere esan nahi zuen. Egoera berri horren aurrean, neska aurrera egindako bidean berriro atzera egiteko beldur zen.

Gaia Osakidetzari planteatu ondoren jakinarazi zitzaigun neskak behin baino gehiagotan hautsi zuela zentroko barne araudia. Araudi horrek zehatz-mehatz jasotzen ditu kanporaketa ekar dezaketen hausteak, horietako bat araudia ez errespetatzea delarik.

Bidali zitzaigun txostenean esaten zitzaigunez, zentroko arduradunek askotan hitz egin zuten neskarekin bere arau hausteei eta programaren jarraipen-dinamikan eragiten zituen arazoei buruz. Zentroko arduradunek, bestalde, neskarekin eta beste pazienteekin alordioak ere hitzartu zituzten, interesatuak bere zenbait jarrera eta bere kideekiko harremanetarako formak alda zitzan, jarrera aldatzen ez bazuen har zitekeen neurriaren berri eman zitzaiolarik.

Halere, txostenean esaten zenez, behin eta berriz arauak hausten jarraitu zuen. Horregatik, zentroko lan taldeak bilera batean neska programatik kanpo uztea erabi zuen, horrek zentro terapeutikoa utzi beharra zekarrelarik.

Horrek ez zuen esan nahi, ordea, barne arauak onartu ondoren berriz sartu ezin zenik. Hain zuzen Osakidetzak Arartekoari jakinarazi zion neska berriro hasi zela Tratamendu Toxikologikorako Zentroan tratamendu anbulatorioa hartzen,

eta sustantzia toxikoen abstinentzia lortu bezain pronto aurreko Komunitate Terapeutikoan sartuko zela.

Horrela, kexaren helburua lortuta zegoelakoan Arartekoak interesatuari jakinarazi zion bere iharduera bertan behera utzi zuela.

Laguntza medikua sare pribatuan jaso zuen, publikoan itxaron-zerrenda luzea zegoelako (284/96)

Hiritar batek Arartekoari planteatu zionez, Osakidetzari gastu medikuak ordaintzeko eskatu eta erakunde horrek ezezkoa eman zion. Interesatuak osasun zentro pribatu batean jaso zuen laguntza medikua, publiko batean sartzeko itxaron-zerrenda luzea zegoelako, eta horregatik egin zuen gero gastuak ordaintzeko eskaria.

Erreklamatzailea belaunean kolpe bat hartu ondoren anbulatorio batera joan zen. Bertan erresonantzia magnetiko nuklear bat egin zioten diagnosia erabakitzeko, eta ondoren ebakuntza bat egin beharra zegoela adierazi zioten. Horretarako, Osakidetzako Ospitale baterako eguna jarri zitzaion handik 18 hilabeterako.

Pazienteak mina zeukan eta belaunak eguneroko bizitzako ekintzak normal burutzea eragozten zion; horregatik, behin eta berriz jo zuen osasun publikoaren sistemako zentro ezberdinetara (horien artean, Pazientearen Laguntzarako Zerbitzura) ebakuntza aurre ziezaiotela eskatzera, baina erantzuna beti ezezkoa izan zen, traumatologiako ebakuntzetarako itxaron-zerrenda luzea zegoelako.

Hori ikusirik, interesatuak osasun sare pribatuko sendagile espezialista bati kontsulta egin eta horrek esan zion bere belaunari ebakuntza lehen bait lehen egitea komeni zela, bestela zegoen bezala jarraitzen bazuen okerrago jarriko zitzaiolako.

Interesatuak gestio horren berri Osakidetzako zerbitzuei eman zien, baina ebakuntzarako eguna ez zioten aldatu. Horregatik, ebakuntza zentro pribatuan egitea erabaki zuen. Ondoren, sistema publikora itzuli zen errehabilitazio saioak egitera.

Geroago, gastuak itzultzeko eskaria egin zion Osakidetzari, eta esan den bezala horrek onartu ez eta interesatuak Arartekora jo zuen.

Arartekoak gaiari buruzko aditu-txosten bat eskatu zuen espedientea behar bezala bideratzen laguntzeko proba objetibo bat edukitzearren; txostenak pazienteak zeukan zauriaren aurrean Osakidetzak ezarritako atzerapena egokia izan zen baloratu behar zuen. Sendagile-txosten horretan, zauria eta zegoen diagnosia ikusirik, belaunak zeukan galera funtzionala %50ekoa zela esaten zen, eta horregatik ebakuntza lehen bait lehen egitea komeni zela.

Erreklamatzailearen jarrerarekin bat zetorren txostenarekin Arartekoak arazoa Osakidetzari planteatu zion kasu zehatzari buruzko beste zenbait arrazoibiderekin batera, emandako ebazpena alda bazitekeen kontuan hartzeko.

Osasun zerbitzu publikoaren mugen arazoa (460/96)

Pertsona batek erakunde honetara jo zuen bere semeari jarri behar zitzaion meningitisaren kontrako txertoaren gastuak Osakidetzak ez zituela ordaintzen eta gastu horiek gurasoek ordaindu behar zituztela adieraziaz. Erreklamatzaileak zioenez, ordea, egun batzuk geroago jaiotako umeei bai jartzen zien txertoa aipatutako zerbitzu publikoak.

Kexa arrazoizkoa zen jakiteko, erakunde honek indarrean zegoen Osakidetzaren haurrak txertatzeko egutegia kontsultatu zuen, hori baita Euskadiko Txertoen Aholkularitza Batzordeak gomendatzen duena. Egutegi horrek haurren lehen hilabetetik 13 urte arteko adina hartzen du eta autonomia erkidego honetako haur guztiak sartzen dira bertan.

Ikusi zenez gero, meningitisaren kontrako txertoa ez zegoen bertan. Aipatu Batzordeak, ordea, gaixotasun horrek Euskal Autonomia Erkidegoan zeukan eraginari buruzko datuak aztertu ondoren, txertoa haurrak txertatzeko egutegian sartzea komeni zela ikusi zuen, eta hori gomendatu zion Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.

Sail honek, aurreko gomendioa onartu eta txertoa 1996ko urtarrilaren 1etik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako ume guztientzat zegoen egutegian sartzea erabaki zuen.

Erreklamatzailearen semea 1995eko abenduaren 29an jaio zen, neurria orokortzeko jarrita zegoen eguna baino egun batzuk lehenago, eta horregatik kanpoan geratzen zen.

Mugen ezarketa-arazo bat zegoen hor, eta lan hori ez da beti erraza, baina bai beharrezkoa hiritarrei tratamendu ekitatibo bat bermatzeko orduan elementu objetiboak edukitzeko.

Etxebizitza batean mediku laguntza larria emateko behar izan zen denbora (486/96)

Pertsona batek bere kexa azaldu zuen Arartekoan larrialdietarako osasun ekipo batek deia jaso eta bere etxera joateko behar izan zuen denboragatik. Erreklamatzaileak zioenez, zerbitzu hori 088 telefonoaren bidez eskatu zuen gauez, eta sendagileak 45 minutu behar izan zituen iristeko, denbora gehiegi interesatuaren ustez.

Arartekoak Osakidetzari eskatu zion kasuari buruzko informazioa, eta erakunde horrek dei horren bidetik burututako iharduerei buruzko txosten bat igorri zuen.

Txosten horretan esaten zenez, telefono deia goizaldeko ordubiak eta hogeita bi minututan jaso zen Larrialdien Koordinaziorako Zentroan (088), eta orduaren datua programan txertatuta geratzen omen da iharduera hasten denean eta ezin omen da aldatu. Eta txostenak jarraitzen zuen esanaz 2:25ean arazoaren berri sendagile koordinatzaileari eman zitzaiola, zeinak kasuaren lehen balorazioa egin ondoren -eta ez zuen erabateko larritasunezkotzat jo- eskaria egin zuenaren etxera mediku bat bidaltzea erabaki baitzuen. Handik minutu batera, 2:26an

hara joan behar zuen sendagilearekin harremanetan jarri eta deiari buruzko datuak eman zitzaizkion. Goizaldeko 2:40an sendagile hori eskaria egindako etxebizitzan zegoen, bertan 3:00ak arte egon zelarik. Azkenik, 3:12etan sendagileak koordinazio zentroari eman zion egindako lanaren berri iharduera ixteko.

Aurrekoaren arabera, 18 minutu igaro ziren larrialdietarako koordinazio zentroak zerbitzua eskatzen zuenaren deia jaso zuenetik honen etxera sendagilea iritsi zen arte, kasuaren larritasunari buruzko lehen balorazioa ordurako eginda zegoelarik. Bestalde, sendagileak gertatzen zenaren berri izan ondoren 14 minutu behar izan zituen iristeko.

Ez dirudi denbora hori gehiegizkoa denik ekipoa mobilizatzeko eta ez dator bat erreklamatzaileak adierazitakoarekin. Erabilitako prozedurari dagokionez, egokia dirudi, izan ere deia jaso eta handik 3 minutura sendagile batek kasuaren lehen balorazioa egin zuelako, eta datu hori garrantzitsua da.

Datu hauek interesatuarekin aztertu eta gaizkiulertze bat izan zena argitu ahal izan zen, ondoren espedientea artxibatu egin zelarik.

Jaioaurreko diagnosi-proba jakin bat egiteko Osakidetzak erabilitako irizpidea (851/96)

Emakume batek Arartekoari planteatu zionez, Osakidetzak lurraldeen arabera irizpide ezberdinak erabiltzen zituen emakume haurdunei jaioaurreko diagnosi-proba jakin bat egitea erabakitzerakoan.

Erreklamatzaileak zioen Gipuzkoan amniozentesi proba haurdunak 35 urte beteta zeuzkanean bakarrik egiten zela, eta Araban berriz, horretarako adina 38 urtetan zegoela.

Horregatik, aipatu proba egin nahi zuen emakume arabar honek, 37 urte izanik, bere poltsikotik ordaindu behar izan zuen, Osakidetzako zerbitzuek 38 urte bete gabe zeuzkanez haurdunei ematen zaizkien zerbitzuen barruan amniozentesia sartu gabe zegoelako.

Interesatuak ez zuen guztiei ezartzen zitzaien aurreko irizpide hori auzitan jarri eta proba ordaindu egin zuen. Aurrerago, pertsona ezagun baten bidez jakin zuen Gipuzkoan Osakidetzak amniozentesiaren proba egiteko muga 35 urtetan jarrita zeukala. Bi kasuetan, adinaren faktorea erabakiorra izan zen proba egiteko.

Irizpide ezberdintasun horregatik kaltetua sentitu ondoren, interesatuak aipatutako proba burutzeko egindako gastua itzul ziezaiola eskatu zion Osakidetzari, baina eskaria ez zioten onartu, ezta aurreko erreklamazioa aurkeztu ondoren ere. Horregatik jo zuen erakunde honetara.

Arartekoak aurrekoari buruzko informazioa eskatu zion Osakidetzari, osasun publikoak bere iharduerarako esparru geografiko osoan irizpide berdinak erabili behar dituela irizten zelako.

Osakidetzak onartu zuen irizpide iraunkorrik ez zegoela eta horrek desberdintasun arazoak sor zitzakeela, horregatik Osakidetzaren zentro guztietarako irizpideak batzeko lanean ari zirela jakinarazi zigun.

3.11.2.2. **GIZARTE ONGIZATEA**

Familia ugari izaera bi seme-alabez osaturikoari aitortzeaz (1025/95)

Familia ugarien babesari buruzko 25/1971 Legea aldatzen zuen abenduaren 30eko 42/1994 Legearen 4. xedapen gehigarria indarren sartu ondoren, familia ugari izaerarekin lotutako zenbait kexa-idazki jaso ziren erakunde honetan.

Lehendik indarrean zegoen legearen arabera, lau edo seme-alaba gehiago eduki eta gainerantzeko baldintzak betetzen zituzten familiak jotzen ziren ugaritzat, eta horrekin parekatzen ziren hiru seme-alabez osatuta egon arren horietako bat elbarria zen kasua.

Erreklamatzaileek 1994ko Legean sartu zen aldaketaren ondoren, analogiaz, bi seme-alabez osatutako familiak ugaritzat jotzea eskatzen zuten horietako bat elbarria, familia burua alarguna edo antzeko kasuak gertatzen zirenean.

Emandako lehen pausoa hau izan zen: autonomia erkidego honetan familia ugariak aitortzeko ahalmena daukaten administrazioei informazioa eskatu zitzaien, foru aldundietako Gizarte Ongizate sailetara jo zen, beraz.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Diputatuak idazki bidez jakinarazi zigunaren arabera, Legearen aldaketa-proiektuak familia ugari kontzeptuaren barruan espreski jasotzen zuen pertsona multzo hori.

Alabaina, azkenean aukera hori jaso ez zenez gero, pentsatzekoa da nahita utzi zela kanpoan pertsona horien kasua, ezin zen beharrezko ezarpena jasotako kasuetatik haruntzago hedatu.

Horregatik, ezin zen esan Diputazioaren ihardueran berez lege hausterik zegoenik, baina bai ikusi zen komenigarria beharrezko pausoei ekitea Ministerio eskudunak egoera argitu zezan.

Horrela, hasieran aipatutako kasuak automatikoki babesteko 42/1994 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren interpretazioa hedatzeko aukera baztertu ondoren, erakunde honek epe motzera bi helburu lortu nahi ditu.

Alde batetik, ustezko diskriminazioa sortzen duen araua Erkidegoko eskuduntza esparrutik kanpoko denean erabiltzen den irizpideari jarraituz, arazo hau Herri Defendatzaileari igorri zitzaion, aztertu eta ondoren erakunde eskudunen aurrean iharduerak burutu zitzan.

Bestetik, eta aldi berean, Euskadiko Autonomi Estatutuak 10.12 artikuluan dioena aintzat hartuaz, autonomia erkidego honek gizarte laguntzari buruzko eskuduntza osoak dauzkanez gero, Eusko Legebiltzarrari familia ugariei buruzko Lege bat onar dezala gomendatzeko egokitasuna aztertzen ari gara.

3.11.3. **OFIZIOZKO IHARDUERAK**

Arabako Lurralde Historikoan laguntza psikogeriatrikoa emateko hitzarmenaren garapena (11/96OI)

Gaixo psikiatrikoen egoerari buruzko 1991ko txosten berezian aztertu zen gaietako bat laguntza psikogeriatrikoa izan zen.

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak hitzarmen bat sinatu zuten 1993an, arazo sanitario eta sozial hauek konpontzeko behar den lankidetza bilatzeko.

Hitzarmen horretan besteak beste esaten zenez, Arabako Ospitale Psikiatrikoaren konponketa aprobetxatuaz ohe kopuru bat jarriko zen baliabide psikogeriatriko falta zuzentzeko.

Puntu horren garapena zertan zegoen jakin nahirik txosten bat eskatu zitzaion Osasun Sailari. Osasun Sailburuak emandako erantzunean Arabako Ospitale Psikiatrikoan gai honi buruz kontuan hartu ziren prebisioei buruzko datu batzuk eskaintzen ziren.

Txostena idatzi zen unean erabil zitezkeen baliabide psikogeriatrikoek guztira 116 ohe zeuzkaten, oro har dagoen eskariari erantzuteko nahikoa, alegia.

Pazienteen zahartzearen ondorioz etorkizunerako premiak ere kontuan hartu eta horretarako 38 ohez osatutako erreserba-unitate bat bazegoela ere esaten zen.

Unitate horretarako langilerik ez zegoen, momentuz funtzionamenduan jartzeko premiarik ikusten ez zelako. Horri zegokionez esaten zen, baita ere, Eusko Legebiltzarrak azken aurrekontuetan langile-plantilak izoztea erabaki zuela.

Gaixo psikiatrikoen lekualdaketa (11/96OI)

Erakunde honek 1992an gaixo psikiatrikoen egoerari buruz egin zuen txosten monografikoan lekualdaketa psikiatrikoak egiteko bete behar diren baldintzak aipatzen ziren.

Zentro batzuetan onartutako protokoloen bidez hain zuzen lekualdaketa horiek ahalik eta bermerik handienekin egitea lortu nahi da, besteak beste gaixoei osasun alorreko zeinek lagundu behar dien iragarriaz.

Arartekoak bere txostenetan aztertutako gaiei buruz egiten duen jarraipenaren barruan Osakidetzari gai honi buruzko txostena eskatu zion. Horrela ospitale zentroetako lekualdaketetarako behar bezala protokoloetan jasota dagoen prozedura aztertu ahal izan genuen.

Txostenean esaten zen bezala, protokoloak lan tresna dinamiko bezala hartu behar dira, gaiari buruz eskuratzen diren ezagutza berrien eta lortzen den esperientziaren arabera etengabe aldatu eta berritu behar direlako. Bestalde, txostenean esaten zenez, lekualdaketarako protokoloak tresna baliagarriak diren arren ez dira behin betikoak eta ezta perfektoak ere, eta sendagilea ez dute bere irizpide eta arduraren gainetik kasu guztietan horiek erabiltzera behartzen.

Gaixoen lekualdaketan eragina daukaten, eta beraz protokoloan jaso behar diren baldintzak hauek dira: euskarri farmakologikoa, botiken ondorio txarrak eta jarrera aldaketak.

Protokoloaren helburuen artean, lekualdaketa egin behar duten arduradun eta pertsonalaren definizioa ere sartzen da. Ia kasu guztietan laguntzaile sanitarioekin egin izan dira, lekualdaketaz arduratzen den sendagileak hala erabaki duelako. Senitartekoek egindako lekualdaketa batzuen kasuak ere badaude.

3.12. **LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA**

3.12.1. **SARRERA**

Alor honetan 1996an 4kexa jaso dira, guztien artetik %0,3raz. Azpialorren arabera, hau izan da banaketa:

- Lana 4

Jaso diren kexa guztiak langileen modu guztietako kontrataziorako laguntzak bideratzean eta ematean gertatutako arazoei dagozkie: ikas-ekinezko heziketa, iraupen luzeko langabetuak, etabar.

Edonola, planteatutako gaiek prozedurazko aspektuekin zeukaten zerikusia, hau da, eskariak aurkezteko epearekin, egiaztatu beharreko eskakizunekin, etabar.

Esate baterako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo Sailak onartu zuen gomendioetako batek etengabeko prestakuntzarako ikastaroei begira argitaratzen ziren liburuxken informazioa zabaltzea iradokitzen zuen.

ELA-STV sindikatuaren eskariz bideratu zen beste kexa espediente batean Gipuzkoako Foru Aldundian Segurtasun eta Osasun Batzordea osatu ez izana salatzen zen.

Beste urte batzuetan bezala, jaso diren zenbait kexa, azaltzen zutenagatik alor honetan sartu beharrekoak baziren ere, Arartekoaren eskuduntza esparrutik kanpoko administrazioei eragiten zienez gero, Herri Defendatzaileari igorri zaizkio.

Sarrera honetan, bereziki **emakumeen** kolektiboari eragiten dion pentsioen esparruko arazo bat aipatu behar da: ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteetan alarguntsa pentsio eskubidea emakumeei ez aitortzea, alegia.

Konstituzio Auzitegiak gai honi buruz daukan jarrera eta ezkondu ez denari alarguntasun pentsioa ukatzeak berdintasun printzipioa ez duela hausten dioten ebazpen ugariak Arartekoak ezagutzen zituen arren, erreklamazioa Herri Defendatzailearen azterketapean jartzeak merezi zuela iritzi zuen.

3.12.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

3.12.2.1. **LANA**

Langileak kontratatzeagatik laguntza eskari bat ukatu izanarekiko desadostasuna (441/96)

Autonomia erkidego honetako enpresario txiki batek kexa aurkeztu zuen erakunde honetan, araua zorrozkiegi ezarri zitzaiola uste zuelako.

Kaltetuak zioenez, besteren konturako bere lehen langilea 18 hilabete jarraiturako kontratatu zuen arren, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan

eta Gizarte Segurantzako Sailaren 327/1995 Dekretuan iragarritako diru-laguntza eskaria atzera bota zitzaion. Interesatuak aitortu zuenez, laguntza eskaria aurkeztu zuenean, hutsegite bategatik, izenpetutako lan hitzarmenak 12 hilabeteko iraupena zeukan, baina dirulaguntza atzera bota zitzaionean INEMera joan eta beste sei hilabeterako luzatu zuela aipatu hitzarmena, 327/1995 Dekretuan iragarritako laguntza mota horrek eskatzen zuen etenik gabeko 18 hilabeteko hitzarmenaren baldintza batetzeko.

Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordeak errekurtsoa atzera bota zuenean jo zuen interesatuak erakundera.

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailera jo zuen hartutako erabakia alda ote zitekeen eskatzeko, erakunde honek espedientearen bideraketan inolako irregulartasunik antzeman ez zuen arren.

Erakunde honek egindako eskariari erantzunez Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak jakinarazi zuen berriz ez zuela aztertuko hartutako erabakia, 327/1995 Dekretuak laguntzak jaso zitzaketen guztiei eskariak aurkezteko epearen barruan aipatutako baldintzak betetzea esijitzen zielako. Era berean Ararteko honi jakinarazten zitzaion 18 hilabetetan ezarrita dagoen kontratazioaren gutxienezko iraupenaren baldintza betetzen ez zenez, eta 327/1995 Dekretuaren babesean laguntzak jaso zitzakeen beste edozein kolektibotan ere sartzen ez zenez gero, ukatu egin zela eskatutako laguntza.

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak burututako ihardueran inolako irregulartasunik aurkitu ez zenez gero, Arartekoak kexa artxibatzea eta horren berri bi alderdiei jakinaraztea erabaki zuen.

3.12.2.2. **GIZARTE SEGURANTZA**

Ezkondu gabe bikotean bizi izan denari alarguntasun pentsioa ukatzea (813/96)

Ezkondu gabe hogei urtez printzipio ideologiko amankomunen ondorioz gizon batekin bizi izan zen emakume batek erakunde honetara jo zuen. Denbora horretan bera etxeko lanez arduratu zen, gizonak besteren kontura lan eginaz irabazten zuena partekatuaz. Bizilaguna hil zitzaionean, emakumeari alarguntasun pentsioa ukatu egin zioten ezkontza loturarik eduki ez zutelako.

Ezkontza eta ezkontzaz kanpoko elkarbizitza parekoak ez direlako ukapen hori diskriminatzailea ez dela dioten Konstituzio Auzitegiaren epai bat baino gehiago dauden arren, iritziak ez dira bat etortzeko modukoak. Dotrinaren alderdi batek eta Konstituzio Auzitegiaren aipatutako epaietan ere egon diren botu partikularrek diotenez, alarguntasun pentsioaren izateko arrazoia, bizirik geratzen den ezkontideari partekatzen zituen irabaziak galdu edo murriztu zaizkiolako konpentsatzeko premian datzala. Garbi dago hau bezalako kasuetan gai bera planteatzen dela, hau da, bikotearen mantenurako irabaziak zeuzkan kidea hiltzean, bestea erabateko gabezia ekonomikoan murgildurik uzten du. Zirkunstantziak

berdinak izanik, behar horrek ez luke Gizarte Segurantzako erregimen publikoaren babesik gabe geratu behar.

Horregatik, Ararteko honek - kexa Herri Defendatzaileari bidaltzeaz gain- proposamen bat egin zuen Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XI. Ihardunaldietan, erakunde horiek berezko bikoteen tratamendu legalerako, eta bereziki alarguntasun pentsioa bezalako kasuetarako aldakuntzak sustatzea proposatuaz (ikus II. atala).

3.13. **HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA**

3.13.1. **SARRERA**

Alor honetan 129 kexa aurkeztu dira, edukiaren arabera honela sailkatzen direnak:

- Hirigintza 78
- Etxebizitza 51

Etxebizitza azpialorrean etxebizitza sozial edo babestuei buruz edo etxebizitzak erosteko edo konpontzeko laguntza publikoei buruz jaso ditugun kexak biltzen dira.

Urte honetan berriro agertu diren arazoek eraikuntza-akatsekin, eraikinak herri honetako klimarako egokiak ez izateagatik edo beraien kokalekuagatik sortzen diren hezetasunekin daukate zerikusia. Gure ustez, arkitektoek garrantzi gehiegi ematen diete beraien irizpide estetiko edo tipologikoei, etxebizitzaren kalitatearen kaltetan.

Beste arazo batzuk ere kexagai izan dira aurten: etxebizitza lortzeko laguntzen banaketa, etxebizitzen eskualdaketan Eusko Jaurlaritzak daukan lehentasun eskubidea, eskriturak egitean edo Jabegoaren Kamaran inskribatzean izandako gora-behera batzuk, eta ordezko etxebizitzarako eskubidea.

Dena dela, azpialor honetan sartzen diren kexak beste urteetan baino gutxoago izan dira, eta hori, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak etxebizitza askoren promozioari ekin, haietako gutxi esleitu dira aurten eta, jakina den bezala, arazoak orduantxe sortzen dira, alegia etxebizitza hiritarrari esleitzen zaionetik aurrera.

Beste azpialorrean, Hirigintzan alegia, obrak egiteko baimenen inguruan bildu dira kexak eragin dituzten arazoak. Normalean, Udalean halako obra bat egiteko baimena ukatu zaien pertsonek jo dute Arartekoarengana, edo bestela baimen horretan ezarritako baldintza batekin ados ez zeudenek.

Halaber, kexa askotan salatzen zen udalek ez dutela ezer egiten partikularren batek legez kontrako obrak hasten dituenean. Hondamen deklarazio eta betearazte aginduei buruzko arazoak ere iritsi dira gure erakundera.

Aldiz, hirigintza alorreko plangintza eta kudeaketaren inguruko arazo gutxiago iritsi dira, eta normalean taldeek aurkeztu dituzte. Horrela, adibidez, auzokideak ez zeuden ados antolamendu egitasmoren batekin, batez ere plan partzialetan edo barne eraberrikuntzarako plan berezietan; beste kasu batzuetan, ordea, planeamenduaren kudeaketari ekiteko orduan Udalak ezer askorik ez egitea salatzen zen.

Bukatzeko, **elbarrien** elkarteek berriro aurkeztu dituzte hirigintzazko oztopoak desagertarazteko arautegiaren aplikaziorik eza salatzen duten kexak. Hemen bertan ere adierazi dugu indarrean dagoen arautegiak ez duela balio dauden hirigintzazko oztopoak desagertarazteko, ezta elbarrien mugimenerako oztopo berriak eragozteko ere.

3.13.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

3.13.2.1. **HIRIGINTZA**

Itsas-zorreko lekuan etxebizitza bat zabaldu eta berritzea kostaldeei buruzko eskumena daukan organismoaren baimenik gabe (94/94)

Zierbenako La Arena kaleko 15 eta 16 zenbakiko atarietako jabe elkarteak Arartekoarengana jo zuen, haien etxe ondoan, La Arena hondartza ertzean, familia bakarreko etxe bat zabaldu eta berritzeko egiten ari ziren obren legez-kotasuna auzitan jarriz.

Gaiari buruzko informazioa bildu eta azterketa juridikoa egin ondoren, Arartekoak gomendio idazki bat zuzendu zion Zierbenako Udalari, obra horiek egiteko emandako baimena legez kontrakoa zela esanez.

Izan ere, obrak egiteko baimen hori Abanto-Zierbenako Udalaren Gobernu-Batzarrak eman zuen 1992ko uztailaren 30ean zehazki, baina Zierbenako Udala 1995eko urtarriletik hasitako ondorioekin banandu zenez gero, udal eratu berria zen hirigintza alorreko neurriak hartu behar zituena.

Emandako baimen hori 1991n onartu zen Abanto-Zierbenako Hiri Antolakuntzarako Egitasmo Nagusiaren kontrakoa zen, eta, gainera, kostaldeen mugapen zerbitzuak (MOPUk) egindako zedarritzearen arabera, itsas-lehor erabilera publikoaren babeserako zorraren azpiko lekuan zegoen.

Gomendio hau Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera ere bidali zitzaion, haren berri izan zezan. Organismo honek bere erantzunean aditzera eman zigun arazo honetan parte hartzerik ez zeukala, kontrol eta fiskalizazio eginkizuna Euskadiko Autonomia Erkidegoarena izan arren, eskumenen transferentziarako dekretua onartu gabe zegoelako.

Bestalde, kostaldeen mugapen zerbitzuak ere ez zuen arazo honetan esku hartu nahi, haren arabera kontrolatzeko eskumena Euskadiko Autonomia Erkidegoarena zelako, 1988ko uztailaren 28ko Kostalde Legea onartu zenez geroztik.

Azkenik, Zierbenako Udalak gomendioa ez zuela onartzen erantzun zion Arartekoari, haren esanean udal administrazioak ez zuelako gai horretan esku hartzeko ahalmenik, eta beraz kostaldeen arazoetan eskumena zeukan administrazioak hartu behar zituela kasuari zegozkion neurriak.

Arartekoak, udal horren argudioak ontzat hartu ez eta ihardetsi zuen hirigintza alorreko arauen hausketa larria eta nabarmena zela gertatutakoa, eta gainera eragina zeukala lurraren hirigintza araubideetan, hots, udalen eskumena zen gai batean.

Eraikuntzazko oztopoak desagertarazteko arautegia ez betetzea erabilera publikorako eraikin berri batean (176/95)

Elbarri elkarte batek gure erakundera jo eta honako kasua azaldu zigun: Donostiako La Perla izeneko eraikin berriko obrak hasi baino lehen, hiri horretako Udalari idatziz eskatu zioten eraikuntzazko oztopoei buruzko arautegia betearaz zezala eraikuntza egitasmoan, eta, horretarako, egitasmoaz arduratuta zeuden arkitektoekin bilera batzuk egin zituztenean, haiek ziurtatu egin omen zieten arautegia betetzen ari zela planoetan.

Hala eta guztiz ere, esandako elkarteak zioenez, eraikin horretan erabilera publikorako zenbait zerbitzu eta hornimendu (kafetegia, diskoteka, Club Atlético San Sebastián, Eguzki...) irekitzeko baimena eman zen, sargarritasun baldintzarik bete ez arren.

Hori zela-eta, egoera hori formalki salatu zioten Udalari, baina ez omen zuten inolako erantzunik jaso esandako sargarritasun akatsak zuzentzeko aukerari zegokionez.

Bestalde, gaineratu zuten bezala, eraikin horretan oraindik beste hornimendu batzuk ere ipini behar ziren (talasoterapia, igerilekuak, erakusgelak...), mugikortasun murritza daukaten elbarrientzat garrantzi handia eduki zezaketenak gainera, eta beldur ziren leku horietan ere ez zutela hartuko haientzako sarbidea errazteko edo beharrezko egokitzapenak egiteko neurririk.

Donostiako Udalari horri guztiari buruzko informazioa eskatu ondoren, egiaztatu ahal izan zen udal teknikarien bitartez, eraikuntzazko oztopoak desagertarazteko arautegia ez zela betetzen iharduera hori IGOKAAren arabera tramitatzeko eskarian aurkeztutako proiektuan.

Ildo horretatik, aditzera eman ziguten akats horien berri jakinarazi zitzaiela bai proiektua prestatu zuen lantaldeari, bai haren sustatzaileei ere.

Horren bidetik, egin beharreko aldaketak zehazten zituen dokumentu bisatu berri bat aurkeztu ziguten, eraikuntzazko oztopoak desagertarazteko arautegiari buruzko 291/83 dekretua betearazteko.

Geroagoko batean, elbarri elkarte berberak beste idazki bat bidali zion gure erakundeari; bertan, kezkatuta ageri ziren prentsaren arabera Udalaren eta enpresa eraikitzailearen artean arazoak sortu zirelako eraikin horretako igogailu bat instalatzeko lanengatik. Haien arabera, egoera horretan beldur ziren azkenean ipini gabe ez ote zen geratuko haiek bezalako pertsonentzat leku horietara sartu ahal izateko guztiz beharrezkoa zen igogailu hura.

Donostiako Udalak, berriz, aditzera eman zigun beharrezko udal baimena eman gabe zegoelako geldiarazi zirela igogailua instalatzeko lanak, eta, geroago, lanak legeztatzeko eskatutako baimena ukatu zela proposatutako konponbideak aldatu egiten zuelako eraikinaren bi gorputzetako baten inguratzailea.

Udalaren txostenaren arabera, gainera, udal zerbitzu teknikoak indarrean dauden arauak betetzeko har litezkeen neurriak aztertzen ari ziren, mugikortasun murritzeko pertsonei sarrera ziurtatzeko.

Azkenik, Donostiako Udalak baimena eman zion "Sociedad Balneario La Perla, S.L."ri bainuetxeko sarbidea aldatu eta igogailua ipintzeko; hortaz, interesatuei horren berri eman eta espedientea itxi egin zen.

Antolamenduz kanpoko pabilioi bati baimena ukatzea, Udalaren arabera hormak berdindu eta pintatzeko lana eraikina sendotzeko obra delako (1090/95)

Enpresa batek Arartekoaren laguntza eskatu zuen, Bizkaiko Loiu herriko Udalak baimena eman ziezaion industri pabilioi bateko fatxada berdindu eta pintatzeko, Alkategoaren Dekretu baten bidez obra horiek egitea onartu ez zitzaielako.

Arartekoak honelako planteamendua egin zion herri hartako udalbatzarrari: berez, eraikin hori antolamenduz kanpokoa izan arren, hirigintza arauen arabera higiene, apainketa eta kontserbaziorako beharrezkoak diren konponketa txikiak bakarrik egin daitezkeela, baina, hala ere, kontutan izan behar zela hormak berdindu eta pintatzeko lanek ez zutela inolako eraginik eraikinaren egiturako osagaietan, eta ez zutela aldatzen horma horien egikera edo diseinua, eta horregatik lan horiek baimendu behar zituztela.

Arartekoaren gomendioari erantzunez, Udalak erantzun zuen "zeramikazko adreilu hutsezko pareta bat kare-orez eta hareaz berdintzea ez da apainketa hutsa, haren funtsezko osagarria baizik, eraikinak behar duen egiturazko gogortasuna sendotzen duelako eta kanpoko aire, ur, kutsadura eta abarren eraginetik babesten duelako...".

Arartekoak, bestalde, Udalari erantzun zion ezin zela ulertu hormak berdindu eta pintatzea sendotze lanak zirenik. Gainera, enpresaren adostasunaz, proposatu zion baimena eman zezatela, baina baldintza bezala jarriz eraikinaren jabeak uko egitea obra horiengatik pabilioiaren balioan gertatzen zen gehikuntzari, baldin eta noizbait hirigintzazko arrazoiengatik eraikina bota beharra egongo balitz. Era horretan, lantokia sartuta zegoen ekintza unitatearen kudeaketak ez zuen kalterik hartzen eta, aldi berean, aukera uzten zen enpresak fatxada egokitzeko obrak egiteko.

Azkenik, Loiuko Udalak erantzun zuen gomendioa onartzen zuela, eta obretarako baimena eman ahal izateko enpresak "berdindu eta pintatzeko obrek suposatzen duten balio gehikuntzari uko egin izanaren agiria" aurkeztu behar zuela Udal Erregistroan.

Trintxerpeko hiri barruko hondakin industrialak eta udalaren ekimenik eza (1104/95)

Trintxerpeko Arraindegi kaleko Auzo Elkarteak Arartekoarengana jo zuen, Pasaiako Udala ez zelako ezer egiten ari kale horretako hiri inguruaren hondamenaren aurrean, batez ere aspaldian arrantzaren alorreko zereginetarako erabili zen lantegi hondatu bat zegoelako bertan.

Gure erakundearen aholkulari bat Pasaiara joan zen, industri eraikin zaharrek eragindako hiri eta ingurugiro hondamenaren larritasuna aztertzeko, bai eta udaletxean Arraindegi kaleari buruzko administrazio espedienteak eta dokumentazioa miatzeko ere.

Horrela, ikusi ahal izan zen nola 1990etik aurrera, hau da, Arraindegi kaleko 4. eta 8. arteko zenbakien, eta 15 eta 19 artekoen Barne Eraberrikuntzarako Plan Berezia (BEPB) behin betiko onartu zirenetik, Udalak apenas egina zuela inolako ekintza edo hirigintza alorreko tramiterik hirialde hartako hiri ehundura zaharberritzeko.

Arartekoaren ustez, ez zen behar bezalako arretaz hartu arazo honen garrantzia, eta horretxek eragin zuen udalaren aldetik ezer ez egitea. Horregatik, eta egoera hori konpontzearren, Pasaiako Udalari gomendatu genion lehentasuna ematea Arrandegi kaleko 4 eta 8 arteko zenbakien BEPBri, eta, berehala has zezala industri eraikin zaharren hondamen egoera deklaratu eta lurrera botatzeko espedientea.

Gainera, kaleko zenbaki horien BEPBaren birzatikatze eta urbanizatzeko proiektua osatzeko lanaren kontratazioa egitea eta, orobat, udalaren gestioa ekimenik ezean berriro ez erortzeko egin beharreko ekintzen egutegia osatzea ere gomendatu genion Udalari.

Azkenik, iradoki genuen komenigarria izan zitekeela Udala baliatzea Eusko Jaurlaritzak industri eraikin hondatuak botatzeko proiektuen idazketa edo burutzapenerako ematen dituen laguntzak arautzen dituen 314/1995 Dekretuaz.

Soraluzen ipini nahi ziren antena eta komunikazio zentro bat eta udalaren baimena (3/96)

KARAKATE BIZIRIK izeneko talde ekologisten plataforma batek Arartekoarengana jo eta jakinarazi zigun Soraluzeko Udalak legez kontra baimendu ziola Euskalnet S.A.ri Karakate mendiaren gailurrean telekomunikazio zentro bat eraiki eta 70 metroko antena bat altxatzea.

Arartekoak behin baino gehiagotan eskatu behar izan zion informazioa Udalari, kexa aztertzeko behar ziren argitasunak eta dokumentazioa eduki ahal izateko.

Arazoa zen Soraluzeko Arau Subsidiarioen arabera Karakate mendiaren gailurra babespeko lekua zela eta bertan ezin zela era horretako eraikuntzark egin. Hala ere, Arau Subsidiario horiek indarrean sartu gabe zeuden, haien tramitazioa 1991ean eten zelako hasierako onarpena eman eta gero, eta beraz ezin ziren kasu honetan aplikatu.

Oinarrizko planeamendu eguneraturik ez egotean, 1954ko Hiri Antolakuntzarako Egitasmo Nagusira jo beharra zegoen, eta horretan lurraren sailkapenik

ez zegoenez gero, derrigor ulertu behar zen Karakate mendia babes berezirik gabeko urbanizatu ezineko lurra zela.

Horren arabera, Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuko 13, 15 eta 16. artikuluak aplikagarriak ziren, eta horien arabera onartu egin zitekeen interes publiko edo sozialeko eraikuntzak eta instalazioak egitea, jendeaurrean ikusgai jarri eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeko txostena jaso ondoren. Baina tramite hori ez zuen egin Soraluzeko Udalak, telekomunikazio zentrorako obrak egiteko baimena eman zuenean.

Derrigorrezko tramite horren faltagatik, baimenak emateko erabakiak indargabe utz zitezkeen (Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Amankomuneko Prozedura Administratiboari buruzko 30/92 Legearen 63. art.), baina Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenago eman gabeko baimena emanaz baliozkotzeko aukera zegoen (aipatu Legearen 67. art.).

Azkenik, Arartekoak gomendatu zion Soraluzeko Udalari Euskalnet S.A.ri emandako obra-baimena baliozkotzea, Foru Aldundiaren aldeko txostena eskatu ondoren. Gainera, hirigintza arautegi berrira egokitutako Arau Subsidiarioak edo Egitasmo Nagusia eduki beharra gogorarazi zion, horrelakorik ez egoteak Udalaren diligentziarik eza esan nahi baitu, kontuan izanda Gipuzkoan antzeko biztanleria daukaten beste udalerri guztiek bazutela ordurako planeamendu egokitua.

Auzo bateko biztanleak barne eraberrikuntzarako plan berezi baten aurka (104/96)

Gallartako El Cotarro auzoko Auzokide Elkarteak Arartekora jo zuen, Abantoko Udala tramitatzen ari zen auzo horretako Barne Eraberrikuntzarako Plan Berezian (BEPB) zeuden akats eta desegokitasunak salatzeko. Gainera, BEPB horren betearazpenak eraikitako etxeei eragin behar zizkien kalteak ere salatu zituzten.

Arartekoak auzoa bisitatu zuen, auzokideen eskutik hango hirigintzazko arazoak ezagutzeko. Ondoren, BEPBri buruzko azterketa sakona egin zen, kaltetuek aurkeztutako salaketen argitan, eta honako ondorio hauetara iritsi zen.

1- BEPBan aurreikusitako urbanizazioaren eraginik eza: Udalari eskatu zitzaion Urbanizazio Egitasmoa prestatu eta betearaztean joka zezala horrek ematen duen aukera txikiarekin, ahal zen neurrian eta auzokideei entzunez proiektatutako urbanizazioa ahalik eta gehien moldatzeko auzoko egiturara.
   Gainera, BEPBen betearazpenean disfuntziorik ez gertatzeko, urbanizazio egitasmoa auzoaren esparru osorako bakarra izatea ere proposatu genuen.
2- BEPBeko hasierako C-1 unitatearen bolumen eta altueraren desegokitasuna: Egitasmo Nagusiari jarraituz, BEPBk beheko solairua gehi bost altuerako bloke bat, inpaktu handikoa, proposatzen zuen unitate horretarako.
   Hala ere, BEPBko txostenean esaten zen bloke horrek transizio lana egin behar zuela beheko solairua eta lau altuerako ondoko eraikinaren

eta “El Cotarro auzoko landetxe auzoa”ren tankerako etxebizitzen artean.

Kontuan izan behar zen, orobat, lurraren orografiak are handiagoa egingo zuela proiektaturiko eraikinaren inpaktua. Horregatik, Arartekoak Abantoko Udalari gomendatu zion Egitasmo Nagusia aldatu, eta beheko solairua gehi hiru altuerako transizio eraikin bat proposatzea. Orobat, eraikuntza horretarako baldintza moduan, Xehetasunezko Azterketa prestatzea proposatu zen, egin beharreko eraikinaren kokaleku eztabaidatuari konponbide egokiagoa emateko.

Azkenik, lursailaren jabeari bere eskubideak kaltetuta izan ziren neurrian kalteordaina ematearren, Udalak ondarezko erantzunkizunaren aitorpen espediente bat hastea proposatu zen.

3- BEPBko Txosteneko “Exekuzio unitateen urbanizazio kostuak” izeneko taula. Taula horren arabera, urbanizazio gastuek eraikitako etxebizitza bakoitzean edukiko zuen eragina 2.295.177 pezetakoa izango zen. Udalarekin hitz egin ondoren, auzokideei jakitera eman zitzaien BEPBko Txosteneko xedapen horrek ez zuela arau izaerarik ez eta behartze indarrik ere. Gainera, kopuru hori esiji zitekeen bakar-bakarrik zerga bereziko espediente baten tramitazioaren bidez, eta hori ez zen sartzen Udalaren asmoen artean; beraz, auzokoek ez zuten zertan kezkaturik.

4- BEPBko informazio publikorako tramitean auzokoek aurkeztutako arrazoibideak direla-eta, Abantoko Udalak haiei erantzuteko daukan beharra. Gai honi dagokionez, gogorarazi behar izan genuen Lurzoruaren Legearen arabera Udalak alegatzaileei erantzun beharrik ez duen arren, Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Amankomuneko Prozedura Administratiboari buruzko 30/92 Legearen 42.1 artikuluari jarraituz behar hori baduela. Gainera, Planaren behin betiko onarpena gertatzen zen unean, erabaki hori alegatzaile guztiei jakinarazi beharko zitzaien, aipatu 30/92 Legearen 58.1 artikuluaren arabera.

Era berean, BEPBren beste aspektu hauek ere kontuan hartzen ziren: Auzitegi Gorenaren ustez El Cotarroko BEPBaren zirriborroa jendearen aurrean ikusgai jarri beharrik eza; BEPBren barruan San Antonio eliza eta honen ingurua urbanizatzeko beharra sartzea; bota behar diren etxebizitzen jabeek ordezko etxebizitza batean sartzeko daukaten eskubidea, etabar.

Abantoko Udalak ez zion Arartekoaren gomendioari erantzun, eta BEPB berriz jendearen aurrean ikusgai jarri zenean ikusi zen dokumentu horretan ez zirela jasotzen Arartekoak egindako gomendioak.

Baserri bat konpontzeko lanetarako lizentzia ematea hirigintza planeamenduak lan horiek egiteko aukera ematen duenean (220/96)

Hiritar batek Ararteko erakundera jo zuen arazo honekin: Galdakaoko Udalak Alkatetzaren Dekretu bidez baserri bat konpontzeko lan-baimena ukatu, eta ordurarte legez kanpo egindako lanak bertan behera utz zitzala agindu zion.

Alkatetzaren ebazpen hori Gobernu Batzordeak lehendik hartuta zeukan akordio baten ondorioa zen, zeinaren bidez baserriaren lehengo jabeari baimena eman baitzitzaion familia bakarreko etxebizitza egiteko, eta jarri zitzaion baldintza zera izan zen, bizi zen baserri zaharra etxebizitzatarako ez zen beste erabilera baterako utz zezala.

Lehengo jabeak baserria beste biztanle bati saldu eta ez zion esan Udalak lan-baimenean zein baldintza jarri zion; Arartekoarengana jo zuena bigarren jabea izan zen.

Arartekoak, gaia aztertu ondoren, gomendio bat egin zion Galdakaoko Udalari, erakunde honen ustez aipatu den baimenak baserriaren lehenengo jabeari bakarrik eragiten ziolako, eta ez beste batzuei, eta horregatik aurreko erabakiak ez zeukan zertan eroslea eragin beharrik.

Bestalde, Hiri Antolakuntzarako Egitasmo Nagusiak aukera ematen zuen biztanleak egin nahi zituen lanak burutzeko. Arartekoak, beraz, hau gomendatu zion Udalari: biztanleari baimenik gabe egindako obrak kentzeko agindua ematen zion Alkatetzaren Dekretua bertan behera utzi eta baserrian konponketa lanak egiteko baimena eman ziezaiola, Hiri Antolakuntzarako Egitasmo Nagusiak babes amankomuneko lur ez urbanizagarriko eraikuntzetarako ezartzen zituen mugak bakarrik ezarriaz.

Galdakaoko Udalak Arartekoari azkenik erantzun zion gomendioa onartzen zuela eta baserriaren jabe berriari konponketak egiteko baimena emango ziola.

3.13.2.2. **ETXEBIZITZA**

Babes ofizialeko etxebizitzetan aurkitutako eraikuntzazko akatsek eragindako salaketak (1138/96)

Gasteizko Portillako Gaztelua kaleko 12. zenbakiko Jabe Elkartea Arartekoa erakundearekin harremanetan jarri zen aipatu etxebizitzan zeuzkaten eraikuntzazko akatsak (zartadurak, hezetasunak...) eta eragiten zien arazoaren aurrean erakunde eskudunek azaldutako axolagabekeria salatzeko.

Kaltetuek adierazi zutenez, eraikin hori sustapen publikozko 10 etxebizitzaz osatua zegoen eta 1992an esleitu ziren.

Salaketa honen aurrean, Arartekoak Arabako Lurralde Ordezkaritzaren lankidetza eskatu zuen, arazo larri horientzako konponbide bizkor bat emateko neurriak har zitzan.

Arartekoa honek egin zuen informazio eskariari erantzunez Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuak jakinarazi zigunez, bidali zitzaizkien eraikuntzazko akatsen salaketak konponketetarako kontratazio-espedientean jaso ziren, eta 1996ko urrian enpresa eraikitzaileari onarketarako proposamena egin zitzaion: lanak 3.978.284 pezeta kostatuko ziren eta urte horretan bertan egin behar ziren.

Era berean, sail horrek erakunde honi jakinarazi zion baita ere, onarketa-proposamenak etxebizitza multzoak zeuzkan hiru atarietan egin beharreko konponketa lanak jasotzen zituela.

Salatutako akatsak epe laburrean egingo ziren lanen bidez konponduko zirelakoan, Arartekoak kaltetutako jabe elkarteari jakinarazi zion iharduteko zeuzkan aukerak amaitutzat ematen zituela, baina aurrerantzean bere parte hartzea beharrezkoa zen kasuan berriro ekingo ziela.

3.14. **BESTE GESTIO BATZUK**

3.14.1. **SARRERA**

Sail honetan, Arartekoak bideratu dituen iharduerен artetik eragindako gaien ezaugarriengatik erakunde honen lana antolatzeko alorretan sartzeko zailak direnak jaso nahi dira.

1996ko urtealdian alor honetan guztira 44 kexa jaso dira, erakunde honek bideratutako guztien artetik %2,63 beraz.

Ez da erraza alor honetako kexak kategorien arabera sailkatzea, ez eta eraginik handiena eduki dutenak aipatzea ere, besteak beste kexa gutxi direlako. Halere, urte honetan zehar Arartekoak ikusi du autonomia erkidego honetako hiritarrak gero eta sentiberagoak direla eta gero eta konpromezu handiagoa dutela euskararen erabilerarekin izen-abizenak aldatzeko orduan edo notario-bulegoetan zerbitzu elebidunak edukitzeko eskariei dagoekienean. Gai horiek Estatuko erakundeen iharduerei dagozkie, eta horregatik erakunde honen berezko eskuduntza esparrutik kanpo geratzen dira.

Edonola, argitu behar da espediente horien artetik gehienak bideratu badira bitartekaritza hutsaren ikuspegitik izan dela, gai hauek gizakiaren izaerari dagozkiolako eta autonomia erkidego honetan oihartzun ukaezina daukatelako.

3.14.2. **AUKERATUTAKO KEXA BATZUK**

Abizenak euskal idazkerara egokitzeko prozedura (436/96)

Sarritan gertatzen da pertsona batzuek beraien abizenak euskal idazkerara egokitu nahi izatea. Pertsona baten abizena modu batera edo bestera idatzita egoteak badu bere garrantzia, eta horregatik, horietan egiten diren aldaketak segurtasuna bilatzen duten prozedurei lotuta daude.

BAGERA elkarteak, zeinaren helburuen artean euskararen erabilera sustatzea baitago, Arartekoarengana jo zuen euskal idazkerara egokitzeko tramite batzuetan gure bitartekaritza eskatzearren. Elkarte honek, helburu bera daukaten beste batzuek bezala, abizenen idazkera aldatu nahi zuten hiritarrei lan hori errazteko kanpaina bat antolatu zuen.

Kanpaina horren bidez, behar-beharrezkoa ez zenean salbu, pertsona interesatuek zegozkien administrazio bulegoetara joan beharrik ez izatea lortu nahi zen batez ere.

Erregistroaz arduratzen den epailearekin zenbait gestio egin ondoren ikusi zenez, elkarteak arazorik gabe aurkez zitzakeen interesatuek sinatutako eskariak eta zegozkien agiriak, eta berrespena azken ebazpena jasotzerakoan egin zitekeen.

Batzar Nagusietako talde batek Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintzarako Sailari egindako galdera batzuei emandako erantzunei buruz (1222/96)

Bizkaiko Batzar Nagusietako Izquierda Unida/Ezker Batua Taldeak Arartekoaren iritzipean jarri zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintzarako Saileko buruak aipatu taldeko batek egindako galdera bati emandako erantzuna. Hondakin solidoen erretegi bat bisitatzeko sail horretako kargu gorenek egindako bidai bati buruzko zenbait alderdi ekonomiko eta antolamenduzkoak argitzeko egin zen galdera. Erantzuna eskatutako informazioa ukatzera mugatu zen, bidaia Diputazioak partaidetza minoritarioa daukan elkarte anonimo gisa eratutako enpresa bateko diruarekin egin zelako. Ezezkoa justifikatzeko eman zen argudioa zera izan zen, Batzar Nagusiek ezin dutela kontrolatu foru erakundeak partaidetza minoritarioa daukan enpresa baten iharduera.

Arartekoak gaia aztertu ondoren, bere iritzipean jarri zen gaiaren izaera kontuan izanik kontrol iharduera hori ezin zuela burutu erabaki zuen. Eta ondorio honetara ondoko arrazoibideengatik iritsi zen:

a) Foru erregimenen berezitasuna Espainiako Konstituzioak lehen xedapen gehigarrian aitortzen du eta hori Euskal Herriko Autonomi Estututuan jasota eta Erakunde Arrunten eta Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak garatzen du. Lege honek dioenez, Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien eta dagozkien Foru Aldundien arteko harremanak herritarren ordezkaritzarako erakundeen eta exekutiboen artekoetatik sortzen diren eskema klasikoan kokatzen dira.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren kasuan, Foru Erakundeen Aukeraketa, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak 4.2 artikuluan hau dio: "*Batzar Nagusiek Foru Arau honetan ezarritako arauak gauzatzeko ahalmena daukate, Diputatu Nagusia aukeratzen dute, Foru Aldundiak proposatutako aurrekontuak onartzen dituzte eta* ***honen iharduera kontrolatzen dute***". Batzar Nagusiek Foru Aldundia kontrolatzeko daukaten prozeduretako bat galderei dagokie, horien erregimena 1987ko apirilaren 10eko Akordio bidez onartu zen Bizkaiko Batzar Nagusien Araudiko VII. Tituluko III. Ataleko 2. sailean (133. eta ondorengo art.) arautzen delarik.

Konstituzio Auzitegiaren eta beste jurisdikzio erakunde arrunten jurisprudentziek diotenez, ordezkaritza erakundeen eta exekutiboen arteko harremanen izaera guztiz politikoa da: "*Diputatuek beraien betekizun parlamentarioak hobeto burutzeko Administrazio Publikoari eska diezaizkioketen txostenak*

edo agiriak (...) eta Batzar horri behar duen laguntza edo informazioa emateko daukaten betebeharra (...) aginte publikoen arteko harreman instituzionaletan oinarritzen dira (...) Horregatik, harreman horien barruan burutzen diren ekintzak ez dira administrazio ekintzak, eta horregatik araupetutako edozein elementu hausten bada ere hori ezin da auzitegien kontrolpean jarri, eduki guztiz politikoa daukan erabakia beraien gain utzi gabe..." (1988ko azaroaren 15eko Auzitegi Gorenaren Epaia). "*Parlamentarioek Gobernuko kideei eskariak egiteko ekintzek, eta oro har Gobernuaren eta Parlamentuaren arteko harremanetan gertatzen diren guztiek, autonomikoak barne, normalean beraien ondorioak Parlamentuaren eremuan bakarrik agortzen dituzte, eta behar izanez gero kontrol politikorako tresnak sartzen dira funtzionamenduan, eta horiek ia beti auzitegien fiskalizazioa, baita Konstituzio Auzitegi honena ere kanpoan uzten dituzte, honi ez baitagokio legegintzazko eta exekutibozko harreman politiko eta instituzionaletan sor daitezkeen irregulartasunak edo arazoak kontrolatzea.*" (Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 25eko 220/1991 Epaia).

Aurreko arrazoibideak direla medio, eta Arartekoko erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak 13.2 artikuluan dioena kontuan izanik, gure iritzipean jarritako iharduera ezin zela ikertu erabaki zen.

b) Aurrekoaren kalterik gabe, eta Konstituzio Auzitegiak dioena kontuan izanik, alegia Arartekoaren iritzipean jarritako iharduerak aukeratutako kargua den aldetik eskaria egin duenaren funtsezko eskubideen hausketa egon daitekeelako, arazoa ikuspegi horretatik aztertu genuen. Aurreko atalean aipatu dugun Konstituzio Auzitegiaren epaiak honela adierazten du bere iritzia: "*Aurreko dotrina orokorrak ez du esan nahi, salbuespen gisa, era horretako harremanetan Espainiako Konstituzioak 23. artikuluaren bidez parlamentarioei bermatzen dizkien eskubideak urratu ezin zaizkienik. Urraketa hori exekutiboak berak edo Kamarako erakundeek beraiek egin dezakete betebehar parlamentarioak burutzea galarazten edo horretarako oztopoak jartzen bazaizkie. Honek ez du esan nahi parlamentario estatutuak jasotzen dituen eskubide eta ahalmen guztiak konstituzionalizatzen direnik, bakarrik parlamentarioen ordezkari funtzioaren funtsezko gunetzat jo ditzakegunak jartzen dira Konstituzioaren pean, hau da, batez ere legeak egiteko eta gobernuaren ekintzak kontrolatzeko ahalmenekin harreman zuzena daukatenak.*" Eta ondorio honetara iristen da: ordezkaritza erakundeen berezko organoen kontrol funtzioa osatzen duten ahalmenak gauzatzeari trabak jartzen zaizkionean, hasiera batean horiek babestuta daude, baina eskari bat egin eta gobernu erakundeak burutzen dituen iharduerak edo ekintzak, hasiera batean behintzat gobernuaren berezko funtzioetan sartzen dira, eta horiei kontrol politikoa eta parlamentarioa -eta azken batean hauteskundeen bidez soslaiatzen denadagozkie, baina horiek ezin dira errebisatu zuzentasun juridikoaren ikuspegitik.

Konstituzio Auzitegiak aipatu epaian defenditzen duen tesia hau izanik: "*...parlamentarioek egindako galdera edo informazio eskari bat ukatzeak edo horri behar bezala ez erantzuteak berez ez dakar Espainiako Konstituzioak 23. artikuluan dioenaren hausketarik, eduki jakin bat daukan erantzunerako*

eskubidea ez baitu aitortzen, gobernuaren iharduera hori kontrolatzeko bidea parlamentario horien ekintza politikoa delako...” -zenbait ikerlarik kritikatua-, ondorio honetara iritsi behar izan genuen: Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintzarako Sailaren arduradunak emandako erantzunak ez zuen galdera egin zion apoderatuaren funtsezko eskubiderik hautsi.

IV. ATALA
ESTATISTIKA

4.1. **OHARPEN OROKORRAK**

Mila bederatziehun eta laurogeita hamabosgarren urtean zehar erakunde honi hiritarrek bakarka edo taldeka aurkeztu dizkioten eta aztertu eta ikertu diren kexen artetik 452 kasutan eman die Arartekoak babesa erreklamatzaileei euskal administrazioren baten aurrean. Kasu horietan, eragindako administrazioak Arartekoaren gomendioa jaso du, zentsuratutako iharduerarren ondorioak konpon zitzan.

Joan den urtean erakundean aztertutako kexen artetik %43,42 kasutan hiritarrari eman zaio arrazoia. Portzentaia hori Administrazio-auzietarako epaitegietan erreklamatzaileek edo salatzaileek lortzen dituzten emaitzen gainetik dago, erreklamazio horiek Ararteko erakundean aztertzen diren kasuekin parekotasun handia daukatelarik.

Arartekoak erreklamatzaileari arrazoia eman dion kasu ugariez gain, erakundearen iharduera aztertzerakoan beste aspektu hau ere azpimarratzekoa da: Arartekoak administrazioren baten iharduera zuzena ez zela ikusi ondoren luzatu edo egin dion gomendioa askotan (%67,42) bete izan da. Gomendioak eta iradokizunak egin diren hiru kasutatik bitan Administrazioak kontuan hartu ditu.

1996. urtean guztira 1.674 kexa aurkeztu zaizkio Arartekoari, aurreko urtean baino %44,9 gehiago, eta duela bi urte baino bi aldiz baino gehiago.

Eusko Legebiltzarrari Txosten honetako estatistiken atalean zifretan laburturik ematen den Arartekoaren iharduera oso positiboki baloratu dute erakunde honetan kexaren bat aurkeztu duten pertsonek. Arartekoak aurten lehen aldiz inkesta bat egin du kexa osorik tramitatu zaien pertsonen artean: pertsona horiei galdesorta bat bidali zaie borondatez eta izenik eman gabe bete zezaten. Horrela, inkestaren emaitzek diotenez, erreklamatzaileen %90ak dio Arartekoak bere kexaren aurrean izan duen parte hartzea oso edo nahiko ona izan dela, %10ak berriz dio ez dela oso egokia edo oso desegokia izan dela. Galde-sortari erantzun dioten erreklamatzaileen arabera, -emaitzak aurrerago azalduko ditugu sakonkiago-, Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati bai gomendatuko liokete Arartekoarengana jotzea (%67,35ak kasu guztietan gomendatuko luke, %26,19ak kasuren batzuetan eta %6,46ak inoiz ez).

Jasotako kexak

Ararteko erakundean 1996. urtean guztira 1.674 kexa jaso dira, eta aurreko urteko 1.155ekin konparatzen baditugu %44,9ko gorakada egon dela ikusten

da. Iaz aurkeztu ziren erreklamazioei dagokienez etengabeko gorakada joerarekin jarraitzen dela baiesten da. Kexa kopuruaren bilakaera erakusten duen ondorengo koadroan ikus daitekeen bezala, horiek azken bi urteetan biderkatu egin dira.

	1989	**1990**	**1991**	**1992**	**1993**	**1994**	**1995**	**1996**
Guztira	585	614	769	783	823	755	1.155	1.674

(Ikus 1. diagrama 306. orrialdean)

Onartu gabeko kexak

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/85 Legeak 21. artikuluan adierazten ditu hiritarren kexak atzera botatzeko arrazoiak. Zentzu horretan, 1996an jasotako kexa guztien artetik, lehenik arrazoi ezberdinengatik onartu ez direnak bereiztu behar dira. Ez onartzea batez ere auzia aldez aurretik epaitegien aurrean aurkeztuta egoteagatik gertatu da, epaitegiek ordurako epaia emana zutelako edo emateko bidean zeudelako. Partikularren arteko auziak ere ez dira onartu.

Edonola, erakunde hau 1996. urtean erreklamazioei ahalik eta babes juridikorik handiena ematen saiatu da; horrela, prozedura arauak interpretatzerakoan, beti administrazioak aurkeztutako kexa onartzearen aldeko apustua egin da *in dubio pro actione* arauaren bidetik. Kexak atzera botatzen direnean, Arartekoa beti saiatzen da hiritarrari aholkua ematen, azaldutako arazoak konpontzeko biderik egokienak izan daitezkeenak azaltzen, alegia.

Onartu gabeko kexak eta arrazoiak

Auzitegira eramandako kexak	55
Norbanakoen arteko arazoak	33
Erakundearen eskumenetik kanpokoak	30
Araugabetasun-eza begibistakoa izatea	18
Urtebetetik gora iragandakoak	8
Aurretiaz Administrazioaren aurrean kexa aurkeztu gabeak	6
Formazko akatsa	5
Izenik gabea	3
Herri Defendatzailearen bulegoan, bidarapenean	3
Legez ezarritako epeak bete arte itxaron behar du	2
Bidezko interesik eza.	2
Guztira	165

Herri Defendatzaileari igorritako kexak

Ararteko erakundean zuzenean bideratzen ez diren kexen artean, Estatuko Administrazioaren iharduerari dagozkionak eta, beraz, Arartekoaren kontrol eremutik kanpo daudenak aurkitzen dira, horiek Herri Defendatzaileari igortzen zaizkiolarik. Horiekin batera, beste erkidego batzuetako parlamentu ordezkariei igorritakoak daude.

Herri Defendatzaileari 1996. urtean igorri zaizkion kexak aurreko urtean baino %70 gehiago izan dira.

Herri Defendatzaileari igorritako kexak 143
Beste Defendatzaileei igorritako kexak 6

Hainbat gestio eragin dituzten kexak

Ararteko erakundeak onartu, baina egiaz euskal administrazio publikoaren iharduera baten kontra zuzendu ez diren erreklamazioei tratamendu estatistiko ezberdina ematen zaie.

Hiritarrak planteatu duen arazoa konpontzeko hainbat gestio eragin dituzten kexak dira, alegia, eta logikoa denez, izaera ezberdineko arazoak eta gaiak sartzen dira horietan. Hari horretatik, izen hori daraman alorrean jasotzen dira aztertu diren gaiak.

Hainbat gestio eragin dituzten kexak 44

Alor eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexak zuzen interpretatzeko modua

Lehen hurbilpen batean, badirudi hiritarrek bi gauza erlazionatzen dituztela: administrazio jakin edo alor zehatz baten iharduerengatik aurkeztutako kexak eta hiritarrek administrazio horren utzikeria edo aginte-gehiegikeriak eragindako funtzionamendua txartzat jotzea.

Erakunde honen ustez, ordea, kexa kopuruaren aurrean egin daitekeen lehen interpretazio hori oso ondo argitu behar da, eragindako administrazioekiko atera daitezkeen berehalako ondorioak okerrak eta bidegabekoak izan ez daitezen.

Horrela, *a priori* administrazio jakin baten iharduerагatik aurkeztutako kexa kopurua adierazgarria bada, are gehiago da, eta hori da garrantzitsuena, administrazioak oker jokatu izanagatik erreklamatzaileak arrazoia zenbat kasutan zeukan ikustea. Bestalde, Ararteko honentzat kexa kopuruaren datu hotza baino garrantzitsuagoa da administrazio jakin horren jarrera, hala erakunde honetatik eskatutako informazio eskariei epe barruan erantzuteko betekizunaren aurrean, nola erreklamazioaren azterketa eta ikerketa egin ondoren emandako ebazpenen aurrean azaldutako portaera. Hau da, Arartekoaren iritziz Administrazioak

irregularki jokatu duelako egin zaizkion gomendio eta iradokizunak onartzen diren ala ez jakitea.

Estatistika alor honetako datuak baloratzerakoan faktore geografikoa ere kontuan hartu behar da; izan ere, aurrerago ikusiko den bezala, erreklamatzailea erakunde honen egoitzatik, edo 1996. urtean funtzionatzen hasi diren arreta zuzena eskaintzeko Ararteko bulegoetatik gertu edo urrunago bizitzeak eragin erabakiorra dauka. Gasteizko kasua dugu kexa kopuruaren eta faktore geografikoaren arteko harreman horren adibidea, Euskal Autonomia Erkidegoko beste hiri eta herriekin konparatuz askoz erreklamazio gehiago aurkeztu baitira. Txosten honi dagokion urtean faktore geografikoak daukan eragina Donostian aurkeztu diren kexa kopuruan ikus daiteke, aurreko urtean baino %86 gehiago auzkeztu baitira.

4.2. **ESTATISTIKAK ALORREZ ALOR**

Kexak gai-alorren arabera aztertzerakoan, guztietan ikusten dugu erreklamazioak gehiago direla aurreko urtearekin konparatuz.

Funtzio Publikoaren eta Administrazio Antolakuntzaren alorrari dagozkio kexa gehienak. Alor horri dagozkion kexak asko gehitu dira, 1995ean 168 izan baitziren eta 1996an 396 izan baitira. Alor honen pisu erlatiboa kexa guztien %30eraino igo da, jarraian daudenen aldean askoz gehiago. Dudarik gabe Osakidetzakoak bezalako Lan Eskaintza Publiko jendetsuek eragina eduki dute gehikuntza honetan.

Ogasun alorrak bigarren postuan jarraitzen du, kexa kopuru gehiketa apalagoarekin. Ez da gauza bera gertatzen Osasun eta Gizarte Ongizatearekin, aurreko urtearekin konparatuz ia bi bider kexa gehiago jaso baitira, kexa kopuruaren zerrendan hirugarren postura pasatzen delarik. Ondoren Hirigintza eta Etxebizitza eta Herri-Lanak eta Zerbitzuak alorrak daude, horiek ere gehikuntza handiekin.

Herrizaingoari dagokion alorrak 1995ean baino 7 kexa gehiago jaso ditu, pisu erlatiboa galdu eta hirugarren postutik zazpigarrenera pasatzen delarik.

	Zenbat kexa jaso	**%**
Funtzio P. eta Adm. Antol.	396	30,11
Ogasuna	160	12,17
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	142	10,80
Hirigintza eta Etxebizitza	129	9,81
Herri-Lanak eta Zerbitzuak	102	7,76
Hezkuntza	102	7,76
Herrizaingoa	96	7,30
Ingurugiroa	84	6,39
Justizia	60	4,56
Kultura eta Elebitasuna	28	2,13

	Zenbat kexa jaso	%
Nek., Ind., Merk. eta Tur.	12	0,91
Lana eta G. Segurantza	4	0,30
Guztira	1.315	100

(Ikus 3. diagrama 308. orrialdean)

Kexen sailkapena azpialorren arabera

Mila bederatziehun eta laurogeita hamaseigarren urtean zehar jasotako kexen gaien araberako banaketa aztertzen bada, ondorengo koadroan ikus daiteke azpialor bakoitzak nolako eragina daukan Ararteko honek lana antolatzeko bereizten dituen gaietan izandako aldaketan.

Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza alorrean egon den gehikuntza, Funtzio Publikoa-Osasuna eta Funtzioa Publikoa-Nagusia azpialorretan egondako gehikuntzari zor zaio. Hori batez ere Osakidetzako Enplegurako Lan Eskaintza Publikoak eta beste zenbait oposaketa eta lehiaketek eragin duten erreklamazio kopuru handiagatik gertatu da.

Ogasunean egon den kexa gehiketa modu orekatuan banatzen da foru eta udal tributuen artean. Osasuna eta Gizarte Ongizatea azpialorren artean ere oso banatua dago egon den gehikuntza. Herri-Lan eta Garraioaren azpialorretan egon den gehikuntza ikusgarria da, erreklamazioak bikoiztu egin baitira. Etxebizitzari buruzko kexak asko gehitu dira, eta Herrizaingokoek aldiz berdin jarraitzen dute. Azkenik, Justizia alorrean kartzelei dagokion azpialorra indar handiarekin sartu da, eta horretarako arrazoia Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelen egoerari buruz egindako txosten monografikoaren ondorioz Ararteko kartzeletako kolektibo ezberdinekin dauzkan harreman estuetan dago.

Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza 396

Funtzio Publikoa 225
- Funtzio Publikoa-Osasuna 93
- Funtzio Publikoa-Orokorra 91
- Funtzio Publikoa-Hezkuntza 34
- Funtzio Publikoa-Herrizaingoa 7

Administrazioaren Antolakuntza 171
- Administrazioaren Antolakuntza 102
- Administrazioaren Ihardunbidea 42
- Administrazioaren ardura 19
- Kontratazioa eta Ondarea 8

Ogasuna **160**

Foru-tributoak 70
Udal zergak 37
Prezio publikoak 15
Udal arielak 27
Bestelakoak 11

Osasuna eta Gizarte Ongizatea **142**

Gizarte Ongizatea 83
Osasuna 59

Hirigintza eta Etxebizitza **129**

Hirigintza 78
Etxebizitza 51

Herri-Lanak eta Zerbitzuak **102**

Zerbitzu Publikoak 46
Garraioak 32
Herri-Lanak 20
Desjabetzapenak 4

Hezkuntza **102**

Bekak eta ikasteko laguntzak 38
Bestelakoak 26
Irakaskuntzaren programazio orokorra 19
EHU 13
Eskola-instalazioak 5
Ikastegia aukeratzeko eskubidea 1

Herrizaingoa **96**

Trafikoa 81
Herri-bakea 12
Bestelakoak 3

Ingurugiroa **84**

Sailkaturiko hiri ekintzak 77
Ingurugiroari eragiten dioten beste gora-behera batzuk 7

Justizia **60**

Justizia Administrazioa 24
Penitentziarioa 21
Abokatuen bazkundeak 13
Adin txikikoak 2

Kultura eta Elebitasuna			**28**
Elebitasuna		18	
Kultura		10	
- Kirola	3		
- Emakumea	2		
- Dirulaguntzak	2		
- Bestelakoak	2		
- Ondare historiko-artistikoa	1		
Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa			**12**
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzua		7	
Merkataritza		2	
Industria		2	
Kontsumoa		1	
Lana eta Gizarte Segurantza			**4**
Lana		4	

4.3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTATISTIKA

Ararteko erakundearen ikerketa eremuan sartzen diren euskal administrazio guztiek eduki dute aurreko urtean baino kexa kopuru handiagoa. Gorakadarik handiena Autonomia Erkidegoko Administrazioaren (Eusko Jaurlaritzaren) gestioak eragindakoa izan da, aurreko urtean kexa gehien jaso zituena bera izan delarik: 1996. urtean %68 erreklamazio gehiago zuzendu zaizkio.

	Zenbat	**%**
Eusko Jaurlaritzako Administrazioa	627	46,07
Toki Administrazioa	489	35,93
Foru Administrazioa	205	15,06
Gainontzeko administrazioak	40	2,94
Guztira	1.361	100

(Ikus 4. diagrama 309. orrialdean)

Foru Administrazioen kontra aurkeztutako kexak

Bizkaiko foru administrazioa izan da 1996. urtean gehien jaso dituena, Gipuzkoako eta Arabakoaren oso gainetik egon delarik.

Guztien kontra aurkeztu dira aurreko urtean baino kexa gehiago; Gipuzkoaren eta Arabaren kasuan gehikuntza apalagoa izan bada ere, Bizkaiaren kasua kontrakoa izan da, Foru Aldundiaren kontrako erreklamazioak bikoiztu egin baitira.

Kexak foru aldundien arabera

	Zenbat	%
Bizkaia	99	48,29
Gipuzkoa	63	30,73
Araba	43	20,98
Guztira	205	100

(Ikus 5. diagrama 310. orrialdean)

Toki Administrazioaren kontra aurkeztutako kexak

Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioen kontra aurkeztutako kexei dagokienez, Bizkaia da oro har kexa gehien jaso dituena. Jarraian Gipuzkoa dago, kexak bikoiztuta, eta azkenik Araba gutxienekin, aurreko urtean baino gutxiago ere jaso dituelarik.

Bilbao eta Gasteiz dira lehenak 73 erreklamaziorekin, oso gertutik Donostiak jarraitzen dielarik 67rekin: hiru hiri horiek dira toki administrazioen kontrako kexa gehien jasotzen dituztenak.

Hiru lurralde historikoez gain, Getxo, Barakaldo eta Portugaletek Bizkaian, eta Irun, Errenteria eta Tolosak Gipuzkoan, horiek ere kexa askotxo jaso dituzte.

Toki Administrazioaren aurkako kexak

	Guztira	%
Bizkaiko Udalak	207	42,33
Gipuzkoako Udalak	154	31,49
Arabako Udalak	101	20,65
Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak	21	4,29
Arabako administrazio batzarrak	6	1,23
Guztira	489	100

Autonomia Erkidegoko udalen kontra aurkeztutako kexak

Arabako Udalak	Zenbat
Gasteiz	73
Labastida	3
Legutio	3
Laudio	3
Oion	3
Amurrio	2
Oka-Iruña	2
Okondo	2
Aramaio	1
Aiara	1
Kuartango	1
Elburgo	1
Biasteri	1
Leza	1
Urizaharra	1
Agurain	1
Zigoitia	1
Zuia	1
Guztira	101

Arabako administrazio batzarrak	Zenbat
Lezama	2
Elosu	1
Kuartango-Etxebarri	1
Menagarai	1
Langraitz	1
Guztira	6

Bizkaiko Udalak	Zenbat
Bilbao	73
Getxo	13
Barakaldo	12
Portugalete	10
Basauri	9
Bermeo	9
Leioa	7

Santurtzi	6
Abanto-Zierbena	5
Sondika	4
Arrieta	3
Mungia	3
Sestao	3
Zalla	3
Amorebieta-Echano	2
Bakio	2
Durango	2
Erandio	2
Ermua	2
Errigoiti	2
Galdakao	2
Gernika-Lumo	2
Guenes	2
Lekeitio	2
Muskiz	2
Orduña	2
Trapagaran	2
Abadiño	1
Alonsotegi	1
Areatza	1
Atxondo	1
Barrika	1
Busturia	1
Karrantza	1
Elorrio	1
Gorliz	1
Loiu	1
Maruri	1
Mundaka	1
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	1
Ondarroa	1
Orozko	1
Plentzia	1
Urduliz	1
Zamudio	1
Zaratamo	1
Zeanuri	1
Zierbena	1
Guztira	207

Gipuzkoako Udalak	Zenbat
Donostia	67
Irun	10
Errenteria	8
Tolosa	8
Pasaia	6
Hondarribia	5
Lasarte-Oria	5
Andoain	4
Arrasate	4
Beasain	3
Eibar	3
Mutriku	3
Zarautz	3
Getaria	2
Oiartzun	2
Orio	2
Usurbil	2
Aduna	1
Aia	1
Astigarraga	1
Ataun	1
Bergara	1
Berrobi	1
Eskoriatza	1
Gaztelu	1
Hernani	1
Irura	1
Lazkao	1
Leaburu	1
Leintz-Gatzaga	1
Oñati	1
Soraluze	1
Urnieta	1
Zizurkil	1
Guztira	154

Euskal Autonomia Erkidegoko (Eusko Jaurlaritza) Administrazio orokorraren kontra aurkeztutako kexak alorren arabera

Eusko Jaurlaritzako Administrazioaren iharduera edo hutsegiteen kontra aurkeztutako kexei dagokienez, berriro ikusten da alor jakin batzuk direla

erreklamazio gehien jasotzen dituztenak. Kexen artetik %76 Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza, Hezkuntza eta Osasuna eta Gizarte Ongizatea alorretako gaiei dagozkie.

Horien artean, eta erreklamazioen arabera Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza alorra nabarmentzen da. Bertan 309 kexa jaso dira, iaz baino hiru aldiz gehiago, beraz. Ondoren Hezkuntza dago 102 erreklamaziorekin.

Herrizaingo alorrak orain arte kexa kopuru handi bat jasotzen bazuen ere, 1996an aurreko urtean baino %25 gutxiago jaso ditu.

	Zenbat kexa jaso	**%**
Funtzio P. eta Adm. Antol.	309	49,28
Hezkuntza	102	16,27
Osasuna eta G. Ongizatea	68	10,85
Herrizaingoa	50	7,97
Hirigintza eta Etxebizitza	43	6,86
Herri-Lanak eta Zerbitzuak	21	3,35
Kultura eta Elebitasuna	14	2,23
Ogasuna	6	0,95
Nek., Ind., Merk. eta Turismoa	5	0,80
Ingurugiroa	5	0,80
Lana eta Gizarte Segurantza	2	0,32
Justizia	2	0,32
Guztira	627	100

(Ikus 6. diagrama 311. orrialdean)

Eusko Jaurlaritzaren kontrako kexak sailen arabera banatuak

Eusko Jaurlaritzako Sail ezberdinen iharduerengatik aurkeztu diren kexen herena 1996. urtean Osasun Sailaren kontra zuzendu dira. Hezkuntza Sailak ere erreklamazio asko jaso ditu, guztien laurdena hain zuzen, halere iazko urtearekin konparatuz egon den kopuru igoera ez da Osasun Sailean bezain deigarria gertatu (%160), edo Lurraldearen Antolakuntza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailean bezainbatekoa, hemen biderkatu egin baitira.

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren kasuak aipamen berezia merezi du, 1995ean 18 kexa edukitzetik 1996an 79 edukitzera pasatu delako. Ohizkoa ez den hazkuntza horren arrazoia hau da: Arartekoak fundazio baten kontra aurkeztu ziren hainbat erreklamazio ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzaren Fundazioen Zaindaritzari bidali zizkion kexa horiek. Zaindaritza horrek azkenean Arartekoak defenditutako argudioekin bat zetorren ebazpena eman zuen.

	Zenbat kexa jaso	%
Osasuna	208	33,17
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	165	26,32
Justizia, Ekonomia, Lan eta G. Segurantza	79	12,60
Herrizaingoa	68	10,85
Lurr. Antolam., Etxeb. eta Ingurugiroa.	46	7,34
Garraioak eta Herri-Lanak	23	3,66
Ogasuna eta Administrazio Publikoak	19	3,03
Industria, Nekazaritza eta Arrantzua	10	1,59
Kultura	7	1,12
Merkataritza, Kontsumoa eta Turismoa	2	0,32
Guztira	627	100

(Ikus 7. diagrama 312. orrialdean)

Foru administrazioen kontrako kexak alorren arabera

Foru aldundietan, aurreko urtealdietan bezala, lurralde historikoetako administrazioen kontra Arartekoari aurkeztu zaizkion kexa gehienak eragiten dituena Ogasun alorra da, erreklamazioen %40 jasotzen dituelarik. Atal honetan Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Ogasunak dira buru, hurrenez hurren 34 eta 32 kexa jaso dituztelarik.

Osasuna eta Gizarte Ongizatearen eta Funtzio Publikoa eta Administrazio Antolakuntzaren alorrak dira berriro ere garrantzitsuenak, foru erakundeen jarduera ikertzeko orduan alor horretako espedienteak izan baitira ugarienak. Aipatu behar da Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan Osasun eta Gizarte Ongizate alorrari dagozkion erreklamazioak Ogasun alorrari berari dagozkionak ere baino gehiago direla.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ogasuna	16	32	34	82	40
Osasuna eta G. Ongizatea	9	38	10	57	27,80
Fun. P. eta Adm. Ant.	12	14	6	32	15,61
Herri-Lanak eta Zerbitzuak	1	10	5	16	7,80
Nek., Ind., Merk. eta Tur.	2	3	1	6	2,92
Ingurugiroa	1	1	2	4	1,95
Kultura eta Elebitasuna	-	1	1	2	0,98
Hezkuntza	-	-	2	2	0,98
Lana eta G. Segurantza	-	-	2	2	0,98
Hirigintza eta Etxebizitza	2	-	-	2	0,98
Guztira	43	99	63	205	100

(Ikus 8. diagrama 313. orrialdean)

Toki administrazioaren kontrako kexak alorren arabera

Aurreko urteetan bezala, toki administrazioen ihardueren kontra aurkeztu diren kexak nahiko era berdinean banatzen dira udalek eskuduntza garrantzitsuak dauzkaten alorren artean. Hori gertatzen da ondoko alorrekin: Hirigintza eta Etxebizitza, Ingurugiroa, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza, Ogasuna eta Herri-Lanak eta Zerbitzuak. Ia alor guztietan gehitu da kexa kopurua, eta aurrekoak dira gehien jaso dituztenak.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Hirigintza eta Etxebizitza	15	41	30	86	18,38
Ingurugiroa	14	45	24	83	17,74
Fun. P. eta Adm. Anto.	13	38	21	72	15,38
Ogasuna	24	27	20	71	15,17
Herri-Lan. eta Zerb.	17	25	25	67	14,32
Herrizaingoa	19	19	9	47	10,04
Osasuna eta Giz. Ong.	3	8	15	26	5,56
Kultura eta Elebitasuna	1	1	10	12	2,56
Nek., Ind., Merk. eta Tur.	1	2	-	3	0,64
Hezkuntza	-	1	-	1	0,21
Guztira	107	207	154	468	100

(Ikus. 9. diagrama 314. orrialdean)

Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen kontrako kexak

Orain arte aztertu ditugun foru, toki eta Eusko Jaurlaritzaren administrazioen kontrako kexez gain, Arartekoaren ikerketa esparruari dagozkion beste administrazio batzuen kontrako kexak ere jaso dira. Zuzenbide publikoko ente eta erakunde publikoak, bazkundeak (erakunde kolegiatuak), Eusko Legebiltzarra, etabar dira horiek.

Erakunde publikoak	21
Estatuko Administrazioa	13
Beste erakunde batzuk	4
Eusko Legebiltzarra	2
Guztira	40

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuen kontrako kexak

Ararteko erakundea arautzen duen 3/85 Legeak 9.2 artikuluan aurrikusten duenez, Justizia Administrazioaren funtzionamendua helburu duten kexak kasu bakoitzean ikertzeko eta ebazteko ahalmena duen erakunde eskudunari pasatuko zaizkio.

Horregatik, euskal administrazio publikoen kontrako kexak kontatzerakoan kexa multzo hori alde batera utzi behar da, beste aginpide baten funtzionamenduaren kontra doazelako.

Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zaizkion beste txostenetan adierazi den bezala, erakundeak kasu horietan Ministerio Fiskalari, edo, hala dagokionean, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiari igortzen dizkio, ikerketa lana beraiek egin eta burututako azterlanen berri erakunde honi eman diezaion.

1966ko urtealdian Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuen funtzionamendua auzitan jartzen zuten 35 kexa espediente bideratu dira.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuen funtzionamenduaren kontrako kexak 35

4.4. **LURRALDEEN ARABERAKO ESTATISTIKA**

Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleak izan dira 1996. urtean ere Ararteko erakundearen aurrean kexa gehien aurkeztu dituztenak. Guztira 746 aurkeztu dituzte, 1995. urteari dagokionez %41,29ko igoerarekin.

Ondoren, erreklamazioetan ia %60ko igoerarekin Gipuzkoa dago 448 kexarekin, eta Arabako Lurralde Historikotik bi gutxiago aurkeztu dira, 446 beraz, aurreko urtearen aldean %35,98ko igoerarekin.

Lurralde banaketa kexen jatorriaren arabera

	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	Joera
Bizkaia	288	284	293	332	376	349	528	746	+%41,29
Gipuzkoa	188	195	244	241	250	234	281	448	+%59,43
Araba	97	125	158	201	182	160	328	446	+%35,98

(Ikus 10. diagrama 315. orrialdean)

Kexen lurralde banaketa 10.000 biztanleko

Kexen lurralde historikoaren araberako jatorriaren azterketa konparatua egiteko, probintzia bakoitzetik jasotako kexen kopurua absolutua probintzia

bakoitzak duen biztanle kopuruarekin konparatuko dugu. Ondorengo koadroan kexen lurralde banaketa egiten da 10.000 biztanleko unitatea kontuan harturik.

Konparaketa honetan ikus daitekeenez, Araba da berriro ere kexa portzentaia altuena duena, Autonomia Erkidegoko 10.000 biztanleko batez besteko kexen desbiderapen handi batekin, %7,98 baita. Alabaina, 10.000 biztanleko unitatea kontuan hartuaz, Bizkaian eta Gipuzkoan ere gora egin da, bigarren hau Bizkaiaren aurretik bigarren postura pasatu delarik.

	1989	**1990**	**1991**	**1992**	**1993**	**1994**	**1995**	**1996**
Araba	4,3	4,5	5,8	7,4	6,7	5,9	11,59	15,92
Bizkaia	3,3	2,7	3,6	3,5	3,7	3,5	4,54	6,55
Gipuzkoa	3	2,9	2,5	2,8	3,3	3	4,11	6,60

(Ikus 11. diagrama 316. orrialdean)

Kexen banaketa lurralde bakoitzean

Ararteko erakundean 1996an kexak aurkeztu dituzten hiritarren jatorriari dagokionez, berriro ere hiriburuen nagusitasuna gailentzen da.

Hiritarren jokaera, ordea, ez da berdina hiru lurraldeetan. Arabako kasuan egindako erreklamazioen %87a gasteiztarren eskutik etorri den bitartean, Bizkaian eta Gipuzkoan kexen erdiak hiriburutik kanpoko beste hiri edo herri batzuetako hiritarrek aurkeztu dituzte.

Gipuzkoako kasuan aipatu behar da hiriburuaren pisua asko handitu dela egindako erreklamazio kopuruari dagokionean. Dudarik gabe, uztailean zuzeneko atentziorako bulegoa Donostian ireki izanak eragin du kexa kopuru gehiketa hori, ia bikoiztu egin delarik.

Araba	**Zenbat**	**%**
Gasteiz	388	87
Beste udalerriak	58	13
Guztira	446	100

Bizkaia	**Zenbat**	**%**
Bilbao	309	41,42
Beste udalerriak	437	58,58
Guztira	746	100

Gipuzkoa	Zenbat	%
Donostia	201	44,86
Beste udalerriak	247	55,14
Guztira	448	100

(Ikus 12. diagrama 317. orrialdean)

EAE kanpotik iritsitako kexak

Ohizkoa den bezala, badago Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko hiritarrek aurkeztutako kexa kopuru txiki bat. Aurten kopuru horrek gora egin du eta 34 kexa aurkeztu dira, horietatik 30 Estatuko beste zona batzuetatik iritsiak eta 4 atzerrikoak direlarik.

Beste autonomia erkidego batzuetatik igorriak	Zenbat
Errioxako A.E.	8
Madrilgo A.E.	7
Nafarroako F.E.	5
Gaztela eta Leongo A.E.	4
Aragoiko A.E.	2
Andaluziako A.E.	1
Asturiasko Printzerria	1
Kantabriako A.E.	1
Melilla	1
Guztira	30

Beste Estatu batzuetatik igorriak	Nº
Frantzia	3
Estatu Batuak	1
Guztira	4

4.5. **PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA**

Ekitaldi honetan 1.041 erreklamaziori buruzko azterketak eta ikerketak burutu dira, Arartekoak zegokien ebazpena eman duelarik. Burutu den kexa espediente kopurua aurreko urtekoa baino askoz handiagoa izan da, hain zuzen %81 burutu baitira. Erreklamazio horietako gehienak 1996an aurkeztuak ziren, baina 384 aurreko urteetatik zetozen, aurkeztutako urtean osorik bideratu ezinda zeudenak alegia.

Arartekoak 1996an burutu dituen ikerketen ondorioz 1.041 erreklamaziotatik 452 kasutan eragindako administrazioaren kontrako eta kexa aurkezleen aldeko ebazpena eman du. Horrela bada, kexagileen artetik %43,42k arrazoiarekin jo zuen Arartekora.

	Zenbat	Kexaduna zuzen	%	Kexaduna oker	%	Besterik	%
1996an burutuak	1.041	452	43,42	489	46,97	100	9,61

(Ikus 13. diagrama 318. orrialdean)

1996an burututako espedienteak urteen arabera banatuak

1996an erabat bideratu diren 657 kexekin batera, aurreko urteetan aurkeztuta zeuden 384 espedienteren bideraketa amaitu da. Multzo honetako kexa gehienak 1995ean aurkeztuak ziren.

1992	5
1993	18
1994	33
1995	328
1996	657
Guztira 1996an burututako espedienteak	1.041

1996an aurkeztutako kexetatik burutuak eta tramitean daudenak

Euskal administrazioren baten kontra 1996an aurkeztu ziren 1.315 kexen artetik %50 urte honetan bertan tramitatu eta itxi dira; aldiz, beste erdiek beraien bidea jarraitzen zuten abenduaren 31n. Azken kopuru horretan egun horretara arte irekitako espediente guztiak sartzen dira, noski.

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Fun. eta. Adm. Ant.	169	227	133	81	13
Ogasuna	69	91	38	53	-
Osasuna eta G. Ongizatea	92	50	13	34	3
Hirig. eta Etxeb.	70	59	11	43	5
Hezkuntza	36	66	16	50	-
Herri-Lan. eta Zerb.	62	40	7	25	8
Herrizaingoa	59	38	12	16	10
Ingurugiroa	64	20	13	7	-
Justizia	22	37	12	7	18
Kultura eta Eleb.	10	18	8	10	-
Nek., Ind., Merk. eta Tur.	3	9	3	6	-
Lana eta G. Segurantza	2	2	1	1	-
Guztira	658	657	267	333	57

(Ikus 14.etik 17.era bitarteko diagramak 319-322. orrialdeetan)

Euskal Autonomia Erkidegoko (Eusko Jaurlaritza) Administrazio orokorraren kontrako kexen prozedura estatistika

Eusko Jaurlaritza bezala ezagutzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren kontra 1996an aurkeztutako kexen artetik 367tan eman du Arartekoak ebazpena. Zifra hori erreklamazio guztien %58 da. Ebazpen horietatik %45,50ean hiritarrek aurkeztutako argudioak zuzenak direla iritzi dio erakundeak.

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak alorrez alor. Eusko Jaurlaritza

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Fun. P. eta Adm. Ant.	115	194	120	65	9
Hezkuntza	36	66	16	50	—
Osasuna eta G. Ongizatea	34	34	13	18	3
Herrizaingoa	28	22	4	8	10
Hirig. eta Etxebi.	22	21	5	12	4
Herri-Lan. eta Zerbitzuak	10	11	1	5	5
Kultura eta Eleb.	3	11	6	5	—
Ogasuna	2	4	1	3	—
Nek., Ind., Merk. eta Turi.	2	3	1	2	—
Ingurugiroa	5	—	—	—	—
Justizia	2	—	—	—	—
Lana eta G. Segurantza	1	1	—	1	—
Guztira	260	367	167	169	31

(Ikus 18. eta 19. diagramak 323-324. orrialdeetan)

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak sailez sail. Eusko Jaurlaritza

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Osasuna	94	114	55	52	7
Hez., Unib. eta Ikerketa	70	95	24	69	2
Jus., Ek., Lan eta G. Seg.	6	73	70	2	1
Herrizaingoa	36	32	7	15	10
Lurr. Ant., Etxeb. Ing.	21	25	5	16	4
Garraioak eta Herri-Lanak	11	12	1	6	5
Ogasuna eta Adm. Publikoa	11	8	3	3	2
Ind., Nek. eta Arrantza	8	2	1	1	—
Kultura	3	4	1	3	—
Merk. Kon., eta Tur.	—	2	—	2	—
Guztira	260	367	167	169	31

(Ikus 20. eta 21. diagramak 325-326. orrialdeetan)

Foru Administrazioen prozedura estatistika

Ararteko erakundean foru administrazioen kontra 1996an aurkeztu ziren erreklamazioen artetik 78ri buruzko ebazpena eman da urte berean, hau da, guztien artetik %38ri buruzkoa.

Portzentaia hau administrazio guztiak hartuta ateratzen dena baino txikiagoa da, baina foru aldundiak banan-banan hartzen baditugu, Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan bakarrik gertatzen da desbideratze garrantzitsua, urte barruan kexen artetik %30 bakarrik ebatzi direlako. Eta hori horrela gertatzen bada Foru Aldundi horretako Gizarte Ekintzarako Sailak Arartekoaren informazio eskariei erantzuteko orduan edukitzen duen gehiegizko eta ezohizko atzerapenagatik izaten da; horregatik atzeratzen da erakunde honetan sail horri dagozkion kexen tramitazioa.

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Foru Administrazioak

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Bizkaia	69	30	10	19	1
Gipuzkoa	34	29	13	16	-
Araba	24	19	6	13	-
Guztira	127	78	29	48	1

(Ikus 22.etik 24.era bitarteko diagramak 327-329. orrialdeetan)

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak alorrez alor. Foru Administrazioak

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Ogasuna	38	44	23	21	-
Osasuna eta G. Ongizatea	46	11	1	10	-
F. P. eta Adm. Ant.	22	10	2	7	1
Herri-Lan. eta Zerbitzuak	11	5	1	4	-
Nek., Ind., Merk., Tur.	2	4	-	4	-
Ingurugiroa	3	1	1	-	-
Kultura eta Eleb.	1	1	-	1	-
Herrizaingoa	1	1	-	1	-
Lana eta G. Segurantza	1	1	1	-	-
Hirigintza eta Etxebizitza	2	-	-	-	-
Guztira	127	78	29	48	1

(Ikus 25. eta 26. diagramak 330-331. orrialdeetan)

Toki Administrazioaren prozedura estatistika

Gure erkidegoko toki administrazioei dagokienez, 1996an aurkeztutako kexen artetik 188 ebatzi eta eta erreklamatzaileei heren batean baino gehiagotan (%34,04) eman zaie arrazoia.

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Arabako udalak

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Gasteiz	35	38	15	23	-
Labastida	2	1	-	-	1
Legutio	2	1	-	1	-
Laudio	2	1	1	-	-
Oion	2	1	1	-	-
Amurrio	-	2	-	2	-
Oka-Iruña	2	-	-	-	-
Okondo	1	1	1	-	-
Aramaio	1	-	-	-	-
Aiara	1	-	-	-	-
Kuartango	1	-	-	-	-
Elburgo	-	1	-	1	-
Biasteri	1	-	-	-	-
Leza	1	-	-	-	-
Urizaharra	1	-	-	-	-
Agurain	-	1	1	-	-
Zigoitia	1	-	-	-	-
Zuia	-	1	-	1	-
Guztira	53	48	19	28	1

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Arabako administrazio batzarrak

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker
Lezama	1	1	-	1
Kuartangoko Etxebarri	1	-	-	-
Elosu	1	-	-	-
Menagarai	-	1	-	1
Langraitz	1	-	-	-
Guztira	4	2	0	2

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Bizkaiko udalak

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Bilbao	44	29	9	18	2
Getxo	9	4	1	3	-
Barakaldo	7	5	3	2	-
Portugalete	6	4	1	3	-
Basauri	2	7	2	5	-
Bermeo	4	5	4	1	-
Leioa	5	2	-	1	-
Santurtzi	5	1	-	1	-
Abanto-Zierbena	4	1	-	1	-
Sondika	2	2	-	1	1
Arrieta	3	-	-	-	-
Mungia	1	2	1	1	-
Sestao	1	2	-	1	1
Zalla	2	1	1	-	-
Amorebieta-Echano	1	1	1	-	-
Bakio	1	1	1	-	-
Durango	2	-	-	-	-
Erandio	2	-	-	-	-
Ermua	2	-	-	-	-
Errigoiti	2	-	-	-	-
Galdakao	2	-	-	-	-
Gernika-Lumo	1	1	-	1	-
Guenes	1	1	-	1	-
Lekeitio	2	-	-	-	-
Muskiz	-	2	-	2	-
Orduña	1	1	-	-	1
Trapagaran	2	-	-	-	-
Abadiño	-	1	1	-	-
Alonsotegi	-	1	1	-	-
Areatza	-	1	-	1	-
Atxondo	-	1	-	1	-
Barrika	1	-	-	-	-
Busturia	-	1	1	-	-
Karrantza	-	1	1	-	-
Elorrio	1	-	-	-	-
Gorliz	1	-	-	-	-
Loiu	1	-	-	-	-
Maruri	1	-	-	-	-
Mundaka	1	-	-	-	-

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Munitibar-Arbatzegi					
Gerrikaitz	1	-	-	-	-
Ondarroa	-	1	1	-	-
Orozko	1	-	-	-	-
Plentzia	-	1	1	-	-
Urduliz	1	-	-	-	-
Zamudio	-	1	1	-	-
Zaratamo	-	1	-	1	-
Zeanuri	-	1	1	-	-
Zierbena	-	1	-	1	-
Guztira	123	84	33	46	5

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Gipuzkoako udalak

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Donostia	49	18	3	15	-
Irun	3	7	1	6	-
Errenteria	4	4	2	2	-
Tolosa	5	3	-	2	1
Pasaia	6	-	-	-	-
Hondarribia	4	1	-	1	-
Lasarte-Oria	2	3	1	2	-
Andoain	2	2	-	2	-
Arrasate	4	-	-	-	-
Beasain	1	2	1	1	-
Eibar	-	3	1	2	-
Mutriku	2	1	-	1	-
Zarautz	2	1	1	-	-
Getaria	1	1	-	1	-
Oiartzun	2	-	-	-	-
Orio	1	1	-	1	-
Usurbil	1	1	-	1	-
Aduna	-	1	-	1	-
Aia	1	-	-	-	-
Astigarraga	-	1	-	1	-
Ataun	1	-	-	-	-
Bergara	-	1	-	1	-
Berrobi	-	1	1	-	-

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Eskoriatza	-	1	1	-	-
Gaztelu	1	-	-	-	-
Hernani	-	1	-	1	-
Irura	1	-	-	-	-
Lazkao	1	-	-	-	-
Leaburu	1	-	-	-	-
Leintz-Gatzaga	1	-	-	-	-
Oñati	1	-	-	-	-
Soraluze	1	-	-	-	-
Urnieta	1	-	-	-	-
Zizurkil	1	-	-	-	-
Guztira	100	54	12	41	1

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Toki administrazioa alorrez alor

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Hir. eta Etxeb.	48	38	6	31	1
Ingurugiroa	63	20	13	7	-
F. P. eta Adm. Ant.	44	28	10	14	4
Herrizaingoa	28	43	15	28	-
Herri-Lan. eta Zerb.	45	22	5	15	2
Herrizaingoa	31	16	9	7	-
Osasuna eta G. Ongizatea	14	12	2	10	-
Kultura eta Eleb.	6	6	2	4	-
Nek., Ind., Merk. eta Tur.	-	3	2	1	-
Hezkuntza	1	-	-	-	-
Guztira	280	188	64	117	7

(Ikus 27. eta 28. digaramak 332-333. orrialdeetan)

Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak alorrez alor. Toki administrazioaren beste sail batzuk

	Bid.	Buk.	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker	Besterik
Herri-Lan. eta Zerb.	7	3	-	1	2
Osasuna eta G. Segurantza	3	1	-	1	-
F. P. eta Adm. Ant.	1	1	-	-	1
Ogasuna	1	1	-	1	-
Nek., Ind., Merk. eta Tur.	-	1	-	1	-
Ingurugiroa	1	-	-	-	-
Hirigintza eta Etxeb.	1	-	-	-	-
Guztira	14	7	0	4	3

4.6. **ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA**

Ararteko erakundean 1996an aurkeztu diren kexen azterketa soziologikoari erreparatuaz ikus daitekeenez, erreklamazioak gehitzearekin batera, erreklamatzaileen sexuari dagokionez ere aldaketa batzuk gertatzen dira. Emakumeen portzentaia %7 igo da, aurkeztutako kexen %36,74an jarri direlarik. Gizonena %5,05 jaitsi eta %46,89an jarri da, azken urteetan lehen aldiz %50etik behera geratuaz.

Aurkeztu diren kexa guztiak hartuta erreklamazioak aurkeztu dituzten gizonen eta emakumeen portzentaiak ez du guztiz argitzen generoaren araberako portaera, eta horregatik gainetik bada ere datuak alorrez alor aztertu behar dira.

Arartekoaren iharduera alorrei erreparatzen badiegu emaitza hau daukagu: hiru alorretan bakarrik, hain zuzen Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolaketa, Osasuna eta Gizarte Ongizatea eta Hirigintza eta Etxebizitza alorretan bakarrik aurkeztu dituzte emakumeek gizonek baino kexa gehiago. Lehenengo kasuan aldea handia da: emakume erreklamatzaileak %53 eta gizonak %38. Osasun eta Gizarte Ongizatean kexen artetik %47 emakumeek aurkeztu dituzte, eta %41 gizonek. Azkenik, Hirigintza eta Etxebizitzaren kasuan emakume eta gizon erreklamatzaileen arteko aldea ez da %1era iristen.

Beste iharduera alor guztietan, aldiz, gizonek emakumeek baino kexa gehiago aurkeztu dituzte. Herrizaingoari dagokionez portzentaian dagoen 44 puntuko aldea gizon erreklamatzaileen %71ren eta emakumen %23aren batez bestekoa da. Ogasunean gizonek aurkeztu dituzten kexak emakumeenak baino 27 puntu gorago daude. Herri-Lan eta Zerbitzuetan eta Hezkuntzan gizonen aldeko diferentzia 13 eta 11 puntukoa da hurrenez hurren.

Sexua	Zenbat	%
Gizonak	785	46,89
Emakumeak	615	36,74
Taldeak	272	16,25
Izenik gabeak	2	0,12

(Ikus 29. diagrama 334. orrialdean)

Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko azterketa egiten bada, euskaraz aurkeztutako kopuruak bere-berean jarraitzen duela ikusten da.

Kexa horietako asko euskararen aldeko taldeek aurkeztu dituzte eta Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legea hautsi duten kasu batzuk zuzentzeko bitartekaritza eskatu diote Arartekoari.

Hiritarrari erantzuteko orduan, berak aukeratu duen hizkuntza erabiltzeko irizpidea dauka Ararteko honek, beti ere gure autonomia erkidegoan hizkuntzaren normalizaziorako indarrean dauden lege xedapenak beteaz.

Hizkuntza	Zenbat	%
Gazteleraz	1.584	94,62
Euskaraz	69	4,12
Elebietan	21	1,26

(Ikus 30. diagrama 335. orrialdean)

Azkenik, kexak aurkezteko moduari dagokionez, aldaketa oso nabarmena egon da. Orain arte gutuna bazen ere erreklamazioa aurkezteko biderik egokiena, orain ez da horrela, eta 1996an gehiago izan dira kexa aurkezterakoan pertsonalki Arartekoaren atentzio zuzeneko bulegoetara jo dutenak. Erreklamatzaileen %50,6k nahiago izan zuten erakundeko bulegoetan kexa gauzatzea, aldiz %43,6k posta eta mezularitza zerbitzuak erabili dituzte. Aurreko urtean faxez kexa aurkeztea berrikuntza zen bezala, aurten ohizkoagoa izaten hasi da, eta kexen %5,74 bide horretatik iritsi da Arartekoarengana.

Jasotzeko modua	Zenbat	%
Erakundearen bulegoetan	847	50,6
Postaz	730	43,6
Faxez	96	5,74
Telefonoz	1	0,06

4.7. **HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUAK**

Gasteizen lehendik zegoenaz gain, 1996ko uztailean eta irailean ireki ziren Bilboko eta Donostiako Arartekoaren atentzio zuzeneko bulegoak. Bulego berriak Ararteko erakundea hiritarrengana hurbiltzeko filosofiarekin ireki ziren, euskal administrazio publikoarekin edo horren menpeko zerbitzu publikoren batekin arazoak zeuzkatenek horiei laguntzeko betekizuna daukan zerbitzu honetara erraz jo zezaten.

Erantzuna espero zena edo are hobea izan da. Atentzio zuzeneko bulego berriek eduki duten harrera onaren bidez, horiek urteko bigarren seihilabetean ireki diren arren, bulegoetan jaso diren bisiten kopurua %165ean gehitu da aurreko urtearekin konparatuaz. Guztira 1.452 bisita jaso dira, horien artetik %40 Gasteizko bulegoan, %37 Bilbokoan eta %23 Donostiakoan.

Hiritarrentzako informazio zerbitzuetara bisitak

Hiria	Bisitak	%
Gasteiz	575	39,60
Bilbao	537	36,98
Donostia	340	23,42
Guztira	1.452	100

Informazio bulegoetara jo duten pertsonen generoa aintzat hartuaz bisitetan ez dago alde handirik: gizonak emakumeak baino %2,5 gehiago izan dira.

Hiritarrentzako informazio zerbitzuetan jasotako bisitak sexuaren arabera banatuak

	Gasteiz	Bilbao	Donostia	Guztira	%
Gizonak	270	237	187	694	47,80
Emakumeak	283	252	122	657	45,25
Bikoteak	14	31	13	58	3,99
Taldeak	8	17	18	43	2,96

(Ikus 31. diagrama 336. orrialdean)

Jasotako bisita guztietatik 670 (%46,14) kexa batean gauzatu ziren.

Kexa batean gauzatu ez ziren gainerantzeko bisitei dagokienez, batzuek Arartekoaren iharduera eremua gainditzen zuten, eta horregatik ezin ziren kexa

bezala bideratu; beste kasu batzetan agiri gehiago aurkeztu edo zegozkien administrazio erakundeen aurrean aldez aurretik gestioak egin beharra zegoen, eta azkenik, planteatutako gaietan ez zegoen kexa batean gauzatzeko funtsik, bisita lehendik aurkeztutako kexa espedienteari zor zitzaion, edo hiritarrak zein pauso jarraitu behar ziren ezagutu nahi zuen.

Kexa batean gauzatutako bisitak

	Zenbat	%
Gasteiz	252	43,83
Bilbao	223	41,53
Donostia	195	57,35
Guztira	670	46,14

4.7.1. GASTEIZKO HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA

Zerbitzu hau aurreko urtean baino apur bat gehiago erabili da. Gehikuntza %5,12koa izan da aurreko urteekin konparatuaz.

Urte honetan 575 bisita jaso dira, hilean, beraz, 47,92 batez beste. Emakumeek gizonek baino bisita gehiago egin dituzte.

Zenbat pertsona etorri ziren

	Zenbat	%
Gizonak	270	46,96
Emakumeak	283	49,22
Bikoteak	14	2,43
Taldeak	8	1,39
Guztira	575	100

Adinari dagokionez, pertsona gazteenak (23 urtez azpitik) eta zaharrenak (60 urtez goitik) izan dira erakundera pertsonalki gutxien jo dutenak, guztien artean %11,66 osatu dutelarik. Gainerantzekoak ondoko koadroan sartzen diren adin tarteetan (24-59 urte) daudenek burututako bisitak izan dira, 35-46 adin tartekoak eragin handiagoa eduki duelarik (%33).

Bisiten banaketa adin taldeen arabera

Adina	Zenbat	%
23 urte arte	22	3,83
24-34	144	25,04
35-46	195	33,91
47-59	147	25,57
60 edo gehiago	45	7,83
Besterik	22	3,83
Guztira	575	100

(Ikus 32. diagrama 337. orrialdean)

Urtean zehar burututako bisiten banaketari dagokionez, martxoan jaso ziren bisita gehienak, eta zerbait gutxiago ekainean eta urrian. Bestalde, udaldian eta neguko oporretan beherakada gertatzen da.

Bisiten banaketa hilabeteen arabera

Urtarrila	44
Otsaila	66
Martxoa	52
Apirila	36
Maiatza	50
Ekaina	60
Uztaila	66
Abuztua	20
Iraila	40
Urria	59
Azaroa	49
Abendua	33
Guztira	575

Bisiten jatorri geografikoari dagokionez, berriro ere erakundearen egoitza Gasteizen egoteak daukan eragina azpimarratu behar da. Bisita guztien %71 eta Arabakoen %88,7 Gasteizko jendearenak izan dira.

Lurralde historikoen arabera, bisita gutxien egin digutenak gipuzkoarrak izan dira %5ekin, eta jarraian bizkaitarrak daude %13,6rekin. Kopururik handiena Arabari dagokio %80rekin.

Bisitarien jatorri geografikoa lurralde historikoen arabera

	Zenbat	%
Araba	460	80
Bizkaia	78	13,5
Gipuzkoa	29	5,1
Besterik	8	1,4
Guztira	575	100

4.7.2. DONOSTIAKO HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA

Bulego hau joan den uztailean ireki zitzaien hiritarrei. Bost hilabete hauetan 340 bisita jaso dira bertan, hilean, batez beste, beraz, 68 bisita. Guzti horietatik 195 kexa batean gauzatu ziren, beraz, guztien artetik %57,35.

Zenbatek jo duten bertara

	Zenbat	%
Gizonak	187	55
Emakumeak	122	35,88
Taldeak	18	5,29
Bikoteak	13	3,83
Guztira	340	100

Adinari dagokionez, 35 eta 46 urte arteko pertsonak izan dira sarrien bertara jo dutenak. Gutxien jo dutenak, berriz, gazteak izan dira.

Bisiten banaketa adin tarteen arabera

Adina	Zenbat	%
23 urte arte	14	4,12
24-34	49	14,41
35-46	110	32,35
47-59	95	27,94
60 edo gehiago	72	21,18
Guztira	340	100

(Ikus 32. diagrama 337. orrialdean)

Bulegoa hiritarrentzako zabalik egon zen hilabeteen arabera bisitak aztertzen baditugu, ikusten da uztailean eta urrian burutu zirela gehienak.

Bisiten banaketa hilabeteen arabera

Uztaila	82
Iraila	52
Urria	90
Azaroa	72
Abendua	44
Guztira	340

4.7.3. BILBOKO HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA

Bulego hau 1996ko irailean ireki zen hiritarrentzat. Urtea amaitu arte igarotako lau hilabeteetan 537 bisita jaso dira, hilean, beraz, batez beste 134,25. Guzti horien artetik 223 kexa batean gauzatu ziren, guztien artetik %41,5, beraz.

Bulegoa bisitatu zuten pertsonei dagokienez, 15 emakume gehiago pasatu ziren gizonen aldean, hau da: %47 emakumeak izan ziren eta %44 gizonak.

Zenbatek jo duten bertara

	Zenbat	%
Gizonak	237	44
Emakumeak	252	47
Bikoteak	31	6
Taldeak	17	3
Guztira	537	100

Bulegora bisita egin duten pertsonei dagokienez, 23 urtez azpikoak salbu, horiek gutxitan joan baitira, eta 60tik gorakoak, besteak baino sarriago joan baitira bulegora, gainerantzeko adin tarteetakoak antzeko sarritasunarekin joan dira.

Bisiten banaketa adin tarteen arabera

Adina	Zenbat	%
23 urte arte	15	3
24-34	102	19
25-46	119	22
47-59	118	22
60 edo gehiago	183	34
Guztira	537	100

(Ikus 32. diagrama 337. orrialdean)

Bulegoa hiritarrentzako zabalik egon zen hilabeteen arabera bisitak aztertzen baditugu, bisita gehienak urrian jaso zirela ikusten da.

Bisiten banaketa hilabeteen arabera

Iraila	157
Urria	170
Azaroa	127
Abendua	83
Guztira	537

4.8. **OFIZIOZKO KEXAK**

Hiritarrek aurkeztuta Arartekoak aztertu dituen kexez aparte, gure erakundeak bere kasa ikertu ditu euskal administrazio publikoen ustezko jarduera irregularrak gerta zitezkeen kasu batzuk; beste kasu batzuetan, berriz lankidetza edo zerbitzu berri bat eskaintzeko aukera ikusi denean ekin dio Arartekoak bide horri. Ofiziozko iharduerak dira hauek, Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak 17.1 artikuluan Arartekoari ezarritakoak, eta aukera ematen diotenak bere ikerlana hasteko, Administrazioaren bidegabeko ekintzak edo utzikeriak kaltetutako hiritarren erraklamazioei itxaron gabe.

Joan den 1996an Arartekoak 86 ofiziozko kexaren tramitazioari ekin zion, aurreko urtean baino bi aldiz eta 1994ean baino lau aldiz gehiago beraz.

Arartekoaren ofiziozko kexek eragin handiagoa izan dute bere iharduera alor batzuetan. Osasuna eta Gizarte Ongizatea, Justizia, Herrizaingoa eta Kultura eta Elebitasuna izan dira Arartekoaren ofiziozko kexa gehien eragin dituztenak.

Arartekoaren ofizikozko iharduerен artetik bi kasutan beste zenbait gestio egin behar izan dira, eta beste bi Herri Defendatzaileari igorri zaizkio.

	Ofiziozko kexak	%
Euskal administrazioei dagozkien alorrak		
Osasuna eta G. Ongizatea	25	30,49
Justizia	17	20,73
Herrizaingoa	13	15,85
Kultura eta Elebitasuna	11	13,41
Hezkuntza	6	7,32
Ogasuna	4	4,88
F. Pub. eta Adm. Ant.	3	3,66
Herri-Lanak eta Zerbitzuak	3	3,66
Osotara	82	100
Gestio ezberdinak	2	
Herri Defendatzailea	2	
Guztira	86	

(Ikus 33. diagrama 338. orrialdean)

Arartekoaren ofiziozko iharduerетan ikertu diren administrazio publikoei bagagozkie, Eusko Jaurlaritzaren administrazioak eragin ditu Arartekoaren ofiziozko iharduera gehienak, erdia hain zuzen. Foru administrazioei %30 dagokie eta toki administrazioei %11.

Eusko Jaurlaritza	44
Foru administrazioak	26
Toki administrazioak	10
Beste administrazio batzuk	8

(Ikus 34. diagrama 339. orrialdean)

4.9. **ARARTEKOAREN IHARDUERAREN BALORAZIOA**

Arartekoak honek erakundearen buru izatera iritsi zenetik eduki duen kezketako bat hiritarrengana hurbiltzea izan da. Bi eratan hurbiltzea alegia: alde batetik, hiritarrak Arartekoarengana jotzeko erraztasunak eduki ditzan saiatuaz, honek bere esku dagoen administrazio edo zerbitzu publikoaren kontrako erreklamazioak

egin ditzan; eta bestetik, administratuak administrazioarekiko harremanean dauzkan arazoak non kokatzen diren hobeto ezagutzea.

Joan den 1996. urtean Arartekoak hirugarren helburu batekin hurbildu nahi izan du hiritarrengana: erakundean konfidantza jarri eta erreklamazioren bat aurkeztu dutenek Arartekoaren iharduerarekiko egiten duten balorazioa eta daukaten iritzia jakitea. Horrela, hiritarren ikuspegitik erakundearen funtzionamenduak dauzkan puntu ahulak ezagutu eta hobetu nahi zituen.

Horregatik, 1996ko urtarrilaren 1etik, Arartekoak kexa baten tramitazioa bukatzen duenean, erreklamatzaileari galde-sorta bat bidaltzen zaio borondatez eta izenik eman gabe bete eta horrela erakunde honetara jotzen duten pertsonen perfila eta eman zaien zerbitzuari buruz egiten duten balorazioa ezagutzeko.

Erantzunen balio kuantitatiboa garrantzitsua izan da. Galde-sorten erdia, guztira 300, galderei erantzun ondoren itzuli zaigu, eta horri esker nahi genuen bidetik ondorio fidagarriak atera ditzakegu, izan ere laginaren tamainak eta aztertutako biztanlego osoarekiko alderik ezak hori bermatzen dutelako.

Eman diren erantzunak aldekoak izan dira nabarmen, eta horrek frogatzen du Ararteko erakundeak ematen duen zerbitzua baliagarria dela, eta bertan lana egiten dutenak erabiltzaileek preziatzen duten lanean tinko, egunez egun hobetuaz jarraitzera bultzatzen ditu.

Galde-sortaren emaitzak laburtuaz, Arartekoari kexaren bat aurkeztu eta honek tramitazioak burutu ondoren hiritarrek uste dute «Arartekotik jasotako informazioa ona edo oso ona izan dela», «kexa aurkeztu eta ebazpena eman arte igarotako denbora motza izan dela», eta «Arartekoak beraien kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin oso ados daudela». Arartekoaren iharduera globalki nola baloratuko luketen (hau da, azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...) galdetu zaienean, erreklamatzaileek balorazio oso positiboa egin dute eta «Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati kasu guztietan Arartekoarengana jotzeko gomendatuko liokeela» adierazi dute. Era berean, «kasu guztietan gomendatuko lukete Arartekoarengana jotzea» eta «kexa eragin zuen arazoa ez da konpondu edo nahiko gaizki konpondu da» erantzuten duten pertsonek «Arartekoaren iharduera nahiko ongi baloratzen dute». Pertsona horiek galde-sortari erantzun dioten erreklamatzaileen artetik %51,53 dira, aldiz %48,47ak dioenez «beraien kexa eragin zuen arazoa oso ongi edo nahiko ongi konpondu da».

Ondoren jasotzen dira berez oso adierazgarriak eta azalpen handirik behar ez duten galde-sortaren emaitzak, baina aipatzekoak dira galde-sortako ataletako bati erantzuterakoan hiritar batzuek Arartekoari igorri dizkioten hobekuntzarako iradokizunak eta iritziak ere. Kritiken artean pertsona batek «Arartekoa ez da bustitzen» zioen, beste batek «ez da behar adinako presarekin ibiltzen» eta beste batzuek «bere gomendioa betearazteko ahalmenik ez dauka» adierazten zuten. Iradokizunen artean azpimarratzekoa da erakundeak bere burua gehiago ezagutarazi beharko lukeela, berari eta bere eginkizunei buruzko informazio gehiago eman eta bere publizitatea egin beharko litzatekeela dioena -hamabi bat pertsonek hori eskatu dute.

Galde-sortaren emaitzak

1. Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?

1. Oso ona 44,86
2. Ona 42,81
3. Txarra 7,88
4. Oso txarra 4,45

(Ikus 35. diagrama 343. orrialdean)

2. Nolakoa iruditu zaizu kexa aurkeztu zenuenetik tramitazioa bukatu arteko denbora?

1. Oso luzea 13,15
2. Luzea 22,15
3. Motza 50,17
4. Oso motza 14,53

(Ikus 36. diagrama 344. orrialdean)

3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz erabaki edo proposatu duenarekin?

1. Guztiz ados nago 39,73
2. Nahikoa ados nago 32,19
3. Ez nago oso ados 14,73
4. Ez nago batere ados 13,35

(Ikus 37. diagrama 345. orrialdean)

4. Zure ustez kexa sorrarazi zuen arazoa:

1. Oso ondo konpondu da 28,67
2. Nahikoa ondo konpondu da 19,80
3. Aski gaizki konpondu da 5,80
4. Ez da konpondu 45,73

(Ikus 38. diagrama 346. orrialdean)

5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu zuen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)

1. Oso egokia 57,19
2. Nahiko egokia 32,53
3. Ez oso egokia 4,45
4. Oso desegokia 5,82

(Ikus 39. diagrama 347. orrialdean)

6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?

1. Bai, beti 67,35
2. Bai, kasu batzuetan 26,19
3. Ez, inoiz *ez* 6,46

(Ikus 40. diagrama 348. orrialdean)

Gerta zitekeen galde-sortari erantzuten ziotenek jarrera ezberdina erakustea aurkeztutako kexa eragin zuen arazoa konponduta geratu edo *ez*. Baina *ez* da horrela gertatu, hori erakusten baitute arazoa konpondu gabe geratu eta galde-sortari erantzun diotenek.

Arazoa «*ez da konpondu*» edo «*aski gaizki konpondu da*» dioten erreklamatzaileek Arartekoaren iharduerari buruz egin duten balorazioa

5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldu zuen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)

1. Oso egokia 30,56
2. Nahikoa egokia 50,69
3. Ez oso egokia 7,64
4. Oso desegokia 11,11

(Ikus 41. diagrama 351. orrialdean)

6. Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati Arartekora jotzeko gomendatuko al zenioke?

1. Bai, beti 51,43
2. Bai, kasu batzuetan 35
3. Ez, inoiz *ez* 13,57

(Ikus 42. diagrama 352. orrialdean)

DIAGRAMAK

JASOTAKO KEXAK



1. DIAGRAMA

KEXEN EGOERA ONARPEN PROZEDURAREN ONDOREN



2. DIAGRAMA

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN AURKAKO KEXAK ALORREZ ALOR BANATURIK



3. DIAGRAMA

ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO KEXEN BANAKETA



4. DIAGRAMA



5. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAREN AURKAKO KEXAK
ALORREZ ALOR BANATURIK



6. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAREN AURKAKO KEXAK
SAILEZ SAIL BANATURIK



7. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOEN AURKAKO KEXAK ALORREZ ALOR BANATURIK



8. DIAGRAMA

TOKI ADMINISTRAZIOAREN AURKAKO KEXAK ALORREZ ALOR BANATURIK



9. DIAGRAMA

KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO LURRALDE BANAKETA



	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
1989	97	288	188
1990	125	284	195
1991	158	293	244
1992	201	332	241
1993	182	376	250
1994	160	349	234
1995	328	528	281
1996	446	746	448

10. DIAGRAMA

KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO LURRALDE BANAKETA 10.000 BIZTANLEKO



	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
1989	4,3	3,3	3
1990	4,5	2,7	2,9
1991	5,8	3,6	2,5
1992	7,4	3,5	2,8
1993	6,7	3,7	3,3
1994	5,9	3,5	3
1995	11,59	4,54	4,11
1996	15,92	6,55	4,6

11. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA LURRALDE BAKOITZEAN



	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
HIRIBURUA	388	309	201
BESTE UDALAK	58	437	247

12. DIAGRAMA

1996an BUKATUTAKO KEXEN EGOERA EMAITZAREN ARABERA



13. DIAGRAMA

1996an AURKEZTUTAKO KEXETATIK BIDERAPENEAN JARRITAKOEN EGOERA



14. DIAGRAMA

1996an AURKEZTUTAKO KEXETATIK BUKATUAK DAUDENEN EGOERA EMAITZAREN ARABERA



15. DIAGRAMA

BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA ALORREZ ALOR



16. DIAGRAMA

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA
ALORREZ ALOR EMAITZAREN ARABERA



17. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA ALORREZ ALOR



18. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREZ ALOR EMAITZAREN ARABERA



19. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA SAILEZ SAIL



20. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA



21. DIAGRAMA

ARABAKO FORU ALDUNDIA



BUKATUTAKO KEXEN
ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA
EMAITZAREN ARABERA

22. DIAGRAMA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



BUKATUTAKO KEXEN
ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA
EMAITZAREN ARABERA

23. DIAGRAMA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



BUKATUTAKO KEXEN
ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA
EMAITZAREN ARABERA

24. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA ALORREZ ALOR



25. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREZ ALOR EMAITZAREN ARABERA



26. DIAGRAMA

TOKI ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA ALORREZ ALOR



27. DIAGRAMA

TOKI ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREZ ALOR EMAITZAREN ARABERA



28. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA KEXADUNAREN ARABERA



29. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA HIZKUNTZAREN ARABERA



30. DIAGRAMA

HARRERA ZUZENEKO BULEGOETARA EGINDAKO BISITAK



31. DIAGRAMA

BISITARIEN BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA HARRERA ZUZENEKO HIRU BULEGOETAN



	23 urte arte	24-34	35-46	47-59	60 edo gehi.
	51	**295**	**424**	**360**	**300**

32. DIAGRAMA

OFIOZKO KEXAK: BANAKETA ALORREZ ALOR



33. DIAGRAMA

OFIZIOZKO KEXAK: ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA



34. DIAGRAMA

KEXADUNEI EGINDAKO GALDE-SORTEN EMAITZEN GRAFIKOAK

NOLAKOA IRUDITU ZAIZU ARARTEKOAK BIDALITAKO INFORMAZIOA?



35. DIAGRAMA

NOLAKOA IRUDITU ZAIZU KEXA AURKEZTU ZENUENETIK TRAMITAZIOA BUKATU ARTEKO DENBORA?



36. DIAGRAMA

ZENBATERAINO ZAUDE ADOS ARARTEKOAK ZURE KEXARI BURUZ ERABAKI EDO PROPOSATU DUENAREKIN?



37. DIAGRAMA

ZURE USTEZ KEXA SORRARAZI ZUEN ARAZOA?



38. DIAGRAMA

ORO HAR ZER IRUDITU ZAIZU ARARTEKOAREN LANA?
(Azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)



39. DIAGRAMA

ADMINISTRAZIOAREKIN ARAZOAK DITUEN PERTSONAREN BATI ARARTEKORA JOTZEKO GOMENDATUKO AL ZENIOKE?



40. DIAGRAMA

ARAZOA “EZ DA KONPONDU” EDO “ASKI GAIZKI KONPONDU DA” DIOTEN ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKOAREN IHARDUERARI BURUZ EGIN DUTEN BALORAZIOA

ORO HAR ZER IRUDITU ZAIZU ARARTEKOAREN LANA?
(Azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)



41. DIAGRAMA

ADMINISTRAZIOAREKIN ARAZOAK DITUEN PERTSONAREN BATI ARARTEKORA JOTZEKO GOMENDATUKO AL ZENIOKE?



42. DIAGRAMA

V. ATALA

ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATERI EUSTEA

Atal hau tratatzerakoan, eta gogoeta hau Arartekoak aurreko urteetan Legebiltzarrari aurkeztu dizkion txostenetan esandakoaren errepikapena bada ere, esan behar da legeek erakunde honi eman dizkioten ardurak garatzeko orduan garrantzitsuak direla administrazio publikoek eta erakundeek Arartekoaren iritzipean jartzen diren gaiei buruz egiten zaizkien informazio eskaerei eta zuzentzen zaizkien ebazpenen betekizunei ematen dizkieten erantzunak. Kontrolpean jartzen diren erakundeek epe jakin batean laguntza emateko daukaten betebehar hori Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak 23. eta 26. artikuluetan jasotzen da.

Laguntza eskaintzeko betebehar horren garrantzia estatuko legegileak baloratu du, Kode Penal berriaren 502.2 artikuluan delitutzat hartzean agintari edo funtzionarioen ekintzak oztopoak ipintzen dizkiotenean "... *Herri Defendatzailearen, Kontu Auzitegiaren edo Autonomia Erkidegoetako erakunde baliokideen ikerketari, edo horiek eskatutako txostenak bidaltzera ukatu edo bidalketa denboran luzarazi edo ikerketarako behar dituzten espedienteak edo administrazio agiriak aztertzeko oztopoak jartzean*".

1996. urtean zehar administrazio publikoek edo erakundeek Arartekoarekin izan duten lankidetzari buruzko azterketa orokorrak hasiera batean balorazio positibo batera garamatza, nahiz eta kasu batzuetan eskariak bete gabe geratu. Jarraian ematen diren datuen bidez Arartekoak eragindako erakundeei gogorarazi nahi die informazio eskariari erantzuterakoan edo zuzendu zaien gomendioan atzerapena ikusi den kasuan lankidetza eskaintzeko betebeharra daukatela. Puntu horiek gogorarazterakoan erakunde honetako zerbitzuek ez dute automatikoki jokatzen. Esan nahi da, gutxienez hasierako eskariaren ondoren egiten den lehen berreskarian zenbait gai baloratu eta kontuan hartzen direla, adibidez: informatu beharreko gaiaren konplexutasuna, txosten teknikoak egin behar ote diren, eskaria jaso duen erakundearen administrazio sarearen konplexutasuna, etabar. Zuhurtasuna, beraz, Arartekoaren ihardueraren aspektu honetan elementu informatzaile bihurtzen da, uste baitugu kontutan hartu behar direla beste aldagai batzuk une batzuetan fluxu burukratikoaren objetibitate zehatzera murrizten ez direnak, hots informazioa eskatu eta emandako epean erantzutera mugatzen ez direnak.

Kexa espediente batzuetan informazio eskariei edo egin diren gomendioei eman beharreko erantzuna urtealdi bat baino gehiagoz luzatu den kasuetan, aurreko urteetan bezala jokatu dugu: txosten honetan 1996an zehar erakundea bideratzen ari zen espedienteetan formulatutako errekerimendu guzti-guztiak

sartzen dira, nahiz eta horiek aurreko urteetan ere eginda egon, eragindako administrazio batzuen erresistentziaren ikuspegi globala eskaintzearren.

Ondoko datuak irakurrita balorazio nabarmenak atera daitezkeen arren, egiaz azpimarratu nahi dena administrazio batzuek egin zaizkien eskariei erantzuterakoan, beharrezko iharduerarren bidez lehen aipatu dugun lagundu beharrari erantzuteko orduan erakutsi duten jarrera negatiboa da. Erakunde horiek identifikatzeko orduan irizpide bakar bat erabili da, alegia 1996an espediente batean edo gehiagotan laguntza eskaintzeko betebeharra zenbat aldiz gogoratu behar izan diegun. Honek ez du esan nahi beste espediente batzuen bideraketan laguntza eman ez denik. Egoera hori ezagutzera emateari egokia deritzogu ordea, guztiek ezagutu dezaten.

Gai honi dagokionez azpimarratzekoa da Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Saileko arduradunaren jarrera, atal honetan aurreko urtealdietan ere egin baita. Oztopoak jartzeko jokaera horrekin eta horren justifikaziorik ezarekin behin eta berriz topo egiten jarraitzen dugu. Hiritarrek merezi duten errespetoarengatik espero dugu etorkizunean jarrera hori aldatuko dutela. Hemen eskaintzen diren datuen azterketaren bidez sail horren lankidetza eza antzeman daitekeen arren, esan behar da 1996an lau kexa espedientetan lau aldiz errekeritu behar izan zaiela Arartekoaren iritzipean jarritako arazoak aztertzeko behar zen informazioa bidaltzea.

Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitatea ere aipatu behar da, bertako Idazkari Nagusiari bi kexa espedienteren bidetik bakoitzeko errekerimendu bana bidali zaizkiolako informazio eske. Gasteiz eta Urdulizko (Bizkaia) alkateei eta Caicedo-Yusoko (Araba) Administrazio Batzarreko Presidenteari lau errekerimendu bidali zitzaizkien bakoitzak zeukan espediente bakoitzeko, kexan planteatutako arazoak aztertzeko behar zen informazioa bidal zezaten. Azkenik Ortuellako (Bizkaia) Udala aipatu behar da, bertako Alkateari espediente baten tramitazioan zehar sei aldiz errekeritu behar izan dugulako informazio tramiteei erantzun ziezaien. Aurreko datuak 1996an egindako errekerimenduei dagozkie.

Ondoren biltzen diren datuen azpian dagoen informazioa hobeto uler dadin ohar hauek kontuan eduki behar dira: zerrendetan azaltzen den lehen data lehen informazio eskariari dagokio, edo bestela zegokion ebazpenari. Parentesi artean dagoen zenbakia 1996an eta aurreko urteetan egin diren errekerimendu kopuruari dagokio, eta ondoren horiek noiz egin diren adierazten da. Espediente jakin baten aipamenean, lerro ezberdinetan ager daitezke tramite ezberdinen betekizunari buruz egindako errekerimenduak. Bestalde, T laburdurak tramitean dagoela adierazten du, eta A laburdurak amaituta dagoela.

5.1. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK

A) **Eusko Jaurlaritza**

Kultura Saila

Laguntza Kabinetearen Zuzendaritza

1040/96 - A - SHEEn sartzeko probak.
1996-09-25 (1) 1996-10-28

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Kabinete Teknikoaren Zuzendaria

870/95 - A - 0tik 2 urte arteko ikasketetarako laguntza.
28 gehiago 1995-12-04 (1) 1996-02-19
351/96 - T - Ikasketetarako bekak eta laguntzak.
1996-05-06 (1) 1996-09-05
354/96 - T - Ikasketetarako bekak eta laguntzak.
1996-05-06 (1) 1996-09-05
375/96 - T - Ikasketetarako bekak eta laguntzak.
1996-09-06 (1) 1996-09-25
396/96 - A - Ikasketetarako bekak eta laguntzak.
1996-05-17 (1) 1996-09-06
575/96 - A - Irakaslegoaren atxikidura bigarren derrigorrezko heziketan.
1996-05-30 (1) 1996-07-23
577/96 - T - Hezkuntz-eskaintza eta matrikulen egokitzapena.
1996-07-19 (1) 1996-09-24
583/96 - A - Irakaslegoaren atxikidura derrigorrezko bigarren heziketan.
1996-05-30 (1) 1996-07-23
604/96 - T - Bitarteko funtzionario baten etenaldia.
1996-06-27 (1) 1996-09-17
820/96 - T - Haur eskolak.
1996-10-10 (1) 1996-11-27
952/96 - T - Irakasle ordezkapenetarako zerrendak.
1996-08-20 (1) 1996-10-28
1037/96 - T - Irakasle ordezkapenetarako zerrendak.
1996-10-04 (1) 1996-10-28
1055/96 - A - Irakasle ordezkapenetarako zerrendak.
1996-10-04 (1) 1996-10-28

Euskal Herriko Unibertsitateko Idazkari Nagusia

1097/95 - A - EHUn egin beharreko egonaldia.
1996-01-12 (1) 1996-02-14

629/96 - T - Graduondoko ikastaroak.
1996-06-27 (1) 1996-09-17
1996-10-18 (1) 1996-11-25
690/96 - A - EHUn sartzeko probak.
739/96 1996-07-02 (1) 1996-07-23
837/96
869/96

Ogasun eta Administrazio Publikoen Saila

Zerbitzu Zuzendaria

218/96 - A - Eusko Jaurlaritzan lan jakin bat egiteko kontratatutako langileen etenaldia.
1996-11-15 (1) 1996-12-09
1074/96 - T - Lanpostuen amortizazioa.
1996-10-02 (1) 1996-10-24

Industria, Nekazaritza eta Arrantzu Saila

Sailburuaren Kabinetearen Zuzendaritza

1155/95 - A - Administrazio-babesik eza.
1996-01-19 (1) 1996-03-06

Naturgaseko Zuzendari Nagusia

908/95 - A - Gas kontagailua irakurtzeko sarrera arazoak.
1995-11-13 (1) 1996-02-22

Herrizaingo Saila

Zerbitzu Zuzendaria

335/96 - A - Alkoholemia kontrola.
1996-04-19 (1) 1996-05-21
533/96 - T - Poliziaren argiketa bat eman nahi ez izatea.
1996-05-27 (1) 1996-09-16
761/96 - T - Zerbitzu eginkizunak ukatzea.
1996-07-12 (1) 1996-09-17
913/96 - T - Ertzaintzak taberna iharduera batekin egindakoa.
1996-09-18 (1) 1996-10-24

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

Zerbitzu Zuzendaria

964/96 - A - Etxebizitza deskalifikatzeko eskaria ukatzea.
1996-10-01 (1) 1996-10-28

1075/96 - T - Babes Ofizialeko Etxebizitzetan diseinuari buruzko Ordenantzak bete ez izana.
1996-10-03 (1) 1996-10-28

Osasun Saila

Osakidetzako Zuzendari Nagusia

579/96 - A - Ospitaleko lan baldintzak
1996-10-17 (1) 1996-11-26

581/96 - A - Sendagileei kupoaren arabera ordaintzea eta Gizarte Segurantzako kartiletako aldaketak.
1996-06-07 (1) 1996-07-15
1996-10-11 (1) 1996-11-26

737/96 - T - OPE 95. Euskarazko proba.
28 gehiago 1996-08-02 (1) 1996-10-02
1996-11-05 (1) 1996-12-11

1001/96 - T - Diskriminazioa lan baldintzei buruzko akordioan.
1996-10-18 (1) 1996-11-26

Garraioa eta Herri Lan Saila

Zerbitzu Zuzendaria

826/95 - A - Bilbao-Donostia zerbitzu zuzena eskaintzen zuen trena kendu izana.
1996-06-06 (1) 1996-07-22

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos

21/95O - A - Oztopo arkitektonikoak topoaren geltokian.
1996-05-08 (1) 1996-07-18

649/96 - A - Pentsiodunentzako garraio-paseak.
1996-07-05 (1) 1996-09-17

B) **Foru Aldundiak**

- Arabako Foru Aldundia

Gizarte Ongizate Saila

Gizarte Ongizate Diputatua

1025/95 - A - Familia ugariak.
1995-12-22 (1) 1996-01-23

376/96 - T - Gizarte Ongizaterako Foru Institutuaren hirugarren adinekoentzako zenbait zerbitzuri buruzko kexa eta zerbitzu horiengatik eskatutako dirua.
1996-04-19 (1) 1996-05-23

- Bizkaiko Foru Aldundia

Gizarte Ongizate Saila

Gizarte Ongizate Diputatua

27/95O - T - Gizarte laguntzarako elkarteentzako dirulaguntzak.
1996-11-16 (1) 1996-02-19

115/96 - T - Elbarrien zentroetako prezio publikoak.
1996-03-27 (1) 1996-05-21

Ogasun eta Finantza Saila

Ogasun eta Finantza Diputatua

1/96O - T - PFEZ zergaren aitorpena egiteko moduan akatsa dagoen kasuan berriz egiteko aukera uztea.
1996-01-10 (1) 1996-02-20

549/96 - T - Interesak PFEZ zergan.
1996-05-30 (1) 1996-09-17

1193/96 - T - Ondasun Higiezinen Zergaren jakinarazpena.
1996-10-25 (1) 1996-11-25

Herri-Lan Saila

Herri-Lan Diputatua

716/95 - T - Orube zati bat desjabetzeak eragindako kalteak.
1996-04-23 (1) 1996-05-23

679/96 - A - Saihesbide baten seinalizazioa hobetzea.
1996-08-29 (1) 1996-10-10

Lehendakaritza Saila

Lehendakaritza Diputatua

1127/96 - A - Merituen balorazioa lehiaketa batean.
1996-10-18 (1) 1996-11-25

- Gipuzkoako Foru Aldundia

Nekazaritza eta Ingurugiro Saila

Nekazaritza eta Ingurugiro Saila

771/93 - T - Pub iharduera baten zaratek eragindako gogaipenak.
1996-04-18 (1) 1996-05-25

623/95 - A - Ondare Eskualdaketaren gaineko Zergaren salbuespena.
1996-04-03 (1) 1996-05-21

735/95 - A - Ehiz-zigorra.
1995-09-01 (1) 1996-02-22
724/96 - T - Sagardotegi bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-10-16 (1) 1996-12-12
108/96 - A - Hegazti ustiaketa bat jartzeko lizentzia.
1996-03-27 (1) 1996-05-21

Ogasun eta Finantza Saila

Ogasun eta Finantza Diputatua

452/95 - A - PFEZ dela eta garajegatik egindako kenketa.
1996-09-09 (1) 1996-11-07
607/95 - A - Zergak ordaintzeko aukera PFEZn.
1995-07-10 (2) 1995-08-24 / **1996-07-05**
919/95 - A - PFEZren erretentzioak.
1996-02-23 (1) 1996-04-21
745/96 - A - Abalaren exekuzioa.
1996-08-09 (1) 1996-11-07
938/96 - A - Saltzaile lanaren kenketa PFEZn.
1996-09-02 (1) 1996-11-07
989/96 - T - Etxebizitza-kontua PFEZn.
1996-09-27 (1) 1996-11-04
1003/96 - A - PFEZ dela eta garajegatik egindako kenketa.
1996-09-13 (1) 1996-11-07
1153/96 - A - BEZ eta PFEZen aitorpenak.
1996-10-11 (1) 1996-11-25

Lehendakaritza Saila

Lehendakaritza Diputatua

695/95 - A - Desjabetza batean agindutako balioespena Administrazioak bete ez izana.
1995-12-01 (1) 1996-01-18

C) **Udalak**

- Arabako Lurralde Historikoa

Amurrioko Alkatea

648/96 - A - Taberna bateko zaratak eta usainek eragindako gogaipenak.
1996-06-28 (1) 1996-10-03

Artziniagako Alkatea

990/95 - A - Ganadu-ikuilu txiki bateko usainek eragindako gogaipenak.
1996-01-19 (1) 1996-02-22

Oka-Iruñako Alkatea

861/95 - A - Aldaketak iharduera unitate baten urbanizazio-proiektuan.
1995-10-20 (1) 1996-02-26

Iruraitz-Gaunako Alkatea

367/95 - T - Ur hornikuntzarako txabola bat ustez ilegalki eraiki izana.
1995-12-18 (1) 1996-01-17

Labastidako Alkatea

1139/96 - A - Etxebizitza batzuetako bidetik gertu gas propano biltoki bat jarri izana.
1996-10-17 (1) 1996-11-25

Lezako Alkatea

691/96 - T - Kontratu baten esleipenean egondako irregulartasunei buruzko salaketa.
1996-07-19 (1) 1996-09-19
1996-10-11 (1) 1996-11-26

Okondoko Alkatea

622/96 - T - Oztopo arkitektonikoak.
24-06-1996 (1) 09-08-1996
04-10-1996 (1) 24-10-1996

Oiongo Alkatea

63/96O - A - Udal igerilekuetan lanpostuak betetzea.
1996-06-05 (1) 1996-09-16

Gasteizko Alkatea

190/95 - T - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-06-18 (1) 1996-10-02
1996-10-09 (1) 1996-11-05

192/95 - A - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-06-20 (1) 1996-10-02

193/95 - A - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-06-20 (1) 1996-10-02

217/95 - A - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-06-20 (1) 1996-10-02

223/95 - A - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-06-20 (1) 1996-10-02

504/95 - A - Trafiko isuna.
1995-06-23 (3) 1996-08-30/1995-12-04/**1996-02-22**

918/95 - A - Kafetegi batek eragindako zaratak.
1995-11-13 (1) 1996-02-19

1018/95 - A - Poliziaren ekintza.
1995-12-01 (1) 1996-02-22

1024/95 - A- Merkatalgune bateko galdara-gelako eta konpresoreen zaratek eragindako gogaipenak.
1995-12-01 (1) 1996-02-19

1027/95 - A- Dantzaleku eta jatetxe bateko hozketa sistemaren zaratek eragindako gogaipenak.
1995-12-01 (1) 1996-02-19

1028/95 - A - Banketxe bateko hozketa sistemako zaratek eragindako gogaipenak.
1995-12-01 (1) 1996-02-19

107/96 - T - Administrazioaren isiltasuna.
1996-09-20 (1) 1996-11-26

120/96 - T - Uraren tarifak.
1996-04-05 (1) 1996-11-25

221/96 - T - Udal ondareari eragindako kalteengatik dirua erreklamatzea.
1996-03-12 (1) 1996-04-19

283/96 - A - Azoka itxi bateko tasak.
1996-04-03 (1) 1996-05-22

287/96 - A - Zabor-bilketa tasak.
1996-04-03 (1) 1996-05-22

336/96 - A - Zabor-bilketa tasak.
1996-04-03 (1) 1996-05-22

353/96 - A - Zabor-bilketa tasak.
1996-04-03 (1) 1996-05-22

364/96 - A - Zabor-bilketa tasak.
1996-04-03 (1) 1996-05-22

448/96 - A - Gasolindegia jartzeko lizentzia ukatzea.
1996-05-30 (1) 1996-06-28

488/96 - T - Trafiko kontrolik eza.
1996-05-17 (1) 1996-07-15

522/96 - T - Mailegu amortizazioa eta udal etxebizitzaren prezioa.
1996-06-07 (1) 1996-07-23

548/96 - T - Poliziaren ekintza eta trafiko zigorra.
1996-05-30 (1) 1996-07-15

659/96 - T - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-06-26 (1) 1996-10-02

832/96 - A - Gasteizen TAO zonen ezarpena.
1996-07-31 (1) 1996-10-25

866/96 - A - Ertaroko harresi baten aldameneko obra ilegalen salaketa.
1996-07-31 (1) 1996-09-17
867/96 - A - Ostalaritza iharduera bati buruzko salaketa debekatuta zegoelako.
1996-07-31 (1) 1996-09-19
1097/96 - T - Administrazioak ondare gai batean eduki dezakeen arduraren erreklamazioa.
1996-10-08 (1) 1996-11-25
1115/96 - A - Taberna batek eragindako zaratak.
1996-10-18 (1) 1996-11-25
1213/96 - A - Irregulartasunak gizarte-etxe bateko aireztaketa sisteman.
1996-10-21 (1) 1996-11-25
1215/96 - T - Zerga igoera.
1996-10 18 (1) 1996-11-25
1404/96 - T - Trafiko isuna.
1996-11-11 (1) 1996-12-31

AMVISA/Udal Urak

685/96 - A - Ur-kontagailu aldaketa.
1996-07-09 (1) 1996-09-16

Administrazio Batzarrak

Langraizko Administrazio Batzarra
19/96 - T - Aroztegi batek eragindako gogaipenak.
1996-10-09 (1) 1996-11-25

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

Arrietako Alkatea
374/96 - T - Bidea okupatzen zuten lan ilegalak egiteko lizentzia.
1996-30-09 (1) 1996-11-14

Barakaldoko Alkatea
950/96 - A - Kafetegi-erabilerari buruzko Udalaren informazio okerra eta Udalaren ardura.
13-09-1996 (1) 1996-10-09
1146/96 - A - Gainbalioaren kitapena.
1996-10-11 (1) 1996-11-25

Basauriko Alkatea
746/94 - A - Egoiliarrentzako aparkaleku publikoak.
1995-12-15 (1) 1996-01-15
384/96 - T - Larrialdietarako ate bat jartzerakoan segurtasun araudia behar bada bete ez izanari buruz.
1996-04-26 (1) 1996-05-27

Bermeoko Alkatea

523/96 - A - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-05-23 (1) 1996-07-23

Bilboko Alkatea

340/95 - A - Salmenta ibiltarirako lizentzia.
341/95 1996-02-09 (1) 1996-04-24
883/95 - A - Tailer mekaniko bateko zarata eta usainek eragindako gogaipenak.
1996-05-15 (1) 1996-07-22
1072/95 - T - Poliziaren ekintza eta trafiko isuna.
1995-12-15 (1) 1996-02-22
172/96 - T - Espaloi konponketarako Udalaren eta Aldundiaren arteko eskuduntza-auzi kaltegarria.
1996-04-01 (1) 1996-05-23
238/96 - A - Mugitzeko oztopo bere etxebizitzarako sarreran.
1996-02-29 (1) 1996-04-24
262/96 - A - Lan baimenaren tasa.
1996-04-19 (1) 1996-05-22
273/96 - A - Trafiko isuna.
1996-03-15 (1) 1996-05-22
368/96 - T - Itsuentzako sarrera.
1996-03-28 (1) 1996-06-22
544/96 - A - Trafiko isuna.
1996-05-30 (1) 1996-07-15
573/96 - T - Eraikuntza Zergaren kitapena.
1996-06-07 (1) 1996-09-17
1092/96 - A - Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergako alta.
1996-10-25 (1) 1996-11-26
1141/96 - T - Zabalburu plazako lurrazpiko putzuaren egoera txarra.
1996-10-11 (1) 1996-11-25
1196/96 - T - Suhiltzaile zerbitzuen prezio publikoa.
1996-10-25 (1) 1996-11-26
1220/96 - T - Jakinarazpena exekuzio bidean.
1996-10-29 (1) 1996-11-25

Durangoko Alkatea

663/95 - A - Saneamendurako udal sarean ustez egondako ihesa.
1996-10-25 (1) 1996-11-26

Erandioko Alkatea

516/94 - A - Pub bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1995-11-24 (1) 1996-01-17
1996-05-10 (1) 1996-07-23

Ermuko Alkatea

106/96 - A - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-04-19 (1) 1996-05-31

Errigoitako Alkatea

600/96 - T - Nekazari errepidearen jabetza publikoa aitortzea.
1996-10-25 (1) 1996-11-26

Etxebarriko Alkatea

792/95 - A - Nekazari ustiaketari lotutako familia batentzako etxebizitza eraikitzeko lizentzia ukatzea.
1996-02-09 (1) 1996-04-24

Foruko Alkatea

660/94 - T - Harrobi bateko zaratek eta leherketek eragindako gogaipenak.
1995-09-18 (2) 1995-11-14 / **1996-01-16**

Gernika-Lumoko Alkatea

1369/96 - T - Horma eusgarriaren zorrak ilegalki Udalaren gain utzi izana.
1996-11-06 (1) 1996-12-18

Getxoko Alkatea

1208/96 - T - TAOko egoiliar txartela.
1996-10-24 (1) 1996-11-25

1171/96 - T - Okindegi batek gogaipenak sortzea zaratentzako isolamendurik ez daukalako eta amaitu gabe dagoelako.
1996-10-17 (1) 1996-11-25

Gorlizko Alkatea

856/95 - A - Aparkaleku-tasa.
1995-11-24 (1) 1996-01-23

Güenesko Alkatea

450/96 - T - Lanak egiteko lizentzia atzera bota izanagatik Udalari kalteordaina kobratzeko eskubidea.
1996-08-06 (1) 1996-09-19

Leioako Alkatea

87/96 - T - Atzerritarren erroldaratzea.
1996-02-01 (1) 1996-04-19

Maruriko Alkatea

841/96 - A - Baserri aurrean bildutako baliogabeko ibilgailuak erretiratzea.
1996-08-02 (1) 1996-10-02

Muskizko Alkatea

1235/96 - A - Agian jabetza pribatua daukan lur eremu bat erreklamatzea.
1996-10-30 (1) 1996-11-25

Ondarroako Alkatea

926/95 - T - Eraikuntzen gaineko zerga.
1996-03-18 (1) 1996-04-24

Portugaleteko Alkatea

278/95 - T - Ur zerbitzuko eta saneamendu sareko arazoak.
1995-06-21 (1) 1996-05-23
195/96 - A - Udal etxebizitza alokatzeko aukera ukatzea.
1996-02-23 (1) 1996-04-24
870/96 - T - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-08-14 (1) 1996-10-04
909/96 - T - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-08-13 (1) 1996-10-04
910/96 - T - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-08-13 (1) 1996-10-04

Santurtziko Alkatea

1148/96 - A - Garaje bateko atearen zaratek eragindako gogaipenak.
1996-10-11 (1) 1996-11-25

Sestaoko Alkatea

457/95 - T - Etxebizitza hondamen egoeran aitortu eta biztanleak ordezko etxe batean sartzea.
1995-06-01 (3) 1995-10-19/1995-12-01/**1996-02-23**

Trapagarango Alkatea

159/96 - T - Udal lokalak alokatuta zeuzkatenek horiek erostea eskatzen dute.
1996-06-04 (1) 1996-07-23

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Beasaingo Alkatea

773/95 - T - Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sartzeko eskaria.
1996-09-19 (1) 1996-11-07

879/96 - A - Ile apaindegi bateko usainek eragindako gogaipenak.
1996-10-18 (1) 1996-11-26

Donostiako Alkatea

809/95 - A - Kultur iharduera sustatu baina ordaindu ez izana.
1995-12-01 (1) 1996-01-15
957/95 - A - Euskararen erabilera Zinema Jaialdian.
1996-01-19 (1) 1996-04-24
1062/95 - A - Haur jolasek eragindako zaratak.
1995-12-15 (1) 1996-02-22
1139/95 - T - Euskararen erabilera Postetxean.
1996-01-23 (1) 1996-04-22
145/96 - T - Hiru tabernetako zaratek eragindako gogaipenak.
1996-02-12 (1) 1996-04-22
419/96 - T - TAOko egoiliar txartela ukatzea.
1996-04-23 (1) 1996-05-22
552/96 - A - Bere etxerako sarreraren segurtasuna hobetzea eskatzen du.
1996-07-15 (1) 1996-10-03
556/96 - A - Lanpostu aldaketa.
1996-07-18 (1) 1996-10-04
747/96 - A - Udal etxebizitzak banatzeari buruz.
1996-08-21 (1) 1996-10-02
754/96 - T - Trafiko isuna.
1996-08-14 (1) 1996-10-25
899/96 - T - Tiro-zelai bateko usainek eragindako gogaipenak.
1996-08-23 / 1996-10-21
855/96 - T - Bide perimetralaren jabetza finkatzea.
1996-09-24 (1) 1996-11-19
875/96 - T - Haur jolasek eragindako gogaipenak eta administrazioaren isiltasuna.
1996-08-22 (1) 996-10-25
966/96 - T - Trafiko isuna.
1996-09-23 (1) 1996-11-25
1025/96 -T - Etxebizitza bateko zakur zaunkek eragindako gogaipenak.
1996-10-30 (1) 1996-11-26
1122/96 - T - Hirian kokatutako gasolindegiaren kontra.
1996-11-13 (1) 1996-12-31
1125/96 - A - Motoen zaratek eragindako gogaipenak.
1996-10-04 (1) 1996-10-29

Elgoibarko Alkatea

771/93 - T - Pub bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-10-18 (1) 1996-11-19

Hernaniko Alkatea

169/95 - T - Taberna batzuetako zaratek eragindako gogaipenak.
1995-12-01 (1) 1996-01-18

836/96 - A - Futbol zelaia aldi baterako ixtea.
1996-09-06 (1) 1996-10-09

Hondarribiko Alkatea.

566/96 - T - Desadostasunak batez besteko aprobetxamenduaren balorazioan.
1996-05-31 (1) 1996-07-23

Irungo Alkatea

835/96 - A - Etxebizitza bat berritzeko lan-baimenik eman eza.
1996-09-06 (1) 1996-10-09

Lasarte-Oriako Alkatea

165/95 - A - Gainbalioaren kitapena.
1996-04-03 (1) 1996-05-21

779/96 - T - Depilazio iharduera bateko zaratek eta usainek eragindako gogaipenak.
1996-10-11 (1) 1996-11-21

Orioko Alkatea

1132/96 - A - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-10-31 (1) 1996-12-02

Pasaiako Alkatea

1104/95 - T - Udalaren pasibitatea plan berezien hirigintza gestioan.
1996-02-02 (1) 1996-03-14

962/96 - T - Hondamen aitorpenaren espedientea geratzea.
1996-09-20 (1) 1996-10-23

Errenteriako Alkatea

749/96 - T - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-10-18 (1) 1996-11-25

Soraluzeko Alkatea

3/96 - T - Babestutako zonan komunikazio dorre bat ilegalki eraikitzea.
1996-04-26 (1) 1996-05-27

Tolosako Alkatea

888/96 - T - Desjabetza espediente bateko irregulartasunak eta garajean izandako kalteak.
1996-07-31 (1) 1996-09-17

D) **Beste erakunde publiko batzuk**

Gipuzkoako Abokatuen Kolegio Ofiziala

875/95 - A - Ofizioko abokatuen jokaera.
1995-12-22 (1) 1996-01-23

Gipuzkoako Sendagileen Kolegio Ofiziala

820/95 - A - Medikuntzako kode deontologikoa
1995-11-18 (1) 1996-02-05

Abokatutzaren Euskal Kontseilua

645/95 - T - Kolegiatuek Gobernu Batzordeko aktak irakurtzeko aukera.
1995-11-22 (1) 1996-01-12

Bilboko Metroa

30/95O - T - Metro geltokia izango den Eusko Trenbideak-en geltokian argirik ez.
1995-11-03 (1) 1996-01-15

932/95 - A - Pentsiodunentzako tarifa-murrizketa Metroan.
1995-11-24 (1) 1996-01-15

704/96 - A - Tarifetan familia ugaria izateagatik murriztapenik ez egitea.
1996-07-12 (1) 1996-09-19

Ranzadi udal mankomunitatea

939/95 - A - Elbarrientzako "Ranzadi" lantegietako barne araudia.
1995-11-24 (1) 1996-01-15

5.2. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDAZKIA BI BIDER EDO GEHIAGOTAN BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK

A) **Eusko Jaurlaritza**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Kabinete Teknikoaren Zuzendaria

126/94 - T - Agirien homologazioa euskaraz.
1995-11-13 (2) 1996-01-15 / 1996-03-28

411/95 - T - Agirien homologazioa euskaraz.
1995-11-13 (2) 1996-01-15 / 1996-03-28

900/96 - A - Irakasleak ordezkatzeko zerrendak.
1996-08-06 (2) 1996-08-29 / 1996-10-28

EHUko Idazkari Nagusia

975/95 - A - Eskubide aitorpenaren ekintza ofizioz berraztertzea.
1995-11-17 (2) 1996-01-10 / 1996-02-15

1106/95 - A - Irakaslego falta Geografia eta Historia Fakultatean.
1996-01-12 (4) 1996-02-22 / 1996-04-24 / 1996-05-17 / 1996-07-05

269/96 - A - Irakaslego falta Irakasle Eskolan.
1996-03-05 (2) 1996-07-15 / 1996-10-07

532/96 - A - Unibertsitate ikasketen ebaluazioa.
1996-05-29 (4) 1996-07-22 / 1996-09-16 / 1996-10-24 / 1996-11-25

1049/96 - T - EHUn sartzeko ikasketen homologazioa.
1996-10-01 (2) 1996-10-24 / 1996-11-25

1087/96 - T - Unibertsitate ikasketa-plana. Azterketa deialdiak.
1996-10-04 (2) 1996-10-30 / 1996-11-25

Herrizaingo Saila

Zerbitzu Zuzendaria

808/95 - A - Euskararen erabilera Ertzaintzan.
1996-01-19 (2) 1996-02-26 / 1996-04-24

822/95 - T - Alkoholemia kontrola.
1995-12-01 (2) 1996-02-22 / 1996-04-24

Garraio eta Herri-Lan Saila

Imebisako Kontseilari Ordezkaria

146/95 - A - Etxebizitzan kalteak Metroko lanengatik.
1995-11-24 (2) 1996-01-26 / 1996-04-25

B) **Foru Aldundiak**

- Arabako Foru Aldundia

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetarako Foru Diputatua

528/95 - A - Langile Autonomoa PFEZa.
1996-02-13 (2) 1996-04-24 / 1996-05-21

- Bizkaiko Foru Aldundia

Gizarte Ongizate Saila

Gizarte Ongizate Diputatua

38/95O - T - Atzerriko etorkinak.
1995-12-22 (4) 1996-02-02 / 1996-04-19 / 1996-05-20 / 1996-07-15

229/95 - T - Prezio publikoak zaharren egoitzetan.
1996-04-02 (2) 1996-05-21 / 1996-09-17

775/95 - T - Arazorik gabe jaso zituen Gizarteratzeko Gutxieneko Irabaziak itzultzeko eskatzen dio Aldundiak.
1996-01-05 (3) 1996-04-19 / 1996-05-20 / 1996-10-17

795/95 - T - Aitatasunari buruzko datuak eman nahi ez izatea.
1995-12-11 (4) 1996-02-20 / 1996-04-19 / 1996-05-27 / 1996-07-12

838/95 - A - Familia ugariak.
1995-12-22 (4) 1996-01-22 / 1996-02-20 / 1996-04-19 / 1996-05-21

864/95 - T - Familia ugariak (Deustua).
25 gehiago 1996-01-15 (4) 1996-02-26 / 1996-04-24 / 1996-05-21 / 1996-08-08

65/96 - T - Sailak jarraitutako irizpideak zalantzan jartzea.
1996-02-22 (3) 1996-04-03 / 1996-05-27 / 1996-07-23

152/96 - T - Diputazioaren laguntzak hirugarren adinekoentzako gizarte zentro bat egiteko.
1996-03-22 (2) 1996-05-21 / 1996-07-15

204/96 - T - Gizarteratzeko Gutxieneko Irabazia bertan behera uzteko eskaria.
1996-03-15 (3) 1996-05-21 / 1996-07-15 / 1996-09-17

556/96 - T - Lanpostu aldaketa.
1996-06-07 (2) 1996-09-17 / 1996-10-28

Lehendakaritza Saila

Lehendakaritza Diputatua

975/96 - T - Lehiaketan kontuan hartu beharreko merituak.
1996-09-20 (2) 1996-10-21 / 1996-11-25

- Gipuzkoako Foru Diputatua

Garraio eta Errepide Saila

Garraio eta Errepide Diputatua

200/95 - A - Kalteak etzebizitza batean errepide-saihesbide baten eraikuntzaren ondorioz.
1996-06-24 (2) 1996-09-19 / 1996-10-24

C) **Udalak**

- Arabako Lurralde Historikoa

Okondoko Alkatea

622/96 - T - Oztopo arkitektonikoak.
1996-08-09 (2) 1996-10-04 / 1996-10-24

Gasteizko Alkatea

731/95 - A - Prezio publikoak ordaintzera behartua.
1995-09-22 (3) 1995-11-29/**1996-01-23/1996**-02-22
762/95 - A - Prezio Publikoak ordaintzera behartua.
1995-09-15 (3) 1995-11-29/**1996-01-23/1996**-02-22
763/95 - A - Prezio publikoak ordaintzera behartua.
1995-09-15 (4) 1995-10-25 / 1995-11-29 / **1996-01-23 / 1996**-02-22
878/95 - A - Ur hornikuntzaren erreziboa.
1995-11-17 (2) 1996-01-23 / 1996-02-22
120/96 - T - Uraren tarifak.
1996-02-29 (2) 1996-04-24 / 1996-05-22
427/96 - A - Trafiko zigorra.
1996-05-10 (2) 1996-07-05 / 1996-09-17

Administrazio Batzarrak

Lezamako Administrazio Batzarra

294/96 - A - Ur zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eskaria.
1996-06-07 (2) 1996-09-17 / 1996-10-09

Caicedo-Yusoko Administrazio Batzarra

967/95 - T - Ehiz-koto baterako onartutako erregimenaren ezarketa.
1995-11-14 (4) 1996-02-21 / 1996-04-19 / 1996-05-29 / 1996-07-12

Koartangoko Zuazako Administrazio Batzarra

571/96 - T - Bere etxebizitzako saneamendu instalazioa hobetzeko eskaria.
1996-06-27 (3) 1996-09-19 / 1996-10-09 / 1996-11-26

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

Abanto-Zierbenako Alkatea

818/95 - T - Lur-zati komunal bat okupatzeko eskubidea.
1995-12-01 (3) 1996-02-23 / 1996-04-22 / 1996-05-23

Arrietako Alkatea

374/96 - T - Bide publikoa okupatzen duten obra ilegaletarako lizentzia.
1996-03-29 (2) 1996-04-24 / 1996-05-27
1996-06-18 (2) 1996-07-09 / 1996-08-02

Barakaldoko Alkatea

469/95 - T - Etxekonekoak fatxadan egindako obra ilegal baten salaketa.
1996-04-26 (3) 1996-05-23 / 1996-09-19 / 1996-10-23

404/96 - T - Etxekonekoak ilegalki obra bat egin duela salatzen du.
1996-04-19 (2) 1996-05-27 / 1996-07-23

Basauriko Alkatea

208/95 - A - Bigarren iharduerarako atxikidura.
1996-02-02 (3) 1996-04-24 / 1996-05-21 / 1996-07-05

925/95 - A - Zigorra zaborra uzteko ordutegia hausteagatik.
1996-02-26 (2) 1996-04-24 / 1996-05-21

Bilboko Alkatea

946/95 - A - Trafiko isuna.
1996-01-19 (2) 1996-03-19 / 1996-04-24

971/95 - A - Langileen arteko soldata desberdintasunak.
1995-11-17 (2) 1996-01-15 / 1996-02-22

1059/95 - T - Udalak ur hodian egindako konponketak ordaintzeko errekerimendua.
1996-01-09 (3) 1996-02-23 / 1996-04-22 / 1996-05-23

206/96 - A - Udalak ondare mailan eduki dezakeen ardura.
1996-05-23 (2) 1996-04-24 / 1996-05-27

352/96 - T - Administrazioaren isiltasuna.
1996-04-19 (3) 1996-05-27 / 1996-07-23 / 1996-10-15

451/96 - T - Garraiobide baten geraldien seinalizazioa.
1996-07-16 (2) 1996-10-03 / 1996-10-24

Durangoko Alkatea

187/96 - T - Taberna-jatetxe bateko zaratek eta usainek eragindako gogaipenak.
1996-02-23 (2) 1996-04-24 / 1996-05-27

330/96 - A - Galdara-gela bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-03-28 (2) 1996-05-27 / 1996-07-23

Ermuko Alkatea

345/96 - T - Udalak okupatutako lurra finkatzea eta baloratzea.
1996-03-28 (2) 1996-05-20 / 1996-07-09

Foruko Alkatea

660/94 - T - Harrobi bateko zaratek eta leherketek eragindako gogaipenak.
1996-08-28 (2) 1996-10-03 / 1996-10-24

Getxoko Alkatea

454/95 - T - Musika akademia batek eragindako zaratak.
1995-10-27 (3) 1995-11-28/**1996-01-16/1996**-02-19

520/95 - A - Pub batek eragindako zaratak.
1996-01-19 (3) 1996-02-22 / 1996-04-24 / 1996-05-27

277/96 - T - Azoka bat ipintzea.
1996-03-19 (3) 1996-05-21 / 1996-07-01 / 1996-09-16

965/96 - T - Arauek baimentzen duen baino auto gehiago aparkatzeko erabiltzen den garaje baten kontra.
1996-10-01 (2) 1996-10-24 / 1996-11-25

Gorlizko Alkatea

614/95 - T - Taberna batek eragindako zaratak.
1996-06-27 (2) 1996-10-02 / 1996-10-28

Ortuellako Alkatea

1105/95 - T - Administrazioaren isiltasuna.
1996-01-05 (2) 1996-02-22 / 1996-04-24
1996-05-17 (4) 1996-07-15 / 1996-10-28 / 1996-11-25 / 1997-01-14

Santurtziko Alkatea

640/96 - T - Hotel bateko zarata eta usainek eragindako gogaipenak.
1996-06-19 (3) 1996-08-28 / 1996-10-02 / 1996-11-05

788/96 - T - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-07-29 (3) 1996-10-02 / 1996-10-23 / 1996-11-25

Sestaoko Alkatea

366/94 - A - Pub bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-04-19 (3) 1996-05-27 / 1996-07-23 / 1996-10-04

Urdulizko Alkatea

597/95 - T - Taberna bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-11-24 (5) 1996-01-17 / 1996-02-19 / 1996-04-19 / 1996-05-24 / 1996-10-31

Trapagarango Alkatea

828/93 - T - Garaje bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-03-08 (2) 1996-05-24 / 1996-07-22

Zeanuriko Alkatea

25/96 - A - Ur beltzak isurtzean ateratzen den usainak eragindako gogaipenak.
1996-05-10 (2) 1996-07-23 / 1996-10-04

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Andoaingo Alkatea

825/96 - A - Baserrirako bidearen jabetza pribatua aitortzea.
1996-07-31 (2) 1996-09-17 / 1996-10-09

Astigarragako Udala

763/96 - A - Zabortegiaren kolmatazioa eta neurri zuzentzaileak.
1996-07-18 (2) 1996-09-19 / 1996-10-09

Donostiako Alkatea

311/94 - A - Eraikina hondamen egoeran dagoela aitortu eta ondoren erauztea eskatzen du.
1996-01-12 (2) 1996-02-19 / 1996-04-24

176/95 - A - Bainuetxe bateko oztopo arkitektonikoak.
1996-11-24 (3) 1996-01-16 / 1996-02-19 / 1996-10-22

749/95 - A - Hiriko tabernek eragindako zaraten kontra.
95-01-27 (2) 1995-11-27 / **1996**-02-19

969/95 - A - Donostiako musika-kontserbatorioa. Bertako langileak irakasle-taldeetan sartzea.
1995-11-17 (2) 1996-02-23 / 1996-04-24

224/96 - A - Erreklamazioa derrigorrezko desjabetzagatik.
1996-03-08 (2) 1996-05-27 / 1996-07-23

729/96 - T - Drogamenpekotasunaren araudiaren kontrako publizitatea jartzea.
1996-08-20 (3) 1996-10-02 / 1996-10-23 / 1996-11-25

1067/96 - T - Bingo batek eragindako gogaipenak.
1996-10-01 (2) 1996-10-25 / 1996-11-25

Hernaniko Alkatea

169/95 - T - Taberna batzuen zaratek eragindako gogaipenak.
1996-06-14 (2) 1996-10-03 / 1996-10-29

Hondarribiko Alkatea

946/96 - A - Zaborra ordutegitik kanpo ateratzea.
1996-09-13 (2) 1996-10-09 / 1996-11-25

Irungo Alkatea

811/96 - T - Dantzaleku bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-09-02 (2) 1996-10-21 / 1996-11-25

Arrasateko Udala

321/96 - T - Poliziaren ekintza.
1996-03-18 (2) 1996-05-27 / 1996-07-22

Errenteriako Alkatea

21/95O - A - Oztopo arkitektonikoak topoaren geltokian.
1996-11-10 (2) 1996-01-16 / 1996-02-19

Tolosako Alkatea

431/96 - T - Ehiz iharduetan erabiltzeko zelai baterako lizentzia.
1996-05-10 (3) 1996-06-18 / 1996-07-03 / 1996-08-02

D) **Beste erakunde publiko batzuk**

Gipuzkoako Abokatuen Kolegio Ofiziala

433/96 - T - Abokatuen Kolegioak hartutako ebazpenean arguridorik eza.
1996-05-30 (3) 1996-07-12 / 1996-10-21 / 1996-11-25

Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorena

966/95 - T - Sute baten berri eman ez izana.
1996-11-22 (2) 1996-02-21 / 1996-05-22

5.3. ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKITEARREN, ERREKERIMENDU-IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK

A) **Eusko Jaurlaritza**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Kabinete Teknikoaren Zuzendaria

293/95 - A - Premia bereziak dauzkaten ikasleei laguntza ematea.
1995-11-24 (1) 1996-01-12

EHUko Idazkari Nagusia

246/95 - A - Irakasle funtzionarioen matrikula EHUn.
1996-03-15 (1) 1996-04-19

318/95 - A - Ikasketa-planen aldaketa.
1995-11-30 (1) 1996-01-12
858/95 - A - Ikasketa-planen aldaketa.
1995-11-24 (1) 1996-01-16
1022/95 - A - Irakaskuntzaren programazio orokorra.
1995-12-20 (1) 1996-02-06
47/96 - T - Zerbitzu aktibora berriz itzultzea.
1996-02-26 (1) 1996-04-19

Kultura Saila

EITB

135/95 - A - Telebistako programazioaren edukiak.
1996-02-26 (2) 1996-04-22 / 1996-05-27

Ogasun eta Administrazio Publikoen Saila

Zerbitzu Zuzendaria

874/95 - A - Administrazioaren ebazpena betetzea.
1995-30-10 (1) 1996-01-16

HAEE/IVAP

401/95 - A - Lan-boltsak ordezkapenetarako.
1995-11-20 (2) 1996-04-17 / 1996-05-27

Herrizaingo Saila
Barne Sailburua

697/94 - A - Poliziaren ekintza.
17-05-1995 (4) 30-08-1995 / 01-12-1995 / **16-01-1996 / 21-02-1996**

Zerbitzuen Zuzendaria

590/95 - A - Administrazioaren isiltasuna.
1996-04-25 (1) 1996-05-27

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

Giza Eskubide eta Justiziarekiko Lankidetza Zuzendaria.

695/96 - T - EAEn adin txikiko lege hausleentzako internamendu zentrurik ez egotea.
1996-09-30 (1) 1996-11-26

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

Zerbitzu Zuzendaria

621/96 - A - Etxebizitza erosteko laguntzak kendu izana.
1996-07-29 (1) 1996-10-23

B) **Foru Aldundiak**

- Bizkaiko Foru Aldundia

Gizarte Ongizate Saila

Gizarte Ongizate Sailburua

186/94 - A - Pentsioa kentzea.
1995-01-30 (6) 1995-02-22 / 1995-03-20 / 1995-05-03 / 1995-11-15 / **1996-01-12 / 1996-02-21**

793/95 - A - Foru Aldundiari adineko elbarrien babeserako informazio eskaria.
1995-10-09 (3) 1995-11-28 / 1996-01-12 / 1996-02-19

Kultura Saila

Kultura Diputatua

593/95 - A - Ondare historiko artistikoaren konponketa.
1996-07-31 (1) 1996-09-27

Ogasun eta Finantza Saila

Ogasun eta Finantza Diputatua

1077/95 - T - Ondasun Higiezinen gaineko Zergan zentru erlijiosoak salbuestea.
1996-05-22 (1) 1996-09-17

1131/96 - A - Zergak ordaintzeko aukera PFEZn.
1996-10-10 (1) 1996-11-25

- Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Saila

Ogasun eta Finantza Diputatua

1164/95 - T - Zergak ordaintzeko aukera PFEZn.
1996-10-18 (1) 1996-11-25

Garraio eta Errepide Saila

Garraio eta Errepide Diputatua

95/96 - A - Erabilera berezirako garraioa baimentzea.
1996-01-26 (1) 1996-02-13

C) **Udalak**

- Arabako Lurralde Historikoa

Amurrioko Alkatea

323/94 - A - Iharduera gogaikarriak.
1994-10-13 (6) 1994-12-23 / 1995-02-23 / 1995-03-21 / 1995-05-03 / 1995-06-08 / **1996-01-17**

Laudioko Alkatea

564/95 - A - Administrazioaren isiltasuna.
1995-11-22 (2) 1996-01-16 / 1996-02-21

Gasteizko Alkatea

191/95 - T - Iharduera gogaikarriak.
1996-06-18 (2) 1996-10-02 / 1996-10-23
481/95 - A - Trafiko isuna.
1995-11-30 (1) 16-01-1996-01-16
12/96 - A - Trafiko isuna.
1996-04-16 (3) 1996-05-21 / 1996-07-15 / 1996-09-16
83/96 - A - Trafiko isuna.
1996-03-13 (2) 1996-04-19 / 1996-05-21

Labastidako Alkatea

343/96 - T - Ur hornikuntzaren tarifa.
1996-05-30 (1) 1996-09-17 / 1996-11-04

Oiongo Alkatea

63/96O - A - Berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak hautaketa prozesuan.
1996-10-11 (2) 1996-11-25 / 1996-12-10
16/96 - A - Ur hornikuntzaren mozketa.
1996-07-04 (1) 1996-07-29

Aguraingo Alkatea

53/96 - A - Iharduera gogaikarriak.
1996-02-29 (2) 1996-04-02 / 1996-07-12

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bilboko Alkatea

666/94 - A - Trafiko isuna.
1995-05-26 (3) 1995-08-30 / 1995-11-14 / **1996-01-16**

51/95 - T - Ibilgailuari kalteak egin izanaren ardura aitortzea.
1995-07-13 (4) 1995-10-19 / 1995-12-01 / **1996-01-16 / 1996-02-23**

248/95 - T - Trafiko isuna.
1995-08-23 (2) 1995-12-01 **/ 1996-01-16**

574/95 - A - Entzunaldi tramitea espediente administratibo batean.
1995-11-29 (2) 1996-01-17 / 1996-02-13

615/95 - A - Trafiko isuna.
1996-02-02 (1) 1996-04-19

275/96 - A - Iharduera gogaikarriak.
1996-05-17 (1) 1996-07-22

1012/96 - T - Berriz etxebizitza edukitzeko eskubidea aitortzea.
1996-11-15 (1) 1996-12-19

Bakioko Udala

856/96 - A - Kalez kaleko ogi salmentaren kontra.
1996-08-22 (2) 1996-10-23 / 1996-11-25

Basauriko Udala

729/95 - A - Zigorra zaborra uzteko ordutegia hausteagatik.
1996-03-15 (3) 1996-04-19 / 1996-05-21 / 1996-07-15

834/95 - A - Zigorra zaborra uzteko ordutegia hausteagatik.
1996-04-03 (2) 1996-05-20 / 1996-07-15

Karrantzako Alkatea

137/96 - A - Udalak birzatikatze proiektu bat erredaktatzea interesatzen da.
1996-05-13 (1) 1996-07-18

Durangoko Alkatea

187/96 - T - Iharduera gogaikarriak.
1996-10-04 (2) 1996-10-04 / 1996-10-24

Elorrioko Alkatea

813/95 - A - Iharduera gogaikarriak.
1996-02-28 (1) 1996-04-19

Ermuko Alkatea

106/96 - A - Iharduera gogaikarriak.
1996-07-11 (2) 1996-10-03 / 1996-10-24

Galdakaoko Alkatea

220/96 - A - Baserria berritzeko lizentzia.
1996-06-07 (3) 1996-07-18 / 1996-09-17 / 1996-10-23

Getxoko Alkatea

1121/95 - A - Epaia behin-behinekoz betetzea.
1996-01-08 (1) 1996-02-06

Loiuko Alkatea

1090/95 - A - Mantenimentu lanetarako lizentzia eskatzen du.
1996-04-01 (1) 1996-05-23

Ondarroako Alkatea

926/95 - T - Eraikuntzen zerga.
1996-05-22 (1) 1996-11-04

891/96 - A - Musika-irakasle plaza hornitzeko lehiaketan baloratu beharreko merituen zehaztasuna.
1996-10-23 (1) 1996-11-27

Plentziako Alkatea

1016/95 - A - Iharduera gogaikarriak.
1996-02-26 (1) 1996-04-19

Zierbenako Alkatea

464/95 - A - Abantoko Udalak Zierbenakoari bideraketa prozesuan dagoen espediente bat bidal diezaiola eskatzen du.
1995-06-30 (5) 1995-10-19 / 1995-12-01 / **1996-01-16 / 1996-02-23 / 1996-04-24**

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Amezketako Alkatea

283/95 - T - Iharduera gogaikarriak.
1995-11-13 (1) 1996-01-17

Beasaingo Alkatea

536/95 - A - Udalak ardura daukala aitortzea.
1996-03-21 (1) 1996-05-27

Belauntzako Alkatea

867/95 - A - Udal zergak biltzeko prozedura ilegala.
1996-04-22 (3) 1996-05-27 / 1996-07-22 / 1996-09-19

Donostiako Alkatea

1062/95 - A - Poliziaren iharduera.
1996-03-26 (1) 1996-05-07

Hondarribiako Alkatea

949/96 - T - Emakume talde batek Alardean parte hartu ezina salatzen du.
1996-08-22 (2) 1996-09-05 / 1996-11-07

Eskoriatzako Alkatea

101/96 - A - Industria iharduera bateko zaratek eragindako gogaipenak.
1996-05-30 (3) 1996-07-23 / 1996-10-02 / 1996-11-07

Oiartzungo Alkatea

322/95 - A - Gasbiltoki bat erretiratzea ilegalki kokatuta zegoelako.
1996-04-24 (1) 1996-05-27

Errenteriako Alkatea

388/96 - A - Egoiliar izaera hautaketa prozesu batean baloratu izana.
1996-04-19 (2) 1996-05-15 / 1996-07-02
1996-09-12 (1) 1996-10-24

D) **Beste erakunde publiko batzuk**

Abokatutzaren Euskal Kontseilua

137/93 - T - Abokatuaren ustezko erantzunkizuna.
1996-11-15 (1) 1996-01-12

645/95 - T - Kolegiatuek Gobernu Batzordeko aktak irakurtzeko aukera.
1996-02-16 (1) 1996-04-19
1996-06-20 (2) 1996-09-17 / 1996-11-28

Ur Partzuergoa

206/95 - T - Saneamendu kanona.
1996-02-13 (1) 1996-04-19
1996-08-28 (1) 1996-11-04

VI. ATALA
ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOAK BETETZE MAILA

Arartekoaren sorrerari buruzko 3/985 Legearen 11. artikuluan, erakundearen gain utzitako betekizunak burutzeko erak zehaztean, administrazio publikoentzako gomendioak egin ahal izango direla adierazten da. Ekimen horren bidez zera bilatzen da kasu gehienetan: Arartekoaren iritzipean jarritako administrazio ekintzak aldatzea, lege antolamenduaren aurreikuspenak hausten dituztela ondorioztatzen denean. Ekintza horiekin, bestalde, administrazio zerbitzuak hobetzeko ahalegina ere egiten da, zerbitzu horiek ematean akatsen bat antzeman den kasuetan. Prozedura honen bitartez bilatzen diren helburuak kontutan izanda, lortzen diren erantzunak oso argigarriak izango dira erakunde honek lortutako emaitzak baloratzeko orduan, Arartekoaren ustez zuzendu edo hobetu daitezkeen egoeren kasuetan. Ildo horretatik, lehenago ere esan dugun bezala, aipatzekoa da nolako satisfazioa sentitzen den erakunde honetan gure gomendio baten bidez arazoren bat konpontzen denean edo zerbitzu publiko batean nolabaiteko hobekuntza lortzen denean; izan ere, une horietxetan gurea bezalako erakunde baten izateko arrazoiaz eta garrantziaz ohartzen gara benetan, eguneroko lanean.

Arartekoaren gomendioak planteatutako arazoei buruzko azterketa juridikoetatik ateratako ebazpenak izaten dira, kexatzen den hiritarraren erreklamazioa hartu eta dagokion administrazioaren iritzia jaso eta gero ematen direnak. Azterketaren ondorio bezala, erakunde honek uste duenean dagokion organo administratiboaren ekintzak lege antolamenduaren aurreikuspenak hautsi dituela, edo halako zerbitzu bat hobeto eman daitekeela ikusten dugunean, atera den ondorio horretara eraman gaituzten arrazoibideak bildatzen zaizkio dagokion organoari. Arauek eta, bere kasuan, antolakuntza irizpideek konponbide desberdina eman diezaiekete gure iritzipean jartzen diren gaiei, eta, horregatik, arauen interpretazioan bakarrik onar daiteke desadostasunik egotea eragindako administrazioekin, gure ebazpenak ez betetzeko orduan. Era berean, antolakuntzaren inguruko gaietan ere ulertzekoa da adostasunik ez egotea egokitasunari dagokionez. Ideia honekin argi utzi nahi dugu, hasteko, prozedurazko edo mamizko irregularitate bat aurkitu denean administrazio publiko baten ihardueran eta, beraz, irregularitate hori zuzentzea eskatzen diogunean, gure erakundeak bere ebazpenaren oinarriak garbi uzteko ahalegin handia egiten duela, kontutan izanik bere erabakiek ez dutela behartze-indarrik. Beste alde batetik, ulertzekoa eta bidezkoa da adostasunik eza pisuzko arrazoiak daudenean administrazio organoaren halako iharduera bati nolabaiteko sinesgarritasuna emateko, nahiz eta gure erakundearentzat iharduera hori ontzat hartzekoa ez izan. Honi gagozkiolarik, komeni da esatea administrazio batzuek, batzuetan, ez

dutela inolako arrazoirik agertzen guk egindako gomendioei jaramonik ez egiteko. Baliteke, hala ere, administrazio horrek oinarririk edukitzea bere erabaki hori hartzeko, baina, dagozkion arrazoiengatik, erantzunean oinarri horiek zehaztu nahi ez izatea. Jokamolde horrek, gutxienez, gure erakunde honen lanarekiko sentiberatasunik eza agertzen du. Bestalde, gerta daiteke, baita ere, gure errekerimendua jaso duen administrazioak argudiorik ez edukitzea gure gomendioari uko egiteko, baina hala ere gure erakundearen ebazpenak dioenari jaramonik ez egitea. Kasu honek areago kezkatzen gaitu, nolabait baduelako zerikusirik Arartekoaren akordioen behartze-indarrik ezarekin eta gure erakundea "persuasioaren magistratura" hutsa izatearekin.

Arartekoak gure Autonomia Erkidegoaren sare instituzionalean daukan betebeharrekoaren aurrean zenbait entitatek duten jarrerarekin segituz, merezi du esatea (ez ordea ohiko gauza delako, baizik eta, hain zuzen, ezohikoa eta apartekoa delako) noizbait zalantzatan jarri ere izan dela erakunde honek salatzen dituen gaietan esku hartzeko daukan ahalmena, Espainiako Konstituzioaren I. Tituluan aipatutako eskubideen hausketarekin loturik ez dauden kasuetan. Berez, esaten dugun hau txosten honetako beste atal batean azter zitekeen arren, hementxe aipatzen dugu, gure gomendio batzuei emaniko ezezko erantzunen kasuetan gertatu delako batik bat zalantzan jartze hori. Kasu hauetan eragindako administrazioei zegozkien azalpenak egin ere egin dizkiegun arren, ez da soberan egongo oroitaraztea erakunde honen egitekoen artean dagoela, inolako zalantzarik gabe, herri administrazioei esijitzea legezkotasun printzipioa zorrotz bete dezatela. Baieztapen hori justifikatzeko, ekar dezagun hona gure sorrerari buruzko legearen zioen adierazpena, ondoko ebazpenak interpretatzeko bidea ematen baitu, erakunde honetaz honako hau dioenean, alegia: «*...herritarrek arduralaritza on bat izateko duten eskubidea babesteko eta legetasun-arauerako Arduralaritza zainpetzera jotzen duen ihardutze-sail bat*» dela, eta «*legezkontrakotasunak somatzen direnean ezezik, legeak aldarazteko bultz ere*» egiten duela. Zuzenbide positibotik, ondorio horretxetara iristen da Euskadiko Autonomi Estatutuaren 15. artikuluan ezarritako aginduetatik, Herri Defendatzaileari buruzko apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoaren 9.1 artikuluari dagokionez, bai eta, nola ez, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen beraren testutik ere.

Txosteneko atal honetan, joan den 1996ko urtarrilaren 1etik hasi eta abenduaren 31ra bitartean egin ditugun gomendioak zer puntutaraino bete diren aztertuko dugu. Horrela, urte osoan egindako ehun eta berrogeita zortzi gomendioetatik, bai eta 1995eko abenduaren 31n behin betiko erantzun edo ebazpen zain zeudenetatik -hauetatik hamar bertan behera geratu dira edo atzera bota dira hainbat arrazoirengatik, eta batean legezko obligazioak bete beharra gogorarazten genuen-, hirurogei ontzat hartu dira eta hogeita bederatzi ez. Gainontzekoak administrazioaren erantzunaren zain daude oraindik, edota eman zaigun erantzuna behar bezala aztertu eta gaiari buruzko behin betiko ondorioa ateratzearen zain. Esan ditugun zenbakietan gomendio guztiak sartuta daude, bai alde baten eskariz hasitako espedienteetan, bai ofizioz hasitakoetan emandakoak ere.

Segidan, alde batek eskatuta hasitako espedienteetan bildu ditugun kexak azalduko ditugu, ontzat hartutakoak nahiz hartu gabekoak, bai eta ofizioz hasitako espedienteetakoak ere.

6.1. ERANTZUN ETA/EDO BEHIN BETIKO EBAZPEN ZAIN DAUDEN GOMENDIOAK

EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

* **829/95/20 espedientea.** «Plan 66» deritzaneko «Instrumentu-multzoa» irakasgaia eta LOGSE plan berriko «Instrumentu-praktika» izenekoa konbalidatzeko posibilitatea azter zedila gomendatu genuen.

* **1034/95/20 espedientea.** Egindako eskari bati buruz ebazpen garbia egin zedila gomendatu genuen. Emandako erantzuna aztertu gabe dago oraindik.

* **701/96/20 espedientea.** Donostiako Compañía de María Ikastetxeak eskatutako funtzionamendu kostuak tipifikatzea gomendatu genuen, zeren eta zeukaten katalogazioa (eskolaz kanpoko edo osagarrizko ekintzen kostuak) zalantzazkoa izanik LODEko 51.1 artikuluan ezarritako doakotasun erregimena kolokan jar baitzitekeen.

* **1069/96/20 espedientea.** Bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko bi funtzionario irakasleri truke eskaria ukatu zieten, hezkuntza alorreko administrazioaren iritziz ez zutelako betetzen unibertsitatez kanpoko irakaslego publikoaren lan baldintzak arautzen dituen Akordioko 56. artikuluak ezarritakoa, hots, irakasle bien zerbitzu urteetan bost urtetik gorako aldea ez egotea.

Nolanahi ere, zehaztu beharra dago baldintza hori ez zela betetzen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egindako interpretazio baten arabera, hortan zerbitzu urteetan bai behin-behineko funtzionario gisa igarotakoak, bai eta karrerako funtzionario gisa igarotakoak ere sartzen zirelako.

Mugapen horrek daukan helburua kontutan izanda -alegia, destino berriak lortzeko salbuespenezko bide horren eraginez, beste hirugarren batzuen interesak ez kaltetzea, pertsona horiek beraien antzinatasunagatik eta lanpostuak betetzeko ohiko prozeduren bidez ziurtatua eduki dezaketenean trukatutako destinoetarako sarrera-, Arartekoak ebatzi zuen lekualdatze-lehiaketetako baremoa erabili behar zela Akordioko 56. artikuluan ipinitako baldintza hori betetzen zen ala ez erabakitzeko, kontutan izan beharreko zerbitzuei dagokienez.

Hortaz, lekualdatzeetan kontutan hartzen den antzinatasunean batez ere karrerako funtzionario lanetan igarotako urteak hartzen direnez gero, interesatuen truke-eskaria ez onartzeko Ebazpena aldatzea gomendatu genuen.

Egin genuen gomendioaren onarpenik eza azaltzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren erantzunean planteaturiko salbuespena -irakasle multzo desberdinei trataera berdina ematea, lehenagoko ikastoletatik iritsitako pertsonalak emandako zerbitzuak kontuan hartuz, eta autonomiaren barruko lekualdatze-lehiaketetan baremo propioa ipintzeko posibilitatea- ez zen nahikoa gure gomendioa aldatzeko, kasu honetan trukatu nahi ziren destinoak lekualdatze-lehiaketen ohiko arauei jarraituz lortuak zirelako. Ondorioz, gomendioa bete beharra oroitarazi behar izan genuen.

Euskal Herriko Unibertsitatea

* **47/96/18 espedientea.** Funtzionario irakasle baten eskaria ontzat hartzea gomendatu genuen, hots, zerbitzu aktiborako itzuleraren ondorio administratibo eta ekonomikoak kexa eragin zuen ebazpenean jaso baino lehenagokoak izatea.

Kultura Saila

HABE

* **615/96/18 espedientea.** HABEri iradoki genion euskaltegi homologatuentzako hurrengo dirulaguntza deialdietan Baremazio Batzorderako esleiketa irizpideak gehiago objetibatzea. Era berean, euskaltegientzako dirulaguntzak ordaintzeko orduan atzerapenik ez gertatzea ere iradoki genuen.

Industria, Nekazaritza eta Arrantzu Saila

* **144/96/16 espedientea.** Nekazari erakunde profesionalentzako dirulaguntzei dagokienez, Arartekoaren iritziz, Nekazaritza Sailak laguntzak emateko eskariekin egiten duen tramitazioan ahalik eta zorrotzen jokatu behar du indarrean dauden xedapenetan ipinitako prozedurak betetzeko orduan, batez ere dokumentazioa aurkezteko modu eta epeei dagokienez; izan ere, horien mende dago publizitate, lehia eta objetibotasun printzipioen errespetuari zor zaion bermea.

Erakunde profesional desberdinek egindako ekintzen balorazioari dagokionez, balorazio berezia jasotzen dutenen kopuru itxia ipintzea komenigarria ez den arren, bai eskatzekoa litzateke emandako dirulaguntzaren portzentaia zehazteko kontutan hartzen diren faktoreak ondo arrazoitzea, gerora horien kontrola ahalbidetzeko eta kasu honetan sartutako erakundeen tutela eraginkorrerako eskubidea bermatzeko.

Herrizaingo Saila

* **116/95/19, 140/95/19, 345/95/19, 394/95/19, 421/95/22, 453/95/22, 466/95/22, 558/95/19, 592/95/19, 930/95/19, 1133/95/19 eta 99/96/22 espedienteak.** Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzari

zirkulazio arau-hausteengatik hasitako espedienteetan erabakitako isunak ofizioz bertan behera uztea gomendatu genion. Zuzendaritza horrek gure gomendioei egindako alegazioak azterketaren zain daude oraindik.

Ogasun eta Herri Administrazio Saila

* **649/94/19 espedientea.** Kexagileari ordainarazi eta, geroago, itzuli zitzaion diru kopuru batek sortutako interesak eman zitezela gomendatu genuen, baina ordainarazitako zorraren zati nagusiaren kopurua soilik.

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

* **695/96/21 eta 906/96/21 espedienteak.** Epailearen erabakiz internatuta zeuden adin gutxiko batzuen -bi neska eta mutil baten- abokatuek jo zuten erakunde honetara bi momentu desberdinetan. Bi kasuak berdinak ziren, eta bietan agertzen zen internamendu neurriak betetzeko zentro egokiak falta direla EAEn. Horregatik, bi espedienteei zegokienez, honako gomendioak egin genizkion Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Justiziarekiko Elkarlanerako Zuzendaritzari:

a) Gaur egun EAEtik kanpoko zentroetan internatuta dauden adin gutxikoen kasuetan -batez ere, erregimen erdi-irekian dauden nesken kasuan-, premiazkoa da ahalik eta lasterren beharrezko neurriak hartzea Euskadiko zentroetara ekarriak izan daitezen, dauden zentroetan gelak prestatuz -eta zentro horiek misto bihurtuz, aldi baterako behintzat-, edota pisuak nahiz bestelako egoitzak atonduz.

b) Guztiz beharrezkoa da EAErako aurreikusita dauden internamendu zentroak ahalik eta lasterren eraiki eta lanean jartzea, bai Zumarragako zentro mistoa (erregimen itxia), bai, eta batez ere, neskentzat Andoilun ipintzekoa den zentro ireki eta erdi-irekia. Kontuan izan behar da kasu hauetan sartutako adin gutxikoen eskubideak kaltetzen ari direla zentro egokirik ez egoteagatik.

Eman zaigun erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

* **431/96/15 espedientea.** Hernialdeko Udalak eta biztanle batzuek salaketa bat aurkeztu zuten Tolosako Udalaren aurka, ondoko mendi batean ehize-zakurrak trebatzeko zentro bat ipintzeko baimena eman zuelako eta tiro ugarien zaratak gogaipenak eragiten zizkielako. Arartekoak Tolosako Udalari gomendatu zion legea bete zezala bere ekintza horretan, gure ustez hori ez zelako gertatzen. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera ere jo genuen, kirol iharduera hori ikuska zezala eskatzeko, kasu honetako lursaila urbanizatu ezinekoa izanik, Sail horrek zeukalako kasuari zegokion eskumena.

Osasun Saila

Osakidetza

* **1059/96/20 espedientea.** Kexa aurkeztu zuen pertsonak egindako famili plangintza ikastaro bat alegatu zuen lekualdatze-lehiaketa batean, graduondoko ikasketei zegokien baremoan sartu eta baloratua izateko; Arartekoak ikastaro hori kontuan izan zedila gomendatu zuen, horretarako baldintzak betetzen zituelako.

* **1155/96/20 espedientea.** Zirujia orokorra eta liseriketa aparatuko sendagileentzako lehen kanporatze proba batean lehiatzaile baten kalifikazioaren balorazioan egindako akatsa zuzentzeko neurriak hartzea gomendatu genuen, bai eta, beraz, hauta-prozesuaren tramiteko gainontzeko ekintza guztiak (onartuen behin-behineko zerrenda) egokitzea ere balorazio zuzendu horren arabera.

* **1620/96/18 espedientea.** Lehiaketa-oposaketa bateko lehiatzaile bati espedientea ezagutzeko eskubidea betetzeko neurriak har zitezela gomendatu genuen, geroago errekurtsoa aurkezteko aukera izan zezan, nahi izanez gero.

Garraio eta Herri-Lan Saila

* **22/95/15 espedientea.** Irunen ura bideratzeko egiten ari ziren lanek iraun bitartean, sarbideak egoera onean mantentzeko eta, obrak bukatutakoan, behar bezala uzteko neurriak hartzea gomendatu genuen. Jaso genuen erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

* **1108/96/20 espedientea.** Gazteria Foru Institutuari gomendatu genion administrazio espedienteak oro har, eta, batez ere, hautaprobetakoak, ezagutzeko bide osoa ematea interesatuei, haien interesen babes eraginkorra bermatzearren. Jaso genuen erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

* **1223/96/16 espedientea.** Ogasun Sailari gomendatu genion espediente honetan ezarritako isuna bertan behera uzteko, baldin eta kasu honetako ekintzak aztertu eta gero, eta erreklamatzaileak egindako azalpena kontuan izanik, ondorioztatzen bazen notifikatu ezin izan ziren ekintzen berri ez jakitea izan zela zerga-isun batez zigortu zen kolaboraziorik ezaren arrazoia, eta beraz iruzur egiteko asmorik ez zela egon.

Bizkaiko Foru Aldundia

* **674/94/18 espedientea.** Asistentzia egitarau batean, Gizarte Ongizaterako Foru Sailaren arabera epez kanpo aurkeztu zen eskari bat tramitera onartzeko gomendioa egin genion Sail horri. Izan ere, frogatuta zegoen eskabidea deialdiak ipinitako epearen barruan aurkeztu zela interesatua bizi zen hiriko Udalaren gizarte zerbitzuetan, eta arrazoi horretan oinarritu ginen gure gomendioa egiteko. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

* **12/95/16 eta 14/95/16 espedienteak (espediente kolektiboa).** Kexa hau aurkeztu zutenek Bizkaiko Foru Ogasunak PFEZ aitorpena egiteko prestatutako informazio-foileto bat eskuratu zuten, zeinetan ez baitzen inola ere aipatzen zergaldia eten egin zitekeela ezkontza gertatzeagatik; bestalde, atenditu zituen funtzionarioak ere ez zien aukera horren berri eman. Horregatik, interesatuek egindako eskaria onartzea gomendatu genuen, hots, 1992ko aitorpenean erabilitako tributazio modalitatea zuzentzea. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

* **793/95/20 espedientea.** Interesatuek egindako eskabide guztiei buruz ebazpen garbia egin zezala gomendatu genion Gizarte Ongizaterako Foru Sailari.

* **1077/95/16 espedientea.** Ogasun eta Finantza Sailaren iritzipean jarri genuen Biltzar Nagusiei proposatzea foru arau baten bitartez Eliza Katolikoaren ikastegiak Ondasun Higiezinen Zergatik salbuetsita uzteko posibilitatea, Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoetan egin zen bezala. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

* **1088/96/16 espedientea.** Lehenagoko Hirilur-Kontribuzioko likidazio baten zordun nagusia kobraezintzat jo zen 1990eko abenduaren 17an, eta eraginpeko ondasunaren jabeari 1997ko apirilaren 23an egin zitzaion zerga-zorra errekargurik gabe ordaintzeko errekerimendua.

Aldi horretan, zordun subsidiarioak ezagutu zezakeen inolako ekintza administratiborik egon ez zenez, eta eraginpeko ondasunaren jabearentzat ordaindu beharra sortu zenetik, hau da, zordun nagusia kobraezintzat jo zenetik bost urte eta lau hilabete igaro zirela kontutan izanda, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 64. artikuluaren arabera, garbi dirudi indargalduta dagoela Administrazioak zorraren ordainketa esijitzeko eskubidea. Beste alde batetik, arau horretxen 67. artikuluak dioenaren arabera, indargaltze hori ofizioz aplika daiteke, sujetu pasiboak eskatu beharrik gabe ere.

Esandako guztiaren argitan, Ogasun eta Finantza Sailari gomendatu genion kexa aurkeztu zuenari egindako likidazioak bertan behera uztea eta 1996ko apirilaren 29an kontzeptu horrengatik kobratutako diru kopurua itzultzea.

Gipuzkoako Foru Aldundia

⁎ **399/96/16 espedientea.** Arartekoaren iritzipean jarritako ebazpenaren bigarren oinarrian esaten den bezala -oinarri horren aurkako errekurtsoa aurkeztua zegoen- inpugnazioa PFEZren likidazio mekanizatua egin zen egun berean aurkeztu zen, hots, 1993ko maiatzaren 8an, eta bestalde itxuraz ez zegoen beste inolako arrazoirik aukerarik onenaz ez baliatzeko, kalkulu arauak ez jakitea baino. Horregatik, Ogasun eta Finantza Sailari gomendatu genion interesatuak egindako eskabidea ontzat har zezala, hots, aukera hori zuzentzea. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

⁎ **439/96/16 espedientea.** Ezkontzaren erregimen ekonomikoaren barruan erreklamatzaileen ohiko bizitetxeari ematen zaion izaera edozein izanda ere, ezkontide biak jabe dira zatitugabeko parte berdinetan, Ogasun eta Finantza Sailaren beraren txostenak aitortzen duen bezala; eta bizitetxe horren gainean eratu zen hipotekan subrogatu zena senarra bakarrik izan zen arren, eskritutak honakoa dio bere zazpigarren klausulan:

> *«Zordunari dagokion ekintza pertsonalaren kalterik gabe, J.Z.U. jaunak eta M.C.U.B. andreak hipoteka bakarra eratzen dute KUTXAren alde...»*

Beste alde batetik, berriro esan behar dugu ezkontideek erakunde mailegatzailearen aurrean zeukaten elkartasunezko erantzunkizun horretxen ondorioz, maileguaren amortizazio eta interesei zegokien ordainketa diru ganantzialekin egiten zela. Horregatik, ordainketa horiek J.Z. jaunak bakarrik egiten zituela esatea, hipotekaren subrogatzailea zelako, fikzio hutsa da.

Azaldu dugun honetan oinarriturik, Ogasun eta Finantza Sailari gomendatu genion emaztearen ohiko bizitetxerako inbertsio bezala onar zezala PFEZn urtealdi bakoitzean senarrak ordaindutako kantitateen erdia, familiaren etxea erosteko eskatutako mailegu hipotekarioaren amortizazio eta interes moduan. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

⁎ **810/96/20 espedientea.** Praktiketan zegoen funtzionario baten kexa jaso ondoren, funtzionario horren hizkuntz trebakuntza egokia bideratzeko neurriak hartzea gomendatu genion Lehendakaritza Sailari.

Era berean, HAEE-IVAPek hizkuntz eskakizunak ziurtatzeko iragarritako deialdian interesatuari beste kontraste proba bat egiten uztea ere gomendatu genuen, bai eta Foru Aldundiarentzat lan-praktiketan dauden funtzionarioen hizkuntz prestakuntza garatzeko baldintza eta bideetan dagoen hutsunea betetzea ere, HAEEk normalizatutako irizpideei jarraituz. Gai honen berri zehatzagoa izateko, ikus Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza ataleko kexa aukeratuak.

⁎ **904/96/19 espedientea.** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garraio eta Errepide Sailari gomendatu genion, aurreko ebazpen bat bertan behera uzteaz

gainera, bere administrazio erantzunkizun patrimoniala onar zezala zirkulazio istripu batean ibilgailu batek izandako kalteengatik.

* **1164/96/16 espedientea.** Arartekoaren iritzipean jarritako kasuko gora-beherak aztertu eta gero, PFEZn egindako tributazio aukera aldatzeko eskaria onartzea eta interesatuei egindako likidazioak zuzentzea gomendatu genion Ogasun eta Finantza Sailari.

* **1391/96/18 espedientea.** Kasu honetako zertzeladen arabera, unibertsitate ikasle talde batek aukeratutako garraio enpresak eskatu zuen garraio berezia onartzeko iradokizuna egin genion Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garraio eta Errepide Sailari.

TOKI ADMINISTRAZIOA

Arabako udalak

Vitoria-Gasteizko Udala

* **191/95/22 espedientea.** Udalaren zerbitzu teknikoek ostalaritza alorreko establezimendu bati ikuskapen-bisita egitea gomendatu genion Vitoria-Gasteizko Udalari, ekainaren 11ko 171/85 Dekretua indarrean sartu aurretik iharduera kaltegabetzat jota egonda, dekretu horrek ezarritako baldintza teknikoak betetzen zituen ala ez argitzeko. Bestalde, ikuskapen horrek ondorioz ateratzen bazuen iharduera horrek ez zituela betetzen 171/85 Dekretuak ezarritako baldintza teknikoak, horiek betearazteko aukera teknikoari buruzko balorazioa egin zedila ere gomendatu genuen.

* **548/96/19 espedientea.** Vitoria-Gasteizko Udalari gomendatu genion itzul ziezaiola kexagileari bere ibilgailua bide publikotik erretiratu eta udalaren gordelekura eramatearen tasagatik ordaindu behar izan zuen diru kopurua, gure iritziz ekintza hori lege antolamenduaren aurreikuspenen kontra zihoalako; izan ere, gure iritzipean jarritako kasu honetan, emaitza positiboa izandako alkoholemia proba baten kasuan alegia, automobila geldiarazi egin daiteke gehienez ere.

* **728/96/19 espedientea.** Zirkulazio arauak hausteagatik hartutako zigor erabaki bat bertan behera uztea gomendatu genion Vitoria-Gasteizko Udalari.

Barrundiako Udala

* **259/95/15 espedientea.** Lursailen itxitura eta errepideetatiko distantziei buruzko arautegia Arabako Foru Aldundiak daukanaren arabera moldatzea gomendatu genuen. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Oka-Iruñako Udala

* **1116/96/17 espedientea.** Oka-Iruñako Udalari gomendatu genion ganadu ikuilu baten titularrei eska ziezaiela iharduera hori legeztatzea eta, bien bitartean, beharrezko neurri teknikoak har zitzatela iharduera horren funtzionamenduak gogaipenik ez sortzeko herriko beste bizilagunei.

Iruraitz-Gaunako Udala.

* **367/95/15 espedientea.** Langarika herrian ur horniketa zerbitzuaren etxola bat legez kanpo eraiki zela salatu zen, arau subsidiarioetan ezarritakoa baino distantzia gutxiagotara zegoelako ondoko lursail batetik. Ararteko gomendio bat bidali zion Iruraitz-Gaunako Udalari, hirigintza alorreko neurriren bat hartzea komeni ote zen azter zezaten.

Labastidako Udala

* **343/96/16 espedientea.** Erakunde honen iritziz, gehiegizkoa da kexagileak garaje plaza batean egindako ur kontsumo posiblea industria batek edo ardogile baten ardotegi batek daukanarekin pareka daitekeela interpretatzea, are gutxiago zenbait unetan aipaturiko higiezinaren kontsumoa hutsaren parekoa izan dela frogatuta dagoenean.

Horregatik, Labastidako Udalari gomendatu genion etxeko erabileraren tarifa aplikatu ezin izanez gero, zegokion zerbitzuak tarifa berezia ipin zezala kasu honetako kexa aurkeztu zuen erreklamatzaileak egindako erabilerarako.

Lapuebla de Labarkako Udala

* **407/94/15 espedientea.** Informazio publiko okerra emateagatik udalbatzarrak bere ondasunezko erantzunkizuna onartzea eta, ondorioz, proiektu tekniko baten zuzenketaren kostua ordaintzea gomendatu genuen.

Legutianoko Udala

* **546/96/15 espedientea.** Ararteko Legutianoko Udalari gomendatu zion Planeamenduko Arau Subsidiarioen testua argitaratzea Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, horretara behartzen dutelako indarrean dauden arauek. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Laudioko Udala

* **620/94/15 espedientea.** Lanbide Heziketarako Udal Zentroaren ondasun egoera aztertzea eta zentroak egiten zituen inbertsio obren egoera zein den argitzea gomendatu genuen. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Bizkaiko udalak

Bilboko Udala

* **51/95/15 espedientea.** Udalbatzarrari gomendatu genion bere ondasunezko erantzunkizuna onartzea eta, ondorioz, ibilgailu batek errepide baten akatsengatik izandako kalteak ordaintzea.

* **127/96/22 espedientea.** Bokataleku sukaldedunak ostalaritza iharduerazat har zitzala gomendatu genion Bilboko Udalari.

* **1012/96/15 espedientea.** Bilboko Udalak Bilbo Zaharreko etxejabe batzuekin hitzarmen bat izenpetu zuen, zeinen arabera beraien etxeak utzi behar baitzituzten, hondamendi egoeran zeudelako; trukean, Udalak legeria autonomikoan ezarritako baldintzetan ordezko bizilekua izateko eskubidea onartzen zien. Bien bitartean, behin-behineko bizitokia eskaini zien auzokoei. Arartekoak etxejabeentzako ordezko etxebizitza ahalik eta lasterren bilatzea eta zein etxe promoziotan bilatuko zien argitzea gomendatu zion Bilboko Udalari.

Abanto-Zierbenako Udala

* **104/96/15 espedientea.** Gallartako Cotarro auzuneko Auzo-Elkarteak Abanto-Zierbenako Udala tramitatzen ari zen Barne-Eraberrikuntzarako Egitasmo Berezia salatu zuen. Arartekoak udalbatzarrari gomendio bat bidali zion, puntu batzuk aldatu eta oker batzuk zuzen zitzan. Udalak Arartekoaren iradokizunen artetik gutxi batzuk baino ez zituen ontzat hartu.

Durangoko Udala

* **187/96/22 espedientea.** Bermezko neurri gisa, ostalaritza iharduera batean ipinitako musika aparatua kentzea gomendatu genuen, establezimenduaren iharduera-lizentzian baimenduta ez zegoelako. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Erandioko Udala

* **1209/96/16 espedientea.** Industri pabilioi bat enpresa bati errentan utzia zuen jabe bati Kokatze-Zergagatik egindako likidazioak bertan behera uzteko eskatu genion Erandioko Udalari. Izan ere, zerga horren sujetu pasiboa zergagai diren lokalak edozein titulutan erabiltzen dituen pertsona natural edo juridikoa da, eta hau ez zen erreklamatzailearen kasua.

Ermuko Udala

* **106/96/22 espedientea.** Iharduera baten titularrari bere ostalaritza establezimenduan ipinita zeukan musika ekipoa ken zezala eskatzea eta ekipo

hori legeztatzeko posibilitatea adieraztea gomendatu genion Ermuko Udalari; kasu horretan, esandako ekipoa ezingo zen erabili harik eta udal zerbitzu teknikoek argitu arte Bizkaiko Foru Aldundiaren kalifikazio txostenean ipinitako neurri zuzentzaileak bete zirela.

Galdakaoko Udala

* **220/96/15 espedientea.** Kasu honetan, hiritar baten arabera, erosi berria zuen baserri bat konpontzeko obrak geldirazi zizkion Galdakaoko Udalak. Antza denez, Udalak, aurreko jabeari familia bakarrarentzako etxebizitza bat eraikitzeko baimena ematean, baldintza bezala jarri zion baserriak hutsik geratu behar zuela. Arartekoak gomendio bat egin zion Udalari, aditzera emanez Galdakaoko Hiri Antolakuntzarako Egitasmo Orokorraren arabera, obra horietarako baimena eman zitekeela, eta obra-baimen batean jasotako era horretako baldintzak bi aldeentzat bakarrik izan zezakeela behartze-indarra, ez ordea hirugarrenentzat. Gaiaren berri gehiago izateko, ikus Hirigintza eta Etxebizitza ataleko kexa aukeraketa.

Lekeitioko Udala

* **361/96/22 espedientea.** Lekeitioko Udalari aditzera eman genion seguru aski legez kontrakoa zela salaketa aurkeztu zigun auzo elkarte bati egoztea ostalaritza establezimendu bateko zarata maila aztertzeko soinu laboratorio bati enkargatu zitzaion txosten teknikoaren kostua. Bere erantzunean, esandako Udalak adierazi zuen ihardueren ikuskapen zerbitzua udalerriak eman behar bazuen ere, zerbitzu horren kostua zergadunari egotz zekiokeela tasa bat kobratuz, eta arrazoi horregatik aurreikusita zegoela zegokion Ordenantza Fiskala onartzea. Informazio horren argitan, Arartekoak ebatzi zuen toki erakunde horrek hautsi egin zuela zerga alorreko legea, sonometria zerbitzuaren kostua jabe elkarte salatzaileari egoztean, ondasunezko prestazio baten ordainketa erreklamatu zutelako kobraketa hori aurreikusten zuen Ordenantza Fiskala onartuta egon aurretik. Ildo horretatik, aditzera eman genion udalbatzarrari gure gomendioa betetzat hartuko genuela baldin eta frogatzen bazen likidazio hori azkenik atzera bota zuela zegokion udal sailak, edota, ordainduta egonez gero, haren zenbatekoa itzuli bazitzaion eragindako jabe elkarteari. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Maruri-Jatabeko Udala

* **841/96/15 espedientea.** Herritar batek Maruri-Jatabeko Udala salatu zuen, erakunde horrek ez zuelako ezer egiten, auzokide bat denuntziatu ondoren bere baserriko ate aurrean zirkulaziotik kanpo zeuden autoak uzteagatik. Arartekoak udal horri gomendatu zion urbanizatu ezineko lurrean egindako legez kontrako iharduera izanik, ibilgailuen titularrari autoak erretiraraztea, hori urbanizatu ezineko lurrean egindako legez kontrako iharduera izateagatik. Udala ez zegoen ados Arartekoaren gomendioarekin eta ez zuen ontzat hartu.

Ondarroako Udala

* **926/95/16 espedientea.** Eraikuntza, Obra eta Instalakuntzen gaineko Zergagatik erreklamatzaileari egindako likidazioa bertan behera uztea eta beste likidazio bat egitea gomendatu genuen kasu honetan; beste likidazio horretan, lizentzia eman ondoren, zergagaiak bat etorri behar zuen obra burutzeko aurrekontuarekin, eta ezin ziren sartu irabazi profesionalak eta etekin industriala.

Portugaleteko Udala

* **910/96/22 espedientea.** Portugaleteko Udalari gomendati genion taberna baten titularrari eskatzea bi hilabeteko epean aurkez zezala instalatua zeukan musika aparailua legeztatzeko proiektua.

Zallako Udala

* **200/96/22 espedientea.** Zallako Udalari gomendio bat zuzendu genion, Lantegi Eskola beste leku batera alda zezan, hau da, udalerri horretan indarrean zeuden arau subsidiarioen arabera gizarte eta hezkuntza erabilera eduki zezakeen leku batera. Halaber, esandako udalbatzarrari gomendatu zitzaion Eskolak bere kokaleku berrian jarraitu ahal izateko beharko zituen giza eta aurrekontu baliabideak ipin zitzala.

Zierbenako Udala

* **62/94/15 espedientea.** Hondartzako dutxetako ura jasotzeko hodi berezi bat ipintzea gomendatu genuen. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

* **94/94/15 espedientea.** Abanto-Zierbenako Udalak emandako obra-lizentzia bat errebisatzeko gomendioa eman genuen, udal hartatik banatu ondoren. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Gipuzkoako udalak

Donostiako Udala

* **754/96/19 espedientea.** Zirkulazio arauak hausteagatik hasitako espediente batean ipini zen isuna bertan behera uztea gomendatu genuen, prozedura okerra erabiltzeagatik isuna baliorik gabe geratzen zelako.

* **1340/96/16 espedientea.** Ararteko erakundearen iritziz, higiezin bategatik ordaindu beharreko zerga higiezin horren erosleari ezarri ahal izateko, beharrezkoa zen zergadun nagusiarengandik, hau da, kexa aurkeztu zuenarengandik, kobratu ezina deklaratzea. Baina, gure ikuspuntutik, kasu honetan

bazegoen arazo bat ordainarazpenaren bidetik -%20ko errekarguarekin gainera-jotzeko: hots, zergagaia gertatzen den unean zerga gestionatzen duen bulegoak, Gipuzkoako Foru Ogasunak alegia, emandako informazioa, zeinarengatik erreklamatzaileak konpondutzat jo baitzuen eztabaida, higiezina erosi zuenari jaso-agiria bidaliz.

Hori horrela izanik, Donostiako Udalari gomendatu genion borondatezko ordainketa egiteko beste epe bat eman ziezaiola erreklamatzaileari, bera izan arren zergadun nagusia, fase desberdinetan erabilitako prozedura ezegokia izan zelako berari emandako informazioagatik hain zuzen. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Beasaingo Udala

* **1154/96/18 espedientea.** Tabakoaren erabilerari buruzko araudian eta haren aplikazioan bere kontsumorako arautegiaren oinarri diren printzipioak kontutan hartzea gomendatu genion Udalari, hau da, erretzaile ez direnen eskubideak nagusi izatea.

Hondarribiko Udala

* **949/96/21 espedientea.** Bidasoaldeko Emakumeak izeneko talde batek Arartekoari salatu zion Hondarribian uko egiten zietela Alardean parte hartzeko eskubidea emakumeak izateagatik. Gure erakunde honek bi gomendio egin zizkion herri horretako alkate jaunari:

a) Pertsonen berdintasuna egiazkoa izateko baldintzak ipintzeko beharkizun konstituzionalean oinarrituz, gogorarazi egin genion derrigor bultzatu behar zituela emakumeek Alardean parte hartzea eragozten duen arautegian sartu beharreko aldaketak. Bestalde, udalbatzarrari dei egiten genion neurriak har zitzan hiritar guztiek parte hartu ahal izan zezaten Alardean, sexu bereizketarik egin gabe.
b) Halaber, Alkateari gomendatu genion bitartekari lanak egin zitzala jarrera eta ikuspegi desberdinen artean, elkarrizketaren eta adiskidetzearen bidez festa giro onean ospatu ahal izateko. Izan ere, adierazi genion bezala, erakunde publikoen arduradunek gogotik saiatu behar dute balore demokratikoak gizartean sustraituz joan daitezen.

Gai honen berri zehatzagoa izateko, ikus Kultura atalean aukeratutako kexak.

Irungo Udala

* **22/95/15 espedientea.** Ura hornitzeko obra batzuek zirauten bitartean hiritarrak beren etxeetan sartzeko bideak ipintzea eta, obrak bukatzean, sarbide horiek behar bezala uztea gomendatu genuen. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Lasarte-Oriako Udala

* **898/96/16 espedientea.** Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergagatik erreklamatzaileari egindako likidazioaren zati nagusian aplikatutako premiamenduzko errekargua bertan behera uztea gomendatu genion Lasarteko Udalari, zergadunak epearen barruan sartu zuelako udalbatzarrak oker egindako lehenagoko likidazio baten zenbatekoa. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Pasaiako Udala

* **1104/95/15 espedientea.** Pasaiako Arrandegi kaleko auzo elkarte batek auzoaren hondamen urbanistikoaren aurrean Udalak ez zuela ezer egiten salatu zuen. Arartekoa Udalari zuzendu zitzaion, egin beharrekoa adierazteko, eta industri eraikuntzen hondamen egoera deklaratzea, lursaila berriz zatikatzea eta auzoko Barne Eraberrikuntzarako Egitasmo Berezi biak gestionatzea beharrezkoa zela azpimarratuz. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik. Gai honen berri zehatzagoa izateko, ikus Hirigintza eta Etxebizitza atalean aukeratutako kexak.

Errenteriako Udala

* **446/96/19 espedientea.** Garaje bat erabiltzeko baimena aldatzea gomendatu genuen, funtzionatzeko baldintzetako bat (espaloiaren mantenimendua bermatzeko diru kopuru bat gordailuan uztea alegia) kentzeko, espaloirik ez zegoelako leku horretan.

Soraluzeko Udala

* **3/96/15 espedientea.** Talde ekologista batek salaketa bat aurkeztu zigun Soraluzeko Udalaren kontra, babestutako mendi baten gailurrean antena bat jartzeko baimena emateagatik. Arartekoak baimen hori behar bezala tramitatu beharra gogorarazi zion Udalari, prozeduran irregulartasunak zeudelako, eta bere arau subsidiarioak ahalbait azkarren idaztea gomendatu zion. Gai honen berri zehatzagoa izateko, ikus Hirigintza eta Etxebizitza Ataleko kexa aukeraketa.

Tolosako Udala

* **431/96/15 espedientea.** Hernialdeko Udalak eta biztanleek salaketa bat ipini zuten Tolosako Udalaren kontra, horrek hurbileko mendi batean ehize-zakurrak trebatzeko zelai bat ipintzeko baimena eman, eta tiro ugarien zarata jasan behar zutelako. Arartekoak gomendio bat bidali zion Tolosako Udalari, bere ekintza hori legeen arabera moldatzea eskatuz, gure iritziz ez baitzen horrela gertatzen kasu honetan. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera ere jo genuen, esandako kirol iharduera hori

ikuska zezan, urbanizatu ezineko lurrean garatzen zenez gero, hari buruzko eskumena berak zeukalako. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak

Uren Partzuergoa

* **206/95/16 eta 1072/96/16 espedienteak.** Bilbo Handiko Uren Partzuergoak, elkartutako udalerriekin dagokion akordioa egin eta gero, saneamendu kanonaren kobraketa moldatu egin beharko du toki ogasunei buruzko legeriak sartu dituen baldintza berrietara, batez ere bakoitzaren ordenantza fiskalen onarpenari eta haietan tasa honen osagai funtsezkoak (hots, zergagaia, sujetu pasiboak, salbuespenak, etab.) zehazteari dagokienez.

Bien bitartean, kontzeptu horrengatik ur horniketa zerbitzuaren erabiltzaileen artetik, saneamendu sare orokorra erabili ezin dutenei egindako likidazioak bertan behera utzi beharko dira.

Mebisa - Metro Bilbao

* **968/96/22 espedientea.** Bonometro baten jabeari kobratutako gehiegizko bi bidaien dirua itzul zezala gomendatu genion Metro Bilbaori; izan ere, Arartekoak egin zituen ikerketek erakutsi zuten bezala, esandako sozietate horrek bonometroaren erabilera eta ezaugarriez gure erakundeari eman zion informazio guztia ez zegoen erabiltzaileen eskumenean geltokietako bebarru eta andenetan, Metro Bilbaoko bidaiarientzako Arautegiko 19. artikuluan esaten den bezala. Gainera, Arartekoak Metro Bilbaori gomendatu zion ahaleginak egitea metro-linea horren erabiltzaileentzat bonometroa erabiltzeko baldintzei buruz zegoen informazioa hobetzeko, aurrerantzean era horretako egoerarik gerta ez dadin.

Bazkunde batzuen administrazioa

Euskal Abokatutzaren Kontseilua

* **645/95/20 espedientea.** Bazkundeko kolegiatuei bakoitzaren bazkundeen Gobernu Batzarren aktak ikusten uztea gomendatu zen.

Bizkaiko Abokatuen Bazkundea

* **137/93/16 espedientea.** Euskal Abokatutzaren Kontseiluak joan den 1996ko uztailaren 12an egindako ohiko bileran ebatzi egin zuen, zati batean ontzat hartuz, kexagileak haren aurrean Bizkaiko Abokatuen Bazkunde Argiak gai horretaz emandako ebazpen baten aurka jarritako gorajotzea.

Batzarraren ebazpen horretako bigarren puntuan hauxe esaten zen:

«*Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkunde Argiaren Gobernu Batzarrari eskatu behar diogu errekurtsoa ipini duenarengana, jasotzailearengana eta aseguru konpainiara jo dezala, bitartekaritza prozedura eskainiz, letradu andrearen erantzunkizun zibilik ba ote dagoen argitu eta, egoteko kasuan, dagokion kopurua zehazteko, edota, bestelako kasuan, erreklamatzaileari aditzera emateko, M.C.G. andrearen alargun eta oinordekoa den aldetik, ohiko bide zibiletik jo beharko duela dagokion erreklamazio zibila egiteko.*»

Esandako ebazpena eman zenetik hilabete igaro ondoren, interesatuak jakitera eman zuen bazkundeak ez ziola horrelako eskaintzarik egin, eta horregatik Bizkaiko Abokatuen Bazkundeari prozedura hori ahal zen neurrian bizkortzea gomendatu genion. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

6.2. **ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK**

EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

∗ **506/96/20 espedientea.** Irakaskuntza ertaineko irakasle kidegokoa zen emakumezko hezitzaile batek auzitan jarri zuen lekualdatze lehiaketa batean bigarren hizkuntz eskakizuneko postu-hutsune baten derrigorrezko esleipena, kontutan izanik bera gaztelerazko lehiatzaile zela, eta bere hizkuntz agiriak (EGA) ez zeukala inolako zerikusirik bere ibilbide profesionalarekin (hezkuntz administrazioaren konturako hizkuntz prestakuntza, etab.).

Funtzionario honen sarrera arautu zuten deialdiko oinarrietan eta irakasle postuen horniketari buruzko arautegian inolako aurreikuspenik ez zegoenez gero auzitan jarritako esleipena bidezko bihurtzeko, interesatuari egindako destino esleiketa ofizioz berraztertzea gomendatu zuen Arartekoak.

Hezkuntz Administrazioaren erantzunak zioenez, ordea, bidezkoa zen esandako esleipena horrela egitea derrigorrezko lehiatzaileen espezialitateen arabera ofiziozko destinoa esleitzeko ahalmen orokorrean oinarrituta, eta horregatik ez zuen aintzat hartu erakunde honek egin zion gomendioa. Gai honi buruzko berri zehatzagoa nahi izanez gero, ikus Funtzio Publikoa eta Administrazio Antolakuntza ataleko kexa aukeraketa.

∗ **304/96/18 espedientea.** Hezkuntza Sailari gomendatu genion ofizioz erabakirik hartu gabe, gurasoen iritzia eska zezala aurrematrikula eskari bat onartu baino lehen. Hasierako eskaintzaren ondoren irekitako aurrematrikula hasteko prozedura berezi baten kasua zen. Gai honi buruzko berri zehatzagoa nahi izanez gero, ikus Hezkuntza ataleko kexa aukeraketa.

Euskal Herriko Unibertsitatea

*** 246/95/20, 619/95/20, 852/95/20 eta 853/95/20 espedienteak (espediente kolektiboa).** Gure erakunde honen iritziz, tasa eta prezio publikoei buruz indarrean dagoen arautegiak ez du aukerarik ematen EAEn funtzionarioei edo haien seme-alabei matrikula-ordainketan exentziorik egiteko, EHUko pertsonalak erabil dezakeen ohiko bidea izan ezik. Horregatik, 95-96 ikasturterako indarrean zegoen hezkuntz kudeaketa akademikorako arautegiari ezin zitzaion inolako akatsik egotzi. Dena den, Arartekoak tramitatu zituen lau kexa espedientetan 94-95 ikasturtean egindako exentzio eskari batzuk aipatzen ziren.

EHUren aburuz, eskari horien tramitazioak Gobernu Batzarraren 1994ko ekainaren 9ko akordioari buruzkoa izan behar zuen, bertan halako errendimendu akademiko bat ipini baitzen baldintza bezala exentzioa onartu edo berritzeko; izan ere, ordura arte, funtzionario guztiei edo haien seme-alaba guztiei aplikatu zitzaien inolako baldintzarik gabe (eta antza denez, gure erakundeari eginiko kexen kasuan, gutxienezko errendimendu akademikoa betetzen ez zelako ez ziren berritu eskatuta zeuden exentzioak).

Gobernu Batzarrak 1994ko ekainaren 9ko akordioan ipinitako muga, hau da, exentzioa ematea edo berritzea onartu ahal izateko halako errendimendu akademiko bat izatea, ez zen gure erakundearen iritziz argudio nahikoa.

Horregatik guztiagatik, lau kexagileen kasuan erabakitako ezezko ebazpenak aldatzea eta 94-95 ikasturterako eskatutako exentzioak onartzea gomendatu genuen.

Kultura Saila

EITB

*** 135/95/22 espedientea.** ETBk ez zuen ontzat hartu «Dragoi Bola» izeneko marrazki bizidun telesaioaren ordutegia, bai eta pornografia edota bortxakeriazko irudiak zeuzkaten beste telesaio guztiena ere, atzeratzeko gomendioa, irudi horiek adin txikikoen garapen mental edo moralarentzat kaltegarri gerta daitezkeelako egindakoa. Era berean, era horretako telesaioak gaueko hamarrak eta goizaldeko seiak bitartean eman zitezela gomendatu genuen, eta horiek pantailaratu baino lehen haien edukiari buruzko abisua eman zedila ahotsez zein irudi bidez. ETBk, ordea, hauxe dio bere jarrera justifikatzeko argudio bezala: alegia, telebista bidezko zabalkunde alorreko ekintzei buruz Estatu kideek dauzkaten legezko, arauzko eta administraziozko xedapenen koordinazioari buruzko 89/552/EEE Direktibako Espainiako lege-antolamendura sartzeko uztailaren 12ko 25/1994 Legearen 17.2 artikuluan kontzeptu juridiko lauso ugari biltzen direla, eta «Dragoi Bola» izeneko marrazki bizidun saioa haurrentzako programazioaren ordutegitik kanpo ematen dela, gaueko 9etan zehazki, berez saio hori ez delako umeentzat. Horretaz gain, pertsona bakar baten salaketa ez du argudio nahikotzat hartzen, ez eta horri buruz indarrean dagoen legeriaren

aipamena ere. Gai honi buruzko berri zehatzagoa nahi izanez gero, ikus Kultura eta Elebitasuna ataleko kexa aukeraketa.

Merkataritza eta Turismo Saila

* **1144/95/22 espedientea.** Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak proposatu bezala, eskainitako produktu batzuk bahitzea gomendatu zitzaion Balmasedako Udalari, udalerri horretan produktu izoztuen urrundikako eta etxerako salmenta egiten zuen enpresak ez zeukalako ekintza horretarako beharrezkoa zen lizentzia; gainera, eskualde horretako Osasun Publikorako Albaitariaren bitartez frogatuta zegoen elikagai horiek ez zituztela pasatzen salgai jarri ahal izateko derrigorrezkoak diren osasun ikuskapenak. Gomendioari erantzunez, esandako udalak adierazi zuen bere baliabideekin ekingo ziola produktu horiek bahitzeari, baldin eta zegokion txostenaren ondoren behar bezala frogatzen bazen haietako batzuek ez zituztela betetzen legeetan ipinitako higiene eta osasun baldintzak. Gainontzekoen kasuan, bahiketari ekingo zion baldin eta Eusko Jaurlaritzak horiek garraiatu eta nonbait biltzeko bitartekoak eskaintzen bazituen.

Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

* **621/96/15 espedientea.** Emakume batek aditzera eman zigun Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak errekerimendu bat egin ziola, eman zioten milioi erdiko laguntza itzul zezan. Arartekoak Sailburuarengana jo eta eskatu zion kasu honetako zertzeladak eta familiaren egoera kontuan izateko: izan ere, emakumeak erosi nahi zuen etxea familiaren etxebizitza bera zen, enkantera jarria eta banketxe hartzekodunari esleitua izan baitzen. Administrazio autonomikoak gomendioa ez zuela onartzen erantzun zigun, ikuspuntu juridikotik egoera hori ez zegoelako aurreikusita etxebizitzak erosteko laguntzen arautegian eta, gainera, laguntza jaso eta gero etxebizitza hori aitortua baino prezio txikiagoan eskrituratu zelako, interesatuak Administrazioari jakinarazi gabe.

Osasun Saila

Osakidetza

* **641/96/18 eta 642/96718 espedientea (espediente kolektiboa).** Kasu honetan, administrazio laguntzaileentzako azterketen epaimahaiak erabilitako balorazio irizpideak berbideratzeko behar ziren neurriak hartzeko gomendioa egin genion Osakidetzari, zehazki, oposaketa aldiko lehen probako puntuazio osotik %50a lortu zuten lehiatzaileek bigarren proba egiteko aukera izan zezaten. Gai honi buruzko berri zehatzagoa nahi izanez gero, ikus Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza ataleko kexa aukeraketa.

FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

* **329/96/20 espedientea.** Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Institutuko erizain laguntzaile postuko ordezkapenak egiteko hautagai batek gure erakundearen iritzipean jarri zuen esandako institutuak kanporatu nahi zuela behin-behineko beharrak betetzeko zerrendatik, bere errendimenduari eta gaitasunari buruzko txosten ezkorrak zeudelako.

Beharrezko informazioa eskatu eta gero, Arartekoak egiaztatu ahal izan zuen neurri hori hartzeko prozedura egokia ez zela erabili, eta horregatik hauxe gomendatu behar izan zuen: 1) aurrerantzean, ordezkapen zerrendetatik hautagairen bat kanporatzeko orduan, benetako zerbitzu ematea gertatu gabe ere, dagokion kontraesanezko espedientea has dadila, eragindakoen interesen beharrezko babesa zaintzeko; eta 2) interesatuaren kasuan, ordezkapen zerrenda berriren bat prestatzean zerbitzua emateko aukera egonez gero, dagokion espedientea has dadila, interesatuari egotzitako jokamolde okerra behar bezalako bermeekin egiaztatu ahal izateko. Gai honi buruzko berri zehatzagoa nahi izanez gero, ikus Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza ataleko kexa aukeraketa.

Bizkaiko Foru Aldundia

* **186/94/01 espedientea.** Kasu honetan, Gizarte Ongizaterako Foru Sailak gizarte ongizaterako fondoaren kontura ematen zen pentsio bat ordaintzeari uztea erabaki zuen, jasotzaileak bere ezkontideagandik banatzeko egin beharrekoei ekin eta bere benetako egoera zibila frogatu arte. Hori horrela, Ararteko honek informazioa eskatu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizate Sailburuak pentsio horien derrigorrezko izaera subsidiarioa azpimarratu zuen. Hala eta guztiz ere, kontuan izanik Gizarte Ongizaterako Foru Sailak parez pare jartzen zituela berezko banaketa, erroldatze edo auzokidetasun ziurtagiri bidez egiaztatua, eta epaile bidezko banaketa, Arartekoak ez zuen inolako irregulartasunik aurkitu gizarte ongizaterako fondoen laguntzei buruzko arautegian espreski aurreikusitako beste frogabide batzuetara jotzeko ahaleginean, baldin eta interesatua ez bazegoen beharrezko froga judiziala aurkezteko moduan. Nolanahi ere, eztabaidan zegoen laguntza bizkor ebazteko gomendioa eman zuen gure erakundeak, haren helburua bizitzeko beharrik funtsezkoenak ase ahal izateko bide urri edo bat ere ez dutenei konpentsazio bizkor eta egiazkoa ematea baita.

* **593/95/18 espedientea.** Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailari iradoki genion monumentu historiko artistikoa izendatzeko espedientea hasia zuen etxe baten hondamena eteteko obrei subsidiarioki ekiteko aukera azter zezala. Gai honi buruzko berri zehatzagoa nahi izanez gero, ikus Kultura eta Elebitasuna ataleko kexa aukeraketa.

Gipuzkoako Foru Aldundia

* **286/95/19 espedientea.** Garraio eta Errepide Sailak ez zuen ontzat hartu kasu honetan egin genion gomendioa, alegia, errepideei buruzko arautegia ez betetzeagatik hasitako espediente batean ezarritako isuna indarrik gabe uzteko tramiteei ekitea, nahiz eta Ogasun eta Finantza Sailak bai onartu argudio berberetan oinarrituz bidali zitzaiona. Gai honi buruzko berri zehatzagoa nahi izanez gero, ikus Ogasun ataleko kexa aukeraketa.

* **623/95/16 espedientea.** Erakunde honen aburuz, garbi dago, eta jurisprudentziak hala adierazi du behin baino gehiagotan, kexa aurkeztu zuen pertsonak erosketa egin zuen egunean iharduerari jarraituz egindako enpresa-ondasunaren eskualdatze orokorrari ezin zitzaizkiola aplikatu ez BEZa ez eta Ondare Eskualdatzeen gaineko eta Administrazio Ekintza Juridikoen gaineko Zerga ere. Horregatik, nahiz eta kexagilearen erreklamazioa Gipuzkoako Foru Epaimahai Ekonomiko Administratiboaren ebazpenaren zain egon, Ogasun Sailari egindako likidazioa bertan behera uztea gomendatu genion.

* **203/96/16 espedientea.** Egokitasuna kontuan hartuz eta arauak beraien bidez erregulatu nahi den gizarte errealitatera hurbiltzeko ikuspegitik, Arartekoari bidezkoa iruditu zitzaion hobekuntza batzuk sar zitezela Gipuzkoako Lurralde Historikoaren PFEZri buruzko Foru Arauaren 78.3 b) artikuluan, umeen kustodiagatikako kenketari zegokionez.

Muga bezala sei urteko adina ipintzeari dagokionez, egia da derrigorrezko irakaskuntza adin horretan hasten dela, eta beraz pentsa liteke handik aurrera justifikaturik ez dagoela pertsona bat egotea adin txikikoak zaintzen; baina, kontuan izan behar da, ordea, egiatan familia askotan bi ezkontideek lan egiten dutela, edota banatu edo dibortzituta daudenen kasuan umeen zaintza eta kustodia daukan pertsonak arazoak eduki ditzakeela lan ordutegia eta eskolakoa ez datozelako bat, are gutxiago oporraldietan.

Beste alde batetik, banakako errenta aitorpenean errendimendu garbirako ipinita dagoen muga (2.500.000 pta. gaur egun) ez da nahikoa erakunde honen iritziz, ez behintzat kontutan hartzen bada umezainak astean 20 lanordutik gora eginez gero derrigorrezkoa dela Gizarte Segurantzan alta ematea; eta kasu horretan, alta horri adin txikikoak zaintzeaz arduratzen den pertsonaren soldata erantsiz, sekulako ahalegina suposatzen du era horretako dirusarrerak dauzkan pertsona batentzat.

Esandako guztiagatik, Gipuzkoako Foru Ogasunari gomendatu zitzaion bidezko moduan proposa ziezaiela Batzar Nagusiei esandako baldintza horiek arintzea, bai adin muga, bai sujetu pasiboaren errendimendu garbiarena ere gorago jarriz.

TOKI ADMINISTRAZIOA

Arabako udalak

Vitoria-Gasteizko Udala

* **676/93/16 espedientea.** Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren derrigorrezko ordainarazpena egiteko likidazioan premiamenduzko errekargua bertan behera uzteko gomendioa eman genuen.

* **184/95/16 espedientea.** Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergan (Plusbalia) aipatzen den epeko hasierako balioa zehaztearren, zegozkien murrizketa koefizienteak aplikatzea eta, horren eraginez, zergadunari egindako likidazioa aldatu eta ondorioz ateratako gehikuntza berriaren arabera egokitzea gomendatu zitzaion Vitoria-Gasteizko Udalari.

* **83/96/19 espedientea.** Zirkulazio arauak hausteagatik hasitako prozedura bateko isun erabakia atzera botatzea gomendatu genion Vitoria-Gasteizko Udalari; izan ere, kasu honetan, erabaki proposamenaren jakinarazpena ediktu bidez egin zen, arrazoirik gabe egin ere, eta gainera egindako arau-haustea iraungirik zegoela ere egiaztatu ahal izan genuen. Gai honi buruzko berri zehatzagoa izateko, ikus Herrizaingo ataleko kexa aukeraketa.

Oiongo Udala

* **16/96/16 espedientea.** Oiongo Udalean edateko uraren horniketaren tasa arautzen duen Ordenantzaren arabera, harpidetza poliza eten eta horniketa moztu ahal izateko, beharrezkoa da uraren prezioa ordaintzeari «arrazoirik gabe» uko egitea (44.11 art.); aldiz, espediente honen kasuan, arrazoirik eza Udalaren ekintzari berari leporatu beharrekoa zen.

Horregatik, Oingo Udalari gomendio bat bidali genion, erreklamatzaileari ur horniketa zerbitzua berriro emateko, mozketa erabakitzeko erabili zen ordaindu gabeko kopurua kobratzearren ordainarazpenaren bidea hartzearen kalterik gabe. Gai honi buruzko berri zehatzagoa izateko, ikus Ogasun ataleko kexa aukeraketa.

Bizkaiko udalak

Bilboko Udala

* **478/95/19 espedientea.** Ibilgailu bat bide publikotik erretiratu eta ondoren udalaren gordetegian uzteagatik kobratutako tasa ordaindu beharra kentzea eta ibilgailua bere jabeari itzultzea gomendatu genuen, gure iritziz administrazioak kasu honetan izandako jokaerak lege antolamenduaren aginduak hautsi zituelako. Gai honi buruzko berri zehatzagoa izateko, ikus Herrizaingo ataleko kexa aukeraketa.

* **615/95/19 espedientea.** TAOko arauak hausteagatik hasitako espediente batean ezarritako isuna bertan behera uztea gomendatu genion Bilboko Udalari, horri zegokion salaketa egin zuenak ez zeukalako zirkulazioa zaintzeaz arduratutako funtzionario izaerarik, eta zegokion prozeduran ez zelako haren berrespena egin. Gai honi buruzko berri zehatzagoa izateko, ikus Herrizaingo ataleko kexa aukeraketa.

* **946/95/19 espedientea.** TAOko arauak hausteagatik hasitako espediente batean ezarritako isuna bertan behera uztea gomendatu genion Bilboko Udalari, horri zegokion salaketa egin zuenak ez zeukalako zirkulazioa zaintzeaz arduratutako funtzionario izaerarik, eta zegokion prozeduran ez zelako haren berrespena egin. Gai honi buruzko berri zehatzagoa izateko, ikus Herrizaingo ataleko kexa aukeraketa.

* **544/96/19 espedientea.** Zirkulazio arauak hausteagatik hasitako espediente batean ezarritako isuna bertan behera uztea gomendatu genion Bilboko Udalari, prozedurazko eta funtsezko akats batzuk antzeman zirelako. Gai honi buruzko berri zehatzagoa izateko, ikus Herrizaingo ataleko kexa aukeraketa.

Amorebieta-Etxanoko Udala

* **259/96/19 espedientea.** Bide publikoan arauen kontra aparkatuta zegoen ibilgailu bat geldiarazteagatik kobratutako tasaren zenbatekoa hiritarrari itzultzea gomendatu genion Amorebieta-Etxanoko Udalari. Izan ere, kasu honetan, arau-hauste horrek ez zion kalte larririk eragin ez zirkulazioari, ez eta pertsona edo ondasunei ere. Gai honi buruzko berri zehatzagoa izateko, ikus Herrizaingo ataleko kexa aukeraketa.

Balmasedako Udala

* **1144/95/22 espedientea.** Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak proposatu bezala, eskainitako produktu batzuk bahitzea gomendatu zitzaion Balmasedako Udalari, udalerri horretan produktu izoztuen urrundikako eta etxerako salmenta egiten zuen enpresak ez zeukalako ekintza horretarako beharrezkoa zen lizentzia; gainera, eskualde horretako Osasun Publikorako Albaitariaren bitartez frogatuta zegoen elikagai horiek ez zituztela pasatzen salgai jarri ahal izateko derrigorrezkoak diren osasun ikuskapenak. Gomendioari erantzunez, esandako udalak esan zuen bere baliabideekin ekingo ziola produktu horiek bahitzeari, baldin eta zegokion txostenaren ondoren behar bezala frogatzen bazen haietako batzuek ez zituztela betetzen legeetan ipinitako higiene eta osasun baldintzak. Gainontzekoen kasuan, bahiketari ekingo zion Eusko Jaurlaritzak horiek garraiatu eta nonbait biltzeko bitartekoak eskaintzen bazituen.

Basauriko Udala

* **965/95/22 espedientea.** Basauriko Udalak gure gomendioa ontzat hartu ez eta Alkategoaren Dekretuari eutsi zion. Bere gomendioan, Arartekoak

eskatzen zuen esandako toki erakundeak zeukan ondasunezko erantzunkizuna onartu eta, ondorioz, kexagileari hondatutako arroparen zenbatekoa ordain ziezaiola.

Gipuzkoako udalak

Belauntzako Udala

* **867/95/15 espedientea.** Herritar batzuek Belauntzako Udalaren erabaki bat salatu zuten, haren arabera Udaletxeko idazkari andreak udal kutxarekin zorrak zituzten herritarrei ez zielako zerbitzurik emango. Arartekoak udal horri aditzera eman zion erabaki hori legez kontrakoa zela, dirubilketarako balio duten derrigortze-bide bakarrak Tributuen Lege Orokorrean aipatzen direnak direlako. Gai honi buruzko berri zehatzagoa izateko, ikus Herri-Lan eta Zerbitzuak ataleko kexa aukeraketa.

Irungo Udala

* **438/96/21 espedientea.** Bidasoaldeko Emakumeak izeneko talde batek Arartekora jo zuen, Irungo San Martzial eguneko Alardean parte hartzeko zeuzkaten otopoak salatzeko. Honi buruz, Ararteko erakundeak honako bi gomendio hauek egin zituen:

a) Konstituzioaren 9.2 artikuluaren arabera, aginte publiko guztiek pertsonen berdintasuna egiazkoa izateko baldintzak ipini behar dituztela-eta, hiri hartako Alkate jaunari gogorarazi egin genion Alardeko Batzarrari jakinarazi behar ziola maiatzaren 11ko komunikatua legez kontrakoa zela eta, beraz, «*Alardean gizasemeek bakarrik parte ahal izango dute*» zioen araua aplikatu ezinekoa zela. Halaber, udalbatzarrari dei egiten genion neurriak har zitzan hiritar guztiek parte hartu ahal izan zezaten Alardean, sexu bereizketarik egin gabe.
b) Bestalde, Alkateari gomendatu genion bitartekari lanak egin zitzala jarrera eta ikuspegi desberdinen artean, elkarrizketaren eta adiskidetzearen bidez festa giro onean ospatu ahal izateko.Gai honen berri zehatzagoa izateko, ikus Kultura atalean aukeratutako kexak.

Oiartzungo Udala

* **322/95/15 espedientea.** Oiartzungo biztanle batzuek salaketa bat aurkeztu zuten herri hartako Udalaren kontra, Sektoreko Plan Partzialaren arabera berdegune izatekoa zen lursail batetik gas biltoki bat erretiratzea ez agintzeagatik. Arartekoak Udalari gomendio bat bidali eta bertan eskatu zion biltoki hori erretiratu eta lurraren sailkapenarekin arazorik ez zeukan beste leku batera aldatzeko agindua eman zezala

Soraluzeko Udala

* **691/94/15 espedientea.** Ur horniketaren tasagatik egindako likidazio bat indargabetzea gomendatu zen.

BESTE ERAKUNDE BATZUK

Eusko Legebiltzarra

* **49/96/20 espedientea.** Eusko Legebiltzarrerako mandatari postu bat betetzeko lehiaketa-oposaketa deialdian (EHAA, 12. zkia., 1995eko ekainaren 30ekoa) parte hartzen zuen hiritar batek auzitan jarri zuen aurreko esperientzia bezala Eusko Legebiltzarrean emandako zerbitzuetara bakarrik mugatzea, alde batera utzita bete behar zen postuko eginbeharrekoen arabera moldatzen ziren ala ez.

Kasu honetako kexa administrazio laguntzaileen postuak betetzeko deialdiagatik jasotako beste baten guztiz antzekoa izanik, Arartekoak, kexaren muinari dagokionez, atera zuen ondorioa zen administrazio laguntzaileen kasuko espedientean bezalaxe, kasu honetan ere hautsi egiten zela funtzio publikora sartzeko berdintasun eskubidea, are gehiago kontuan izanik Kamararen Mahaiak bere gain hartu zituela gure lehenagoko arrazoibideak.

Guztiarekin ere, mandatarien deialdian baziren beste zertzelada desberdin batzuk (arauak inpugnatuta ez egotea, deialdiaren tramitazioa aurreratuta egotea), ahaztu ezineko garrantzi edo irismen juridikoa dutenak.

Horrela, arestiko adierazpen jurisprudentzial batzuen ildotik, deialdi baten arauekin hasieran bat etortzeak ez du esan nahi gerora aldatu ezin direnik, funtsezko eskubideak kaltetzen dituzten ekintza edo xedapenak direnean (Auzitegi Gorenaren 1993ko apirilaren 20ko Epaia; 1993/5119 RJ; eta Konstituzio Auzitegiaren 193/1987 eta 93/1995 Epaiak).

Beste alde batetik, bi deialdien artean bazen alde garrantzitsu bat, balora zitezkeen aurreko zerbitzuei zegokienez; izan ere, mandatari postua betetzekoan, ez zen zehazten zein ziren beren zereginen arabera balora zitezkeen zerbitzuak.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak deialdiko arauen edukia aldatzeko neurriak har zitezela gomendatu zuen, lanpostu publiko batera sartzeko berdintasun eskubidea kalteturik bazegoen, eta beraz, merituen artean kontutan har zedila beste administrazio publiko batzuentzat antzeko zereginekin emandako zerbitzuen aurreko lan esperientzia ere.

Legebiltzarraren Mahaiak, aldiz, ez zuen ontzat hartu gure erakundearen gomendioa, bere iritziz mandatari lanpostua betetzeko deialdiaren zertzeladak desberdinak zirelako, administrazio laguntzaileentzako deialdiaren aldean. Erabaki horren argudio moduan, deialdiko arauak aldatzeko ezintasun juridikoa zegoela aipatu zuen, ez bakarrik kexagilea hasieran bat etorri zelako arau horiekin, baizik eta gainera kaltea ekarriko liekeelako beste pertsona batzuei, epe berri bat zabaltzeak eta beste administrazio batzuentzat emandako zerbitzuak baloratzeko proposamenak *ad personam* aldaketa baten antzeko zerbait eta, gainera, ekintza arbitrario bat suposatuko luketelako.

Ararteko aren iritziz, Legebiltzarraren Mahaiaren alegazioek ez dituzte ezertan ere aldatzen gure gomendioaren oinarriak, beraietan ez zelako inolako baloraziorik egiten oinarri horiei buruz, ez eta oinarri horien azpian zeuden aurrekari jurisprudentzialei buruz ere.

6.3. **ONARTUTAKO GOMENDIOAK**

EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

* **671/94/20 espedientea.** Kexa aurkeztu zuen emakumeak emandako aurreko zerbitzuak zirela-eta Arabako Foru Aldundiaren Funtzio Publikorako Zuzendaritzak bidalitako ziurtagiria betetzea gomendatu zen kasu honetan; ziurtagiri horretan, zehazki, zerbitzuen izaera, eskatutako titulazioa, lan baldintzak, emandako ordainketak eta zerbitzu horiei buruzko beste ezaugarri guztiak ere adierazi behar ziren, zerbitzu horiek ziurtatu ahal izateko Administrazio Publikoan emandako aurreko zerbitzuen aitorpenari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legea aplikatzeko arauak finkatzen dituen ekainaren 25eko 1461/1982 Erret Dekretuan ezarritako moduan.

* **1022/95/18 espedientea.** Publiko bihurtzeko prozesua etenda zeukan ikastetxe bat zer egoeratan geratzen zen aztertzeko gomendioa eman genion hezkuntz administrazioari.

* **4/96/20 espedientea.** Kexa aurkeztu zuen hiritarrak eskatutako unibertsitaterako laguntzari buruzko ebazpena berriro aztertzea gomendatu genuen, bere tramitazioan oker batzuk zeudela egiaztatu genuelako.

Euskal Herriko Unibertsitatea

* **1043/95/18 espedientea.** Bere zentroetako batean irakas-ihardueraren normaltasunera itzultzeko behar ziren neurriak har zitezela gomendatu zen.

Ogasun eta Herri-Administrazio Saila

* **385/95/19 espedientea.** Zirkulazio arautegia hausteagatik ipinitako isun baten derrigorrezko ordainarazpena egiteko tramitaturiko premiamendu espediente bat atzera botatzea gomendatu genuen, jatorrizko isuna epez kanpo zegoela ondorioztatu ondoren.

HAEE/IVAP

* **401/95/20 espedientea.** Goiko eta erdiko mailako estatistika teknikarientzako poltsak berrantolatzea gomendatu zen, hautagaiak aukeratzeko

orduan poltsa horiek osatzeko kontutan hartzen diren baldintza eta meritu objetiboak erabil daitezen, eta aukeraketa hori ez dadin aleatorioki egin, horretarako ezarritako dei sistemaren bidez.

Industria, Nekazaritza eta Arrantzu Saila

* **482/95/20 espedientea.** Arrantzarako ikuskapen zerbitzuak aurrerantzean izan zitzakeen beharrak zirela-eta, ordezkapenak egiteko hautagaien poltsa bat egiteko gomendioa eman genuen, bai eta poltsa hori osatzeko orduan funtzio publikorako sarreran nagusi izan behar duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatzeko ere.

* **908/95/16 espedientea.** Gas naturalaren horniketaren emakida daukan Naturgas enpresari gomendatu zitzaion jabe-elkarte bateko kontsumoak neurtzeko bere langileek behar zuten eskailera bat ipintzearen gastuak bere gain har zitzala.

Herrizaingo Saila

* **590/95/19 espedientea.** Aurrekari polizialik ba ote zuen jakin nahi zuen hiritar batek egin zuen eskari bati espreski erantzutea gomendatu zitzaion Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari.

* **510/96/16 espedientea.** Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari gomendatu zitzaion boleto bidezko joko-txartelei zigilua kentzeko baimena eman zezala, horretarako enpresa esleiketariak aurretiaz zegokion tasa fiskalaren autolikidazioa aurkeztu beharko zuelarik. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ogasun ataleko kexa aukeraketa.

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

* **1118/95/16 eta beste 73 espediente gehiago (espediente kolektiboa).** Estadio izeneko Fundazioak egin nahi zuen kuota igoera Fundazioen Euskal Legearen kontrakoa zelakoan, Fundazioen Babesgoari gomendatu genion kasu honetan sortutako arazoa aztertu eta, beharrezkoa bazen, eragindakoen eskubideak bermatzeko beharrezko neurriak hartzea. Guztiaren ondorioz, Fundazioaren Patronatoko Batzarrak bertan behera utzi zuen proposaturiko igoera.

Osasun Saila

Osakidetza

* **244/96/18 espedientea.** Behin-behineko langile batek lehendik izandako postuari buruzko informazio eskari bati erantzutea gomendatu zitzaion Osakidetzari.

* **830/96/20 espedientea.** Hizkuntz azterketa batean, bigarren deialdia egin zen presagatik, gutxi iragarri zelako eta haren ordutegia aurreratzea esan

nahi zuelako, parte hartu ezin izan zuten lehiatzaile guztiei beste hizkuntz azterketa bat egiteko gomendioa eman zen kasu honetan. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza ataleko kexa aukeraketa.

FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

* **741/96/19 espedientea.** Premiamendu probidentzietan erabiltzen diren ereduen testua lege antolamenduaren aginduetara moldatzea gomendatu genion Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Sailari. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ogasun ataleko kexa aukeraketa.

Bizkaiko Foru Aldundia

* **524/95/16 espedientea.** Jolasmakina batzuei zegokien joko tasetan egindako errekargua bertan behera uztea gomendatu zitzaion Ogasun Sailari, Gipuzkoako Ogasunak itzuli eta Bizkaiko Foru Ogasunean sartu ondoren. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ogasun ataleko kexa aukeraketa.

* **1131/96/16 espedientea.** Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun Sailari iradoki genion PFEZn interesatuek aukeratutako tributazio mota aldatzeko eskaria ontzat hartzea, eta beraz beste likidazio bat egitea, emandako datuekin eta grabamen moten baterako eskala erabiliz.

* **753/95/19 espedientea.** Ipinitako isun bat indargabetzea gomendatu zitzaion Garraio Sailari, zeren eta errepide-garraioaren arautegia hausteagatik hasitako espediente baten tramitazioan, atzerriko ibilgailu baten kasuan, organo eskudunaren zigorra arau-haustea egin zuen ibilgailuaren jabe zen enpresari zuzendu ordez, gerta litezkeen isunen ordainketa bermatzeko kauzio nahikoa eman zuen merkataritza baltzuari zuzendu baitzion

Gipuzkoako Foru Aldundia

* **431/94/16 espedientea.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, ohiko etxebizitzan eginiko inbertsioagatikako kenketa egiteko garaje baten erosketa onartzea gomendatu genion Ogasun Sailari.

* **538/94/16 espedientea.** Ezarpen bikoitzeko Espainia eta Frantzia arteko Hitzarmenean sarturiko pertsonei mugako langile izaera aitortzeko gomendioa egin genion Ogasun Sailari, bai eta, ondorioz, erretentziorik ez egiteko ere.

* **95/96/18 espedientea.** Erabilera bereziko garraioentzako baimenen erregimenaren barruan unibertsitatez kanpoko ikasleak kontutan hartzeko

alternatibaren bat aztertzea gomendatu genion Garraio eta Errepide Sailari. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Herri-Lan eta Zerbitzuak ataleko kexa aukeraketa.

* **286/95/19 espedientea.** Premiamenduzko espediente bateko ekintza administratiboak indarrik gabe uzteko gomendioa eman genion Ogasun Sailari, egiaztatu ahal izan genuelako errepideei buruzko arautegia hausteagatik hasitako espediente batean ezarritako isuna epez kanpo zegoela. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ogasun ataleko kexa aukeraketa.

* **586/95/16 eta 319/96/16 espedienteak.** Kasu honetan, PFEZren aitorpena aurkeztean kexagileak erabateko ezgaitasun iraunkorra aitortua zeukanez gero, eta Aldundiak ezgaitasun hori automatikoki %33ko elbarritasun baten parekotzat hartzen duenez gero, ulertu behar da zerga ordaindu beharreko egunean hiritarrak bazuela elbarri izaera, bai eta, beraz, dagokion kenketa egiteko eskubidea ere, berez Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailak kasu horietan eman ohi duen ziurtagiria eduki ez arren. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ogasun ataleko kexa aukeraketa.

* **289/96/16 espedientea.** PFEZko behin-behineko likidazio bat indarrik gabe uztea gomendatu zitzaion Ogasun Sailari, ekintza horrek grabamen bat egitea suposatzen duelako eta, beraz, ez litzatekeelako lege antolamenduaren kontrakoa izango (Herri-Administrazioko Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio-Jardunbideari buruzko Legea, 105. art.); izan ere, nahiz eta zerga alorreko Administrazioak era horretako likidazio positiboa egin diezaiokeen bere errenten zenbatekoagatik egin beharrik eduki ez arren aitorpena egiten duenari, arautegi fiskala ez ezagutzea beste arrazoirik ezin da egon kasu honetako zergadunak, 800.000 pta. baino gutxiagoko dirusarrerak izanik, aitorpena aurkezteko, zeinen ondorioz 40.816 pezetako kuota ordaindu beharra atera baitzen.

* **613/96/16 espedientea.** Justiziaren eta zergak ordaintzeko gaitasun printzipioen izenean, bikote batek egindako eskaria ontzat hartzea gomendatu genion Ogasun Sailari. Kasu honetan, bikote horrek baterako aitorpena egin nahi zuen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, lehenago nork bere aldetik egindako banakakoaren ordez; izan ere, era honetan halako diru kopuru bat ordaindu beharra atera zitzaien, baina baterako aitorpena eginez gero ondorioa alderantzizkoa izango zen, hots, dirua itzultzea.

TOKI ADMINISTRAZIOA

Arabako udalak

Vitoria-Gasteizko Udala

* **12/96/19 espedientea.** TAOko erabiltzaile txartelen kasuan, haietan adierazitako erabilera esparrua eta udalbatzarrak benetan onartutakoa bat ez

zetozen txartelak aldatzea gomendatu zitzaion Vitoria-Gasteizko Udalari. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Herrizaingo ataleko kexa aukeraketa.

* **178/96/19 espedientea.** Hiritar bat atxilotu ondoren berari egindako argazkiak eta hartutako hatz-markak suntsitzea gomendatu genion Vitoria-Gasteizko Udalari. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Herrizaingo ataleko kexa aukeraketa.

* **448/96/15 espedientea.** Vitoria-Gasteizen gasolindegi bat ipintzeko baimena ukatu ondoren, baimen hori ematea gomendatu genion hiri horretako udalari, Hiri Antolakuntzarako Egitasmo Nagusian behin-betiko onartu zuen Foru dekretuan baimenduta zegoelako erabilera hori eragindako hirialderako; hala ere, Egitasmo horren testu bateratua argitaratu zenean, aldaketa batzuk sartu eta gasolindegi erabilera debekatuta geratu zen.Vitoria-Gasteizko Udalak Arartekoaren gomendioa ontzat hartu eta argitalpenaren errakuntza zuzendu zuen ALHAOn beste iragarki bat ipiniz.

* **507/96/16 espedientea.** Zor likidatuen zati nagusiari aplikatutako premiamenduzko errekarguak bertan behera uztea gomendatu genuen; izan ere, kasu honetan, Gasteizko Udalak zerga desberdinak ordaintzeko epeak adierazten zituen informazio idazki bat bidali zien hiritarrei, ordainketa horiek helbideratzeko aukera emanez, eta ekintza horrek helburu egokia zeukala aitortuta ere, gure erakundearen aburuz nahasketa sortu zuen zergadunen artean, haietako batzuek pentsatu baitzuten ordainagiriak urtean zehar bidaliko zitzaizkiela beraien banketxeen bitartez; horren ondorioz, hiritar horiei premiamenduzko prozedura administratiboan sartu zitzaizkien beraien zorrak. Gai honi buruzko berri zehatzagoa nahi izanez gero, ikus Ogasun ataleko kexa aukeraketa.

AMVISA / Udal Urak

* **685/96/20 espedientea.** Ura hornitzeko kontratuan titularra aldatzen denean kontagailua aldatzeko dagoen obligazioa zela-eta, zerbitzu horren arauak aldatzea gomendatu genuen, nekez justifika zitezkeen gastuak eragin zitzakeelako, irakurketa ondo egin daitekeen epea (hamar urtekoa, pentsatzen denez) bete gabe dagoenean.

Laudioko Udala

* **564/95/19 espedientea.** Animalien babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legea ustez hausteagatik aurkeztutako salaketa batzuen ondoren, interesatuari Udalbatzarrak hartutako erabakien berri ematea gomendatu genuen.

Okondoko Udala

* **741/96/19 espedientea.** Premiamendu probidentzietan erabiltzen diren ereduen testua lege antolamenduaren aginduetara moldatzea gomendatu genion

Okondoko Udalari. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ogasun ataleko kexa aukeraketa.

Aguraingo Udala

* **53/96/17 espedientea.** Industri iharduera batean ikuskapen bisita egitea eta haren legeztapena esijitzea gomendatu zitzaion Udalari. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ingurugiro ataleko kexa aukeraketa.

Bizkaiko udalak

Bilboko Udala

* **163/96/22 espedientea.** TAOko udal arautegia hausteagatik ezarritako isun bat ofizioz indargabetzea gomendatu genuen, haren jakinarazpena egin zenean epez kanpo zegoelako.

* **275/96/22 espedientea.** Ostalaritza alorreko establezimendu baten bermezko itxiera gomendatu genuen, instalatu eta funtzionatzeko beharrezkoak diren baimenak ez zituelako; horretaz gain, jabeari lokala bilerak egiteko legezta zezala proposatzea ere gomendatu zen. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ingurugiro ataleko kexa aukeraketa.

* **276/96/16 espedientea.** Hiritar baten ibilgailua erretiratzeagatik kobratutako tasa (8.440 pta. guztira) itzultzea gomendatu genuen, zirkulazio arauak ustez hausteagatik egindako salaketa -berau izanik udalaren ekintzaren oinarriabertan behera geratu zelako hiritarraren alegazioak aintzat hartu ondoren. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ogasun ataleko kexa aukeraketa.

Abanto-Zierbenako Udala

* **464/95/19 espedientea.** Udalbatzarrari Zierbenako Udal bananduarekin elkarlanean aritzeko gomendioa egin genion, bai eta tramitazioan zeuden espedienteen kopia bat bidali ere.

Bakioko Udala

* **856/96/15 espedientea.** Ogi salmenta erregulatzen duen araudi tekniko-sanitarioa betetzearren, kalez kaleko salmentaren kontra jotzea gomendatu genuen, salmenta mota hori debekatuta dagoelako; bestalde, etxerako salmentari dagokionez, legeak agintzen duena betearaztea proposatu genuen.

Basauriko Udala

* **729/95/19, 834/95/19, 925/95/19, 931/95/19 eta 1383/96/19 espedienteak.** Zaborra jaisteko ordutegia dela-eta, garbiketa arautzen

duen udal ordenantzako aginduak hausteagatik hasitako espediente batzuetan erabaki ziren isunak indargabetzea gomendatu zitzaion Basauriko Udalari. Gai honen berri zehatzagoa izateko, ikus Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza ataleko kexa aukeratuak.

Bermeoko Udala

* **346/96/16, 610/96/16, 1234/96/16 eta 1515/96/16 espedienteak (espediente kolektiboa).** Udal Ordenantzan ur hornidura zerbitzu publikoko harpidedunaren figura arautzen zuen agindu bat bertan behera uztea gomendatu genuen, agindu hori Bizkaiko Toki Ogasunen Foru Arauan sartuta ez dagoenez gero euskarri juridikorik ez duela pentsatu behar zelako, kontuan izanik gainera prezio publikoa ordaindu beharra, zerbitzua erabiltzen dutenei ez ezik, beste batzuei ere ezartzen diela. Halaber, agindu horren bidetik egindako kobraketak atzera botatzea ere gomendatu genuen. Bermeoko udalerrian ur hornidura zerbitzuaren ordainketa prezio publikotzat hartzen bada, bistan da haren prestazioa borondatezko eskari bati erantzunez ematen dela eta, hortaz, borondate hori azaldu ez duten pertsonei ezin zaiela kobraketa hori esijitu. Derrigorrez ezarritako ondasun izaerako prestazio bat dugu hau, eta horrek, EKko 31. artikuluari jarraituz, lege erreserba printzipioaren aplikazioa suposatzen du. Gai honen berri zehatzagoa izateko, ikus Ogasun ataleko kexa aukeratuak.

Busturiako Udala

* **362/96/22 espedientea.** Ibilgailuak konpontzeko tailer bateko iharduerari ezarritako neurri zuzentzaile bat betearazteko lege antolamenduan aurreikusita dauden neurri guztiak hartzea gomendatu zen.

Karrantzako Udala

* **137/96/15 espedientea.** Hiritar batek salaketa bat aurkeztu zuen Karrantzako Udalaren kontra, lehenagoko batean eraikitzeko baimena emandako leku batean eraikitzeko lizentzia ez emateagatik. Arartekoak udal horri gomendio bat bidali zion, S-3 sektorearen birzatikapen proiektuaren erredakzioa eskatuz, kexagileari ukatu zioten eraikitzeko baimena ahalbidetzeko, lehenagoko batean eraikitzeko baimena eman baitzen. Gomendio honen bidez desberdintasun egoera batekin bukatzea nahi zen.

Elorrioko Udala

* **813/95/17 espedientea.** Kasu honetan gomendatu genuen udal zerbitzu teknikoek bisita bat egin zezatela, halako iharduera batek funtzionatzeko baimenean ipinitako neurri zuzentzaileak betetzen ote zituen egiaztatzeko. Halaber, ikuskapen horretan ikusten bazen iharduera horrek ez zituela betetzen instalakuntza baimenean ipinitako neurriak, IGOKAAko 36. eta ondoko artikuluetan

xedatutakoaren arabera jokatzea gomendatu genuen. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ingurugiro ataleko kexa aukeraketa.

Getxoko Udala

* **1121/95/18 espedientea.** Publiko bihurtutako ikastola batean irakaskuntzaz kanpoko postu batean lan egiten zuen emakume bat kautelarki bere gain hartzea gomendatu zitzaion Udalari, auzi bidez ematen zen behin betiko adierazpenaren kalterik gabe. Gai honen berri zehatzagoa izateko, ikus Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza ataleko kexa aukeratuak.

Loiuko Udala

* **1090/95/15 espedientea.** Tailer mekaniko baten hormak berdindu eta pintatzeko baimena ematea gomendatu eta aditzera eman genuen tailer hori bere barruan zeukan eraikina antolaketatik kanpo egon arren, apainketa eta kontserbaziorako obrak zirela eta beraz horiek baimendu beharra zegoela. Udalak onartu egin zuen baimena ematea, baina baldintza bezala jarriz tailerrak uko egin behar ziola obren ondorioz eraikinak edukiko zuen balio gehikuntzari. Gai honen berri zehatzagoa izateko, ikus Hirigintza eta Etxebizitza ataleko kexa aukeratuak.

Ondarroako Udala

* **891/96/20 espedientea.** Musika irakasle lanpostuak betetzeko deialdietan, aurrerantzean pianojole laguntzaile bezala emandako zerbitzuak aintzat ez hartzeko erabilitako irizpidea espreski sar dadila gomendatu genuen.

Plentziako Udala

* **1016/95/17 espedientea.** Bermezko neurri bezala, gimnasio bat ixtea gomendatu genion udalari, iharduera horrek ez zeukalako instalatu eta irekitzeko derrigorrezkoa den baimena; era berean, establezimenduaren jabeari haren legeztapenari ekiteko eskaria egitea ere gomendatu zen.

Gipuzkoako udalak

Donostiako Udala

* **1062/95/19 espedientea.** Kexagilearen etxe inguruan baloian eta patinekin jolasten duten umeek eragiten dituzten arazoak ez gertatzeko behar ziren neurriak hartzea gomendatu genuen. Udalak, eskari horri erantzunez, eta ohiko ekintzei eustearen kalterik gabe, halako kontrol neurri batzuk hartu zituen, Arartekoaren iritziz egokiak.

Beasaingo Udala

* **536/95/15 espedientea.** Hiritar bati obra batzuk epez kanpo bukatzeagatik bere gain hartu zuen erantzunkizun kontraktualaren ondorioz sortutako kalte guztiak ordaintzea gomendatu zen.

Eibarko Udala

*** 465/96/22 espedientea.** Kasu honetan gomendatu genuen udal zerbitzu teknikoek bisita bat egin zezatela, halako iharduera batek funtzionatzeko baimenean ipinitako neurri zuzentzaileak betetzen ote zituen egiaztatzeko. Halaber, ikuskapen horretan ikusten bazen iharduera horrek ez zituela betetzen instalakuntza baimenean ipinitako neurriak, IGOKAAko 36. eta ondoko artikuluetan xedatutakoaren arabera jokatzea gomendatu genuen. Gai honen berri zehatzagoa eduki nahi izanez gero, ikus Ingurugiro ataleko kexa aukeraketa.

Eskoriatzako Udala

*** 101/96/22 espedientea.** Alkategoaren Dekretu baten bidez iharduerarren titularrei haren legeztapena eskatzea gomendatu zen.

Irungo Udala

*** 1051/95/15 espedientea.** Hiritar batek urtebetetik gora lehenago aurkeztutako eskari bati erantzuna ematea eta hari buruzko ebazpena hartzea gomendatu zen.

Errenteriako Udala

*** 388/96/20 espedientea.** Biztanleen udal errolda eta biztanleriari eta etxebizitzari buruzko estatistika berritzeko lanetan lan erregimeneko beste pertsonal baten aldi baterako kontratazioa egiteko deialdiaren arauak aldatu eta Errenterian bizitzeko meritua kentzea gomendatu zen.

BAZKUNDE BATZUEN ADMINISTRAZIOA

Euskal Abokatutzaren Kontseilua

*** 137/93/16 espedientea.** Legelari baten iharduerarren ondorioz kalteak izandako izandako hiritar baten eskubideak aitortzeko behar ziren neurriak har zitezela gomendatu genuen.

6.4. OFIZIOZ HASITAKO ESPEDIENTEETAN ARARTEKOAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE MAILA

ONARTU DIREN GOMENDIOAK

EUSKO JAURLARITZA

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

*** 7/96/21O espedientea.** Gizarte epaitegi batean eginiko ahozko auzian pertsona gor batek ulertzeko izandako arazoak zirela-eta Arartekoak hasi zuen

ekimen baten ildotik, gure erakunde honek ofizioz jo zuen Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Justiziarekiko Lankidetza Zuzendaritzara. Hiritar guztiak auzitegien aurrean berdinak izan beharra bermatzeko helburuaz, honakoa iradoki genuen: egoki diren neurriak hartu behar dira keinu hizkuntzaren itzultzaile zerbitzua eduki ahal izateko, haien beharra dagoen epaiketa eta bestelako ekintzetan esku har dezaten, entzuteko arazoak dauzkaten pertsonak inplikatuta daudenean. Gai honen berri zehatzagoa izateko, ikus Justizia ataleko kexen aukeraketa.

TOKI ADMINISTRAZIOA

Arabako Udalak

Oiongo Udala

∗ **63/96/20O espedientea.** Administrazio publikoentzat lan egiten duen pertsonalaren sarrerari buruzko legerian zehaztuta dauden hauta-prozedurak (lehiaketa, oposaketa, lehiaketa-oposaketa) erabiltzea gomendatu genuen.

Era berean gomendatu genuen dagokion lanpostuan aritu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak bakarrik eskatzea, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak erabat errespetatzea, eta, azkenik, merezimendu eta gaitasun printzipio horiekin derrigor zerikusia duten merituak ontzat hartzea, pertsona behartsuen gizarteratzea bilatzen duten egitarauetan salbu, hauen kasuetan bestelako zertzelada ekonomikoak eta lanari buruzkoak har baitaitezke kontutan.

ERANTZUN EDO BEHIN-BETIKO EBAZPEN ZAIN DAUDEN GOMENDIOAK

EUSKO JAURLARITZA

Kultura Saila

EITB

∗ **10/96/21O espedientea**. EITBk Emakume Langilearen Eguna ospatzearren Bizkaiko Emakumeen Asanbladak prestatu zuen iragarki bat zabaltzeari uko egin zionez gero, Arartekoak iragarkia emateko gomendioa egin zion esandako entitate publikoari. Ospakizunaren eguna (martxoaren 8a) iritsi zenean, esandako iragarkia eman ez zela-eta, komenigarria iruditu zitzaigun gomendioaren muina zabaltzea, gomendioak baliagarri izaten jarraitzen zuela pentsatuz, noizpait demanda berbera errepikatu edo antzekoak gerta zitezkeelako. Horregatik, EITBri berriro adierazi genion aurrerantzeko kasuetarako ontzat har zitzala gure erakundean kasu jakin horri buruz prestatu ziren argudioak, pertsona guztien berdintasuna sustatzea bilatzen duten iragarkiak ematea onar dadin. Gai

honi buruzko berri zehatzagoa nahi izanez gero, ikus Kultura ataleko kexa aukeraketa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

* **12/96/20 espedientea.** Ezkontideak banatu edo dibortziatzen diren kasuetan, PFEZri dagokionean, ordaindutako pentsio eta elikagaiengatiko urtealdientzat hartzen diren irizpideak edota egokien irizten diren beste edonolakoak hartzea gomendatu genuen, ikasteko beka edota laguntzak banatzeko deialdiei dagokienez. Horrela errenta bi aldiz kontutan hartzea edota kenketak egiteko ezintasuna gertatzen diren kasuak eragotzi egin litezke. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

* **67/96/15O espedientea.** Arartekoak ofiziozko gomendio bat zuzendu zion Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuari, premiazko desjabetzapen prozeduraren gehiegizko erabilera muga dadin.

FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

* **2/96/16O espedientea.** PFEZko tributazioa egiteko aukera aldatzean Gipuzkoako Foru Ogasunarekin izandako arazoak gerta zitezkeela-eta, Arabako Foru Aldundiaren Ogasunari gomendatu genion Gipuzkoako Ogasun Zuzendari Nagusiaren zirkularrean adierazitako irizpidea har zezala, hots, zergadunari bidea ematea egindako aukera berretsi edo aldatzeko. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Bizkaiko Foru Aldundia

* **3/96/16O espedientea.** PFEZko tributazioa egiteko aukera aldatzean Gipuzkoako Foru Ogasunarekin izandako arazoak gerta zitezkeela-eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasunari gomendatu genion Gipuzkoako Ogasun Zuzendari Nagusiaren zirkularrean adierazitako irizpidea har zezala, hots, zergadunari bidea ematea egindako aukera berretsi edo aldatzeko. Jasotako erantzuna azterketaren zain dago oraindik.

Gipuzkoako Foru Aldundia

* **2/95/19O espedientea.** Garraio eta Errepide Sailari gomendatu genion Mendeluko bidegurutzean -Hondarribi eta Irun arteko GI-4361 errepidean- seinale bat jartzea Bidasoako Ospitalea hurbil zegoela adierazteko, eta informazio horrekin batera, ondoko panel batean, beste zerbitzu hauen iragarpena egitea: Larrialdiak/

Urgencias eta Tanatorioa. Esandako administrazio sailak hasieran ezezko jarrera hartu zuenez gero, Arartekoak gomendioa berretsi beharra erabaki zuen. Une hauetan erantzunaren zain gaude.

VII. ATALA

GOMENDIO ETA IRADOKIZUN OROKORRAK

7.1. AURREKARI PENALEN ERAGIN DISKRIMINAGARRIA EKIDIN BEHARRA

Erakunde honek etengabeko kezka dauka gizarteko ondasunez berdintasun baldintzetan baliatzeko arazo bereziak dauzkaten pertsona bakan eta multzoei buruz. Zehazki, zigor penala jasan duen pertsonak edukitzen dituen arazoen berri ezagututa, Arartekoak azterketa bat egin nahi izan du aurrekari penalek zenbait eskubideren gauzapenean dauzkaten ondorioei buruz, eskubide horiek zer neurritan murrizten dituzten jakitearren.

1- Aurrekari penalak eta bergizarterapena

Zuzenbide Estatu batean, zigor penala gaitz bat da (eskubideak murriztu egiten direlako) gizarteak erabiltzen duena komunitatearentzat kaltegarritzat hartuta egonda legeek debekatzen duten ekintzaren bat egin duenari erantzuteko.

Zigor horien ezarpenaren bitartez gizarteak zer helburu lortu nahi duen argitzeko orduan adostasunik ez dagoen arren (eta beharbada inoiz ez da egongo), bai dago halako oinarrizko adostasuna honako ideia honen inguruan: hots, estatu demokratiko batek ezin duela Justizia ideal bat erdiesteko asmoz zigortu, aurrerantzean gerta litezkeen delituei aurre hartzeko baizik, halako zigor bat ezarriz.

Ildo horretatik, Konstituzioan jasota dago, pertsonen funtsezko eskubideen artean, delitugilearen bergizarterapena lortzera bideratu behar direla zigorrak. Jakina, adierazpen horretan askatasun-kenketa dakarren zigorra bakarrik hartzen da kontuan, espreski behintzat, eta, gainera, erabilitako hitz batzuk -*berreziketa* eta *bergizarterapena*- direla-eta, ulerbide desberdinak daude. Guztiarekin ere, onar daiteke Funtsezko Arauan aitortzen den eskubidearen gutxienezko edukia zera dela: legea hautsi duenak komunitateko kide izaten jarraitzen duela, funtsezko eskubideez baliatzeko aukera baduela -kondenaren eraginpean geratzen direnez izan ezik-, eta delitua zigortzearren Legean ezarrita dauden kalte eta gabeziez aparte bestelakorik ez duela jasan behar. Beste era batez esanda, Administrazio behartuta dago zigorraren gauzapenak ekar ditzakeen ondorio kaltegarriak ekiditeko edo arintzeko behar diren neurriak hartzera, baldin eta ondorio horiek zigorraren mamiaz haraindiago iritsi eta zuribiderik ez badute.

Begien bistan dago adierazi dugun ideia errealitatea baino areago nahikunde bat dela. Gaur egun, delitu bategatik kondenatua izatea eta, bereziki, askatasunik gabe egon izana estigma bat da, diskriminazioa dakarrena eta, askotan, lehendik

zeuden beste faktore bazterkeria-eragile batzuk larriagotu egiten dituena. Horregatik, badirudi Konstituzioaren aginduak -hots, "*zigorrak (...) berreziketara eta bergizarterapenera bideratuta egongo dira*"- pertsonen sustrai-galketa eta bestelako ondorio txarrik eragiten ez duen sistema penitentziario bat sortzera behartzeaz gain, administrazio publikoari obligazioa ipintzen diola zigortuen bergizarterapena oztopatzen duten gizartearen aurreiritzi eta ohituren kontra borrokatu eta horiek deusezteko.

Egia esanda, obligazio hori pertsonen berdintasuna egiazkoa eta benetakoa izan dadin aginte publiko guztiek daukaten betebehar orokorraren barruan dago. Ildo horretatik, eta gure gogoetaren harira etorriz, Lege Organiko Penitentziario Nagusian (aurrerantzean, LOPN) xedatutakoa aipatu beharra dago. Haren 1. artikuluan erakunde penitentziarioen helburu nagusia bergizarterapena dela finkatu ondoren, Lege horren 73. artikuluak hauxe dio:

> "*1. Bere zigorra bete duen kondenatuari eta beste nolabait bere erantzunkizun penala bete duenari aukera osoa eman behar zaio hiritarra den aldetik dauzkan eskubideez baliatzeko.*
> *2. Aurrekariak ezin dira bazterkeria sozial edo juridikoa eragiteko arrazoirik izan*"

Zer esanik ez, xedapen horrek badirudi halako berme bat, bide bat ipini nahi duela bergizarterapen helburua lortzeko. Eta haren testua hain da hertsagarria -noizbait seinalatu den bezala (ikus, adibidez, B. MAPELLI, *Principios fundamentales del sistema penitenciario*, 319. orria)-, ezen haren aplikazioaren ondorioz aurrekari penalen desagerpena gertatu beharko bailitzateke. Seguru aski, ordea, legegilearen borondatea ez zihoan horren urrutira, baina garbi dago lehenago izandako jokamolde deliktibo baten ondorioak esparru penal hutsera murriztu nahi zituela.

Zentzu horretan, aurrekarien ondorio penalen legezkotasuna onartzen da eta, izatez, Zigor Kode berriak berrerorketa oraindik ere jasotzen du erantzunkizun penala larritzen duen zertzeladen artean. Astungarri horren iraupenaren inguruan ahots ugari eta funtsatu asko altxatu ziren arren, 1995eko legegileak bere hartan utzi du eta, haren aplikazio esparrua mugatu badu ere, hori kontutan hartzeko obligazioa berretsi egin du.

Figura horren inkonstituzionalitatea oinarritzeko erabili nahi izan diren argudioak pisutsuak dira. Konstituzio Auzitegiaren (aurrerantzean, KA) uztailaren 4ko 150/91 epaian aztertu egiten dira ekintzagatikako erruduntasun eta penaren neurrizkotasun printzipioekin eduki dezakeen kontraesana eta berdintasun printzipioaren edo ekintza beragatik bi aldiz zigortua izateko debekuaren ustezko hausketa. Nahiz eta Goi Auzitegi horrek aitortu astungarriaren funtsari buruzko adostasunik ez dagoela, Funtsezko Arauko xedapenekin bat ez datorrela ukatu egiten du.

Hortaz, delitugile bati ipini beharreko zigorra zehazteko orduan, auzitegiek oraindik ere hartzen dute kontutan pertsona horrek antzeko beste deliturik egin duen ala ez iraganean. Dena dela, nahiz eta berrerorketa erantzunkizun penalaren zertzelada astungarri bezala hartzen jarraitzen den, horrek ez du esan nahi

LOPNeko 73.2 artikulua edukiz gabetuta geratu denik. Alderantziz, salbuespena suposatzen du: sujetuaren jokamolde zigortuaren ondorio onargarri bakarra - baina auzitan jarritakoa.

Are gehiago, aurrekari penalak errehabilitaziorako oztopo larria dela onartzeak halako bilakaera historiko bat ekarri du, aurrekarien ondorioen murrizketa eraginez, emeki baina gero eta handiagoa. Berrerorketako astungarriaren mugaketa gero eta zorrotzagoaz gain, 1983tik aurrera aurrekariak ezabatuta daudenean edo egon litezkeenean astungarri hori kontutan hartu ezina dago.

2- **Aurrekari penalen ondorioei buruzko lege-xedapenak.**

Paradoxikoki, esparru penalean antzemandako murrizketa-joera hori orokortzerik ez dago. LOPNeko 73.2 artikuluak ezarritako irizpidea kontrakarrean jarria izan da geroagoko hainbat lege-arauetan, baina haietako gutxik dute lege organiko (LO) maila. Horrela, Botere Judizialari buruzko 6/1985 LOak Epailetzara sartzeko ezintasun arrazoi bezala hartzen du errehabilitazioa lortzen ez den bitartean maltzurkeziazko delituagatik kondenatua izana.

Bestalde, Heziketarako Eskubidea arautzen duen 8/1985 LOak bere 21.2 b) artikuluan dio "*maltzurkeriazko delituengatik aurrekari penalak dauzkatenak*" ezingo direla ikastetxe pribatuen titular izan.

Aipatu xedapen horiek, orokor eta hertsagarriak izanik, eztabaidagarriak izan daitezkeen arren, ez litzateke arrazoigabea izango aurreko jokamolde deliktiboak kontutan hartzea, haietan aipatzen diren betekizun profesionalen garrantziagatik eta haien osagarri etiko-sozial dudaezinengatik.

Zentzu horretan, ekainaren 27ko 77/1985 epaiak, non KAk Heziketarako Eskubidea Arautzen duen Lege Organikoaren konstituzionaltasuna aztertzen duen, nabarmenduta uzten du aurrekaririk ez edukitzeko baldintza horrek justifikazioa duela heziketak bilatzen duen helburuagatik beragatik ("*gizon-emakumeen nortasuna osoki garatzea*", EKko 27.2 artikuluaren arabera), eta beraz ipinitako debekua helburu hori erdiesteko berme bat dela. Ondoren, KAk dio oinarriak dituen eskubide-mugapena dela hori, eta gainera lege organiko batean ezarrita dagoela; alegia, horrekin aditzera ematen da aurrekari penalak eskubide-mugapenarekin lotzen uzten duen legezko bide bakarra dela.

Horregatik, beste lanbide batzuetan iharduteko ipini diren mugak, aipatutako epaiaren ondoko lege arruntek sorturikoak, ezin dira hain erraz justifikatu. Horrela, adibidez, Kontu Ikuskapenari buruzko 19/1988 Legeak ikuskatzaile lanetan aritzeko baldintza bezala maltzurkeriazko delituengatik aurrekari penalik ez edukitzea jartzen du (7.1 art.). Zalantzatan ipini gabe betekizun horren funtsa, ez eta horretan aritzen denak erabateko onestasuna izan beharra ere, badirudi lege antolamenduaren oinarrietan dauden printzipioek -besteak beste, berdintasunak, zigorren legezkotasunak eta delitugileen gizarterapenak- beste edozein planteamenduren gainetik egon behar dutela, batez ere beste planteamendu horiek aurrejuzku sozial eta moraletatik sortuak eta gizarte plural batean onartezinak direnean.

Aurreko argudioaren indargarri, kontuan izan behar da notariotzan sartzeko oztopoa ipintzen zaien bakarrak "*epai irmoaren ondorioz iharduera publikoetan aritzeko ezgaituta daudenak*" direla (Notarioen Arautegia, 7.2 art.).

Ildo beretik, Abokatutzaren Estatutu Nagusian abokatu lanetan iharduteko baldintza bezala jartzen da "*lanbidean aritzeko ezgaitasuna*" dakarren aurrekari penalik ez izatea. Nahiz eta testua behar bezain argia ez izan, ulertu behar da esan nahi duela pertsona bati ezin zaiola ezgaitasuna jasanarazi hori ezartzen duen kondena bat betetzen ari delako. Beharkizun horixe bera jartzen du erregimen lokaleko legeriak -781/1986 Legegintza EDko 135. art.-, esaten duenean Funtzio Publiko lokalean aritu ahal izateko beharrezkoa izango dela diziplinazko espediente bidez edozein administraziorentzako zerbitzutik apartatua gertatu ez izana, edota iharduera publikoetan aritzeko ezgaituta ez egotea. Ebazpen berbera jasoa zegoen lehenago 315/1964 Dekretuan, zeinetan Estatuaren funtzionario zibilei buruzko lege artikuluduna onartzen baitzen.

Filosofia berbera aurkitzen da ehiz legerian, lanbideez kanpoko esparru bat aipatzeagatik. Horrela, 506/1971 Dekretuak dio ezin zaiela ehiz baimenik eman epai irmoagatik horrelakorik edukitzeko ezgaituta daudenei.

Beste arau xedapen batzuek bestelako ikuspegia erabiltzen dute eta ez dute ondorio automatikorik eragiten aurrekari penalak eduki hutsagatik, baina arriskugarritasun indizio moduan hartzen dituzte, eta beraz kasu jakin bakoitzean neurtu beharko direla esaten dute. Horixe gertatzen da, esaterako, Arma Arautegiarekin (137/1993 ED), arma baimena lortu ahal izateko aurrekari penalei buruzko ziurtagiria aurkeztu beharra ipintzen duenean. Hala ere, jurisprudentzian askotan ezarri da derrigor egiaztatu behar dela kasu bakoitzean arrazoi objetiboak daudela baimena ukatzeko, eta beraz ez dela nahikoa noizbait zigor kondenaren bat jasan izana (ikus, adibidez, Auzitegi Gorenaren 96-02-05 edo 92-05-07ko epaiak). Ezin da esan gabe utzi, ordea, beste kasu batzuetan, "jokamolde-aurrekariak" nahikoak direla halako baimen bat ukatzeko, eta horrek bidea eman lezakeela pertsonaren egokitasunari buruzko epaian halako balorazio moral hutsak sartzeko.

Pertsona batek etorkizunean izango duen jokamoldea igartzea guztiz zaila denez gero, komenigarria litzateke delitua egin duen pertsona baten arriskugarritasunari buruzko juzkua delitu hori epaitzen den auzi berberean egitea, eta beraz, epaimahaiak beharrezkotzat joz gero, bertan ezartzea beharrezkoak diren segurtasun neurriak. Horrela, halako erabaki bat hartzeko behar diren bermeak gehiago izango lirateke, erabaki horretan jokoan dagoena pertsonaren askatasunaren mugapena baita.

Gainera, kontuan izan behar da Zigor Kode berrian ezgaitze edo etete zigorren aplikazioa ugaldu ere ugaldu dela, eta beraz zigorraren edukian bertan adierazita egon beharko litzateke zein kasutan komeni den halako pertsona bati galeraztea iharduera bat egitea, segurtasun neurri batera, eta, are gutxiago, aurrekari penalak ondorio murrizgarriekin erabiltzera jo beharrik gabe.

Ikuspuntu horretatik, ezin da erraz ulertu Lurreko Garraioen Antolaketarako 16/1987 Legeak lanbide horretan aritzeko ipintzen dituen baldintza pertsonalen arauketa. Izan ere, gaitasun baldintzez aparte, ohorezkotasun baldintzak ere

aipatzen dira bertan, hau da, onartu ezineko hitzak ere erabiltzen dira, hasteko. Lege horren garapenean, 1211/1990 EDko 37. artikuluak hauxe dio:

> *"Ohorezko pertsonatzat har daitezkeen pertsonek honako baldintza hauek bete behar dute:*
>
> *a) Epai irmo batean, maltzurkeriazko delituengatik presoaldi txikirako zigorrera edo zigor handiagora kondenatuta egon ez izana, aurrekari penalen ezabaketa lortzen ez den bitartean.*
>
> *b) Epai irmo batean, ezgaitze edo etete zigorrera kondenatuta egon ez izana, salbu eta zigor horiek osagarri moduan ezarriak direnean eta garraiolari lanbideak zerikusirik ez duenean egindako delituarekin, zigorrean ezarri den denborarako.*
>
> *c) Xedapen irmo batean, garraio alorreko lege-hauste oso larriengatik behin baino gehiagotan zigortuta egon ez izana, ondoko artikuluan adierazten denari dagokionez.*
>
> *d) Arau fiskalen, lanekoen eta Gizarte Segurantzakoen hauste larri eta errepikatua egin ez izana."*

Testu horren ulerbidea moldatu egin behar da 1995eko Zigor Kodeak egindako erreformara, baina, nolanahi ere, lauso samarra da oraindik eta, puntu batzuetan, biltzen dituen baldintzak ez daude behar bezain justifikatuta. Errepideko garraioan lan egiten duten pertsonek iharduera berez arriskutsu horretan aritu ahal izateko gaitasuna ziurtatzea beharrezkoa dela onartuta ere, ez da ulertzen zergatik aurrekaria izate soilak eragina daukan gaitasun horretan, edozein delarik ere lege-hauste penalaren muina.

3- Euskadiko Joko Legeari eta aurrekari penalekin zerikusia duten EAEko beste xedapen batzuei buruzko aipamen berezia

Orain arte adierazi duguna labur bilduz, esan dezagun Konstituzioan finkatutako printzipioek -tratu berdintasuna eta zigorrek helburutzat bergizarterapena edukitzea, alegia- nagusi izan behar dutela. Bi printzipio horiek zehaztuta ageri dira LOPNeko 73.2 artikuluko xedapenean, aurrekari penalak bazterkeriarako arrazoi ezin izan daitezkeela dioenean. Betekizun sozial berezi baten garrantziagatik bakar-bakarrik har daitezke kontutan halako pertsona batek jasan dituen zigor kondenak. Baina kasu horiek -salbuespenezkoak beti- lege organiko baten bidez arautu behar dira, halako iharduera edo lanbide batean aritu ahal izateko aurrekaririk ez edukitzeko baldintza horrek nabarmenki mugatzen duelako pertsonaren askatasuna.

a) **Joko iharduerari buruzko euskal arautegia**

Aurreko planteamenduaren alderantziz, EAEn joko iharduera arautzen duen 4/1991 Legeak jokoak antolatu eta praktikatzeko behar den baimena ukatu

egiten dio "*baimena eskatu aurretiko bost urteetan faltsukeriazko lege hausteagatik, jabegoaren kontrako lege hausteagatik edo Herri Ogasunaren aurkako lege hausteagatik sendetsitako epai bidez zigorpeturik egon*" denari. Debeku hori, hasteko, joko enpresen titularrentzat ipinia izan arren, enpresa horietan lan egin ahal izateko agiri profesionala behar duten langile guztiei ezargarria bihurtu da.

Legearen motibo adierazpenean esaten den bezala, jokoaren sektorea euskal sare ekonomikoaren zatitzat hartzen da, eta beraz bidezkoa da administrazioak bertan esku hartzea, bai sektorea planifikatzeko, bai kontrolatzeko ere. Dena den, garrantzi ekonomiko hori ez da arrazoi nahikoa halako aurrekari penalak dituzten pertsonen kanporaketarako, are gutxiago besteren konturako lana egiten duten pertsonen kasuan. Izan ere, neurri horren bidez eragotzi nahi bada jabegoaren kontrako delitua egindako pertsonek besteren dirua erabiltzea edo eskumenean edukitzea, merkataritza edo enpresa alorreko ia iharduera guztietan aritzea eragotzi beharko litzaieke.

Beste alde batetik, zentzurik gabekoa da joko enpresa batean lan egiteko baimenik ez ematea -adibidez- noizbait besteren ibilgailu bat baimenik gabe erabili zuenari eta, alderantziz, diru publikoa bidegabeki xahutzeagatik bere kargutik noizbait apartatua izandako funtzionarioak horrelako arazorik ez edukitzea.

Bestalde, lehenago kondenatuta ez egoteko baldintzaren iraupena zehazteko arrazoiak ere ez dira erraz ulertzen. Bost urteko epea handiagoa da zigor legeak delitu gehienen aurrekariak ezabatzeko ipinitakoa baino, eta zigor larrien ezabaketarako behar den denbora bera da. Gai honi dagokionez, komeni da gogoan izatea epai irmoak diktatzen direnean debekatutako ekintza gertatu zenetik denbora asko igarotzen dela, eta beraz delitua egin izanaren ondorio diskriminagarriak ezin onartzeko moduan luzatzen direla.

Ekonomiaren alorreko iharduera batean aritu behar duenaren zintzotasuna ziurtatzeko asmo (neurri handi batean, lortezin) horren azpian, legezko diskriminazio bat ezkutatzen da, norberaren bizi-ibilbidea bezalako ezaugarri pertsonal batean oinarrituta dagoena. Oso esanguratsua da Galiziako legearen motibo adierazpenean "*jokoak hiritarren jokamoldean eta gizartearen moralean duen eragina*" aipatzea. Funtsean, alor honetako legerian oraindik ere aurkitzen da zorte-jokoei buruz antzinako moralean -edo baita zigor legean ere- egiten zen txarrespenaren islada nabarmena.

Ondorio gisa, jokoari buruzko euskal legeak iraganean delituren bat egindako pertsonei dagokienez finkatzen duen tratu desberdinak ez dauka inolako oinarririk eta, beraz, ez du ezertarako ere justifikatzen aurrekari penaletan oinarrituta diskriminaziorik ez gertatzeko printzipio orokorraren ukapena. Dena dela, arau hori ez da akats hori daukan bakarra. Izan ere, Nafarroako Parlamentuaren 11/1989 Foru Legeak eta Valentziako Gorteen 4/1988 Legeak euskal arauarena bezalako baldintza ezartzen dute, bai eta zabaldu ere pertsonen kontrako delituengatikako aurrekaririk ez izatea eskatzeraino. Bestalde, Kataluniako legeak (15/1984), Galiziakoak (14/1985) eta Kanarietakoak (6/1985) bakoitzaren gobernuaren gain uzten dute sektore honetako baimena lortu ahal izateko, pertsona zein entitateek bete beharreko baldintzen zehaztapena.

Gauzak honela, zentzu onean aipagarria da Andaluziako autonomia erkidegoko 2/86 Legea; izan ere, lanbide-ziurtagiria lortzeko baldintza moduan jartzen du "*epaiketa bidez ezgaituta egon ez izana joko iharduerarekin zerikusia duten lanbideetan aritzeko*". Kasu honetan, ezgaitze hori zigorraren edukiaren osagaia izanik, eskakizun hori legearen araberakoa da.

Labur esanda, onartu behar da Euskadin joko iharduera arautzen duen legeak -estatu eta autonomia mailako beste arau batzuek bezalaxe- ez duela errespetatzen aurrekari penalak diskriminaziorako arrazoi ez izateko debekua. Alderantziz, askatasun pertsonalaren mugapen justifikaziogabe bat ezartzen du, edo, zehazki esateko, norberaren lanbidea aukeratzeko askatasuna (Konstituzioak berak aitortzen duena) mugatu egiten du. Eta, ondoren argituko dugun bezala, arauketa horrek bidegabekeriazko egoerak sor ditzake.

b) **Arartekoari azaldutako kasua**

Hiritar batek erakunde honetara jo eta azaldu zuen bingo batean lanean ibili ondoren zorte-jokorako lanbide-karneta berritu behar izan zuela. Eskaria egin zuenean, Herrizaingo Sailak ukatu egin zion, aurrekari penalak zituelako. Izan ere, pertsona horrek motoredun ibilgailu baten legez kontrako erabilera delitua egin zuen 17 urte zituenean (motor bat lapurtu zuen). Ekintza hori egin zuenetik hiru urtera, gutxieneko zigor bat ezarri zioten (100.000 pezetako isuna). Gazteak kopuru hori ordaintzeko gaitasune ez zuenez gero, isunaren ordez 10 eguneko atxilotzea ipini eta haren betearazpena baldintzapean bertan behera utzi zitzaion azkenik; alegia, delituan berriro erortzeko arriskurik ez zegoela ebatzi zen. Baina delitu horri zegozkion aurrekariak berdin-berdin jasota geratu ziren erregistroan, eta behin betiko ezabatu arte ondorioa edukitzen jarraitu behar zutenez gero, bere kasuan, hau da, bingo bateko saltzaile-aurkezle bezala lan egin ahal izateko, delitua egin zenetik zortzi urte igaro bitartean jarraitu beharko zuen ondorio horiek jasaten.

Arartekoak ezin izan zuen ezer egin planteatutako arazoa konpontzeko, Herrizaingo Sailak guztiz errespetatu zuelako legeak dioena, hau da, Jokoari buruzko Euskal Legeko 19.4 artikuluan agindutakoa. Dena dela, bistan da -kexagileak berak erreklamatzen zuen bezala- arauaren aplikazioak sortutako ondorioa neurrigabekoa eta bidegabekoa zela, lege antolamenduaren oinarrietan dauden printzipio orokorren eta helburuen kontrakoa zelako.

c) **Administrazioaren beste jokaera batzuk: polizia kidegoetarako oposaketen deialdietan eskatutako baldintzak**

Nahiz eta gomendio orokor hau egitera eraman gaituen kexa jokoaren arauketari buruzkoa izan -lehenago azalduta geratu den bezala-, ezin da ahaztuta utzi iraganeko jokamolde deliktiboan oinarritutako diskriminazio hori ez dela kasu bakarra. Aurrekari penalik ez izateko baldintza lanbide askotan sartu ahal izateko

ipini izan da historikoki. Eta eskakizun horren "normaltasunak" nekez gaindi daitezkeen inertziak sortarazi ditu gizartean. Nolanahi ere den, administrazio publikoak, legezkotasun printzipioa betetzera behartuta egon ez ezik, Konstituzioaren aginduz gainera neurriak hartu behar ditu pertsonen berdintasuna benetakoa izateko, horretarako dauden oztopoak kenduz.

Ikuspegi horretatik begiratuta, zilegi bekigu aipatzea -atentzio dei bezala eta gaiaren hondo-hondoraino sakondu gabe- LOPNeko 73.2 artikuluak agintzen duena errespetatu gabe egin diren enplegu eskaintza publiko batzuk.

Vitoria-Gasteizko Udalbatzarrak 1993ko uztailaren 16ko erabaki batean, Udaltzaingoko agente izateko oposaketa baten deialdiaren barruan, "*maltzurkeriazko delituengatik aurrekari penalik ez edukitzea*" jartzen zuen hautagaientzako baldintzen artean. Eskakizun berbera agertzen zen Euskadiko Polizia Ikastegiko Zuzendariaren 1994ko urriaren Ebazpen batean, Ertzaintzako oinarrizko eskalako agente postuak betetzeko hautaprobaren deialdiaren barruan.

Xedapen horien aurrez-aurre, badira beste antzeko postu eskaintza publiko batzuk, iharduera publikoetarako ezgaituta ez egotea edo diziplinazko espediente bidez Administraziorako zerbitzutik apartatuta ez egotea bakarrik eskatzen dutenak. Deialdi horiek -Bilboko Udalak (BAO, 1988-11-3) eta Donostiako Udalak eginak- erregimen lokalean indarrean dagoen arauketaren ildotik eginak daude, lehenago azaldu dugun bezala.

Polizia lanposturako hautagaien egokitasuna neurtzeko orduan, azterketa hori bana-banan eta sakontasunez egin beharra dago. Horrela, Euskadiko Poliziari buruzko 4/1992 Legeak berak hauxe dio:

> "*44.2 art. Egin beharreko proba-moten eta bete beharreko zereginen edukien arteko egokitasuna zainduko dute aukeraketa-bideek, eta horretarako, sartu ahal izango dira ezagupen orokor edo berarizkoei buruzko ariketak, teorikoak nahiz praktikoak, test psikoteknikoak, ahalmen fisikoei buruzko probak, elkarrizketak, heziketa-ikastaroak, praktika-aldiak, eta zereginak betetzeko ezagumenik eta baldintza psikiko eta fisikorik aproposenak dituzten pertsonen aukeraketa bermatzeko egokia den bestelako edozein sistema.*"

Polizia agenteek eduki behar dituzten ezaugarriak kontrolatzea beharrezkoa bada ere, ezin da inola ere justifikatu aurrekari penalik ez edukitzea bezalako mugapenik, zeren eta baldintza orokorra izanik eta polizi betekizunekin lotura berezirik ez daukanez gero, diskriminagarria gertatzen baita.

4- **Ondorioak**

Pertsonen arteko berdintasun egiazkoa sustatzeko agindua eta zigorrek helburu bezala bergizarterapena edukitzeko printzipioa bateragarri bihurtu ahal izateko, administrazio publikoek behar diren baldintzak bilatu behar dituzte derrigor pertsona baten aurrekari penalek tratu desberdina sortaraz ez dezaten. Horrela,

zigortuak izan diren jokamoldeetan oinarrituz trataera diskriminagarria antzeman zaien ekintza administratiboak bertan behera uzteaz gain, legea hautsi duenarenganako elkartasun eta laguntzazko jokaera bultzatu behar da gizartean, hori baita hiritar horien gizarteratzea lortzeko bide egoki bakarra.

Ikuspuntu horretatik, desiragarria da eskubide batentzako baldintza bezala aurrekari penalik ez izatea jartzen duen edozein arau edo xedapen aldatzea, eta lehendik zigortutako ekintza deliktibo baten aitzakiaz lanpostu baterako sarrera oztopatu nahi duten xedapen guztiak kentzea. Horrela, ekidin egingo litzateke legeak espreski debekatzen duen bazterkeria bat, delitua egindako pertsona gizartearentzat berreskuratzeko guztiz kaltegarria dena.

7.2. HIRITARREK INFORMAZIO PUBLIKORAKO TRAMITEETAN AURKEZTEN DITUZTEN ARRAZOIBIDEEI ERANTZUTEKO ADMINISTRAZIOAK DAUKAN OBLIGAZIOARI BURUZ

Hiritarrek behin baino gehiagotan jo dute Arartekoarengana udalek hirigintza planeamendu gaietan ustez iharduera irregularrak burutzen dituztelako. Sakoneko gaiez aparte, kexa gehienetan beste salaketa hau ere egiten zen: planen hiritarrentzako informazio fasean horiek aurkezten dituzten arrazoibideei Administrazioak ez diela erantzuten.

Antzeko kexak aurkeztu dira sailkatutako iharduera-lizentzien espedienteak tramitatzen direnean biztanleek entzunaldi tramiteetan aurkezten dituzten arrazoibideei dagokienez.

Hasieratik bertatik administrazioaren jokabide kaltegarritzat jotzera ausartzen garen jarrera horrek irain sentimenduak eragiten ditu hiritarrengan, ez baitute ulertzen udalek salbuespen laudagarrietan izan ezik zergatik ez dieten beraien idazkiei erantzuten. Jarrera horiek Administrazioak daukan jokaera harroaren adierazpentzat ere jotzen dituzte, eta beraien ustez Administrazioak dauzkan eskubideek ezin dute justifikatu hiritarrekiko arreta falta hori.

Horregatik, Arartekoaren ustez interesgarria da gai honi buruzko azterketa juridikoa egitea, prozeduraren ikuspegitik arrazoibideak aurkezten dituzten administratuekiko Administrazioaren betebeharrak noraino iristen diren jakiteko.

* * *

Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Amankomunaren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 27ko 30/92 Legeak erakunde publiko guztiek bete beharreko administrazio prozedura amankomuna ezarri du, zeinaren bidez hiritarren eskubideak bermatzeko sistema bat ezartzen baita 1978ko Konstituzioan jasotako agindu eta printzipioen bidetik.

Lege honek, arrazoi adierazpeneko II. atalean dioenez "*Administrazio Publiko guztiei dagokien administrazio prozedura amankomuna arautzen du, eta hiritarrek administrazio iharduerari dagokionez dauzkaten gutxienezko bermeak finkatzen ditu*".

Horregatik, 30/92 Legeak, besteak beste Konstituzioak hiritarren partaidetza errazteko aginte publikoei ezartzen zien agindua zehazten du (EK 9-2. art.). Gainera, legezko xedapen batean Estatu sozial eta zuzenbidezko batean hiritarrek administrazioaren ihardueran parte hartzeko eta eragiten dieten erabakietan alderdi entzunak izan daitezen parte hartzeko dauzkaten bideak ere zehazten ditu (EK 105. art.):

9-2. art.: "*Botere publikoei dagokie (...) hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere*".

105. art.: "*Legeak zera arautuko du:*

a) ***Hiritarren entzunaldia*** *zuzenki edo legeak aitortutako erakunde eta elkarteak,* ***haiei dagozkien administral erabakietako elaborapen prozeduran****.*

b) Artxibu eta Erregistroetara hiritarren sarbidea, Estatuko defentsa eta seguritateari dagokiona, delituen hautematez eta pertsonen barrukotasuna salbuespenduz.

c) Sortu behar den administral ekintzaren ***prozedura****, eta behar denean,* ***interesatuaren entzutea garantizatuz****".*

Konstituzioaren testuak erakusten duenez, legegilea arduratu egin zen hiritarrek eragiten dieten administrazio informazioa eskura dezaten, eta administrazioaren prozeduretan Administrazio publikoaren aurrean beraien eskubideak eta interes pertsonalak defendatzeko beharrezkoak ikusten dituzten idazkiak aurkez ditzaten.

Azpimarratu beharreko beste aspektu bat zera da, Espainiako Konstituzioak 149-1-18. artikuluan iragartzen zuenari erantzuten dio aipatu den testu legal honek, Estatuaren esku geratzen baita "administrazioaren prozedura amankomuna" arautzeko eta ezartzeko ahalmena, Konstituzioaren ustez gai hori administrazio guztiei berdin ezarri behar zaielako. Horregatik, erakunde publiko guztiek errespetatu beharko dituzte 30/92 Legearen aginduak sailen arabera eduki ditzaketen eskumenetan beraien prozedurak arautu eta garatzerakoan.

* * *

30/92 Legeko 42-1. eta 58-1. artikuluen arabera, administrazio prozedura jakin batean interesa daukaten hiritarrek aurkezten dituzten gaiei Administrazioa erantzutera eta administrazio ebazpena ematera beharturik dago:

42-1. art.: "*Administrazioa interesatuek aurkezten dituzten eskari guztiei buruzko ebazpenak ematera beharturik dago...*".

58-1. art.: "*Interesatuei beraien eskubide eta interesei eragiten dieten ebazpenak eta administrazio ekintzak jakinaraziko zaizkie...*".

Hiritarrentzako informazio tramiteei dagokienez, administrazioaren betebehar hori bera interesatuaren baldintza ezarri gabe eta irizpide orokorrekin VI. Ataleko "Administrazio prozedurei buruzko xedapen orokorrei buruz", III. Kapituluko "Prozeduraren instrukzioa" IV. sailean "Interesatuen partaidetza" jasota ere badago. 86-3. artikuluko 2. lerroaldian honela dio: "*Hiritarrentzako*

informazio tramitean parte hartzeak ez du berez interesatu izaera emango. Halere, tramite horretan ***arrazoibideak edo oharrak aurkezten dituztenek Administrazioaren aldetik arrazoitutako erantzuna jasotzeko eskubidea daukate****, eta funtsean gai berdintsuak planteatzen dituzten guztiei erantzun bakar bat eman ahalko zaie*".

Informazio tramite hori hiritarrek espedientea "ikusteko" edo aztertzeko daukaten eskubidean, eta gainera iharduera burutzen ari den administrazioaren aurrean idazkiak aurkezteko eskubidean gauzatzen da. Arrazoibide horietan beraien intereserako gehien komeni den guztia planteatu, edo indarrean dagoen araudia zorrotz bete dadila eskatu edo besterik gabe gai jakin bati buruzko beraien iritzia eman dezakete.

Arrazoibideak onartzen ez direnean horiei ematen zaien erantzun arrazoituaren bidez hiritarrek jakin dezakete zergatik beraien nahiak ez diren bete, eta horrela Administrazioaren akordioen kontrako errekurtsoa aurkez dezakete. Administratuek ez badituzte ezagutzen aginte publikoek beraien proposamenak ez onartzeko eduki dituzten arrazoiak, nekez erantzun ahalko diete argudio horiei, eta horrela beraien interesak defenditzeko eskubidea kaltetu egingo litzateke, defentsarik eza eraginez.

Bestalde, prozedura gaietarako oinarrizko araua 30/92 Legea denez gero, administrazioren batek prozedura jakin bati buruz edozein arauketa ezartzen duela ere, horrek beti errespetatu behar ditu aipatu legeak jasotzen eta Konstituzioak bermatzen dituen hiritarren eskubideak. Beste era batera adierazita, sailkako legediak ezartzen duen prozedura batek ere ezin ditu hiritarrei aitortutako eskubideak murriztu, hori alor horretarako oinarrizko legean ezarritakoa inplizituki salbuestea litzatekeelako, eta hori, begibistakoa den bezala, antolamendu juridikoaren printzipioen kontra joatea litzateke.

Alabaina, sailkako araudi ia guztia 30/92 Legea argitaratu baino lehen onartuta dago eta, beraz, lege horietako prozedura mailako aspektuek beti ez dituzte jasotzen administrazio prozedurarako oinarrizko legeak hiritarrei aitortzen dizkieten berme guztiak. Are gehiago, 1992. urtea geroztik onartutako lege batzuk dagokien sailari buruzko akordio onarketarako prozedura bereziak arautzerakoan Administrazioaren oinarrizko betebehar batzuk ahaztu eta guzti egiten dituzte.

* * *

Hirigintza alorrean, eta zehazki planeamenduak onartzerako prozesuetan zer gertatzen den aztertzea interesgarria da.

Hirigintza-dokumentuek hasierako onarketaren ondoren jarraitu behar duten hiritarrentzako informazio tramiteak arautzen dituen araudia agindu hauetan oinarritzen da: Lurraren Legeari buruzko Testu Bateratuko 114. artikulutik 117.era bitartekoak; Planeamenduari buruzko Araudiko 128. art.; Eusko Legebiltzarraren etxebizitzaren arloko presakako neurriak eta hirigintza plangintzako zein kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazteari buruzko ekainaren 30eko 17/1994 Legeko 16. art.; eta baita lurraren eta bazkunde profesionalen neurri liberalizatzaileei buruzko ekainaren 7ko 5/1996 Erret Dekretu Legeko 3-1. art.

Agindu horietan esaten denez "*dagozkien arrazoibide*ak ondorioztatu ahalko dira" eta "*informazio publikoaren emaitzen arabera*" behin-behingoz onartzea erabakiko da beharrezko zuzenketak sartu ondoren. Artikulu bakar batean ere ez da esaten ordea iharduera burutzen duen udal edo administrazioak hiritarrek edo kolektiboek aurkeztutako arrazoibideei erantzun beharko dienik.

Honi dagokionez, hiritarrentzako informazio tramiteak aztertzerakoan Auzitegi Gorenaren dotrinak orain arte bi prozedura edo bide bereizten zituen: interesatuei pertsonalki jakinarazpena egitea eskatzen duten prozedurak, beraz arrazoibideak aurkezten dituztenei interesatu izaera aitortuaz; eta hiritarrentzako informazioa izaera orokorragoarekin eta era guztietako kontsultetarako aukera planteatzen duten kasuak, eta kasu honetan ez zaie alegatzaileei, prozeduran interesa daukaten izaerarik aitortzen.

Lehenengo kasuan sartzen dira iniziatiba partikularra daukaten plan partzialen onarketak (Planeamendu Araudiko 140.3. artikulua), edo detailezko azterketak (Planeamendu Araudiko 140-3. art.) edo birzatikatze proiektuak (Hirigintza Kudeaketarako Araudiko 108-1. art.) edo konpentsaziozkoak (Hirigintza Kudeaketarako Araudiko 174-1. art.), horietan hiritarrentzako informazio tramiteek eta interesatuei eman beharreko jakinarazpen pertsonalek daukaten helburua hau delarik: "*planeamendu tresna horien onarketa prozeduretan interesatuen partaidetza artikulatzea, beraz administrazioaren prozedura orokorrean entzunaldi tramiteari dagokion funtzioa beteaz*" (Auzitegi Gorena, 1988ko abenduak 20, Ar. 10.170).

Bigarren kasuan, jakinarazpen pertsonala beharrezkoa ez denean planeamendu orokorra eta garapen planeamendua onartzeko prozedurak sartzen dira, eta kasu horiei buruz Auzitegi Gorenak hau dio: "*...publikoarentzako informazio tramitea, bere izaeragatik ezin da nahastu interesatuen entzunaldiarekin, prozedimentu berezi batzuetan ordezkatu dezakeen arren; baina biztanlego osoari eta interes zehatz ugari eta zenbaezinei eragiten dieten Planen burutze eta onartze prozedura jakinetan, garbi dago bere helburua ez dela interes berezi bat bermatzea, baizik Administrazioari datu gehiago eta hobeak eskaintzea arrazoibide eta iradokizun guztietara irekitako aurretiazko kontsulta baten bidez erabaki zuzen eta objetiboagoa hartzen lagunduko dutelarik*" (Auzitegi Gorena, 1984ko azaroak 24 Ar. 6.193).

Baina 30/92 legea onartu zenetik eta bere 86-3. artikuluko 2. lerroaldian esaten denaren arabera, berdin dio espedienteari buruz arrazoibideak aurkezten dituena interesatua izan edo ez, Administrazioak kasu guztietan erantzun behar dielako hark aurkeztutako arrazoibideei. Hemendik aurrera ulertu behar da hirigintzari buruzko araudiak esaten ez badu ere, planeamendu edo hirigintza gestiorako tresnen hiritarrentzako informazioari arrazoibideak aurkezten dizkieten administratu indibidual edo kolektiboen **arrazoibide kasu guztiei erantzun behar dietela administrazio eskudunek**, eta horiek normalean udalak izaten dira, arrazoibideak onartu edo atzera bota diren eta hori osorik edo partzialki egin den adieraziaz.

Testuinguru juridiko honetan desiragarria litzateke baita ere Administrazioak arrazoibide-aurkezle guztiei hirigintza planeamenduko tresnen behin betiko

onarketa akordioak ere jakinaraztea espedientean parte interesatua izan direlako, eta kasu bakoitzean aurkez daitezkeen errekurtso administratibo edo jurisdikzionalak jartzeko aukera ematea.

Beste horrenbeste esan behar da gainerantzeko sailen legediari buruz, eta guztiak jasotzeko asmorik gabe ondokoak aipa daitezke: iharduera sailkatuen lizentziak emateko prozeduretan Iharduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiko 30-2.a) artikuluaren babesean aurkezten diren arrazoibideak; Ingurugiro Eraginaren Ebaluaketari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintza Erret Dekretuko 3-1. artikuluan iragarritako hiritarrentzako informazio tramiteetan aurkeztutako arrazoibideak; eta Euskal Herriko Naturaren Zainketarako ekainaren 30eko Eusko Legebiltzarraren 16/1994 legeak 7 d) artikuluan ezartzen duenaren bidetik naturako baliabideen antolamendu-planen onarketarako hiritarrentzako informazio prozesuari ere eragingo lioke.

Administrazio prozedura orokorrean jasotzen den printzipioa beste sail askoren arauei ere ezarri ahalko litzaieke: alegia Administrazioak nahitaez erantzun behar die hiritarrek edozein informazio publikorako tramitetan aurkeztutako arrazoibideei.

* * *

Azaldu dugunaren **ONDORIO** gisa hau gomendatzen da: udalek edo iharduerak burutzen dituen beste edozein administraziok hirigintza planeamenduen onarketa prozedurek jarraitu behar duten hiritarrentzako informazio epean horiek aurkezten dituzten arrazoibide bakoitzari eta guztiei arrazoituta erantzun behar diete, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Amankomunaren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 27ko 30/92 Legeak 86-3. artikuluko 2. lerroaldian hori agintzen duelako. Erantzun horretan arrazoibidea onartu edo atzera bota den, hori osorik edo zati batean egin den, eta hala izanez gero atzera zergatik bota den adierazi behar da.

Betebehar bera aldarrikatu behar da sailei buruzko beste edozein arauk hiritarrentzako informazio tramite edo entzunaldia ezartzen dutenean, espedientea tramitatzeko ahalmena daukan administrazioa edozein delarik ere.

Azkenik, komeni da Administrazioak hiritarrentzako informazioan zehar arrazoibideren bat aurkeztu duten guztiei espedientearen behin betiko onarketaren berri jakinaraztea.

7.3. FAMILIA UGARIEI BURUZKO EUSKAL LEGE BAT ONARTZEKO BEHARRA

I- Sarrera

Espainian familia babesteko politikak aurreko erregimen politikako zenbait balorerekin erlazionatu izan dira tradizionalki, baina horiek, adibidez emakumea etxeari lotuta egotea edo familia garatzeko bide bakar bezala ezkontza handiestea

gaindituz joan dira, askatasun falta konpentsatzeko nolabaiteko gurasokeriatzat jo direlarik.

Egia esan, familia babeserako programen geraldia askoz nabariagoa izan da azken urte hauetan zenbait gertakizun sozial eta ekonomikok izan dute bilakaeragatik: langabeziaren maila handiak, lan merkatuaren egonkortasunik eza edo Gizarte Segurantzako sistema tradizionalen krisia.

Zertzelada hauek eta garrantzi gutxiago ez daukaten beste batzuek kuantifikatzen zaila den islada eduki dute gure inguruaren bilakaera demografikoan, baina ikusten da poliki-poliki biztanlegoa zahartzera doala eta familia guneen tamaina txikiagotzen ari dela.

1975-1995 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoaren hazkuntza begetatiboa 24.947tik -2.182era pasatu da (EUSTAT, 1995).

Hau da, 1995ean, migrazio mugimenduak kontuan hartu gabe, EAEko biztanleria gutxitu egin da seigarren urtean jarraian hildakoak jaio direnak baino gehiago izan direlako, ordezkatze mailaren azpitik jarriaz.

Datu horrek, berez kezkagarria izan behar ez duen arren, dakarren ondorioa biztanleria aktiboaren eta haien menpeko biztanleriaren (gazteak eta adin handikoak) harreman gehikuntza da, pertsona aktibo kopuru nahiko murritz batek belaunaldi gazteenei eta zaharrenei eutsi behar dielarik.

Edonola, hori ikusita ez da pentsatu behar aginte publikoek familia babesteko alorrean burutu behar duen iharduera helburu demografikoak lortzera bideratu behar denik, baizik aspektu ekonomiko nahiz sozialean umeak izateak dakartzan ondorio txarretako batzuk: etxebizitza lortzea, eguneroko gastu handiagoak, lanbide ardurekin bateragarritasuna, emakumea lan merkatuan sartzea, etabar arintzeko ikuspegiarekin lana egin behar dute.

Azken batean, familiek zenbat ume eduki nahi dituzten libreki aukeratzeko bidea sustatu beharko litzateke.

Ikuspegi horretatik, familiei orohar eta ugariei bereziki murriztapenak eta exentzioak ezartzeko politikak ideia nagusi hau dauka: gastuak gertatzen diren unean gizarte zamak arintzea, horrela familiek daukaten errenta igo eta seme-alabak eduki eta hezitzetik eratorritako ongizate diferentzialak murrizteko, batez ere egonkortasun edo hazkuntza demografikoan laguntzen duten familien kasuan (bi edo seme-alaba gehiago). Gai honi buruz egin diren azterketek diotenez, umerik ez daukan familian lehen umea jaio ondoren *per capita* errenta %62ra jaisten da, %48ra bigarrenarekin eta %40ra hirugarren umea jaiotzearekin.

Gastua sortzen den unean hori konpentsatzeko eredu honen parean dauden beste neurri batzuek, zerga pertsonaletan eta batez ere PFEZn dauden zergagabetzeek eta kenketek muga teknikoekin topo egiten dute, horiek erretarik txikiena daukatenei eragiten dietelarik.

Adibidez, PFEZren kuotan seme-alaben arabera ezartzen diren kenketak, gaixotasun gastuekin edo aurrekoen eta elbarrien kenketekin gertatzen den bezala, ezin dira aplikatu horren sujetu pasiboak aitorpena egiteko eskatzen den gutxienezko errentara iristen ez direnean, edo egindako erretentzioak egin ahalko lituzketen kenketen batuketa baino txikiagoak direnean.

Bi hitzetan esanda, seme-alabak eduki eta urtean milioi bat pezeta gordineko irabaziak dauzkan langabetu bati bost axola dio PFEZen araudiak seme-alaba bakoitzagatik 20.000 pezetako kenketak iragartzea, baldin eta egindako erretentzioa zero edo haien batuketa baino txikiagoa izan bada.

Aldiz, aginte publikoek sailen sustapenerako dauzkaten bekak edo laguntzak bezalako politiken galerarik gabe, familiek berehalako onura bat jasotzen dute, adibidez unibertsitate ikasketetarako matrikuletan edo garraio publikoetako txarteletan portzentaia jakin bateko hobariak ezar dakizkiekeenean.

II- **Familia ugariekiko babesa indarrean dagoen legedian**

Familia eta bereziki familia ugaria babestera bideratutako neurrien nondik norakoa orokorki deskribatu ondoren, gaur egun eta alor honetan aginte publikoek daukaten iharduera eremua azalduko dugu.

Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalak 3. puntuan dioenez, familia da gizartearen elementu naturala eta funtsezkoa, eta gizarteak eta Estatuak babestua izateko eskubidea dauka.

Bestetik, 1966ko abenduko **Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak** ere 23. artikuluan gizarteko elementu naturala eta funtsezkoa familia dela eta gizarteak eta Estatuak babestua izateko eskubidea daukala esaten du.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an erabaki eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsi zuen **Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenak** aitortzen duenez, haurrak, bere nortasuna osorik garatzeko familia batean hazi behar du, eta familia da gizartearen funtsezko multzoa eta bere kideen, bereziki umeen hazkuntza eta ongizaterako bitarteko naturala; horregatik Estatu kideek gurasoen, tutoreen edo beste pertsona arduradunen eskubideak eta betebeharrak errespetatu egin behar dituzte, horiei dagokielako bereziki haurrari garapenerako behar dituen bizi baldintzak eskura jartzea.

Espainiak 1980an berretsi zuen **Europako Gutun Sozialak**, familiaren babesa bermatzen du artikulu multzo baten bidez; horien artetik garrantzitsuena 16. artikulua da eta hau dio: "*Gizartearen funtsezko zelula den familiaren garapen osorako beharrezkoak diren bizi baldintzak lortzeko, herri sinatzaileak familiaren babes ekonomikoa, juridikoa eta soziala sustatzera konprometitzen dira...*".

Europako Batasunak hartutako erabakien artean, familiaren Nazioarteko Urtearen amaieran familien eta familia unitateen Babesari buruzko Europako Parlamentuaren ebazpena aipatu behar da (1995eko urtarrilaren 23ko 12C18).

Estatuko antolamendu juridikoan ere, Konstituzioak 9.2 artikuluan hau adierazten du:

> "*Botere publikoei dagokie baldintzak bultzatzea pertsonaren edo horiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen, bai eta eskubide horien gauzapena zailtzen dituzten oztopoak kentzea eta hiritarren politika, ekonomia, kultura eta gizarte mailako partaidetza erraztea ere*".

Aitorpen honekin batera, Konstituzioaren aintzin tituluan sartzen den aitorpena delako antolamendu juridiko osoa eratzen duena, politika sozial eta ekonomikoaren gida-printzipioei buruzko I. tituluko hirugarren atalean, 39. artikuluak honela dio:

"*Botere publikoek familiaren babespen sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dute*".

Aldi berean, Euskal Autonomi Estatutuak ere aginte publikoen gain uzten du hiritar guztiei Euskal Herriko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzea errazteko agindua (9. art.).

Familiari eskaini beharreko atentzioa, oro har gizarte laguntzan, gizarte ongizatean eta gai hau arautzen duten maila ezberdinetako beste agindu guztietan erabiltzen diren baliokideen barruan kokatu behar da.

Espainiako Konstituzioak aipatzen duen "gizarte laguntza" kontzeptua, Konstituzio Auzitegiak berak esan duenez (76/1986 epaia) ez dago Funtsezko Arauaren testu barruan jasoa, eta beraz, nazio eta nazioarte mailako praktikaren bidez burutu eta kontsagratutako kontzeptuetara jo behar da, alegia hori interpretatzeko indarrean dagoen legeditik atera daitezkeen irizpide materialetara jo beharra dago. Horregatik, Auzitegiak indarrean dagoen legedia hartu eta hau dio: "*badago Gizarte Segurantzatik kanpoko laguntza, alegia hor sartzen ez den gizarte laguntza, eta ulertu behar da Espainiako Konstituzioak 148.1.20 artikuluan horri buruzko erreferentzia egiten duela, eta beraz Autonomia Erkidegoen eskuduntza posiblea litzateke*", eta bide hori gizarte laguntza horren hartzaile edo erabiltzaileek inolako betebeharrik gabe finantziatzen da.

Aldi berean, Auzitegiaren iritziz Konstituzioaren, autonomi estatutuen eta eskualdaketa dekretuen azterketatik begiratuz, eskuduntza banaketarako aurrikusten den gizarte laguntza nozioak erakunde pribatuek emanikoa ere hartzen du, aginte publikoek sustapen edo kontrol funtzioak bakarrik burutzen dituztenean (azaroaren 25eko 146/1986 epaia).

Konstituzioaren 148.1.20 artikuluaren arabera, autonomia erkidegoek "gizarte laguntza" gaiei buruzko eskuduntzak beren gain hartu dituzte.

Horrela, Estatuaren administrazio orokorretik familien babeserako garatzen diren politikak, administrazio horri geratzen zaizkion eskuduntzen arabera garatzen dira, hau da: Gizarte Segurantzako oinarrizko legediaren eta izaera orokorreko arau fiskalen bidez, eta Konstituzioak 149.3 artikuluan jasotzen duen zuzenbide estatalaren ordezko klausularen bidez burutzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, eskuduntza hori Autonomi Estatutuko 12.12 artikuluaren eta irailaren 26ko 2768/80 Erret Dekretuaren bidez lortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren esku geratu zirelarik Estatuak Osasun, Zerbitzu eta Gizarte Laguntza alorrean ordurarte zeuzkan betekizunak.

Bertan, Kataluniako Generalitateari zerbitzu berak pasatzeko onartu zen Erret Dekretuan gertatu zen bezala, familia ugarien gaia espreski adierazten ez den arren, ondoren, gainerantzeko autonomia erkidegoei zegozkien autonomi estatutuak onartu ondoren, horiei zegozkien erret dekretuek bai aipatu zuten zehazki familia ugarien gaia (2411/82 ED Galiziaren kasuan; 2607/82

Kantabriarenean; 1975/84 Gaztela-La Mancharenean, etabar.), ondoko formularen bidez:

> "***Familia ugariei dagokienez, (...)ko Autonomia Erkidegoari dagokio horien izaera aitortzea, tituluak luzatzea eta horiek berritzea estatuko eredua jarraituaz, eta baita indarrean dagoen legediak finkatutako modu eta kantitateekin zigorrak ezartzea ere***".

Familia ugarien gaiari buruzko aipamen zehatz hori ez dagoen arren, Lurralde Historikoei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen bidetik EAEko erakunde amankomunek lurralde historikoetako foru erakundeei pasatu zizkien gizarte laguntzarako zerbitzuak, eta oraingoan bai aipatzen zen "**familia ugari tituluak luzatzea**".

Orain arte esan dugun bezala, EAEk gizarte ongizatean eskuduntza osoak badauzka, eta nozio hori norainokoa den legetik bertatik atera behar badugu irizpide materialetan oinarrituaz, oraindik diogu Eusko Legebiltzarrak familien babeserako, eta zehazkiago familia ugariei buruzko lege propio bat onar dezakeela.

III- Familia ugariei buruzko euskal lege baten justifikazioa

Ezer baino lehen esan behar da gomendio honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan familia ugariei buruzko lege propio bat onartzeko dagoen aukera planteatu besterik ez dela egin nahi, ondoren azalduko diren arrazoiengatik, erakunde honen ustez aginte publikoek berehala heldu behar diotelako gai zehatz honi. Honek ez du esan nahi eskuduntzak dauzkaten erakundeek babes esparru honetan planteatzen diren arazorik larrienei erantzuteko agindu berezi bat onartzeko aukera egin ezin dutenik, edo baita ere aipatu ez baina aurrekoa bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak diren beste gai batzuk ere jasoko lituzkeen beste marko zabalago batean beraien iharduera arautu ezin dutenik, adibidez Kataluniako Generalitateak azken bide hau erabili zuen Gizarte Ongizate Sailak 1992ko ekainaren 10ean Familiaren Sustapenerako Plan Integralerako Ebazpena onartu zuenean.

Edonola, eta esan den bezala, gaur egun familia ugariei buruz dagoen arauketan aipatu beharreko disfuntzioak ikusi dira.

A) Familia ugariekiko babesa arautzen duten aginduak zaharkituta eta sakabanatuta daude

Mila bederatziehun eta berrogeita hiruko abenduaren 13ko legea ordezkatu zuen familia ugariei buruzko ekainaren 19ko 25/1971 Legea da gai honetan dagoen erreferentzia nagusia. Bertan esaten da zer ulertzen den familia ugariaz, zein diren izaera horri dagozkion onurak eta erakunde publiko nahiz pribatuei horiek ez betetzeagatik zein zigor dagozkien.

Lege hori abenduaren 23ko 3.140/1971 Dekretuaren bidez garatu zen, zeinak bere Araudia onartzen baitu eta funtsezko aspektuei dagokienez 1987ko

Estatuko Aurrekontu Nagusien Legearen eta berrikiago neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 30eko 42/1994 Legearen bidez aldatu baitzen, azken honek familia ugari kontzeptua hiru seme-alaba edo gehiagoz osaturiko familiara zabaldu zuelarik; azken arauketa hau azaroaren 3ko 1801/95 Erret Dekretuaren bidez garatu zen.

Familia ugariekiko babesari dagozkion beste aspektu zehatzak jasotzen dituzten beste agindu batzuk ondokoak dira: uztailaren 10eko 1860/75 Dekretua, lege sozialak hausteagatik zigorrak ezartzeko prozedura onartzen duena; Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 1972ko maiatzaren 26ko Agindua, Estatuko erakundeek argitaratutako liburuak eskuratzeko onurei buruzkoa; Garraioei buruzko 16/1987 Legea eta hori garatzen duen Araudia, garraioetako tarifa murrizketei dagokiona; etabar.

EAEari dagokionez, aipatzekoa da tratu ezberdina ematen zaiela familia ugariei unibertsitateko ikasketetan eta unibertsitatez kanpokoetan, edo EUSKOTRENek ematen dituen abantailetan familia ugarientzat aurreikusita dauden onuretan.

Maila ezberdineko arau horiek kritikoki aztertzen baditugu, lehenik sakabanatuta daudela eta elkarren artean loturarik gabeak direla ikusten dugu, eta bigarrenik, Konstituzioak eta autonomi estatutuek diseinatutako eskuduntza banaketara egokitu gabe daudela, horiek onartu aurrekoen kasuan, eta batzuetan, zigorrekin gertatzen den bezala, Konstituzioak jasotzen dituen printzipioen kontra ere joan daitezke.

B) **Egungo gizarte errealitatearekiko egokitasunik eza**

Euskal Autonomia Erkidegoak daukan eskuduntza maila kontuan izanik, familia ugariekiko babesa erregulatuko duen araudia sistematizatzeko lanak, gaur egun familia horiei estatu mailan ematen zaien tratamendua hobetzeko premia planteatzera ere bagaramatza.

Gure erkidegoak maila sozioekonomikoan dauzkan zenbait berezitasun justifikatu beharrik gabe, familia ugariekiko babesa lurralde amankomunean indarrean dagoena baino zabalagoa izan daiteke.

Izan ere, neurri fiskal administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 30eko 42/1994 Legeak laugarren xedapen gehigarrian sartutako aldaketa, alegia familia ugari izaera hiru seme-alaba edo gehiago zeuzkatenetara zabaltzea erabaki zuena, esan daiteke motz geratu zela 25/1971 Legeak beste kasu baliokide batzuei ematen zien tratamendua kontuan hartzen badugu.

Zehazkiago esateko, 25/1971 Legeak, familia ugaritzat lau seme-alaba edo gehiagoz osatutakoa jotzearekin batera, hiru seme-alabaz bakarrik osturikoak ere hartzen zituen horietako bat elbarria zen kasuan, edo gurasoetako bat hilda, banatuta edo dibortziatuta zegoen kasuan.

Arrazoizkoa zirudien 42/1994 Legearen bidez neurria hiru-seme-alabaz osaturiko familiei hedatzean, zertzelada kualifikatu horietakoren bat zegoenean bik bakarrik osatutakoei ere ezarri izana.

Baina ez zen horrela gertatu, eta esan daiteke kasu horiek irentsi egin zirela, analogiaz bi seme-alabaz osaturikoei eman ahal zitzaien tratamenduan ez zuela eduki zegokion islada, baina bestetik ezin da inolako zalantzarik gabe esan beste politika sektorial batzuen bidez kolektibo horiei ematen zaien tratamenduan egondako hobekuntza dela medio alor horretatik ematen den babesean sartzeko beharrik eza justifikatzen dutenik.

Gai honek 1996an Arartekoari kexak aurkeztea ekarri du, eta horrek erakusten digu badagoela sentiberatasun bat gaurkoz behintzat ase gabe jarraitzen duena.

EAEko erakundeek, bidezkoa iruditzen bazaie, eta Estatuko legegileak familia ugarientzat ezarritako babes muga hori zabaltzea eskatzen duten eskari hau eta beste batzuk asetsea erabakiko balute, horretarako daukaten gaitasunari dagokionez berriro lehen esandakoa gogoratu behar diegu, alegia Autonomi Estatutuaren 12.12. artikuluaren bidez EAEk gizarte laguntza gaietan eskuduntza osoak dauzkala, eta erakunde honen ustez hori horrela izanik Estatu mailako legedia autonomia erkidegoek onartutakoaren osagarria dela esan daiteke.

Estatuak maila honetan titulu propiorik aldarrikatzen ez duenez gero, Konstituzio Auzitegiak berak interpretazio hau eman du:

> "*Eskubideen baliapenean eragina daukan arren, arau legalak baliapen horren oinarrizko baldintzei eragiten ez dienean Autonomia Erkidegoek aldarrika dezakete arau hori, baldin eta horien Estatutuek maila batean edo bestean Konstituzioaren bidez bermatutako eskubideez baliatzeko araudiak derrigor berekin dakarren arauketa ahalmenak ematen badizkiete (...)*
> *Printzipio horien artetik lehena espainiar guztiek lurralde nazionaleko edozein lekutan egonda ere daukaten eskubide eta betebehar berdintasuna da. Baina garbi dago printzipio hori ezin dela ulertu inondik ere Antolamenduaren berdintasun zorrotz eta monolitiko bat bezala, hau da, zertzelada berdinetan eta lurralde nazionaleko edozein lekutan eskubide eta betebehar berberak dauzkatela hiritarrek*" (37/1981 AKE; JC 2, 293).

Izan ere, Konstituzioaren 149.1.1. artikuluaren arabera Estatuak ulertuko balu ere gai honek espainiar guztiek dauzkaten eskubideekiko tratu berdintasuna bermatzeko oinarrizko baldintzari eragiten diola, eta ondorioz familia ugariei buruzko baldintzak ezartzeko ahalmena beretzat gordeko balu ere, hori "*ezin da ulertu Konstituzioak bermatutako eskubide eta betebeharrei zuzenean edo zeharka eragiten dieten eta Autonomia Erkidegoek dauzkaten lege eskuduntza ugarien edukia hustu dezakeen moduan*" (KAE 37/1987).

C) **Zigorrak ezartzeko erakunde eskuduna eta zigorren mailaketa**

Indarrean dagoen familia ugariei buruzko ekainaren 19ko 25/1971 Legeak eta 1971ko abenduaren 23ko Dekretu bidez onartutako Legearen Araudiak fa-

milia horientzako salbuespen eta murriztapen batzuk ezartzen ditu hezkuntza, etxebizitza, garraio etabarri dagokionez, eta zerbitzu horiek ematen dituzten erakunde pribatu nahiz publikoek nahitaez bete behar dituzte.

Horrela, aipatu legeko 25. artikuluak honela dio:

"*Lan Ministerioak zigortu egingo ditu lege honen eta bere ezarpenerako eta garapenerako aginduen bidez finkatutako onurak eman nahi ez dituzten enpresa eta erakunde pribatuak mila eta ehun mila pezeta arteko isunekin*".

Uztailaren 10eko 1.860/75 Dekretuak bere aldetik gizarte legeak hausteagatik zigorrak ezartzeko administrazio prozedura ezartzen du, eta 2. artikuluaren arabera, zigor prozedura horren menpe geratzen dira besteak beste familia ugari onuradunak, "***eta baita beste pertsona fisiko edo juridikoak ere, publikoak nahiz pribatuak izan***, *egiten dituzten ekintzengatik edo betetzen ez dituzten aginduengatik, Lan Ministerioak ikuskatu behar dituen xedapenek ezartzen dutenari dagokionez*".

Estatu autonomikoa indarrean sartu eta autonomia erkidegoek beraien estatutuen bidez ordurarte Estatuak zeuzkan eskuduntzen ardura hartu ondoren, eskuduntza horiei zegozkien zerbitzuak eta erakundeak eskuz aldatzeari ekin zitzaion, eta gizarte laguntzari dagokionez Euskal Herrian irailaren 26ko 2.678/1980 Erret Dekretuaren bidez gauzatu zen esku aldaketa hori.

Lehen esan bezala, erret dekretu horretan, eskuduntzak beste autonomia erkidego batzuetara pasatzea onartzen zuten beste batzuetan ez bezala, ez dira aipatzen zehazki familia ugari tituluak eta gaiari buruzko legedia hausteagatik ezar daitezkeen zigorrei buruzko eskuduntzak.

Edonola, Eusko Jaurlaritzak Autonomia Erkidegoko erakunde amankomunen gizarte laguntzarako zerbitzuak lurralde historikoen esku jartzeko onartu zituen dekretuetan bai aipatzen da zehazki familia ugari tituluak luzatzeko ahalmena.

Mila bederatziehun eta laurogeita hamaseian ikastetxe batzuek onura horiek aitortzeari uko egin diotelako bideratu diren zenbait kexaren bidetik, erakunde honek, gaiari buruzko beste erreferentzia zehatzik ez zegoela ikusirik eta familia ugari izaera aitortzeko ardura daukan erakundeak berak lege hausteengatik zigorrak ezartzeko ahalmena edukitzea arrazoizkoa zela iritzita -beste autonomia erkidego batzuetan horrela gertatzen baita-, eragindako ikastetxeei zegokien lurraldearen arabera lurralde horietako foru aldundietako gizarte ongizate sailei igorri zizkien kexak, beharrezko neurriak har zitzatela eskatuaz.

Foru aldundiek, ordea, Eusko Jaurlaritzako erakunde eskudunaren iritziaren kontra zigorrik jartzeko gaitasunik ez daukatela adierazi dute, lehen aipatu diren xedapenetan ahalmen hori espreski ez dela aipatzen iritzi dutelako.

Zigor prozedura, eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen edozein xedapenetan bildutako aginduen bermerako bitarteko garrantzitsua da, noski, eta azken finean aginte publikoek beraiek emandako aginduak betearazteko eskura daukaten tresna da.

Beste era batera esanda, gai hauei buruz diseina daitezkeen araurik handinahienak ere ezerezean geratuko dira, aldi berean arauek aitortzen dituzten

eskubideak gauzatzera behartuta dauden agenteen ezezko erreakziorako tresnak ezartzen ez badira.

Hori da hain zuzen gaur egun EAEn gertatzen ari dena, esan dugun bezala foru aldundiek ez baitute beraien gain hartu nahi 25/71 Legean jasotako xedapenak ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko gaitasuna, eta horren ondorioz, onura jaso beharko luketenek hezkuntza eta garraioa bezalako alorretan dagozkien hobariak jasotzea galerazten dute.

Bestalde, 25/71 Legean ezarrita dauden zigorren zenbatekoa eta mailaketa eguneratu egin behar dira Konstituzioaren araberako antolamenduarekin adosteko.

Arartekoaren iritziz, hori da Euskal Autonomia Erkidegoan familia ugarien babeserako dagoen egungo sistema berehala aldatzeko premia erakusten duen beste funtsezko arrazoi bat.

Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean eskuduntzei buruz sortu den desadostasun arazo hori, baldin eta lehenago akordio batera iristen ez badira, osatu berri den Ebazpen Batzordeari jakinarazi beharko litzaioke atzerapenik gabe, batzorde hori arautzen duen ekainaren 30eko 13/1994 Legearen 63. artikuluari jarraituz, auzitan dauden betekizunak gauzatzeko errekerimendua aldez aurretik eginaz.

IV- **Ondorioak**

- Indarrean dagoen antolamendu juridikoak aginte publikoei ezartzen die familiaren babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa bermatzeko betekizuna.
- Azken bi hamarkadetan gertatu diren aldaketa sozioekonomikoek agerian jarri dute aurreko politikaldian diseinatu ziren familien babeserako politiken geraldia, eta horregatik horiek eguneratzeko ahaleginak egin behar dira.
- Familia ugarientzako murriztapen eta salbuespen politiken bidez gastuak sortzen diren unean zama sozialak arindu nahi dira, erabil daitekeen errenta horrela gehitu eta umeak eduki eta hezitzearen ondorioz sortzen diren ongizate aldeak murrizteko.
- Familiei oro har eta familia ugariei bereziki eman beharreko babesa, Gizarte Segurantzaren bitartez bideratzen denaz gain gizarte laguntzaren esparruan kokatu behar da, eta beraz, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoak dauzka alor horretan (Estatutuaren 12.12 art.).
- Familia ugarien babeserako indarrean dagoen legediak, sakabanatua egoteaz gain, Konstituzioaren aurreko xedapenak dauzka, eta beraz, ez du ezagutzen haren bidetik egindako eskumen antolamendu berria, eta zenbait kasutan, zigorren ezarpenari dagokionean adibidez, bere printzipioen kontra joan daiteke.
- 25/71 Legeak familia ugariei ematen dien tratamendua EAEko lege propio baten bidez hobetu daiteke eta hobetu behar da, neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko 42/1994ko Legearen bidez aldaketa egin baino lehenago aitortzen ziren beste kasu baliokideekiko babesera hedatuaz.

- Familia ugarien babeserako aspektu garrantzitsuen arauketari dagokionez, guztiz garrantzitsua da EAEren esparruan familia horiei aitortutako onurak errespetatu nahi ez dituztenei zigorrak ezartzeko ahalmena edukiko duen erakundea nor izango den zehaztea, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean sortu den eskuduntza-auzi negatiboa ikusirik.
- Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak aldundiei eskuduntza horiek berain gain har ditzatela errekeritu ondoren, Ebazpen Batzordearen eskuetan jar dezala gaia behin betikoz argitu dadin.

Azaldu den guztiagatik, Arartekoaren ustez Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunek hemen aipatu diren gaiei erantzungo dien arau bat onartu beharko lukete, antolamendu juridikoak era horretara hiritarren eta horiek osa ditzaketen familia ugarien eskubideak defendatzeko tresna bat gehiago edukitzeko bidea eginaz.

7.4. HAUR-HEZKUNTZA ETA FAMILI ETA LANBIDE ARDUREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA

Sarrera

Haur-hezkuntzari buruzko kexen tramitazioen bidetik erakunde honek bidezkoa ikusi du eskolatze goiztarreko adinean dauden haurrekiko konpromezu argia eskatzen duten gizarte premia berriei buruzko gogoetarako dei bat egitea.

Arartekoari planteatu zaizkion kexa gehienek, arian-arian bi urteko haurrentzat irekitzen ari diren eskola-gelen bidetik sortu diren aspektu oso zehatzak planteatu dituzte. Beste kasu batzuetan, ordea, erakunde honen bitartekaritza eskatu da hezkuntza-etapa honetako, alegia 0-3 urte arteko haurrentzako lehen zikloa etorkizunean indarrean sartzen denerako erreferentzia argirik ez dagoelako. Horren bidetik arazo handiak ikusi dira, besteak beste ondorengoak: hezkuntza-maila honen programazio orokorra, dauden giza baliabideak eta materialak arian-arian irakaskuntza berrietara egokitzen joan beharra, hezkuntza-aro berri hau finantziatzeko aukerak, etabar.

Lehen hurbilketa batean pentsa daiteke adin txikiko haurrekiko atentzioa eskola ikuspegi hutsetik planteatu behar dela. Noski, gai batzuk ikuspegi horretatik bakarrik planteatu ahalko dira. Baina, gaurko gure gizartean haurrei eskaini beharreko atentzioaren premia berriak direla medio, kexa horiek planteatzen dituzten hainbat gai ikuspegi askoz globalago batetik aztertu beharra dagoela erakusten dute: horiek famili eta lanbide ardurak bateragarri bihurtzeko beharrarekin lotuta daude, eta honek ikasleen eskolatzeak behar dituen beste neurri osagarri batzuk kontuan hartzera garamatza.

Horregatik, famili eta lanbide betekizunen bateragarritasuna lortzeko premia horren bidetik planteatu diren iniziatiba esberdinez arduratuko gara jarraian, abiapuntuko baldintza hau finkatu ondoren, eskolatze goiztarreko adinean dauden haurrei eman beharreko atentzioari buruzko eztabaida zuzen kokatzeko.

1. FAMILI ETA LANBIDE ARDURAK BATERAGARRI EGITEKO BEHARRA

1.1. Testuinguru soziolaborala

Azken urteotan aldaketa handiak gertatu dira gure gizartearen antolaketan eta egituran. Aipatzekoak dira esparru ekonomikoan eta bilakaera demografikoan egon diren eraldaketak, eta familien estruktura eta bizitza moduetan egon diren aldaketak.

Enplegua 25 eta 49 urte arteko biztanlegoan kontzentratu da, hain zuzen familia erantzukizun handienak dauden biztanlegoko multzoan.

Biztanlegoko sektore horren enplegu tasa oso handia da gizonen artean, eta emakumeen okupazio maila handitzen doa, lan merkatuan sartu berria dela kontuan hartu behar baita.

Aldi berean, famili unitateak gero eta zatituagoak daudenez gero, guztira orain famili kopuru handiagoarekin topo egiten dugu.

Arrazoi horiek guztiek arazo handiak planteatzen dituzte lan merkatuaren esijentziak famili ardurekin bateratzeko orduan, azken horiek tradizionalki familia barruan konpondu baitira, batez ere emakumeen eskutik, estereotipo soziokultural baten arabera famili eta etxeko lanetarako emakumeak bokazio eta betekizun handiagoa zeukalako.

Alabaina, azpimarratu behar da lanbide eta famili ardurak bateragarri egiteko premia hori ez dagokiola emakumeari bakarrik. Berdin eragiten die gizonei eta emakumeei, hauek lan merkatuan sartzea lortu ondoren famili ardura biek hartu behar dutelako beren gain.

1.2. Europako Batasunaren iniziatibak

Europako Batasuna esplizituki konprometitu da gizon eta emakumeentzako aukera berdintasun printzipioarekin.

Europako Batasunak hasiera-hasieratik aitortu zuen lana eta haurren zainketa bateratzea funtsezkoa zela gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko, haurren zainketaren ondorioz sortzen diren arazoek sexuen arteko tratu berdintasuna nabarmen oztopatzen dutelako.

Horregatik, Emakumeen Berdintasunerako II. Egitarau Komunitarioaren barruan Haurren Atentziorako Sarea sortu zen 1986an, aukera berdintasunerako politika martxan jartzeko dauden zortzi sareetako bat delarik.

Aurrerago, Aukera Berdintasunerako III. Egitarauan, sare horri “Haurren atentziorako eta gizon eta emakumeen lan eta famili ardurak bateratzeko beste neurri batzuen sarea” izena eman zitzaion, eta deitura aldaketa horrek, lan eta famili ardurak bateragarri egitea lortzeko haurrentzako zerbitzuak beharrezkoak baina nahikoa ez direla isladatzen du.

Aukera Berdintasunerako III. Egitarau honen zati gisa, Kontseiluak haurren zaintzari buruzko R (92) 241. Gomendioa onartu zuen, zeinetatik ondoko aspektuak azpimarratu behar baitira:

- Seme-alaben zainketak dakartzan lana eta ardurak bateratzeko helburu zabal bat jasotzen du, horien premia guztiei eskola aroan erantzuten saiatzea komeni dela adieraziaz.
- Bestalde, haurrekiko atentziorako helburu zabal horrek iniziatiba ezberdinak batuko dituen politika global bat behar duela ere esaten du. Horrela, haurrentzako zerbitzu bereziez gain, gurasoentzako baimenak indartzeko premia, lantokiek seme-alabak dauzkaten gurasoen beharrei erantzutea eta, azkenik, familia ardurak gizonen eta emakumeen artean bana daitezen sustatzeko premia ere planteatzen du.
- Gomendio honek, aurreko iniziatibak martxan jartzeko orduan ardura guztiena dela dio (administrazio ezberdinak, gizarte alor ezberdinak, nola enpresarioak hala langileak, etabar), eta bateragarritasuna lortzeko elkarlanaren premia azpimarratzen du.
- Azkenik, printzipio garrantzitsu eta helburu berezien alde agertzen da: kalitatezko atentzioa ikuspegi pedagogikoarekin konbinatzea, premia bereziak dauzkaten haurrentzako laguntza, zerbitzuak nekazari esparruetara hedatzea, zerbitzuen malgutasun eta eskuragarritasuna, etabar.

1.3. **EAEko iniziatibak**

Aipatu berri ditugun iniziatiba komunitarioen bidetik, Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiborako II. Planak ere famili eta lanbide arduren bateragarritasuna planteatzen du lehentasunezko iharduera esparru gisa.

Plan honek ere famili eta lanbide ardura horien arteko bateragarritasuna erraztuko duten baldintzak hobetzeko neurri zehatzak proposatzen ditu, Europako Batasunean dagoeneko proposatuta dauden neurriei jarraituz. Horrela, famili ardurak emakume eta gizonen artean banatzearen edo biek partaidetza orekatua edukitzearen, eta egungo gizarte antolaketatik eratortzen diren beharrei erantzun egokia emango dieten komunitatearentzako zerbitzuak garatzearen aldeko sentsibilizazio kanpainaren apostua egiten du.

Emakundek aurkeztu berri du komunitatearentzako eta familientzako zerbitzuei buruzko txosten berezi bat, eta bertan zerbitzu batzuen diagnosia jasotzen da (haur-eskolak, eskola-jangelak eta pertsona helduentzako zerbitzuak), eta testu horretara mugatuko gara zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun daukaten egoerari buruzko datuak eskaintzerakoan.

* * *

Famili eta lanbide ardurak bateratzeko egokitasuna azpimarratu nahi izan duen lehen atal hau laburbilduz ondorio hauek azpimarra ditzakegu:

1. Gaurko gizarte antolaketatik eratortzen diren premia bereziek famili eta lanbide arduren bateragarritasuna eskatzen dute.
2. Bateragarritasun hori ondorengo iniziatiba edo ihardunbideen bitartez lortu behar da:

2.1. Haurrentzako zerbitzu bereziak martxan jartzea.
2.2. Gurasoentzako baimenak bultzatzea.
2.3. Lantokiak famili ardurak dauzkaten gurasoen premietara egokitzea.
2.4. Famili ardurak gizon eta emakumeen artean bana daitezen sustatzea.

3. Aurreko neurriak edo ihardunbideak osagarriak dira, beraz gutxienezko bateragarritasunak guztiak arian-arian martxan jartzea eskatzen du.
4. Aldi berean, neurri hauen heterogeneitateak guztien arduraren, eta ondorioz bertan sartuta dauden agente guztien lankidetzaren beharra dakar (administrazio ezberdinak, gizarte iniziatibak...).

2. HAURREN BEHARRENTZAKO ATENTZIO ZERBITZUAK

2.1. Kalitatearen gutxienezko mailak

Iniziatiba komunitarioaren berri eman denean aipatu den Haurrentzako Atentzio Sareak Aukera Berdintasunerako III. Egitarauaren barruan txosten bat osatu du, eta Haurrentzako Atentzioari buruzko R (92) 241. Gomendioan haurrentzako zerbitzuei buruz aipatzen den bidetik helburu batzuk jasotzen dira.

Sare honen iritziz, helburu horiek hamar urteko epean (2006. urte aldera) lor daitezke Europako Batasunean.

Txostenean Komunitateko herrialdeek haurren atentzioari zuzendutako politika garatzea komeniko litzatekeela esaten da, azken finean haur guztiei kalitate handiko zerbitzu malgu eta koherenteez baliatzeko bidea eman beharko liekeelarik.

Horrela, haurrentzako zerbitzuentzat oinarrizko printzipio eta helburuak zehaztu behar dira, horien arabera definitutako baliabideen barruan iharduera zehatzak garatu beharko liratekeelarik.

Eraketa ekonomikoari dagokionez, herrialdeek Barne Produktu Gordinaren (BPG) gutxienez %1eko finantziaketa publikoa onartu beharko luketela irizten da, haurrentzako zerbitzu horietan egindako inbertsio publikoek gizarte, ekonomia eta hezkuntza mailako onura garrantzitsuak dakartzatela irizten delako, eta onura horiek haurrek, familiek eta gizarte osoak jasoko lituzkete.

Are gehiago, zerbitzu horietan egin beharreko inbertsio publikoaren gastu osoa ez litzateke ezta BPGren %1era ere iritsiko, errentak igo eta gizarte ongizateko gastuak jaitsi egingo liratekeelako.

Alabaina, gurasoek ere ordaindu beharko lituzkete dauzkaten irabazi garbien eta beste zertzelada babesgarri batzuen arabera, baina ordaindu beharrekoak ez luke familien irabazi garbien %15 baino gehiago izan beharko.

Zerbitzuen tipologiari dagokionez zera esaten da, zerbitzu publikoek 3 eta 6 urte arteko haurren artetik %90arentzat eta hiru urte baino gutxiagokoen %15arentzat denbora osorako plazak eskaini beharko lituzketela.

Zerbitzu ugaritasunaren aldeko apostu garbia egiten da, gurasoek nahiago dutena aukera dezaten, eta baita malgutasunaren aldekoa ere gurasoen laneko betebeharrak bateratzeko aukera eman dezaten.

Txostenaren arabera, beharrezkoa da zerbitzu horiek pluraltasunaren balorearen alde jokatzea eta hizkuntza, etnia, erlijio, genero eta elbarritasunagatiko dibertsitatea beren gain hartzea.

Zerbitzu horiei dagokienez, haur eskolek egun osoko ordutegia eduki behar dute, hori beraien antolaketa normalean edo eskola orduez kanpoko zerbitzu osagarri gisa planteatuaz, lana egiten duten gurasoen eskura egon daitezen.

Bestela, eskola orduez kanpoko zerbitzu hori ematen ez bada alegia, beste zerbitzu paralelo ez integratuak behar dira, hain zuzen lan beharrengatik familiek dauzkaten beharrei edo behar sozial handiak dauzkaten umeei erantzuteko.

Haurrentzako zerbitzu kolektiboek hezkuntzaren filosofia esplizitua eduki behar dute, tolerantziaz gain haurraren autonomia, haurren eta horien eta helduen arteko elkarbizitza soziala sustatu behar dituztelarik. Era berean, beste ikasgai hauek ere eduki beharko lituzkete: hizkuntz teknikak, zenbait kontzeptu matematiko, biologiko, zientifiko, tekniko eta ingurugiroari buruzkoak eta trebetasun estetikoak eta artistikoak.

Zerbitzu horien zuzkidurei dagokienez, haurren adinaren eta atenditu beharreko haur-taldeen arabera horiek zaintzeko plantila-ratio zehatzak iragartzen dira.

Zerbitzu horietako pertsonalari buruz, horientzako lan baldintza egokiak eta egokitzapen jarraitua bermatuko dien etengabeko prestakuntza azpimarratzen dira, zerbitzuak kalitate handikoak izan daitezen.

Zentzu honetan hau da proposatzen dena: haurrekin zuzenean (bai eskoletan eta baita familientzako laguntzetan ere) lana egingo dutenen artetik %60ak doaneko prestakuntzarako aukera eduki behar dute, pedagogiaz eta haurren garapenaz prestakuntza maila egokia eskura dezaten.

Txostenak aipatzen duen beste puntu bat haurrentzako zerbitzu horiek eratzeko eraikinei dagokie, osasun eta segurtasun baldintza guztiak bete behar dituztela adierazten duelarik. Eta zehazten du zerbitzu horiek haurrei jolas eta lo egiteko eta lababoak eta komunak, etabar erabiltzeko aukera eman behar diela, eta guraso eta irakasleek beraientzat lekua ere eduki behar dutela.

Gurasoek haur zerbitzu horiekiko kolaboratzaile eta partaide izan behar dute, eta zerbitzuek, aldi berean, dagokien komunitatearekin edo zonarekin harremanetan egon behar dute.

Azkenik haurrentzako zerbitzu komunitario horien funtzionamendu eta emaitzei buruzko ebaluaketa erregularraren premia aipatzen da.

2.2. **EAEko egoeraren balorazioa**

LOGSE legea onartu eta gero, haur-hezkuntza beste etapa bat bezala eratu da hezkuntz sistemaren barruan.

Ondoren onartu diren beste arau batzuek hezkuntzako etapa honen hezkuntz edukin edo curriculuma zehaztu dituzte (curriculumaren oinarrizko aspektuei buruzko irailaren 6ko 1.330/1991 ED eta EAEko ikastegietarako oinarrizko curriculuma garatzeko abuztuaren 11ko 236/1992 Dekretua), eta irakaskuntza

horiek banatuko dituzten eskolek irakaslegoaren titulazioa, irakasle/ikasle ratioak, ikastokiak, eskola plazak, etabar bezalako gaietan bete behar dituzten gutxienezko baldintzak finkatu dituzte (uztailaren 14ko 1.004/1991 ED).

Esan daiteke, beraz, Europako Batasunak Haurren Atentziorako Sarearen bidez ezarritako kalitate neurri asko behar bezala definitu direla.

Alabaina, gizarte premia berrien arabera -horiek arian-arian martxan jartzeko eskatzen baitute- haurrentzako atentzio zerbitzuak behin betikoz oraindik egituratu gabe jarraitzen dute.

Ezbairik gabe, Euskal Autonomi Erkidegoan hezkuntzako agintariek egon behar dute haur-hezkuntzako lehen zikloa indarrean sartzeko eta osatzeko prozesuaren buruan, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legean zero urtetik aurrerako eskolatze eskariari pausoka erantzuteko agindua agintari horiei ematen baitzaie.

Lege horrek berak, aipatu helburua lortzeko funtzionamendu pauta garbi bat ere ezartzen du, administrazio eta agente sozial ezberdinekin lankidetza espreski planteatzen duenean.

Erakunde honen ustez, elkarrekin lan egiteko behar premia hori maila oso zehatzetan gauza daiteke, esate baterako eskolatze premien planifikazioan edo programazioan. Eta hori ez egiteak, Eskola Publikoaren Legeak agintzen duen iharduera pauta hori ukatzea, eta planifikazio lan honen ezaugarri nagusia, alegia eragindako sektore guztien partaidetza alde batera uztea esan nahiko luke.

Guzti horregatik, hezkuntza maila honetako zerbitzu- eskaintzaren programazioan gure ustez funtsezkoa da ez bakarrik eragindako agenteen partaidetza ahalbidetzea, baina baita programazio hori gaur egun dauden ikastegi guztiak kontuan hartuaz egitea ere.

Aldi berean, beste administrazio batzuen menpe dauden edo gizartearen iniziatibaz sortu diren zentro horien finantzaketa aukerak ere aztertu behar dira, baldin eta hezkuntza administrazioaren sareko zentro publikoek eskolatze premia horiei erantzuten ez badie.

Eta baita ere esan behar da, adin txikiko haurrekiko atentzioa, haur eskolatze adina gainditu eta lehen hezkuntzan daudenak barne direlarik, ezin dela hezkuntza-aspektu hutsetara mugatu.

Hezkuntzako ziklo edo etapa bakoitzerako ezarrita dauden helburu pedagogikoei dagokien eskola atentzio soila bete ondoren beste era bateko atentzioa eskaini behar da: eskola orduetatik kanpo behar duten ume guztiei behar adinako dedikazioa eskainiko dien atentzioa alegia, ikasle horien gurasoen famili eta lanbide betebeharrak benetan bateragarriak izan daitezen. Horrela, gauza jakina da eskolako ordutegia eta egutegia familiek nekez konpon ditzaketen arazoak direla.

Beraz, ikastegiek beraiek, LOGSEk markatzen dituen helburu pedagogikoekin bakarrik lotzen den hezkuntz-atentzioaren osagarri gisa eskola orduz kanpoko atentzioa eskaintzeko aukera ikusi beharko lukete, azken horrek eskola komunitateko familien arduren arabera malgua izan beharko lukeelarik.

Azken batean, lanbide betekizunak dauzkaten guraso askok ere osatzen duten hezkuntz-komunitatearen premien zerbitzura ikastegiek espazio balioanitz gisa erabiltzea litzateke kontua.

Bestela, azken premia horiek asetzeko beste zerbitzu komunitario eta osagarri batzuk beharko lirateke, eta horiek ere lehen aipatu diren Europako Batasunak Haurren Atentziorako Sareak osatutako kalitate estandarrak bete beharko lituzkete.

3. Ondorioak eta proposamenak

3.1. Haurren premientzako atentzio zerbitzuek, egungo hezkuntz-sisteman ezarritako helburu pedagogikoak lortzeaz gain, gizartearen antolaketa berritik eratorritako famili eta lanbide arduren bateragarritasuna ere lortu behar dute.

3.2. Beraz, adin txikiko haurrentzat diseinatuko den hezkuntz-atentzioa beste zerbitzu komunitario batzuekin osatu behar da, ikastegietatik edo esperientzia berrietatik lan betekizunak dauzkaten gurasoen premiei erantzun diezaieten.

3.3. Haurrentzako azken zerbitzu mota horiek osagarriak izango direnak eskola komunitateko kideen famili eta lanbide arduren arteko bateragarritasun premia ikusten den hezkuntz-maila guztietara hedatu behar dira, eta, beraz, ez dute mugatu behar zero eta sei urte arteko haur-hezkuntzako hezkuntz-etapara bakarrik.

3.4. Haurren premiei eman beharreko atentzioari buruzko ikuspegi global hau iharduera estrategia zehatz guztietan eduki behar da kontuan, hau da, premien programazioan, giza baliabide eta materialen egokitzapenean, finantziaketa sistemetan, etabar.

3.5. Horrek, aldi berean, haurrekiko atentzioan interesa daukaten administrazio eta agente sozial guztien koordinazio eta ekintza bateratu bat eskatzen du. Izan ere, haur eskola sare bat sortzeko dagoen eskariari erantzuna ematen lehenengoa hezkuntz-administrazioak izan bahar badu ere, beste administrazio eskudunek eta gaian interesaturik dauden agente sozialek ere aportazio garrantzitsuak egin ditzakete eta behar dituzte, eta ez hezkuntzari dagokionean soilik, baizik eta batez ere oraindik behar bezala esploratu gabe dauden zerbitzu osagarrien alorrean.

7.5. OSTALARITZA ESTABLEZIMENDU PUBLIKOETAN IPINITAKO MUSIKA APARAILUEK SORTUTAKO KUTSADURA AKUSTIKOAREN KONTROLA

Erakunde honek Eusko Legebiltzarrari aurkeztu dizkion txostenetan, urtez urte ikusi da salaketa asko egiten direla hiriko iharduera sailkatuetan (normalean, bizitetxeetako beheko solairuetan dauden ostalaritza establezimenduetan batez

ere, hots, taberna, pub, disko-taberna, dantzaleku, eta abarretan) sortutako kutsadura akustikoagatik.

Salaketa horiek berdintsuak izan ohi dira; hau da, bizilagunek salatzen dute zaratak jasaten dituztela establezimendu publiko horien funtzionamendu okerragatik. Izan ere, leku horietan zarata handia sortzen da, eta horrek eragin txarra dauka beraien osasunean eta beraien etxeko bakean.

Bizilagunek erakunde honetara jotzen dutenerako aspertuta egon ohi dira denbora luzean horrelako gogaipenak jasateaz, eta, baita ere, etsita ere egon ohi dira udal agintariek ez dutelako inolako neurririk hartzen arazo horiek konpontzeko.

Erakunde honek gai honi buruzko gomendio orokor bat osatu zuen 1991. urteari buruzko txostenean, "Establezimendu publikoetako zaraten arazoei buruzko azterketa juridikoa" izenburuko atal batean. Bertan, arazo horretan nahastutako hiru aldeen ikuspegitik aztertu ziren arazo horiek. Horrela, kutsadura akustikoak sortutako arazoak aztertzean, kontutan hartu ziren bai bizilagunen ikuspegiak, bai establezimenduetako titularren arazoa, eta bai administrazioaren iharduera ere.

Gainera, gai honetan aplika daitekeen araubide juridikoari buruzko azterketa zabal bat ere egin zen, alor honetako eskumenak administrazio desberdinen artean nola banatuta dauden zehaztuz, eta epai sorta bat erantsiz, haietako batzuk ezagunak. Gure iritziz, epai horiek lagungarriak izan litezke, batez ere, beraien zigortzeko ahalmenak erabili behar dituzten administrazio batzuentzat, iharduera sailkatuei buruzko gaur egungo arauketan dauden legezko hutsune batzuk betetzeko.

Ondorioen atalean, gogoeta moduan, halako gomendio batzuk eskaini genituen kutsadura akustikoaren arazoari heltzeko, apostu eginez ekintza administratiboak arazo honen arabera egokiena den maila instituzionaletik egin daitezen. Fenomeno hau batez ere hirietan gertatzen denez gero, pentsatu genuen udalek hartu behar zutela beren gain eskumen honen zati handi bat, bai eta, ondorioz, zegokien erantzunkizuna ere, eta beraz, irizpide eta helburu bezala izan behar zutela hirietako antolakuntza planetan jasotzea hirietako kutsadura akustikoa murriztu beharra.

Azkenik, iharduera sailkatu horiei buruzko arautegi tekniko eta prozedurazkoaren aplikazioa eta egunerapena beharrezkoa zela kontutan izanda, Autonomia Erkidegoko erakundeei, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari dei egin genien, araugintza ahalmena duten erakundeak izanik, establezimendu publikoen eta kutsadura akustikoaren arauketa osa zezaten; ildo horretatik, gure erakundearen aburuz, helburu horretarako erabil zitekeen bide juridikorik egokiena iharduera sailkatuei buruzko lege bat zen, bai eta, haren osagarri gisa, kutsadura akustikoaren arazoa erregulatzeko arautegi bat ere.

Gomendioak gomendio, erakunde eskudunek ez dute oraindik eskurik hartu kutsadura akustikoa ikuspegi orokor batetik arautzeko; horregatik, oraingoan ere azpimarratu nahi ditugu irregulartzat jotzen ditugun egoera batzuk, ostalaritza alorreko establezimendu publikoen funtzionamenduak eragindako arazoekin eta,

zehazki, lokal horietako musika aparailuen abusuzko erabilerarekin zerikusia duten kexa espedienteak tramitatzean aurkitu ditugunak.

Honi gagozkiolarik, esan dezakegu iharduera horien funtzionamendu okerraren ondorioz sortzen diren zaratak isolamendu akustikorako neurri zuzentzaileak ez betetzeagatik gertatzen direla, nahiz eta establezimenduko iharduerarako baimenean baldintza bezala agertu.

Horrela, foru aldundien ingurugiro sailek edo eskumen hori beren gain hartua duten udalek egiten dute lokal horien sailkapena, eta horretarako lokala insonorizatzera behartzen dute indarrean dagoen arautegian onartutako gehienezko dezibelio maila ez gainditzeko, maila hori desberdina izanik iharduera bakoitzaren arabera. Bestalde, IGOKAAko 34. artikuluaren arabera, iharduera bati ezin zaio baimena eman harik eta funtzionario teknikari eskudunak dagokion bisita egin eta iharduera horretan instalaziorako baimenean ipinitako neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatu arte. Hori hala izan arren, erakunde honetan egiaztatu ahal izan dugu askotan ikuskapen hori egin gabe irekitzen direla era horretako establezimenduak, eta geroago zehazten dela, ondoko auzokoen salaketak aurkeztu ondoren, lokal horietan ez direla betetzen instalatzeko baimenaren arabera isolamendu akustikorako beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak.

Udal askotan ez zaie behar hainbateko garrantzia ematen establezimendu publikoak ikuskatu eta kontrolatzeko betekizunei, eta, ondorioz, ez diete behar bezalako arreta ematen, ez eta horiek zuzen gestionatzeko behar diren giza eta material mailako baliabideak eskeintzen ere. Nolanahi ere, egia da azkenaldi honetan gauzak hobetuz doazela, udalbatzarrak gero eta gehiago ari direlako esparru honetaz arduratzen.

Frogatzen bada establezimenduen isolamendu akustikoak ez duela betetzen emandako instalazio baimenak agindutakoa, irregulartasun hori konpontzeko, IGOKAAko 36. artikuluak dioen bezala, udalek iharduera horien titularrei esijitu behar diete aurkitutako okerrak zuzendu eta lokala insonorizatzeko neurriak har ditzaten, hilabete bat eta sei hilabete arteko epea emanez horretarako.

Dena den, batzuetan ez da lan erraza izaten zenbait ostalaritza establezimenduren kontrola egitea, batez ere lokalaren insonorizazioa egokia dela egiaztatu arren aldameneko etxebizitzetan soinu-gogaipenak jasaten jarraitzen dutenean. Bada, puntu hauxe azpimarratu nahi dugu hemengo gomendio honetan.

Kasu hauetan frogatuta dago zarata horiek zerikusi zuzena dutela musika aparailuen potentziarekin, eta arazoa gehienbat aparailua erabiltzen duen pertsonaren jarreraren baitan dagoela, lokalak daukan insonorizazioaren baitan baino areago. Zentzu honetan, nahiz eta halako establezimendu batean instalaziorako baimenak eskatutako isolamendu akustikoa eduki, musika aparailua erabiltzean lokalak jasan dezakeen soinu maila gainditzen bada, bistan da onartutako gehienezko zarata maila ere gainditu egiten dela, eta horrek gogaipenak eragingo dizkiela lokalaren ondoan bizi diren pertsonei.

Esanak esan, establezimenduetako titularrek musika aparailu horiek manipula ez ditzaten, etxebizitzatarako hiri-lurrean gertatzen diren iharduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko arau tekniko orokorrak onartzen

dituen ekainaren 11ko 171/85 Dekretuko 1. kapituluaren 1. ataleko 3.2.4. artikuluak hauxe dio:

"*Musika-apailuz irratiak, telebista-apailuak eta musika-haria izan ditzaten ekitzapidetan, kalkuloak tegiaren ezein tokitan 75 dB(A) daudela eginda izango dituen zaratagabetze-egitasmo bat aurkeztu beharrezkoa izango da, tegian ate bikoitza ez jarri behar izateko lurrean lotzea hotsari dagokionean maila horretantxe eginez. Esandako hoietzaz bestelako musika-apailuak izan ditzaten ekitzapideen zaratagabetze-egitasmoak tegi barruan gutxienez 90 dB(A) daudela jota egingo dira.*"

Bestalde, arau horretxetako 2. kapituluaren 1. ataleko 3.2.4 artikuluak hauxe dio, pub, disko-taberna, dantzaleku eta abarrei aplikagarria den esaldi honetan:

"*Zaratagabetze-egitasmo bat aurkeztea, diskategi eta horrelakoetan kalkuloak 100 dB(A)-ko zaratarentzat, eta "pub" eta horrelakoetan 90 dB(A)-koarentzat eginda, tegiaren beraren azpiirozgarria hots-maila horretarakoxe eginez.*"

Zentzu honetan, aurreko arau horietan esandakoaren ildotik, uler daiteke musika aparailuari soinu muga bat ipintzea beharrezkoa dela, eta horretarako potentzia mugatzeko tresna jarri behar zaiola, establezimendu horiek daukaten aparailua irratia, telebista edo hari musikala denean izan ezik.

Puntu horri dagokionez, gure Autonomia Erkidegoan azken urteotan udalek onartu dituzten establezimendu publiko eta aisialdi iharduerak arautzeko udal ordenantza desberdinak aztertzean, ikusi ahal izan dugu haietako gehienetan ostalaritza establezimenduetako musika aparailuetan potentzia mugatzeko tresnak ipini beharra jartzen dutela neurri zuzentzaile bezala.

Adibide gisa, zentzu honetan oso argigarria delako, Lekeitioko Ostalaritza Establezimenduen eta Baliokidetuen Arauketarako Udal Ordenantzan soinu iturrien kontrolari buruzko 8.2.1 artikulua ekar dezakegu hona (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 301. zkia., 1992ko abenduaren 31koa); hitzez hitz hauxe dio:

"*Zarata-iturri ezberdinek emititzen dituzten hots mailak bermatzeko, edozein iharduerak bere barnean megafoniazko musika-aparailuak, ikus-entzumenezkoak, etab... jarrita dituenean, Zabaltzeko Lizentzia lortu aurretik, Frekuentzien bidezko isolamendu osoa ziurtatu beharko du. Honetarako, zarata-iturri bakoitzean instalatutako prezinto edo anklaia sistemari buruzko U.N.E. 74-080-84 araua beteko da eta honen hots-mailak ez du gainditukо talde bakoitzari dagokiona. Tekniko konpetenteak izenpetuko du honi buruzko ziurtagiria.*

Udal Zerbitzu Teknikoak gai dira iharduera bakoitzak sartuta dituen hots-mailen kontrolerako sistemak onartzeko edo ukatzeko. Bi eratakoak dira onartu direnak:

- *Mekanikoak*
- *Elektronikoak*

Hauetako sistemaren bat onartzen denean, prozedura justifikatu eta prezintoa kontrastatu beharko da, aipatu Zerbitzu Teknikoen esku geratzen delarik unitate hauetan parte hartzeko eskubidea eta hauen funtzionamenduaren egiaztatzea.”

Era berean, Debako taberna, kafetegi eta antzekoen iharduerako establezimendu publikoen instalazioa arautzen duen Udal Ordenantzako 10. artikuluan (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 41. zkia., 1993ko martxoak 3) ere esaten da soinu erreproduziorako edozein sistemak “*zarata-mugapen eraginkorra*” eduki behar duela, bolumen mailarik altuenean egonda ere halako zarata maila bat sor ez dezaten lokalaren barruan, establezimenduaren sailari dagokionaren arabera, horretarako udal funtzionariek egingo dutelarik zarata-mugapen hori.

Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuan bildutako aginduei buruz puntu honetaz egiten zen ulerbidearen arabera pentsa daitekeen arren musika aparailuen zarata-mugagailuaren instalazioa esiji daitekeela iharduerako baimeneko neurri zuzentzaile bezala eta horrela jasotzen dutela udal ordenantza batzuek -esan dugun bezala-, hala ere, udal batzuek teknikoen borondatearen baitan uzten dute musika aparailuen zarata-mugagailua ipini behar hori; hori da, adibidez, Bilboko Ingurugiroaren Babeserako Ordenantzaren kasua (BAO, 267. zkia., 1992ko azaroaren 19koa) edo Getxoko zarata eta dardarei buruzko Udal Ordenantzarena (BAO, 159. zkia., 1992ko ekainaren 11koa).

Esanak esan, frogatu ahal izan dugun bezala, ia udal guztiak ari dira esijitzen gaur egun musika aparailuei zarata-mugagailu edo zigilua ipintzea, dagozkion potentzia-mugagailuen bidez, instalaziorako baimenaren neurri zuzentzaile bezala, edo zigor neurri bezala, aldameneko etxebizitzetara iristen diren zaratak musika aparailuen erabilera okerragatik sortuak direla egiaztatu ondoren.

Horri dagokionez, Arartekoak gogorarazi nahi du udal ordenantzek paper oso garrantzitsua jokatzen dutela gai honetan, oso arau gutxi dagoelako alor honetan. Ordenantza horietan soinua neurtzeko prozedurak arautuz, zarata eta dardar neurriei kontzeptu eta unitateak zehaztuz, titularren lizentzia eskarian aurkeztu behar dituzten insonorizazio proiektuen edukia argituz eta mugapenak eta eskakizun berriak sartuz, halako babes bat ematen zaie hiritarrei arauak hausteagatik gerta daitezkeen ondorio txarren aurrean.

Honetaz ari garenez, ez dugu esan gabe utzi nahi gaur egun Estatuko udalerri batzuetan eskatzen ari dela halako sistema sonografiko bat ipintzea gauez irekita egoten diren establezimenduetako musika aparailuetan, haien iharduerean gerta daitezkeen irregulartasunak zorroztasun handiagoz zehazteko aukera ematen duena eta, gainera, leku horietan eragiten diren zaratak kontrolatu eta ikuskatzeko lana errazten duena.

Zentzu honetan, Donostiako udalerrian soinu emisioa eta harrera arautzen duen Ordenantzaren zirriborroan -esandako udalbatzarrak eskuratu digu-, ikusi dugun bezala neurri hori esijitzen da derrigorrez. Sistema sonografikoaren instalazioa egin beharra jartzen duen agindua interesgarria iruditu zaigu eta horregatik hemen ematen dugu hitzez hitz, sistema horrek eduki behar dituen gutxienezko baldintzekin batera:

"1- Gauez irekita dauden establezimenduetako musika aparailuak dauzkaten iharduerak ikuskatu eta kontrolatzeko lana eraginkortasun handiagoz egin ahal izateko, derrigorrezkoa da horietan erregistro sonografikorako sistema bat ipintzea, hamabost eguneko gutxienezko epeko iharduerarен funtzionamenduari buruzko datuak eskuratu ahal izateko. Sistema hori erabilitako soinu-mugagailuan integratuta egon daiteke edo ez.

2- Sistema horrek honako gutxienezko baldintzak bete behar ditu:

- *Iharduerako funtzionamendu zaratatsuaren denbora erregistratzea eta biltzea, eguna eta hasierako eta bukaerako ordua adieraziz, epeko gehienezko minutu baten adinako maila eta hori gertatzen den ordua, eta azkenik epe horretako bataz besteko mailak.*
- *Soinu iturrien funtzionamendu denborak erregistratzea eta biltzea, piztu eta itzaltzen den egun-orduak zehaztuz, bai eta soinu erreproduziorako sistemaren errendimendu energetikoa ere, erabilera egokia egiten dela frogatu ahal izateko.*
- *Aurreko puntuetan adierazitako informazioa gordetzea halako epe batean, geroago haren ikuskapena egin ahal izateko.*
- *Udal zerbitzu teknikoei edo ordezko erakundeari esandako informazio hori eskuratzeko aukera emango dion sistema edukitzea, ikuskapen zerbitzuaren sistema informatikoetara eraman eta han aztertu eta ebaluatu ahal izateko, inprimaketa ere onartuz. Datu eskurapen horrek ezin du datuen suntsipena eragin, ez eta haien manipulazioa onartu ere.*
- *Azkenik, sistema horrek 'setup' delakoaren manipulazioa ekiditeko behar diren babes osagaiak eduki behar ditu, giltza elektroniko edo sarrera-gakoen bidez."*

Neurri hori oraindik esperimentazio aldian dagoen arren, egokia iruditzen zaigu udal ordenantzen bitartez kontrolbide berriak sartuz joatea administrazio xedapenei objetibotasun handiagoa emateko eta haien aginduak betetzen direla bermatzeko.

Alor honetako ordenantzen garrantziaz ohartarazi ondoren, hasieran azaldutako arazoari berriro helduz, esan genezake era honetako iharduera sailkatuen funtzionamenduaren eraginez auzokoek jasan behar izaten dituzten zaratak erraz konpon litezkeela egiaztatzen bada iharduera horien isolamendu akustikoa egokia dela eta zarata eragin dezaketen soinu-iturriek behar bezalako zarata-mugapena dutela.

Dena dela, alor honetan aditu diren teknikariek diotenez nahiko erraza da gaur egun potentzia mugatzeko merkatuan dauden tresnak manipulatzea. Era berean, kexa espedienteak tramitatzean ikusi ahal izan dugu ostalaritza establezimenduen titularren maltzurkeria urrutirago iristen dela, batzuetan behar bezalako soinu-mugagailua edo zigilua daukan musika aparailuaren ordez beste bat ipini dutelako.

Kasu horietan, iharduera horren funtzionamenduan irregulartasuna gertatzen ari dela frogatu ahal izateko, beharrezkoa da une horretan kaltetutako auzokoek salaketa aurkeztu eta dagokion ikuskapen bisita egitea.

Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako hiru hiriburuetan Udaltzainak egin ohi ditu soinu neurketak; zehazki, Donostian badago unitate berezi bat, UCOM deitzen dena, Udaltzaingoaren mendekoa, ikuskapen horiek eguneko edozein ordutan egiteko, baita premiazkoa denean ere.

Egia da establezimendu publikoen instalazioa arautzen duten udal ordenantza gehienetan bermatu egiten dela haien aginduak ziurtatzeko beharrezkotzat hartzen diren ikuskapenak "edozein unetan" egitea, horretarako Udaltzaingoan prestatuta dauden agenteak erabiliz zaraten kontrola egiteko; alabaina, zer gertatzen da halako udalerri batean Udaltzaingoak gaueko 22etatik aurrera lan egiteari uzten badio, eta udalerrian ez badago inolako unitate teknikorik gaueko orduetan era horretako soinu neurketak egiteko, nahiz eta arauetan ikuskapenak egiteko posibilitatea behar bezala jasota egon?

Gure erakundean, askotan esan diegu arazo hauek jasaten dituzten hiritarrei salagarri diren ekintzak gertatzen diren unean bertan parte eman behar diotela toki agintariari, lekuan bertan dagokion soinu neurketa egin ahal izateko. Horrelakoetan, hiritarrek erantzun digute Udaltzaingoak ez duela erantzuten eta Ertzaintzaren komisaldegietara jotzen dutenean esaten omen diete ikuskapen horiek ez direla beraien eskuduntza, toki agintariei baitagokie kontrol ahalmen hori.

Izan ere, Euskadiko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 117. artikuluak dioenez, toki entitateek Ertzaintzaren partehartzea eska diezaiokete Herrizaingo Sailari polizi alor hutsekoak diren betekizunetarako, eta haien laguntza bakarrik beraien eskumenekoak diren zerbitzuetan, baina ez ordea era iraunkorrean. Hortaz, argi dago era honetako iharduerak ikuskatu eta kontrolatzeko ardura udalbatzarrei dagokiela.

Nahikoa da gogoan izatea establezimendu publikoek udal baimena eduki behar dutela eta, beraz, udalaren eskuhartzea ez dela bukatzen iharduueraren hasierarekin, baizik eta establezimendu horiek etengabe ikuskatu eta zainduak izan behar dute toki agintarien aldetik, haien itxiera agintzeraino ere, beharrezkoa bada. Horrek aukera ematen du iharduteko lizentziako neurri zuzentzaileak betetzen direla etengabe aztertzeko, eta horrela ziurtatu egiten da hiritarrak babestuta daudela iharduera horien funtzionamendu okerragatik gerta litezkeen gogaipen eta ingurugiro-erasoen aurrean.

Labur esanda, udalerriek garbi eduki behar dute, indarrean dauden legeen arabera, iharduueren segimendua, ikuskapena eta kontrola egitea udalerriek derrigor bete beharreko beste zerbitzu bat dela, oso garrantzitsua gainera kaltea jasaten duten hiritarrentzat, zeren eta hiritar horiek gutxi balira ere, arazoak kualitatiboki garrantzi berbera edukiko bailuke, zaraten gogaipenak oso deserosoak eta desatseginak izaten direlako kaltea jasaten duten hiritarrentzat.

Ildo horretatik, Arartekoaren ustez pertsonal gaitua behar da ostalaritzako establezimendu publikoen funtzionamendua ikuskatzeko; orobat, bitarteko material egokiak ere behar dira, eta horiek egoera onean egon behar dute beti;

azkenik, beharrezkoa da, baita ere, kontrol ekintza horiek edozein ordutan egiteko -gauean eta goizaldean bereziki- prestatutako pertsonala edukitzea.

Baldintza horiek nekez bete ditzakete ikuskapen horiek gaueko orduetan egiteko pertsonalik ez daukaten udalek, ez eta prestakuntza tekniko nahikorik edo neurketa aparailu egokirik ez daukatenek ere. Horrekin esan nahi dugu prestakuntza horrek etengabeko praktika eskatzen duela, eta ez dela nahikoa jakitea nola funtzionatzen duen sonometro batek, baizik eta ikuskapen zeregin horiek teknikoki konplexuagotzat hartu behar direla.

Zentzu honetan, kontuan izan behar da soinu neurketa baten ondorioz zigor bat ezartzea gerta daitekeela, iharduerarren bermezko itxiera adibidez, eta beraz establezimendu horien titularren eskubideak bermatzeko beharrezkoa dela neurketa horiek zuzenak izatea.

Horregatik guztiagatik, azterketa honetan isuri ditugun gogoeten ildotik, kontuan izanik beharrezkoa dela toki administrazioek ahalik eta lasterren jarrera irmoa hartzea eta ahalegin etengabea egitea zaratek hiritarrei eragiten dizkieten ondorio deseroso eta kaltegarriak gutxitzeko, Arartekoak gomendatu egiten die udalei langile aditu eta gaituak har ditzatela edota beren pertsonala treba dezatela zaraten ikuskapen eta kontrola egin ahal izateko.

Orobat, ikuskapen zerbitzu hori emateko gaitutako pertsonalik ez daukaten toki erakundeen kasuan, proposatzen dugu betekizun hori egiteko zerbitzu alokerako kontratu bat egitea alorrean espezializatutako enpresa batekin, udal pertsonalak zerbitzu hori ematen ez duen bitarteko denboran soinu neurketak egiteko.

7.6. ZABORRA ORDUTEGITIK KANPO ATERATZEAGATIK, KALE-GARBIKETA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZEN AGINDUA HAUTSI DUTENEI EZARRITAKO ZIGOR ESPEDIENTEAK, EGILETASUNA ETA ERRUGABETASUN USTEA

Aurreko urteetan, zenbait hiritarrek kexa helarazi diote erakunde honi, zaborra ateratzeko ordutegiei dagokienez kale-garbiketari buruzko udal ordenantzen aginduak hausteagatik zigortuak izan direlako, horretarako froga bakar bezala zabor poltsetan haiei buruzko dokumentuak aurkitu ondoren.

Arartekoari azaldu zaizkion arazoetan, gure erakundearen iharduerak beti izan du ondorio bezala halako gomendio bat egitea, eskumena duen udal agintariari eskatzearren emandako zigor erabakiak bertan behera uztea. Gaur arte, egin ditugun era horretako eskariak beti ontzat hartu izan zaizkigu, haietan azaldutako arrazoibideetan oinarrituz.

Konstituzio Auzitegiak, aspaldiko ebazpenetatik hasita (KAren 1982ko apirilaren 1eko Epaia), argi ulertu du errugabetasun ustea funtsezko eskubidea dela eta aginte publiko guztiek men egin behar diotela edozein erabaki hartzerakoan, bide jurisdikzionaletik nahiz administratibotik. *"Zalantzarik ez,*

errugabetasun ustea salbuespenik gabe nagusi da zigor arauketan, eta errespetatua izan behar da edozein zigor ezartzerakoan (zigor penal, oro har administratibo, zein zerga alorrekoan ere); izan ere, ius puniendi *delakoa bere agerbide desberdinetan erabiltzeko orduan, Konstituzioaren 24.2 artikuluak frogari dagokionez eta norberaren burua defenditzeko kontraesanezko prozedurari dagokionez ezartzen duen agindua bete beharra dago. (...) Zigor erabaki orok, zigor penal zein administratiboa izanik ere, egotzitako ekintzen ziurtasunarekin batera -ziurtasun hori akusaziorako froga batez lortua izan behar delarik- ekintzei buruzko erruduntasun juzkuaren ziurtasuna ere eduki behar du*" (KAren 1990eko apirilaren 26ko Epaia). Alejandro Nieto irakaslearen esanean (*Derecho Administrativo Sancionador*, TECNOS 1993, 332 orria), adierazpen horrek hauxe esan nahi du: 1.- Zigorra akusazioa frogatzeko edo gaitzestutako jokamoldea inkriminatzeko ekintza edo bideetan oinarrituta dagoela. 2.- Frogatu beharra akusatzaileak duela, eta inor ez dagoela behartuta errugabea dela frogatzera. 3.- Erakunde zigortzaileak libreki baloratutako frogek ondorio nahikorik ez izanez gero, errugabetasuna erabaki behar dela. 4.- Errugabetasun ustea ekintzei eta erruduntasunari dagokienez eduki behar dela kontutan. KAren nahiz jurisdikzio arrunteko organoen adierazpenetan, lehenago esan dugun bezala, oso ugariak dira eta, beraz, ez dugu uste beharrezkoa denik hona ekartzea.

Indarrean dagoen lege antolamenduan, errugabetasun ustea zigor araubide administratiboan jasota dago, haren oinarrizko printzipio bezala, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta Amankomuneko Prozedura Administratiboari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137. artikuluan zehazki.

Hasieran aipatu ditugun kexei buruzko espedienteak tramitatzera eraman gintuzten zigor prozedurak Udaltzaingoko funtzionarioek egindako salaketan oinarrituta zeuden. Beraietan, aditzera ematen zen zegokion ordenantzan ezarritako ordutegitik kanpo ateratako zabor poltsen barruan bazeudela halako paper batzuk, gerora salatua izan zen pertsonarekin zerikusia zutenak. Prozeduretan beste edonolako froga gehiagorik erantsi ez zen arren, espedienteen ondorioz halako zigor erabaki batzuk hartu ziren. Gure iritziz, egin dugun azalpenaren arabera, arau haustea benetan frogatu zen arren -zaborra baimendutako ordutegitik kanpo atera izana-, hartutako zigor erabakiek hautsi egin zuten salatuaren egiletasunari zegokionez eta, beraz, haren erruduntasun eta erantzunkizunari zegokienez ere kontutan izan behar zen errugabetasun ustea.

Adierazi dugun bezala, arau hausteak egiaztatu ahal izan ziren azaroaren 26ko 30/1992 Lege horren 137. artikuluko 3. puntuan emandako aginduetan oinarrituz, kasu guztietan agintearen agente izaera zuten funtzionario publikoak izan zirelako salaketa egin zutenak. Dena dela, egiletasunari dagokionez ezin da gauza bera esan, zeren eta poltsen barruan halako zerbait, dokumentuak gehienbat, aurkitzeak eta dokumentu horiek salatutako pertsonarekin zerikusia izateak ez du esan nahi, beste frogabiderik ez dagoen bitartean, pertsona hori izan zela zabor poltsak baimendutako ordutegitik kanpo atera zituena. Arartekoak aztertu dituen kasuetako bakar batean ere Administrazio eskudunak ezin izan du frogatu espedientepean jarritako eta ondoren zigortutako hiritarra izan zenik zaborra

atera zuena. Bada, hala eta guztiz ere, pertsona horri berdin-berdin ezarri zaio lege antolamenduak dioena, zorroztasun handiz bezain arrazoi gutxiz.

Ordutegiak errespetatu beharrari dagokionez, udal ordenantzetan arau haustetzat har litekeen ekintza bakarra zera da: kale-garbiketa zerbitzuek jasotzekoak diren poltsa edo bestelako gauzak baimendutako orduetatik kanpo uztea bide publikoan. Utzitako gauza horiek halako etxebizitza batetik irtenak izan ahal izatea ezin da erabili ondorioztatzeko familiburua dela arau hauslea, ez eta egin bide den arau hausketaren erantzunkizuna berari leporatzeko ere. Zaborrak uzteko ordutegiari dagozkion arau hausteen egileak materialki ekintza hori egiten duten pertsonak bakarrik izan daitezke.

Gai honi buruzko informazioa eskatu diegun administrazio batzuek beraien erabakia justifikatzeko arrazoi bezala esaten dute hiriko garbitasuna eta osasungarritasuna ziurtatzeko beharrezkoa den plangintzaren barruan hartu behar izaten dituztela neurri horiek, hiritarrei ezartzen zaizkien obligazio horiek ez direlako betetzen kasu askotan. Gure aburuz, ordea, administrazio ekintza batek sekulan ez du arrakasta edukiko, baldin eta komunitatearentzat onuragarri eta osasungarria den helburu bat lortzeko, hiritarren funtsezko eskubideak kaltetu beharra badago.

Aurreko guztia ikusita, eta emandako arrazoietan oinarrituz, Arartekoak uste du ezin dela deduzitu halako lege hauste administratibo arautu batean (kale-garbiketa zerbitzuek jasotzekoak diren poltsa edo bestelako gauzak baimendutako orduetatik kanpo uztea bide publikoan) egiletasuna halako pertsona bati edo gehiagori dagokiola, poltsetan pertsona horiekin zerikusia duten gauzak aurkitu direlako. Frogabide bakar horrekin hiritarrei ipinitako zigorrek argi eta garbi hausten dute errugabetzat hartua izateko eskubidea.

VIII. ATALA
AZKEN ONDORIOAK

Ararteko erakunde hau sortzen eta arautzen duen 3/85 Legeak 32.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, urtero Legebiltzarrari aurkezten dion txostenean Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen babesari buruz dagoen egoeraren balorazio bat sartu behar da.

Balorazio hori, Arartekoak bere eskuduntza esparruaz daukan zuzeneko ezagutzatik abiatuaz egiten da, eta hori bere ihardueren azterketaren eta kexen ebazpen eta ofiziozko ihardueren bidez zehazten da, euskal administrazio publikoek hiritarren eskubideen aurrean daukaten jarrera horrela argitzen delarik.

Beraz, balorazio honetan ezin dira kontuan hartu Arartekoak zuzenean ezagutu ez dituen eskubide hausketak, edo bere kontrol esparruaren menpe ez dauden administrazioek egin dituztenak.

Arartekoak eta Estatuko gainerantzeko parlamentuetako ordezkariek aurkezten dituzten txostenetan behin eta berriz esaten da Espainiako Konstituzioak I. ataleko II. kapituluko lehen sailean jasotako eskubideen hausketagatik kexa gutxi aurkezten direla. Aurreko urtean berdin gertatu da.

Joan diren urteetan bezala, kexa gehien eragin dituztenak eskubide sozial deitutakoa eta Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua ez betetzeagatik aurkeztu dira, aipatu artikuluak administrazio publikoei agintzen baitie eraginkortasun printzipioaren arabera eta Legean eta Zuzenbidean osoki oinarrituaz eta interes orokorrei objetibotasunarekin erantzunez jokatu behar dutela.

Hiritarrei zarata, ke eta usainengatik eragiten zaizkien kalteak etengabeak dira gure hirietan, eta horrek udalei jokaera erabakiorragoa izatea esijitzen die, ezin baitute ahaztu sailkatutako iharduera horiek administrazioaren etengabeko kontrolpean egon behar dutela, eta horregatik hiritarren eskubideak bermatzeko ikuskaritza lanak egin behar dituzte.

Betekizun hori industri ihardueren funtzionamenduak eragindako kutsadurari dagokionez ere esijitzekoa da, neurri zuzentzaileak jartzeko eskariari lanpostuen mantenimendua kontrajarri nahi zaiola dioen eztabaida faltsuari aurre eginaz.

Justizia Administrazioaren funtzionamenduan dauden arazo larriak epaiak emateko epeen gehiegizko luzapena eta epaien exekuziorik eza dira.

Bestalde, askotan planteatzen da baita ere justizia ebazpenekiko desadostasuna, batez ere gizarte segurantzaren prestazioa ukatzen duten epaien kasuan, nagusiki elbarritasun pentsioen eta familia unitatea hausten den kasuetan behin behineko edo betiko neurriak ezartzeari dagozkien kasuetan alegia. Erakunde honek epaiak eman ondoren ihardueraik burutu ezin duen arren, bai aipatu

behar ditu gertatzen diren arazoak, kasu horiek eragindako pertsonen bizitzan eragin handia daukatelako.

Aipatzekoa da Autonomia Erkidego honetan nahiko normaltasunez ezarri dela indarrean derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloa. Eskola-mapa berriak eta irakaslegoaren berrantolaketak ez dute arazo handirik eragin.

Berdintasun baldintzetan lanpostu publikoak lortzeko orduan hautaketa prozesuetako edozein diskriminazio mota kendu beharra dago, bai deialdietan eta baita proben garapenean ere. Horregatik, Osakidetzaren Lan Eskaintza Publikoaren kasua bezalako hautaketa prozesuetan horrelakoei berezkoak zaizkien kexa ugari planteatu zaizkie: lehiatzaileak onartzeko tramiteak, sarrera baldintzak, epaimahaien zuzenketa irizpideak, etabar.

Osasun prestazioen aurrean hiritar guztiei aitortu behar zaien berdintasun printzipioak kexa batzuk eragin ditu, osasun alorreko prestazio batzuk lurralde guztietan berdin ezartzen ez direlako.

Sozialki desfaboretuta eta estigmatizatuta dauden kolektibo ezberdinei laguntzeko gizarte zerbitzuen eskaria azpimarratu behar da, esate baterako IHES gaixotasuna daukatenena, gure gizartean drogamenpekotasunak eragiten duen zokoraketak asko kaltetu baititu, edo elbarri psikikoena.

Azkenik, administrazio publikoek zergak biltzerako iharduerетan izandako zenbait jokabideren aurrean zergapekoek bizi duten defentsarik eza aipatu behar da.

GAIEN AURKIBIDEA

ABOKATUEN BAZKUNDEAK
ebazpenen argudioak, 223

ADIN TXIKIKOAK
hezkuntza, 448
telebista, 128
internamendua, 224

ADMINISTRAZIO PROZEDURA, 435
zigor prozedura, 461
trafikoa, 212, 213, 214, 216
zerga-prozedura, 192, 194, 196, 197, 198, 202
administrazioaren ardura, 181

AITON-AMONAK
egoitzak, 29

ALDI BATERAKO FUNTZIONARIOAK, 164

ALKOHOLEMIA
kontrola, 219

ATZERRITARRAK, 67, 58, 223

AUTONOMIA ERKIDEGOKO TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK, 204

BAKERAKO HEZKUNTZA, 67, 75

BAKEZALEAK, 67

BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA, 193

BANAKAKO OSASUN PRESTAZIOAK, 245, 246

BASO USTIAKETA, 235

BEREZKO BIKOTEEN ALARGUNTASUN PENTSIOAK
ikus emakumeak

DELITUAREN BIKTIMAK
eskubideak, 221

DESJABETZAK, 237

DROGAMENPEKOTASUNAK
kartzelak, 71, 222
errehabilitazio zentroak, 244

ELBARRITASUNAK
oztopo arkitektonikoak, 254
PFEZ, 191
pertsona elbarriak, 254
keinu bidezko hizkuntz itzultzaileak epaiketan, 225

EMAKUMEAK
komunikabideez baliatzeko aukera, oinarrizko eskubidea, 141
berdintasun baldintza funtzio eta kargu publikoetarako sarreran, 184
kartzelak, 223
PFEZ, 209
kultur ekitaldiak (Alardea), partaidetza, 130
alarguntasun pentsioak berezko bikoteetan, 99, 250, 251
generoaren ikuspegia, 80

ENPLEGUA
laguntzak, 250
lortzeko diskriminazioak, 427

ERAIKUNTZA
akatsak, 259

ERREHABILITAZIO ZENTROAK
ikus drogamenpekotasuna daukatenak

FAMILIA
PFEZ, 209
ugariak, 439

FORU ALDUNDIEN TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK, 204, 207

FUNDAZIOAK, 183

FUNTZIO PUBLIKOA
hizkuntz gaitasuna, 174

sarrera, hautaketa irizpideak, 165, 170, 184
postu hornidura, 161, 179
sarrera-probak, horiek egiteko iragarkia, 171, 177

GAIXO MENTALAK
psikiatrikoak, 32, 248
trasladoak, 248

GARAPENERAKO LANKIDETZA, 71

GUTXIENGO KULTURALAK, 58

HAURREN TXERTAKETA
egutegia, 243, 246

HIRI ANTOLAKUNTZA
hortik kanpo, 253, 255, 258

HIRIGINTZA GARAPENERAKO PLANEAMENDUA, 255, 257, 435

HIRIGINTZA
lizentziak, 253, 255, 256, 258

HONDAMENA
aitorpena, 255

IBILGAILUAK
erretiratzea, 212

IHARDUERA GOGAIKARRIAK, 229, 230, 231, 232, 234, 457

IKASLEAK
onarketa, 150, 152, 157
hezkuntza-premia bereziak dauzkatenak, 153

IKASTEGIAK, 148, 448

INSUMISOAK, 71

IRAKASKUNTZA UNIBERTSITARIOA
irakasle premiak, 152

IRAKASKUNTZA EZ UNIBERTSITARIOA
hezkuntz-ereduak, 156

IRAKASKUNTZAKO FUNTZIO PUBLIKOA, 161, 164, 172, 179

JABETZA PRIBATUA ETA HERENTZIA
eskubidea, 124

JAIOAURREKO DIAGNOSIA
probak, 247

KALABOZOAK ETA ATXILOKETA ZENTROAK, 24

KARTZELAK, 33
aurrekari penalak, 427
enplegua, laguntzak, 250
kartzelatik ateratzea gaixotasun larriagatik, 222
kartzela zigorra, non bete, 222
ikus, baita, atzerritarrak
ikus, baita, drogamenpekotasuna daukatenak
ikus, baita, emakumeak

KEINU BIDEZKO HIZKUNTZ ITZULTZAILEA EPAIKETAN
ikus elbarriak,

KOLEKTIBOAK, 67

KULTUR EKITALDIAK
partaidetza, 130
ikus emakumeak

KUTSADURA INDUSTRIALA, 229, 230, 231

KUTSADURA AKUSTIKOA, 229, 230, 231, 231, 232, 234, 457

NEKAZARITZAKO ERAKUNDE PROFESIONALAK
dirulaguntzak, 122

OINARRIZKO ESKUBIDEAK
komunikabideez baliatzeko aukera, 141
berdintasun baldintza funtzio eta kargu publikoetarako sarreran.
ikus, baita, emakumeak
epaiketa arrazoirik gabeko atzerapenik gabe, 221
erlijio askatasuna, 170
errugabetasun ustea, 181, 182, 461

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA,186

OSASUN ZERBITZUEN ERABILTZAILEAK
eskubideak, 243

OSASUN GASTUAK ITZULTZEA, 245

OSASUNEKO FUNTZIO PUBLIKOA, 165, 170, 171, 177, 243

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK
ikus elbarritasunak (pertsona elbarriak)

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA, 188, 190, 192, 192, 194, 195
ikus, baita, familiak
ikus, baita, elbarriak
ikus, baita, emakumeak

POBREZIA, 58, 100

POLIZIA
iharduera, 218

SALMENTA IBILTARIA, 126

SASOIKAKO LANGILEAK, 58

SENDAGILEAK
ordezkapenak, 243

TAO, 213, 214

TELEBISTA, 237
ikus adin txikikoak
ikus emakumeak

TIRO-ZELAIAK, 232

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA, 202

TRATU TXARRAK, 67

TRENA
tarifak, 240

UDAL ZERBITZU PUBLIKOAK, 240

UDALEN TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK, 198, 200, 240

UNIBERTSITATE IKASLEENTZAKO GARRAIO
erabilera berezirako baimena, 238, 239

UNIBERTSITATEKO BEKAK, 150, 195

ZERGA-LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOA, 200